

GURE INGURUAK

© AUGUSTIN ZUBIKARAI

Depósito Legal: BI - 2.200 - 1 982

Imprime: GAUBEKA Irarkola
GERNIKA

AUGUSTIN ZUBIKARAI

GURE INGURUAK

**EUSKALERRIKO ERRI
BATZUEN IKUSPEGI LABURRA**

1982

SARRERA

Irakurle:

Zareana zareala, adiskide:

Urte batzuk dira, gure inguruko erri ta auzoetatik zear ibili edo igaroteap, euretako jakin-garri batzuk ikusi ta agertu, entzun eta jakin, edo ta irakurri ta zabaltzeko zaletasuna artu nebala.

Orrela, galdu zan «Agur» asterokoan, edo gure egunkarrietan argiratu ziran emen datozen ikuspegi batzuk. Beste batzuk irratis esan. Edo ta oraintxe lenengoz kale-ratu.

Erri bakoitzeko agerbide aza/ak dira.

Ariñak geienak, sarri jolasetan lez egiñak. Samurrak bestetan edo ta errukitsuak. Beti be aize leun batek erraz gozatzekuak.

Ez dot ukatuko tartetan zirikadak diranik, edo ta biozkadak.

Baiña au da egia: guztiak gogo onez eta leialtasunez egiñak dirala. Etxekotasun jatorrez eta nortasun orren berezkotasunez.


Gaur arin gabiltz eta urte gitxitan aldaketa sakonak egin dira errietan. Errien izenak eurak eratu egin dira. Origait/k ikuspegi batzuk, gaur-gaurkoz, zeaztasunen bat galduta euki leikie. Edo ta izenetan edo deituetan lengo ugarra. A/az eta, argazki zarrak atsegiñez begiratzen diran lez, a/axe ikusi egizuz nire «flash» onek.

Erri ta inguru batzuetan euren utsunea artu leikie. Ez dira aztuta gelditu. Oraingoz eskutuan gelditzen dira eza-gun eta begiko diran erri batzuk. Parkatu. Zaartu eta lodituta be, oraindik ibilteko gogoz nabil eta idazten jarraitzeko asmotan, euskeraren morroitzan zerbait egiteko al garean artean.

Besterik ez.

Ondarroa 'n 1982 'ko A zilla 'ren 25 'an

Egilleak



ABADIÑO

Arre arre astotxo,
arre arre kon kon...

Ez dira gabonak. Joan diranak baiño urrunago dagoz etortekuak. Abadiño'ko ferietan gagoz. San Blas'ak.

«San Blas eta Santa Agedako feriak, mutil-neskatxen ezaupideak». Indarrrik emongo dautsagu esake?a orrerí? Abadiño'n ez. Geienez beintzat. Beste au bai: «Abadiño'n astoak ere burua laudatzen».

Etorten ete da orain iñor Abadiño'ra astoak erostera? Etorri edo ez, beste erritar esaera bat be gogoratu dagigun: «astoak ardaa ekarten dau eta ura edaten». Orixe gertaten da emen. Gero ta jente geiago dakarre izen zarreko feriak. Baserrietan biarrik sekula ez dala falta esaten dabe. Ferietarako gogorik be ez. Eta jakiña, ferietan danak ondo. Ondo baiño obeto, asko, astoei ura edaten lagata.

Abadiño'n, San Blasetakoa gertaerak kontu alai eta akulukeri asko sortu izan dabe. Geienak aoz-aozka esanak. Ijitokeri asko. Eta zegaitik ez baserritarkeri asko be?

Arrese Beitia, otxandiotar «santugiñak» ondo ezagutzen eban Abadiño. San Blasetakoa peria be bai. Origaitik Txanton Arabarra eta bere auzoko Matxin aukeratu zitun bere lantxo bateko gizon barregarri lez, alkarri ziria sartu eta taketa jo nairik agertuz, azkenean kontseju on bat gogoratu erazitoko

Esaera zar bat da guraso zarrena,
laster jausten dirala guzurre ta errena».

Abadiño'ko asto zarrak iñoiz etxera eldu orduko jausi ziran lez. Eta askotan ez asto ta ez poltsa geratu eragin.

Agiñeko miñekin zabiltz? Ez etxean egoera ori luzatu alako edo olako erremedioekin ezin igarri eta kenduta. Abadiño'n laster emongo dautzue on bat: Zoaz Urkiola ingurura, Santa Poloni'ren ermitara. Obeto esanda, Erremedixoetako Amaren ermitara, lengo santa ori bertan dago-ta. Oiñez obeto, bestelako aukeretan baiño. An, ermita ondoan, ba dago ur iturri bat. Zenbat eta otzago, obeto. Bete aoa urez. Emon iru buelta ermiteari ura aoan daroazula, edo ta miña eutsi eziña ba da, zazpi aldiz, eta azkenean, eleiz atean gelditu eta bertatik barrura jaurti aoko ur ori. Eta itxaron, Poloni deuna errukitzen ete dan. Agin ataratzallea baiño merkeago da, jakiña, miña baretzen ba da. Orra, erritik urten barik, -Urkiola Abadiño da ta-, aukera on bat.

Erremedixoetako ermita au, bertan jarten daben lez, 1515 urtean egiña da. Ez da bakarrik agiñeko minduak aukeratua. Beste min askorentzat be ba dauka joera. San Antoniotan askok asten dabe bertan, oñetakuak kendu ondoren, ortozik egiten dakien ibi-llera.

Eleiza ederrak daukaz Abadiño'k.

Erri barruan bat. Lengoa, zutik egonarren, 1 599 urtean egin zan lenengo barriztatzea, arriskuz beterik egoala eta 1763 urtean barriro barriztatzeko erabagia artu zan. Tomas Basterretxea gertu zan ori egiteko. Orduko paperak diñoenez, 106.853 errialdetan. Geroagoko urtetan irakurri daitekenez, bost bidar geiago kostatu zan amaitu orduko. 1819 urteko agirietan esaten da, aldare nau-sia pintatu, dotoretu eta urreztuteko premiña zala dana amaitzakoatzat emoteko bete bear zana. Orretarako eskari berezi bat egi-tea erabagi zan.

Abadiño'ko lurretan dago baita Urkiola'ko San Antonioena. Eleiza ezaguna. Bear ba da Euskalerriko inguru geienetatik jentea eroan izan dabena.

Askok egiten dio San Antonio'ri

Egun batean joan eta bestean etorri.

Len askok be askok. Promesa edo agindu astunak ezin beteta gaiñera. Soiñari, gorputzari neke eta min ugari emoten eutsen promesak, eta goguari, espirituari estutasun eta larrialdi gaiago, bete arte. Gaurko gure semeak libreago bizi dira siniskera askoren betebearretatik edo borondatatetik.

Urkiola barriztua gelditu da azken urtean. Txukun. Eta gaurko izakerako bizia emon nairik.

Abadiñotarrak, urtearen buruan, nora jo euki izan dabe ermi-

tetan. Fedea nasaitu eta gorputzari atsedean emoteko egun ugari. Ogeiren bat ermita kontaten dira bertoko lurraldetan jasoak. Erreskada ederra letanietarako, bateri otoi eta beste, a ixilduz etxe barruan eta kontzientzietan asarrerik ez sortzeko be. Ainbeste ermitetan beste ainbeste edo geiago laguntzalletan. Umegintzan estu ebizanak, esate baterako, Gatzarritako Andra Mari bateri eskintzen ekien argitarako orioa. 1803 urtetik eliza au galdua dago, baiña irudia Mendiola'ko San Cristobal'en dagon berbera dala diño.

Ermitak, Euskalerrian, ezaupiderako tokiak be izan ziran. Gaur lez nun batu edo nun alkartu ez egoan garaietan, ermita ondoetako erromeriak famili askoren ezaupiderako bide izaten ziran. Eta maitasun barriak esnatzeko. Origaitik ermitetako jaiak garrez itxaroten ziran. Ez da ba arritzeko ermitak egin eta jasoteko borondaterik onena igartea orrelako errietan. Auzo lanez egiñak geienak. Toki askotan lana eta al zana eskintzen ziran. Emen, Abadiño'n, asko izan ziran arbolak eskiñi ebezanak eleiza egiteko laguntasunerako.

Azkue'ren kantu liburuetan ba dator lo-kanta samur bat. Biguna, bai eta ezten zorrotzez esana be.

Oba obaxua txuntxulun berde,
oba obaxua masusta,
aita gurea Bitorian da
ama mandoan artuta.
Berreun dukatxu kastatu ditu
benta barrian sartuta,
beste ainbeste emongo leuke
ama salduta ba leuka.

Zeñik zirikatu ete eban ama gaztea bere aitaren pikardiak ainbestean seiñari jakin erazotera? «Ximelgorri'ren batek?» Alaxe deitzen dautse Abadiño'n sorgiñen lagun eta lankide diran abere (animali) txikitxoei. Mamarroren bat ba ebillan ama gazteak. Abadiño'ko lo-kanta au or gelditzen da gaurko kanta egille askori ziria sartzen.

Durango'k izena eta Abadiño'k izana, esaten da. Askok Durango deitu, baiña Abadiño'k burua nausitu.

Alaxe gertatzen da. Durango inguruko lur asko Abadiño diralako. Matiena, esate baterako. Eta San Antonioetan be Durango'n jaiak baiña Abadiño'n eztaiak. Durango'n santsuak eta Abadiño'n diruak.

36 km. lautu daukaz bere lurraldetan. Erri-buruari Zelaieta be deitsen dautse. Beste auzoak Gaztelu, Gerediaga, Matiena, Men-

diola, Muntzaraz eta Urkiola. Gaur jenterik geien Matiena'n bizi da, erri buruan bertan baiño geiago.

Azken denporetan industri barri asko sortu dira auzo onetan.

Abadiño'k, bere auzoetan ez bardintasun asko dauka, bai lanetan, bai eta bizilagunez be. Batzuk lengo bizikera jatorrez jarraitzen daben artean, besteak bizi bide barrieri lotuta igarten dira.

Ikusgarri politak dagoz Abadiño'n:

Muntzaraz torrea, bere ibiltoki edo euzki lekua askoren begiragarri dala. Ba dago bere antzeko beste bat Gordexola'n Urtusaustegi torrea izenagaz ezagutzen dana.

Abadiño'ko Iñigo'ren Torre-etxea. «Ad laudem et gloriam Dei sita fuit hicc anno 1 591», diño atadi gaiñeko arriak.

Astola etxea eta Gerediaga'ko batzar etxea. Eta ezin bastertu lau «Gazteluak».

Gerraetako jakingarri batzuk be entzuten dira bertan, batez be karlatar eta liberalen denporetakuak. Alderdi bi oneitako lagunak alkar billatzen ebenian burruka gogorak egiten ebezan. Orreitarako bat 1876 urtean egin eben, ia gerrako azkenetan. Karlistak Elgeta aldetik aldendu ziran Gipuzkoara.


Beste jakingarria; Bergara'n 1839 urtean egin zan alkartzee do paktoa gertaten emango lurraldetan batu ziran, ixillean, eskutuan, Espartero eta Maroto generalak.

Eta San Torkuato parrokiko ormak itz egingo ba J.ebe... Jauntxoeren denporetan orma orreitan iragarten eban orreitariko batek beste batentzako aupada, desafixua. Eta eleiz oneri aurreko zelailan egiten eben alkar arteko burruka, itsukeriz bakoitzaren arrotasuna zaindu nairik.

Probalarieren erri ezagutu da, bai eta pelotari onena be. 1941 urtean, bertako seme Agirre batek irabazi eban palazko pelotarien txapela.

Orain gizaldi bi ta erdi, entzute andia euki eban eleiz gizonen artean Ezterripa eta Traña-Jauregi batek. Mallorca'n il zan bertako gotzain lez 1721 urtean. Ordurako 15 urte ba eroazan goztaintzan. Gazte zala emon eutsen altasun ori, 38 urte eukazala. Berak lortu eta bera il ondoren ekarri eben Abadiño'ra Torkuato deunaren erlikia.

Orra Abadiño'ko istori txikiaren zerbait. Orain San Blasetan, landatan gabiltz. Beietan. Itxasotik 1 33 metro goratzen da Zelaieta. Urrengo baten, Abadiño'tik bertatik urten barik, itxasotik 750 metro goragoko aizeak artzen ibilliko gara.



AGINAGA'tik BARINAGA'ra

Zenbat erri dagozan Aginaga deitzen diranak?

Egia esateko, erri izatea osoan daukenik, bat bera ez.

Begira: Napparroan bertan, iru-lau beintzat. Bat Iza errialdean, Iruña berberaren inguruan. Auzo txiki bat: 50 bizilagun. Baiña erri askok gura leuken Irutasuneko (Trinidadeko) imagiña bat dauka bere elizan. Frantzetarren eskolakotzat dauke. XIV garren gizaldikoa askoren ustez. Ederra.

Beste Aginaga bat Lizoain errialdean egiten da, au be Napparroan. Txiki, 20 bizilagun. Eta beste bat geiago Arakil ondoan.

Gipuzkoa'n ezaguna da Donosti aldeko Aginaga. Ez da erri osoa, erri lege jaubeduna, Usurbil'go auzo bat baiño. Nai eta bertako angulak dirala-ta, garbi esanda, bertatik saltzen diran angulak dirala-ta, inguru guztiotan nortasun oso eta betez ezagutua izan.

Beste Aginaga bat, Bizkaiko mugan dago: Kalamua mendia-
ren azpian, Eibar eta Markina bitartean.

Eibar'tik, Arrate ingurutik zear, Ixua eta Usartza igaro orduko, Bizkaiko Barinagara eldu baiño len, an ikusten da, bide-barria baiño goratxoago, kamiñu nausiaren gaiñetxoan, Aginaga au. Eibar'en auzoa da, nai ta askok Bizkai'ko Aginaga deitu.

Parroki bat, ez lenengotako zarra, eta iru-lau baserri-etxe eta eskoletxea. Eun lagun inguru danetara be. Beratzen. Inguruan, piñadiak. Bakea.

Eleizan, sartueran, ur bedeinkatu-ontzi polita. Aingeru bik eusten dautsen San Andres'en eskudoa erakusten dabela.

Erriz, Eibar. Eleizaz, Eibar'ko artxiprestaduko.

Auzo-alde au, orain lauren urte ingurutik ezagutzen da. Lengo gizaldiaren asieran 24 baserri-etxe eukitera eldu zan.

Abade euskera-zalien tokia?

Urte askotan ezagutu neban bertan don Felipe Iturbe bat, euskaltzale jatorra, gizon ikasle eta jakintsua.

Geroago, Eibar inguruan «Piñu-abadia» lez ezagutzen zan Inozenzio Munita jauna be bertan bizi zan. Abade onek bere larogetak urtetan liburu eder bat laga euskun. «Gure mendi eta oianak». Gipuzkoarra zan. Leaburu'n jaio eta Arama'n il.

Inguru oneitan maite eben bera eta baserritar askori emon eutsen ikaspide ugari, eta errespetua sartu be bai, etxe inguruko arbola eta zugatzak jaramonik barik gaixoa batzen ikusten zituan.

Zugatzak, arbolak sartu bear zirala ta ainbat bidar ekin eutsan lanean. Bere liburuan argi ikusten da bere pentsakera. Artzaiñakin itz aspertu bat deitzen dautsan zati baten au diño: Ardiak izketan balekite ez ote lioteke beren jabeari esango: Zergatik egon bear dezute, ta noiz arte, an-or emen zuaizti batzuek jartzen asi gabe? Buru-gogor berekoiak izaten ere ez dakizuten kaikuak zeratelako?

1952 urtean atara eban bere liburua eta kritikoak txalo asko jo eutsen, berak erabillan euskereagaitik eta batez be bere asmoakaitik.

Aginaga'n eleiza ikusi eta sakristauagaz gogoratu ez? Pekatu litzake ori.

Gaur Euskalerriko kirol edo deportien artean palankaririk ez da ezagutzen. Agertu be ez da egiten palankaririk, erri txikien bateko jai edo desafioen baten izan ezik. Baiña iñoiz euki izan eben palankariak euren bete-beteko entzute eta izena. Euki zituen euren adiskide on eta beruak. Bear ba da luzaro gure errialdean ezagutzen zan gizon-jokorik zabalduena, palankarien deporte zan. Pelotea baiño gogotsuago eta errikoiago zala esaten dabenak be ba dira.

Jakiña, len, arrioletan, kanteretan, palankariak egoten ziran. Ortarako bete betez gertuak ziranak. Gaur, geienetan, motorren indarrez egiten dira zuloak. Origaitik gaur palankari jatorrik ez da agertzen.

Palanka jaurtitzeko era ezagunenak, oneik ziran: Bularrez, au da, petxuz; ankape edo istarpe eta biraka edo bueltaka.

Emen ezagutzen ziran palankak metro erditik eta metro bira-koak ziran. Eta zortzi libratik 25 libra bitartekoak, pixuz.

Palankariak gizon indartsuak izaten ziran. Indarra bear amar librako palanka bat 122 oin luzean jaurti al izateko. Alako marka eukan Martin Elola, Bidaniarrak. Eun eta irurogei kilo inguruan ibiltzen zan gizon aú bere pixuan eta 1 76 kilo eukitera be eldu zan.

Ba dira berari egiñiko bertso batzuk:

Bidaniako Labakan jai,
erantz ontan dagoena,
Elola deitzen da izengañez
Juan Bautista du izena.
Nik oraindiño ikusi dedan
gizonik egokiena,
seme leiala, altu, prestua,
euskaldun on da zuzena,
mundu guzian gaurdaño izan dan
palankaririk onena.

Pedro Mari Otaño'ren bertsuak dira.

Ezagunak ziran baita Artazo Elgoibartarra eta Patxi Olabarrietan, mutrikuarra.

Eta gure gizaldi onen asieran, Iparragirre, Jaka, Martiartu, Esnaola eta beste batzuen artean, Aginaga'ko Sakristaua ibiltzen zan. Iñok ez eban esaten bere beste izenik. Danak Aginaga'ko sakristaua, ta kittu. Eun oin luzera jaurtiten ei eban amar librako palankean isterpe jaurtiteko eran. A gizona, a!

Aginaga'tik Bizkaian sartu geinke. Andik berantza, Barinaga billatuko dogu, Etarri baiño len. Lurrez, erri legez, Markiña. Elizaz, bere jaube. Irureun bizilagunik ez gaur. Iñoz euki zitun, baiña baserriak ustu egin dira emen be.

Auzo au iñoz izan zan erri txiki be. Eta ia diru batzalle baten kontura bizi. Arek egiten eban bertako gora-bera guztia. Berak kobratu eta berak ordaindu. Ori bai, tartetan, erriko gizonei kontu emonda.

Eleiza, iru-lau etxe eta taberna bi, kalea deitu leikion inguruan. Errotan ez da lorik galtzen errotarrien zarateagaz.

Eleizan aldare ederra. Bariñarrak euki zituen asarreak Markiña'ko parrokiako patroiekaz. Euren nortasuna, izatea zaindu nai berriakoak. Ala, 1552 urtean irabazi egin eban auzia eta arrezkero jaubetasun osoko parroki lez geratu zan.

San Pedroz egiten dabe jai. Elizakoa, konbidautza eta dantza. Ortik ez dabe urteten auzo txikiak. Tradisiño bat: elizakoa. Arrotasun bat: maikoa. Eta lenakoena: dantzan obeto daki artajorran baiño.

Lana, biarra, bertakoak, Markiña aldean billatzen dabe. Gaurko bizi bidean, lengo errota eta abar, etxe uts gelditu ziran. Eta errentetatik bizi al izatéko, bizi-modu karua dago gaur. Emendik Eibar'era joaten dira plazakoagaz Eibar'en esakera da bariñarrak indiarra be urte biurtzen dabela. Baiña emengoak erantzun, eibartarrak eurak ez dabela bizi modurik merkatuten. Betiko katea eta kakuak.

Bein Barinaga'n sartu ezkeru, ezin bastertuta laga bertako seme jator, argi, ekintsu eta gizatasunaren mesedegille bat: Arizmendiarieta eta Madariaga tar Jose Mari. Abade ikasle zala, Barinaga'ko toki guztien euskal izenak batu zitun, eta euskeraz idazten eban. Gero, abade egin ondoren, Arrasate'ko kooperatiben ekintzaren ameslari eta auspoa izan zan.

Barinaga'ko Iturbe baserrian jaio zan. Arrasate'n il, 61 urtedun, 1976'ko Azilla'ren 29'an.



AMOROTO'tik MURELAGA ra GIZABURUAGA'n Geldituta

Gaitz ete da euskaldun izatea?

Pelay Orozko'k liburu baten esaten dau iñoiz entzun izan dautsala Oteiza tailugilleari (eskultoreari) miñez esaten: Zelako gaitza dan euskaldun izateal

Bai?

Ni Amoroto'n sartzen naiz gaur, eta Oleta'tik zear Gizaburuaga'ra jo, andik Aulesti'rako asmotan.

Eta euskaldun sentiduten naz, neke eta gaitz barik.

Erri aizetsua Amoroto. Aize garbi, gozo, atsegiña.

Gain gaiñetxo baten.

Mendi ederrak aurean, inguru guztietan.

Itxas aldeko aizeei musu emonaz, Mendexa'ko etxadiak. Etxadi zuriak. Sasoi bateko Uskola'ko San Pedro.

Ba dauka niretzat tengarri bat Amoroto'k. Belakola baserriko odola ba daukat, galdu ez ba da beintzat, nire odolean. 1750 inguruan an bizi ziran Gabiola Ikarandarrak laga eusten zerbait.

Amairu kilometro inguru daukaz Amoroto'k. Iru auzo: Odiaga, Ugaran eta Urrutia.

600 lagun eta berreun etxe, batez beste, gitxi gora bera, daren artean.

Orain bosteun urte, 37 etxe eukazan. Eta 140 lagun konfesa-
ten ziranak.

Gero geitzen joan zan, lurren onuraz eta lanaren arduetan.
Baiña azken urteotan gitxitzen igarten da.

Erri barruan, pelota toki polita, proba lekua eta eleiza txukun
bat. San Martin'en omenez, 1 51 9'n jasoa. Aldara ederra, Juan D.
Andonegi'k egiña.

1504 urtean Calahorra eta Calzada'ko gotzaiñari lau milla
dukat inguruko «censo» bat artzeko baimena eskatu eutsan, eleiz
barria egin al izateko.

Eleiz ori amaitu zanean, 1519 urtean, Lekeitio'ko Eleiz nagu-
sitik banandu zan, eleiz legez. Ordurarte bere menpeko zan Amo-
roto'ko eleiza.

Eta geiago?

Ba orixe: euskal bizitza.

Lana eta bizikera jatorra. Oitura garbiak, mai ona, umorea...
Eta erri guztitakoa gaur: pagadi eta ariztiak, eta solo zabalak be
bai, piñadie leku egin eta zabalitzen.

Nai eta gaur, piñadiak be, aitzaki ugari euki. Len aiña urre ber-
de ez ei dabe emoten.

Oleta.

Lekeitio, Gizaburuaga eta Amoroto ta Plazakola'rako bide ku-
rutzea.

«Oletan,

Pasku astelenean,
neskatillak olgetan
santu bako jaiean».

Ala esaten dabe. Eta ezin ukatu ori be euskal bizitza danik.

Beste bertso batzuk be esaten dira:

«Oletan

amu arraiñak, Lean;
illuna orduko
platerean».

Au bai, au euskal bizitza jator jatorra da.

Gizaburuaga.

Antxiña Ibaibaso deitzen eutsen.

Gerra lako bat egon ei zan bertoko lurretan. Eta origaitik, lo-
tsari lez, erriari izena aldatu. Gaitz da ori sinistutea.

Euskaldun batek, bestaldetik, ezin ontzat artu lei Delmas'ek
ipinten daben etimologia, erri izenaren esan naia: Gizaburuaga=
hombres sin cabeza.

Kaskar geiago bear da, ori baiño, olako etimologi bat agertze-

ko.

Taberna bi, aterpe ta guztiko pelotatoki bat eta eleiza, erriko tokirik kerizpetsuenean.

Bizkaitik erririk txikiena.

Ba dira oraindik Oibar'ko Ama Birgiñari promesaz joaten diran itxastarrak, batez be azaleko gaixoeícaz.

Oibar'ko Amaren irudia, gotikotik Pizkunde bitarteko imagiña da. Euskalerriko imagiña asko dira garai orretako. Gizaburuaga'ko onek ba dauka beste agerri bat: Ume Jesus'en irudia, zutik dago, beste askotan jezarrita egoten dana.

Eleizako pitxirik ederrena, arteari buruz, Bilbao'ko Museo Arqueológico y Etnográfico dago. XVI garren gizaldiko flamenkoen eskolako irukoitz edo triptiko bat da.

1519 urterarte, Santa Cecilia'ri eskiñitako eleiza au be, Amorotokoaren antzera, Lekeitio'ko eleiz nagusiaren menpeko zan.

Murelaga aldera goazela, bidearen ezkerretara, Okamika baserriaren aurrean, (denporetan Okamika etxe au torrea zan), antxiñako burdiñola bat, gaur utsik.

Amaseigarren gizaldian ezagun izan zan Okamika'ko Lope, «Txope Bizkaitarra». Teologo entzutetsu zala, ibillaldi baten, Alemani'ko Colonia'n eremutar praille batzuk ezagutu eta bertan prailletu zan. Urte luzetan zintzo jarraitu eban ordena orren gogortasunean.

Okamika ingurutan sagarraren etorkizunari begira bizi dira gaur.

Gorago, Landeta'tik zear, piñadiak, Ispaster'eko lurrak jo arte. Goian, aurrez aurre, Lekeitio'tik Gernika'rako bidean ikusten dan aize errotea.

Solo egal baten, lanez okertu eta tximurtutako andra bateri itandu dausat:

-Zer daukazue ederrik emen Gizaburu'n?

-Txarrik ba al daukagu?

Pozik geratu da bere urteeragaz.

Pixka bat zirikatzearren nik:

-Zuk urtetxu asko daukazuz eta gogoratuko zara emengo pasadizu andien bategaz?

-Gogoratu ez?

Gure amumem amumengandik ikasia gañera. Ingurutako gizonik andiena ementxe bizi zan gero! Beste iñok egin ez ebana egin eban arek, gero!

-Zer?

-Or, Aulesti'n, jentillak Olerri'n etxia euki eta bizi ziranian, iru postura egin eta irurak irabazi eutsezan arek gero! A gero... Sekula ez dozu entzun Gizaburu'ko Perutxo'n izenik? Gizona be gizona ei zan a gero...!

Zeñek arbola geiago lurrera bota, palankega zeñek urrutiago jaurti eta zeñek arri geiago egunaren buruan apurtu ta ausi. Orra iru posturak. Eta irurak irabazi. Olgetia ez da gero!

-Baiña, andrea, ori ipuñen bat izango da. Jentillak, eta sorgi-
ñak, eta lamiñak...

-E? Ipuñak? Ipuñak zuen gaurko gauza asko, ez sinistutekuak
atan be. Gure aurretikuenak ipuñak? Guzurra da, orretara, lamiñak
Oibar'en Laga eben oiñatza be?

Andrea zorrotz laga dogu. Berean.

Gure bidera etorrita, bidearen eta ibaiaren ezkerretara, Ben-
golea torrea. Laburtuta, Bengolatorre.

Orma lodiak, ikurdi (escudo) ikusgarria, baiña aurre ta egalez,
oraintsuko geigarri eta zatiz itxura galduta dago torre zaar au.

XVIII garren gizaldian zazpi errota egozan Gizaburuaga'n. Bai
eta lau burdiñola edo ferreri be.

Labayru'k diñoanez, 1787 urtean, 134 gizonezko eta 125
emakume ziran bertako bizilagunak.

Goazen aurrera.

Zubi txikiak baiña politak, zarrak baiña dotoreak...

Angizola.

Kantaten asiko gara?

«Orra nun doian mendiak bera

Yoane ezneagaz,

seiñari aia egitearren

ogi urunagaz».

Igarten da Murelaga'ra urreratzen goazela.

Baiña arako ba dago sasoi obeago bat. Ango bertso ta kan-
tuekaz esango dogu:

«San Juan Garillean,

denpora ederrean,

edozein bedarrek usaiña dauko

Doniane goizean».

Denpora aukeratsuago bat artu daigun, ba, Murelaga giroz
eta gogoz ikusteko.

Murelaga'n, euskal izatea, saltzeko aiña euki izan dabe. Idaho
eta Australia'n be ba dakie orren barri.



ARANTZAZU

«Zuk zer dezu Arantzazu,
amets toki, otoi leku...?»

Baiña, nora nua?

Arratia'n, Bizkaiko Arantzazu'n sartu eta zetatik etorri niri Gipuzkoa'ko Arantzazu'ren gogorapena?

Erriz erri nabil. Setatsu. Eta ameslari. Ibili geiago, ikusi baiño. Txirrist eta laprast. Sartu ta urten, askotan barruko gauza askoren kontu zeatz bat artzeko asti andi barik. Beste batzutan, kontuak iakinda be, lekurik ez edo esan ezin.

Danetik joten nabe. Idazkerako akatsak billatzen daustez batzuk. Gaur bertan irakurri dot Pio Baroja eta Unamuno'ri be sarri urteten eutsela olako akulariak. Jakiña, ni ez naz arein pareko. Ni landu bako euskal sail argal onetan nabil. Noiz konturatu bear gara sekula pekaturik egin ez dogun euskaldun garbi zaleok, emakumerik ederrenak be bere zain loa eukiten dabela?

Egi bat diñot. Etorri ala idazten dot, askotan zertzeladaei, parkatu, zertzeladei (a ez ei da zabaldu bear a'gaz amaitzen diran itzetan) ikuturik egin barik.

Beste batzuk, alboan laga edo aztu yatazan kontu, gertaera edo jakingarriak gogoratzen daustez, baiña beti Errioxa'ko piper apurragaz.

Besteak... Adiskide batek esan eustan oraintsu aspaldian ixilik nabillela, ez dabela nire ezer ikusi. Veae victis!

Eldu yataz zorion batzuk be. Geienetan zarrenak. Irakurten ete dabe gazteak «Agur»?

Eta bestetan... zirikatu egiten nabe idaztera. Zeanuri'ra eldu eta Arratia'ko erri batzuk izantatzean, aintzakotzat be ez ei dot artu Arantzazu.

Andra gazteak gaztetu egiten ei dau gizona, eta andre zarrak zaartu. Eta eskabidea egiten dabena «kereiza gorria lakoxe neskatilla, gazi samar eta gorantz begira bere surtxoa» dabena ba da, Landajuela'ren bitartez?

Ba nator Arantzazu'ra.

Sasoi baten zalea nitzan etxean sartu orduko lapikoari gañekoa jaso ta zer ete egoan ikusten. Sutako burdiñaren takaden bat artu izan dot iñoiz origaitik. Orain zaartuta nabil. Origaitik, «nai ta txarriak il barri eta burduntzian naiz porrusaldan sayeskia gozo», laga daiogun oraingoz sukaldeari.

Arantzazu'n sukaldeak ba dauke fama. Emengo kontuak arzen artu bearko dot lana.

Telefonoz deitzekotan nebillen. Telefono bakarra errian. Ain zuzen be! Ogikiñarena bera. Sasoi baten izan ba'litz! Gaur besperako ogi zuri ederrik be ez dogu jan nai. Gerratean eta ondorenean ogi baltzik ezin billatuta baserri guztietan ate joten ibiltzen giñanak edo arein semeak ete gara gu? Gaur Arantzazu, urrutizkiñetan, lgorre-zelaian sartzten da.

Goazen aurrera.

Enziklopedia baten begiratu dot. Amabi orrialde Gipuzkoa'ko Arantzazu'ri, Iru Ierro, iru illara erdika Arratia'ko Arantzazu Zelaia'ri, eta beste bi bertako auzo bateri, Arantzazugoiti'ri.

Laiño eta itzalpean sartu naiz. Erantzun barik laga bear ete dot ba anpolai gorri etena lako neskatillea?

Besterik ezean bertsotan ba da be egin bearko dogu. Euskaldunok ba dogu onetan gupil pixkat.

Txarri bodak entzutetsu ez dira ba inguru oneitan?

Ara bat eurentzako.

Au da au koipearen koipea!

Gure txarria txarri andi zan tatarrez kortan ebillanean;
gure txarria txarri eder da tripazai danon zorionean.

Au da au koipearen koipea!

Ez daigun laga errepika edo estribillo barik:

Aren estea luzea zan ta gurea barriz estua,
ícoipean gantzak labanduteko ekarri napar ardaa.

Zelaia, Arantzazugoiti, Olarra eta Zalbfde, lau auzoen artean, zerbait ikusi daigun.

Barri pozgarri bat: 1 960'n, danetara, lau auzoak ondo aztertuta, 313 lagun bizi ziran Arantzazu'n. 1 966'n 326; 1 970'n, 374. Orain eun urte, 290 bizilagun, 60 etxejaun. Biztuten gatoz. Ez da ain zuzen be ori erri askok esan leikena. Bizi bidea agertzen dau onek, edo erriaren egokitasuna, aukerak eta esperantza bat.

Lurrez ez da andi Arantzazu: 3,78 kilometro lautu, kuadratu. Beraz ia eun lagun kilometroko.

Ba dagoz Bizkaia'n amar erri Arantzazu baiño txikerragpak. Ikusi: Lanestosa, 1,31 km^; Sukarrieta, 1,48; Lekeitio, 1,77; Telan-txobe 1,81; Arakaldo 2,68; Ubidea 2,97; Portugalete 3,10; Etxebarri 3,38; Ondarroa 3,61 eta Sestao 3,70.

Bizi lagunez be txikiago dira beste zortzi: Gizaburuaga, Arakaldo, Sukarrieta, Ubidea, Garai, Lanestosa, Mendexa eta Izurza.

Eleiza ikusten nago. Erri txikietan beti egoten da norbait. Eta ardura sortzen dau erbestetar bat ikusteak: Nik be zirikatu nai.

-Esan, andrea: Ba dago Bizkaia'n esakera bat: «Murelaga'ko serorea gauza onen zalea». Eta emengoa?

-Ai, gizon. Adarra joten? Ekarri egizuz panderoa eta albokea eta dantzara ekarrikogu baita be abadea.

Kontxo! Gorbeia'ko aizeak laster billatzen dau emen atea.

Mutikotxu bat be begira. Ekin berari.

-Mutil, iru ta iru?

-Sei.

-Ta iru?

-Bederatzi.

-Zalbide'ko txakurrari dantzan erakutsi.

Noiztik egiten da euskera Arantzazu'n?

Mikel Zarate'ren «Bizkai'ko Euskal Idazleak» liburuan 78-79 orrialdien artean, ba dago mapa lako bat erakusaldi onegaz: Bizkaian XIX-garren gizaldiaren asieran euskeraz berba egiten eben erriak. Bertan, Arratia aldean irakurten dira Igorre, Arteaga, Dima, Billaro eta Zeanuri. Arantzazu'n ez al zan egiten?

Arantzazu noizkoa dan?

Jaungoikoak daki urtien barri.

1093 urtean emengo parrokoa Aznar abizenekua zala, istorietan irakurten da. «Abbate donne Isinarioa».

Orain zazpireun urte inguru Bizkaia'n artxipreste bi egoten zi-

ran.

Eta bat ementxe biziten zan, ementxe euki be bere konseillua. Lara'ko Joan Nuñez'en legedietan ori irakurten da.

Ez da arrigarri eleiza zarra eukitea. Eta antxiñako irudiak, bertako parroki eta ermitetan.

Andra Mari zarra...noizkoa? Erromaniku denporetako danik ezin ukatu.

Ori bai, itxurak eta agertu naiak ondo ziurtatu bako irudiak egiten ziran aldikoa.

Beste Andra Maria gotikoa da. Eleiza andiagoen baterako egiña dala esaten dabe onetan aitua. XIV gizaldikoa? Jokera orreta-koak dira ordukoak.

Zabal eta eratsu dago San Pedro aldare nausian. Barrokoa. Edo beintzat joera ori sartu zan denporetakua, eta orrela aldare ori XVI gizaldia ingurukoa dala esan bear, irudietatik igarri leikenez.

San Fausto'n beste esku bat igarten da. Arte gitxiago, eskola gitxiagoko arotzen eskua. Antxiña, erri artista asko billatzen ziran mendietako bizi-tokietan, batez be artzain bizitza eroen errietan. Olakoren batek egiña ete?

Emen aldareko irudiak ez dabe osotasun bat agertzen. Bata bestearen arteaz ez bardintasuna igarten da.

Besterik?

Ezer geiago eskatu ete lei irureun laguneko errialde txiki bateri? Kontuan euki XV gizaldian 28 etxe bizitza, fogera, eukazala.

Gaur be, Zelaia'n, bidearen egalean bizi diranak kenduta, Arantzazugoiiti'n berrogei lagun inguru biziko dira, eta Olarra eta Zalbide'n be, bakoitzean beste amar geiagoren barruan.

Erri txikia izanarren Arantzazu'k eutsi egin dautsa bere jau-betasunari. Orixe da beretzako naiko aipagarri eta goragarri. Txikia, baiña gogorra. Edo emen esaten dan lez, txikerra baia gogorra.

Gernikako batzarretan 60 garren emoten eban bere eritzia.


Arantzazu, Artea, Dima, Igorre, Olabarrieta (Zeberio) eta Ubi-de'ko eleixateak arratiar garbiak izan dira beti. Errialdean sartzen yakoen iñoiz Bedia eta onegaz Lemona.

Eta Billaro? Aztu? Kontuz. Izenari begiratu. Billa-aro. Arratia'ko erri legedun bakarra da au. Besteak eleixateak. Erri legea 1338'n emon eutsen areri Joan Nuñez Lara'koak eta bere emazte Maria Haro'k. Emaztearen maitasunez, bere izena gelditzearren, Villa-Haro, gaur Billaro jarri.

Arantzazu'k lau errigaz daukaz mugak: Dima, Igorre, Artea (Gaztelu-Elexabeiti) eta Zeberio'gaz.

Danekin adiskide. Esateko dauke ori emengoak.

Ori da txiki izanik, andi agertu eta jokatzea.



AREATZA - BILLARO

Barazar'erako bide barriak batekoz bestera aldatu dau Billaro. Gaur bertara etorri ezik, egalean, ertzean ikusten dogu.

Kamioitakuak prisaz dabiltz. Guk ezin euren antzean ibili. Gure Euskalerrri bedeinkatu onek merezi dau noiz-beinka bidetik aldatu ta gelditzea, autsak kendu, garbitu eta basterrak ikusteko asmoz.

Gaur bide nausian alboan gelditzen da Euskalerrriaren ikusgarriena. Mando eta landoien denporetan errietako etxe-jaube eta agintariak asarretu egingo ziran ala gertatu ezik. Gaur arriskutsu litzake erri barrutik igaro bearra, bai ibilli bear dabenantzat eta bertan bizi direnantzat be.

Billaro'n gagoz.

Areatza'n sortu ei zan eta gero Billaro'n gelditu. Areatza garratza ei zan eta Haro'ko kondeak emaztearen ontasuna qozo. Origaitik ontasun onek gaindu eta makurtu zitun ingurutako artzain eta laborariak, eta mesedearen onez, erriari be izena artzen laga: Villa de Haro, Billaro.

Guazen.

San Bartolometan jai. Bere aizto ta guzti, bere kutxillo ta guzti, or egoten da apostolu au aldaretan. Umetan zenbatak ez ete eben ikasi, sermolariak azurretaraño bildurra sartzen puztu eta asetzen ziran denporetan, alako didar dardaratsu eta tremolodun a: San Bartolome'k ikara egiten du?.

Billaro'n santu au begiko dabe. Askotan santuak ez dauke ze ikusi andirik eurak ezagutzen alegindu ez diran euren goratzalleepkaz. Ba dakie ori bertakoak. Eta eurenari eusten dakie. Alperrik errekaizea gogor joten etorri, gizaldien gizaldietako fedea eta oiturak, makurtasun eta barruko sentimenak, ezin leiz bat batean bertan bera jaurti edo laga.

Billaro'n, parrokia, 1338 urtetik datorrela diñoe. Euskalerriko beste askorekin batean, XVI gizaldian barriztatu eben bertakoak, izerdi, neke eta diruaren truke. Askotan etxeak eukazan arbola eta emaitzak orretarako emonda.

Eleizako liburuak 1593 urtean asten dira.

Lenengo jaiotzaren barri zeatza Franzisko Ibarra'koarena da. Urte orretako Epailla'ren 3'an dago bere jaiotze eta bataioaren agiria, liburu barriak edo obeto esanda, ortarako lenego liburuak bere jaiotzeagaz asten dira.

Eriotzetako liburuak Ozerin'go Marina'ren eriotzea adierazoteko zabaltzen dira. Eta ezkontzen liburuan lenengoz agertzen dana, Arteaga'ko Pedro eta Asturiazaga'ko Santxa'ren ezkontzea da.

Fedea emon leiken liburuetatik orreik dira zeatz agertzen diran billarotar jatorrak. Baiña fedea geiago sinistutea da, ta luzeago joanaz, Billaro aurrez ba zan, nai ta ez billatu bear istorian lenago-ko billarotarrak.

Zenbat euskaldun gaur Billaro'n? Erdiak bai?

Oraintsuko ikasketa baten, enkuesta baten, batez beste 0,35 dirala irakurri dot. Au da, ia irutik bat. 1325 bizilagunetatik 540 inguru euskaldunak. Gerotxuago egin dodazan itaunei erantzunaz, batez beste erdiak izango dirala esan dauste.

Dana dala, igaz, 1973 urtean, 22 lagun jaio ziren bertan, 20 il eta 6 bikote ezkondu. Jaiotzean zenbat euskal izen ipinte diran jakin nai ezkerro, orra igaz ipiñiak: zazpi.

Kalean danetara entzuten da. Eleizkizunetan, eukaristi batzarretan, aukera bi daukez euskaldunak.

Pedro Antonio Añibarro'ren kezka sortu bear da Billaro'n.

«Arkatza» baserrian jaio zan. Argitasunari begira. Gizon zur, ikasi eta batez be sentzu andikoa.

Praille izan zan: frantzizkotarra. Ala ta be... «santu santaren artean, orma lodi bat bitartean», gogoratzen ekian.

Zarautz'ko praille etxean bizi zan luzaro. Andik erriz erri sermolarari ibilli arren, lumea beti aldian.

1748'n jaio zan, 1830'n il. Ikusten danez luzaro bizi, baiña urteak ondo bete be bai. beti kezka eta gar bategaz: euskerea lan-

du ta erakutsi.

Gaitz da gaurko prailleak ezagutzea, baiña ordukoei ezin kendu eikioen praille kutsurik. Alkanforagaz betetako etxeetan bizialargunak biziten dakien lez, praille usaiñik ezin uxatu, len, kontentuetatik. Bakoitzak bere zeregiña eukita be, koroia beti buruan.

Origaitik Añibarro'ren lanik geienak kristau bizitzari begira egiñak dira. Ori bai, bere erriaren izkuntzan, berbetan, eta berbetako modu orreri bere biturtea emon nairik.

Arratiarra bera, gaur baiño aldakuntza sakonagoa ezagutuko eban, ezpai barik, orduko errialde bat eta bestearen arteko esakeretan, agerbidetan, erri fonetikan.

Ondoren ori zintzo erabilliz, batean artu eta bestean landu, Bizkai'ko euskera al zan bestean alkartu eta osotzen ibili zala esan lei. Berak egiten daben euskera, non edo non Bizkaiko errietan entzuna dala, diño.

Ez da nire zeregiña gaur emen bere lanen izenak agertzea. Asko dira. Bai, orraitik, bere gizontasuna goratzea. Origaitik billarrotarren kontzientziari au gogoratu nai neukio:

Ez lotsatu, ez, zure euskeraz.
Edonun goratzen da Añibarro.
Beraren jaioterri izateaz
agertu zaitez, Billaro, arro.

Billaro, denporetan, ez da izan erri aberatsa.

Sasoi baten eleizaren errentetatik igarten zan ori. Eleizak eukezan sarreretatik. Ia Bizkaitik gitxien eukan Billaro'ko onek. Garaiak ez dauke ze ikusirik. Besteen neurriari begira diñot.

Erriko diru batzalleak be zerbait erakusten dau orretan. Esate baterako, 1707 urtean, Pedro Arredondo zan kargu ori eukana. Amarrenetatik irugarren zatia artzen eban beretzat, zeregin orren orde. Dañetara be irureun errial urtean. Diru orretatik aguazilla ordaindu bear eban, eta kartzela be bere kontura euki. Orrela, artzekoak jakin ta kentzekoak kenduta, 33 errial gelditzen ei yakozan urtean.

Sasoi aretan Billaro'k 71 sutondo eukazan. Eun urte geroago, ia bardin: iru geiago.

Iru ziran errotak be Billaro'n. Ortik izena bera: Iruerroteta. Zeiñetan eta zan errotari Bartolo?

Artoagaz uruna
errotako erriak,
artoana oria,
gaztañena zuria.
Bartolok ondo daki
zeñerj jo begia.

Paper zarrei begira, ona Bartolo bat. Eun dukaten karga eukan errotak, burdin eta pixuen orde. Eta Deusto'ko alargun batek Ma-

ria Bixenta Mendieta'k auzira eroan eban gure Bartolo Bolibar. Orain 1 50 urteko autua da ori.

Saso baten ez zan giro Bizkaia'n Zamakola'ren asarrea zala-ta.

Dima'n bizi zan bera. Bidezko zan inguruetan lagun onak eukitea. Aita Pio Bernaola billarotarra bat. Ainbat lagun Bizkaitik kanpora atara zituen. Aita Pio'ri konbentuz aldatu eragin eta urte birako kanporako txartela emon eutsen.

1338 urtetik dauka erri legea Billaro'k. Urte onetako Dagoni-lla'ren 1 5'an emon eutsen nortasun ori Lara'ko Juan Nuñez eta Maria Diaz Haro'koak.

Jauntxoen denporetan, erriak be talde bat edo bestearen alde makurtuta jan eta bizi bear eban deporetan, ganboatarren aldez ibilten zan.

9 kilometro lautu daukaz lurrez. Landairu eta Uparan Beko, auzoak. Bien artean be eun lagunik ez.

Kalean, ikusgarri, parrokiaren atadia. Bata bestearen gain iru zati. Zidar girokoa, «plateresco» dalakoa. Ala ta be bertan dagozan irudiak ez dirudie ate onetarako egiñak. Bear ba da barriztzean lengo zarrekoak bertan sartuta.

Arte zaleentzat ba dago beste etxe ikusgarri bat, zizta-lanez dotoretutako etxea.

Kaleak, goikoa eta bekoa, «susera» eta «yusera» izenekin.

Konbentu bi. Monjaena 1 620'n sortua. Prailleena oraintsugokoa.

Eta ur garbiak, urteen neurri eta kutsu barik.

Laster ikusten da Billaro.

Illuntzea. Urrun daukadaz erria ta etxea. Arin ibilli bear. Ala esan dautsat andre bateri. Berak erantzun: Bai, eguzki santue be yoan da bere amagañe. Eta Santisabel'ko monjak aingerukañe.

Kortezubi'ko bertsuak datorkidaz gogora:

Eguzki santu bedeinkatue,

zoaz zeure amagana,

etorri zaitez bier

denpora ona ba da.

Billaro'n, Euskalerra bedeinkatuko Arrati baketsu onetan, udabarriko illuntze baten eguzki santuari biar etorteko eskariz nabil, gabaren sarreran. Eta beragaz lana ekarteko, biarra ekarteko, Billaro'k iraun daian luzaro.



ARTEAGA (Gautegiz)

Alako baten amaituko dabe Ibarrangelu'tik Gautegiz Arteaga'ra, itxasertzean, ur-egalean, Kanala'tik zear duan bide nausia zabaltzea.

Euskeraren esan eta oguzteko era bateri begirutzen dautsagunok, jota eta t bustien errialdea billatzen dogu emen. Euki gendun guk be izki edo letra busti eta igortzien giroa. Izki askori txapela ipinten alegintzen giñan giroaren menpetasuna. Itzik, berbarik sakonenak be biguntzen alegintzen giñan aldia. Maitasun be, idatziz beintzat, samurrago erakutsi nai gendun denpora; kutunkeria bera biozkor eta gozoago agertzeko arduraz ibilten giñan adiña. Gaur be, idazteko erreztasunak lagata, gogotsuago dot eta bez urteten dau berba samur eta bustiok diran lez esatea.

Ezin ukatu idazkeran zabaldu gareanik. Idegi. Kanala aurreko ondartzá Juzean kresaletan zabaldu eta bere azala idegiten daben margolen antzera. Murueta aurreko basatzetan, zuloak billatu eta gatz apur bat sartu ondoren gatzaren emonera bat batean azalera zorrotz urteten daben itxas lasto edo muergoen antzera. Eta arratjarrei eta txorieritarrei errezago yoaken erara makurtu giñan; beste errialdetako euskaldunen eretara urreratu; zorrik ez geuntsan erreztazuna irarkola eta makiñei eskiñiz; askotan biguntasuna biurrituz eta zailduz.

Buru gogorak ei goñani To! Nork nori sosuak beliari... Euskerrian gu bakarrik ba giña lez setatsu eta zital eta odol bero.

Itxas bitsa ikusi eta itxas arnasa artzen nator.

Ibarrangelu'tik urten eta ezkerretara Akorda'ra joan naz le-
nengoz. Burua argitzeko, kaskarra esnatzeko iñorena ez lakoa ei
da emengo Andre Mariaren bitartekotasuna. Akorda erri izenetik
akordatzea, gogoratzea, aritzen dabenak luze dauaz euren irudi-
menez.

1 520'n jasotako eleiza. Eleizpe aizetsua. Plaza txikitxo bat.
Akorda'k saltzeko aiña bake erakusten dau inguru orretan. Aurrez
Ogoño'ren lepoa.

300 bizilagun, danak baserri bizian.

Bidera eratsi eta Laida eta Laga'ko ondartzak. Neguan itxasoa
brastadaka, olatuak euren aize-errotetan etetean goratzen daben
txipristiñez inguruak likinduz.

Kanala. Txalet barri eta baserri zarren ostetasuna, kontrastea.
Udarako portu txiki eta ontzien gordeleku baretsua. Etxadiak erri
birenak: Sukarrieta'rena zati bat eta bestea Arteaga'rena. Ingu-
ruetan Bizkai'ko ostra lekuri aberatsenak.

Eleizaz, Legendika'ko Andra Mariaren izenekoan batera alkar-
tu eta sartzen dira ingurutako etxeak. Eleiz au egin aurretik ama-
sei etxe Sukarrieta'n sartu bear ziran. Ara jo, ango Ander deuna-
ren parrokira joan bear jaietan eta bestelako premiña guztietan.
Beste amalaurak Arteaga'ra.

Arteaga'koak, bide errezago eukita be, laster lortu eben eu-
rentzat parrokia egiteko baimena. Besteak nekezago. Luzaro ibilli
ziran eztabaidetan. Kontuan euki Kanala'tik Sukarrieta'ra igarote-
ko, ibai zabala dagola eta itxasoa aurre-aurrean, beraren gora-
berak egunero birritan sentidu eragiten. Beti ez da egoten txalu-
petako giroa.

. Orrela bertako 30 etheen artean egin zan eleiza. Esateko ez
txiki ta ez andi, bai bien arteko.

Sasoi aretan Sukarrieta'ko bizilagun ziran kanalatarrak abizen
oneik eukezan, orduko eskabide eta agirieta irakurten diran lez:
Arana, Arketa, Beitia, Garunaga, Gaztañaga, Learreta, Meaurio
eta Ugalde.

Goazen aurrera, itxas giroa laga barik, nai eta ibaia gero ta
urrunago ikusi. Arteaga'n be billatuko dogu itxas usaiña. Itxason-
tzi andietako kapitanen andrak miradore zabalak daukez etxetan.
Gogoratu:

Begira nago, begira
or goiko bide barrira
noiz etorriko ete dan
maitea neure errira.

Lengo gizaldiaren asieran, gerrarako serbitsariak eskeintzera

erriak beartzen ziranean, zortzi lagun emon bear izaten zitun Arteaga'k gerrako itxasontzietarako.

Urtetan ba gabiz, 1740'n egin zan kontu artze baten, 300 kintaleko ontzi bat eta gabarra bi billatu zituen emen. Kanala'ko ondar sokondoan euken euren lotzeko tokia.

Geroago, 1800/1810 urtetan, txalupa jaube edo erabiltzalle lez, or billatzen doguz emengo Jose Aldamiz, Juan Bta. Araunaga, J.B. Beeko etxea, Manu eta Jose Etxebarria, M. Gaztañaga. Joannes eta Gabriel Meaurio eta abar.

Izan be itxas ertzak berak agintzen dau itxas biritza erabiltzea.

Erri txiki eta apaiña da Arteaga. Milla lagun. 14 km. Bide zabal, kamiñua erdiko kale. Gernika'tik sarrera bakarra. Lekeitio alderako, gu sartu gareana itxas aldetik edo ta Ereño inguruko aldatza igarota. Bide bi be ba dagoz arako.

Erri burua, kaskoa, Zelaieta'n. Oartu. Telefonikaren listetan be, aren izen erreskadetan be, Zelaieta izenpean billatu bear dira emengo urrutizkiñen gora-berak eta ez Gautegiz deituran.

Parrokia Andre Maria'ri eskiñia. Ez jakin noizkoa. Bere ate bat XIII gizaldikotzat dauke.

Jesuitak euki eben emen etxe bat Loiola'ra joan aurretik. Ez luzaro.

Gernika'ko batzarretan amalaugarren jarlekua eukan emengo ordezkariak.

Ginda eta kereiza onen entzutea dauke bertakoak.

XVIII gizaldiaren asieran 88 etxe egozan eta 360 bizi-lagun danetara. Gizaldi orren azkenean 120 etxe eta 772 bizilagun. Kontuan euki leiken bat: Asieran, 88 etxetatik, 25'n bizi ziranak errenteruak ziran. Besteak etxe jaubeak. Eun urte geroago amar etxe geiago eukezan etxe jaubeak, baiña errenteruak asieran baiño iru bidar geiago. Orrela, gizaldi baten barruan etxe jaubeak urritzen joan ziran eta errenteruak geitzen.

Iru burdiñola egon ziran. Ojangoiti'n, Olaeta'n eta Jausoro'n.

Goitisolotarrak XI gizaldirako ba euken emen euren jatorriko etxea, bai Albiz abizenekuak be.

Gaur, Arteaga biziteko toki baketsu bat da, irabazpidea kanpoan billatuta. Bere erri-buru txikia, kapital txikia, irakaskintza, salerosketa, dotoretzeko, jolas eta jaietarako eta gaurko bizi-moduaren eskabide askotarako, Gernika da.

Arteaga'n sartu orduko etxe batek dei egiten dau. Gazteluak. Torre zarra, gaztelu biurtua. Emengo ikuspegi eta osotasunean, arrotz geratzen da.

Napoleondarrak euren arkitektoari agindu eutsen Arteagata-
rren torre zarra barrizatzeke.

Au da gertaera. 1856 urtean Eugenia, Napoleon'en emaz-
teak, seme bat sortu eban. Bizkai'ko Batzar nagusiak pozez eta
arro-miñez artu eban jaiotza ori eta urte bereko Garilla'ren 17'ko
batzarrean erabagi eban bizkaitar jatorriko etsi bear zala printzipe
ori, bere amaren odolez Arteaga'ko ondoreneko zalako. Nortasun
ori ezagutu erazteko Lacalle eta Lekerika alduak izentatu ziran
eta Biarritz'en artu zitun Napoleon'ek.

Ortik etxe au gertatzea, torre zarra jauregi eder biurtu naia.
Couvrechet arkitektoa izan zan lenengotan orretarako izentatu
ebena. Baiña zerbaitek kalte egin eutsan Arteaga'n eta sukarrez il.
Ondoren Ancelet'ek artu eban ardura ori. Lenengoaren asmoa al-
datu eta bere erara amaitu eban.

Baiña Napoleondarrak ez eben etxe onetan biziteko aukerarik
artu. Aita il zanean printzipea Afrika'ra joan eta bera be an il.
Amak ez eban bere bakartadean ona etorteko adorerik artu.

letarrak gogoratzen dakie. Ereñozar'eko mendi tontorrean
meza emoten zanean, beartuta egozan inguruetako etxe asko ber-
tara joatera. Sasoiko oitura eta sinismenaren lokarriak. Eta eten
nai ez gaiñera, azurrak zortu eta okertuta be.

Bedaru ondoko baserri bat egiten zan arako urrutien. Orduak
bear. Joaldi luzea mendi-bidez, Ereño'tik gora be.

Abadea zain egoten ei zan, etxe jaun ori eldu arte. Ez ei eban
mezarik asten ondo eldu ete zan itandu eta baiezkoa artu arte.
Baiña berak be, erdi bertsolari, ango artadien artetik agertu ordu-
ko, eguneko giroari egokion agurra luzatu eta esaten ei ekian:

Ba dator, ba dator azkena,
etxetik urteten lenena.

Esan domine dominena,
erantzungo dot nik amena.

Ereñozar'eko ermita ori inguru guztietatik errez ikusten da
mendi tontor punta zorrotzean. Ez dauka galtzerik. Ereño'n, etxe
arte igaro orduko, an dago iragarrita bertako bidea. Mikel deuna-
ren izena daroa, baiña AnrJra Maria'ri eskiñitako ermita da.

Mendiaren gibelean, Kortezubi aldetik, Santi Mamiñe.



ARTEAGA (Arrati) GAZTELU ELEXABEITI

Gaztelu Elexabeiti deitzen dautsagu guk. Arratia'n, bertakoen artean, bertako bizilagunentzat, Artea.

Bizkaian ba dagoz erri geiago be Artea deituraz ezagutzen diranak: Gernika aldean, Gernika eta Lekeitio bitartean, bere gaztelu eder bat erakusten ba dago Arteaga bat. Gautegiz'koa.

Txorierrin, Zamudio'ri be Artea deitzen dautse. Eta Arratiarren artean Gaztelu Elexabeiti'ri, inguruetan, Artea bakarrik deitzen dautse. Ori da, eurentzat, Bizkaiko Artea bakarra.

Dima, Areatza (Billaro), Orozko eta Zeberioaren lurak inguratu, erri orrein tartean artuta dauke Artea au.

Orain 50 urte, 1.100 lagun. Gaur irureun gitxiago. Parroko bāt, laguntzalle bi eta Abade ikastetxe txikia eukazan sasoi aretan. Gaur Areatzako Sakramentinu batek eroaten dau bertako eleizarren ardura.

26 kilometro Bilbora, 10 Lemoa'ra, 22 Durango'ra.

Ara, baketsu ta loikeri barik, len errialdi bi ziran Gaztelu eta Elexabeiti, orain bat eginda, alkartuta, baiña beti be, arratiarren-tzat, Artea.

Gaztelu'k, edo bertakoen naiari jarraituz, Artea'k, Arrati inguruan, jakintsuen entzutea eta fama euki izan eban beti. Zegaitik?

Bizkaian eskribaduak jakintsuen entzuteko ziran. Eurak be ez ziran ugari agertzen toki batzuetan, eta orrek be nortasuna emoten dautsa bateri.

Arrati eta Bedia'ko errialdean, amabi eskribadutza egon ziran orain berreundak urte. Ez ziran danak beteten, nai ta ortarako duintasuna edo jabetasuna batzuk eurentzakotuta euki. Areatza'n, esate baterako, sei egon bear ziran; bizi-era orrek ba eukazan bere jaubeak, origaitik errenta ordaintzen ebenak, eskubidea gain gaiñetik zaindu nai ebenak. Baiña eskribaduak falta. Eriien, Artean, Bildosolatarak eurek ortarako eskubide artuta.

Eskribaduen utsunea egoalako, asko etorten ziran inguruetatik Artea'ra euren zeregiñak betetera, batez be sal-erosketa eta duintasan ardurako paperak egitera.

Euskal eskribaduen entzutea andia izan zan emen eta inguruetan. El Oujote'n ba dakigu Cervantes'ek zer esaten eban Santxoren bitartez, bere berbetan: Bizkaitar on lez nai eta ez izan bear eskribadu on. Éta liburu berbertan, beste toki baten, au geituten dau: Bizkaitar izan ezkerro, emperadore berberaren eskribadu izan zeinkeala.

Ortik, ba, eskribaduak egozan tokiak, Artea onek lez, ba euken alako entzute eta nortasun berezi bat.

Orrek ez dau esan nai euskaldunak eskribaduei barruko miña erakutsiko eutsenik, kolkoa agertuko eutsenik. Premiñazkoa ta kittu eta bera be pilosofi askogaz. Ixilleko bertso oneik zerbait agertzen dabe erriak eskribaduekaz eukan sinisteagaz:

Baserritarra zegoanean
dirua kontaten zir, zir, zir,
eskribau jauna aldamenean
barreaz itotzen kir-kir-kir.

Zortzireun lagun?

Or nunbait gaur. Ez dua geitzen erri au, zoritxarrez, Artea au.

Gaztelu, Elexabeiti, Espartza, Larrogoiti, Sarasola, ugarte eta Bildosola auzoak ba dakiez agur ixillak eta laga-biarreko malko garratzak ezagutzen. Bilbao maiteago?

Bakea baiño aukera maiteago, esan daigun. Ala beintzat langilleak, biargiñak. Bizitzako goraberak eta premiñak dira orreik. Esakera da norbere erria ez dala jaioten dan tokia, jaten dan tokia baiño, au da, irabazi eta bizi bear dan tokia.

Ala ta be, barriro be esango dogu, erri baketsua dala Artea.

Bear ba da, sasoi baten izan eikean gerra zale be. Gazteluak ez dira ain zuzen be usotoki baketsuak izan istorian. Emengo Gaztelua, diñoenez, 869 urtean Zumeltzu'ko Fortun kapitanak jaso eban. Gaur bere errazturik be ez da ezagutzen. Izena bakarrik geratu.

Gero, bere bizibidean, basora begira lan geiago egin izan dabe

emengoak beste ezertan baiño. Industri gitxi: Telleri bat, luzaro, bertako gintza bakarra.

Gazteluko urak, euki eben euren bizi oneko denpora be. Metal ur otzak, sulfurodunak. Baiña ur-etxeen denporak joan ziran. Gaur bertan, zein da Bizkaia'n gelditzen danik, esan nai da, bizitasun onez?

Urak botilletan sartu ditue batzuk eta ortik izenak jarrai. Ar-teakoak negal, legenar, edo herpes delakoaren sendagintzarako egokiak ziran, baiña etxea bera abadeen ikastegitzat emon eben eta gaur, a be, bestelako eskoletan aldatu zan. Baiña emen oraindik ba dauke fedea bertako uretan.

Sasoi baten, gerraetan edo erbesteko egituretan ibiltzen ziran askoren ametsa, Santiago'ko oorezko jantzia artzea izaten zan, orretako zaldun, kaballeru deitura eta izena erabiltea.

1786 urtean arteagatar bat billatzen dogu olakoen artean, au da, oorezko titulo ori artzen: Letona eta Landazuri tar Juan Jose. Gerra gizona zan, militarra. Errege Armadako itxasontzietako te-nientea.

Arratia'n, Madariagatarrak entzute andikoak izan ziran. Ala Zeanuri'n bertako seme zan abizen orretako Pedro bat. Emen, Ar-tean, Juan Otxoa Madariaga eleizgizona, ixilla izan zan, baiña benetako jakintsua, ordukoen esanetan. Bere denporetako papere-tan irakurri daikenez, ezagutzen ez ba zan be, benetan argia izan zan.

Felipe IV'ek bere serbitsarien maixu lez eroan eban. Eta 1642 urtean emengo, Artea'ko, eleiz gizonentzat mezaen bidez erren-tatxo bat laga eban, bertako umiei irakurri eta idazten erakusteko bearkuna, obligasiñoia emonez.

Eleizara jo dogun ezkerro esan daigun ba dagozala emen irudi bi, imagiña bi, ikusi eragin eta ondo gordetea merezi dabenak. Errukiko Ama, kanposantuko eleizakoa, fin fiña da. Artista ez jaki-ñen batek egiña dala uste izan dabe batzuk, neurritz ez bardiña dala, Ama Maria eta eskuetan daukan Kristo illa benetan ez bar-dintsu diralako. Bai.ña beste alderditik erantzuten dabe ametsetan dagon Ama baten irudia dala eta era orretan ezagutzen zan sinis-te baten irudipenez egiña.

Bestea, Andra Mari txikia, erromaniku-eta bizanzio erako nas-tekoa dala dirudi, arte kontuan maixu diranak orretara etsi eta meritu orregaz goratzen dakie. Sinismeneko tengadea, artearren fedearen tengadea aztu barik.

Parrokia oraintsu barriztatu zan eta barriztatze au gogoratzu jai eder bat bertan egin. Onetan beroak dira artearrak eta ba dakie nortasunez jokatzten.



ATXONDO

Askok ez dakie Atxondo nun dagon. Urte gitxidun erri barria. Ume samur, guria gaurko erri izenen artean, baiña arraza oneko, istorian bizardunak osotua.

1962'ko udazkenean, Azilla'ren 4'an, Apatamonasterio, Axpe eta Arrazola alkarregaz batu ziran. Iruren artean errialde bat osotu eta izen barria artu.

Orra Atxondo.

Apatatarrak, inguruetan esaten dautsen lez, apatar «sokagiñak», arrazolatarrak eta axpetarrak, atxondotar biurtu ziran, edo Atxondo'ko. Norberetasuna galduta? Nekez lagaten dau bakoitzak berea. Gaitz da ori. Urtien urtetan be eurenekin jarraituko daberen ezpairik ezin euki, tellatu zabal baten azpian bizi-legea betearren.

Zenbateko kondaira galdu ete eben eurak, premiña eta estutasunen mendean, alkarren berotasun eta laguntzan batu eta. izen barri baten eskutateko?

Apatamonasterio. Abadeak ei egozan emen eta Etxebarri'ko San Agustin'en fraileak. Ortik emengoan izena: abade-monasterio. Iruren laguneko erria. Lurrez 3,36 kilometro lautu. Gerediaga'ko batzarretan amargarren botoa eukan. Elizaz, luzaro, Elorrio'ko San Agustin'eko. 1857 urtean emon eutsen parroki eskubidea.

Bertan jaso dabe gaur iru erri batuon udaletxea> kontseju-etxea.

Arrazola. Irureun bizilagun. XVI mendeko San Migelen parrokia. 1 51 O'n sortua. Eleiza polita. Oraintsu txukun barrizatua. 9,24 km. lautu lurrez errialdeak. Gerediaga'n zortzigarren botoa. Ermita bi: San Roke eta Santiago'renak.

Axpe. 400 lagun inguru, Marzana, Olazabal eta Santiago sartuta. Lurrez zabalena, 10,81 km. lautu. Gerediaga'ko batzarretan, bederatzigarren eritzikoa. 1552'n sortutako parrokia. San Joan. Ordurarte etxe batzuk Abadiño'ko parrokiako eleiztar ziran eta besteak Elorrio'ko San Agustin'eko. Iru ermita: Santa Luzia, Aingeru Jagolea eta Kurutzekoa.

Iru erri: milla lagun. Baserrietan danak euskaldunak. Kalean, eunetik ogei inguru batuko dira erdaldunak.

Etxeak, kaletan batzen diranak eta baserrietan zabalduta dagozanak, bizilagunetan erdiz erdi.

Baten ibili, bestea ikusi, ez dot uste beste erri baten emen aiña mendiaren itzalak bat gainduten dabenik. Ez dakit itxasoaren zabalak bat nasaituten daben; zabalak eta bardintasunak izan lei; baiña emen alderdi guztietatik gainean igarten diran arrizko mendien ikuspegi eta astuntasunak, giro orren mende lagaten dabe bat.

Arrazola'ko eleizaren ingurutik begira nago. Ba dirudi bitarteak laburtu egiten dirala, baserriak eurak txikitu; soloak, erriberak, munak, bideak, estuago dirala diran baiña.

Etorri izan naizen guztietan sentimen ori artu izan dot, edo pentsakera orrek gaindu nau. Anboto'k azpiratu egiten dau bat eta Udala'k bere itzala barru barrutik sartu.

Aitzarte onetan, erriak be aizeak eta urak garbituta lez ikusten dira, eta solo, baso eta arboladien berdetasuna berde illun igarten da.

Ba dagoz oraindik etxe ondoko askatxoan lixibia egiten dabenak.

Egunon Jainkoak daitzula

andratxo gaztea.

-Baita beorri bere

galaitxo maitea.

-Senarrik ba al dozu

andratxo gaztea?

-Amerikara joan zan

galaitxo maitea.

Kantu zar eta zirikalariz agurtu nik, tentalari. Bat batean aria artu eta irri-barrez erantzun berak garbi-garbi.

Laster igarri dot emengo andrak Anboto'ko Mari'k be ez lituzkela gaur asko atzeratuko.

- Agur andrea!
- Kantari ba zatoz, jaurti sokea.
- Eta Indietako senarrak?
- Ak berak lengo tokian ez al dau eukiko kaskarra?

Sartu zaite Arrazola'n!

Bein, mutiltxo bateri bixkor itxura artu eutsen. Amalau urte eukazan. Urrun egiten zan sasoi aretan Madrid, baiña ara bialdu eben. Kobrearen adorez? Ezjakin. Burdiña saltzen.

Etxe bat beretzat txikiegi eta bestera aldatu. Beti tratu bardiñean, burdinkien ugarrak atzeratu barik. Urtetan koskortzen eta beste tratu bigunagoa: etxeko alabaren biotza irabazi. Tratuak eukiten ditue euren estu-unak be. Semerik ekarri ez eta gaiñera emazte gaztea il. Naigabeak gaindu eta ekin barriro. Jator eta zintzo, garbi eta berbako, begi onez eta adorez, tratu-tratuetan ez ei eukan beste bat bere pareko. Montera kalean, Madrid'en biotzean, banku baten baiño tratu geiago egiten ei ziran egunero bere etxean. Bitartean gerratea, tratu sakonagoak egiteko aukera ohea. Orrela, Banco de España'ko lenengotako paperdun edo akzionista izatera eldu zan. Il zanean eun milloitik gora errialetan laga eutsezan illobei.

1809'n jaio eta 1890'n il. Madrid'en, titulu guztiak. Arrazola'n etxeko lez, Joxe Ortueta.

Agure bat daukat aurrean. Lanean igartua.

- Kaixo gizon! Izenik ez dakit eta arratsaldeon.
- Nire izena? Ipurdi gizona.
- Apellidua?
- Durango'ko barkillerua.
- Ori gizon. Ekatzu bostekua.
- Zuk be emoidazu zigarrotxoa.
- Ez dot erreten.
- Axpe'ko abadearena: ain zuzen! Sekula be ez?
- Gaztetan aixenak.
- Intxaur orbelak baiño kei obeago egiterí dabe. Je, jo! Anboto'ko aize mintsu onek ba daki eztarria urratzen. Je, je!
- Nun dagoz emen kobre miñak?
- Zidar asko ba daukazu... gorde egizu, kobrea baiño obeago da ta. Kobrea ez da gero urre gorria. Kobrea billatzen izerdia eta zidarra laga ebienak asko dira gero! Je, je!
- Ba dago edo ez?
- Egon... Ba ei egoan. Edo ba ei dago. Eta ugari, baiña arria baiño gaitzago billatzen. Sasoi baten San Roke inguru ortan, amaikatxu batu ta urtuten ei eben ba! Baiña arria nausi ta kiebra egin eta kittu.

-Kontxo!
 -Emen eta Axpe'n, Larrano aldean, Urrekazulo'ko miñea aberatsa ei zan.
 -Sekula lanik egin zendun orretan?
 -Aiten aitak bear ba da... Nik kukulumutxu bai ugari.
 -An?
 -Kokuak batzen soluan. Je, je! Lurpean satorrak lan egiten dabe. Nik, ba da ezpadan be, naiago dot oillarrek lez argitan.
 Ba! Axpe'n kobrearen beta ori agertu zanean, sekulako naste, asarre eta itsukeriak egon zirala ba dakizu? Durango errialdeko korrexidorea be erdi zoratuta erabili ei eben. Sartu atzamarra bilbotarren artean!
 -Zer dauke ze ikusi bilbotarrak?
 -Ezet? orain berreundak urte, 1 741 inguruan, bilbotarrak zoro-zoro asi ei ziran diru batzen. An batu ta emen enterratu. Sartu zaite, sartu lur azpian.
 -Zu be sartuko zaitue ba noizbaíten.
 -Gizon, mesedez, trumoirik ez jo eguzki galdatan.
 -Zer ba, Anboto'ko damiak zainduko zaitulakoan?
 -Ixo! Arrazola'n kandela gitxi ipiñi dautsez santa orreri. Iñok ikusi eban bera eguzki galdatan?
 -Ez diñoe ba emengo andrak ederrak dirala berak aziak diralako?
 -Nire andreari itaundu ia zeíñen esneak edan zitun umetan. Itaun bat: Zuri min emoteko nor jo bear da?
 -Ni.
 -Ba dakizu zer esaten daben emen Marigaitik? Bere itzala, bere sombra jo bear zala areri min emoteko. Arrayoa a, bera bizi izan ba litz... ez ete izango zan oba bera bein arrapatu eta azunekin igortzi ta blastiatzea? E?


Otz dago emen. Aize fiña. Balbuena erdal olerkariaren bertsoak datorkidaz:

Y el valle de Arrazola en su frescura
 quien goza, puesto en medio, tanta altura.

Eleiza ikusi dogu. Len be esan dot dotore barriztatua dala. Eta kurutzetakuak be bai?

Ateak zabalik eta sakristian sartu gara. Gaur diru asko balioko leuken irudi txiki bat eskuetan erabilli dogu. Ondo egiña. Edonok artu eta eroateko arriskua ikusi dogu. Euskalerriko eleizetan artearen maitale ugari dabil borondate oneko gizon lez, antxume narrupean. Antxumea noiz akertzen dan jakin bear.

Ez dakit ori emendik Aramaio bitartean dagon Ipistekoarriak erakutsi leikigun. Diñenez bolibartarrak (Arrio'ren jarraitzalleak?) emen il ei eben kontuak artzen joan yakoen eleiz agintaria. Boli-bartarrak be sekula ez ei eben iñor ilterik pentsatu... berotu arte.



BAKIO

Merezi ete dau txakoliña artzen Bakio'ra ostera bat egiten joatea?

Ain zuzen be gure itxas ertzean itxas-ondoko erri bi agertzen dira txakoliñaren toki egoki lez, eurak daroe beintzat edari onen izena eta fama guztia: Getaria Gipuzkoan eta, Bakio Bizkaian.

Kantu kantari sartu gaitezen Bakio'n. Baiña nun dagoz txakoliñaren kantu zaarrak? Edozenbat agertzen dira eta agertu giñeiz ardauari egiñak. Baiña egia esateko, txakoliñari dagozkionak, ori bai, asko ezagutzen dan «Txakolin, txakolin, txakoliñak on egin» kenduta, gaitz da gure abestien artean eta gure literaturan txakoliñari bereziki egin edo ataratako kantuak billatzea.

Txakoliña bera, egia esateko, guk maite dogun edaria izanarrren, ez da zabalkunde asko daukana, ez da propaganda asko daukana, eta iztegi eta liburuetan bere alde asko makurtzera deitzen dabena be. Erderazko iztegian, dikzionarioan begiratzen ba dogu, sustantzi gitxiko ardaua dala irakurten da. Ori da edari oneri ipinten dautsen agerbidea, definisiñoa. Latiñezkoak be ez dira beretzat, ain zuzen be, txalogarri eta tentagarri: vinum imbecillum. Esatea lez, ganorabako ardaua.

Sasoi baten ibilli ziran koñaka egiteko txakolin zuria egoki gertatzen zala ta zerbait lortu nairik. Baiña ba dauka bere akatsa: orrelako gauza baten pentsateko aiña ez dala batu be egiten.

Dana dala, euskal itxasoaren laiño eta bitsez bustitako maas-

tietatik datorren edari garrazka oneri, askok egiten dautse gure errietan, eguerdian, edontzi edo basuen leiar, kristaletik zear, begirakada samur bat. Eta edozetara be, orrelakoetan, errez gogoratzen da, emen Bizkaian, txakoliñari izena emon edo txakoliñetik entzutea artu daben itxasertzeko erri txiki, baiña polit eta atsegiña: Bakio.

Bakio.

Udako bilbotarren atsegin toki eta arnas leku. Itxasoaren mu-suak artzen gau eta egunez.

Sei auzo, bategandik bestera iru-lau pauso, alkarrengandik bi-tarte andi barik, lurrez be Bakio ez dalako zabal.

Artalde auzoa da txikiena, baiña euzki galdatan beti, goiz eta arratsalde.

Elexalde. Izenak berak diño nun dagon: eleiz kanpaien durun-diaren menpean.

Goitisol, erriko lurren gallurrean.

San Pelaio. Auzorik beteena. Sasoi baten izan zan auzo au Bermeorena be. Baiña luzaro ibilten ziran bakiotarrak eta bermia-rrak auzo onen jaubetasunagaitik asarre eta alkarri musturka. Az-kenean be Bakio'ren mende geratu. Auzo erromantiku eta erro-maniku da San Pelaio au.

Or dago Urkizaur be, errota ta guzti, itxasoaren zur. Eta Zu-biaur, izenak berak diño nun egon leiken.

Erriari izena emoten, Bakio'ko batsua, Bakio'ko Basigoa dei-tzen dautse liburu askotan.

Aurrera edo atzera ete doa Bakio bere anditasun eta bere iza-tean?

Milla bizilagun inguru bizi dira bertan. Ez jo goragotik. Orain lau urte 1.033 eukazan. Beste lau urte aurrerago, 43 lagun geia-go. Udako bizilagunik ezin lei kontuan euki. Ille biko uda da emen, beste inguruetakoko errietan lez. Origaitik etxe eta tokiak jente geia-goentzat euki arren, neguko bizitasunari begira, lengo agiriak on-tzat artu bear.

Bilbo'tik 27 kilometrotara egiten da. Gaurko kontu eta neur-tzeetan, Bilbo'ren area barruan. Bilbo'ko kasku konpasaren orra-tsa sartu eta ez da asko zabaldu bear Bakio bere erruberan sar-tzeko.

Baiña emon ete dautsa ezer Bilbo'k Bakio'ri?

Orain iru urte agertutako «Vizcaya» aldizkarian irakurri ei-kean, turismoari buruz aurrerakada bixkorra igarten dala Gaminitz (Plentzi) eta Mungia inguruetan. Ala ta be, nai ta Bilbo'tik laster egin edo laster egon, gizonez, erri-biziz eta industri biziz, Bilbo an-

diaren ekonomitik ondoren gitxi artu dau oraiñarte erri onek.

Turismotik etorri ei leikio erri oneri arnas barria, eta batez, be, bilbotarrak euren ontasuna obetutzen igartean, atsedean tokirako lez aukeratzean etorri leikionetik. Ori da oraingo ustea. Len be esan dogu bilbotarren arnas leku dala Bakio au. Itxas ertzeko bide barriak, Plentzi ingurutik datorren bide barriak, ezin ukatu mesede asko egin dautsanik eta geroago, segurutik, obeto igarriko da bide onen mesedea. Len Gaminiz'tik, Plentzi'tik Mungiaira jo bear zan, Bakio'ra etorteko. Gaur ez dago ainbesteko ostera egin bearrik.

Nabarra'ko erriberan, Azkoiaren (Peralta), Lodosa eta Mendabi inguruan egoten ei dira errazuririk onenak, gurienak. Errazuriak, gaur berba orregaz ez doguz ezagutzen Euskalerrian. Erderazko izenez, esparrago izenez bai eta gero ta ugariago. Zegaitik igali edo frutu oneri frantzez porruak deitu toki askotan, emen ain ugari eta ederrak dagozala?

Bizibidearen neurkiña ei da frutu au. Jan-edan on eta itxurazkoen asiera. Baiña ba zenkian, Bakio'n artzen ziranak, lodieraz, samurtasunez eta ugaritasunez, beste iñun bardiñik ez eukela? Ala diño orain eun urte goragotiko liburuak.

Ori, ortuari onak eta mamintsuak eta txakoliña eta basoetako egurra izan ziran, ain zuzen be, San Pelaio eta Zubiaurtarrak arrotu eta ordurarte Bermeo'ren menpean biziarren, euren buru jaube gelditzeko eskubidea eskatutera zirikatatu zituenak. 1837 urtean zan ori. Bermeo aserretu zan eskabide orregaz. Bakio'ren errezoiak guzurtzat bota be bai bermiarrak. Baiña larogei urte geroago, 1927 urtean, Bermeo'ren menpetik urten eta Bakio'n sartzea lortu eben.

Euskalerriko itxas erriak sarri ibilli izan dira istorian estu eta keskaz beterik. Itxasoetatik etorri ziran gerra asko eta jakiña, itxas ontzietan etorten ziran gerralari edo itxas lapurrak, sarri erabilten zituen erriak buruz gora.

Lengo gizaldiaren asieran be gertatu zan olako zerbait. Euskalerriko itxasertzean ingelesan barkoak ebiltzan 1804 urtean. Sei gerrako ontzi andi be ikusi zituen bere aurrean, kañoiz eta izkilluz beteta. Ez euken euskaldunen aurka ezer, baiña bai orduan emen sartuta ebiltzan frantzetarrena. Eta euren amorruez eta euren aurka ebiltzan ingelesan ontzietatik, barkoetatik, egunero txalupa txikietan bialtzen zituen gizonak Bakio aldera. Gabaren illunean itxasertzaren laguntasunagaz zitalkiango atxilotu al izateko arerioaren txalupak.

Bakiotarrak ba eukezan legorretan, itxas gaiñean, kañoiak. Itxasertz guztian egoten ziran, tokirik aurreratu edo gallurrenetan, kañoi zarrak. Emen, Bakio'n, sei librako bi egozan. Zarrak biak. Gauz ez ziranak. Zer egin eurekin 40 kañoiekin armatuta etozan gerrako ontziak aurrean eukezala?.

Gogoan artzeko da, gaiñera, 1782 urtean San Pelaio inguruan legorrera salto egin ebela ingelesak, eta Gaztelugatxeko eleiza ondatu eta ustu ebela.

Gauzak orrela, lengo jazoerak gogoan euki eta oraingo euren egoera makala ezagututa, bakiotarrak erabagi eben ezetan asi barrik, jazo eikeanaren testigu ixil izatea obe zala eta alaxe geratu ziran, euren aurka etorri eikeezan kalteak andiak eta ordaindu eziñak izango eikeen bildurrez.

Beti izan da Bakio erri txikia edo txikien arteko. Aberastasunak lurrean eukiarren be, zabaldu eta ezagutu eraziteko aukerarik euki ez ebana. Bizkaia'n, bere premiñetan, eta erbestetarren eskabidetan egon izan diran diru-eskabide, gizon-laguntza, erri zerga, eta antzerakoetan, Bakio beti agertu izan zan erri txiki edo bekoen artean.

Frantzetarrak emon egon ziranean, Thouvenet euren ordezkariak kontribusiño bat ipiñi eutsen emengo erriari. Danen artean bi milloe eta irureun milla errial. Erri guztien artean, betik asi ta zazpigarren gelditzen zan Bakio. Begira, Martzana, Lanestosa, Ubi-dea, Ibarruri, Sukarrieta eta Iturroitz (Trucios) ziran bere baiño gixtiagokoak. Bakio'ri 1743 errial eskatu eutsezan.

Orrez gañera illero emon bear izaten eben erri guztiak frantzetar gudarosteak, ejerzituak janaritzeko laguntasuna. Onetan be zazpi eukazan bere baiño berago gelditzen ziran erriak: Martzana, Axpe, Izurtza, Begoña, Apatamonasterio, Derio eta Fika.

Euskal abizen batzuk, urtien urtetatik, Bakio'tik datoz. Bertan daukez jatorrizko etxeak. Ala Barturen, Elexpuru, Olea, Ormaza, Errenteria eta beste batzuk. Euretariko askok ba dauke tokia gure errietako gora-beretan eta noiz nai irakurten diran gure errien izate eta bizitzako kontu, agerkai, gertaera eta egiñenetan.

Erriak, txiki nai andi izan ia eurenetik bizi ziranean, bear ba da Bakio be, itxas basterrean, bertaratzeko bide egokí eta zuzen barrik, premiña askodun erri lez agertuko zan. Gaur beste edozeñen pareko. Asko baiño aurreratuago. Ba eukan erri esankizunetan, errefranetan, alako erdi olgeta eta erdi burlazko esaera bat: Bakio,

aparta akio, aal baakio; lapa saldia dario.

Eta zein auzo errik ez eutsen ipinten batek besteari aitzakiren bat, eta esaera zintzo lez zabaldu? Asi Biazkaia'n nai Gipuzkoa'n erriak aitatzen. Libre dagonak kukurruku egin bedi. Ondarru txabillu erri beru lapiko bete salda beru, esaten eutsen mutrikuarrak ondarrutarrei. Eta izena aldatuta, Ondarru'ren ordezkari Mutriku esanda, bardin erantzun ondarrutarrek mutrikuarrei. Beraz ez jakin esaera ondarrutarrei ala mutrikuarrei esana dan. Zeiñek esan ala artu bear. Elantxobe milla pobre, esaten ba eutsen iatarrak elantxobetarrei, eurak erantzungo eben Elantxobeko milla pobreak iatar askori katillu bete salda emoteko edonoiz eukela. Eta Lemoatarrak esaten ba eben ardien pekorotzak saltzen joaten zirala Durango'ra, durangarrak erantzungo eben euki egin bear zirala eurak be saltzeko.

Gu beti izan gara anai, errien artean. Baiña anaiak lez olgetan ibillita, alkarri tirrika, txopinka, destainka, bazkaritan edo ta konbidatuzetan zaiñek geiago eta obeto emon alkarren leian ibiltzen amaitzeko.

Gaur, Bakio'ri, bestelako esakera bat bai aldetu edo jarri leikio: Bakio, bilbotarren diruei dantza dagio. Izan be udarako leku egoki, atsegin eta baketsua dalako, bilbotar asko zirikatatu ditu Bakio'k eta bertan udaldia igarotera labandu. Gorago be esan dogu aukera au eta ba dirudi urte gitxitan aldakuntza andia egingo dala itxasondoko lurraldietan. Eukiko ete dau Bakio'k nortasunik eta aal izanik bilbotarrei euren etxe-bizitza eta abarretan gaur gure erriak eta bertako dotoretasunak eskatzen daben itxura eta egokitasuna zaindu eragiteko?

Erri txikiak ori be zaindu eragin bear dabenik ezin ukatu. Bakoitzaren erri izatea, alderdi guztietatik zaindu eta errespetuz ikusi eragitea. Erriak, txikiak izanda be, bakoitzaren nortasunari eutsi bear dautse eta bakoitzaren izatea lotsaz begiratzen erakutsi. Erriak, bere itxura eta ezaugarriak zaindu bear ba dauz, premiñazko da egokitasun orreik zaindu eraztea.

Illentzako lotsa eta errespetu andia euki izan dabe beti euskaldunak. Gure eleizetan lurperatzen ziran beti gure asabak, légeak ori egitea lagaten eben artean. Geroago, eleiz ondoetan gertau ziran lur bedeinkatuak, eta oraindik be, eleiz ormak bitarteko dirala kanposantu asko dagoz gure errietan.

Eleizetan lur emotea galerazoten agertu ziran legeak, 1787 urtetik datoz. Kanposantuak egiteko aginduak orduntxe agertu ziran, eleizetatik lur emoteko oiturak kendu eta aldatuz. Osasunaren aitzakia ipinten zan orretarako.

Ez eben ondo artu agindu ori gure erriak. Batez be erri txikietan asarraldi bizi eta setatsuak egon ziran. Erri askotan, legea beteten zan itxura emonarren edo ta agertuarren, legerik ez zan be-

teten. Orrela gertatu oi zan urte askotan. Egunez kanposantura eroaten zituen il barrien gorputzak eta gabean, eskutuan, eleizetan lurra emonda laga, famili bakoitzak eleizetan eukan sepulturaran. Maiteago zituen gure asabak eleizetako obi eta sepulturak eta bakoitzaren fede eta sinismenetan, obeto zainduta egozan gorputzak eleizako lurrean.

Lege ori agertu zanean, Bakio'n 48 illobi egozan. Egin kontu beste ainbeste famili edo senitarte egongo zirala. Eta emen, Bakio'n, legearen emolea barik, erriko parrokoa, bikarioa estu artu eben lege ori betetera makurtu zala ikusi ebenian.

Erriari ezer esan barik, bikarioa kanposantu barria gertuten asi zan. Orduko paperak diñoenez, ez ekien erritarrak zer gertuten ebillan, edo ta bikarioak erdiz-erdi gauzak esan eutsezan. Barturen abizeneko zan orduko bikarioa. Baiña erritarrak ikusi ebenean gertuten ebillan lurraldea zertarako zan eta batez be igarri ebenean erriko bikarioa legea betetera makurtzen zala illak obiratze onetan, estu artu eta erabilli eben, eta ez eban beste erremediorik euki bere burua bizirik ikusi nai ba eban bikariotza laga eta eskuatzea baiño. Ainbestean iraun nai eben bakiotarrak eta bakiotarrak lez beste erritar askok euren sentimentu, fede eta siniskeren menpean.

1811 urtean, Gaztelugatxe'ko eleiza eta San Pelayo'ko eleiza zaintzeko, iru abade egoten ziran, bi bikario edo parroko deituraz eta beste laguntzalle bat.

Sasoi aretan domekero eskintzen zan meza bat Gaztelugatxe'n eta beste bi San Pelaio'n. Eta oraindik be eleiztar asko egozala ta abadeak geitu nai izan zituezan. Eleizetako ardurea eukanak baten bat kendu nai eta erritarrak bat kendu barik beste bat geiago eskatu. Eta eskabide ori izenpetu ebenak zeintzuk izan ziran ba dakigu: Orra: Jose Bengoetxea; Jose Azeretxe; Jose Lorra; Jose Erramun Isasi; J.B. Uriarte; Antonio Zabala; Patxin Uriarte; Txomin Uriarte; Jose Barturen; Migel Barturen; Jose Ibiñaga; Patxi Ugarte; Patxi Renteria eta Antonio Beitia.

Ez dakigu zetan gelditu zan eskabide ori, nai eta Calahorra'ko gotzaiñak erri edo inguruko abade nagusiei euren eritzia eskatu eutsela ta agiriak ezagutu.

Gaur, eskabideak eskabide, elitzake errez bakiotarren guraria betetea. Eta bakiotarrak eurak egingo ete leuke ordun lako eska-biderik?

Olea bat gogoan daukat. Bakiotarra zan. Onetan ez dogu nai itsu agertu. Bakiotar lez etsiten eben jaiotetxea edo jatorriko etxea Bakion dagolako. Beste batzuk Mendexarra zala diñoen. Emen be etxea dauke ta oleatarrak.

Gerrako bandera berak erabillen, Castellako gerraetan. Zaldia il baiña eutsi berak bandera edo ikurriñari. Eskerreko besua ebagi

eutsen, ezpataz. Eta berak oraindik be eutsi. Beste joera baten, eskuma be ebagi eutsen, eta eskutur moztu biekaz al bestean bandera artu eta Olea! Olea! deitzen jarraitu ei eban il arte. Orrelakoxeak dira bakiotarrak izate, egite, siniskera eta deituretan.

Eta besterik ez dautsagu esango, orrelakoxe jarraitzeko baiño, Bakio'ren aldez.



BALMASEDA

Bizkaiko baster ezagun bat ikusi daigun. Ez da euskerarik egiten bertan. Asieraz ez zan Bizkai'ko lur be. Izena be ez yatorko euskeratik: Balmaseda. Ortan jakintsu diranen eritzietan, ebraitar eta latiñez egindako izena da: Vallis-Maseda.

Zetatik, baiña, latiña eta ebraikera ain errez alkartu? Erri au Maseda lurretan sortu eta irasi ei zan, eta Maseda ori, ebreotar itza ei da, goia, gaiña esan naiez. Beraz Valmaseda, eritzi orreri jarraitu ezkeru, erderazko Valle del Alto izango litzake. Edo gure berbetan, gure esakera jatorrean, gure esan naian, Aranguren. Eta ain zuzen be ez dago Aranguren Valmasedatik urrun.

1975'ko Bagillean bete ziran ain zuzen be bosteun urte, Fernando Katolikuak, deitura edo titulo barri bat emon eutsala erri oneri: Ala, 1475 urteko Bagilla'ren 14'an, igaro ziran bosteun urte, Tordesillas'en izenpetu edo firmatutako agiri baten, deitura au emon eutsala: Cámara de su Condado y Señorío de Vizcaya.

Askok ez dakie zegaitik emon ete eutsan deitura ori. Ez dira kontura jausten.

Ortan arduratsu eta jakintsu diranen eritziz, Kamara izen orregaz ez eban besterik esan nai, erregearentzat dirua batzeko bertan egoan Aduana lakoa ezagutzen ebala baiño eta legezko indar geiago erriari emon eta bide batez ederkatura egin.

Itxuraz, sasoi aretan, itxasotik sartu eta Castilla'ra eroaten ziran eroskiñak, iru leku eukezan zerga edo inpestoak ordaintzeko. Ez ain zuzen be itxas ertzeko portuak, bide kurutzetan ipiniak baiño, bideen erak kontuan eukita aukeratutako errietan baiño. Origaitik, ortarako iru portu lez ezagutzen ziran Orduña, Gazteiz eta Balmaseda. Bilbo, Castro edo Santoña aldeko itxasontziak sartutako gauzak euretatik zear Castilla aldera bialtzen ziralako.

Origaitik, aurretikoen batek Aduanea sortu ba eban emen, beste Errege onek, izen orregaz, ziurtatu eban Aduana ori.

Erri lez 1 190 urtetik ezagutzen da, ortarako eskubideko agiria urte onetako Urtarrilla'ren 24'an emon zalako. Lenengotan Valmaseda au ez zan Bizkaian sartzen. Erri legea emon eutsenak ez ziran Bizkaiko jaunak, eta errialdea bera orduan ez egoan Bizkai lurretan. Baiña emengoak alegiñez eskatu eben Bizkai izatea eta gero be, ori lortuta be, ziurtasunen jaube egin nairik jokutzen ezautzen dira.

Beraz orra Balmaseda, sortzez bizkaitar ez ba zan be, gogoz eta biotzez bizkaitar egin eta agertu bere bizibidean.

Ordunte'ko mendiak zear Burgos joten dago Balmaseda. Erria, Cadagua erreka edo ibaiaren egalean sortua da.

Bide kurutzea. Emendik doa Bilbotik Reinos'a duan bide nausia. Emendik Castro'tik Bilbo'ra duana, gaur errezago bat euki ba dauke be. Eta emendik Bilbo'tik Burgos'era duana. Beraz, len esan dogun lez, Aduanea ziurtatzeko, toki egokia, aukerako tokia.

Geitzen datorren erria da. Ia zortzi milla bizi lagun daukaz gaur. Gure gizadi onen asieran, 1900 urtean, ain zuzen be 3.226 eukazan. Geitzen igarri arren, asko dira Bilbo aldera joan izan diranak. Egia esateko, len Ameriketara joateko oitura eta garra igarthen zan emen eta azken denporetan gar ori bastertu eta Bilbo'ren mesedean berotu zan.

Etxetako tresnagintzan lan egiten da gaur emen. Mueble gintzan. Ontan, egurrean jarduten daben ainbat lantegi dagoz, batzuk langille askodunak. Burdinkiak be, burdiñean lan egiten daben lantegiak be, ugari dagoz. Cadagua'ko urak erreztasuna eta aukera emoten dabe orretarako.

Sasoi baten kobrezko galdarak egiten ziran emen, eta inguru askotan ondo artuak izaten ziran bertako galdara eta pedarra eta antzerakuak. Baiña gizaldi onen asieratik zeregin ori makaldu egin da, eta gaur be orrelako galdarak egiten ba dira be, banaken ardua eta ogi bidea da ori.

XIII eta XIV gizaldietan, ezpata, arkabuz eta bestelako izkillu jgari be egiten ziran emen, baiña ortarako ikatzik ez egoalako, oertan bera laga zan gintza ori be.

Merkatarien erri be izan zan eta origaitik pañu asko zabaltzen zan emendik. Itxasontziak ekarri, emen gorde eta emendik zabal-

du. Bilbo'ko portua anditu ala, Balmaseda'k bere inportantzia galtzen igarri eban. Kontuan eukiteko da Bilbo'ko portua egin aurretik, Kantauri itxasoko porturik onena Castro'koa zala eta an egiten zala erbesteko merkataritzarik geiena. Eta esan dogun lez, andik beste leorreko iru portu edo Aduanetara eroan salgaiak. Gaur Castro arrain portu ba da be, txikia da ta ortik bertan irabazpidea euken erriak, bestien mesedean, bastertzea.

Balmaseda merkatarien erri izanik, bidezko zan munduko merkatariaik bertara urreratzea. Orrela judeotarrak ezagutzen dira bertan Erdi Aroan. Eta zital ezagutu be. Ez beintzat bertako jatorekin ondo konpontzen.

España'tik judearrak kanpora jaurti aurretik, ortarako giro berezi bat sortua egoan. Balmaseda'n be, 1483 urtean, erriak artu eban erabagietan ikusten danez, asarre bizi ziran bertakoak merkataria areikaz edo ta arein sendi edo odolekoekaz.

Ba dirudi merkataria areik erregeen mesedez sartu zirala edo mesede ori lagun eukela.

Balmasedan, urte orretan erabagi ebenez, erri onetan biziten ezin eikezan judearrak sartu, ez eta judear bat balmasedar emakume batekin ezkondu be.

Iru urte geroago be burruka gogorrek egon ziran erri onetan. Oraingotan erregeak judearren alde urten eben, eurak emondako erabagi baten konturatzen gareanez. Baiña balmasedarrak ez ziran ixilean origaitik geratu. Bizkaiko Batzar Nagusietara jo eben, Gernikako Batzarretara auzia eroan. Erriak bere ordezkariai aukeratu zitun eta aukera ori emon yakoen judearrei be, eta origaitik don Haron bat aukeratu eben euren ordezkari. Eta orduan Batzar Nagusiak artu eban erabagiaz, judearrak Bízkaik urterera beartu zituen, ori bai, erria lagatean, bertan eukezan ondasunak Balmaseda'ko erriak zuzen eta neurritz ordaintzen eutsezala.

Alaz eta oraindik be judearrak Errege Katolikuengana jo eben eta auzia irabazi. Baiña sei urte barru, eurak be Bizkaiko Batzar Nagusiak artu eban erabagia artzera beartu ziran. Eurak be España'tik kanpora bialdu zituen judearrak.

Bizkaian Balmaseda inguru au izan zan judearren tokirik eza-gunena.



BARAKALDO

Iru erreken artean dago Barakaldo. Urez ugari, ikusten danez. Baiña ez edateko urez. Azken urteotan burukomin eta kezka ugariz ezagutu dogu erri au orrelako ura dala-ta.

Len esana, Kadagua, Galindo eta Ibaizabal edo Nerbion'ek inguratuta dago, iru lau tokitatik, Barakaldo'ren lurraldea. Burgostarrak dira Kadagua'ren urak. Bizkaitik 23 kilometrotara sortuten da erreka au. Galindo barriz, Ugarte'n jaioten da, gaur San Salvador del Valle izenez ezagutzen dan lurretan. Danok dakigu Ibaizabal Elorrio inguruan, Udala azpian sortuten diran Zumetegi'ko uretan asten dala eta gero Orduña'tik datorren Nerbion'egaz alkartzen dala, Bilbo baiño lentxuago, eta izen onegaz jarraitu Bilbotik zear.

Bere urei zor dautse Barakaldok bere egoeraren zati asko.

Orain 120 urte, iru milla lagunik ez eukan. Beste Bizkaiko erri asko ziran bera baiño andiago. Esate baterako errez ikusten dira orrela Bermeo, Karrantza, Durango, Elorrio, Orduña eta Orozko, berak baiño lagun geiagogaz. Mungia bera andiago zan. Kontuan euki Mungia izenagaz eleixatea eta uria egon zirala, biak nastean, alkarren artean korapillotuta.

Gaur, eun urte geroago, besteak neurri zuzen bat eroan dabe gorakadan. Bizitzaren ugaritasunari buruz, gorakada neurtuagoa, zuzenagoa. Barakaldo, ostera, tatarrez etorri da goratzen, trenka, bideak artu-ala lagun barri artzen.

Gaur Alonsotegi be barruan sartuta, 120 milla lagunetara elduta ibiliko da.

Jakin bearreko da Alonsotegi'k ez ebal sekula erri legezko bizitza jatorrik euki. Ez eban orretan nortasun osorik euki. Luzaro

Arrigorriagagaz batuta edo alkartuta ibili zan. Gero arengandik banandu eta azkenean be Barakaldo'k iruntsi.

Zer ziran barakaldotarrak jatorriz?

Gaurko giroan ezin sinistu geinke oraindik gaurko barakaldotarrak jatorren aittitak zelako bizi modua euken. Gaurkoari begiratu ta, ez genduke asko igarriko ordukoen izaterik.

Delmas irakurtean, barakaldotarretzaz berak diñoana euskeratu eta begira zer diñon:

Lurgin, laborari, baserritar eta arrantzale era batera dira barakaldotarrak; itxastar eta meatz gizon, miñeru, batera. Noz nai euren lurretan laiaketan, edo ta euren batel eta txaneletan ostra tokiatara urreratzen ostra billa edo ta treña zabaltzen arrain nairik, edo ta meatz lurrez, mineralez betetako gabarrak erabilten, edo ta Triano'ko mendi eta basoetan, pikatxoaiagaz meatz orreitatik bertako aberastasunak ataraten.

Orra barakaldotarrak. Oraindik gaurko industriaren indarragaz konturatu barik, ametsik be egin barik euren lurretako errietatik ainbesteko langintza sortuko zanik. Etengabeko langille beti, geldi eta atsedeen eziñeko biargin.

Delmas'ek ba diño beste jakingarri bat be. Erromeri zaleak ziralara, edo ta orduko erromerietan alai eta umoretsu agertzen ekie-la, bai eta burrukalaria amorratu be.

Barakaldo'k, bere gizonen artean, euki izan ditu sorterriari buruz, norbere erriari buruz, zintzo, arduratsu eta gogotsu agertzen jakin izan dabenak.

Barakaldotarra zan Francisco Aranguren bát. 1808 urtean il zan. Baiña benetan be jakingarria bere jokabidea. Merkataria zan eta aberastu bere tratuetan eta bere goraberetan. Ori zala ta zer esan eta berba-leku asko ipini eban. Baiña ori lagata, Bizkai'ko eskubideak agertu eta zaindu nairik alegintsu eta jakitun agertu zan.

Sasoi aretan Toledo'ko kanonigu batek, Llorente'k, gogor idatzi eban gure erriko eskubide eta izatear'en aurka. Orduan be ez eukan gure erriak, inguruetan, giro onik. Eta Aranguren oneri agindu eutsen erantzuna gertuteko eta egiteko. Erantzun ori gogorre gitzat artu zan. Eta ala etsi zalako, besteak bere liburuak idazten jarraitu ba eban be, Aranguren oneri ez eutsen laga bigarren libururik ataraten. Zentzurea egoan sasoi aretan be. Eta bere lanak, bere beste erantzunak, bere beste liburuak, zentzura orren zoritxarrean jausi ziran. Origaitik eskutuan geratu ziran agertu al izan ebazan kopia batzuk.

Zamakola dimatarraren lagun aundi izan zan eta beragaz batean, benetako adiskide eta errizale lez jokatu eban urte batzue-

tan. Gero Zamakola orren jokerak, aurreratuegi zala ta, atzeratu egin zitun asko, bildurtu edo ta erabillen aututik bastertu. Ala Aranguren au be, bildurrez edo ta beste lagunak zirikatu eta atzera eraginda, baretu egin zan pixkat, baiña bere asmo eta elburuak laga barik.

Dana dala lenengo liburua, nai eta moztuta, gauza batzuk kenduta, agertu al izan zan. Bigarrenak ez eban zorionik euki. Orduko zentzoreak ainbeste orritako agerkizun bat egin eban Aranguren'en teoriak ezetsiten eta bigarren liburu ori agertzea galerazi eban eta baita baimen eske bialdu eban liburu-egilleari biurtzea be.

Antonio Trueba Bizkaiko Artxiboetako zaindari egin ebenean, berak diñonez, arrituta geldi zan Aranguren'en libururik artxibo orreitan billatu ez ebalako. Gero Mariano Egia jaunak emon eutsan bat, irakurteko. Bitartean Trueba kendu egin eben artxibo zaintzatik. Eta urte batzuk geroago, politikako goraberakaitik zalako ori, barriro biurtu zanean, pozik idazten dau an billatu ebala bigarren liburua. Eta orduan, Egia jauna ilda egoalako, ez ebala jakin emazteari biurtu ala Artxiboan laga. Eta azkenean be antxe laga eban Bizkaiko semeak iñoiz irakurri eta bertatik ikasi dagien.

Orra barakaldotar bat, eta bere liburuen jakingarri bat.

Nok esan dau, eta barriro be gogoratu nai dot au, Barakaldo'n euskeraren arrasturik ez dala gelditzen?

Erderazko liburu bat irakurten nago.

Ibarreta'ren gañean, Peñaguren'en lepoa dago, diño bertan, eta goian, Santa Ageda'ren ermitarako bidean, Basatxo, auzoa, Abando'ri begira. Berago Alday baserria eta aurrerago Larrakoe-txea, Pikaetxea eta Aldako.

Kadaguaren erriberan Zubileta'ko aran ederra, eta emen Elkanogaz munduari bira egiten joan zan Juan Zubilleta mutikoaren etxea.

Gero Askula, Larrazabal eta Santa Ageda. Ain zuzen be, sasoi baten, erromeririk andiena egiten zan tokia. Barakaldotarrek euren izate jatorra agertzen ekien tokia.

Erromeriak aitatu eta txistu soñua datorkit gogora. Urte asko ez dira Txistulari aldizkariak Bizkaian egozan txistulariak agertzen zitun lar> baten, Bilbo kenduta, Barakaldo agertzen zan lenen, 55 txistularigaz. Orra Barakaldo. Erdaldun eta euskaldun, itzal eta alai, aberats eta beartsu, zikin eta ketsu... Ala ta be gogotsu.

Keiak be zerbait gogoratu eraziten dau: sukaldea. Norbaitek esan dau Barakaldo'n porrusalda inguruan dana aztuten dala. Ez dakit. Emengoak, bai, esaten dakie, porrusalda, Jaungoikuak agintzen daben eran, au da, bene-benetako porrusaldea ementxe bakarrik gertuten dala. Au da izan be bertako sukaldarien plater berezia. Ori eta piperrak bakallauagaz, ez makallaua piperrekin.

Ori ez da, emengoen ustez, bertako gertaeraren erdira be eltzen. Au da, piperrak bakallauagaz. Or dago kakua.

Zenbat bizilagun eta daukaz gaur Barakaldok?

Nire errian erantzuten dakie: Aoa neurri.

Eta zenbat euskaldun?

Oneri erantzun leikio: Jaungoikuak argi!

Baiña Barakaldo be Bizkaia dana gogoratu egin bar dogu, Bizkaiaren biotzean dagola. Eta Barakaldon euskeraz dakienak dagozanik ezin ukatu eta ez jakin egin. Eta Barakaldo'k be gure ikustea merezi dabenik, ezin alboratu.

Ikus dagigun gaur erri ketsu eta langille au bere gora beretan. Industri eta langintzak laga eta guri, euskal zaletasunean jakingarri leikeguzan azalean.

Bilbotarrak esaten dakie: San Bixente Abandokoa, legitimoa.

San Bixente, Barakaldokoa, bastardo.

Zegaitik?

Ez jakin. Erantzun ziuurrik ezin geinke emon. Ain zuzen be biak dira San Bixente Martiriari dagokiozanak, erri bietan San Bixente'ri eskiñitako eleizak dagozalako.

Bilbo'n dagona, sasoi baten Abando'koa, XIIgarren gizaldia-
ren azkenetan jaso eta eskiñi eban Garzi-Galindez batek, Ayaka-
be'ko kondien bigarren loba egiten zanak.

Barakaldo'ko au XIIIgarren gizaldian irasi, fundatu eban Ga-
lindo Retuerto, Zorrotza'ko jaunak, sasoi aretan Barakaldo'ko
etxeari yaokon lenengo oiñordeko lez sartzen zanak.

Orrela dala, biak santu bateri eskiñiak dirala, beste nunbait bi-
llatu bearko litzake esakera orren esan naia. Bear bada Abando
eta Barakaldo erri txiki zirala, alkarren artean eukitako ikusi ezi-
ñean sortutako ataraldien bat izan leike edo ta andik urtena, edo
ta olgetaren bateko zirikadaren bat, edo ta esan-mesanen ondore-
nez sortua. Baiña esakera or dago, zetatik sortu eta zegaitik geldi-
tu eta zabaldua dan ez ba dakigu be.

Euskal-erdera motrollokerietan, ba dauka esan nai eta mami-
ña esakera orrek:

San Bixente, Abandokoa, legitimoa,

San Bixente, barakaldotarra, bastardo.

Euskal esakeretan, euskal errefranetan, ba dauka Barakaldok
beste esakera jator bat,: Barakaldo'ko keriza, guztia da manteka.

Gaur Barakaldon ezagutzen dan ke eta laiño, zikinkerri eta koi-
peen ondorenez ete dator erriak beretzakotu eta esaten eban esa-
kera au?

Onetan be, ezetz esan bear.

Ba dakigu Biibo ondoko erriberak aberatsak izan zirala, lengo denporetan, ortuari eta igalietan. Doistu'ko ibarra, errekonodoa, eta bertako baratzak, entzute andiko frutuak emoten ekien. Oraindik be deustotarrei tomateruak deitzen dautse eta ango madari eta sagarrak ba euken Bilbo'n arrera berezi bat.

Samaniego batek, bere bertso eta kantuetan, esaten ekian, Barakaldo inguru oneri begira, basarte aberatsa, erribera urretsua egoala Lutxana inguruetan.

Eta Delmas'ek be ba diño, Lutxana aldeko erribera au asko aitatu eta goratua zala bere ortuari eta igaliakaitik, bere arrain-toki aberatsekaitik eta bertan batzen zan eiza edo kazeagaitik. Kana-la'ko ostren urrengo, Bizkaian famako izan ziran Portugalete eta Barakaldo inguru onetako ostrak be.

Orra ba, gaur sinistu be ezin leikezan tokietan, oraindik lengo gizaldietan, paradisu baten lako egoera eta bizikera Barakaldo inguru onetan.

Esan dogun esakera dala ta, au da, Barakaldo'ko keriza guztia da mantekiari buruz, Azkue'k bere esaerak agertu eta oneri ipinten dautson agerbidean erakutsi nai dau, esakera ori oguzkera edo esateko modu berezi batez esaten zala, barakaldotarrak sasoi aretan erabilten eben euskerari burla eragitearren. Au da, erdal kutsuzko esakera eurei ezarri nairik. Argi eta zeatz esateko, burlaz, ez frutuagaitik, esateko moduagaitik baiño.

Dana dala Barakaldo ezagutzen asten ba gara eta bere inguruetako toki eta alderdien izenak, ainbat billatuko doguz euskal ja-tortasuna erakusten dabenak: Ametzaga, Aranguren, Auzoleta, Argalario-mendi, Basutxu, Bengolea, Gorostitza eta abar. Norbaitek esan lei. Banaka! Ez. Banakak esan doguzan lez jarraituko genduke beste ainbat aukeratu eta gogoratzen. Barakaldoko toponimia aberatsa da onetan. Olaetatik etorri eta sortutako izenetan ainbat dira: Olarte, Olaeta, Oletxe eta abar. Uretik datozeanetan be, Barakaldo erreka eta urez aberatsa izan dalako, begien aurrean daukaguz ainbat: Uraga, Urallaga, Urkullu, Uguliz.

Orreik oraindik esaten dira. Beste batzuk, bertara etorri zira-nen biurrikeriz izena be galdu. Mendi Erreka, esate baterako, gaur El Regato'n gelditu da. Olarkoaga bat, La Cuadra'n.

Baiña mamiña or dago. Sustarrak oraindik gordin.

Barakaldoren ezaupidea luzekoa da Bizkaian. 1051 urtea orduko, oraindik Bizkaiko jaun asko agertu baiño len, Abendaño, Muxika, Butron eta abar istorian izentatzen ezagutu baiño len, beste izen batzuk agertzen dira orduko errietako jaunen agergarri. Urte aretan, 1051'n, Busturi'ko Axpe'ko agiri baten, Lopez Blas-koz, baracaldensis confirmat, irakurten da.

Barakaldo eleiz-ate edo erderazko berbaz, erri legeetan antei-

glesia lez ezagutu da beti Bizkaiko errien artean.

Batzuen eritzietan, Don Tello Bizkaiko jaun zala lortu eban Barakaldok Somorrostro'ko errialdetik urten eta bere buruz gelditzea. Beste batzuen eritzietan olakorik ezin lei baieztu edo probatu.

Gernika'ko batzarretan, eleixateen artean, 33garren aulkia eukan eta era orretan emoten eban bere eritzia.

Bilbotarrak eta barakaldotarrak alkarregaz aserre ibili ziran 1 442 urtean.

Bilbotarrak eskubideak artzeko aukeran egoten ziran sarri eta euki be ba eukezan, askotan beste errien lepoz. Sal erosketa guztiaren eskubidea euren gain nai izaten eben. Merkatari odola euren bilbotarrak.

Jakiña da sasoi aretan, sal erosketa gaiñean, lege zorrotzak egoten zirala. Itxasontzietan sartzen ziran gauzak, jaki eta jantzi eta abar, portuetan geldi egon bear izaten ziran egun batzutan merkatariak eldu eta jaubetu arte. Eta edozein ezin eikean merkatarizari izan.


Bilbotarrak asarre ebiltzan barakaldotarrak Retuerto'n eta beste auzo batzuetan errebantak egiten zituela-ta.

Egun baten, asarretan irakiten, taldetan batu eta Barakaldora joan ziran eta Retuerto'ko errotak erre.

Barakaldotar batzuk igeska asi ziran, baiña errotari batzuk, euren etxeetan gogortuta, eurenak erre baiño len tiroka eta suz erantzun eutsen bilbotarrei eta orrela lagun batzuk ilda laga be bai bilbotarren artean. Ori ikusita bilbotarrak iges egin eben, burua makur eta odoletan buztita.

Gartzia Salazar'en esakeretan, sasoz iges egin be, inguru areitan geiago ibilteketan, eriotza geiago sortuko zalako, ango buruko eta bilbotarren urteera jakinda, Gartzia Salazar bera, bere seme eta senide ta lagunekaz gerrako deia zabaldu ondoren Barakaldora urreratzen asi ziralako, bilbotarrei astiñaldi eder bat emon eta betiko eskarmentua sartzeko asmoz.

Orra Bilbo eta Barakaldo, lengo denporetan, alkarri tiroka, alkarregaz eriotza arteraño berruketan, bitartean sal-erosketa egoala, bitartean merkataritza egoala.



BARRIKA

1936 urtean Barrika'ko emakumeak, euskereari al bestean eutsi eta bere zaletasunari beroaldi bat emoteko asmoz, sari eder bat ipini eben alegin ori indartu nairik, erritarren artean orretarako borondate eta ekiña oparoen erakusten ebenentzat.

Bilbo'ko egunkari batetik zorionak emon eta txaloak jo neutsezan. Beriala, karta batez, juradukotzat izentatu ninduen. Gaur olako ardura batek, ez leuskit poz andirik ekarriko. Zetarako esku-tatu ogei urtedunbateri aize barriak emoten dautsazala?

Ainbat urte igaro dira. Sariketarik ez zan egin, gerra sortu eta sartu zalako bitartean. Iraun ete dau gogo arek ibarrikatarran artean?

Getxo'tik Berango'ra, gero Larrabasterra, eta Urduliz alboan lagata, Sopelana'ko ondar egaletik zear, itxas olatuen aparraren mintzoa artzen, Barrika'ra. Elexalde'ra jo baiño len, Goierri dauka-gu. Erdiz erdi banatzen dira ibarrikatar bizi-lagunak Goierri eta Elexalde'n. Danetara be milla inguru. 210 famili. Baserritarrak batzuk eta besteak itxastar? Edozetara be baserri antza emon daiogun. Gaur, Barrika'k, itxasoari ez dautsa ezer kentzen. Merkantetan dabilzan lagun batzuen bizibidea eta kittu.

Lengo gizaldiaren asieran ainbat kapitan egozan: Arrarte, iru anai; Amezaga, Arganza, Arana, Larragoiti, Musarieta eta abar.

Itxasontziak be ba egozan. Gaminitz, Plentzikoen artean sartzzen ziran. Ala ta be ba dakigu Joan Amezaga batek 20 tonelada-

ko txalupa bat eukala; Santi Arrarte'k, 47'ko bat; Anton Arzadun'ek, 8'koa; Gabriel Kukullu'k, 28'koa; Junbaiste Kukullu'k, 34'ko bat; P. Gondra'k, 10'koa; J. Bta. Larragoiti'k 24'koa eta Juan Libarona'k 20'ko bat.

Geienak merkataritza ibiltzen ziran, Bilbo osteran txikiak eta besteak Baiona'ra edo Galizi alderako osteretan. Legorreko bi-deak baiño errezago ziran itxasotakuak. Gero, bide barriak zabaldu eta kotxeak agertzean, merkataritza ori galdu egin da. Eta lengo itxastarrak leortar biurtu.

Erri oneri begiratu, bere itxas ingurua ikusi eta bateri urteten dautso: Nun ete euren emengoak euren portu edo kaia?

Onetan Gaminitz (Plentzi) ingurura jo bear da. Antxe, egal baten, baster baten, sokondo baten batu eta lotzen zituen ibarrikata-rrak euren txalupa eta ontziak.

1740 urtean, Bizkai'ko portuetan egozan itxasontzien kontu-errazoa artu zanean, Barrika'n ba egozan zortzi txalupa: 590 kintaleko bat, 420'ko beste bat, 400'ko bi, 360'ko bat, 300'ko bat eta 290 eta 130'ko bana.

Sasoi bardiñean, Plentzi'n bertan ez egozan asko geiagorik. Amaika txalupa danetara be, eta Gorliz'en geitxuago: amabost.

Plentzi'rako joera, kate biurtu dan joera, berezko eta ia betikoa dau erri onek. Gaur be, urrutizkin edo telefonoetan, plentzitarren artean sartuta billatu bear dira emengoak.

Irurogetamar baserri-etxe inguru daukaz Barrika'k. Labayru istori-egileak, bere denporan, 72 etxeren izenak agertu zitun, Ele-xalde, Goierrri eta Musaurieta auzoetan.

Izen orrean artean agertzen dira aitatuko doguzan Txarta eta baita Barrika be, erriari izena emon eutsana.

Danetara be, lurrez 7,16 kilometro lautu edo kuadratu daukaz.

Gernikako batzarretan, eleixateen artean, 51garren eukan bere aulkia eta iritzi emotea.

Gaur gaurkoz ze etorkizun emon leiken Ibarrika'ri? Bilbotarren joerei begira bizi bear. Eta bitartean, al dan bestean, eutsi baserriari. Al dan umorez.

Ba dauke umoretsuen fama emengoak.

Ollagorretan errimia zan fama ba eukan emengo eiztari batek. Parrokoak be bai jaten. Oitura danez, eiztariak, kazadoriak, gogo onez edo txarrez, bialdu eutsan lenengotakoa abadeari. Itxuraz, eskerrik be ez. Oitzakotzat artu ta kittu.

Gure gizonak, andik laster, beste bat artu eta tabernan jan ei eben lagunuen artean abadeari deitu barik. Abadeak aitzakiak, pa-

tatakin ipini ebela geitzearren eta ori ollagorri bere izate guztia kentzea zala. Alperrik galtzea zala-ta.

Ori entzun eta eiztariak abadeari: Gaurkoa alperrik galdu? Bai zera. Alperrik galdu nebana onen aurrekoa zan. Abadeak ordagoa entzun baiña erantzun ez.

Ibarruri'n be ba dakie beste olako zerbait kontatzen.

Barrika noiz sortu zan?

Lenakoana: Jo urtietan barrena arrika, gaitz joko dozu lépoan barrika.

Bizkai'ko antxiñako errien artean billatuko dogu istoriaren paper eta agiri zarretan.

Amaikagarren gizaldian ba dago emengo Andra Mari'ren eleizaren barri, Izpea'ko Andra Mari'gaz batean, edo ta Gorliz'en eza gutzen dan Agirre'koagaz, eta Zamudio'ko San Martin, Igorre'ko Elgezua'ko Andre Mari, Berriz'ko Andikona, Orozko inguruetakoa lehena zan Mugarraga'ko San Migel, edo ta Kortezubi'n Basondo'ko Santi Mamiñe, edo ta Ozerin-mendiko Lorente donearen eleizak aitatu eta ezagutzen diran denporetan.

Barrika'ko eleizaren zaindaritza, 1388 urtean, Gonzalo Billela'ri emon eutsen. Jauntxoan denporak. Patroiak aukeratu eta izentatzeko oiturea egoten zan denporak, beti be dirudunen artean edo ta ingurutako etxe eta lurren jaubeen artean.

Atzerago jota, 1077 urtean, Errioxa'ko San Millan monastejiari etxe bat eskiñi eutsen Barrika'n. Ala irakurten.da ango «Cartulario» dalakoan. Bizilagunak eukazan etxe bat eta, gaiñera, bizitokiak egiteko eragozpenik ez euken leku bi.

Eta urte batzuk oraindik atzerago jota, 1052 urteko Gabonillean, Gartzia, Naparroako errege batek Naxera'ko Andra Mari eleizaren ardurapean laga nai izan ebala, ikusiko dogu, Barrika'ko au eta orretarako berari eskiñi eutsan emengoaren zaindaritza eta amarrenakaitik eukan irabazia. Bizkaia eta Errioxa'ko kondeak bi-tartekotasun asko eukiten eben sasoi aretan eta alkar laguntza edo mesedetan egiten zituen onelako tratuak.

Ez gaitezen urteetan galtzen bildurtu. Beste irureun urte atzerago be jo giñei. Orrela, 708 urtean Santxo Diaz batek «Txarta» izeneko etxea emen sortu ebala irakurriko dogu. Eta oraindik be denpora zarretan sakonago sartuta, 496 urtean, Santxo Bela bat irakurri al izango dogu Barrika'ko jaun lez izen orretako bere etxea jasoten.

Beraz gaur inguruetakoa errien anditzeak Barrika au itxas gaiñeko erri txiki eta banandu lez lagaten ba dau be, sasoi baten bestien parean edo beste batzuk baiño lenago billatu geinke gure erriaren izatean.

Zenbat euskaldun gaur Barrika'n?

Oraindik bizilagunen erdiak baiño geiago. Gaminitz'en (Plentzi'n), esate baterako, bi milla eta zortzireun lagun ingurutik eun bakarrik billatzen ba dira be euskeraz dakienak, eta Gorliz'en bi milla eta laurendik, laureun, emen bederatzireun bizilagunetik seireun billatu leikez. Ikusten danez Plentzi eta Gorliz'en inguruan geitu eta zabalduateak mesederik ez dautsa ekarri, euskera kontuan, Barrika'ri.

Beste alderditik, Urduliz eta Sopelana'ren auzo izateak, la-gundu leikio oraindik gure berbeta au erabili eta zainduten. Kontuan euki Sopelana'n, eunetik ia larogeik ba dakiela euskeraz eta Urduliz'en be euneko irurogei inguruk eusten dautsela.

Merezi dau, ba, Barrika'k gai onetan begiramen eta laguntasun pixkat eta premiñazko da euren aldetik be kontzientziko arduraz lez artu eta alegin gitea.

Barrika'n ba dago premiña asko beteteko sortu zan entzute andiko etxe bat: «Fundación Elorduy».

Inguru oneitako jatorrizko zan andre on batek, Concha Elorduy'k, bere ondasun guztiak laga zitun bost errietako premiñadunen mesederako. Orrela Barrika, Gorliz, Plentzi, Sopelana eta Urduliz'ek ospitale eder bat euken emen. 1914'n sortu zan.

Gaur, bizimodua obetuz batera, ospitale onein zeregiñak be aldatu dira. Erruki etxe orde, egon-leku edo residentzi atsegin biurtu dira. Ala ta be bost erri orreitako beartsuak lengo legetan dauke emen euren etxea. Orain ingurutakoak eta urrunagotik be etorten dira bertara. Gaur, danetara, 110 lagun dagoz bertan, 87 andrazko eta 23 gizonazko. Santa Ana'ren izeneko monja lagun-zalleak dauke bertako ardura.

Ogeitamar urte oneitan, bertako batzarreko buru, gizon kez-kati eta biotz oneko bat: Juan Gardókj jauna.

Eskolatxu bat be zabaldua euken bertan, baiña amaitu eban bere zeregiña.



BASAURI

Berrogetak milla bizi-lagun gaur. Bi milla inguru euskeraz egiten dabenak. Eta Euskalerrian gagoz.

Gizaldi onen asieran, orain 74 urte, bi milla lagun ozta-ozta bizi ziran emen. Orduko paperei begiratu ezker, 2.056. Lengo bizilagunen semien eta oiñordekuak ete dira ba gaur be bertan euskeraz egiten jarraitzen dabenak?

Basauri'ren buruaustea, problema: sei milla lagun kilometro lautu edo kuadratu bakoitzeko. Ia Sestao'k aiña. Barakaldo berak baiño geiago. Nora guaz?

Bizkaia'n aize pozoitua, kontaminasiño giroa igarten dan to-kietan sartuta dago errialde au. Sarri agertzen da errialde au gai orretazko neurri aztunean. Urrunetik igarten da bertako keia.

Orra Basauri, Durango'tik Bilbo'ra goazala, Ibaizabal'en ezkerretara, Ibaizabal eta Nerbion bat egiten diran mijetan. Etxadi eta lantegi, ke eta lurrin.

Merkatarien erri be ba da gaur. Ikustekoa da goizaldetan Merca-Bilbao ingurutako joan etorria. Ango tratu eta kontuak. Ango diadar eta ardurak. Danak prisaz. Etengabeko kamioien ibillerak. Bilbo'rako bakarrik ez. Bizkai'ko erri askotarako be egunero, batez be ortuariekaz, eundaka kamioik urtetan dabe bertatik.

Arizgoiti, Elexalde eta urbi auzoak. Arizgoiti'n erri burua.

Auzo erriak: Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Zaratamo, eta Bilbo.

Nun dira lengo baserriak?

Gaur etxe artean galdu dira geienak. Berrogeta iru ba egozala ba dakigu. Labayru'k be, bere Bizkai'ko Kondairan, agertu zitun. Erriari izena emoten eutsan baserria be ba egoan. Gerorako be merezi dau erreskada baten euren izenak gogoratu eraztea: Abarroa, Alambreteria, Ariz, Arizbarrena, Arizgoiti-bekoa, Ariz-saratsua, Arteaga, Arteagagoitia, Artunduaga, Artunduaga-goikoa, Atutxa, Atxukarro, Basauri, Basozelai, Bentagoiko, Bidebieta, Briskieta, Errekalde, Etxebarri, Etxezuria, Finaga, Goiri, Goienetxe, Ibarquen, Ibarra, Kanterakoetxea, Kareaga, Kareaga-goikoa, Landa, Lapazondo, Larrazabal, Luzarra, Ollargan, Solokoetxe, Telleria, Torre, Ugarte, Ugartezarra, Uriarte, Uribarri, Zarrate eta Zubialdea.

Kontu zaarra.

1 546 urteko Otsaillan, Martin Goxeaskoetxea, parrokoa, il zar». Eta bere gorputza oraindik epel egoala, bere aurrean, lurremon aurretik, ogeta amaika etxe buru batu ziran bere inguruan. Eta antxe, bere aurrean, bakoitzaren kontzientzari dei egiñaz, antxiñako oiturei jarraituz, eta eurak be noiztik etorkien ez ekien eskubideari eutsi eta bera zaindu nairik, euren elizarako parroko barria izentatzea erabagi eben. Artunduaga'ko Iñigo aukeratu eben orretarako eta bere laguntzalle lez Ibarra'ko Patxi eta Aperribai'ko Martin.

Danak eritxi bateko agertu ziran eta ao batez egin ebezan izentatze oneik. Eta orduko gotzaiñari, obispoari, eskatu eutsen, izentau zituenak nai ez ba eben be, serbitsu ori egin eta betetera beartuteko, erriaren guraria eta eskabidea ori zalako, eta benetan premiñetan egozalako.

Aukeratze onek ez leuke gaur iñor arrituko, beste zerbait tartean igarriko ez ba litz.

Jakiña da sasoi aretan Abendañotarrak inguru oneitan euen indar eta lotsa. Lotsa baiño bildurra geiago. Erri askotako zeregin eta ardurak eurenak lez artuta eukezan. Euren gaiñetik ezin egian ezer iñork. Ordurarte Basauri au Arrigorriaga'ren auzoalde lez sartu eta etsiten zan beti. Ez bakarrik eleiz legeetan eta zeregiñetan. Bai errikoetan be.

Baiña basauritarrak euren izatea eta nortasuna zaindu nai izaten zituen. Bestéak erabilli barik, eurak zuzendu nai. Euren buru jaube agertu nai izan eben. Aspalditik ebiltzan onetan. Eta eurenarekin urtetea lortu eben.

1510 urtean egiña zan euren parrokia. Ba dirudi eleiz au egiñetan Abendañotarrekin eta Arrigorriagakoekin lotzen zituezan kaiteak eteteko grazia eskatu eta lortu ebela. Torrea geroago egin eutsen eleizeari, 1771 urtean.

Erri legetan be Arrigorriaga gandik banandu eta alde naian ibilli ziran luzaro. Aren menpetasunetik urten naian. Gernikako Batzar Nagusietarako eskubide jatorraren biñla. Auzoen artean entzuten zituen iñoiz, orduko batzarretan, bere antzera egozan beste erri txiki batzuk be. Baiña ez erri legez eta izatez. Onetan, urteak joan eta urteak etorri, Basauri'k ez eban lortu Gernika'ko Batzarretan bere aulki eta bere botorik eukiterik. Orretarako egi-ten zituen eskabidetan, beti euki eben ostoporen bat.

Orrela lagatea gauzak erdizka esatea litzake. Eta biribildu dai-
gun txostena. Gure Batzarrak ez daiguzan ain gor laga eta basauritarren alegiñak be ez ain utsean.

1858 urtean lortu eben basauritarrak aintzat artzea eta urte orretan emon eutsen jarlekua eta botoa. Azkenengoz emon bear-ko eben euren erabagia eta euren eritzia, foruak galdu ez ba ziran. Ain zuzen be urte orretan gure nortasuna meetu eta auldu zan, eta oraindik gelditzen zan ezaugarri berezi baten aria eten. Origai-
tik Basauri bere izatea eta bere berba entzun eraziteko aukera bar-rik gelditu zan.

Erri iraultzallea, rebeldea? Nortasuna, aintzakotasuna, eskubi-
dea, bere izatearen kezka eta ardura zale eta keixati bai. Ortik ba dauka orduko erri txiki onek bere istoria urte luzetan.

Erri bakoitzak bere jai egun berezia aukeratuta eukiten dau.
Basauri'k Mikel donea.

Basauri'ko jaiak ba euken tengadea bilbotarrentzat. Delmas-
'en esanetan, erromeriakaitik izan ezik Basauri'k ez ei eban izen eta entzuterik lortuko bere inguruetan.

Baiña Irailla'ren 29'an bilbotar gaztedi geiena bertora etorten zan, batez be langille jentia eta serbitsuko neskatillak, soiñekorik apain eta txukunenak jantzita. Alako soiñekoen erakusketa edo feri itxurako eguna izaten ei zan egun ori.

Bilbo'n bete beteko utsunea igarten ei zan eguerdi osteko ordu batzutan. Trenak be gañezka eta merke. Eta illuntzean barri-
ro asten ei zan Bilbo bere giro eta itxura artzen, umorez eta alaita-
sunez beterik Basauri'tik Bilbo'ra gazteak alkarren leian biurtzen ziranean.

Sasoi baten parroki bakar bat. Eta bera be, luzaro beintzat, Arrigorriagakoaren menpean.

Gaur, lengo parroki zarrean, abade bi.

Ariz'en Eaurtzetako Ama eta San Fausto'ren izenekoan pa-
rroko bat eta laguntzalle bi.

San Pedro izenekoan, bost abade. Eta San Iñazio'n, bi.

Orra ba, gaur ezin deitu erriari, sasoi baten lez, Basauri'ko San Migel. Besteak iruntsi dabe. Denpora barriak dira. Bizitzan egikeretan erakutsi bear da santutasuna eta ez izenean.

Gaur Basauri ta kittu. Eta ekin lanari gizon arteko premiñei arnasa zabalduz.

Iru errota, burdintegi bat eta galdarategi bat. Ara, luzaro, Basauri'ko industria. Euretako zeregin batzuk Artunduaga'ko Torrekoen jaubetasuneko ziran.

Gaur, Bizkaiko burdin meatz edo miñaen mugatzat etsiten ba da be Basauri au, Bizkaia'n Santander aldeko mugan asi eta 24 kilometro luzean erreskadan igarten dira lurren estratuen bidean, bestelako industria da bere ogi bidea. Ba dira diñoenak Basauri'ko torreak meatz eta miñak be euki zituela euren eutsigarri. Baiña ori beste erri batzuei obeto eta zeatzago dagokie.

Ba dator Basauri'tik Bizkai'ko industri baten izena eta izana. Ogigintza. Ariz'ko torreak ba eukan bere errota. Torreko arriak kiskaltzen joanarren, errotarria ez zan gelditu. Eta ortik ain ezaguna dan ogikiñen etxearen jatorria. San Fausto'ren ermita be Arizko torre orren ardura eta jaubetasuneko izan zan.


Bilbo'k jaten dautsaz Basauri'ri ezaugarri asko. Bilborentzat, Basauri, industriak zabaldu al izateko lurra da, Galdakano bizitokientzat arnasa izan leiken lez.

Industririk geienak Bilbo'n daukez etxe buruak. Eta industria mordo dago gaur emen. Era guztitakoa. Kimika, burdin, egur, paper, plastikua eta gomaenak eta beste ainbat.

Lana eta izerdia Basauri'n; diruari ugarrak kendu, Bilbo'n. Bilbo'ko ate edo Bilbo'ren kate da Basauri.

Eta kateak aitatzean, katepean dagozanak gogora datorkidaz. Edozeiñeri be biotza urratzen dautse katepekuak. Urte batzutatik ona ementxe dago ain zuzen be Bizkai'ko espetxe nagusia. Eta ez utsik.

Kultura garra be igarten da emen. Urtero sari bat gertuten dabe, Basauri'ren izenez, gure kondaira, bizibide, oitura eta izatek zerbait agertu edo zabaldu nairik. Txalogarri.



BEDIA

Gerrak, edonungoak be, garratz eta gordin bizi eragiten dabe.

Gure gerra sortu ta laster, berotu orduko, aita ta ama eta sei seme alabak osotuten gendun sendia bananduta geratu giñan, aldebanatuta. Aita alderdi baten, ama ta alabak bestean, anaiok gudarostietan, batalloietan edo kuarleteletan. Azkenean be, gerrak be bere tarteak eukiten ditu eta bala galduak be bai usterik gitxiene-tan, eta orra gurasoak alkarregaz, Amorebieta eta Galdakano'ren mugan, Kortederra ondoan. Antxe ikasi nebazan bertso oneik:

Mari Kortederrakoak

gabean gabean
errondea darabil
bere portalean.

Ai ene, gabean gabean,
Ai ene, bere portalean.

Gurasoak Kortederra'n eta ni Bilbo'n. Al nebanetan eurak ikustera joan bear. Ez genkien sasoi aretan auto-stop egiten, edo atzamarrik erakusten bidea izentatzen. Askotan, al ziran aukerak onartuz, batetik edo bestetik joan bear izaten zan, al zanik tokirik urrenera. Orduntxe ezagutu neban Bedia. Bein baiño geiagotan egin bear izan neban, oiñez, Bedia'tik Usansolo'rako bidea eta emendik, Ollar bide-kurutzetik Kortederra'ra.

Kanta-kantari beste au be ikasteko era eta eroapena artu bear izan nebazan:

Izerdi patsetan, alboka osketan
zazpi legoa bete dan kalea,
zazpi legoak eginda ba'neukaz
Arrati etxean mandojaubea.

Ni ez nitzan arratiar, ez eta be mando jaube, baiña bai askotan legoa batzuk oiñez egin eziñez izerdi likiñetan ibilli nitzana. Ez daukat damurik. Atsegiñez ikusten dodaz gaur sasoi aretan askotan nekez igaro bear izan nebazan bide eta basterrak. Bedia legez.

Abizenak, apelliduak, ba dakiez burukomiñak sortzen.

XVIIIgarren gizaldian, 1 762 urtean jaio zan Ondarru'n Launeta abizena eukan lenengua. Gizaldi orretan 13 jaio ziran abizen bardiñekoak. Urrengoan bi. Ondarru'n jaio zan lenengo Bedialauneta 1806 urtean zan. Eta gizaldi orretan, XIX'ean 203 jaio ziran bertan abizen ori agertzen dabenak. Lenengo abizen lez, gauzak argi esateko.

Nundik agertu ete ziran Bedialauneta, orreik? Ba... Launeta'ren odoletik. Launeta'ren seme bateri, Bedialauneta ipinten asi ziran. Arrezkero Launeta'k galdu edo beintzat abizen ori soil-soillik eukela agirietan sartu ez eta Bedialauneta'k ugaritu. Ainbeste, ikusten dan lez. Kolasiño'ko lege berezi edo eskutuen bateri oratu eta eutsi ete eutsen nire erritarrak, abizenari, apelliduari aurretiko Bedia ori geitzeko? Mundaka'tik etorriarren, Bedia'ko jatorrizkoak ete ziran Launeta orreik eta norbaitek eskubide ori eskatu ete eban?

Nire bigarren abizena, amagandik datorkidana ori danez, gertaera ori ikusi nebanean jakin-nai eta miña sortu yatan. Ez dot aukerarik artu orretan sakontzeko. Ondarroa'n beintzat esandako denporetan galtzen dira azterrenak.

Orra Bedia deitura bere burua agertu nairik.

Ez dago beste Jaungoikorik, Jaungoikoa baiño. Ala esaten dabe arabitarrak kantu zaar baten: La Ilah, Illa Allah...

Ez dautzu esakera onek, errepika edo estribillo onek beste antzerako zerbait gogora ekarten, edo ez dautzu belarrietara ots egiten? Gogoratu:

Lelo, il lelo, Lelo il lelo,

Leloa, Zarak il leloa.

Euskal literaturan agertzen da. Noiz sartu zan, nundik eta zetatik? Ba dirudi dinbi-danba kumatxoei eragitean burura etorten dan berezko esan-mesana dala be. Baiña euskaldunak geiago be geitu geuntsan, erromatarrakin gogoratzen eta geure erriagaz pentsaten:

Octabiano mundu Jauna,

Lekobide Bizkaikoa.

Jatorra ete da lelo ori, kantu ori? Or kakua. Jatorra edo era-tua, konpondua edo moldatua, nire zeregin eta ardura, gaur, Bedia gogoratzea da, Bedia'ri erri izatez edo izenaren erruetatik buzta-

rria billatzea da, ta orra kantu onen «tratularien» artean, erabiltzalle, nastatzalle edo billatzalleen artean, Zornotza'ko eskribadu izan zan Ibargoen egaz batera, beste izen bat: Bedia'ko Anton.

Askok erabilten dabe aotan edo paperetan izen au, batez be euskal literaturaren sustraiak billatu nairik ibilten diran izkuntzari etajakintsuen artean.

Bedia ikusteko ez da zazpi legoako kalerik igaro bear. Euskalerrian gagoz. Gauzak txiki baiña eratsu dagozan tokian.

Ereño auzoa kenduta, erri laua da Bedia. Gaur Ereño'n bizi diran bediatarrak, danetara be, eunen erdika dira, berrogetamar inguru. Danetara be milla ta irureun lagun Bedia'n. Milla euskaldun eta besteak erdaldunak. Bizi lagunik geieneko auzoa. Murtaza, eta gero Elexalde. Bestetan, Eroso'n 1 50 lagun inguru eta Barrueta eta Utxarain'en, bien artean, eun.

Bediatarrak, erri lez, nekez lortu zituen euren eskubideak, nai eta errialde edo merindade baten izena eroan. 1858 urtean emon eutsen Gernika'ko Batzarretan, eleizateen artean, 73'garren botoa.

Bardintsu ibilli ziran eleizako gora-beretan. Gaur, San Juan eleiza, parroki da, abade bigaz, baiña luzaroan bediatarrak Galdakano'ko parroki lez egozan, eta orain berreun urte aurretik parrokiak sortzen eta emoten zituezan artu-emon eta bete-bearretan, espiritu andia bearko eben bediatarrak emendik arajoteko.

Origaitik luzaroko autuak erabilli zituen Galdakano'ko parrokiagaz. Ainbat auzi, pleitu, naste eta asarraldi.

Kontuan euki, umeak bataiatzen be, Bedia'tik Galdakano'ra eroan bear izaten zirala jaio-barriak. Onetan Eleizeak ba eukan toki batzuetan begirapen pixkat, eta auzo edo errialde txikietan egoten ziran ermita eta baso-eleizetan ba ekian bataiotarako leku eta baimena emoten. Bedia'n ez. San Juan'go parroki barria egiñarte, ez zan ezelako eratasun eta erreztasunik egon. Bidezko zan, ba, bediatarren asarre eta ardura.

Origaitik, 1742'ko Loreilla'ren 17'an eleiz agintariak emon eben erabagiz, andik aurrera Bedia'ko eleiza onetan oteundegia (sagrarioa), bataiotarako ur-ontzia olio santuen krisma-kutxa eta orrelako premiñazkoenak ipinteko baimena emon zan. Ori bakarrik ez. Galdakanotarrak ogei egunen buruan jaramonik ezik, edo orretarako bear zan abadea eskiñi ezik, bediatarrak euren bostean izentatu eikeen eurentzakoa, ordaintzen zituen amarrenak berezako gordeta.

Orra bediatarrak, eleiztar lez nortasun osoko orain 232 urtetik. Eta erri legez, boto osoagaz, orain 116 urtetik.

Burdiña dago Bedia'ko lurraldetan. Leku askotan errez igarten da nun dagon, bustiunetan. Emen be billatu eben.

Burdin garra egon zan Euskalerrian orain larogetak urtetan, gure gurasoen denporetan. Ainbat lekutan igarten dira onetan asiera eta gertaerak egiñaz zabaldu eta lagatako mendizulo eta bideak. Kostu eta aukera ezak, edo bear aiñako betak ez billatzeak, atzera eragin eta urrengorako laga, aukera obeagoen zain.

Emen be San Luis izeneko bat egon zan eta Amerikar izeneko be bai. Abadiño'n, Irmura lez eta Berriz'en Olabarri izenez. Eta Ondarru'n, Gorozika gaifnean asi eta Errenderi ingurura jeisten ziran tartetan.

Ez jakin Somorrostro aldekoak amaitu ondoren, lengo burdin meatz-tokiak zelako bizi bidea artu leikien.

Gaur be Bedia'n, bere industri txikian, ba dabil burdin gaia esku-biarretan. Eta oraindik ez jakin Lamin-arrieta eta inguruetan, kurtzallu argiak erabilli bearko ete diran mendi barruak arakutzen.

Bere denporetan Bedia ez da erri aberatsa izan. Kontuan euki orain 350 urte, Bilbo'ko monja batzuk Bedia'ri dirua emonda eukela erriko premiñetarako. Doteagaz sartzen ziran monjak ba ekiezan olako diru zabaltze eta eskintzak eukiten, erreditutatik biziteko. Abando'ko Sortzez Garbi izeneko monjak ziran. Beartsu lez asi ziran Bilbo'n etxea zabaldu eta biziten. Baiña Abendañotar bat sartu zan bertan eta arek estutasun asko nasaitu eragin eutsezan. Bedia'rrei eta beste erri batzuei be diru aurrerakuntzak egiteko eran.

Gaur Bedia'k ez dauka olako premiñarik. Eta premiñetan, Ar-tetxe bat zanaren ondasunen emaitzak be beragandu leikez gauza askori indar barria emon al izateko.

Lemona eta Galdakano'ren Usansolo artean, Mendoza mendiak lepoan eta Ibaizabal erreka'ren urak bere oiñetan, Bedia'k etorkizunari neke andi barik begiratu leikio gaur. Eta baketan.

Bedia'k argia emoten ei dau. Bedia abizendunak lema ori dauke beintzat: «Luz van dándo».



BERMEO

Bermeo'n sartu orduko, «otsuen etxe» inguruan, lagun bat datorkit, umorez:

-Txo, geuri taketa joten zatoz?

Besarkatu gara. Azpaldiko lagun. Ez nua izenik esaten. Ez-ixenik bez. Bermeo'n ia bi milla ez izen ba dagoz. Bermeotar jatorrak ia geienak ezagutzen dituez. Askotan jatorrizko izen-abizenak baño errezago.

Ez-izenak gogoratzen, dotoreak eta jatorrak ba dira, danak pozik. Bestelakoak ba dira, kontuz. Ez edozelan bota. Matzaku'ko parolak baiño zentella geiago ikusi ziñeiz.

1842 ez-izen batu zitun liburu baten Cirilo Zabala'k. Bai asarre ugari lortu be. Asko esatea izan lei, baiña zenbat ez-izen itxusi, ainbat mutur baltz ikusi zitula esaten dabe. Brixiduta laga ei eben danen artean.

Nire lagunak be ba dauka berea. Ez da ain zatarra. Jarrai dai-gun beragaz:

-Abemarie! Benetan be gure pasaixuak jakiten?

-Alegintxua egiten bai beintzat.

-Gero, au, bakizu, au Bermio da gero!

-Bai mutil.

-Bestela... ondo pentsata zauz!

Lurrez, Ondarru baiño bederatzi bidar andiago da Bermeo.

Lekeitio baiño ogei bidar. Plentzi lako iru.

Gizonez, Ondarru lako bi, Lekeitio lako iru, Plentzi lako zazpi.

Arrain fabrikaz, Ondarru ta Lekeitio bat eginda baiño geiago. Bizkaiko %60 da bera bakarrik. Konserberako ogei lantegi dagoz; gazituetarako, salazoirako, ia bi bidar geiago, eta atetakuak aparte, «portaletatuak». Oraindik amantal garbiak jazteko lotsarik ez-tauren andraenak.

Itxasontziz, «bajura» utsean, Bizkaitik ugariena, ontziz, arrai-ñez, eta dirutan. Baiña arrantzarako era biak batu ezkerero, au da «bajura» ta «altura» bat egin ezkerero, Ondarru'k gaiña artzen dausa.

Legorrean, itxas-ontzien premiñetarako, beste iñor baiño obeto gertu eta eratua, motor, bapore eta antzerako erabilgarriak egin, konpondu eta tajutzeko. Bai eta itxas ontzien tresnak gertuteko.

Bermeo itxasotik bizi da. Itxasoa da bere mintzoa.

Bermeo ikusi orduko, Ercilla'k Araucana'n esandako bertsoak gogora datorkidaz:

Mira a Bermeo, cercada de maleza,
cabeza de Vizcaya, y sobre el puerto
los anchos muros del solar de Ercilla,
solar antes fundado que la villa.

Benetan be or dago Erzillatarren torre zarra.

Bermeo'ko etxerik zarrena? Ezagunena bai.

Caput Bizkaie erabilten ebala esan dogu bere eskudoan. Bai eta beste esakera au be: Stemma proderi in primis Bermei. Esakera gaitza, lenengo begiratu baten. Askok esaten dabe ez dakiela zegaitik erabili izan daben esakera ori. Bizkai'ko burua erabilteko eskubidea Fernando V garrenak emon eutsan 1476 urtean. Ia bosteun urte beintzat eskubide orren jaube egin zala. Eta beste esakera? Jakitunak diñoenez, bere esan naia era onetan euskera-tu leike: Lenengo eskudoa, Bermeokua. Esate lez, Bermeo dala errietan lenena.

Gernikako batzarretan lenengo aulkia eukan, eta origaitik erabagia emotekp be lenena izaten zan. Bizkaiko erririk geienak Bermeora jo beargtráten eben euren artean erabagi ezin zituen auzi eta autuetan. Bermeon egoten ziralako agintaririk lenenak edo ta erriak iraztean, fundatzean, kondisiño ori ipinten eutselako, errian erabagi ezin zituen gertakizunetarako.

Sasoi baten Korrexidoreak be Bermeo'n bizi bear izaten eben aldi luzean.

Agirian dago ba Bermeo'ren nortasun eta izatea.

Portu egalean, Kofradiaren aurrean nago.
 Amuko lebatzak otzaretan.
 Besigu banakak treotzaretan.
 Txibiak, papardak, arraingorriak. Era bat edo bestetara dabil-
 tzen txalupen eguneroko arraintsuak.
 Alkarri txopinka, alkarri tirrika, antxe batzen dira txalopetako
 jaubien andrak, edo ortatik bizi diranak. Laster urteten dautse ba-
 teri, erostzallea izan leikela igarten ba dautse.
 -Amuko lebatzak, begiratu, oraindik saltoka bizi-bizi.
 -Lebatz onen sakatsa... gaurkua da berau?
 -Sekula jan dozu zeuk lebatz freskurik olako destaña botate-
 ko? E! Nundik norako morroia da berau?
 Ixildu bear. Jo aurreratxoago.
 -Begira, begira zelako besigu ederra!
 -Gaurkua da besigu au?
 —Ori be esan? Zer ba?
 -Erdi zimeldutako begi onek...
 -Ze pentsatezu ba? Zeu lez parrandan gaba pasatakua dala?
 Patrikaran dirurik ba daukazu zeuk, zantar orrek, olako menospre-
 xua egiteko?
 Ixil ixilik entzun egin bear. Gañera ezin inportantzirik emon
 euren esakerei. Esate baterako, beste erri baten, zantarra deitzen
 ba dautzue, lotsagarri da. Bermeo'n, berba orrek, ez dauka bes-
 teak nai dautsen itxurarik, ta entzutera oitu bear. Batez be norbera
 zirikilari dabillenean.
 Erri bakoitzak bere gatza eukiten dau. Bermeo'k gatza ta fres-
 kurea. «Afrontua». Ezin ukatu.

San Juan arkupetik igaro nai izan dot. Bermeo'ko ate jatorra.
 Sasoi baten zazpi ate eukazan Bermeo'k eta portua beian, ateta-
 tik kanpoan.

Orduan, portu biak, katiekaz sarratzen ziran. Beti izan da Ber-
 meo'ko kaia korrentaz betea.

Azken urteotan dirutza ugari eralgi da portua sakondu, zabal-
 du, baretu eta egokitzeko asmotan. Baiña oraindik be, neguan, ba-
 tez be gabon egunetako etxe-egonetan, Bilbo'ra edo Deusto'ra
 eroaten dituez bermiarrak euren txalupak, ekaitzen arriskuz.

Portu gaiñean Santa Eufemia'ren omenezko eleiza. Zin, jura-
 mentu egin bearreko eleiza. Bizkaï'ko jaunak bertan barriztu bear
 izaten zituen euren eskintza eta betebearrak.

1357 urtean zabaldu eben prailleak etxea Bermeo'n. Pran-
 ziskotarren lenengo etxea Bizkaia'n. Gaur be ordena berekoak ja-

rraitzen dabe bertan. Zintzo, beste toki askotan baiño legeak es-
tuago zaintzen.

Bigarren konbentu ori erre eben. XVI gizaldiaren azkenetan
zan ori. Edo urrengoaren asieran. Ordurako eun urtetik gora eroe-
zan bertan prailleak.

Urte batzuk dirala zabaldu zan prailleak barriri Izaro'ra joan
nai ebela. Nire adiskideari itandu deusatz:

-Ba dakizu ezer orretzaz?

-E! Ganbaratik ondo zauz?

-Ni? Entzundako ori ziurtatu nai neuke.

-Bermio erdixe elixara ez da juten, au-auan eleizak eukite-ta,
zer nai dabe prailleak? Meza ostien lanpernak emongo dauskuez
an ala?

Penitentzi bearra agertu dausatz, testigantza emon bearra, i-
txas gizonen alde otoi eta erreguz agertuko diran gizonen eskin-
tza...

Errian ez dauka orrek indarririk. Ezin ulertu. Ori egia. Eta norbe-
ra txarto laga.

-Zu-zeu etziñan etxe andian bakaziñoak pasaten egongo, ez?
E! Orretan be sinistuten bozu... Guri zerbait erakutsi nairik zabiltz?
Ondo pentsata zauz!

Bermiarrak alegintsuak dira itxasoetan. Eta «urten» egiten
dabe. Itxas berbetan, urteten dabenak, lenengo grakadearen arris-
kua eukiten dabe.

Batzuk «egon» egiten dira, portuan geldi, besteak arraiñaren
aztarrenak billatu arte. Besteak, barriz, bein sasoiu eldu orduko,
urten.

Bermiarrak iñok baiño lenago urten eben Canarias eta Dakar
aldera, emengo arrain-utsunak igarri ondoren. Eta bitarteko jakia
billatu eben. Egia esan, gaurko ontziekaz, edonora joateko bildu-
rrik ez dauke.

Kofradiak noizko ete diran agertzean, Bermeo'ko arauak, or-
denantzak, 1353'n batuta billatzen dira. Orra seireun urte baiño
geiago arrantzaleak euren nortasunez jokatzen. Eta arauak ba-
tzean be esaten da eztakiela noiztik datozen, gitxienez bosteun
urte ba dirala aurrez be beteten zirala. Lenengo batualdiko agin-
duak eta arauak 82 atal ba daukez.

Kalerik kale nabil. Gaur ez nabe deituten etxeak. Edonun eza-
gutzen da Erzilla torrea. Edonun kantoiak. Bermeo ikusia da. Ba
daukaz bere zabaltzalle eta erakusleak.

Bermeo'ren bizitza ixilla naiago dot ikusi ta igarri. Jarrilekoe-
tan, aldrebeseta jezarrita dagozan agureak, itxas gizonak gogora-

tuten daustez. Beian gañean sarekonpontzen diarduen andrak, obeto esanda, jarleku-ipurdi bat beian botata aren gaiñean baltzez jantzita asko alargunak diralako, itxasoaren bengantzak gogora datorkidaz. Ez kontu artzen asi. Urtetako galerrenak egun eta ordu ta guzti esango dautzuez. Sare karriuan dabizen gizonak, edo kajakin diarduenak, sasoi baten eskamaz beteriko otzarakin ibilten ziranak gogoratzen daustez. Portu aurrean dagozan bapore eta motor indartsuak, lenako txalopa andiak eta beladun potiñak.

Bizitza aldatu da. Baiña gizonak eta itxasoa, itxasoa eta gizonak, gizaldien gizaldietan legez, ezkondata bizi dira Bermeo'n.

C. Esla'k esaten ekian, Ondarru'n, txakurrak be, itxastarrak dirala. Ala baita Bermeo'n.

Bermeo erri berezi-berezia da. Bere taju ta kutsu ezagunez.

Bizikera onek euki eban bere kantaria. Bermeo'ra gatz eta izatea irudi atsegin eta jatorretan batu ebana. Bermiotarren eran euren esakera eta bizitasunean bertako oiturak batzen jakin ebana: Robustiano Ortuzar. «Oroigarriak» deitzen da liburua. Oraintsu agertzen diran liburu askok ainbat idazle batu eta izentatzen gaituez. Zegaitik aaztu dira onegaz? Ortuzar'ek bere liburuan, bata bestearen atzetik, «Ondo pentsata zauz», «Torronteruen», «Pitxar bete ur», «Txalupetsien» eta abarregaz, Bermeo'ko bizitza bizi eragiten dau.

Eta Bermeo'k euki eban beste kantari bat be. Au doñu ta guztikoa. Erauskin musikalaria. Gipuzkoarra jaiotzez, baiña bizitza guztian Bermeo'n, itxas lañoz, musika sortu, jo, kanta eta bizi eragiten ebana.

Orain berrogetamar urte, esate baterako, trenik ez zan elduten Bermiora. Sukarrietan gelditzen zan, Pedernales'en. Alaxe eukan tren berberak be izena, Amorebieta, Gernika Pedernales.

Sasoi aretan 10.500 bizilagun eukazan Bermio'k.

Jose Garabilla, zan alkate, eta Angel Zabala, sekretario. Juzgaduan barriz, Felix Eskibel juez eta Sandalio Zumalabe, sekretario. Ain zuzen be Zabala, Eskibel eta Zumalabe abogaduak ziran.

Orduko parrokoak, don Bernardino Garaizar, artxipreste, eta don Vicente Munitxa ziran.

Bermio'n jatetxetan, beti ibili izan dira ugritasun barik. Gaur, tartian tartian, edozenbaf kafeteri, jai-etxe eta ikusten dira. Baiña esaten gabiltzan urtian, orain 50 urte, ez egoan kafeterietan aukera andirik. Benito Anduiza, Juan Astorkiza, Antonio Etxebarria, Juan Iturri eta Miguel Jauregizar'eneko kafetara joan ezik, soziedadaren batera jo bear. Ba egozan iru soziedade, kafetetxea eukena: Ci'rculo Católico, Casino Bermeano eta... nun ete dira gaur barkuetako fogoneruak? Orduan ba euken euren izeneko soziedadea, kafetetxe ta guzti. Sociedad de Fogoneros habilitados deitzen zan.

Urte orreitan 1920/1930 inguruan kofradi bi egon ziran, nai, eta biak San Pedroren sellua erabili: Sociedad libre de pescadores, grupo exterior, bata, eta 860 lagun eukazan, eta bestea «grupo interior», 850 lagun.

Getari'ko portua kenduta, Bermeo'koa zan sasoi aretan itxasoterik geien egiten zan portua. Getaria'n batez beste, 290 egunetan urtetan eban arrantzaliak itxasora, Bermeo'n 260 egunetan.

Orduko gaixoak, eriotzarik geien eroaten eban gaixoak: bularretikoa eta estetako kalenturak.

Gaur iñok ez leuke sinistuko Bermio'n naranja eta limoi arbolak ugarri egon ziranik, txakoliña egiteko maastiekaz batera. Baiña liburu zarrak irakurten ba doguz, Simancas'ko artxiboko agiriak ikusi, an billatuko dogu Bermeo'n, 1509 urtean su ikaragarri bat egon zala, eta su ori anditzen erri barruan egozan limoi eta naranja arbolak kulpa asko euki ebela. Orduan, arrañagaz batera, limoi eta naranjak be eroaten ei ebezan kanpora, saltzera. Eta origaitik Bermeo'ko erriaren izenez Irusta prokuradoreak eskatu eutsan dona Juana erregin eta Bizkaiko andre Andiari, galerazoteko erri barruan limoi eta naranja arbolak barriro sartzea. «Por cuanto dentro de los juros de la villa quieren algunos vecinos de ella plantar y plantan naranjos y viñas y limones y otros frutales, que por cuanto al tiempo que se quemó la villa fueron dichos vergeles mucha causa que se quemase, mande que ninguno se atreva a plantar los dichos frutales y los que tienen plantados los saquen porque la villa sea más segura del fuego»

Baiña orretik pekatu txikiak ziran. Bermeo'k itxasoari begira bizi bear eban. Eta or eukazan iru portu: Portu-txiki, portu andi, Artigas erreka itxasoan jausten zan tokian, txalopa aundientzat, eta Portuondo.

Baiña Portuondo zala ta ez zala, Mundaka eta Bermeo sarri ibili ziran alkarregaz asarre.

Lenengo mollak Errege katolikoen denporetan asi ziran egiten. Ordurako be esaten zan Bizkaiko porturik andien eta jenterik geien egoana zala.

Artza'ren ondoan eukazan bere astilleruak, bai eta Lamiaran eta Portu txikin be.

Eta ordureko ba euken bermiarrak portu andia egiteko gogoia ta amesa. Ara gauza jakingarri bat: Portu txikin egiten ziran txalopak, kontribusio berezi bat eukiten eban; sei batelkada, sei txalop-

pakada basa eta ondar atara bear izaten eben portutik.

Ainbat izen esan leikez, orduko denporetako ontzi-gin edo barkugiñak lez. Baiña famarik andiena Juan eta Domingo Portuondok euki eben, erregeentzako barkuak gertuteko gizon lez.

Geroago, Terranoba'rako denporak etorri ziran. Eta arako be bermiarrak gertu zituen euren txalupak.

Ortaz gañera, komertzioan ibiltzen ziran ainbat. Orain berreun urte, esate baterako, Bermio'tik Baionara, edo Bermiotik Galiziara eta Portugal aldera edozenbat txalupa ibiltzen ziran. Txalupa jaube agertzen ziran orduan, Ignacio Zatika, Tomas Garramuño, Bautista Zendagorta, Francisco Goyenetxea, Diego Arbe, Antonio Garramuño, Jose Abendaño, Juan Astorkiza, Lorenzo Aurrekoetxea, Larrauri, Mendezona, Ugarte eta abar.

Gero, emeretzigarren gizaldian, gerra zala-ta, asko beratu eta galdu zan barkuen tratu au, baiña barriro be, gerrak baretzean, itxasontziak geitzen asi ziran. 1864 urtean, esate baterako, Bermeo'n 56 txalopaandi egozan eta 39 txikiago, beste amasei bate-landi eta amar txiki.

Oraindik erramu eta belaeen denporak ziran.

Baiña gure gizaldiagaz batera, gure sigloagaz batera, bapora sartu zan eta orra Bermio'n 1902 urtean lenengo baporezko barkua: Izena, Gipuzkoatik etorria nunbait, Bermeo. Lenbizikoa eukan. Donosti'n erosi eutsen Eustakio Andonegi'ri. Ori ikusi eta laster egin eben beste bat «Bermeokoa». Orrela, 1903 urtean lau bapore egin ziran bertan, urrengo urtean bat bakarra, Matxakito izenekua. Gero, 1905'n zortzi, 1906'en amar, urrengo urtean zortzi, eta bateri Carnaval ipini eutsen izentzat. Ortik familiak be gero izen orrekuak. Bermiotarrak beti izan dira abillak eta zezen zaliak. Ortik beste bateri Belmonte ipini eutsen. Itxasoari torea-tzen lez.

Gaurkoak danok dakiguz, baiña lengoak istori luzea euki eben.

Bermio itxasotik bizi izan da eta bizi da. Baiña bai negar ugari egin be itxasotik. Kantauri itxasoko galerrenak negargarriak izan ziran sasoi baten. Eta darjak dauke gogoan 1912 urtekoa. Bertso-lariak erriz erri ibili ziran, urteak geroago be, galerren a gogora-tzen:


Eun da amaseikua
Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan
suerte ederra,
erri txiki batentzat
ai ori negarra,
aurrak aita falta du
ta amak senarra...

Orrela da, itxastarren gertaera. Batzutan pozik, bestetan negarrez. Beti be nekepean.

Bermiarrak, itxastarrak izanda, ez dabe euki izan estropadetarakozaletasun andirik. Baiña... lenengo estropaden notizia, ain zuzen be Bermiotarraena da.

Diñuenez, bermiotarrak eta mundakarrak, euren asarreak erabagiteko, Izaro ugarte edo isla norentzat gelditu estropada baten erabagi ei eben. Portutik urten eta ariñen bertara, Izaro'ra elduten zana, a izango ei zan isla orren jaube.' Estropada ori 171 9'ko Madalen egunean egin zan eta Bermiotarrak irabazi.

Orra egun gogoangarri bat.





BERRIATUA

Gipuzkoa'tik Ondarru'ra sartzeko Berriatu'ko lurretatik igaro bear da.

Lekeitio eta Mendexa'tik sartzeko be bai.

Berriatu Ondarruaren erastuna da. Itxasoa kenduta, inguru guztiaren jaubea.

Baiña Ondarru'k Berriatu beretzakotu nai izan eban. Orra gaur berriatuarren problema bat. Azken on bat eskatzen dabean auzia.

Batasunak mesedeak ekarri leiz. Eta jakiña, kalteak be bai.

Bein beingoz borondatea nai litzake alkartzeko.

Berriatuarrrik geienak ez ei eben nai izan euren izaterik eta nortasunik galdu.

Norberea zaintzea beti da eskubide jatorra. Ezin ukatu.

Ezin esan Berriatu Ondarrugaz asarre danik. Erri biak adiskide dira. Baiña...

Gizaldien buruan asarreak eta eztabaida luzeak euki ba zituen be, beti agertzen eben alkarregaz ondo konpontzeko guraria. Bata edo besteagaitik biak euki izan dabe alkarren premiña.

Geienetan lurren goraberan euki zituen euren eztabaidak.

Jakiña da, Maria Diaz Haro'koak Ondarru'ri erri legezko izatea emon eta ezagutu eutsanean, Amallo mendiaren zati andi baten jaubetasuna emon eutsala.

Erri bien bitartean... Aranzibia'ko etxea egoan.

Sasoi aretan, eta geroago be, etxe-jaunak indar aundia eben eta askotan norberekeriz jokatzeraz oituta egozan. Gaur Ondarru'gaz, biar Berriatu'gaz eta bitartean erri biak eztabaidetan ipiñi eta laga.

1477 urtean ondarrutarrak eta berrituarrak Bilbao'n batu ziran Pedro Estancona'ren etxean alkarren eritziak batu eta alkartu nairik.

1479 urtean, Ondarru'ko elizaren korretan.

Andik laster Berriatu berbertan, eleiz aurrean egoan zugatz edo arbolapean, Solarte eskribadu jauna testigu zala.

Alkar artean ezin konpondua sortzen eben gaiak, Errenderi inguruko muga; Zaldu, Iramategi, Alliri eta Arriaga baserri eta lurrak; ibaiko muga; zubiaren jaubetasuna eta abar izaten ziran.

Orreitariko batzar baten, 1532 urtean, 64 lagun batu ziran. Botoa edo berbetarako eskubidea eukenak. 460 urte igaro dira ordutik ona, eta ala ta be etxerik geienak ezagunak dira eta zutik jarraitzen dabe. Mereziz dau izentatzea: Aranzibia, Amillalde, Arantzadi, Asterrika, Arregi, Aulikiz, Arrania, Alzaga, Altamira, Ayerdi, Alipasolo, Ategueren, Basterrolatza, Barrenetxea, Bustinzuri, Egi, Elexpuru, Etxebarri, Eizmendi, Etxano, Egurrola, Gasturu, Garro, Goiketxe, Gardotza, Gabiola, Gernika, Imitola, Ibarra, Itola, Ibarguen, Ikaran, Iturrino, Laka, Larrea, Lekoya, Mirubidi, Migeluri, Mugertegi, Orioso, Ormaegi, Olabe, Obekola, Orubia, Pertika, Solabarrieta, Sologuren, Torre, Ubilla, Urgoin, Urkiabaso, Urueta, Zamitz, Zabala, Zelaeta...

Batzar onetan batu ziran gizonen zeregiñak, ogibiderik, ez da izentatzen. Geienak, jakiña, baserriarrak, lurgiñak.

Bosten ogibidea bai, agertzen da: Zerga edo impuesto batzaillea, Zamitz'ko Joan; errementari bat, Asterrika'ko Errodrigo; iru jostun, sastre: Ibarra'ko Joan, Orubia'ko Joan eta Ikaran'go Joan.

1601 urte neukazan Azkue ospatsua ezagutu nebanean. Gure gerratea baiño zerbait lentxuago.

Ni orduntxe asi nitzan euskera eta euskal gauzen zaletasuna artzen.

Ikusten neban Azkue'k, bere ibillaldietako barrietan, bere kantu, ipuin, esakera, kontu eta abar batzean, Ondarru eta Berriatu ia aiatatu be ez zituala egiten.

Aukera euki neban egun baten nire kezka agertu neutsan: Ez

al dauke erri bi oneik gauza berezirik?

-Txo, esan eustan berak; nai leukez Euskalerrriak erri bi orreik aiñako erri jatorrak. Edozein erri aiña tradisiño daukazue. Nire lagun batzalleak inguru oneitan, markiñarrak eta lekeitiarrak izan dira, baiña uste dot eurretan ez dagola zuen errietan ez dagonik.

Juan Mañé eta Flaquer idazleak, «Viaje por Vizcaya» liburuan, au diño Berriatugaitik: «La verde, la blanca, la honrada Berriatua...»

Usai gozodun lorak.

Lau burdiñola eta zortzi errota egon ziran, denporetan, Berriatu'ko lurraldetan.

Sasoi baten burdiñakiak Gipuzkoa'ra eroateko, Amallo'tik gora, Olatz aldera eroaten ei ebezan eta andik «probitzian» sartu eta saldu.

Naparroa'ko artxiboan, liburu bakan lez, (libro rarísimo) txiki bat dago: «Método de torear a pie». 1750 urtean argitaratua da. Bere egillea: Eugenio Garcia Baragaña.

Napar jakintsu baten esanetan, Baragaña ori Berriatu inguruko ei zan jatorriz.

Erdi Aroan ba egozan emen izen andiko etxeak; etxe gogorak, ertsiak; jauntxoen andinaikeri eta jokabideei lotuak: Andoñegi, Aranzibia, Astegi, Obekola, Plaza, Torrea...

Gernika'ko protokoloen artxiboan, Joan Etxebarria eskribaduren paperetan irakurten danez, Rodrigo Maguregi'k, 1548 urtean egiñiko azken nai edo testamentuan, errial bat laga eutsan Gardotza'ko Ama Blrgiñari. Irudi au Pizkunde edo Errenazimentuko irudirik ederrenetarikua da Bizkaian.

Beti artu eban irudi orrek begirapen ona.

Ba dago beste ermita bat be, erromes askoren otoi-leku: Arantzadi'ko Madalena, edo erri berbetan, «Maalen Arantzeiko». Gaur be, inguruko potzuan, edozenbat zapi ikusten dira, gaixoak lagata.

Erri batzuk bizi lagunez ustuten joan ba dira be, Berriatu geitzen ezagutzen dogu.

Amasei garren gizaldian, 120 sutondo egozan. Au da, beste ainbeste famili.

1 960 urtean, 1 360 bizi lagun eukazan.

Amar urte geroago, 1 970'n, 2.069.

Gaur, Berriatu, iru aldetan zatitu lei.

Baserritarra bat, jator jatorra. Lurrari, solo eta mendiei begira bizi dana.

Berriatu berbertako kaletarrak besteak.

Azken urte oneitan ainbat industri barri sortu dira bertan. Izoztoki, kautxo, latoneri eta burdin langintzakoak; soka eta malletak, eta abar.


Bilbo'n ain ezagunak ziran sagardautegiak, beste errietara aldatu ziran.

Aberats igarten da Artibai erreka ingurua. Etorkizun andiko.

Eta irugarren zatia, oneri «azurra» be deitu leikio, Ondarru'ren gibelean dagona: San Joan Txurru eta Txuri Erreka aldean dagona.

Emengoak, ondarrutarrak dira, edo ayamontetarrak, eta Andaluzi eta Extremadura'ko ainbat tokitakoak. Ondarru'n dauke bizi bidea, itxasoan edo beste zeregiñetan.

Askok ez dakie Berriatu'ko lurrean bizi diranik be.



BERRIZ

Kanta kantari sartu gaitezen Berriz'en. Zeiñek ez dakiz bertako itsuaren kantak?

Berriz'ko itsuari
Patxiko deritxo,
alabea daukanak
ari emon leio;
alabea daukanak
emon dautsalako
Berriz'ko itsu orrek
atsotxu bat dauko
Politak, ez?

Goazen gora.

«Andrak andre andi Kandelariotan dira ageri». Ala esaten ekien gure zarrak. Berriztar emakumeak be ala pentsatu, sinistu eta eurak be baieztu nai izaten eben.

Origaitik egun orretan, Kandelario egunez, Andikona'ra joaten ziran, askotan tatarrez edurtzetan eta egualdi gordiñetan.

Beste toki askotako jaiak lez, neguko jai au bigundu egin zan. Eta Asentsiño egunez ospatuteko laga. Origaitik gaur Andikona'ko Ama Birgiñari Asentsiñokua be deituten clautse.

Anaitasun aberatsa eukan bere inguruan, ondasundun kofradia. Kofradi onen izeneko edo jaubetasuneko dira ingurutako lurraldi batzuk. Ermita au ondo zaindu al izateko bidea billatu eben

berriztarrak onela jokatutean. Ezin ukatu ala danik.

Ez da ain zuzen be Andikona'ko irudi au Berriz'ko izena da-roana. Izen onetakoa parrokian dago. Esperantza oneko Ama be deituten dautse. Ia metro ta laurden daukaz. Orrelako irudietar-ko, andi. Gotiko erakoa da. XV gizaldian egiña, itxuraz, gotiko lo-retsua agertzen zan denporetako kutsua daukalako.

Oraindik oraintsu iñor ez zan konturatzen Eitua'ko lurretan zenbat bizi ziran be. Baserri dotore batzuk eta kittu. Ia erriko amargarren zatia batzen zan bertan. Ori bai: ortu on eta ortuari ederrak ataraten famadunak bertakoak. Onetan beti euki izan dabe berriztarrak entzute eta duintasuna.

Ara ía bat batean ortuarien lurra zementuz bete eta lante-gientzako beiak gertu. Baserrietako arrizko ormak, zementu, bur-din eta plastikaz egiñiko etxe ta lantegian inguruetan, mutu gelditu dira. Asarre ixillean, ziurretik. Bakartadetako denporak, mol-tsoen eta pilloen garaiak ekarri dabez. Atxurraren aldiak, prensaen denporak.

Lurralde onetan oraindik gauza barri asko ikusiko danik ezin ukatu, gizatasunarentzat zorigaitz andiren bat ez ba dator bein-tzat.

Berriz lurrez erri andi ez dala, -Bizkaia'n ogeitik gora dagoz bera baiño andiago diranak-, auzo erri askogaz konpondu bear izaten da mugaetan. Ala Abadiño, Arbazegi, Durango, Elorrio, Ga-rai, Ibarruri, Mallabi, Zaldibar eta Ziarrotza (gaur Markiña) bere muga-erri egiten dira.

Baiña guazen Bidebarrietan, Konbentu ondora. Gaur urdina-bar edo grisez jantzita ibiltzen diran lengo monja zurietako bateri deitu bertako etxe andian. Zar eta barri, urte zarreako oroitzak eta etenda geratu diran barrietarako premiñen gertaerak igarten dira bertan. Sasoi baten, monja, etxe eta neskentzako izen andiko ikastetxea. Urte bi izango dira zeregin ori laga ta erdi uts dagola.

Itandu daiogun monja b'ateri: Nun dozue zuen muga?

-Muga, guk?

-Bai, nun amaitzen da zuen ardura, edo nun zuen errialdea?

-Ai, gizon. Begiratu bera. Ikusten an beko etxeak? Batzuk Ber-riz'ik be ez dautse deituten askotan. Olakueta eta kittu. Baiña zoaz Japon, India, Afrika'ko basterren dagozan lekuetara. Eta zer? An, uste baiño toki geiagotan, monja zuriak ikustean itandu eske-ro, laster aitatuko dautzue izen bat: Berriz. Guk, Merzedetako ize-nagaz batera, Berriz biotzean eroan dogulako, deiturearekin ba-tean. Lurren muga barik.

Merezi dau monjatxo onek, besterik ezean, Berriz'ko soda bat

eskiñi ta goratzea.

1550 urtetik dagoz Merzede'ko monjak Berriz'en. Baiña mi-
xiolari biurtu ziranetik, Berriz'en baiño arnas geiago artu izan dabe
mundu zabalean.

Ondarru aldetik, Trabakua'tik zear Berriz'era joaten gareanok,
Zengoitita gaiñean, bide ertzean, ermitatxo txukun bat ikusten
dogu: San Joan.

Kanpai bakarraren azpian, zati bateko arri zabalean, irakurten
gaitz diran letrak: INONE DNE EGO MANVTO. Amazazpi izki, le-
tra, danetara.

Jakintsuak ibilli izan dira esakera onen esan naia igarri eziñik.
Batsuen ustez, arri ori izan lei bertan egon ziran il arrietako bat.
Orrela sinistutekatotan, antxiñako denporetan parroki bat bertan
egon zala sinistu bear, eta il-obitegi edo kanposantua be bai bere
egalen baten.

Elorrio'ko Argiñeta'ko il-arrien denporetakotzat be uste dabe
beste batzuk, Siniste orretakoak IX gizaldira joaten dira. Ba dira
VII eta VIII gizaldira atzeratzen diranak be bere antxiñatasuna
ziurtatu nairik. Orretakoa da Balparda, bere Historia Crítica de
Vizcaya'n.

Dana dala arri ori erbestean be ikasia izan zanarren, or geldit-
zen da oraindik zer esan nai daben garbi azaldu barik.

Goazen bera. Proba eguna da. Berriztarrak ba dakie erri-
jokoei errenta ataraten. Plaza egoki, txukun eta ondo gertua orre-
tarako. Ba dakie inguruetan, eta batez be ba dakie emen gauzak
arduraz artzen dirala.

Bero igarten da jentea. Jokotik aparte ba dago Berriz'en nun
berotu.

Euskaldunok mai onari omen egiten dakigu. Gizonaren etsaia,
arerioa, bere sabela dala esaten da. Ala ta be ba ete dago gizon-
aren izateari berak aiña atsegin emon dautsanik?

Berriz'en ez da gaitz jateko zer billatu leiken igartea. Kaletik
artzen da okela usaiña. Modako goraberak zirikatatu eta beratuz,
kantari batek esaten ekian, agerpide guztiak aidean joaten dirala,
tatarrez; igarri barik etorri ta igarri barik iges be egiten dabela,
gaur aizetan bolo-boloka eta biar lurrazpian aaztuta. Baiña ba ei
dagoz beste batzuk gizonaren izate biurtzen diranak. Berak iñoan:

Ta Berriz'ko txuletak
ez duaz aizetan,
keia koipetsu dabil
emen sukaldetan,
gizen eta giarrak

aurreko maietan
laster biurtzen dira
gizon odoletan.

Bakoitzari berea. Edo toki bakoitzean bertakoa.

Esakera zarra da: «Ederra ta galanta biak leku baten, ona eta aberatsa gaitz dira billatzen». Esanak esan, emen andia eta ona alkartzeko gaitasuna ba daukela agertzen dabe. Ala diñoē bertakoa kanpotarren baietzagaz. Eta nik: ez al da egia beste esakera a: «Ez da aragi gogorrik berakatez leuntzen ez danik?»

Berriztarrak erri-maitale agertzen jakin izan dabe. Emen eta erbestean. Iñoiz beste errietara joan izan diranetan, eskubidezko nortasuna zaindu eragiten be lagundu izan dabe.

Puerto Rico'n aintzaz goratu eben bertako gotzain edo obispo izan zan bat. Ango eskoletan be ikasi ta jakin eragiten dabe bere izena: Juan Zengotita Bengoa, jauna. Puerto Rico'ren bizi-naian, berak bere irakatsi eta errazoiz asko lagundu eutsen angoei erri nortasuna zaindu nairik erabillen ekintzan.

Beste batzuk Aita Bizente, bizar zuridun praille karmeldararren arpegia oraindik begi aurrean ikusten dabe. Mixiolari susperzalle jatorra. Donosti'n il zan 1 943 urtean, santu eta zoriontsuen entzutez. Euskerazko liburu bat agertu eban: «Carmengo anaije edo cofradeentzako esculiburua» izenagaz.

Beste bat: Juan Ramon Iturriza. Bizkai'ko edesti edo kondairaren idazle argi eta zeatza. Zenbateri emon ete dautsa berak gure errietako jakingarri, ikusgarri eta oroigarrien kontu eta barri? Monografi asko egin ebazan, batez be inguru oneitako errienak. Ezin ukatu gaur, gai onetan irakurten diran lan asko, berari esku artuta agertzen diranik. Txalogarri bera.

Gure errietako esakera eta ipuiñetan ba daukaz Berriz'ek be-reak. Ara bat, Barandiaran'ek batu.takotatik artuta:.

Mutil gazte bat ezkontzeko egoan da ezkontza-egun bezperan bere lagun da adiskidiei biaramonean estegure etorteko dei egiten ebillen. Kanposantu ondotik pasau zan da lur-gaiñean egoan kalabera bati ostikada bat emonaz esan ei eutsan: Gure bok, i be etorri ai bier estegura.

Etixeruntz etorralla, etxe aurrean txakur baltz andi bat ikusi eban. Etxera bildurrez sartu ta amak zeozer eukala igerri be bai. Ta esan ei eutsan: zer dok mutik, orren triste egoteko?

Ara ama. Kanposantuan ondotik pasatien, buru-azur bat ikusi dot, eta ostikada bat emon, eta esan be bai estegure etorteko. Eta orra zelako txakurre dagoan sustajin.

Begiratu eban amak eta an agiri zan txakurra. Orduan esan

eiñtsan illuntzren konfesetara joaten abadiari esateko eta preguntétako ia izer egin bear zan txakurragaz.

'Abadiak esan eutsah estegutako bazkaitan txakurra maipean eukiteko ta plater guztietatik berari lenengo emoteko.

Ezkondu zan ba ta bazkaitan maipean eukan txakurra ta plater guztietatik berari lenengo emoten eutsan.

Maian egozanak esan eutsen: Zegaitik egiten dok ori?- Nik ba dakit zer egiten dodan, erantzun ei eutsen. Bazkarie amaitu zanean txakurrak esan ei eutsan: Ondo itundu zara. Abadiak esan eutzuna egin ez ba zendu, gauza txarren bat zeukan-eta.

Berriz'ek, berez, ez dauka ze ikusi andirik. Bide nausiak dira bere kale. Baiña gaur mendi edo solo diran toki asko, laster izango dira lantoki edo etxe.

Ingurutako lantegi askoren langillien bizileku egokia izatera eldu leikela, diño.

Ermu'ren antzera, nun geratuko ete dira bertako jatorrak, gaur lez beste urte batzuen buruan geituten eta zabaltzen jarraitzen ba dau?



BILBO

Artxanda gaiñean nago.

Ke artean, Bilbo.

Lengoaz oroitzen nago, oraingoa ikusten nagon artean.

Kezkaz lotuta.

Biozkadak.

Ur ta lur,
bits da lits,
lan ta gar,
kai ta kei...

Ten da ten
malluka
jo ta joten
arlandutako
bizia dirudi,
Euzkoen Bilbo,
Artxandan, landan,
zuri begira
zotinka ta zatika
datorkidan
zure izatearen
irudi!

Jo ta ekin
izerdiz,
zirin zirin
likindutako
keia dirudi,
Bankoen Bilbo,
goietan, aizetan,
zure barrutik
lurrunka ta urruka
igarten dan
zure arnasaren
ats-aldi!

Kei ta kai,
gar ta lan,
bits da lits,
lur ta ur...!

Len,
Basurton ortu,
Deustun zulu,
Abandon mando
ta Begoñan oña
zendula
bizi ziñan,
Bilbo txinbo,
tanbolin
ta txakolin
erabiliz
lanaren atsegin
Gaur,
ura ta lurra
dira zure bizi
ta zure ezti.
Uraren sakona
ta lurraren barruna.
Itxasoarnasa
ta lurra bularra
Itxasoarnasa
ta lurra babesena.
Ta biotza...
buztin mokotsa
ta muiña...
lokatz zikiña.
Zure indarrez
arrotu,
erre,
ta makiñaen txirri
ta labaen orru otsean,
urre biurtzen
jakin dozun
lupetz zakarra.
Makiñaen txirri,
labaen orru...
ta bilbotarren
etenbako iñardu,
egunen ordu
ta gabaen kontu astur
Itxasoarnasa ta lurra,
or Bilbo,
zure ametsen
sortze ta galurra.
Zure ametsen
sortze ta gallura
ta zure izerdien
egarri lapurra.

Ta ontzi zatarrez
bete dozuz
zure erriberak.
Ta ontzi beteak
bota dozuz
tatarrez Ibaizabal bera,
itxasoetan sartuz,
bitsezko aparretan
bidea sortuz,
zure kolkoan utziz
meatz zakarren labea,
ta uretan antziz
urre gorriaren kezkea,
ipar ta izar artuz
England ugartea
nai urruneko Ameriketean.

Labak gori
ta urak urdin,
orra ta urra
Bilbo
gordin gordin
zure elgorri!
Lengoari begira
illun
ikusten dut
Bilbo kutun
zure semien gutun.
Lope batek kolpe
ta bere izena, Haro,
zure kaleetan
aizean
jarri eban oparo
ta luzaro.

Euzkoak, nunbait,
kondien bildur
garai aretan,
eta jaunen makur.
Edo ta kondiak
euzkoen samur
ta
urrien gardun.

Geroago ba dozu
zure kondaira garratza:
gatza
ta bengantza.
Gatzaren zuria
ta odolaren gorria!
Ontzien agaetan,
maste nausietan,
aizeari musuka,
izarrei kiñuka,
erriei ujuka
ta argiari agurka
darabiltzuzan
zuriaren zuria
ta gorriaren gorria.
Gatza eta odolaren
kolore bizia!

Ta zuk,
zure nortasunaren irakiñean,
bilbotar mamin-mamiñean
min artueran,
bizitu,
larritu
ta gazitu
zendun odolaren gatza,
Ta dantzan egin
ta eragin,
zoro-zoromin,
bengantzetan
eta odoletan
gatzaren dantza!

Ondoren, matxiñada.
Barrero odolaren igikada
ta nortasunaren zirikada.
Barrero, Bilbo bilbotar,
zergarik artu nai ez
libertadearen kaltez
norbere lepotan.

Geroago, «Zamakola»,
anai arteko odola,
abandotarren aurkako
itsukerizko ujola.
«Bakezko portu»
Abandon sortu
ta zu, Bilbo, arrotu,
gogortu
ta gorrotoan tontortu!

Ta gizadi barrian,
barrero aidian,
izkillu otsian,
txapelgorrin elgorria
uxatu gurarian.
Ta oraintsuago,
egun-egungo,
zure kaletan
eta mugetan,
gu geuk,
-jo ta eup-
egin dogun gerra
landerra...!

Ba dozu, Bilbo,
gerratean nun okertu
sayetz igerra!

Eta,
-gerrak gerratan-
ba dozu zure edesti ixilla,
ez illa:
lanaren makurtasun abilla:
Pekatur aztuz,
biurtutez betez,
dotorez ta ohorez,
bereziz ta mereziz,
apaindu ta zaindu zaitun
erastuna:
Lanerako nortasuna.
Norbere izatea itto,
ta gizarte alkartzea iyo
nairik,
gizona gizondu
ta Bilbo bilbotzeko
asmoz eta gogoz,
bilbotarrak,
antxiñako bakartadetan,
errepublika txikien garaletan,
ta gaurko batzarretan,
aundikeri egarrien aldietan,
otoitza bezin fedetsu
ta bizia aiña kementsu,
egunero,
egunero,
bakoitzaren indarretan
eta odolaren garretan,
esan,
jasan,
ekin,
egin,


sortu,
lortu,
ames,
babes,
ta bizi
-bizil-
eragiten daben
lanaren edestia.


Lurrean ostoak
ta itxasoan egoak
daukazala,
Bilboren erraietan
eta amesetan
igarten dan lan edestia.

Lan da lan,
ten da ten,
min da min,
jo ta jo,
su ta su...!

Lan da lan
goizetan lez gabetan,
gerretan eta baketan,
lurpetan,
kaletan,
etxetan,
kaietan,
uretan,
suetan,
urtien urtetan,
gizaldien betetan!

Bilbo!
Lanean irasi,
lanean azi,
lanean bizi
ta lanean berezi
zarean Bilbo!
Nik eztakit zuri kantuz
zelan ekin.
Nik ba dakit zuri oiuz
zelan egin:
Bilbo, Bilbo!
txinbo
nai urbilgo,
lanari tinko
ekiñez zintzo,
etzara ilgo,
gure Bilbo!





BUSTURI

Gernika'tik Bermeo'rako bidean, gaiñetxo baten, Amupategi baten kontura egindako torre zapal bat eta orduari bat bertán. Ara Busturi. Gelditu bertan, alboetara begiratu eta erraz sartu leike bertatik bere inguruetara.

Altamira, Axpe, San Bartolome eta San Kristobal, auzoak.

Bidean, egaletan, etxe bizitza dotoreak. Gero ta geiago. Uda-zaleentzat toki atsegin eta alaia da, ondar eta ur, aukeran daukazalako.

Jente atsegiña. Asko ikusi eta asko bizia. Edozein baserritan billatzen da merkantetan, galoidun edo serbitsari, itxas zabaletan ibillitakoren bat. Eta gero, erriko miñak jota, arrenkuriak eraginda, ementxe ondoa artu.

Izan be Busturi polita eta jatorra da orretarako.

Zenbat bidar kantatu ete dabe busturitarrak itxasoetan, erriko miñez, kantu ezagun a:

Madalen Busturiko
gabien gabian
errondian dabiltza
zure portalian.
Ai Madalen, Madalen,
ai Madalen,
zure billa nebillen
orain baiño len.

Itxas gaiñean, itxas bistan eta itxas egalean dago Busturi. Dagnetara esan lei. Eta ez dauka kairik, porturik. Baiña Mundaka'ko itxasontzien erroletan sarri billatzen dira, lengo gizaldietan, busturitarren itxasontziak. Jose Arrospide, Antonio Albina, Juan Atxirika eta abarrek euki zituen eurenak eta mgurutako komertzioan ibiltzen ziran. Ontzigintzan be ezagunak izan ziran Busturia abizendunak. Kapitanak billatzeko, ez da asko nekatu bear. Baiña lengo gizaldiaren asieran entzute ona euki eben Txomin Uriarte eta Andres Ibaizabal batek.

Itxasoak, laiño eta bits, bere arnasa emoten daki ingurutakoei, ezaugarri berezi bat.

Errioxa'ko San Millan'go kartularioan billatuko dogu:

Iñigo Lopez eta Toda bere emazteak Armentia'ko Gartzia obispoari Axpe'ko Santa Mari'ren ardura eta Busturi'ko errian artzen ziran amarrenak eskiñi eutsezala, gero, bera il ondoren, San Millan'go monastegiari lagateko ardura ori, bai eta amarrenen jaubetasuna be. 1051 urtean zan ori.

Geroago, obispo a il ondoren, bere ondorengoari, Fortunio'ri, eskintza bardiña egin yakon.

Izpea'ko Santa Mari lez ezagutzen zan sasoi aretan eleiza au. Gaur Aizpea, Axpe.

Eleiza ederra da berak eta urteen luzeran emaitz edo eskintza asko artua. Orrela, erri gitxik dauken lako kustodia eder baten jabe da. Apaingarriz betea, barrokerian jausteko eran. Parrokiko kurtzea be aberatsa da.

Nun dago bertarako egiña izango zan Andra Mari'ren irudia? Egon bear zan tokian, bear ba da ongilleren bateri ederkatura egi-tearren, Guadalupe'ko irudia dakarren pañu eder bat dago.

San Cristobal'en dagon Andra Mari ete da parroki onetarako egiña? Ala dirudi.

Beste Andre Mari irudia, Bereizi'koa da. Batzuk italiar itxura emon nairik, Paressi edo parezi deitzen dautse, baiña antxiñako agirietan Bareizi agertzen da. Berezi, itxuraz.

Jakingarri polit bat billatzen dogu parrokiko agirietan.

1616 urtean eleizan eskribadu batzuekaz ikusketa bat egin zan. Eta eleizako pitxi eta edergarriak agertzean, an agertzen da organu bat be. Baiña bertan esaten da, ez zala joten organurik, jotzalle bat ordaintzeko aiña dirurik ez egolako.

Busturi'ko, bere dotoretasuna kenduta, eta bere bake giroa artuta, merezi dau pixkat kontu zarretan sakontzea.

Egia ete?

Pedro Barcelos portugaldarrak, bere Livro dos Linhagens'en

au diño: Munio, Asturias'ko kondeak Bizkai'ko semeak estututa eukazan. Bei, idi eta zaldi zuri bat eskiñi bear izaten eutsezan bizkaitarrak. Baiña bein, Froom, Inglaterrako errege baten anaia, andik bialduta, Bizkai aldera etorri zan itxasoz, lur barrien billa. Eta bizkaitarrak Munio'gaz erabillen asarrea jakinda, euren alde jokatzera eskiñi zan, emengoak Jauntzat ezagutzen ba eben. Alaxe agindu be.

Agertu zan Munio berari ordaindu bearrak eskatzen. Froom-ek ukatu.

Origaitik Munio bere soldaduekaz agertu zan eta Vuzturio baso erriaren inguruan alkar billatu ondoren, gudaketa zital bat egin eben. Emengoak irabazi.

Orra Busturi, istori zarrean.

Gudaketa onek beste irizpide batzuk ba daukaz. Guk, irakurri ala, or lagaten dogu.

Kontu zarrekaz jarrai daigun.

1 475 urtean, bizkaitar asko batu ziran Toro eta Tordesillas ingurutan, Portugal'en aurkako gerrarako egin zan deiari erantzunez.

An ez egoan giro onik.

Gosea, dirurik eza, euskaldunen eskubideak...danak batu eta biribildu ziran.

Jakiña da sasoi aretan euskaldunak euren lurraldetatik gerraen baterako urteten ba eben, aurrez dirua kobratuta urteten ebela. Ori zan oitura, lege egiñiko oitura. Baiña sasoi aretan erregeak ez euken dirurik eta karta bat emon eben esanez zeatz ordainduko zituela egun batzuk barru ango alogerak.

Eguna eldu eta ordaindu ez. Talde batek etxeratzeko asmoa artu eban eta Rodrigo Albiz, Axpetarriari, eskatu eutsen errege karta a emoteko, edozeiñeri erakusteko be. Asarreak, gogorkeriak eta odola bitartean. Axpetarriak ilda an jausi zan Marzana'ko Otxoa; bat.

Rodrigo Albiz'ek parkamena eskatu eban erregeengandik eta ala lortu be 1475'ko Dagonilla'ren 4'n emondako agiri baten irakurten dan lez. Beragaz batera parkatua izan zan beste anai bat: Sagarminaga'ko Martirí.

Busturi'n sasoi baten asko ezagutzen zan ogibide edo ofizixua: burdiñazko sare egilleena, erregalariena.

Euskalerrian, zidargiñen artean, errementari on eta jatorrak be ezagutu ziran. Eta euren artean konbentu eta eleizetan, edo etxeetan ainbat burdiñazko ate-sare dotore, txukun eta baliotsu egiñak. Zobaran bat, Martin Agirre, Juan Allika, Rodrigo Apraiz eta beste

batzuk agertzen dira liburuetan zeregin orretako artista lez busturitarren artean. Gorago aitaturakoak ba ekiezan iru-lau illebetetarako lanak artu eta erbesteko errietan jarduten. Len aitaturako danak 1.600 urtekoak ziran.

Izen andiko busturitar bat: Jose Apraiz eta Arrospide. San Carlos izeneko Legiñoiko kapitan izan zan Potosi'n. Itxuraz ondasun asko egin edo lortu zitun. Bere erriaren alde egin eban azken-nai edo testamentuan alaxe igarten da: Bere etxean gordeta eukan kustumia ederra, Axpe'ko eleizeari. Bai eta zidarrezko kopei andi bat, eta zortzi kandelari, eta beste ainbat pitxi.

Osagillearentzat diru pillu bat laga eban, Apraiz-erdikoa, Ariznaga-erdikoa eta Txirapotsu'koei duban laguntzeko, premiña agertzen zanetan, eta erriko beartsuak be zaintzeko.

Dotriña, irakurten, idazten, josten eta kaltzetagiñetan egian sentzu eta fama oneko andra batentzat lau milla dukat, neskatillei ekiana erakusteko. Eta dirutza bardiña maixu batentzat, mutillei erakusteko. Ortaz gañera, beste ainbeste laguntza erri ta ingurutako eleiz gizonei.

Busturitarrek izan ziran baita Juan Antonio Madariaga Arosategi eta bere anai Juan Maixo. Bata Cadiz eta ingurutako Korreotako zuzendari nagusi izan zan bere denporetan eta bestea Armada'ko buruzagi. Biak Santiago'ko zaldunen jantzia artu eben XVIII gizaldian.


Euskalerrian izen andiko sasi-mediku ugari ezagutu izan dira denporetan. Laster zabaltzen zan olakoen entzutea eta toki askotara urten bear izaten eben eurak. Emen Busturi'n, orain eun eta ogei urte, Gaspar Bolukua bizi zan. Erriko osagillea zan, erriko ebaketaria. Baiña toki askotatik etorten yakozan bertara gaixoak. Ez bakarrik Euskalerritik. Mirariak egiten ei zitun berak gertaten ekiazan botika eta enplastuekaz.

Sasoi aretan, ingurutako etxerik geienak alkilatuta eukiten zitezuan euren gelak beregana *etorten* ziran gaixoentzat.

Bolukua ori, jatorriz, gizaburutarra izan bear zan.

Kontu zarrak esaten barritzen datorren orri bat ikusi dogu. Emen egon ei zan Altamira'ko torrea eta bertan bizi Eskozia'ko erregin bat, Jaun Zuria'ren ama.

Euskal-istorian entzute andiko erria. Uribe eta beronen artean, *euron* errialdetan, Bizkai'ko eleiz aterik geienak sartzen ziran. Busturi'k, izen utsean, ia Bizkai erdiaren kondaira ixilla esukatzen dau.



DERIO

Mungia aldetik nator, Artebakarra'n bera. A zelako laprasta-dea egin dodan, bide nausi ondoan, Derio'ko Artea'n sartzean.

Ni be Jaungoikoak egiña naz.

Ba nekarren buruan deriotarrei zitalkeriz norbaitek asmatu eutsen esakera bat. Zazpikia izan, eta sartu orduko, baserri baten aurreko munatxoan bertan igitagiagaz belar-ondoak batzen ebi-llan buruko zapi-zuridun andrazko igar bateri, egunonak emon aurretik, esaten asi:

-Zorionak andrea, Gaurko neskak ez leukiez errez zuk bezin artez abarka zabal orreik batu eta belaun oiñeraño ain dotore lotuko.

-Gizon, nik eta zuk onezkero matsak batuta eukiko doguz, itxuraz beintzat, ez? Egunon lenengo ta gero koipeak.

-Benetan, lenengo egunon. Eta koipeak lapikorako lagata, mingain puntan darabildan zerbait egia izan ete leike?

-Gaur egia zer dan iñok ba al daki?

. -Ara. Zamudio perrotxiko erria, Lezama... (gaur beintzat guzurrea da beragaitik esaten zana), eta Derio?

Bai igarri be atsoak nora jo nai neban, eta nik berba erdika bat geiago esan aurretik, berba zoli:

-Derio? Zein erritan ez da urtean bein kandelerio? Jasan al izango ete doguz gure erriari ats eragin nairik datozen tximintxoak? Tximintxena gogoratu nai ba zendun, jakin kanpotik ekarri ezik guk emen ez dogula olakorik. Entzun?

Ez dakit andreak igarri eban nire barruko atzerakadea. berak bai jarraitu:

-Gizona, zareana zareala, mesedez edo bera barilc, jakin aurretikoen esakera: «Zuk niri esateko Txorierrikoa, nun daukazu erririk txori bakoa?» hta esakerak dotriñea dira. Ori, gaur ortik ikasi nai ez dozuen benetako dotriñea.

-Ez beti.

-Jakiña, dotriñea ez da iñori irri egin eta izorratzea.

Garizuma onetan deriotar dotriñako txartela artzeko, ikasi bearko dogu ba bertako zerbait. Asi gaitezen:

larala lere lerio
Zamudio ta Derio,
arbelak likaz dario
txoria egaz gaindio.

Gamiz eta Derio bitartean menditxo bat dago: Berreaga. Ez da mendi gaitza. Baiña deriotarrak kakua sartu eragin nai izaten dautse. Arro eta destañez esango dautzue: Esan esetz ogei bidar naste barik esakera au: beleak Berreagara zerbait daroa; ba daroa; berea daroa; baba errea agoan daroa.

Bai? Ez dala korapillotsua? Asi, ba, beste onegaz: Berreagako txekor gorri adar okerduna baiño txekor txakurragoren urratsik Arratzun arraztu ezetz.

Ekin, al bestean, eta goazen aurrera.

Goraka doa erri au. Bilbo'ren arnas. Emen ez dago baso, solo eta baserrian buruausterik. Lur baltza urre gorri biurtzen dator. Len esan zeinkean: «Asua ta Erandio, Sondika ta Loyu, arto asko erein eta gari gitxi koiu». Edo beste au: «Derio eta Erandio, Sondika eta Loyu, alegin egiñarren arto gitxi koiu.

Gaur basterrak beteten datoz. Soloak fabrika biurtzen. Etxe barriak bide egalak bete dituez. Auzoak alkartzen. Santuen erria deitzen eutsen len Derio'ri. Eta ez abade-etxeagaitik. Emengo auzoak santuen izenez agertzen dira paperetan: San Antolin, San Kristobal, San Esteban, San Isidro, Santimamiñe. Auzo txiki dnak. Orain eun urte 250 bizilagun. 1966 urtean, bi milla geiago. Gaur Bilbo'ren estadistiketan ikusi bear.

Gernika'ko batzerretan 72 garren jarlekua eukiten eban bertako ordezkariak.

Bilbo'tik Lezama'rako trena bertatik igaroten da. Bilbo'tik Bermeo'rako bide zabala be bai. Baita Erletxes'tik Erandio'rakoa be. Baiña kontuz bide kurutzetan. Zur ibilli. Laster artu leike emen beste mundurako bidea.

Bizkai'ko abade-etxea, seminariora, bertan dago, Andiegia. Zartarregia. Andikerien denporetako agerpide nabarmena. Zoroetxe batentzako asmotan eskeletoak egiña. Gure gerratean, gerrarako lantegitzat erabili ziran bertako azpiak. Bilbo'ko obispadutza, go-tzaingoa, irasi-barri, Aldundiaren bete-beteko eskintza. Gaur go-tzaingoa-rentzat neke eta buruauste pixotsua. Etxeari buruz diar-

dugu.

Bizkai'ko Aldundiak, Diputaziñoiak, ba dauka emen abere edo ganadu berezientzako etxea. Bizkai'ko ganadutza indar barritzeko asmotan sortua da etxe ori. Erbestetik ekarri edo bertan sortzen diran abereen ikastegi eta leku berezi eta ondo zaindua. Ardura eta arreta andiz jokutzen dan entzutea ba dauka etxepnek.

Orrez gañera gaurko industriaren erruak zabaitzen igarten dira. Bilbo'ren berde toki eta arnas leku izateko diran inguruok ez ete dira ariñegi bete eta zabartuko?

Derio'k nekez lortu eban Gernika'kd batzerretan bere nortasuna. Origaitik 72 garren jarlekua. Eleizatetan azkena. XV-XVI gizardietan 30 sutondo edo bizitzagaz ezagutzen da. Erri langillea. Biargiña. Zamudio'n burdiñola on bat ezagutzen zan sasoi orretan. Muzkiz'etik eroaten eben bertara burdinkia. Ango mendietatik Asua'ko portura. Eta emendik Zamudio'rakoa deriotarrak egiten eben. Zeregin orretan agertzen ziran Gastetuaga eta Maurika abizendunak.

Lengora jota, 1688 urteko Irailla'ren 28'n egin zan batzarran emon eutsen Gernika'n bere nortasunaren ezaguera.

Derio'n euskeraz jakin ba dakie. Egin, ez asko. Asko zenbat dan? Parkatu. Gitxi egiten dala esanda, ez daukagu zetan erantzun orreri.

Eleiz ondoan abadien zine bat dago. Ondo? Asieran polito. Gaur erri txikietan be zineak ez dauke indarririk. Origaitik ez dauke jaubeak gogorik bertan jarraitzeko. Zinean, jakiña, erderaz egiten da.

Eta eleizan? Erri batzuetan gitxiegi egiten dirala ta asarre agertzen dira euskal-zaleak. Emen, erantzunik ez daukelako larritzen diranak, abadeak dira.

Eta euskal ikastolan?

Derio'n ez da ezagutzen garrrik umeak olako ikastoletarako bialtzeko. Erri askotan, ikastolei bizirik emon ezinda dabiltz, irakasle edo maixu euskaldunik ez daukelako. Emen gertu egozan beste ikastola bat sortzeko, baiña neska-mutillik ez, umerik ez, au da gogorik ez bialtzeko. Gurasoak naiago dabe errezetik jokatu.

Igarten da Derio'n euskera bera doala. Gero ta nekezago eta lotsatiago berba egiten dabe. Mingarri da esatea, baiña ezin esku-tatu.

Derio geitzen, ugarituten eta zabaltzen ba dua, Bilbo'n bizi diranen kontura da. An bizi diranak ez dira beti bilbotarrak. Bilbo'n ba dakigu zelako indarra daben euskerak, ba dakigu angoentzako zer dan gure berbeta: santuen erlikia. Zoritxarrez gero ta errezago

lagaten dogu santuei gure biotza erakustea.

Ukatu ezin leiken giza-legea da santuei mun egin eta illei betiko bakea eskintzea. Kontzientziko agerpidea.

Derio'n dago Bilbo'ko iltoki nausia. Ederra. Ildakoak auts biurtuta egonarren, monumentu aberatsen kerizpean dagoz biztuera barria itxaroten. Arri eta marmolak, burdin eta egurrak, edozein artisten irudipenen biurrikeriz landuta ipiñi leikez. Monumentu andi bat falta: gure illei betiko bakea euskeraz opateko, eragozpen ugari. Kurutze ixil askok gure berbetearen negarra itto egin dabe euren arizko gogortasunean. Ori gertatu da berrogetak urtetan.

Derio, gaur, Bilbo'ren auzoa da. Baiña oraindik erri dalakoan.

Artxanda azpitik tunela egiten danean, bilbotarrak tatarrez sartuko dira emen eta emengoak bat batean bilbotartu. Ori ikusia dago, edo beintzat, gaurkoz, igarria.

Esakera zarra da len itaunduten zala: Nondik dago Bilbo'ra bidea? Eta emengoak erantzuten ebela: Aki, aki por aki, Makoa'ko portaleti, aurrean bost gaztaiña, aretxen beko aldetik.

Gaur egokiago izango litzake nun urtetan dan Bilbo'tik itaundutea. Eta konturatuko giñateke urteera bakarra daukala: Artebakarra. Ain zuzen be gu sartu garean bidea.

Ba goaz Derio'tik. Unamuno'k diñoenez, eurak ume zirala arrokeria zan bilbotar umientzat Deusto, Portugalete eta Derio ezagutzen zirala esatea.

Gaur, Derio'n gagozalakoan, Bilbo'n gabiltz.


Bilbotar txinberuak, igarri barik, txori-erritar biurtu dira. Jakiña, laster izenik be ez yako geldituko Txori-erri baketsu oneri.

Bizkaiko euskerak Derio'n arnas barria artu lei, Labayru ikastegia auspo dala.

Lengo abade ikasleeen eskolaren zati bat, gaur, Bizkai'ko kulturetxe antzeko da.

Uda eta neguko ikastaroak, irakasleen eskolak, Bizkai'ko eleizetako artxiboa, liburutegi eta enparauiek, bertan dauke jakintsu eta ikasleentzat toki egoki eta erosua.

Derio'n berbiztuko da bizkaieraren kandelerioa.



DIMA

Noizko ete da Dimatarren umorea?

Jo panderoa eta eragin. Atzaparrei eragin eta gorputzari eta gonaei. Irudimenari eragin eta begiei. Bat ikusi ta a zirikatu. Bateria deitu ta bestea loxindu. Bateria begiratu ta besteari kiñu...

Maritxu Petronila
Olabarrikue
katuak jan dautsola
sutako talue.

Maritxu ez eidazu
katurik mankatu,
saguak kuyetako
katua biogu.

Gaztaña kolorea
daukazu Maritxu,
Patxiko Balzolakoak
zurituko zaitu.

Patxiku Balzolako
tartien tartien
Igorrera yoaten da
nobiya eskien.

Eta alaxe, olgeta-benetan, erriaren gatza erakutsiz, umorea agertu eta zabaltzen, biziari irri egiñaz, biziari tartea artuz eta ziria sartuz bizi dira emen.

Ortuen perejille,
saleruen gatza,
faltrikera beruez
tabernan lebatza.
Lebatza ezin bozu
ba dago buzkantza,
pandero yoten nabil
kendu daizun gantza.

Ba nabil, Dima'n.

Menditarrak dira arratiar erriak. Menditarrak eta menditsuak. Bizi-lagunez ez ugari eta andi, baiña lurrez bai. Kontu egin Zeanuri Bizkaitik irugarren andiena dala lurrez. Eta bere ondoren Dima dagola. Zeanuri'k 67,28 kilometro lautu, Dima'k 62,22. 45 kilometroko ingurua osotzen dabe Dima'ko lurak.

Ala ta be 1.500 lagun bakarrik bizi dira Dima'n. Kilometro lautuko 25 lagun inguru. Basauri'n, kilometroko zazpi milla. Alde ederra.

Arostegieta, Bargondia, Bizkarregi, Intxaur-bizkar, Indusi, Lamindano, Oba biak, Olazabal eta Ugaran dira bere errialdeko zatiak.

Irakaskintza: Txikiena, erriko eskoletan. Erdikoa, batxiller eta antzerakoak, Yurre'n, bertotik lau kilometrora. Langintzaetakoenak, laboralak, al dan tokian.

Ogi-bidea, langintza: mendietan eta egur erabilketan. Serra bi dagoz.

Berrogetamar urte oneitan erdira etorri da Dima. Orain 50 urte, 2876 bizilagun eukazan. Gaur erdiak. Atzerago jota, orain eun urte be, 2.145 bizi lagun eukazan.

Orain 50 urte, Patxi Zalbidegoitia zan alkate eta Txomin Zarate, parroko. Bera eta beste bost abade laguntzalle egoten ziran sasoi aretan erri onetan. Gaur parroko bat eta laguntzalle bí. Orduko sei abadetatik bat bakarra ez da bizi.

Sei taberna egozan orduan. Egia esateko, sei taberna areititik, lau jateko denda eta taberna batera ziran. Iru serra be bai, eta beste lau arostegi eta iru burdintegi, errementari. Eta Dima'n beti egoten ziran egur-ikazkigiñak.

Arteagaz egiten dau
Miel'ek ikatza,
kurpittana bizia ei da
ta arteana latza.

Dima'ko siniskerak:

Amatasunean bularretara bear aiña esnerik ez yatortzula? Zoaz Bekorregi'ko Ama'rengana.

Zure neskatoak ez dakila berbetan? Edo ta umiak nekez ba datoz ibiltzen ikasten edo bildurti, zoaz Lamindaño'ko Amagañe.

Ala esaten dakie Dima'n.

Lamindaño'ko parroki au, San Pedro'ren «anejea» da. Arrati'ko parroki eta ermitetan, bigarrena denporetan.

Bertako Ama Birgiña'ren irudia, XV garren gizaldikoa da. Ar-teari begira esaten dakie, Ama baiño Semea urduriago dala. Ama gotikoa eta Semea Pizkunde tankeretan sartu nairik. Bikarregi'n dagona oraindik daukan baiño zar itxura geiago daukana ei da. Orduko santugiñak, zaarregi egin nairik, ez ei eban lortu artean zer-bait dakienei ziri ori sartzerik. Orra. Lamindaño'koak 0,88 daukaz luzeran, Bekorregi'koak 0,60.

San Pedro'ren parrokia, «anejea» eta beste bederatzzi ermita dagoz Dima'n. Ez, ain zuzen be, Arrati'ko errietatik geien.

Zarra ez ba da be, oraindik 250 urte inguru, ikusgarri eta zaintzea merezi dabena, Erruki'ko Amaren ermitea da.

Jakingarria: Lamindano'ko eleizan txilin zaar bat dago, bronzetzekoa, eta bertan au irakurri lei: Me fecit Johannes de Afinea. 1553.

San Pedro parrokia noiz egiña zan ez ba dakigu be, 1 729 urtean erre egin zan eta beriala eleizaren arduradunak artzen ebezan amarrenak barriztatzeko eskiñi ziran.

Luze joan zan barriztatzea. Erremata artu ebanak amaitu ez, eta gero nasteak, asarreak eta zorrak ordaindu ezin. Urteak igaro ziran orretan. Zorrak ordaintzeko, erbestera dirua eskatu eta Durango'ko Santa Susana'ko monjak be emon zati bat, urteko euneko bi korriduan. Danetara, zorrak ordaintzeko, 87 milla errial eskatu ziran.

Aldare nausiko erretablua Pedro Pillan'ek egin eban eta 22.090 errial kostatu zan. Irudia, imagiña, bi milla errial.

1735 urtean egin zan barriztatzeko erremata eta oraindik ogei urte geroago lan asko amaitzeko egozan. Geroago, 1 800 urtean, barriri premiña asko konpondu edo barriztatu ziran.

Dima'ko beste imagiña baliotsu bat, gaur Bilbo'ko Arkeologiko Museoan dago: Oba'ko ermitako Santa Ana, Andra Mari bere Semeagaz eskuetan dabela, Antxiñako ezan nai askodun agergarri da.

Amabi urte neukazan 1926 urtean. Ikasten nebillala, irakaste barri bat etorri yakun Erroma'tik. Markiñarra. Al eban guztian kontseju bat emoten euskun gure bizitzarako: Dima'ko Aita Domingo'ren antzeko izaten alegintzeko. Il barri zan dimatar au eta

santu entzutea beriala zabaldu zan baster guztietan. Berak be ezagutu ei eban. Sekula ez ei eutsan gauza berezirik igarri, ixil-ixilik, irribarrezka une bakoitzean egin bear zana zintzotasunez eta betetasunez egitea besterik. Alakoxe fin fiña ei zan Domingo Iturrate eta Zubero, dimatarra, bere gaztearoko sasoirik onenean. Aurten ekarri zituen bere azurrak Bizkai'ra eta Algorta'n gorde, santuen aintzaz goratzeko asmotan.

Irutasuneko Ordenan, Trinidadekoan, Dima'k azi ona sartu eban.

1971 urtean Ordena onetako Nagusi izentatu eben bertako beste seme bat. Zortzi izkuntza, berbeta ei dakiz. Eta 42 urtegaz Ordena bateko buru izentatzeko beste zerbait geiago be bear da. Orra Aita Iñaxio Bizkarguenaga.

Jarraitu daigun seme jatorrak agertzen.

Bizarrak nok? Laga kaputxinoei. Baiña ara joan egin bear da. Eta an sartu zan bein Bargondia auzoko seme bat: Saturnino So-loeta Iturroundobeitia.

Fraidetu orduko Suiza'ko Friburgo'n Aita Getino'ren ikasle. Euskaldun jator. Maixu orrek be ala deitzen ei eutsan: euskalduna. Andik Argentina'ra joan eta ainbat urtetan euskera zabaldu nairik, euskaldunen artean lanean. Euskerazko liburuak be agertu zitun. Kursu bitarako ikasgaiak. Erderaz eta prantsesez.

47 urte eukazala, Bizkai'ra agertu zan etxeakoak ikusten. Zelan begiratu bear ete da bizitzeari adin orretan?

Bizkaia'n egoala Aita Fernando-ala deitzen zan Ordenan-, mi-xiolari sentidu zan. Eta ordurarteko Argentina eta Txile'ko nausi-keriak lagata, bakar-bakarrik Txina'ra joan zan. Eta an bereak eta bi ikusi beste 26 urtetan. Ango nastetan estu ibili ondoren, Mani-la'ra joatea lortu eban eta antxe il, beste amar urte lanean egin ondoren, 83 urtedun.

Nik, beratzaz, bere auzoko batek idatzi ebana gogoratuko dot: Buruz azkarra, argia eta sakona, gitxi lez. Eta biotzez oraindik aundi-ago ta goragoa.

Beste dimatar argi bat? Liburutegietako sagua deitzen dau-tse. Aita Akesolo. Baiña...


Bilbo'ko Museo Arqueológico'n, testigantza bakan lez, Di-ma'n batutako illobietako gorantza edo lauda bat dago. Brontzez-koa. Urizartarrena da. Egon zan Dima'n bizitza guztirako Bizkai'ko Foruetako alkate lez izentaturiko Urteño Urizar bat. Arek ipiña zan lauda ori bere aurretikoen illobian.

Laga daiogun biziei meritu geiago irabazten, brontzezko oroi-garrien orde, biotzen eskar beroa agertu al izateko.

Lengó gizaldiko bat: Zamakola. 1804 urtean besterik ez zan entzuten Bizkaia'n. Orduko algara eta ekiñei zamakoladea deitu be eutsen. Orduko testigantzak diñoenez, Simon Bernardo Zamakola, Dima'n sinistu ezin leiken aiñako eran maitatua zala.

Beste baten sartuko gara Balzoletan, lamiñak endredetan. Gaur, sartu garean lez, urten daigun pandero otsean Dima'ri kantetan:

Antxiñe esan neutsan
dimatar batert,
gorde zakidazala
prenda eder ori.



DURANGO

Uribum, kapital izateko egokia?

Ortarako aukera faltarik ez dau euki. Jakin daben edo ez, nortasun ori euki daben edo ez, bakoitzak bere ikusteko begi eta sentzutik atarako dau ondorena.

Durango bakarrik ez da erabili bear. Durango ta auzoak.

29 errialdek osotuten eben orain eun urte. 34.103 bizilagun. Durango berak 3.154.

Etxe-bizitzei buruz, 1.969 etxe jaube ziran eta 5.500 errenteruru.

Alogerekuak, 3.435 batzen ziran lurrean inñardenak eta 54 ola edo fabriketarako morroi. Bestelako langilleak: 2.520. Bateko edo besteko industrigiñak: 869. Olagizonak: 109. Dendari ta merkatariak: 116.

Baserri ta kalean 22.274 abelgorri, ganadu, batzen ziran; 4.600 txarriki.

Aidean artutako kontuak dira.

Eta ultzegilleak, zidargiñak, pañulariak, urteetan, barrubarrukp.eta bete-beteko nortasuna euken inguru onetan

Oraindik Ibaizabal garbi ikusten zan. Eta Durango be bai, Abadiño éta Berriz aldeko ur guztiak eta Urkiola eta Igelganakoak argi jéisten ziralako. Origaitik sarbu txikiak eta eskalluak gertateko erak izena emon eutsen sukaldariei. Eta tomateak? Azala eten barruk ustu eta Ondarroa nai Bermeo aldetik eroandako atupagaz bete eta errekako amarratzekin inguratuta zeifiek obeto agertu saiatzen ei ziran udaldietan emengo etxeoandrak. Eta kaleko merkatariak eta ola-gizonak eta alogerekuak egiten zituen

euren ibillaldi ta jaiak, beti be etxeko odolki edo txarriekiaz, «txitxiburduntzi» eguna gertatu nai edozein ermitetako santuren goratzeko aitzakiz.

Durango zarraren erri miñez, maite-miñez ete nabil? Leike.

Merkatari ta eunlariak, pañulariak. Bai.

Orain bosteun urte Durango'ko eunlariak, pañulariak, asko ezagutzen ziran. Ba dira 1 496 urteko araudiak pañulari orrein Kofradia zeaztuten. Eta merkataritza biurri baten ondorenak igarten doguz bertan. Ortik etorri ete zan zeregin ori, industri ori galtzea?

Ainbat lege zorrotz agertzen dira pañularien Kofradian zintzo jokatu erazi nairik. Zikinkerri eta uztelkerri asko nairik datoz aginduak:

«...arimen arriskuz, lana zatar eta zikiñak naastuten zituela pañu nabarretan...»

«...goruetan, pañulari batzuen esku lapur eta okerrak ezagutu izan diralako...»

«...eta iruleak, asko egiteko garrez, nai ta arimen kaltez, pañu nabarrak ogetamaika ari baiño gitxiagoz egiten zituelako... edo ta arinkeriz bein baiño ez zituelako garbatzen...»

Dana dala gintza au, industri au Durango'tik Segovia'ra eroan zala diñoenak ba dira, baiña ezin esan len emen kendu zanik, ara eroateko, sasoi baten bietan batera ezagutzen dalako zeregin ori.

Ultzegilleak, eurén aldetik, fin jokutzen asi ziran. Kalebarrian euki eben lenengo lantegia. Ugazaba, langille, saltzalle batera egiten eben. Egin-ala, pixkat aurreratu orduko, erriz erri urteera emon eta dirua batu al izateko.

Lenengotan lantegi txiki eta baltzetan, illunetan asi ziran. Egur ikatzaren kedarrez betetako lantegitxoetan. Gero andik Larraso-loetako lurretara aldatu, egokitasun eta aukera obeko tokiak gertu ondoren, gaur be jarraitzen dabon zeregiñei bidea zabalduz.

XII gizaldian Durango ormaz inguratutako erria zan. Ordurako bere Jaunak be euki zitun, Naparroa'ko erregeen menpeko izan ziran jaunak.

Gero, Haro'ko Diego'k Durango'ko errialde au Bizkaia'n sarzea lortu eban eta Durango'ko Tabira izenagaz emon eutsan ezaupidea erriari.

Lenengotatik Durango langillea ezagutzen da. Sasoiko langintzei lotua.' Ortik sortutako «erejia» izan ete zan 1442 urtean emen zabaltzen asi zana? Bagardoen biztuera izenagaz ezagutzen dan giro ori, bizialdi ori, ordurako Europa zear zabaltzen asi zan bardintasun naiko ondorenen bat ete zan? Komunistak deitu eutsen aize barrietan sartu ziran frailiei. Europa'ko jokera barriak Durango'tik

así ziran Bízkaía'n sartzten. Eta frailien inguruan gonak. Bai? Donosti'ko Milia, Mari Otxoa, Teresa Estatea eta izenak aidean dabiltz. Merkatarien aitzakiak, bear ba da, «bardintasun» giro ori uxatzeko?

Ez zan gaitz, sasoi aretan be, jentien artean giro egoki bat billatzea. urte bateko uzta (kosetxia) labur eta makal agertzea naitu izaten zan gosete luze bat ezagutzeko, eta errian beratze bildurgarriak igarteko, oi ez lako eriotzak beriala agertu eraziz.

Onetan Durango'k be, bere urte baltzak euki zituen. XV-XVI gizaldietan iru-lau bidar igarten dira olako ondorenak.

Durango'ko euskal gizonak?

Oraingoz baketan dago Astarloa. Ba dirudi bere bastertxo billatu dautsela. Laga daiogun gaurkoz guk be baketan.

Zidargiñekin batean ibiliko ete gara? Emengo «zidargiñak» inguru guztian ezagun ziran lengo gizaldietan. Lafuente anaiak ziran. Ukondotik be umorea erakutsi eta zabaltzen eben. Bertsolari eta txistulari. Eurak egiñiko zidarkiak saltzen, batek kanta ta besteak txistua jo, ainbat erosle batzen zituen. Sasoi aretan bidietan urtetan ekien gantzeruei be aztu egin ei yakoen bein lapurretako ustez bidera urten eutsela, erioezan kantu eta kontuekaz naastuta.

Eta kantu kantari... «Gernika'ko Arbola» Iparragirrerena zan edo ez?

Itzak, berbak, iñok ez dautsaz ukatzen. Ta musikea?

1 828 urtean Durango'n jaio zan Juan Mari Altuna. Emen jaio, erbestean ikasi, ta Lekeitio'n organu jotzalle bere bizitzan ekin. Berak egiñiko ainbat musika lanen artean, Iparragirre'ri be Gernika'ko Arbola ori eskiñi ei eutsan. Beintzat San Luis kafetetxean lengoz abestu ebanean, Altuna au izan eban piano jotzalle.

Delmas'en esanetan, etxean euki eban partitura ori eta su baten erre ei yakon. Besteak, Iparagirre'ri aitatasun osoa laga nai dautsenak, Iparragirre'k musika kopiatzen ez ekiala ta gertatu eikeala arek Altuna'ri doñua ixil-mixilka erakutsi eta onek paperetan garbi ipintzea, musika ori besteagandik artuta.

Olaxe da gauza.

Ortik fede-arazora jota, beti ez dira bikarioak jaio barrieri gatz ipinten aztuten. Esakera: Zeiñen urak daukaz beronek? Arzadun bat zan Durango'ko bikario. 1704 urtean. Euskal zalea. Bere «Dotriña» bat Gazteiz'en argitaratu zan 1731 urtean. Arzadun orrek bataiatu eban Diego Lorenzo Urkizu, Durango'ko alkate izatera eldu zana. Bere liburutxo bat liburu bakan lez gordeten da erbesteko liburutegiren baten. Vinson eta Bonaparte'ren katalogoetan agertzen da: «Liburu, Virginia santissimien errosario santue-na».

Durango'n billatu leiz tarte-marteka erri maitasunez idatzi

ebenak, nai eta batzuk ez euskeraz: Ala Etxezarreta anaiak, Arginoniz eta abar.

Eta atzerago jota, bizkaitar eskribaduak tokirik onenetan sartzen ziranean, kaligrafo onenetako bat aurkitzen dogu: Juan Itziar, durangarra.

Lope Zuria edo Juan Zuria, bigarrenez ezkondu zan, Durangerriko Santxo Eztegiz'en alaba Dalda'gaz. Ama il zanean, Tabira'n sartu zituen bere ondorenak. Arek laga ei eban Andre Mariari eleiz eder bat jasoteko agindua eta ondasunen asiera.

Ori kontuan eukita, Uribarri'ko eleiza IX gizaldikoa izan leikela esaten da.

Istorigilleak ez dira danak eritzi orretako.

Dana, dala, erri onegaitik norbaitek esaten ekian:

Elizaz eta konbentuz
bizi leike kontentuz.

Aginpideko eleiza, gañera. Eibar, Elgoibar eta Soraluze emengo artxiprestearen menpeko ezagututako denporak egon ziran. Giputxiak eta bizkaitarrak ez ete egoan sasoi aretan?

Ontaz Durango, gaur be, alkartzalle da. Azala da bat eta ma-miña bestea. Fedeak eta lanak ez dabe gizonik aldendu bear, samurtu baiño.

Gaur, Durango, industri askoren uriburu egiten dator. Durango ta inguruak, esan daigun Abadiño eta beste batzuen bakez. Zeregin zar eta barridunak. Jakiña: sarbu eta eskalluen kaltez. Izen bat kendu eta bestea sortzen bertakoei.

Gertaera bat datorkit burura: Orain berreundak urte estrazazko papera egiten zan emen. Bere egilleak, Arriaga jaunak, «Amigos del Pais» koei paper ori ontasun eta garbitasunez egiteko eredu eskiñi eutsanean, pentsatuko ete eikean arek Durango'n gaurko kei, ats eta lurrenez eta kimikaz zeregin ori egingo zanik?

Durango zarra ezagutu ala ainbat burutasun datorkidaz. Ez dakit prailleak edo andrak «eregia» barririk sortuko daben emen. Orduko erejiak gaur «protestak» izan leikez. Anboto lengo lekuan dago eta errekek lengo tokietan sortu ta lengo bidetan jarraitu. Baiña San Antonio'ri ez dautsagu len beste mirari eskatzen. Eta osasuna len baiño makaltasun arrisku geiagoz ikusten dogu.

Durango, industri ugari baten erri-buru biurtzen ikustean... zegaitik gogoratu ete naz íede zarrekoen Aita San Antoniogaz?

Guazen pixka bat atzera urteetan.

Eriotz aurreko kezka urduri ta mingarrian, gizon bat azken naia, testamentua egiten:

Lau ontzako urre zor dautsadaz Luzuriaga osagilleari. Beste lau Añibarro'ri. Beste bi Sobrado'ri. Beste bat praille trinitario bati. Mesedez oneri ainbat ariñen biurtu.

Parkatzeko eskatzen dauset danei, oraiñarte ordaindu ezi-

ñean aurkitu naizelako.

Milla errial zor dauksadaz, baita be, Gandasegi'ri, baiña oneri Buenos Aires'en kobrateko daukadanaren agiri bat emona daukat.

Bizkai'ko Sindiku dan Oleaga'ri be zor dauksat. Eztakit zenbat. Berak esaten dabena. Eta Amillaga eta Aldai lengusuekin be kontuak egiteko nago, «Apologia de la Lengua Bascongada» liburuarrenak. Eta Munita liburu egilleari be oraindik kontuak garbitu barik daukadaz, «Reflexiones filosóficas» liburuarren ordaiñez.

Orrez gaiñera, ogetabat kuadernotan idatzita daukat «Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva». Erro jaunak azken ikutuak egin dagiozala, bere kiderik eztagolako orretarako. Eta niri laguntzeko Ameriketara diru batzen dabizala ba dakidanez, bertatik amaika milla errial emon nigaz bizi eta ainbestetan laguntzen daustan Andres Zuazua'ri...

Azken naia egiten, berrogetaamalauro urteko gizon jausi bat: Pablo Pedro Astarloa, durangarra.

1806'ko Bagilla'ren lenengo egunean zan ori. Biamonean beste mundura joana zan.

Orra, bizitzan kendu ezin diran zorrak, eriotz ondoren ordaindu nai. Norbera ittota lanez eta ittota baita be zorrez. Idazle baten erretratu bizi eta zeatza. Diru paperak baiño bestelako paperak geiago itsututen dabena jakintsu baten pleita.

Astarloa'ren teoriak ez dira izango danentzako ziurrak eta egokiak be. Baiña jakintsu batenak dira. Bata eta bestearren teoriak bear dira edozer osotzeko be. Ari bat baiño geiago bear izaten dira argia blztuteko, ixotuteko.

Durango'k bere semea aizetu eban. Eta erabilli. Astarloa puntutat artuta gauza bat esan geinke. Durango'k aiña beste erri bategen ez dabela euskerarik kale batetik bestera erabilli. Plaza baten egon zan lenengo gure Astarloa. Aize boladan bat sortu zan eta beste baster baten sartu eban. Eta geroago be barrero aldatu. Euskerari toki egokirik billatu eziñez?

Durango eta inguruak egunetik egunera geitzen igarten dira. Bidezko zan, gaurko industriaren etorkizunari begiratuta. Soloak eta basoak fabrikei toki egiten datoz. Bai eta sagar eta ortuariekaz sekula batuko ez zituen dirutzak artzen be. Eibar'en birika, arnas leku izateko da Durango ingurua. Bai eta Bilbo'rena be. Bizkai'ko beste edozein inguruk baiño aukera geiago eta obeagoak emongo dauz Durango inguruak orretarako. Autopistaren mesedeak sua

sartu dautsa Durango'ri, indar barria. Eta laster Euskal Ikus irratia be emendik zabalduko da errietara.

Gerrateko goiz baten Andima Orueta reportaje egintzalleak deitu eustan. Eguna ziurtatzekotan, 1 937'ko Epaila'ren 31 'n.

-Gertu?

-Norako?

-Gaur Durango-Elorrio ingurutan egunerokua beteteko aiña barri batu al izango dogu. Egazkiñak sartu dira eta bonbak jaurti. Guazen.

Durango'ra urreratzen ta gero ta kontrol geiago. Igarten zan zerbait. Baiña agiriak erakutsi ta aurrera.

Bilbo'ko bonbardeo batsuk ezagutu nitun, baiña erri txiki bateko bonbardeo baten arrada orduntxe artu neban lenengoz. Zoratuta ebillan jentea. Ospitaletan ez eben kontu arrazoi andirik emoten. An erabillezan zaurituak, etenbako sartu-etorrian. Eta illak? Zoaze kanposantura, esan euskun batek. An ikusiko dozuez.

Sartu giñan. Lurrean luze, senideen ezaugarriak artu arte, an egozan illak. Bata bestearen ondoan, illara ikaragarri baten, batzuk zapien bategaz burua estalduta, besteak agiri agirian. Oraindik ez ebillen iñor euren inguruan. Kanposantuko serbitzaria bakarririk eta gudari bi.

Eurak ikusten gengozala, eguerdi eguerdian ara barriri turruna. Barriri egazkiñak gain gaiñean. Andima'k iges egin eban ezta-ki nora. Nik, arri bateri ten eta sepultura baten sartzea pentsatu neban bat batez. Ordu erdiren baten an egongo nitzan, biguntzan, ezta-ki zein edo zeren gaiñean. Kaja zarren bat austu zan, bere gaiñean kukulumutxu jezari nitzanean. Eta antxe, illunean, errugabien linboa ezagutu neban Durango'n, mundu obeago batera pasatzeko bildurrez.

Guazen barriri euskerara. Orobio'ko baserri taberna baten sartu nitzan oraintsu. Orobio Durango'tik bost kilometrora dago, mendiarterako bidean. Tabernaria Salamanca'koa.

Goyuria'n gora joan be bai. Baserri etxe dotoreak. Txalotzeko da gaur baserritarrak euren etxeak dotoretzen daren alegiña. Ederra bat, taberna biurtuta. Aurrean ikuspegi zoragarria. Durango ta inguruak ikusteko ederrenetarikuena. Eta zorionak; an, oraindik, euskeraz erantzun eta serbiduten dabe.

Ogetalau milla bizilagun inguru daukaz gaur Durango'k. Arin geitzeko itxuran. Bear ba da ariñegi.

XV gizaldien berbaleku asko sortu eban Durango'k.

Gaur lez, orduan be, testigantza zintzoago bat emon naiean ba egozan urduriak siniskeretan. Gizaldi bat aurreragotik begardoen siniskerak indar apur bat euki ebanaren zurrumurrua ba egoan. Baiña Euskalerrria beretarra zan, gaitza. Ala ta be Durango'n agertu zan praille min-laban eta berbaldun txukun- bat, Alonso Mela. Eta bere inguruan talde bat sortzen asi zan Durango eta auzoetan.

Gaitz zan, ala ta be, garai aretan, jaunen eta agintarien begiko ez ziran ideei indar emotea. Origaitik Mela ori iges egitera beartu eben, obeto esanda, eskutatu bear izan eban, bere bizia zainduko ba eban. Orrela, bertan bera galdu zan bere sinistea.

Sorginkeria be, Bizkaia'n, Durango aldetik zabaldu zan. Jakiña da Anboto'ko zuloetan eukela toki egokia sorgiñak eta sorginkeriak. Gregorio Mujika'k diñoanez, 1.500 urtearen inguruan asi ziran bizkaitarrak sorginkeriekaz konturatzen. Aramayona, Otxandiano eta Durango'tik zear zabaldu ei ziran sorginkeriak.

Durango'n luzaro sinistuten eben Mari'gan. Eta oraindik be. Aberats jantzitako anderea dala diño. Nai dozu jakin zelako egualdia egingo daben datorren udan? Ez da gaitz. Gaitza dana da Anbotoko damia bere etxean egon eta zan edo ez Santa Barbara egunean jakitea. Bestela... Egun orretan bere zuloan egona ba da, urrengo uda bigun eta ugaria. Mugarra aldera joanda ibilli ba da bildur izan urrengo urteko ekaitzekin.

Urteak dira. Ondarroa'n eta segurutik beste itxas errietan be bai, telegrama bat artzen zan Durango'tik, Arrinda batek izenpetuta, arrantzaliei kontuz ibilteko adierazoten, ekaitza edo mendebala edo galerrenen bat etorrela jakin eraziz. Maite izaten eben arrantzaliak durangar orren telegrama ori. Ba ete dago baserritarrik, Santa Barbara egunean esango dabenik, egun orretan Mari bere etxean egon ete dan edo ez? Urrengo udarako pronostiku izango litzake.

Eta Mikeldi?

Mamu bat? Jainko bat?

Jaungoiko andiaren siniskeretatik aparte, sinistuten ete eben euskaldunak begiekin ikusten diran izakien bidez, eurok be anditu eta gizenduz, jainkotzat artzera beartu arteraño?

Or dago Durango'n, berreun arru inguruko arrian, Mikeldi entzutetsua.

Gaur gaurkoz, euskal sinisteen eskutuko bat.

Ezin Durango'n ibili Tabira ikusi barik. Andeka'k egiña? Kantabriako kondeen senitarteko zan Andeka ori. Bizkaiko lenengo jauna. Orrela dala, eta Andeka onen denpora ezagututa, Bizkaia'n zabaldutako lenengo eleiza izango litzake Tabira'ko au.

Tabira onek izena be emon eutsan Durango'ri. Urazango edo Ur-ango'ko Tabira.

Durango'ko beste toki berezi bat: eleiz atadia, eleizpea. Lenako denporetan kanposantu izan zan toki ori. Aterpe ederra. 175 oin luze eta 45 zabal.

Durango'k beretzakotuta dauka Yurreta. Eleiz-ate zarra. 890 urtean Naparroatik etorrita moroak sartu ei ziran bertan, Orobio'n, Uliamet euren buruzagiaren agintaritzapean. Baiña euskaldunak igarri eta antxe il ei zituezan geienak. Sasoi baten errez bereizten ziran Durango eta Yurreta. Baiña bide barria egin ezkerro, naastuta gelditzen ziran. Oraindik baserri kutsua zainduten dau Yurreta'k bere auzoetan. Bederatzi ba dira beintzat ermita ta guzti: Amaza, Arandia, Bakijano, Garaizar, Gaztañatza, Goikuria, Orobio, Orosketa eta Uribe. Ermita jatorrak. Santa Maiñe, Santi Mamiñe eta abar.

Norbaitek esango eban: San Antonio'rik aitatu be ez dau egin. Egia. Baiña San Antonio Abadiño da, eta ez Durango. San Antonio'ra nekez eltzen da bat. Kanta zaarrarena: Mañari'tik asi eta Urkiolaraiño ez da ikusten besterik aldapea baiño.

Gaur laga daigun Durango. Ez bero bero esan barik:

Agur Durango!

Euskaldun noiz arte iraungo?



EA

Itxasoetan ezagunak dira eatarrak.
Ondarru'n arrantzaliak,
Elantxobe'n maordomuak,
Lekeitio eta Ea'n kapitanak...

Erri bakoitzak bere tajua eukiten dau. Bere jokabidea.

Bein eatar «mariñu» bat txinatar bategaz ezkondu zan eta Rotterdam'en bizi. Milla asko aurtzaka ibilli bear orretarako. Baiña azken «singladura» Ea'n amaituta gero, goizean goiz, tximinietatik keiak urteten ikusi orduko, kantuz ibilten ei zan kalez kale, bertso-lari ta eskale, borondate zabalez:

Kafe ur apurtxu bat
nok emon baneko,
amabi agur Mari
errezako nekoz.

Oraindik itxastarrak neke ta penazko bizia eroen denporak ziran; asegurantzak aidean, mendebaletan; dolarrak eta librak itxasoen bestaldetan.

Oraindik kapitanesak, gizonaren urrengo, etxeko lustrea mai-tien izaten eben denporak ziran:

Gerardo'neko salan
lustrie labana,
txirrist ein de jausi de
Anizeta laztana...

«Ea, erri estu ta luzea» esaten dakie. Obeto esanda, bertakoen fonetikaz: «le, erri estu ta luzie».

Estu, mendi artean lotu dalako.

Luze, itxasoen luzerak eurentzat eskuturik ez dabelako.
Nire gurasoetakoen batek llo llo'n laga zitun azurrak; lagun batenak Honolulu'n.

Eta ori zer?

Ba al dago porturik iatarrak ikutu bakorik?

Sasoi bateko denporak!

Gaurko itxasbideak, «derroteroak», errezagoak dira.

Gaur «puente»ko zeregiñak Liverpool'en egin leiz goizean eta illuntzean «Txangurru'n» musean jokatu.

Itxasoa eta boltsa alkartzen dabez gizonak. Eta gizon ez diranak. Brixkan eta julepean jokatzen daben andrak be ba dakiez lberdueroak eta Telefonikak edo Bankoak zelan dabilten eta egun batetik bestera ze aurreratu edo atzeratu daben.

Ez aitatu Crédito de la Unión Minera'rik. Min artutako asko gelditu ziran.

Baiña eleizpean, (Ea'n eleizpetan esan bear da) batzen diran «erretiratuak» boltsako orritik zabaldu eta irakurten ditue eguneroak, periodikuak, irakurle onak, liburu barria artzean, «indice»tik zabaldu eta asten diran lez.

IMOizkoa da Ea ?

Ixil-mixillean, «in aeternun fundasti Ea» botaten dabe batzuk. Baña ez esan ori Natxitu eta Ereñotarrei.

Natxitu, XVgarren gizaldian banandu zan Ibarrangelutik. Eleiza bi eukazan bere lurretan. Bertakoa, Natxitu gain gañean dagoana, eta orduan «auzo» lez eukan Ea'ko San Juan'ena berari alkartua zan bere menpeko lez eukan.

Ereño, sasoi berean, gaur baño zabalago zan. Ea'n dagon Jesus'ko eleiza, Ereño'ren lurretan egoan.

Eta eleiz biok, San Juan eta Santa Mari, eun metroren barruan dagoz, begi bakarreko zubi baten egal banatan.

Parroki bi dira abade batentzat.

Biak siniste bateko eleizak. Baña Ea'n batzuk sanjundarrak dira eta besteak jesustarrak.

Sasoi baten, Ea'n, sei abade be egoten ziran. Eta jakiña, amarrenak eta azikiñak buruauste eta museko jokaldiak.

«Abade txikia»ren sermoiak oraindik gogoratzen dabez zarrak. «Kristiñauak...eneuke esan bear...baiña esan bear dot..., bai, eneuke aitatu bear, baiña...ez, ezin nei esan barik laga... Ez dot nai..., baiña...

-Esaik ba, esan bein, ba dakigu zer dan misterio ori-ta...» urte ten ei eutsan beragaz minutu batzuk lentxuago jokoan ibilliriko itxastar batek.

Jakiña, berak esan nai ez baiña esan nai ebana... Barixaku Santuz bere lagunak gertuten eben bildots jana izaten zan.

Iru akolitu eta abade bat ikusi dodaz egunotan elizan. Atadian, kanpai sokatik tengadaka, emakume bat, sakristania. Gaurko modara, praka luziekaz. Antxiñako serora eta beatak joan ziran

euren oyal eta mantilla baltzekaz.

Meza amaitueran, erresponsuetarako be bera joan da, aldare aurrean, isopo eta intsétsu potoa abadeari eskintzen.

Ea'k konzíliotako 'aurrerapideari ez dautso atzerarik. Beti brankaz.

Etxeetatik portura

Errekatxoaren albo banatan dago erri zarra.

Begi bateko zubi politak, batetik bestera. Artearentzat gai politak.

«Saneamiento» barria egin zan oraintsu. Baiña... Erri lauegi ei da. Orra, «kalma txitxa» erri barruan.

Errekan bera, ondartzara eltzean, begiak topo egiten dabe. Itxasoagaz? Ez. Pelota tokiko ormaekaz.

Itxasoaren ederra eten da galdu egiten da bat batean orma orreitan.

Asarreak egon ei ziran pelota toki ori egin zanean. Erri txikietako asarreak itsuegi izaten dira.

«Portu txiki», «portu-solo» eta ba dira portu izenak. Baña Ea'ko portua ez da ez portu ta ez kai. Ondar abi, bai; ondar toki. Itxasoaren gora berak ondarrez bete eben molla bitartea. Eta orrelaxe dago.

Ez ete dabe merezi eatarrak noiz beinka draga baten ekiñaldi bat?

Mendi barrenean ba duaz etxe barriak. Eratsuak, ederrak, aizetsuak, dotoreak geienak. Mendi arteari be tarte egokia billatzen yako teknikaz eta gogoz.

Etxe ederrak: «Loradi». Eatarren ikastola. Bere alboan «Lagun etxea».

Kapitan batek, erri maitasunez, erritarren mesedean laga eban bere ondasunak. «Lagun etxea» zabaldu zan. Lenengotan bertarako beartsurik ezin billatuta ibilli ziran. Eta gitxitan gertatu leikena: Lenengo sartu eben «beartsua», bertatik urten bearrez aurkitu zan, Ameriketako pensíño bat artzen asi zalako.

Ea'k erri txikien goraberak daukaz.

Ez dauka zinerik, ez jaitokirik, ez era bateko edo besteko «super»ik.

Bake, ezaupide, anai-arte, familiko bizitzarako egiña da.

Erri txikien akatsak ba daukaz; bat: taberna geiegi. Alkar eza gutzen dan lez, batera joan ezkerro, bestean be sartu bear, eta albokoan, eta urrengoan, eta erdikoan, eta kantoikoan, egalekoan, iparraldekoan...

Iparretik Egoaldera, Sortaldetik Sarkaldera «petroleru» andi baten sartu leikez Ea'ko kaleak. Baña petroleru baten baño ia txurru geiago billatu leiz bertan. Piloto batentzat naiku burukomin.

Ea'ko arrantzaliak...kantuetan amaitu ziran.

Arrain kala ona ei dago Ea aurrean. Nun nai irakurten da ori. Antxiñako Bermeotarren arrantza legeetan be, Ea'ko kaletara joaten ziran arrantzalienezako berezitasun batzuk ba egozan. Ondarutarrak be ba dakie kantatzen:

Joakin Pittun semiak
Ea'n dabiz iru,
langostatan gaztenak
onena urten clu.

Delmas'ek, «Biografía Universal de Claros Varones de Vizcaya» liburuan eatar baten izena gogoratzen dau: Gaspar Peña eta Galdotza. Jakintsua. Carlos V'en denporetan Sevilla'n egoala, «Historia General de la Gran Cantabria» idatzi ei eban. Labayru'k gogora ekarten dau izen ori, Iturriza'k be aitatzen dabela-ta. Baña emengo libertadeak goratzen egiña ei zan liburu ori, argitaratu barik gelditu ei zan.

Unetan, zabalduetako kardabera bat billatzen gendunean, ebaki, eskuan artu eta alkarri «praille edo monja» urtengo ete eban esanez, putz egiten geuntsan indartsu. Gardabera ori bere orri zuri guztiak galduta kaskamotz gelditzen ba zan, «praille» esaten gendun; orririk galdu ezik «monja». Eta erdizka geratzen ba zan, «ez praille ta ez monja».

Urte bete igaro dira asteroko nire erriz errizko ibillera asi nabela. Ea'n nitzan egun baten zirikalari sentidu nitzan eta nire lengoa bialdu neban: «le, erri estu ta luzie». Niri be adarra jo eusten eatarrak izenburu origaitik.

Barriri, urtearen buruan, bide kurutzean nago. Jarraitu? Bai? Ez? Erri asko iku sita daukadaz eta oraindik agertu barik. Uriburuak, kapitalak, ez dauste tenik egi ten. Errez ezagutzen dira. Ez diñot eureri be ikuturik egin bear ez danik, baiña eure na sarriagotan agertzen da edonun, batez be euretako artxiboen arduradunen bitar tez.

Erri txikiak maiteago dodaz. Ara barriri Ea aurrean, Bedaru'tik bera, Beaskoa, Bix, ingurutatik zear.

Asiko ete gara putzka?

Sartu gaitezen gaur Ea'n. Errez sartzen da emen, edonundik be, aldatuz beran. Urtetea neketsuago.

Bedaru'ko toki alai eta politik gogoia biztu egiten dautsa basteri. Aurrean ikusten dan Natxitu'k lez. Zenbaten baliatuko ete leukiez errialde batzuetan aukera onetako tokiak? Ainbeste kezka sortu eban Ispaster inguruko Indartegi barria egin ba zan, Bedaru bere gain gaiñean geratuko zan, bere zelatari, bere talai lez.

Gerokoak lagata, barrua poztuteko, Bedaru'ko sakristau izan zan Zarakondegi umoretsua gogoratu dagigun. Ez ei zan agertu, bizi zan artea, berak aiña eleizako nai kaleko kanturik ekian abaderik. Danetakuak. Fedeko, amoriozko eta zitalkerizkoak. Beragandik ikasita gelditu zan aitatuko dogun au. Ain zuzen be Bizkai'ko euskera beteen erabilten dan inguru oneitan, gipuzkerazkoa da. Zatika kantatzen da, barriz-esate edo errepetisiño bakoitzean gauza bat geituaz. Guk dana batera ipiñiko dogu, esan nai osoa erakutsiz:

Nik ba ditut galtzerdiak
emazte gaiak emanak,
txamarrak be sakeldunak,
gerriko gorri illunak,
galtzerdiak txilindronak,
ebillak ere zidar fiñak
ta zapatetako kordonak
emazte gaiak emanak.

122 baserri etxe batzen dira danetara Ea'n. Gaur, batzuk, utsik. Natxitu'renak 68 dira: Elexaldean 13, Aldebaster'en 15, Angerutxu'n 25 eta Olagorta'n 15.

Bedaru'koak 42: Elexalde'n 4, Mendiola'n 15, Urtza'n 16 eta Olabe'n 7.

Ea bertakoak 12: Allona'n 8 eta banakatuak 4.

Ea'k, auzoak sartuta, 1.009 bizilagun eukazan 1970 urtearen azkenean. 1973'n, sasoi bardiñean, 1023, 14 geiago.

1.330.000 pesetako diru gora-bera, erriko presupuestoa, aurtengo.1 973 urteari dagokiona.

Gaurko eran batuta, au da Natxitu eta Bedaru'gaz alkartu eta erri bat osotzeko legea 1.883 urteko Mayatza'ren 28'n agertu zan. Lenengo batzarra Garilla'ko 20'n egin zan bertan. Oraindik eun urte ez.

Lenengo irakaskintzako 6 eskola daukaz. Natxitu'n bi, Bedaru'n eta Ea bertan iru.

Lanerako industri bakarra: papelgintzakua. 82 langille. Galdu zan.

Gaur galduta, baiña errota bi egon ziran eta burdiñola (ferreri) bat be bai.

Kabotajerako itxas-ontzi txikiak be egiten ei ziran orain be-reun urte inguru. Orain eun urte eskabetxea be egiten zan, diñoenez, atun, besigu, eta lebatz asko arrantzaten zan ingurutan.

Eleiz legez lau parrokitan banaduta dago.

Bedaru'n bat, San Pedro'ren omenez. 1.586 arte Lekeitio'ko parrokiaren mendeko. 170 lagun sartzen dira gaur eleizalde onetan, 46 etxe. 1973 urtean iru jaiotza eta iru eriotza gertatu ziran. Ezkontzarik ez. 1631 urtean asita dagoz bertako liburuak. Lenengo jaiotza Marina Altarraga'rena agertzen da.

Natxitu'n be bat, Andra Mari Poztasunekoari eskiñia. 390 eleiztar, 71 etxe. 1438 urterarte Ibarrangelu'koaren auzoko. Igaz 5 jaiotza, eriotza bat eta ezkontza bi gertatu ziran. Parroki onetan bataiotako liburuak 1653 urtean dauke asiera. Lenengoa, Jorrala'ren 18'an, Diego Zuloaga Monasterio'rena irakurten dá.

Ea'n, uri buruan, parroki bi. San Joan'en 280 lagun, 81 etxe, 191 bizileku edo pisu. Igaz jaiotza bi eta zortzi eriotza. Ezkontzarik ez. Emengo liburuak 1691'an asten dira. Lenengo jaiotza Miguel Nachitube Echevarria.

Jesus'ko parrokian, 251 lagun, 68 etxe eta 203 bizileku. 6 jaiotza, 11 eriotza eta ezkontza bi, igaz. Emen be, 1691'tik datoz liburuak eta lenengoz agertzen dan jaiotza Madalena Verreaga Garro'rena da.

Bizileku asko, neguan utsik.

Noiztik ete dira itxastar eatarrak?

Cristobal Colon'ek Ameriketara egin eban lenengo osteran, Lekeitio inguruko gizon batzuk ezagutzen dira. Ba dira diñoenak eurok berotu ebela Juan de la Cosa ospatsua ara joatera.

Isparter'ko bat agertzen da euren artean : Domingo Atxia, upel egintzalea, tonelerua. Au «Navidad» fuertean geratu zan lenengo osteran. Beragaz batera mare-erdiko edo grumete bat. Eatarra au: Martin Urtubia. Bizi-sari edo pensiuua artzeko denporan, bere ama Maria Urtubia zan diru ori artzen ebana. Pensiuo orreik lortuteko Likpna tar bat ibilli zan alegin betean, 1513 urtean.

Gazte onen kontramaixu lez Txantxu bat ezagutzen da. Ez dago garbi lekeitiarra edo debarra zan. Emaztea debarra. Itxasgizon jatorra zala esaten dabe paperak. Onen eskabidez geratu ziran an lenengo osteran euskaldun batzuk, bigarren osterarako lekuak zaintzeko ardura eta alegiñez. Eatar Urtubia lez, betiko geratu, zoritxarrez.

1582 urtean, Bizkai'ko Batzar Nagusiak erabagita, itxasertzeko erriak zainduteko bertako gizonak izentatu bear ziranean, zortzi agertu ziran Ea'tik ebiltzanen artean.

1639 urtean lau galeoi armatu ziran Bizkaia'n Galizi'ko errialdearen kontura. Euskaldun askok billatu nai izan eben euretan euren bizi-modua. Ea'tik, artilleru lez, Juan Bias (Beasko?) agertzen da. bere fitxak diño, begi malkotsuak eukazala.

Armada orretan, besie eatar bat be ikusten da: Martin Onzue-

ta. Bere Ea'n sei txalupa txiki eta 300 kintaleko bat. Ala ta be 1741'n gerrako adiñean zenbat mariñeru egongo ete ziran itaundu zanean, eatarrak esan eben ez eukela olakorik.

1757'n, Armadarako mariñeru bi eta grumete bi eroan ebezan Natxitu'tik. Iru urte geroago, 1760'n, itxasertzeko gizonen kontua artu zanean, Bedaru'ko sei eta Ea'ko 17 mariñeru eta 8 grumete agertu ziran.

Bilbo'ko Konsuladuko liburuak irakurtean, 1 765-1 770 urtean Ea'ko portutik itxasontzi oneik agertzen dira: «N.S. Consolacion», 17 toneladakoa. Santi Agirre jaubea. Donosti'tik Santander'era ibiltzen zan.

«N. S. Begoña», 8 tn. Jaubea: Mikel Kortazar.

«San Miguel», 12 tn. Jaubea: Andres Galdiz.

«San Benito», 34 tn. Patxi Ibiñaga, jaubea. Bayona-Ribadeo ostera egiten.

«N. S. Begoña», 28 tn. Batis Ibiñaga, jaubea. Burdeos-Santander osteran.

«San Juan Bautista», 20 tn. Jose Urtubia'rena. Ferrol'erako osteretan.

«San Juan y San Jose», 40 tn. Jose Erdaide, jaubea. Bayona-ra'ko osteretan.

Orrez gañera Arteaga'ko beste lau ontzi Ea'ko portuko lez ibiltzen ziran.

1 809-1 810 urtetan, 1 1 ontzi ezagutzen dira Ea'n. 30 tonelako bat, 20'ko bi, 15'ko bat, 10'ko bi, 8'ko bat, iru 6'ko eta 5'ko bat. Jaubeen abizenak: Jose Badiola; Manu Ibiñaga; Manu Gabikagoxeaskoa; Bixente Etxezabal eta Anton Endeiza; Anton Kortazar eta Manuel Erkiaga; Martin Goitisolu, Santi Zarakondegi eta Patxi Ibiñaga, eta azkenez, bost toneladakoarena, Miel Kortazar.

Trafalgar'eko itxas burruka ospatsuan, 1 805 urtean, eatar bat be agertzen da illen artean: Domingo Intxausti.

Gaur eatarrak zapaldu ez daben itxasorik ez dago. Ez arrantzan. Orretan ez dira zale. Baiña bai itxasontzi andi eta baliotsuan gidari, eroantzalle edo serbitsari. Onetan Ea'k izan andi eta garbia dauka.


Gizaldien luzean, Bizkai'ko itxasertzean sarri ezagutzen ziran burrukak. Ingelesak batzutan, frantzetarrak bestetan eta bertakoak be bai iñoiz. Origaitik erri guztietan kañoiak egoten ziran itxas aurreko tarteren baten.

Zein tokitan egoten ete zan iatarren armamentua?

1779 urtean zazpiko kañoi bi egozan emen. Biak ezetarako gauza ez ziranak. Itxas ontzietako kureñak eukezan. Eta... elizako koroan gordeta egozan, nasterik ba zan garbituta eukiteko agindua artu zanean. Elizaren izenik ez diñoe paperak.

Ana Calera adiskideak, bere arduren garrez «Cocina Vasca» liburua egin ebanean, gure ingurutako berezitasunak aizetu izan zitun. Orrela, Bizkai'ko janari famadunak aitatutean, Nabarniz'ko basa-arbi edo naboak, Kanala'ko txirlak, Arrankudiaga'ko txoritxuak, Ugarte edo Isla'ko angulak, Elantxobe'ko txibi eta txangurruak, Armintza'ko langostak, otarrañak, Lekeitio'ko kabrak, Bermeo'ko lebatz eta bonbixak, Orduña'ko zizak, Ondarroa'ko lupiñak, Bakio eta Balmaseda'ko txakoliña, Durango eta Barinaga'ko eskallu eta sarbo txikiak, Zalla eta Gueñes'ko piperrak, Getxo'ko mutxilloiak, Santurtze'ko sardiñak, Gernika eta Berriz'ko ortuariak aukeratuta daukaz. Azkenerako laga dot Ea. Emendik zer? Ea'ko lez «begiandi» (begi andidun tximiñoiak) eta itxaskabrak (cabracho colorado) izentatuta dagoz.

Aspaldion iatarrak ametsetan ikusiko zituen arraiñok, eurak artuta beintzat. Kala ederrak ba dira ingurutan. Zenbat arrantzale eta nun, gaur?





ELANTXOBE

Elantxobe milla pobre. Esakera da.

Ezin ukatu arrantzaleak beti be pobre izan ziranik eta ortik etorri leikio, bear ba da, deitura ori. Bizi modu garratza, penaza, mintsua, errukarria erabilten eben, bai euren zeregiñez, eta bai itxasoaren goraberetatik etorkiezan zoritxarrez be.

Gaurko arrantzaleak asko irabazi dabe teknikan eta ziurtasunean, bizitzen ondasunean.

Gaurko txalupak eta oraintsu-oraintsuko potin, treñeru, txalopandi eta batelak ez ziran bardin gizonaren mesedean, ez ogibiderako eta ez arriskutarako be.

Dana dala, esakera or dago.

Baiña ori entzunda, elantxobetarrak laster dakie erantzuten: Lotsagarri al da pobre izatie? Pobrie, zeruko lorie. Edo ta beste au: gu pobre ba gara, gabon zarretan zuenian aiña txanpan artu leike gurean.

Esakera orrek, Elantxobe milla pobrek, ba dauka beste buztan bat be. Elantxobe, milla pobre eta beste ainbeste sorgin sare.

Zegaitik ete da au?

Oneri be elantxobetarrak erantzuten dakie, sorginkeri eta kurtzallu denporetako antzerako siniskerak gogoratzen ba ditue be, eurak ez daukela besteak baiño geiagorik, edo ta gitxiago daukela pentsaten dabenak urten dagiela Ogoño gaiñera, an iñoren bildur eta lotsa barik gauzak argitan ipintera.

Onetara jo dogun ezkeru, ipuintxo bat gogoratu dagigun. Barrantiaran'ek bere liburuetan Elantxobe'ko Luciana Zabala'k 1920 urtean kontautako lez agertzen dau. Ala diño:

Ogoño'ko atxan dago Leixa esaten dautsen zulo andi bat. Zulo orretan bixiten ziran lamiñakuek.

Bein lamiñaku bat sartu zan Elantxobe'ko leize baten, etxekuek kanpotik ziriela da umie bakarrik kuman. Para zan umien auriari oneri eraiten.

Etxekuek etorri ziranien, da ikusi lamiñakue umiagaz, ikaratu zirien, ta yo eben lamiñakue etzetik kanpora atarateko. Bakarrik egon zan lez, asi zan lagunei garraxika. Oneik entzun ebezan aren garraxiak ta erantzun eutsen:

-Nok ein dona, nok ein dona?

-Niri miri nau.

-Euk ein bona eu konpondu adi, erantzun eutsen eta alaxe laga.

Orra, len esan dogunera jota, elantxobetarrak aurkako esakera a gogoratzen dariat, elantxobetarrak ba dakie esaten: Milla sorgin sare Elantxobe'n? Esan dabenak lagunak batu naiko dituz bakarrik agertu ez dedin eta agaitik izango da. Ez gu gareanagaitik.

Elantxobera eldu zan bein bilbotar jatun bat. Goitik begira Ogoño'ko arriekaz ikaratu zan, eta an gauza onik ezin egon eikiala ta kanpora urten naiaz ezin egonda ebillan.

-Zelan bizi leike emen?

-Guk be bardin esaten dogu or barruko errietan zelan bizi leitek. Bakoitzak berea dauka. Begiratu aurrera. Or dago gure lurra. Gaur urdin eta biar baltz, gaur apar zuriz eta biar orruka. Orra itxasoa, ori da gure lurra.

Jaten gelditzeko eskatu eutsen. Ez gogo onez, baiña eguerdiko egitearren gelditu zan.

Ano txibi eta txanguruak lakorik!

Elantxobetar lagunak igarri eutsen pozik ebillala. Eta zirikatatu eta esan be bai: Solorik ez gendulakoan zengozen? Jatekorik nundik atarako gendun bildurrez? Orrek zer dira ba, aurrean ikusten dozun gure soloko frutuak ezik?

Erri guztiak daukez euren kantatxuak eta euren berezitasunak. Kantuetan, bertsoetan edo jairen bateko oroigarri eta gomutakietan.

Elantxobe'n, Urte barri, txarri belarri,
daukanak eztaukanari emon gabonkari.

Nik eztaukat eta zeuk emon neuri,
ezpanazu emoten beti kaka larri.

Atsoak dauko illetea sarri,
agureak dauko ardaua pozgarri.

Elantxobe dala ta I. Solluberen agerpena irakurriko dot euskeratuta:

Ea'ko kala igaro eta Aizketatxu'tik zear Laparria eta Natxitu'ko ondartzatza igaro, eta Elantxobe'ra sartzen gara, Ogoño'ren azpian bere portua babestuta, gordeta daukala.

Baserri batzuek daukezan landutako lurretatik zear be, Natxitu igaro ta, Elantxobe'n sartzen da. Oi-ez lako erria. Etxeak, dotoretasunez beterik, alkarren gainean, sinistu eziñiko eran, Berbiz egala goratuten dabe, Ogoñoren arritza andiaren oiñetan. Gainean Ogoño, bere txapela erdibituta, sinistu ezin leiken lez erdibituta, inguruen jaube da.

Ogoño mendiaren musturraren eta piñuz betetako mendi baten erdian dago portua, kaia. Goietaatik begiratuta, bide nausia amaitzen dan lekutik begiratuta, pitxi zoragarri bat dirudi portu onek, bere dozena bat itxasontzi eta inguruetan, kai mollaetan batetik bestera dabilten gizonekin.

Goi aldean dagozan etxerik geienak, Iparrera begira dagozanak, miradore luze eta kristalez beteak daukez.

Ea'ren antzerako sortzea dauka erri onek be. Ibarrangelu'n bizi ziranak sortu eben asko kostatako bere kaia, itxas bideetako ametsetan.

Euskal itxasertzean itxasontziak lotzeko billatzen dan tokirik egokienetako bat, aizeetatik babestuta, Ogoño eta Ibiñaga artean geratzen da, Elantxobe inguruan.

Elantxobe Ibarrola artisteak ikusita.

Elantxobe eta bere portua, bere kaia, sorkaldeko egun sentiari begira dagoz. Portu bertatik, Ogoño'ren egalean, mendiz gora doaz bertako etxeak. Goian, kilometro batera, Ibarrangelu dago. Ogoño goratzen dua oraindik be bere eskumatara. Ibarrangelu baserritarren erria da; Elantxobe arrantzialiena.

Euskeraz berba egiten dabe erri biak, baiña pentsakera ez bardiñez, esakera eta agerpide ez bardiñez.

Ekaitzak eta tximistak baltzitu egiten dabe Ogoño'ren burua. Odeien artetik goratzen da sarri eta laiñoekaz batu.

Ogoño'k aizeetatik babestuten dauz Elantxobe'ko etxeak; gizonen artean amatasunak egiten daben eskintza bat lez.

Elantxobe'ko kaleak danak duaz portura. Etxeak danak begiratzen dabe portura. Eta leio eta miradoretatik itxas zabalaren kezka biziten dira bertakoak, eta itxasoari portuak lotu dautsan itxas zatiaren bizitzako arduren kezka.

Kaleak etxe barrutatik igaroten dira, pasadisuak eratuaz, eta onein ormetan, igarri bari, atea, leioak eta eskillarak billatzen dira.

Eskillarak gora edo bera duaz, atetatik sartuta.

Kaleen zati asko, eskillara dira. Kaleak gizonen ibillia bakarrik lagaten dabe, edo ta tatarrez erabilten diran narren bidea.

Elantxobe, bere Ogoño bardingabeagaz, euskal ikuspegiko to-kirik geien pintatua izatea gertatu leike.

Goazen goitik bera.

Eleiza pobrea. Parkatu, ez da zirikada. Gaurko giroa be ori da.

Lenengo arria 1 799'ko Bagilla'ren 1 Tan ipiñi zan.

Luzaro ibilli ziran elantxobetarrak parroki bat egin nairik. Len Ibarrangelu'ko San Andres parrokira joan bear izaten eben. Bertara lotuta bizi ziran sinismenaren bear-izanetan.

Arrantzalien kofradiak egin eban eleiza au.

Itxas ertzean, arrantzale askoren bigiramen ona. Orio eta Mu-triku'n be ba dira santu orren maitaleak. Erri orreitan ba dagoz be-rari eskiñitako ermitak.

Elantxobetarrak eleiz nagusia, parrokia eskiñi eutsen berari. Eta Kofradiari be bere izena emon.

Lenengo arria praille karmeldar batek bedeinkatu eban: Frai Ignacio Ibarrara'n zan bera. Iru urte iraun eben bertako biarrak. Eta azkenean be 1 803'ko Gabonilla'ren 6'an, eleizaren bedeinka-siñoia egin eban Busturi'ko errialdeko bikario nausi zan Camilo Sebastian Goitia jaunak.

93 oin luze eta 45 zabal.

84 illobi edo sepultura ipini ziran bertan.

Kanpai bi, eta Durango'ko Prada'nean egindako erlojua to-rraan.

Sasoï aretan 52 etxe egozan parroki onetarako. 1 3 arrantza-rako txalupa.

Jakingarri geiago: Parroki barria egin zaneke liburuetan, le-nengo ezkontza bat idatzi zan. Jose Manuel Beitia eta Dominga Ibarra, 1803ko Gabonilla'ren 19'an. Geroago, bataio bat, 1804 urteko Urtarrilla'ren 5'an: Manuel Ramon Lekona izan zan parroki barri onetan lenengoz bataiatu zana. Eta zortzi egun geroago, Ur-tarrilla'ren 13'an, parroki barri onetako lenengo obiratzea egin zan: Maria Antonia Zobaran izan zan lenengo enterratu zana.

Ibarrangelutarrak izan ei ziran lenengo elantxobetarrak. Iba-rangelu'ko baserritarrak, arrantzale egiñak.

Dana dala, Erdi Aroan, elantxobetar arrantzalien gora-berak billatzen dira orduko paperetan.

Ba dirudi lenengo erri legezko agerpena 1524 urtean dauka-la. Baiña, ordurako, istorietan irakurten dan lez, erri eta portua ezagunak ziran.

Euskal arrantzalien arrantza berezia izaten zan baletan, balle-
natan ibiltea.

1 547 urtean auzi bat, pleitu bat euki eban bermiotarrekaz.

Geroago, 1612 urtean be, Lekeitio'ko Beltran Amezketa'gaz
asarre ezagutzen dira, epai tokietan, juzgadueta, arrantsu ori za-
la-ta.

«Martin Ruiz del Puerto, vecino de la Puebla de Ea y anteiglesia
de Ibarrangelua, armador de la pesca de ballenas del puerto
de Elantxobe»... gizon jatorra zan.

Ikusteko, erririk politenetakua da. Ibilteko, bularrak zabaltze-
ko, berebizikoa. Eta eurak onela esaten dabe:

Gorputza lirain zaintzeko
portutik igo Berbikiz,
bein bakar baiño obeto
bi, iru edo lau aldiz.

Len esan dogun lez, Elantxobe'k ez dauka lurrik. Bere kaleak
estu dira. Eta etxeak alkarren gain.

Aretxabaleta'tar Patxi'k erderazko bertsoetan esaten eban:
Baten tellatua, bestearen zimentua.

Ala dirudie eta ala dira.
Meriturik ezin ukatu lengo zarrei.
Begirakada baten Monako txiki dirudi.

Orain 60 urte, 131 arrantzale egozan Kofradian bazkide-tuta.
5 bapore, 13 motor eta 57 txalupa txiki. Danetara be, urte orre-
tan. Urte orretan, 1 934'n, 1 76.1 54 kilo arrain saldu ziran daneta-
ra Elantxobe'ko kofradian. Dirutan 103.676 peseta. Arraiñik geie-
na antxoa izan zan, 83.980 kilo. Gitxiena, lotza: 6 kilo bakarrik.
Antxoak, batez beste, 0,38 egin eban kiloko. Lotza'k barriz, peseta
bi kiloko.

Konserba fabrikarik ez egoan. Gazituenak, salazoikoak bai,
iru.

Urte orretan itxasoratzerik geien egiten eban erria, itxasora
geien joaten ziran erria, egunetan, Getaria zan. Urteko 290 egun.
Gero Bermeo eta Donosti, 260 urteerekaz. Eta ondoren, Elantxo-
be, Lekeitio, Mutriku eta Ondarru 225 egunegaz.

Etixerik geienak, mariñelenak, alkilerrekuak ziran. Urteko, ba-
tez beste, 90 peseta.

Atzerago jo bear dogu portua noiz egin zan jakiteko. Ibarran-
gelutarrak bere sasoiari asi ba ziran be, portu eta mollak, era ba-
tean edo bestean, 1 783 urtean itxuratu ziran.

Urte batzuk lenágo Bilbo'ko Sorkundeko monjak, concepcio-

nistak, emon eutsen aurrerapen bat, diru prestamu bat, Elantxobe'ri, portua egin al izateko.

1 798 urtean gertaera bat jazo zan.

Ingeles korsarioak ebiltzan Bizkaï'ko itxasoan. Erri guztietan egozan sasoi aretan kañoiak. Elantxobe'n be bai.

Urte aretako Bagilla'ren 4'an, arratsaldeko lauretan, ingeles korsarioen barku bi agertu ziran Elantxobe'n sartu nairik. Gogor egin eutsen emendik, bertan egozan kañoiak su egiñez. Barkutik be erantzun eben. Eta burrukaldi orretan elantxobetar batek bere eskua galdu eban.

Origaitik, ille bi geroago, Gernika'ko Batzar nagusiak, bertan eskua galdu eban orreri pensioia ipintea erabagi eban: Osatzen iñarduan artean sei errial eguneko, eta gero, bizi zan artean, lau errial. Ba dakigu mutil onen izena: Domingo Muniategi.

Eta gerratetako illak gogoratzean, esan daigun, Trafalgar'ko gudaketan, illen artean, elantxobetar bat be agertzen zala: Francisco Meaurio. Alaba bakarra laga eban umezurtz.


Elantxobe'n, orain 1 70 urte, 40 toneladako txalupa bi egozan: San Juan, Juan Bta. Etxebarria'rena eta Nuestra Sra. de Guadalupe, Diego Jauregi'rena.

30 toneladako beste bi: Nuestra Sra. del Carmen, Manu Renteria'rena eta Nuestra Señora, Sebastian Iturrioz'ena, Ogei toneladako beste bi: Jose Zarragoitia'ren Nuestra Sra. del Carmen eta Pedro Goikoetxea'ren San Buenaventura. 16ko bat, San Pedro, Juan Agirre'rena; Amabiko bat, Antonio Ibarra'ren San Antonio de Padua; Amarreko bi, Manuel Gaztañaga'ren «Atrevido» eta Francisco Ibarra'ren «Nuestra Sra. de la Antigua eta beste bos-teko bi, bata Francisco Gorocica'rena eta bestea Jose Urtubiaga'rena.

50 urte lenago Elantxobeti'k ibiltan ziranak zazpi ziran. Kabotajea ebiltzanak, Andiena San Juan eta San Lorenzo izenduna zan, 45 toneladakua, eta bere jaubea, Manu Renteria. Sasoi aretan, zazpi ontzi jaubetatik, sei ibarrangelutar lez agertzen ziran eta elantxobetar lez agertzen zana Pedro Goikoetxea zan.

Orra, urtetan, Elantxobe.

Elantxobetarrak maite dabe euren erria eta Gorgonio'gaz ba dakie kantaten: Elantxobetarra naz ezin dot ukatu nire erri maitea nai neuke goratu.



ELORRIO

Elorrio'ra nator gaur. Olakueta'tik zear. Bide zabalagoak ba dira. Ni, sarri lez, bide estutik. Olakueta'n autopista azpitik igarota. Miota eta Leiz'tik zear, errebiretan, erdi tontor.

Bide ertzean ikusten dodan auzo ikastola batek, or-emen Al- dundi edo Diputaziñoiak galtzen daukazan eskola-etxeen zoritxa- rra gogora dakarkit. Len, dana be berrogetamar urteren buruan, eskola etxe orreik egitea ezin lortuta, Gaur, bertan bera ondatzen. Urte luzetan gure izkuntzari errespetu txiki bat zaindu eutsen es- kolak eurretan egon ziran.

Ondatu eta ezetarako ezean gelditu aurretik, ezin emon ete lei eureri gaurko erako zeregiñen bat, auzoen mesedean? Onda- tzea azkena da.

Ba nator aurrera. Alboan geratzen dan Mendraka'ko atsoagaz gogoratzen naiz:

Josepiñaxi,

nun donan nire orrazia?

Emoten ez ba donan orrazi ori

kendukonat nik iri bizia.

Eta olaxe, olgeta-benetan, ara Elorrio'n.

Elorrio'k, bertan sartuta batera, lotsa eskatzen dau. Eskatu eta sartu. Konbenturen baten oar eta irakatsi ariñoagoak irakurri leiz, bertako Erri-etxeke orman erderaz ipiñita dagozanak baiño:

Zin egintzallearen etxean
zoritxarra kendu eziñean.

Berba uts eta alperren ordañez
kontua emon bear zorrotzez.

Goguan erabili daiguzan aginduok. Betetasuna eskatzen dau
Elorrio'k. Ez dauzagu ukatuko. Burutapenak eta biribilkeriak laga
ta eutsi, bete-betean, egiami.

Eder bezin otz dala esaten dabe Elorrio. Eta busti.

Mendi askoren itzalpean, bai, bizi da. Santa Mariñatar, Men-
disolo, Erdilla, Intxortak, Udalaiz-Besaide, Memaya, Galdaramiño,
Santa Eufemi... Ainbat.

Otz? Eta zein Bizkai'ko erri da epel, siku eta eguzkitsu? Zein
errik ez daukaz bere epel-egal, edo kerizpe inguru eta aize kan-
toiak?

Ikus daigun Elorrio. Bastertu betiko oñaztar eta ganboatarren
naste eta alicar izorratzeak. Elorrio'k barru barruan ezagutu zitun
ondorenak. XIII, XIV eta XV gizaldietan jauntxo orrein bildurrez
bizi zan. Obeto esanda, bizi eziñez iraun. Orduko Berrio, Ibarra,
Jauregi, Marzana, Zaldibar eta abar gerran jaio ta bizi ziran Mugi-
ka, Butron, Abendaño eta abarrekin.

Erri ikusgarria egitea lortu eben elorriotarrak. Toki askotan
gaur egiten ikusten diran «serie»ko etxe bizitza zirin, ustel eta
merkien orde, etxadi ederrak. Egin ziranetik ederrari mun egiten
gelditu ziranak. Herreratar tankera eta barrokoa naastuten dira
euretan. Kurutzetan bardintasan geiago igarten da. Kurutzez be-
teriko erria da Elorrio. Arrizko kurutze zoragarri. Askoren ustez,
artista batek egiñak dirudie. Baiña gaitz. Urte mordo bitarteko.
Ala ta be argin artista ospatsuen denpora ezagutu eban erri onek.

Kurutziaga'koa, 1522 urtean egiña dala esaten da. Santa
Ana'koak, 1 566 urtea izentatzen dau eta Uria'ren izena.

Or dagoz, zein ederragoka, San Agustin'ko bidean, Apal-
erazle edo umilladerokua, Urarka kale ondokua, Iguria'koa...

Kurutze onein edertasunak bakarrik izena eta entzutea emon
leikioe erri bateri.

Beste nortasun bat be erakusten dau Elorrio'k. obi edo arrizko sepulturetan. Noizkoak ete dira Argiñetakoak? Erritik urten barik, esate baterako, gaiñetxo baten, 23 dagoz gaur eta 7 tenteko arri. 883 urtea irakurten da baten. Beste baten 931. Gure sinismenaren aurretiko gizonen obiak? Edo sinismena gure errietan sartu barri zan denporetakuak?

Geiago be egon ei ziran Elorrio'n. Eta arrigarriena. Sasoi baten ez eban jakin erriak ainbeste arrigaz zer egin. Eta orain berreun urte erriko plazarako egin zan iturrirako bidea egiten, kañuak egiten, orrelako arrilandu asko ipiñi zituen, ermita baten ingurutatik kenduta.

Beraz egunen baten norbaitek billatu leiz kañuetan urtien urtetako izen eta ezaugarriak.

Sortzez Garbiaren eleizak, Euskalerrian, Naparroan edegi ziran lenengoak. XI gizaldian Iratxe'n Sortzez Garbiaren eguna ospatuten zan agiriak ezagutzen dira. Iratxe'ko dokumentu ori agertu eutsen PIO IX'ri, Sortzez Garbia sinistu bearreko siniskaitzat erabagi ebanean.

Bizkaia'n Elorrio'n jaso zan siniskera orretako lenengo eleiza. Egia esateko, ez dira danak pentsakera orretako. Aita Larralde bat. Beste asko baiezko. Eta ziurtatzeko eleiza barria egiteko ibilli ziran asarretan erabagia emonaz Errege katolikuak, Bizkaiko jaunak emondako agiria ataraten da. Agiri onetan birritan be izentatzen da Sortzez Garbi izen ori.

Lenengo eleiza, ederra bera, torrea kenduta gotiko erakoa, San Agustin izan zan. Baiña erritik urrun egiten zala ta sortu ziran asarreak. Eta barria egin. Ba dagoz plateresko deitzen dan erako erretablurik onena, Bizkaian beintzat, San Agustin orretakoa dala diñoenak. Eleiza a IX gizaldikoa dala uste da.

Barria, 1459'n asia da, 1479'n torrea amaitu. Eta dana, 1506 urtean.

Eleiza barriaren neurriak ez dira bardifnak liburu guztietan. 166 oin luze eta 95 zabal dala irakurri izan dot. Izan lei zeatzenak, 1760 urtean egiñiko neurketak izatea. Neurri oneik ormetatik barrukoak dira, ormen lodiera kontuan euki barik: 150 oin luze, 89 zabal, 96 betik gora. Torreak 205 oin eta orratz-tokiak, giraldak, 14.

Torrearen lenengo zatiak 24 oin lodi alderdi baten eta bestean 22. Gorago, kanpai tokian, 20.

Bear ba da ain eleiza andia egin zan, asarre, autu eta eztabaidak be andiak izan ziralako, erritarren artean lenengo eta gero, gora jota, Calahorra'ko gotzaiñen arduetan.

Elorrio'n txurroak egiten zabalitzen dan ke eta usaiña artzen da noiz-nai.

Baiña Urrilla'ko lenengo domekan ba zatoz, polbora usaiñez inguratuko zara. Errebonbilloak. Lepanto'ko gerra eta garaitzaren ondorenak. Dominikoen kutsua segurutik. Dana dala, egun orretan, arma zarrekaz, bestetako balio ez daben arma zarrekaz, polbora autsezko tiroak egiten dira. Oroitza zarrak.

Ala ta be Elorrio'n polbora eta suen oroitza illuna dauke. 1 707 urtean eleizako torreko aize-orrats tokia su artzen asi yakoen. Orduko kontuak. Erregiñak, amatasun neketsu ondoren, erdibitze ona euki ebalata, zezenak eaon ziran. Eta gabaz, suak. Eleizako torre gañean argi ontzi andi bat ipiñi eben, sebozko kandela-kin. Eta igarri barik, giralda osoa sutan asi. Bai osorik erre be.

Elorrio gora datorren erria da. Amairu urte azkenengoetan, bi milla ta bosteundik gora geitu. Eta jakiña, zabaldu bear.

Erri legezko nortasuna emon eutsenean bardin gertatu yakon. Don Tello'k irasia da, Gernika legez. Ormaz inguratua zan sasoi aretan. Sei ate. Baiña laster gertatu zan ormak bota bearrean, nai ta nai ez etxe barriak kanpoan egin bearrez aurkitu zalako, orma artean tokirik ez da.

Gaur, be inguruetatik zear, ainbat etxebarri egiten dira. Zabaltearen premiñak.

Elorrio'k gizon ospatsu eta entzutetsu ugari daukaz bere semien artean. Ezin danak aiatu. Baiña merezi dau omen bat Francisco Mendieta pintoreak. Bizkai'ko Aldundian noz nai ikusi lei bere margo eder bat, Fernando Katolikoak Gernika'n euskal legeak betetzea zin egin ondoren, berari mun egitea. Kuadru onen bigarren bat dago Gipuzkoa'ko Aldundian be. Flamenkotar eskolako? Osoan ez da be, naastua bai beintzat.

Begoña'ko Amaren aurean eskontza bat izenez ezagutzen dan beste margo andi bat be berea dala uste da, nai ta ziurtzat esan ezin. Ala ta be bere tankerako danez eta garai bateko, bereztat etsi bear.

Eleizak dotoretzen ezagun izan zan bere garaian.

Elorrio'k, jai egiteko, bere aldeko gauza asko daukaz: Tokia, gizonak, erria ta Balendin zorionduna.

Bizkaiak ez dauka oraindik legez aututako santurik. Martíriak, beste barik, santu izaten dirala? Ala da ustea.

Gizon batek, zogai edo idea eta sentimendu bategaitik bere

odola emoten ba dau, ezin ukatu, gogai orren jarraitzalle zintzo eta beteá izan danik.

Berriotxoa'k, bere sasoirik onenean, Kristoren eleizagaitik emon eban bere odola. Bidezko da ba, Eleiza onek bere seme kuttonen artean eukitea ogetaamalau urte orduko bere odola eskiñi eutsanari, eta seme zintzo orreintzat, santu izena ba da esker onaren emaitza, santu izen ori bete-beteá emotea.

Onetan Kristau eleiza geldi geldi ibilten dala esaten da. Elorriotarrak ba dakie ori. Baiña martiriak santu ba dira, izena gorabera, Balendin Bizkaiko seme guztien biotzez santu lez dagonik ezin ukatu.

Gaur Elorrión egun andia ospatuten áabe. Seme bat aintzaz eta lorez, kantuz eta maitasunez gogoratu eta goratu. Origaitik, gaurko egun onetan, Berriotxoari gure une batzuk eskintzea, bidezko dala deritxagu.

Berriotxoa il eta gero, zorióndunen artean sartu ebenean, Euskalerrriak pozez eta maitasunez ospatu eban egun ori. Ez bakarrik Bizkaiak, Euskalerrri guztiak baiña. Onetan gogoratzeko da bere ama Antzuolatarrá zala, gipuzkoarra eta orrek be ten egiten dabela.

Gaur bertsolariak ba dakie erriaren pultsua jaso eta artzen eta onetan be zintzo artu ebela ezin ukatu.

Enbeita zarrak, «Urretxindorrek», bertso ederrak eskiñi eutsazan. Baiña gure gogoa ez da gaur bertsolari bakar baten bertsoak batzea, eta origaitik irurenak beintzat ekarriko doguz, nai eta ba-koitzak egiñiko bertsoen zatiak agertu, danak agertzeko denporarik be ez dogulako.

Enbeita'rekin asi gaitazan:

Bizkaian jaio, Logroño'n apaiz,
gero Okaña aldatu,
done Domingon Anaitegiko
jantziá einda geratu,
berba muetak ikasi zitun,
jakindurian goratu,
etzan Jesusen naian ziñopa
ein arteraño geratu.
Okañan onda, Kadiz'tik jiran
Manilara zan eldua,
ango nausien baimenez gero
Tonkin'era bialdua,
an ibilli zan artzain bat legez
maitez biotz zabaldua,
Jesusengana biurto nairik
ango sinismen galdua.

Basamortuan zelan oi diran
ibiltan artzai zintzoak,
batzuk zaindu ta bestetzuk batzen
jan ez daiozan otsoak,
alan eukazan Tonkintarrakaz
Balentin Berriotxoak,
txarrak ondu eta onak zaintzeko
gurari biotzekuak.

Orrelakoxe amabost bertso eskiñi eutsazan Enbeita'k 1906 urtean.

Felipe Arrese Beitia otxandiotarrak, euskal jai eta gizonen neritu guztiak agertzen saiatu zan bertsolari ezagunak, ezin eikean geratu Berriotxoari bereak eskiñi barik. Eta onek be, ogetabost es-trofatan goratu eban Balentin'en bizitza.

Bere lenengo biak eta tarteko bat irakurri daiguzan:

Mutiltxo ziñatetik zenduan agiri
zeruak nai eutzula gustiz asko zuri,
zeurez ziñalako otzan eta garbi,
Balentin, il ziñanean azkenez martiri.
Asieratik ziñan eskolan argia,
ikastera emona, aituten zolia:
ikasiai gomutan eusten azkarria,
ontasunean barriz danen nagusia.
Andia zan orduko persekusiñoa,
gobernadorea zan tigre gisakoa,
krsitiñau odola barriz ain gozoa,
ilteko bere egarri Neronek lakoa.

Xenpelar bertsolariaren bertsuak be, nai eta asko izan, ogeta-lau, pozik ikasi zitun erriak eta oraindik be zar askok kantatzen da-kiez.

Onela asten ziran bertso orreik:

Milla zortzireun irurogei ta
au zazpigarren urtia,
Kristo zerutik jatxi zanetik
oneraño bitartia,
iru obispok pasatu duten
martiriyuaren fuertia,
penagarriya izan da oyen
munduko errematia.
Baten bizitza kanta dezadan,
au da bigarren bertsoa,
Elorrioko naturala da
Balentin Berriotxoak.
Aita ta Ama Bizkaian daude,
semea an il da gaixoa.

salbajietan kunplitu zaio
 eriotzako plazoa.
 lenengo biak esan eta guazen ogeigarren bertsotara.
 Pedro Almato eta bestia
 Jeronimo Ermosilla,
 gero Baletin Berriotxo
 saltatu zan oyen billa.
 Iru obispo juntatu ziren...
 zekaten biotz umilla,
 ayen bisita laister izanda
 martirizatu ta illa.
 Arrapatu ta kate gogorrez
 lotuakzeuden alkarri,
 iltzeko eman setentziya ta
 kartzela banatan jarri;
 soldadu tropa baten erdiyan
 gero plazara ekarri,
 ezpatarekin lepuak moztu
 dizkate lastimagarri.
 Orretarako eskatu zuten
 ordubeteko lekua,
 Jaungoikoari egin artian
 beren ofrezimentua,
 Gobernadore batek eman du
 pena kastidatekoa,
 iñor oyetaz damutzen ba da
 bertan kentzeko lepua.

Laga daiguzan bestien bertsuak eta Berriotxo tar Balendin beste ikuspegi batetik ikusi. Berriotxo bertsolaría ete zan?

Adarra joten ete nabillen esan leike norbaitek ori irakurtean. Baiña bere kartak aurrean daukadaz, eurak irakurten nago, eta neurri librean sartuta be, amaierak bertsotan erabilteko zaletasuna agertzen da. Jakiña da Berriotxoak, bere amari, euskeraz idazten eutsala eta euskeraz idatzi ala, ikusten da Berriotxoak bertsolari iturria, bertsolari jatorria, bertsolari tengada eukala bere idazteko moduan.

Bere amari gustua emon naiean, edo ta amak orrela atsegiña-go irakurriko ebalakuan? Ikus bere kartak. Orra bertsolaria nun-nai bere esakeretan:

Neure amatxo maitia, zelan dago gure jentia?- Ixilik dago kartia, akaso erratu eingo ban bidia, izanik ain luzia, ezta milagro andia, ondiño ba daukat esperantzia, leinduteko amaren letria, alpe-rrik ikaraz egon plumia, amoriuak bentziten dau guztia. Ze jente dira ezkon barriyak? Jente onratua emon oi dau Urrutiyak. Pruebak emongo ditu lengusiña Mariyak.

Amatxo bada berori bapere makurtu? Ai, urtiak iñori esteutse barkatu, oindiño ezta ainbeste atsotu, ardatzian nork berori bentzitu? Baiña urtiakgaitik ez ikaratu, Jaunaren bildurrian bizitza pasatu, il barik ezta iñor zeruan sartu. Txoruentzat utzi daigun mundua, jauna maitatzen badaukagu biotza berua, ezta faltako zeruan ostatua. Alperrik lurrian nekez jan artua, bizitza pobria zerurako da atajua, ez larregi desiatu dirua. Alperrik izan urria ederra, galtzen bada gure anima bakarra, ezta faltako begian negarra, ez lepuan sua eta garra.

1857 urtean, Azilla'ren azken egunean Manila'tik bere amari bialdutako kartia da ori.

Eta orrelako kartak, bere karten artean, geiago be billatu leitezke.

Ez al da igarten bertan bertsolari baten etorria?

Dana dala, Berriotxoagan, bere beste gorralpen guztiak aintzat artuta bere euskeraren maitasuna be maitatzeko da. Nai ta Elorriotik urten ezkerero gero erbestean ibili, euskeraz berba egiteko lagun barik, berak amagandik ikasi eben izkuntzan jarraitzen dau bere amari bere barru-barruko kontuak agertzen. Eta ori, euskaldunok maitatu eta eskertu bear dogun gauzea da Elorriotar zoriondun onen birtuteen artean.

Beste bat arte.



EREÑO

Ez dakit bitarteko zer dagon, baiña penagarri da Murelaga'tik Nabarniz'era zuzeneko biderik ez egotea.

Narea auzora igo naz Murelaga'n. Artzaiñak ondo dabiz aurren inguru oneitan. Eguraldi epelak eta bedar ugari. Polit eta aizeitsu egiten da Narea. Bertako tabernaren aurrean garai zar bat dago. Aurrea dauka oraindik garai itxura iragarten. Atzea, tabernaren aurreko tartea betetzean, lur zati orretan sartua gelditzen da.

Baserri ederrak inguru onetan.

Eta Nabarniz'erako bidea?

Nabarniz'tik ia bertora etorri ziran bidea ebagiten. Ostoporen bat, konpondu-eziñen bat, eta orra auzo urre diran erri biok oraindik alkartzeko. Ainbat kilometro egin bear beste aldetik. Ni be Narea'tik jetxi, Munitibar'era jo, andik Arratzu'ra eta oraindik be aurrerago joan eta beste ia zortzi kilometroko bidea artu bear Nabarniz'erako. Bidean Gernika'ko samarrak erreten, keia ugari eta usain garratza.

Alboan lagaten dot gaur Nabarniz. Beste baterako. Origaitik kilometro erdi bateagaitik bertan sartzan dan bidea laga ta ba nua Ereño aldera, Gabika'tik zear. Tartetan, urrun, Ereño'ko parrokiaren arrizko ormak keriza egiten igarten díra.

Len ez gendun aukera bat dago gaur. Len emendik be ezin zeinkean Ereño'ra kotxean joan. Nabarniz'tik Gabika'rako biderik ez egoan. Orrela, baserri ederrak ikusten, piñu eta zelaiak alde batera, Gabika'n sartzan gara. Legez Ereño'n gagoz, errialde au Ereño'ri dagokiolako.

Gabika. Buztarriga mendiaren oiñetan. Etxe pillotxo. San Juan izeneko eleiza. Parrokia. Ez da andia. Kanpotik txikia dirudi. Bertako baserrientzat egokia. Eun eta ogei lagun inguru bizi dira emen.

Zerbait jakin naian, andra bateri itaundu dautsat:

-Abadea?

-Oi! Batek ba daki.

-Ez al dago errian?

-Arek gure barri ondo daki. Ba daki gu bere mende, sarean gaukazana. Tirorik ez dozu entzun? Ez da urrun ibiliko piñadien baten edo mendi bitarten baten. Oin be arek, irurogei urte igaz egiñak eukiarren, askori lepoa erakusten dautsa mendian. Eiztari amorratua da. Ondo dakiz arek emengo inguruak.

-Urte asko bertan?

-Bertakoa da ta! Ereñotarra. Urteak daruaz parroki onetan. Ori bai, izatez emengo parrokoa da, nai ta Ereño be berak serbidu.

-Amarrenak nundik?

-Ez da galduko. Lagunarteko da.

-Itaun bat, pregunte bat. Iñoiz entzuna daukat, emen, Gabika'n, bat ilten danean, beragaitik Aita gure bat errezaten dala eta urrengo ilgo danaren arimeagaitik be errezaten dozuela. Egia al da?

-Ori gizonak egiten ebien enterrutako bazkaritan.

-Benetan?

-Gauza txarrenbat al da ori? Or be zer esana dago? Asko da ba! Mundu guztia ez dabil ba aurreratu egin bear dala ta? Jakizu ba emen, Gabika'n, goietan bizi gareala eta lurreko gauzekaz lez gogoratzen gariala goikoekaz be.

-Ainbeste premiña daukazue?

-Ia gero zeuk baten ordez bi bearko dozuzan?

Laster ikusten da Gabika. Eskoletxea aurrean. Andre zarrak be ba dakie erakusten, ikusi dogunez.

Egur serra. Bere ondoan, Arrotegi. Baserriak ba duaz ustuten.

Goazen aurrera. Inguru txikiak. Sei zortzi etxedun auzoak.

Akorda, baserri eta borda. 60 bizilagun. Or nunbait. Etxe zabalak. Emendik laster beste etxadi bat: Bollar. Gernika inguruko abizen askoren jatorria. Akorda'ren erdi da au etxetan. Ala izango da bizilagunetan.

Gerotxuago Zeas. Tximiniak keiaz. Gastelu'ko garaixa, gaur, igarri be ez da egiten. Ba dirudi etxe au lengo garaixaren gañean egiña dala. Bizitza bi. Orma baten batzen dira gaur baserria eta garaixa izan zanaren aurrekaldea.

Aldatz txiki bat, eta Ereño aurrean. Arri gorrien erria. Emengo arri gorriak, marmol gorriak, edonun dauke entzute ona. Or dauke bertakoak ogi bidea. Bertako sasoikuak. Gazteak beste zerbait

erotsu eta egokiago nai dabe. Origaitik gaur arriola edo kanteretan dabizanak, geienak, zarrak dira. Edo sasoiko gizonak, gizon egiñak. Gazteak naiago dabe itxasoa, edo gernika aldea edo ta Bilbo. Alkatea be argiña da, arriol edo kanteretako langillea.

Txikia da Ereño'ko eleizaldea. Eun inguru, lagunez. Ereño, len esandako auzoak, au da, Gabika, Akorda, Bollar eta Zeas sartu, Atxoste eta basetxea geitu eta Elexalde onegaz alkartuta, danetara be 450 bizilagun. Orain 50 urte, berreun lagun geiago eukazan erriak.

Iru abade be egoten ziran denpora areitan. Gaur bat. Ain lagun gitxik eta ainbeste auzok, eurak erakusten dabe erri banatua, zabaldua dala. Amaika kilometro lautu daukaz lurretan.

Lenengo Irakaskintzako eskolak. Pelota toki. Erriko etxea, txiki baiña apaiña, Tabernak... beriala ikusten da eleizalde au.

Erriko premiñak?

Erri merkea da. Erriko dirutza, presupuestoa, batez beste zortzi milla peseta buruko, urtean. 325 milla peseta, biribillean.

Pelota tokia aterpe bakoa da. Gaur ez da igarten pelotarako zaletasun andirik. Sasoi baten ortozik ibilita be txandarik ezin artu. Gaur, eskuz beintzat, iñok ez dau nai eskurik zartiatu.

Ur ugari etxerako. Onetan ez dago kezka andirik. Bidez, batxe bat edo beste parkatuta, polito. Etxe bakoitzak ba dauka beintzat etxe inguru arterañoko bidea eta kotxea. Bestela, Lekeitio eta Gernika bitarteko autobusak, bide kurutzean lagaten dau bat eta oñez osteratxoa egin bear da andik erri barrura.

Gaurko bizibidearen eskari barriak bete naia eta bete bearra ba dago. Ori ez da ain zuzen be erritarrak egin leikena, nai eta eskabideak aizetzea komeni. Elektra indarra bizi eta egokiagora aldatu bearra dago. Urrutizkiñak, telefonoak, bitarteko barik, automatikoak nai litzakez. Lortuko da ori be alako baten. Aukerak billatu bear dira erri txikietan, baserriei eutsi al izateko, baserriak ez ustuteko. Emen azken 50 urtetan, irutik bat beintzat erbestera joan izan dira ogi-bidearen premiñan, etxeak, uda aldian, bilbotarrentzako aukeran lagata. Ori, urtera bat izanarren, ez da erri bizia.

Eleiza, parroikia, andia da. San Migel'en aintzaz jaso. Tontortxo baten. 94 oin luze eta 41 zabal. Ia eun urte egin zituen berau egiten. Asi ta laga, erdi bat egin eta geratu; orrelaxe ibili ziran 1 565 urtetik 1 660 bitartean. Aldaran, erriko giroa: erriko marmolari omen egin nai izan eutsan Belaunzaran arkitektoak. Orrela korintiar erako tentekoak etxeakoak dira.

Aurrerago, emengo parroikia Ereñozar'eko ermitea izan ei zan. Ibili egin bear zan araña joateko. Gaur be igoten dira batzuk, baiña

ez parrokiko zeregin eta betebearretan. Oraindik be sinistea dago ango tellatutik illobi batera jausten dan ura artu eta beragaz sarna edo bestelako aragiko gaixoa garbitu, eta sikatu baino len ermiteari iru ostera egiten dautsazana, garbituta gelditzen dala, osatuta. Gaitz da gure aurretikoen siniste asko galtzea.

Lekutan dago emendik Ea, eta sasoi baten ango parroki bieta-ko bat, Yesus'koa, Ereño'ko parroki onen mendeko zan.


Errotak galdu ziran. Eta amar be egon ziran lurralde onetan.

Gernika'ko Batzar Nagusietan, 12garren aulkia eukan. Zortzi kilometro dagoz ara. Au be esakera da. Gaur beintzat, Nabarniz Gernika'k artuta daukala jakinda, ezin ainbesterik be esan.

Orra Ereño, gain gaiñean. Zar eta barri, erri ta arri, beti giro bardiñean.

Abizenak be kilometrokoak: Aldamiz-etxebarria, Gabikago-geaskoa, Agirregomezkorta, Zenikazelaia eta abar. Txapela kentzea eskatzen dabenak.

Len Gabika'tik etorten, mendiko giroa artzen sartu gara. Orain, Lekeitio alderako bidea artzen asi baiño len, itxas giroa arnastuten dogu. Bietara begira bizi da Ereño.



ERMUA

Ermua'n artu eta ikasitako kantea da:

Ama, ezkondu
gaztea nagon artean.
Neure alaba, ezkonduteko
ez daukat ezer etxean.

Esan nai onek atzera begira ipinten nau. Ermua txiki zan denporetara begira. Guk ezagutu gendun Ermua polit, jator, nasai, esku-eskukoa. Oraindik Udeta, Urko eta Ongarai'ko arnas garbia artu zeinkean denporetakua. Eta ez dira urte asko.

Baiña Ermua'k industriagaz ezkondu nai ezan eban. Esan dai-gun zeatz eta beteago, Eibar'ek eskatu eutsala ezkontza ori. Geia-go: eskatu ordez, beartu egin ebala. Ezkontzera itto. Ermua'k ez eukan ezer etxean. Eta orra zetan geratu dan bere etxea. Azkenean ama berak be, lixibea egiteko ezik, ez agintzeko eran.

Norbaitek esan lei beste bertako kantu baten doiñuz eta esan naiagaz:

Amak emon ba leutso
etxeko lotsea,
ez ebala galduko
urrezko poltsea.

Errez da esatea. Batu zaitte etxean urtean pareka edo irunaka illobak ekarriko dautsuzan errain umagiñagaz eta eutsi areri.

Zugaz ogia eta tipula.

Bai. Eutsi ordagoari.

Orain eun urte: 632 bizilagun. Ordun artu eikeen entzutea gero sukaldetako liburuetan famako lez izentatzen diran Ermua'ko arrautza brixiduak. Beste irurogei urte onuntzago ten eginda be, oraindik danentzako egozan. Ermua'ko arrautzak! Ez da gaitz gertatzea. Orio eta berakats txikitua sartañan ipini eta bertara azala kendutako tomateak zatituta jaurti, gatz eta azukeriagaz igortzi eta tomatea zapaltzen erabilli, ondo egin daiten. Berenxenak zuri-tu eta biribillean ebaki. Gatza emon eta amar minutu laga oriotan brixidu aurretik.

Labako ontzi baten tomatea gertuta euki. Arrautzak orio ugaritan brixidu, zuringoak urre kolorea artu arte, eta gero tomate gañean ipini. Inguruetan berenxenak, eta arrautza bakoitzaren gañean urdai azpiko zatiak. Ondo berotutako laban minutu batzutan euki ta mairako gertu.

Orrela zaintzen ei ziran ermuarrak euskal koloreko. Eta eskuz, nai zetzuz nai palaz pelotarien artean ermuar eskola zaindu eta goratzen ibilteko garrez egunero esnatu.

Gero, 1960 urtean, milla lagunak iru millatara geitu ziran. Eta amar urte geroago bost bidar geitu, amabost millara urreratu. Gaur oraindik geitzen. Jakiña, buruausteak be bai: Etxeak, eskolak, urak, kaleak, bideak, osasunaren urratsak... Aziketa eta eziketako burukomin eta problemak. Lez ez ekien dokumentuetan irakurten «villa terrera» edo «villa ferrera» zan be. Biak eukazan ta bardintsu zan bietara jokatuta be. Or konpon bata edo bestearen deiturak. Gaur erri txeratsua, biozkorra deitzen asi yakoz batzuk. Biozkeko malkoak eskutateko?

Gora-bera eta jakingarri batzuk.

Ermua=eremua.

Erri legea noiztik datorkion ez jakin, ziur beintzat. Bai lege ori barriztatzen 1 372 urtean emondako agiria.

Erri ertsia izan zan, ormaz inguratua, eta irakurten danez, Bizkaitik obetoen ertsitako bat.

Eleiz nagusia, parrokia, 1 602 urtean barriztatua. Jagoba deunaren aintzaz jaso. Au da, Santiago'ren izenez. Torre ederra. Beian, gotiko erako ate bakarra.

Eleiz aurrean jauregi zabala, Bildosolatarrena. Barrokoa.

Sei zubi arrizko kontaten ziran sasoi baten, zortzi errota eta burdiñola bat bertako lurretan. Gaur trena eta autopista eta era askotako industria.

Eta oraindik be, esakera zaar bat gogoratzeko, Ermuan seda barri mutilak dantzari, neskak konbidetako libre maspasea».

1 794 urtean, frantzetarrak inguru oneitan sartu ziranean, Ondarroa, Berriatua eta Ermua erre egin zituen.

Ondarroa lenengo. Andik etorri ziran Ermua aldera. Milla ta seireun lagun etozan, beste milla Eibar'en lagata. Dagonilla'ren 29'an zan. Olarreaga'ko zubi inguruan 650 bizkaitarrek urten eutsen bidea ebagi nairik. Burruka gogorak zubi onetan eta San Lorentzo ermita inguruan. Azkenez be sartu ta erri guztia erre, zazpi etxe ezik. Danetara 76 etxe erre.

Bertoko abade bat, 70 urteduna, errena bera, baiña erria aldeztuten errime eta bulartsu agertu zana, iges egin ezinda atxilotu eben eta armaz il.

Inguru oneitako buru egiten eban Larrinaga'k esan eban agiri baten: «gure galtzeak ez dira asko izan: ogetabi il eta ogetalau zauritu».

Erri oneitako goraberekin bilbotarrak bildurtuta geratu ziran, eta urrengo urtean, Dagonilla'ren 12'an, kalez kale erabilli eben Begoña'ko Andre Maria, erruki eske.

Ermutarrak nun eta zelako?

Ikus daiguzan batzuk. Danetakoak.

Bein neska txiki batek urten eban bertatik, amalau urte bakarrrik eukazala. Eta Galizia'n «santiña das Madres» deitzen eutsen. Emendik Joxepa Aedo lez urten eban. An, santutasun entzutean, beste izen bategaz ezagutu eben Merzedeko monjaen artean.

Beste bein, lengo gizaldian, gazte batek Ermua'tik urten eta Euskalerrri guztia dardaraka euki eban. «Joakin santua» deitzen eutsen. Berak Ermuko andiki baten semea zala esanarren, Elgeta'n jaioa zan, baiña umetatik emen asi eta bizia. Batzuk «Pitxili», «Aitatxu», «Katarro» eta antzerako izernodiekin ezagutzen eben, ainbat eukazalako. Mutriku'ko kartzelatik birritan iges egin eban, Tolosa'kotik be bai. Eibar'en, beste amar lagunen buru, «Pagoetoi» baserrian lapurretan ezagutu eben; beste baten Gatzaga'n, Urkiola'n bestean, Eskoriatza'n, Zeanuri'n, Areitio'n... Bideetako gantzeru lez ezagutzen eben. Eizaga'ko tella-etxean arrapatu eben bein, **baiña andifc** be iges. Azkenean be Mutriku'ko kartzelan sartzea **lortu** eben, Astigarribi inguruetan oratuta, eta beste bein be iges **egingo** eban bildurrez ez ziran ausartu leorrez Donostira eroaten **eta** itxasontzi baten eroan eben Donosti'ko Mota gazteluko kartzelara..

Merkatarien artean Buztintzatarrak ezagutzen dira. Bizkaiian ezagutu izan diran erliki gordetzalleen artean dotoreentzat ezagutzen zana eurak bialdu eben Ermuko parrokira.

Erri artisten artean, Ziortza'ko imagiñak itxuratzen ermuar Ganuza bat billatzen da 1 607 urtean.

Orbetarrak izena emon eutsen Ermua'ri. Eleizgizona izan zan bat: Andres. Berak jaso eban Ermua'ko jauregia eta eleiza dotore-

tu be bai. Barcelona'ko gotzain izan zan eta geroago Valencia'ko artzobispo. Eta Erregetzako konseilari egin ebenean bilbotar dirudun merkatariak, euren poza agertzeko, zezen jaia ipini eben.

Politikoen artean be Orbe'tar Jose Mari billatzen dogu. Val-despina'ko markes tituloa artu eban.

Beste Orbe bat: gerralaria. Juan II zanean lau koronel karlistak eroan eben lepoan.

Ermua'k edozenbat erromantiku ikusçegi eta leku gorde eta zainduten dituala, irakurri dot oraintsu, aldízkari zar batzuk begizatzen nebillala.

Sinistu kredoa: Ermua'k sinisgogor biurtu nau. Oraindik urte gitxitako nire ezaupide eta sinistean otzitu eta beratu.

Mallabi eta Zaldibar'eri eskatu eta kenduagaz, sei kilometro ta erdi lautu ez ditu batzen bere jabetasuneko lurren artean. Goietan mendiak eta beietan etxe-mendiak. Alkar jotzen eta alkar jaten.

Ermua, Bizkaiko muga, eratasun askoren muga biurtu da. Eta osatzen gaitz. Nun ete da kantariak aitatuten daben urrezko poltsea?



ETXEARRIA

Domingo Maiztegi Salogoen soraluzetarra, plaentxiarra zan. Gizon gogor, zital, gaiztoa, bere denporetakoen eritziz. Ganboatarrren aldeko.

Euskaldunen foruak eta legeak ba euken euren alderdi on asko.

Gizonaren nortasuna ezagutu eta duintasuna maitatzea eskatu eta agintzen eben. Eta bear ba da ontasun ori aintzat artu eta lotsaz eroaten jakin ez ebalako, Etxebarria'n il eben.

Onelako eriotza bakar batek ez leuke munduan zarata askorik atarako. Baiña Txomin Maiztegi Salogoen ori Cristobal Colon Ameriketari billatzalle berberaren aita ba zan?

1936 urtean liburu bat agertu zan Salamanca'n «Colon Vizcaíno» deitureagaz. Bere egillea: Francisco Melendez, iñoiz Paco Vargas izen -ordeagaz ezaguna.

Aren eritzi eta esanetan, eta ariari bere erara ten egiñagaz, Colon euskalduna izan zan, len esandakoaren eta Juana Larreategi Laskurain'en semea. Eta bere aita era orretan il ebelako lotsatuta, gaizto edo gogorra zalako il ebelako minduta, Salogoen etxeari egokion antzerako deitura artu ei eban, bere abizen edo apellidu on eta jatorrizkoa eskutatuta.

Irakurten dodana esaten dakit. Eta ori idatzita dago.

Etxebarria'n ildako baten semea Colon?

Oiturak esakera bat erabiltera eroaten dabe. Origaitik erri oneri Markina-Etxebarria deitzen dautse. Baiña bakoitza bere to-

kian lagata, bakoitzari berea emonaz, emen Etxebarria bakarrik esatea eta deitzea nai dabe. Etxebarria'ko San Andres. Alaxe da. Oraindik bere jaube.

Ez dauke emengoak zer ikusirik Bilbo ondoko Etxebarri'gaz. Arek, Bilbo ondoan egotearen mesedez, ezaupide geiago euki lei gaur. Ez eta sasoi baten bere jaube eta gaur Elorrio'n sartuta dagon Etxebarriagaz be. Baiña ezaupide gitxi edo geiago, emen dago Markiña ondo au. Zeatz-zeatz bere izenagaz deitzeko esku-bidez.

Egia da, antxiñako denporetan, toki onei, inguru guzti oneri, Markina deitzen eutsela orduko agirietan. Eta izen orretan sartzen ziran Elgoibar, Soraluze edo Plasentzi eta Eibar bera be. Markina goiko eta Markina bekoa edo ta suso eta yuso deiturekin, orduko erdal agirietan.

Don Tello Bizkai'ko Jaunak Markina bereiztu eban eta beste erriak be euren izenekin gelditu ziran. Orra ba, Etxebarria, soil-soillik erabilia egokien, bein besteak mugatu eta bereiztu ezkeru.

Ezin esan Markina irasi edo fundatu ondoren mugen gorabera beti garbi egon zanik. Munibe zala ta ez zala Markina eta Etxebarria asarre ibili ziran. Ala, bein esateko, 1611 urtean, Munibe'ko Juan il zanean, Munibe'tik eta Xemein'go eleizara aginpideko makillak erakusteari laga barik markiñarrak joan ziralako.

Markiña'tik urten, Bariñaga'ko bide kurutze ingurutu, Elgoibar'erako aldatza asi baiño lentxoagoko lautadan ikusten dogu errialde onetako kalea deitu leikion inguru.

Lurrez, 1 7,74 kilometro lautu daukaz eleixate onek.

Esandako lautada au kenduta, leku menditsua. Alzaa, Aulesti, Galartza eta Unamuntzaga auzoak.

Mendietatik datozen urak, errekatxo garbian, Artibai ibaira doaz, Ondarroa'n itxasoan sartzeko.

Ur garbiak errekan eta eskalluak. Ba dauke entzutea emengoak.

Pelota toki polita. Joko lekua deitu daiogun, idi proba, gizon proba eta antzerakoetarako egoki gertua dalako.

Eskillara taldea igo bear da eleizarako. San Andres.

XIIIgarren gizaldian egiña. Barroetatarrak bertako patrioi.

1 570 urtean egindako agiri baten, Txomin Arostegi bertako argiñak bere kontura artu eban eleiza au barriztatzeko zeregiña. Lengo zarra txikiago zan eta 110 oin luze ta 41 zabaleran emoteko neurrietan.

Amazazpi urte geroago beste agiri baten irakurten da lanak aurrera eioazala eta gitxi falta zala eleiza zabaltzeko.

Geroago, Longa arkitektoak egindako tankera eta planoekin, beste argin batek, Martin Lexardi'k barriri barriztu eban. Longa arkitekto bi ezagutu ziran, biak izen bardiñekoak: Lukas, Aita eta

semea. Orduña'ko bidea egiten ezagutu zan aita. Semea zan eleiza onetan esku artu ebana.

Sasoi baten lau abade eukitera eldu zan.

Antxiñako ermita bat: Etxarte'n, Santa Kutz.

Erri legetan, Gernika'n Bizkai'ko beste erriekin batzean, 28garren jarlekua eukan.

Baserrietako bizi bidea errian. Origaitik baserri lanak eta Markiña aldeko lantegietakuak dira bertako irabazi.

Pelotari entzutetsuen jaioterria.

Oraindik industriak zikindu bagako aize eta giroa.

Bizilagunak millako bat osotzen dabe. Urte luzetan bardintsu.

Etxebarria'ko gertaera bat.

Juan Antonio Mogel, «Peru Abarka»ren egille jator eta egoia, ementxe egon zan abade lez 1775'tik Xemein'go parroko egin arte. Emengo euskera eta bizibidea ikasteko aukera euki eban. Ez jakin beste aldetik bera ondo ezagutu eben. Emen bizi zan neskazar batek, 1777 urtean Inkisisiñoira salatu eban beintzat, aztikeri, fanatikeri eta sorginkeriz. Elgoibartarra zan bera jaiotzez, Mari Garate, baiña emen bizi zana eta Mogel'ekin autortu edo konpesaten zana. Ez al zitun Mogel'ek ondo ezagutzen orduko beatak?

Urte batzuk geroagoko izan zan Bartolome Madariaga, karmeldar frailea, etxebarritarra jaiotzez, konbentuko bizimoduan Fray B. Santa Teresa deitureagaz ezagunagoa.

«Euskal errietako olgeta eta dantzaen neurrizko gatz ozpindua» idatzi eban. Neskak eta neskatillak zer diran edo zelan bereiztu bear diran eta abar agertzen ditu bertan. Eta erretratu zeatz eta egoki au be egin eban: «Atsoak ba dira ta endemas seme alabak an daukeezanak, azeria olloa jaten baiño pozagorik dagoz, plaza bazter bateti edo bentana zulo bateti dantzeari begira arrastegi guztian kansau bagarik».

Ziri ederra, Markiña'ko konbentu barrutik, karmelita onek.

Argi zalea zan praille au. Eskutukeriaren arerio zitala. Berak idatzita laga eban: «Obe da alkarregaz plazan, edo sarauban edo bidian olgetia ezkutubeetan gauza txarraguak egitea baiño».

Fray Bartolome onen sermoiak gogorrek, zitalak eta zorrotzak izaten ei ziran, Gelditu barik ibili zan eliza eta ermitetan sermolari. Etorri oneko, erraz eta ugaria ei zan bere jardueran.

Bere liburuen artean ba dira iru «Ikasikizunak» deiturazkoak. Eta sakramentu eta Jaungoikoaren amar agindueri buruz egiñak Erderaz be idatzi eban.

Etxebarria gizon jakintsu eta jator askoren sorleku izan da.

Eleiztarrak geienak.

Balentin Zubizarreta, karmelitea, Cuba'ko Santiago'ko artzobispo izatera eldu zan. Gure denporetan il zan. Teologiko lau liburu idatzi zitun.

Mañozkatarrak be ezagui/fñk izan ziran. 1643 uriean Mexiko'ko artzobispo izan zan bat eta bestea, gerotxuago, Cuba'ko gozain zala, angoak il eben.

Eta Urrosolo?

Au ez zan Etxebarria'n jaio. Aita zan emengoa. Eskribadua. Bere sasoiko bost Aita Santu'k beragaz artu emon asko euki eben, eta begi onez ikusi be.

Santu fama euki eban bizitzan. Mirariak be egin ei zitun. Origaitik, il zanekoxe santu papeiak egiten asi ziran. Berak, Santa Teresa zoriondunen artean sartzeko alegin eta eskabide ugari egin zitun.


Gizakeraz galanta, besoen beteko gizona zala esaten da eta origaitik neskatilletatik iges egin ezinda ibilten zala. Burukomiñak emoten ei ditu olako izateak be.

Ez dakit toki batzuetan ba ete dakien Aita Txomin Urrosolo onen abizenik be. Bere arduragabekeriz edo bestien ulertu ezifñez, abizena aldatu egin eutseen, italieratu: Urrosolo zana Ruzzola ipini, liburu batzuetan be bai.

Arrigarri ete da besteak guri aldatzea, guk geureak jatortasunez esan eta idazten ez dakigunean?

Bakearen pozez ba noa Etxebarria'tik. Laster ikusten da au bete-betean. Burdiñola zarrak, errotak, izatea galdu eben. Gauza bakan lez emengo ingurutan ikusten diran garaixak beriala ten eragiten dautse bateri: Irunbeñe, Iburguen, Lomiño gañe...Bestirik?

Markiñalde au polita da. Guk, Ondarrutik begiratuta, bertako zerua gorri ikusi nai izaten dogu. Ala danetan, errekaizeak brix.



GALDAKAO

1 741 urtean zan. Urrila'ren 26'n.

Andra Mari'ko eleizan organu jotzallea falta eben.

Organu jotzalle izateko, sinismena bear zan lenengo. Gain gaiñetik. Eta umorea eta gogoia gero. Orrez gañera beste zeregin asko egiten jakin edo artara makurtu.

Domingo Sebastian Eizaga eskribaduaren etxean egin ziran kargu ori beteteko baldintza eta itunak, au da, kapitulaziñoiak.

Euretan agintzen zan lez, organu jotzalleak sakristautza be egin bear eban eta umien eskolan irakatsi. Baiña mamiña eta kaku emen dagoz: erderaz erakutsi, euskeraz egitea galerazota.

Ardura ori Migel Ugalde bilbotarrak artu eban.

Ikusten danez Galdakano'n antxiña asi ziran gure berbetea sokondoan laga nairik. Eskerrak bera biztu erazi edo beintzat berari eusten laguntzeko, len eta orain «baso-jaunak» gogoz eta jator jardun izan dabela.

Galdakao'ri gain gaiñetik begiratu eta laster ten egiten dau irudi bakan batek. Andra Mari eleizearen torre eta ormak, eleizak berak, bere egituraz. Bizkai'ko pitxi deitu izan dautse kritikiko batzuk.

Ezin ukatu ala danik.

Galdakao'ri sartu eta bideko zan ba orrelako pitxiak ikusi nai izatea. Ikusi, atsegin artu eta goratu. Zoritxarrez Bizkaia'n, erro-maniku jokeretan, orrelako edergarri banakak geratzen dira.

Bakio'ko San Pelayo eta Mungia'ko Zumatxaga'ko San Miguel kenduta, nun?

XIII garren gizaldiaren azkenetan jaso dala uste da eleiza au. XVI'n barriztatu eta zabaldu edo anditu zana, jakiña da.

Irudi zoragarriak aldareko erretabloan. Zidar giroko edo tankerako da. Erdi-mendean, orduko eran, garbi-garbi, kutsu barik, jator egiñak dirala igarten da.

Andra Mari'ren irudi bi ikusten dira bertan. Bigarren gorpuzaldean bat. Au ete da aldare au egin aurretik bertan egoan Andra Mari'ren irudi jatorra? Orrela pentsatu eta agertu izan dabe onetan jakintsu diranak.

Beste itaun bat orain: Euki ete eban Andra Mari'ko eleiza onek, erritarren artean, bete-beteko begirapenik?

Egia: Gizaldi batzuetan bertako eleiztar izan ziran ingurutako errienik ez. Asarez bizi ziran urte luzetan.

Eleiza onek inguru andia artzen eban eta origaitik inguru orreitako fededunak nekez eta lorrez bete.

Jakin bear da, Lemona eta Bedia'tik zear, Etxebarri eta Ganguren'go Santa Marina be, parroki onetako eleiztarrak zirala. Santa marina onek, bataiotarako ur-ontzia eukiarren be, ez eban parroki izaterik euki. Ez beintzat Andra Mari'ko au parroki egin zaneetik. Ba dira diñoenak, aurrez, Ganguren'go eleiza au izan zala ingurutako parroki.

Bidezko zan ainbeste neke eskatzen eutsen ingurutakoak, parrokiagaz bete-arren, beragaz atsegiñez ez egotea.

Orduko gora-berak irakurtean laster billatzen dira orretara makurtu eragiten daben ezaugarriak.

1509 urtean Andra Mari'ko eleiz gizonak eta Etxebarri'ko eleiztarrak, San Esteban izeneko parroki barria egiteko erabagia artu eben. Beti be lokarriak Galdakano'ren gain lagata. Au da, lehengotan beintzat, serbitsurako Andra Mari'ko abadeak euretari-ko bat bialtzea eurentzat artuta.

Etxebarri bere jaube gelditu zan eta Bedia be bai.

Eta galdakonatarrak?

Zer gertatzen da gaur bertan eleiz onen alboan egiña dan bigarren irakaskintzako eskoletxe edo institutoagaz? Galdakanotar batzuk errezago billatzen dabela Basauri'ra joatea, ara baiño.

Erritik urrun egiten ei da. Ibilpide neketsua, penaza.

Parroki barria egitea pentsatu zanean olako zerbait egongo zan.

Bost gizaldi iraun eban Andra Mari'k párroki lez. Naparroa'ko erregearen senide zan Galdakano'ko Santxo'k egin ebanetik.

1781'ko Jorralla'ren 30'n, baimena lortu eta Santa Mari-na'ko ermitea beratzen asi ziran, erasten. Eta bertako irudia Kurutzeko eleizara, ermitara eroan zan, ibildeun edo prozesiño andi baten.

Amalau idi pare erabilli ziran bertako tresnak kendu eta erabilten.

360 kana arri Bilbo'ko Sorkunde'ko monjak erosi zituezan. Beste arri zabalak, arlosak, Larrabetzu'ko eleiz barrira eroan ziran. Amaika milla tella saldu ziran, 3.300 errialetan.

Parrokira jota, 1792'n eskatu zan Galdakano'n parroki barria egitea. Aurrez Kapelastegi elorriotarrari eskatu eutsen Andra Mari konpo.ntzea ze kostako ete zan: 70 milla errial, eta ala ta be ez zala ondo geratuko, adierazi eban berak.

Parroki barria 209.465 errial kostatu zan.

Parroki barria egiteko eskabidea egin zanean, bere aldezko agiri edo informe batek esaten eban, toki bakarti, menditsu, aizeen mendeko, neketsu eta erritik aldeta egoala. Ala zan bikario baten agiria. Eta orrez gañera, txiki, otz eta arriskuz betea zala, bere beko arlosak etenda eta zatituta eukazala, eta bertan illobiratutakoen azurrak be agirian agertu eta ikusten zirala.

Igarten da, ba, zerbaitegaitik, parroki ori bere berotasun eta maitasuna galtzen eioala.

Odol beruak. Bai.

1719 urtean, erri eta toki batzutan Aduanak ipini ziralako, benetako asarreak eta nasteak sortu ziran errietan.

Otxandio'n Rocaverde'ko markesa eta Antonio Errekalde il zituen. Bergararrak ziran biak eta aduanen aldezko. Origaitik sei otxandiotar eriotzara epaitu eta il zituen.

Bilbo eta inguruetan be gorabera larriak ezagutu ziran. Eta beste sei eriotzara kondenatu zituen. Bat galdakanotarra zan, Juan Errekalde. Bilbo'ko kartzelan garrotez il ondoren, Plaza zarran buruak ebaki eutsezan eta erri batzuetako sarreretan dindilzka ipiñi bildurra sartu eragiteko.

Premiñak istoria galdu eragiten dabela? Or Galdakano'ko lurretan, Urgoiti jauregia. Istoriz betea. Baiña autopistaren premiña agertu zan, istori barria zabaldu bearrez. Eta Pizkunde giroko jau-regi edo palazio eder a, beratu zan, bide barrien berbizkundeari toki lagateko, asfaltoari leku egiteko.

Lenagoko gerrate baten odolez gorritu ei zan jau-regi a.

Torre bat izentatu dogunez, geiago be ba ziran eta gogoratu daiguzan.

Oikina. Gaur Oikina baserria dagon tokian egon zan izen bardiñeko torrea. Sartu zaite bertan odolaren iturrian. Areizagatarrak ikusiko dozuz dantzan, politikan, legeetan eta gerretan.

Torre. Guazen berago. Urgoiti eta Usansolo bitartean, or dago Torre. Zornotzako larreatarren urratsak billatuko doguz eta geroago Lekeitio'ko Zubietatarrak.

Isasi. Au be Usansolo'n. Eta bardin Lekue. Ondarroa'n be sar-

tu eben eztena Lekue'tar oneik, Antxiko baserriko etxeoandrea-gaz ezkontzean.

Emengo jaunak, bere sepultura zala ta asarraldi luzea eta go-gorra euki eban eleizeagaz 1640'n. Obispaduko begiralea etorri zanean, illobi edo sepultura ori bestien gain egoalako, bardintzeko agindu eban.

Torrekoak, euren eskubideak edo euren arrotasuna zaindu nairik, eleiza zarrean be alaxe egoten zala adierezi eben eta orain-go parrokian be, azkenengo 110 urtetan. alaxe egoala. Ganera beste eskubide bateri ikutu nai izan eutse^S.antxo Galdakano eta Torrezabal izan zala eleiza a eta torrea bérá^egin ebazana. Alaxe zala entzutea eta sinistea. Orrela, urte batzuk ondoren, bere erra-zoia ontzat artzea lortu eben eta asarreak bertan bera laga.

Galdakanotar batzuk ez ziran beti erritar eskubide osodun izan. Jauntxoeren mende eta areik zapalduta bai. Origaitik bilbotar-legean sartzeko eskabidea egin eben.

Gurari ori lortu eta urte askotan bilbotar lez etsiten zirala ba dakigu. Ala ikusten da don Juan errege eta Bizkai'ko jaunak 1435 urtean zabaldutako agiri baten.

«Galdakano, Zaratamo eta Arrigoñriaga'ko eleizatetako base-rritar zintzoak, miñez eta kexaz joan yakozala Bizkai'ko jauntxu batzuek kalte eta indarkeri asko egiten eutsezala ta bilbotar bizilagunen legedian artzeko eskatzen...»

Lotsagarri? Or dagoz agiriak.

Galdakano, indarra daukak eta geldirik ago! Ala da esakera bat.


Baiña gaur ezin leikio geldi egoteko esan. Gitxiago erri bateri.

Orain 100 urte 1.400 lagunik ez eukan Galdakano'k. 1.303, Delmas'en esanetan. Gaur? Illetik illera geitzen. Eta geitzeko. Ogei millatik gora bizi dira Agirre, Arteta, Bengoetxea, Elexalde, Gomuzio, Urgoiti, Usansolo eta Zuatzon.

Erri barriak istoria bete barik agertzen dira. Lengo zarrak eukiten daben alako ardura, lotsa, errespetu eta ezagutu naia lortzea asko kostaten da.

Gaurko etxeak, gaurko plazak, gaurko jokerak eta alegiñak, istori biurtu arte, asko igaro bear. Erri barriak nekez lortzen dabe nortasun berezi bat.

Ezagutu daigun erri askok baiño arteari eta egokitasunari geiago begiratzen dautsala. Premiñazko da ori be. Errien ardura da ori. Eta bere semeena erria goratzen alegintzea. Onetan galdakanotarrak eredu agertzen yakuz Bizkaia'n. Andra Mari eleiza goratzen asi gara eta ezin geinke amaitu «Andra Mari» taldea txalotu barik. Or dabil munduz mundu gure izatearen agergarri bat erakusten. Galdakano'ren izenean eta Euskalerrriaren mesedean.



GAMINITZ

Zegaitik Gaminitz (Plentzi) erriaren eskudoan itxas errien arma arria eukita, balerik ez da agertzen?

Ondarrabitarrak 1297 urteko sillu baten asten dira balea edo itxas abere aundia agertzen. Donosti'k be agertzen eban. Eta gaur be Getari, Mutriku, Ondarru, Lekeitio eta Bermeo'k arro erakusten dabe edo eben ezaugarri ori. Ba dirudi erri oneik abere andi ori menperatzeko altasuna erakusten jarraitu nai dabela.

Zegaitik ez Gaminitz'ek?

Erri onek bere ikurdi ederrean itxasontzi andi bat agertzen dau, baiña arraiñik ez. Ez ete ziran emengoak arrantza onetan ibilli, edo ta txalupak egiten, ontzi-giñan ete euken euren ogibidea eta erriaren nortasuna?

Bizkargi'n jaió eta Errigoiti eta Jata'ko urak batuz, Gaminitz'en itxasoan sartzen ikusten erreka onen ondo eta erribereetan, ez ete zan sortu abere aundi orren arriskuak bizi eta gaindu-teko gogorik?

Bakio'ko ondartzetan be eskubideak artu nairik auzitegietan, pleituetan ibili zan erri onek, ez ete eban euki orretarako gar eta adorerik?

Gaminitz'eko eskudoak, sasoi bateko itxas ontzien gerratara-ko irudi edo itxura bat erakusten dau. Aurre eta atze gaztelu itxurako torreak izkilluz beteta erabilten zituen txalupa andi baten irudia, sasoi baten, itxasontzi orreitako baten agerpena.

Ba dirudi erri onek or eukala bere indarra eta erri ezaupidea. Arrantzarako eta merkataritzarako ontziak egiten, Madalenako eleizaren kanposantu ondoan edo ta inguruko ibarretan eta ondartzetan.

Gaminitz'eri, Bermeo'ri lez, Lope Diaz Harokoak emon eutsan erri nortasuna. Bermeo'ri emondako garai berean, au da, 1236 urtean, eta geroago nortasun ori barriztu eta sendotu eutsan Diego Lopez'ek 1299 urtean.

Jaubetasun tokia: Gorliz'en erriberatik Santermu barruraño, eta Andrakas eta Arrubaigarako bidetik Ibarrikaraño, baiña Lemoniz, Gorliz eta Ibarrika'ri euren lurretatik eta eskubidetatik ezer galdu eragin barik.

Eta emen dator eskudoan igarten ez dana: Baleak (ballenak) arrapatu eta iltzen jarraitzeko eskubidezko toki lez Barkero'tik (Bakio'tik batzuen eritziz) eta Portugalete bitarteko itxasoa. Orra ordurarteko jokabide baten ezaugarria indartuta. Eta bitarte orretan talaixeruak eta zaindaria ipinteko aukera ta guzti. Esan bearrrik ez, esan eta eskubide orren duin egin nai. Eskubide orrein aurka iñor jagiten ba zan... santuen abegi ona galdu eta Judas Iskariote'ren aiñenagaz batera, biraoagaz batera, beti betirako inperuetara sartu egiela ortan ausartzen zana.

Saldu egin ete eben gaminiztarrak eskubide ori?

1 599 urtean emengoak eta oriotarrak akordu bat artu eben. Oriotarrak inguru onetatik ibili eikiazan arrantsu onetan, baiña iltzen eben bale bakoitzeko bi milla marabedi ordaindu bear eutsezan gaminiztarrei, errirako, elizarako, San Pedro izeneko kofradia-rako eta errian ipinita egozan ekintza onentzako. Eta bein ori egin ezkeru Plentzi eta bere kofradian sartzen ziran errietako edozein lekutan zatitu eikien bale ori eta andik nai eben tokietara bere onurak eroan.

Merkataritza? Judas Iskariote'ren biraoaz gogoratzen?

Gaminitz'eko San Pedro kofradian alkartuta bizi ziran Gorliz, Lemoniz, Ibarrika eta Sopelana eta Urduliz'ko arrantzaleak.

Ez dogu billatzen Gaminiz bale kontuetan, bere ezaugarri bezte. Bai ordez arrantza txikietan. Ala XV garren gizaldian emengo txalupak, besigutarako ontziak, Barakaldoraño joaten ziran arraiñak eroaten, an besiguak bana-banaka saltzen. Gaurko bizimoduan eskatzen dan lez, bitarteko barik.

Gaminiz'en bizitza ontzi-giñan billatzen dogu agertu eta sendoen. Onetan bai, gizaldi luzetan, nortasuna euki eban erri onek. Ontzigiñan eta merkataritzan.

XVII gizaldirako beste portuak ardura ori galtzen igarten dira. Baña Gaminiz'ek oraindik txalupategi ugaria eukan. Baiona'tik eta Portugal bitarteko eroan-ekarria erabillan. Eta Cuba'ra be joaten ziran, eta Holanda'ra.

Igarten danez, bertan egiten ziran ontziak gitxiegi ziran edo ta

emengoak beste begi zurrago bategaz jokatzan eben. XVIII garren gizaldiaren erdi inguruan frantzetarrak ainbat ontzi lapurtuten eutsezan itxasoetan ingelesei. Eta emengo merkatariak eta txalupa jaubeak joaten ziran Frantze'ko portuetara eurak erosten. Ala, denpora orretan ainbat itxasontzi billatzen doguz Gaminiz'ko uretan emengoak erbestetik ekarrita.

Isidro Urresti batek bi milla librakin erosi eban Brest'en 55 toneladako bat; Tomas Ansoleaga'k beste ainbestetan, La Rochelle'n, 90'ko bat. Joan Arana'k Baiona'tik ekarri eban, iru milla libarren orde, beste bat eta toki berbertatik Rafael Ibarra'k. Eta Tomas Olagibel eta Manu Artza'k Nantes'en billatu ebezan eurenzako aukerakoak.

Itxasontzi oneik eta beste asko, burdinkien erabilketan ibiltan ziran, orretarako eginda eukezan artu-emonen orde.

Gero, XX gizaldiaren asieran, bat batean galdu zan txalopagintza erri onetan, Bilbotarrak kendu eutsen, gertakizun obeagoen eta eratsuagoen orde, euren bezerutza.

Nai ta ez itxasoari begira ekin bear dautsagu emen. Eta ba dakiez bertakoak, gurasoakandik artutako gauza andi lez, itxasoe-tako kontu batzuk gogoratzen. Ez dabe astu nai bein, 1793 urtean, «Borgoña» frantzetar itxasontzia ementxe, begien aurrean menderatu ebenik. Masailleko ederra emon eutsen emengoak prantzetarri. Emengoak bergantin bat euken, Juan Batis Goia lemazain zala, eta ontzi orren atzetik agertu zan frantzetarra, bera menderatu eta eroan nairik. Baiña inguru onetako tontortxuetan egozan kañoi tokietatik ontzi ori zaindu nairik etenbako sua jaurtitan ekin eutsen eta arro gogoratzen dabe emengo zarrak euren zaarren egintza ori, frantzetarra menperatzean.

Itxas gizona au be: Nikolas Olagibel.

Pobre jaio, urretan bizi eta jaio baiño beartsuago il. Delmas'ek diño illeta amaitu eta eleizako atea zabaldu ziranean, lotsatuta gelditu zirala. Gitxi gorpuari laguntzen eta gitxiago eleizkizunetan.


Labur: 1809'n jaio zan. Itxasontzi baten, mesedez sartu. Manila'rako tokia billatu eta an merkatari egin. Itxasontziak erosi, ango bategaz ezkondu eta etsipena, emaztea il. Barriro beste bategaz ezkondu, bere gar eta zeregiña geitu, Bilbo'ra etorri eta ango merkatari eta itxas gizon andienetako izatera eldu. Olabeaga erdia beretzat lanean. Bilbo'rako trena egin bearra agertu zanean, bi milloi errialde ipini onetarako, beste askori bidea zabalduz eta orrela errialde onetako aurrerapideari begira beti zur. Mendiak erosten gero. Erri maitale zan eta bere errialde onetan egiten zitun bere diru eralgitzeak. Baiña uste bagako familiko goraberak, 1 872

urteko gerra eta abarrek lenera ekarri eben. Bere zoritxarrean be gizonki jokatu nai izan ebala irakurten da, eukan guztia zordunei emonez. Uts-utsik gelditu zan, 1850/1860 bitartean bilbotarrik ezagunenen artean agertzen zan a. Dana dala, berari zor yakoz sa-soi aretako Bilbo'ko aurrerapiderako jokabide askoren kezak.

Errez ikusten da Gaminitz. Neke andi barik. Lengorik ez. Erriko etxea 1562'en egiña. Eleiza, parrokia, Madalena'ren izenekoa. Zubi galanta sarrerako eta ondartzak. Itxas aurrean osategia. Laster ikusten da dana.

Kanpoeder deitu leikio beroni. Kanpotik dotorea eta barrutik ez ainbeste, ala esan eban beraugaitik Mañé'k eta gaur be ori esan leike.

Iru milla lagunik ez neguan. Zenbat euskeraz dakienak? Onetan obe ixilik geratu, emotekotan erantzun lotsagarri bat agertu bearko gendukelako.



GARAI

Berriz eta Durango ingurueta gabiltzala, Oiz mendi altsuaren tontorra kendu barik ikusten ibiltzen gara. 1.026 metro daukaz luzeran Oiz'ek eta Bizkaiko erri askoren itzala gordetzen dau. Gernika alde guztia zaindutzen dau eta ango urak bere errietatik sortuten dira. Durango eta Markiñalde be bere menpean dagoz. Bertatik datoz Ondarru eta Lekeitio'ko erreketako urik geienak.

Mendi orren gibelean, len esan dogun bidetatik ibiliaz, etxadi batzuk eta eleiz torreak ikusten ibiltzen gara.

Ortze dago Andikona, Berriz'ko auzoa. Ikustea merezi dau Andikona'ko eleizeak. Bakartade aretan alako eleiza ederra egon leikenik askok ez leuke sinistuko. Ikusgarri bai ta be sakristau etxea. Baserri ederrak eta lagun-arteko anaidi edo kofradi entzutetsu bat dago emen. Ainbat lur eta ondasunen jaube da Andikona'ko Andre Mariaren Kofradi au. Kandelari egunean danen aurrean emon bear izaten ditu maiordomuak urteko kontu eta goraberak. Eta barriak, urte barrirako asmo eta eginbearren kontu eta naia artu.

Andikona'ra joateko biderik egokiena Berriztik gora, merzedeko monjaen konbentua baiño gorago, ezkerretara, arrizko kurutz bat dagon tokian bide estu baiña egoki bat artzea da. Beste bide bat, Berriz'en sartu barik, lengo bide zarrean Lazpitatarren base-riaren onduan artzen da. Baiña au neketsuago da.

Laga daigun Andikona. iurreta alderago, Bilbo alderago, beste torre bi ikusten dira betik, bata bestearen alde andi barik. Piñadientan erdi galduta, erdi eskutauta biak. Antxe dago Garai.

Erri txikia da. Dotorea. Aizetsua. Etxe ederrak, au da, baserri ikusgarriak, toki gitxitan ikusten diran lakoak, atadi zabal ederrez. Ondo zaindua da erria eta baserririk geienak be txukun agertzen dira. Erriko etxea, ondo ipinia. Barruan be kuadru ederrak daukaz Erriko etxe onek. Gaur, jentiei ten egiteko, gertu egin bear da erria. Orrela, Garai'n ostantu on eta entzutetsuak zabaldu dira urte asko ez diranetik, eta jenteak ugari eta atsegiñez erantzuten dabela ba dakigu. Garai'tik aurrera, gaur, kotxean joan leike, piñadi eta pago artean lenengo, geroago, goiak artuaz, goietako ikuspegiak artzen, San Kristobal ermitaraño eta andik, Oiz tontor berbertara, teleikuskiñaren tresna barriak ipinteko egin diran torre eta etxe ondora. Eun metro baiño lenago, tontorra bera, bein ara ezker, neke barik.

Parroki bi egon ziran txanda baten, oraindik eun urte ez dirala be, erri txiki onetan.

Bat, zarrena, San Migel. Abadiño'ko parrokiaren mendeko izan zan au lenengo denporetan, Abadiño'ko parrokiaren ermita bat lez, nai ta bertan parroki bateko zeregiñak egin, au da, bataioak eta illetak. Amasei garren gizaldiaren erdian gelditu zan eskubide osoko parroki lez. Kontuak eukiteko da Abadiño sakon sartzen dala emen, mendiarte andia daukala bere jaubetasunez, Oiz mendi onen giblean. Beste parrokia oraintsuago parroki lez egin eta lenago izate ori galdua da. San Juan'en omenez jasoa. Berriz'ko parrokiaren mendeko izan zan 1572 urterarte. Gero, 1 882 urtean, au da, irureun urte bere jaube egin ondoren, barriri parroki izatea galdu egin eban.

Parroki zarra, au da San Migel, 1 545 urtean sortu zan parroki lez, bertan dagozan liburuetatik irakurri leikenez.

Jaiotzetako liburuak 1 550 urtean asten dira.

Parroki zarra izanarren, Abadiño'ko abade laguntzalle batek artzen eban bera eroateko agindua, bertan bizita. Urtero aldatzen eben Abadiño'n serbitsari ori eta origaitik garaitarrak asarre íbilten ziran, askotan abade zarrak gertaten yakoezalako urterako. Azkenean be erdiko bide bat billatu eben. Garaiko parrokoa Abadiño'ko benefiziadurik gaztena izan eiala. Alaxe egiten zan luzaro, baiña azkenean be, beste parrokia kendu eta parroki bakartzat laga ebenean Garai guztirako, bertarako izentautako abadea eukiten dabe. Au da, bertako izentatze jatorrez.

Garai'k gaur, bere iru auzoetan be, danetara be, San Migel, San Juan eta Santa Katalina auzoak batuta be, irureun lagun ezditu eukiko.

Dantzan egingo dogu?

Dantza zarrak gordeten dira oraindik Garai'n. Santiagotan dantzatuten diranak, urte askotako dantzak dira. Garai'ko jaiak ikusgarri izaten dira orretan. Oitura zarren erakusle. Antxiñako erara dantzatuten dabe auresku zarra. Dantza orreitarako atararen daben ikurriña be, Garaiko zarrena baiño aurretikoagoa da. Onetan bere izate eta entzutea daukaz Garai'k.

Santiagotan santu onen irudia beste parrokiara eroaten dabe. Santa Ana'ri lagun egitera. Oitura zarra. Noiztik datorren ez jakin. An gaba eragiten dautsoe, garaitarrak omen egin dagioen, eta biaramonean, bere eleizara biurtu.

Dantzaldietako kantak ezagunak dira:

Aita San Migel lurretako, zero altuko lorea,
agura zarrak dantzan ikusi ta ak egiten dok barrea.

Garaiko plazan otea lore, Ermuan asentzioa,
dantza ikasi gura dabena, Barruetara beioa.

Aita Juaniko, seme Periko, zer dogu aparitako?

Orio aza goxo goxo, arto beroaz yateko.

Kazuelatxoan intxaur saltzea, txarra morkoan txunpletin,
eragin eta beti eragin, atsoak bauke zeregin.

Garai'ra joaten diran geienak Zubiaurre anaiak gogoratzen ditue. Erramun eta Balentin, pintoreak. Mundu zear euskal gizon, izate eta ikuspegiak kuadro eder, ikusgarri eta ondo egin eta ondo ordainduetan zabaltzen dituenak.

Gaur gaurkoz Zubiaurretar onein bizitza agertzea laga egingo dogu. Etorriko da ortarako beste egun egokien bat. Euren bizitzak aldeko kontu errazoi bat baiño geiago eskatzen dabe. Baña pintore onen aita gogoratu daigun. Gaur gitxi ezagutzen danarren, bere denporetan ainbat tokitan ezagutu eta bere lanetatik ondo ikusia izan zan.

Garaitarra, sortzez eta biotzez, nai ta irabazien premiñaz bere bizirik geiena Madrid'en egin.

Gure sasoikuak aztuta daukagu Zubiaurre musikalariaren entzutea.

1837 urtean jaio zan Garai'n. 24 urte orduko, Ameriketan, maixu. Gero, bere zaletasuna musikea zalako, barriro musika arazotan. Eslava il zanean, bera aukeratu eben Madrid'en Errege Kapillako zuzendari.

Lan txiki ugari Durango'ko San Antonio'ko konbentuan gordeten dira. Andiagoak zabaldu ziran. Misa en re orkesta andirako egin eban bai eta misa en la be. Beste meza andi bat garizuma aldirako.

Bere zaletasunak eta bere sentimentuak eleiz gauzetara eroan eben, baiña teatrorako be egin zitun lan batzuk. Ala «Fer-

nando el Emplazado», iru zatidun opera. Ala baita Luis Camoens, bardin, iru zatitan. Ala baita Ledia, erderaz egiña, baiña euskal gaia artuta.

Edozenbat zortziko be egin zitun.

Durango'n Astarloa euskaltzaleari omenaldia egin eutsenean, bere meza abestu eben orkesta andiagaz. Eta Astarloa bere ome-
nez egin zan imnoa, Zubiaurre onek egiña izan zan musikaz, itzak, berbak, Arrese Beitiak egiñak izan ba ziran be. Imno aretan au esaten zan:

Jaio ziñan mundura
lengo gizaldian,
ibar txiteder baten
Euskaldun errian,
Anboto ta Oizen
bien bitartean,
Durango deritxakon
uri politean
Beti izango zara
gure ondragarri,
jakitun andientzat
gutziz maitagarri,
probau zendualako
eta iragarri,
Euskera Adan'gandik
yakula etorri.

Gaur, Garai'ko errialdea gogoratzean, bere semeak eta ingu-
rukoak be goratzeko aukera artu nai izan dogu.



GERNIKA

Gernika!

Kendu txapelak. Agur jaunak! Emen gara, Aritza ikusten.
Pago, urki, lizar, arta, gaztain...gure mendietako dira. Eder eta maitagarri.

Baiña euskaldunok, biotzean eta errian, Aritza.

Kondaira eta odolean: Aritza. Amets eta sinismenean: Aritza.

Aritza da Gernika'ren itz, intz eta bitzta.

Agur ta erdi!

Gernika'tik, egada baten, Muxika'ra, Aritzaren maitasunez.
Ezin aaztu, oneraiño etorrita, andik Gernika'ri begirik kendu barik igarten zan urretxindor zarra: Enbeita. Bizkai'ko bertsolarien aitita.

Gogoan dira oraindik bere bertsoak. Zenbat Gernikarrentzat?
Ona bat:

«Zugatx deun baten azpian oi zan
asaben Batzar-tokija,
erri bakotxak eukirik antxe
bere aldunen aulkija;
an egiten ziran lagi guztiak,
an artu erabagija,
ondoan zelan zainduko eben
euren euzkeldun Errija».

Eta Arbola kenduta zer?

Etxe eder eta garbiak. Eun famili inguru...

Orrela asi ondoren, bildurrak jo eban Humbolt izkuntzalari ospatsua. Emeretzigarren gizaldiaren asieran ibilli zan emendik. Eta bai zoritxarra berea. Gernika'n egon zan gauean, ekaitza. Ujol andi bat eta urak gero ta gorago, zubia baiño zazpi-zortzi oin gorago. Bideak itsutu. Origaitik iru egun luzetan gelditu bear izan eban bertan, badaezpadako ostatu bateko gela illunean. Baltz agertzen dau berak ostatua. Txiki ta itzal. Irakurteko ostatulariaren gelara joan bear, arek utsik lagaten ebanetan. Eta arratsaldetan kanpora ataraten ei eban, bazkal-ondoko lo aldia bota bear ebalako, eta ez laburra. Don Kixote deitsen dautsa berak ostatulariari.

Ori laga eban idatzita bere ibillaldietako kontuetan.

Beste alderdia.

Castelar'ek esaten ekian, kondaira, istoría, edo ez dala ezer, edo errien gaixoak ikasten diran klinika dala. Baiña lorak maiteago doguz, azunak baiño. Nai eta euskaldunak zarren oituretan, askotan, azunakin gorputza blastiatu ondoren, soiña bere berora ekarri.

«Erribera eder baten dago Gernika. Bere kaleak ondo zainduta; bere lorategiak beti txukun; bere plazak beti garbi.

Foru'ko bidean...lau illaretan dagozan astigar (tiloen) ibiltokia. Lan garratzean ekiten dabenezako, nasaitasun tokia eta bertako bake eta kerizpean, euren kirio edo nerbioentzako baregarria; nekatutako buru eta kaskarrentzako berebiziko argibide eta esnatzailea...»

Ori be irakurten da Bizkai'ko gida baten.

Noizkoa dan? Igarri: Hotel Comercio'n, garai aretan, 3,50 kostaten zan jatordu bakoitza. Eta egun osua zazpi peseta.

Astigar eguraztokia, gaur paseo de los tilos izenagaz ezagunagoa! San Roke, San Raketxu, San Raketxutxu... Eta goizaldean, azkenen datorrena, buztan.

Ori be Gernika'ko istoria da. Jaietako egitarauetan ipiñi ezarren, ospatuten dana.

Gauza askori emon izan dautse gernikarrak bertako izena. Merkatu onaren ondorena da ori. Ala indarrei, piperrei, piperxorixerueri... Baiña arduari ez. Erribera eder onetan matsak sekula ez eban artu indarririk. Origaitik XVI garren gizaldirako kendu zituen inguruotan egozan maastirik geienak.

Luno'ren lurretan sortu zan Gernika.

Don Tello'k emon eutsan erriari legerako tellatua. 1366 urtean zan ori. Luno aberatsa zan. Amarren ugari eleizentzat eta euren patroientzat. Origaitik 1.800 marabediko urteroko dotea eskatu eutsen don Tello'k gernikarrei. Beretzat edo bere ondorengoentzat.

Gernika sortu zanean eleixaurreak gerra gogorra egiten eutsen euren lurretan eta euren lepoz sortuten ziran uriei. Gaur uriak baketan ez dautse lagaten erri txikiei eta igarri barik, iruntsi. Orra ordutik onako aldea. Onela gaur Gernika dira Axangiz, Arratzu, Kortezubi, Forua, Nabarniz eta Murueta. Eta beste batzuk Gernika'ren erruak urreratzen igarten ditue.

Bost gizaldi luzetan dabil Gernika bere ingurua portu andi bat egiteko aukerako dala-ta. Bizkaia'n dagon tokirik eratsuena ei da orretarako; egoki eta erosua. Gaurko jokabide eta tankeretan begi onez ikusten diran antzerako portu andi, nasai, urtsu, erreza.

Atean daukaz txalupak, itxasontziak: Murueta'n.

Atean? Ez dogu esan lenago Murueta Gernika dala?

Atean orde, barruan.

Eta aurrean, mendebal egunetan eta ipar giroetan, Mundaika'ren egaletik bere aizeak bialtzen, Kantauri itxasoa. Euskaldunen itxasoa. Kailuak eta txirriñak be, itxas txoriak be, ba dakie Gernika'rako bidea, Izaro'tik egiten dituen osteretan.

Baiña Gernika'k ba ete dau itxas girorik? Ba ete dau itxastar deirik? Ori da, indarra egiteko, baldintzarik bearrezkoena: Deia, bokaziñoia. Artu eta sentidu ete dau iñoiz Gernika'k ori?

Gernika'k bentaja andi bat dauka beste erri askoren gain: As telenetan ajerik eztabela eukiten bertakoak. Ori, gizarte babesentzako, aseguruentzako, dirua da. Min gitxiago, kalte gitxiago, ez bear gitxiago.

Gernika'n astelena, astearen umore txarreko asiera barik, igande edo domekaren jarfaipena da.

Asegurantzen estadistiketan sarri agertzen dabe, egunik txarrena, eurentzat, astelena izaten dala, egunik karuena. Baiña ez ei dago erregelarik bereizkunde barik. Eta orra bat: Gernika.

Gernika'ko kanposantuan, baster baten, oraindik baltzitu barik eta garbi ezagutzen dan diskoidal arri bat dago: Bertan, Altube'tar Seber zanaren ondorenak.

Ez zan gernikarra, Mondragoetarra baiño. Ala ta be, bere urte mardulak, urterik onenak, Gernika'n egin zitun. Eta 84 urtedun bertan il eta azurrak laga.

Musikalari, izkuntzalari eta erri gizon. Langille setatsu, amorratu.

Jakiña da euskal arloan, fiña urteten dabena, erre egiten dala bere zeregiñean. Altube, kaleko bizitza laga-ta, euskerarentzat bizi zan: Euskeraren maitasunean erre.

Gernika'k, bere entzute eta izen-eta guzti, euskerari ez dautsa idazlerik emon. Onetan edozein albo errik berak baiño geiago emon dau. Altube'k, bertan bizita, utsune au ikusi eta bete nai izan eban. Eta origaitik ezin aaztu daikegu. San Agustin'ena: Geiegi pentsatu eban besteetan, aaztu al izateko.

Ille kantuari gogo ona artu dausat.

Ortik esaten dakie Ondarru'n baiño obeto beste iñun ez dabela egiten illetarik. Ori, zarrontzako, nasaitasun txiki bat da.

Illetak egin eta jotean, ezin nei aaztu gaur beste gernikar jator eta bete-beteko bat: Segundo Olaeta.

Bein zirikatu ninduen «Saliña Saliña» dantzaren sortze eta jartortasuna billatzera.

Dantza liburuak egiñak daukazan jesuita bateri idatzi, ta erantzunik ez.

Asko be asko ekian Astigarraga'ko sakristaua il barri zan, eta berari ezin itandu. Idazteko nengoala irakurri neban ain zuzen be bere eriotzaren barri.

Donosti'n ba egoan lege zarreko bizardun jator bat: Olaizola tar Joxe, ernaniarra jaiotzez, baiña berak nai eban lez, Euskalerrri guztikoa. Bere eritziz, zagi dantza bat zala esan eustan, emengo estribillua ipinita.

Olaeta'k, barriz, beretzat ondarrutarra zala. Berak Ondarru'n ikusi, entzun eta ikasi ebala dantza ori eta munduz mundu ondarrutarizat erabilli ebala, bai «Elai Alai» taldearekin eta bai dantza taldearekin. Egiten eta zabaltzen zitun programetan, beti Ondarrukotzat izentatzen eban dantza ori.


Beraz ondarrutarrok Olaeta'ri borondatezko oroitza bat zor dauzagu. Guk egiten dakigun lako illeta fedetsu bat.


Bilbotar bateri: Picasso ezagutu ondoren eta bere bitartez ezagutu ei dozu Gernika.

Nik Picasso, bere artean, txalotzen dakit. Ezin nei ezer kendu berari Lorerik onenak eskiñi neikioz bere zeregiñean.

Baiña itaun bat: Euskalduna zara?

Orra Gernika, adarretatik, zatika.
Aritzari, ostro ostrotik elduta, asi gaitezen otoika:
Eman eta zabaltzazu
munduan frutua.





GETXO

Urrun igarten dodaz keiak eta loiak. Kei zuriak eta baltzak. Berdetasuna galdu eben mendiak, narru gordiñean laga zituezalako. Urre baltza atara eta lur gorri laga mendiak. Eta keiaren zuriak eta lurraren gorriak, amets berde gabeko gizonen bizi baltza gogoratzen dauste. Ibaizabal zarra indarrak artuta, nerbioak gainduta dator ori eta zikin, alderdi bat emen daukan zubiari, Bizkai'ko zubiari, bere dotoretasuna irainduz.

Itxaso gordin dagonetan, barruko asarretan dabillenetan, ondoko zirri-zarretan, ba dirudi gooldi eta bedarrak arrotzean, bere txipristiñetan iodo usain nabarmena naastu eta aizeagaz batera arnasa be loditu edo sendotu egiten dabela.

Getxo'n nago. Itxas aurrean. Iodo arnasa artzen. Kei eta lañoei igeska, ango izerdi eta odolaren ondorioz, Getxo berdeán birlatu eben bakearen ixilla burdin gizonak, ez ataratzalleak, atara-eragilleak baiño; bardin merkatariak, itxasontzi egilleak, ikatzdunak (egur ikatzdunen burdiak Oiz'en gibelesko pendizetan eta Gorbaiako aldatzetan eteten ziran, eta ingeles arrikatzaren txalupak itxas zabalean aizetu eta bitsa dariola agertu), diru-erabiltzalleak eta abar. Orrela eta origaitik Getxo ixilla, itxasoaren onurak eta baserrietako ardurak alkartuta erabillazan erri au, jauregiak eza gutzen asi zan; jauregiz betetako kaleak zabaltzen, eta soloak andikien atsegin-leku biurtzen, eta ibarrik dotoreenak jolas-toki edo loretegi.

Sasoi baten Erandio'ko Martiartutarrak makurtuko eben Getxo. Gure gizaldian, lengoaren azkenetan asita, beste familiak, beste izenak eta beste odolak datoz Getxo'ra lo egiten.

Ez joan urrutira. Begiratu eta aztertu pixkat Bizkai'ko ekonomi arazoa. Lengo gizaldiaren azkenengo amairu urtetan 636 negoziarako alkartasun edo soziedade sortu ziran Bizkaia'n, laureun eta ogetabi milloiko kapitalak euren artean batuz. Aurreragoko urteak be aberats eta ugari agertu ziran onetan. Zenbat mílloe gaurko dirutan?

Oroitza asko sortuten dira Getxo'n ingurutara begira. Ekonomi eta industri barrien ondorenak. Gizarteko gora berak miñak eteten lagata.

Igarri barik Santa Mari zarreko ormetako ikurdiari, eskudoari begira nago. Getxo eta Martiartutarren eskudoa. «Caltea dacanak bizarra lepoan» irakurten da bertan.

Zegaitik itxartu eta zurbilduten ete gaitue gure arri zarrak, geienetan ondar arri landuetan egiñiko ikurdi zarrak, onelako esakera zur eta egitsuekin?

Bizkai'ko famili entzutetsu baten deitura zan Getxo. Lope Garcia Salazar'eri ikutu daigun: Bizkaia'ra sartu ziranean, Getxo'ko lur onetan andiki bat agertu eta geratu zala. Bere etxea emen egin, bere bizitokia emen eratu eta Andra Mari'ko monastegi zarra jaso ebalá. Eta bere inguruan etxe onetako jaun eta ondorengo en illobiak, sepulkroak ipini.

Ain zuzen be, batzun eritziz, Getxo eta martiartutarren ezkontza ondorenez agertutako bat izan zan eleiz ori egitea agindu ebana.

Gero erria osotzen, alkartzen etorri zan, nai ta bere auzoetan bizikeraz ez bardin agertu bertako lurretan bizi ziranak. Algorta eta Getxo, erriz bat izanarren, bi ziran bizikeraz. Itxasoetan amets egiten eben lenengoak eta besteak lurren onuretan. Ala ta be, legerako, erri bakar lez jokutzen eben. Gernika'ko Batzar Nausietan 47 garren eritzia euken.

Erri ixilla. Baketsu izango zala esan bear, itxuretan beintzat. Bizitza oia, bere eguneroko izerdi eta kezakakin, eta kittu.

Nortzuk ete ziran Getxo'ko lenengotako bizilagunak? Gorostiaga'ren esanetan, kristiñau zarrak. Eleizen erakutsiz datoz bere agerpenak.

San Nikolas, Algorta'n ez da zarra, gizaldietan beintzat, nai eta arrantzale eta itxastarren begiko izan.

Andra Mari bera XI g'arren gizaldietara atzeratu lei. Geiago ez. Aurretiago da San Martin, kristinautasuna gure errietan sartzen asi zan giroko. Eta or dago San Alango'n bere eliza zarra. Or, baita be, Kolumba donea, Errotaetxe'n.

Eta Getxo izenázetatik sortu ete zan? Gaixo luzean osagillea

aldatzea komeni izaten dala esaten dabe askok. Bat bein gibe-ko miña osatzen asia danetik, urteetan be bertatik jo eta eskura-ekarten saiaturko dalako. Eta beste osagille batek gaixo berbera begi ez bardiñekaz arakatzean, beste zerbaiten sustraia billatu eta andik sendatzea iñoiz gertatu dalako.

Ala Getxo'n erromakerako begiz ikusi, edo ta zeltaen jatorriz, edo ta ibilkera orreik basterrean lagata jatortasun bereziz, esan naia maixu bakoitzaren erako izaten dalako. Teori guztiak begira-pen eta gogo ona eskatzen dabe. Ez bardintasunean aukerutzen gaitz.

Amabost urtetan euneko eun anditzen. Miraria? Bilbotarrak ba ekien aspalditik Getxo nun dagon.

1863 urteko ondasunen azkatzeko legea zala ta, desamorti-z'aziñoa zala-ta, emengo lur batzuk saltzera atara ziranean, emon-dako balioa baiño amar bidar geiago ordaindu ziran. Eta sasoi aretan Bilbo'n ez egoan lur faltarik. Abando'n bost milla lagun bizi zi-ran; Begoña'n bosteun gitxiago; Deusto'n bi millarik ez eta Bilbo bera amazortzi millara ez zan elduten. Getxo onek bi milla baka-rrik.

Gaurko miraria Bilbo diru-zale eta diru eragillari eskartu bear da edo aren lepora jaurti. Bilbo zatar, estu eta kez beteari. Bilbo beroari.

Sasoi baten, orain berreun urte, parroki bakarra. Andra Mari. Gero algortarrak, eskubide osoz, San Nikolas'en ermita zarra lengo antzera laga ta izen berbereko parroki barri bat jaso eben. Gaur bost parroki be batzen dira erri onen lurraldetan.

Getxo, Algorta'tik, itxasoari begira bizi zan. Ez arrantzan, bes-telako itxas bizitzan baiño. Eurak egiten zituen eskabidetan itxas giroko, maiordomu, txalopetako kapitan eta itxas gizon lez ager-zen ziran beti. Eta bertako gertaera betetik orduko itxas bizitza-ren jokaerak ikusi eta igarten doguz.

1516 urtean, Getxo'ko Otxoa Ortiz, nai eta sasoi aretan Por-tugalete'n bizi, Flandes'etarako asmoan urten zan bere itxas-ontzian. Frantzeztarrak inguratu eta ekuratu eben itxasoan eta eroiana, zerbait baliotsu zana, kendu. Agiriak, dokumentuak laga eutsezan, eta ain zuzen be Cisneros kardelanaren agiri batzuk eroiazan. Otxoa Ortiz benetan mindu zan, eta min orreri ez eutsan laga bertan bera makaltzen. Urtetan eutsi eragin eutsan aragi bi-zian. Eta bost geroago, min ori arindu edo bigundu al izateko bai-mena lortu eban. Berari kendu eta lapurtu eutsena kittutu arte, itxasoetan prantzeztar itxasontzien aurka ibilteko eskubidea emon eutsen. Itxasoetako bizitza beti izan da garratza eta ara agerbide

bat. Etxeberri'k esaten ekiana itxastar baten aotan: Biziagaitik arriskatzen dugu gure bizia.

Etxe eder eta jauregi apañak billatzea errez da Getxo'n. Asko. Betetasun orrek arrotzen dau erria. Bata bestia baiño ederragoak, aberatsagoak, atsegiñagoak. Erri gitzi onetan berau añako txukun.

Zarrak, geratzeko be, gitxi izan ziran. Mariartu'ko torrea Getxo'ko lurren ertzean egonarren, Erandio'ri dagokio.


Ibili ta ibili errota bat ikusten da gaurkoz arrigarri. Aize-errota. Ez da bakarra Bizkaia'n, baiña ez ugari dagozalako. Arnabarri'n, Arrigunaga'ko ondartzaren gain-gaiñean dago. 1957 urte inguruan barriztu eben eta zorionez.

Eta gure monumenturik andiena, gure euskera zelan eta zentan ete dago Getxo'n? Batari itandu eta besteari esan, gauza garbirik ez. Uste baiño euskeraz dakien geiago ei dira. Zenbat? Ez jakin. Irizar jaunaren estadistiketan, 40.650 bizilagunetik, 5.800 inguru. Euneko amabost ez.

Jolaseta, Ondarreta, Ibaiondo, Areatza... izen politak papere-tan erabilteko.

Bisuts-alde, Eguzki-begi, lore-toki... izen ederrak etheen ormetan ipinteko.

Eta biotzetan?



GUEÑES

Guazen Bilbo'tik Balmaseda alderako bidean. Toki guztiak dira ikusgarri eta toki guztiak ezagutu bear gendukez, gure errialdetakoak beintzat. Anaiak gara danok, Bilbo'tik aruntz eta onakoak. Egia esateko, artu-emon andirik ez dogu eukiten alde bat eta besteak. Ba dirudi Bilbo'tik igarotean, ango erreka zabalak, Ibaizabal nerbiotsuak, alkarren urrun ipinten gaitula, Bilboko tokien esan-naiak gogoratuta, Urazandi eta Urazemetikoak.

Baiña mendi arein artean be pozik sentiduten da bat. Etxean. Euskerarik ez da éntzuten an, baiña begira alboetara, edo ta base-ri edo etxarte batetik bestera jo, itandu nun gabizen, eta oartu.

Gueñes'ek, danetara be zazpi miila bizilagun batuko ditu bere ia berrogetak kilometrotan. Ez da beraz erri astuna, alkarren gainekoa, arnasarik artzeko tokirik ez daukana, erdi ittota dabilen erria. Kilometroko 166 lagun. Nai leuke olako aukera bat Bizkaiko ainbat errik.

Ldrez amaikagarren andien da Bizkaian. Eta bizi lagunez, ogetabi erri bera baiño andiagoak dira.

Jakingarri bat. Gueñes ez da beti Bizkaia izan. Gueñes eta Iturriotz, Gúeñes eta Trucios, euren lurren mugak zirala-ta, asarretu egin ziran Bizkaia-gaz. Baiña 1800 urteko Garilla ezkeroz, barriro errialde onetan sartu ziran.

Luzea da Gúeñes. Menditsua. Baiña errez ikusten dana.

Iru-lau toki kendu ta besteak gizarte txikiekin osotutako lurraldeak dira.

Sodupe'n bizi da jenterik geien, Or ikusten dogu batasunik andiena. Milía ta bosteun lagun inguru or batuko dira. Gero Elubarrí, Gueñes, Olarkoaga eta abarretan.

Ibili ta ibili, erderaz entzunarren, euskeraz tutik ez jakiñarren be bertakoak, igarten da euskeraren deituretako errialdean gabiltzana. Emengo tokien izenak, geienak euskeraren sustraia erakusten dabe. Nai eta gaur, asko, biurrituta agertu, naastuta eta gantartuta agertu.

Ikusi. Gaur, errialde bateri, Cucuria deitzen dautse emen, baiña oartu Goikurian zagozala. Tokiak berak erakusten dau esan nai ori bere egoeratik, gertaeratik datorrela.

Beste batzuk La Cuadra esango dautse. Ta Olarkoaga edo antzerako bat billatzen dozu bertan. Edo ta San Miguel de la Cavex esango dautsue eta ala ipini paperetan, eta urteak atzerago begiratu ezkeru, Lakabea dala irakurriko dozu.

Eta ementxe billatuko doguz, oraindik gárbi garbi, auzoak eta etxadiak euskal izen jatorrez. Emen baserriak deitzen dautse, jator deitu be, etxe inguru orrei. Ainbat izen jator lasier jakingo dozuz: Amabizkar, Arangoiti, Artekona, Basori, Eloizeta, Lejartza, Otxandotegi, Santxosolo, Sologutxi, Yorgi eta abar.

Ikusten denez, gure izkuntzaren sentidu pixkat euki ezkeroz, laster igarten da errialde onetan, iñoiz, bertan bizi ziranak, geuk lez berba egingo ebela, nai eta gero, gizaldien gabea, ez jakin zegaitik, berbeta ori bastertzen asi eta laga.

Gueñes'ko Andre Mariaren eleiza, Saltze'ko errialdeko lenengo eleiza zala esaten da eta Bizkaian jaso ziran elizarik zarrenetakoan artean sartzen da.

Coscojales'en esanetan, 1170 eta 1214 urteen bitartean egiña da, eta Saltzedo'ko kontsejua osotuten eben bost errialdeentzako.

Luzaro inguru oneitako parroki bakarra zala ba dakigu.

Atadi ikusgarria dauka.

Jakingarri da Andre Mariaren omenez jasotako parroki bakarra dala, gañera, Enkatasifioetako alde onetan, Enkarterrian.

Andremariaren irudi zarra, imagiña zarra, lenengotan kendu egin eben aldare nausitik zaartua egoalako, eta alboko aldare baten laga. Gero bere barri galdu zan.

Eleiza onek amaika abade be euki zitun bere serbitsuan, nai ta eleiza onen menpe egozan ermiten ardura be eurak eroan bear. Ainbaí ziran Santa Marina, Iturriagako San Martin, Lizarragako San Miguel, Sodupekoa, Olarkoagakoa, Legarza, Goikuria, Lakabea eta abar. Geien oneik XV gizaldian jasoak.

Bein Gueñes'ko kontsejuak, on ustez, erabagi bakan bat artu nai izan eban. Illetak (entierruak) eta ondrak beti be domeketan egiteko. Baiña abadeak gogor jaiki ziran eta bertan bera laga izan

eben erritanak euren gurari ori.

Euskeraren errastuekin ibili gara len. Jarrai daigun. Gueñes-eri, lenengotan, Saltzedoko batasuna deitzen euisen. Gueñes, izan be, Saltsedo aran edo ibaneko errialdean buru zan, bertako kontseju.

Saltzedo eta Gordexola, toki askotan naasiu egiten ziran. Basualdo izenez ezagutu zan inguruan zan bien bitarteko muga.

Bein, 1506 urtean, erri biak, Gueñes eta Gordexola'k, alkarren artean eukiten zituen asatreak eteteko asmotan, mugak garbitzea erabagi eben eta ikusteko da, orduko tokiak, danak euskeraz deitzen zirala: Orrela eroan eben muga: Basualdo'tik Mondona'ra, andik Arrastiko'ra, gero Berbiz'era, eta andik Larreara. Gero Larregi igaro eta Otxandotegiko errekarra sartu ziran. Bolibar eta Galarreta izeneko etxadien gaiñetik, eta andik Sodupe'ra. Emendik larto'renetxe ingurutik zear, Bonietxe'ren sagastira eta andik Sarria'tik zear, Sarriaxola'ra, Gordexola alboan lagata.

Muga au betiko ipini eben. Esan. Gero barrero asarreak bizi-bizi ezagutu ziran beintzat.


Sasoi baten Gueñestareki Gueñes'ko zamudiotarrak deitzen eutsen. Zegaitik? Etxe-jaunen deituretatik.

Orain bosteun urte, Bizkaian, geienak izkilluekaz, armekaz ibiltzen ziran. Ainbestean bananduta egozan alkarren artean. Ainbesteko ikusi ezin, gorroto, asarre, eta griña gaiztoa alkarrentzat. Sasoi aretan Mendieta eskribaduak esaten ekian lez, bizkaitarrak olgetatzat euken gerria eta eurentzat bakea egon ezin edo bizi eziñeko egoera zan. Origaitik burrukaldi asko egiten ziran gitxien uste zanean. Bein Gueñestarrak Basauri'ra joan ziran illeta batera. Bidean, Basurto'n, ortu lanean gizon bat ikusi eben. Igarri eutsen Basurtoko etxejaunen morroi bat zala eta beste barik il.

Ori ikusi, basurtotarrak batzarrean batu, eta gueñes eta zamudiotarren aurka urtetea erabagi eben. An il eben, eurak be, Pedro Zorrilla bat. Ortik, berialako baten, egun bi edo iru barru, Karrantzako alkatea eriotzara kondenatu eben. Orduko eriotzea, ibaian, errekan, urik geien egoan tokian sartu eta an itto eragitea zan.

Egitura onek barrero odolak berotu eta inguru oneik odol bilduz ere doo odol garrez igaro zituen denporak. Mingarri. Itsukerieren ondoren latz. Orrela,, emen Gueñes'en, Santxosolo deitzen dan tokian, Saltzedo'ko zamudiotarrak Marrokin eta Anunzibaitarren aurka luzaro ibili ziran. Eta ainbaten eriotzak kontaten dira bertan.

Orra Gueñes aldeko jakingarri batzuk.



IBARRANGELU

1771 urtea zan. Naparrerria gogor agertu zan urte orretan Bizkaia'n. Ainbat kalte egin zitun gaixo onek. Oraindik ez zan iñor gertuten eztitzeak, bakunak artzera. Bildurra, siniste-eza, biurrikeria, dana dala.

Lekeitiar osagille bat, Luzuriaga jauna, keixu ebillan orretan. Arduratsu. Osagille lez ba ekian zerbait egin eikeana. Paris'en entzute andia eukan Gatí baten eztitzeko erak. Baiña gaur baiño atzerapen eta fede gitxiago egoan gauza barrientzat. Gaurko zabalkunde eta erakusteko bide eta erarik be ez egoan. Onerako baiño okerrerako ariñoago etsiten ziran olako gauzak.

Luzuriaga'k Gazteiz'en egin eban itzaldi baten, bere eguneroa irakurri eban. Bere ikusiak eta ikasiak, bere oarrak, bere us-teak, bere itxaropenak eta ametsak. Eta bere ezezenak be bai.

Milla eta berreun eztitze edo bakunatzeko egin ziran urte orretan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia'n. Bat bakarrak gaitz egin eta ain zuzen be Luzuriaga berberaren alabeari gertatu ori.

Ibarrangelu'ko kontuetan jakingarri onek ez leuke zer-esanik eukiko, kontuan euki ezik Bizkaia'n osagille arek egindako lenengo eztitzeak, lenengo bakunak, ain zuzen be Ibarrangelu'ko zortzi gaztetan egin zitula.

Orra Ibarrangelu naparrerriaren aurka zerbait egin bear zan kontzientzi eta kezka.

Bein eztitzen kontuan asi ezkerro, gogoratu daigun erbestetik etorri edo ekarritako eztitze edo bakunak baiño naiago ebela emengoak, lengo zarren eta sasi medikuen oiturei jarraituz, norbe-

re zauri edo gaixo berberaren gogorkeriak, kalluak edo ondorenak jan eragitea, orrela eztituta gelditzen ziralakoan.

Ain zuzen be Nabamiz'ko pleitu bat gogoragarri da. 1746 urfean, ango ebakitzalle eta odol-ataratzalle zan Martin Azkarate'k auzi bat ipini eutsan bertako Errose Ikazuriaga'ri, ezelako gertaera barik sendagintzan sartuta ebillalako. Au da, sasi-medikutzan ebillalako. Ibarrangelu'ko ebagitzalle eta odol ataratzalle ziran Martin Ibairaran, Baltasar Igartua eta Jose Uriarte'ri deitu eutsen testigu lez andre arek. Oneik ezin ukatu izan eben Juan Bengoetxea bat, era orretan, andre arek osatuta gelditu zala.

Osasun bideko da au be. Ba zan gure azken gerra aurrean Ibarrangelu'n botika bat. Inguruetan esaten ekien iñun botika egoki bat billatu bear ba zan, emen egongo zala. Bertako botikarioak, Patxi Arrotegi'k, iru-lau osterata egiten zitun urtero erbestera aurrerakuntzen billa bere entzute on ori zaindu nairik.

Milla lagun inguru bizi lagunetan. Gaur, bear ba da, eldu be ez ainstestera. Orain 50 urte, bosteun geiago.

Errian, Elexalde eta Akorda sartzen dira. Amabost km. lautu danetara be.

Sasoi baten, Elantxobe be, erri legez, Ibarrangelu zan. 120 urte inguru dira banandu zirala. Origaitik ibarrangelutarrak itxas giroa euki izan dabe beti, eta, elantxobetarrak ibarrang"elutarren odola. Elantxobe erri biurtzean, emengo asko joan ziran ara. Origaitik asarre eta txikikeri ugari egoh ziran. Baiña ba dakigu baserri eta itxas ertzak giro ez bardiñeko izaten dirala, batez be pentsakeran. Alkarren ez bardintasanak ortik etorri eikezan emen. Elantxobetarrak, eurena lortu ebenean, destañez, ganbela buru deitzen eutsen Ibarrangelu'ri. Eta beste a geitu: jan bearra ta...

Erri polita. Aize^sua. Gaiñetxoan, ikuspegi zabalak, ederrak. Aitzaki bat kalean: aldatza. Mendi arteko gora-bera, ondorena. Ba dirudi emengo kapitan edo pilotoak, itxaso zabaletan aspertuta, itxasoaren aize ta txipristiñak galdu barik, itxas ostean, abaro epe-lagoak billatuta egin nai izan zituela euren bizitokiak. Etxe ederrak, zabalak, txukunak. Itxastarrak, merkanteetako «puenteetan» estu sentiduten ei dira luzera begira. Emen, barruago, sotondoago ikusita be, naiago dabe zabal eta patxadaz bizi. Ondo bizi be. Bake-tan. Aingeruak lez. Esakera be ba dago: Ibarrangelu, milla aingeru.

Gaszteak ez dauke lan tokirik bertan. Ori da mingarri. Eta erbestera urten bear izaten dabe. Gernika aldera, Bilbo aldera. Ibarrangelu, urtiakaz, uda toki biurtuko da eta neguan, itxasoetan aspertutako agure ta sendi baketsuen erri.

Ondartzetarako bidea zabaltzen ari dira eta orrek be mesede

andi egingo dautsa uda aldian.

Emengo parrokia San Andres'eri eskiñia da. Arku bakarrekoa. Luzea. 106 oin luze eta 51 zabal. 60 urteko parroko bat, bertako semea. Eta Akorda'ko eleiza be bere gain.

Emen diñoenez Ander deunari eskiñi eutsen parrokia, baiña ez San Pedro'k bere oiñik sartu nai ez ebalako. Esaten dakienez, bein San Pedro Atxerre'n bera etorrela, bere urratsa laga nai izan eban eta oin bat Armendurua'n sartu eta bestea Ibarrangelu'ko arri-gain baten. Origaitik arri aretan ikusten zan urratsa, oin baten neurrikoa, San Pedro berberarena zala sinistuten eben bertakoak.

Parrokian, ikusgarri eder, benetan baliotsu eta maitagarri. Iñuria'k egindako Errukiaren irudia. Artista on orren eskua bizi eta sendo igarten da bertan.

«Fray Martinus de Ascensione, ex Varanguela Cantabriae...» Zer pentsatu, zer idatzi eta zer esana sortu izan dau Nagasaki'ko martirien kontuetan agertzen dan esakera orrek.

Urte luzetan ibilli ziran, bakoitza bere eskubidearen billa, Bergara eta Beasain. Eta irugarren bat ixillik: Ibarrangelu. Ixillik?

Emen, igarri barik, ezer esango ez ba litz lez, Agarre erdiko izenez ezagutzen dan baserriari, santuaren etxea deitzen dautse. Nagasaki'n, beste ogetabost lagunekaz batera, 1597 urtean, ara joan eta urte bete baiño len il eben prantzizkotar praille gazte a, emengo jatorriko zala esaten dabenak ba dira. Istori egilleak garbitzeko jakingarria da ori. Gu esakera eta emengo gora-berei lotuta gagoz gaur.

Aita Galdos bat ibili zan arazo ori argitu nairik. Berak egindako lanak irakurri al izan genduzan gure gazte denporetan. Urkijo'k be, Aita Uriarte'ren sermoietan, arek Bermeo'n egindako sermoi bat billatu eban. 1862 urtean egiña zan itzaldi a. Arek be esaten eban: «Ibarrangeluac ango semia dala, Acordatic Ibarrangelura guazala bidearen bee aldian daguan baserri Aguirre derichon baten jaijua dala...»

Sasoi aretan orainaiK toki askotan jaiotzak ez ziran liburuetan idazten. Eta orra, gerorako, agiririk eza. Baiña emen, oraindik, euren santua gogoratzen dabe, Otsaila'ren bostean, Agata deunaren egunez. Atal onetan aitatu dogun «ex Varanguela» ori, askok eza-gutu izan dabe Ibarrangelutzat, euskeraz sarri gertaten diralako olako izki bakarrak galtzea eta abar eta batez be erbestetarren idatzi eta agirietan.

Iru baserri dagoz emen Agarre edo Aguirre izenekoak: goikoa, erdikoa eta bekoa, eta erdikoa da santuaren jaiotetxetzat esaten dana.

Oiturak?

Ingurutako erri askoren antzeko.

Josafat'eko zelaian erri batzuetako semeak orma ondoren lotsakor agertuko ei dira, atzea jantzi barik obiratu edo enterratu zituelako.


Eta emengoak? Oiñak lotuta gixajoak. Askori, len geienei, kajan sartu ondoren oiñak lotu egiten eutsezan. Eriotzeak gorputza betiko lotuta laga ez ba leu lez!

Itxastarrak ibiltari izaten diran famatxoa dauke. Gau txoriak. Ama batek bere semeari sarri esaten ei ekian emen... Ia, txotxo, alako baten orreik buruko zoruok amatau eta oiñak lotu... Eta semeak, emengo oiturak bururatuz, erantzuten ei eutsan: Dagonerako kajan sartuta ikusi nai al nazu? lenengotatik erleari be kurutzea ipini bear zeuntzakio, ia argizari on bat egiten daben nire kaskar au argitzeko. Jakiña da, ba, ernen, erlea daukenak, etxeko bat ilten danean, erlategi aurrean kurutze bat ipinten dautsela erleei, bear ba da argizariaren egille langille orrei zeregin ori eskartuteko.

Ba nua. Euskal Finisterre, Elantxobe'ra? Agertu nebazan Ogoño azpiko kontuak.

Beste aldean, arrigorriak ikusten nago. Ereño. Ain zuzen be Gernika'tik Lekeitio'rako bidea laga, Ereño'koan sartu eta laster, eskumatara, asun artean dagon landatxo baten, udabarriko suzen abi eder bat ezagutzen dot.

Baiña suzak edo zizak, denborekaz dabiltz. Eta Ereño or dago beti eta egongo, erriak arri gorri irauten daben artean.



IGORRE (YURRE)

Ez dakit gogoko izango dan edo ez. Parkatu. Yurre izena era-billiko dot. Ezagunena dalako. Igorre, lborre... eta besteak ba daki-daz. Baiña yurretarrei edo igorretarrei laga daioguzan eztabaidak. Onetan etxe beteko zer-esana batu leike. Eta ni erriz erri nabil gain-gaiñetik, pasadatxoan, azal-azaletik agertzen. Ikusi ala esaten, jakin ala agertzen, maixu irakaskintzarik artu barik. Norbaitek esan eustan, akulari, kanpaitorretatik nabillela erriak ikusten. Ordago.

Yurre'n nago. Barriri Arratia'n. Ba daukat beste erriren bat be oraindik agertzeko errialde onetan.

Bost milloee pesetako erri dirutza edo presupuestoa euki dau aurten Yurre'k.

Urak batu eziñik, eta urak jaurti eziñik. Zeatzago. Ur garbiak ekarri eziñik eta ur zikiñak euren bidedatik bialdu eziñik. Errientzako buruausteak izaten dira orreik. Problemak.

Bigarren mallako Irakaskintzako kaiola bai, Institutoa bai, eta txoriak falta. Azken kursoetarako bear aiña ikaslerik ez, kurso osoak emon al izateko. Eta etxea eukita, batzuk erbestera urten bear. Ori be mingarri da. Ala aurten.

Bi milla eta zortzireun bizi-lagun inguru. Irutik bi euskaldunak.

Onela dira nire oarrak.

Albokarien erria. Ba dakiez emen albokegaz kantu garratzak jo eta kanta eragiten be:

Mari Trapuzar, iñarteko
sasi artean jaioa,
egundo bere ez don ikusi
eure gerrian gorua.
Aita ta semea tabernan dagoz,
ama ta alaba yokuan,
ostera bere egongo ditun
abarka zarrak kakuan.

Urtearen azkenean san Silbestre. To! Ba goaz azkenetara. Ba dator san Txilibristo. Esakera da: san Txilibristo, besigua ezpanetatik dingilizka. Ez dakit arrantzaleak be gaur ainbesterik esan leiken. Yurre'n beintzat olakorik ezin esan. Baiña emen be ezagutu izan eben Txilibristo bat. Garamendi'n bizi ei zan. Indartsua. Beste bat ez lakoxe. Burdia lepoan artu eta Urkusu'n gora eroaten ei eban Garamendi'ra.

Bera zala ta lamiñak galdu eta amaitu ziran Yurre eta inguruetan.

Bein bidera urten ei eutsan lamiña batek. Berak indarrez artu eta bere etxera eroan. Bai estu artu be an. Eta lamiñak zelan il eikezan bein da betiko atara. San Joan goizean jaiotako txekor nabar bi iteilleaz, goldeagaz, errekarre inguruetan ibilli ezkerro galduko zirala, autortu eutsan.

Ori entzunaz batera yurretarrak auzorik auzo ibilli ei ziran txekor orreik aurkitu arte. Eta gero erreka eta errekondoetan iteilea erabilli ebenean, benetan be betiko bakea lortu. Arrezkero ez ei da lamiñik Yurre eta inguruetan agertu eta ezagutu be.

Ipuiña? Egia? Ala ba zan edo ez ba zan, sartu dedilla kalabazan.

Kalean nabillela gazte batek itaundu daust: Zer esan nai dau erderaz iurrek?

Ez naz onetan jakitun, baiña pixkat gogoratuz erantzun dau tsat: iur, iurre, erderazko «yezgo» izango da.

-Eta zer da yezgo ori?

-Zer izango dok, ba, mutil: iurre.

Eta or geratu da mutilla, katea nun eten ez ekiala.

Antxiñako erria da Yurre.

785 urtean jaso ei zan Zumeltzutarren etxe indartsua. Indartsuago bat agertu yakon andik urtetara, eta 1055 inguruan, Abendañotarrak deuseztu eben. Eta orde, bere aurrean, ibaiaren

beste aldean, Urkizu torreari ateakzabaldu 1085 urtean.

Beste etxe jator bat: lurre. Napar erregeen odoleko zan Zeii • noz bat bertan bizi ei zan. Ba dira diñoenak erriak etxe onetaiik artu ebala bere izena, au da, ortik datorkiola erriari izena. 1 198 urtean gertatu zan ori, batzuen eritiziz.

Beste etxe jatorrak, abizen askori jatorria emon eutsenak: Ubiritxaga, Egia, Irazabal, lurrebaso, Zuriaga.

Zumeltzu'ko San Andres, sasoi baten parroki izana be, urtien urtetan galtzen da. San Andres onen eleizpean ba egoan illobi zaar bat, azur zaarragoen arka.

Delmas'ek egiña da Zumeltzu'ko ermita onen monografi bat. Eta au diño: 1 7 zabal eta 1 7 luze. Ez torrerik, ez bobedarik. Aldare zar eta apurtua, eta iru imagiña itxurabakoak. Ez sakristirik, ez pulpitirik. Bataiotarako ponteak koru azpian bastertuta. 9 illobi edo sepultura bere barruan, zazpi oin eta erdiko koroa eta bertarako eskillara okerra. Parrokiko abade batek serbitzen ebala.

Elgezua'ko Andre Mari Bizkai'ko eleiza zarrenetarikoen artean agertzen da beti.

Ermitetara ba goaz letani luzea bearko genduke. Bederatzi bai beintzat. Auzoak baiño geiago, auzo lez Basautz, Garbe, Loiale, San Juan, Santa Luzi eta Urkizu kontatu ezkeroz. Santa Luzi'ko ermita be, sasoi baten parroki izan zan eta ingurukoei eleizan bertan emoten eutsoen lurra.

Andra Mari'ko parrokia 1787 urtean anditu eta barriztu zanean, jaunartzeko adiñean egozan 650 eleiztar batzen ziran bertan.

Amarren bat urte dira. trenean niñoian. Gizon andi bat sartu zan Burgos'en. Sotanea euki ez ba leu, baserritar traketzen bat zala esango neban. Sartu ta laster, agur latorra egin *ondoren*, idazteko makiñatxo bat atara, bere belaun gaiñean ipini eta antxe asi zan zerbait idazten. Lo gurea eltzen ba yakun, adierazteko, esan euskun, makiñaren tak-tak zarata etzala ain zuzen be lo kanta-ta.

Geroago asi giñan kontu kontari, ta bere umorezko esanekin, uste baiño len eldu giñan Madrid'era.

Sagarminaga jauna zan. lurretarra jaiotzez. 1890'n. Mundu zabalekoa bizikeraz, mundu guztiko ametsez. Mixiolarien arnasa. Obispo egin bear ebela ta zabaldu zan bein. Berak, ameslari zan arek, orretantxe ez-e beste edozetan amets egiten ei eban.

Kristau fedea zabaltzeko garra erabillan berak. Gizon jatorra, akularia, zorrotza, edozeiñen lagun izan eta egiteko gitxik aiñako zerbait eukana.

Gau baten trenean il zan, erreta. Bost urte dirala-ta nago ori zala. tren bat lez izan zan bere bizia. Ameslarien trena. Eta orrek, trenak, su artu eta bertan erre ta il.

Euskalerritik kanpo ibili bear izan eban bere denpora luzetan. Baifta edozeiñek ekian nungoa zan: iurretarra.

Goazen barriro kontu zarretara. Zar eta barriak.

Gernika'ko batzarretan 65garren emoten eban, eleixateen artean, bere erabagi eta botoa.

Iru burdintegi euki zitun eta amairu errota. Ortik igarri, base-
rriak kenduta, zelako langintza eta bearra egongo zan emen.

Urteera bat eukiten ekien arratiarrak azken urtetan. Bilbo'ko kaira, portura. Ango nasa eta molletako langille. Esku bearretara geienak. Pioitzara. Ango ontzingintzako lantegietan be, astilleruetan be, lekua biilatzen eben. Gaur be ezagutzen dodaz bide ori jarraitzen dabenak.

íurre.

Zornotza'tik Lemona'ra jo eta Arrati'ko ibarrean, lenena. Erri txiki, jator, zintzoa.

Ingurutako errien artean, eguneratzen, gaurko erako ogi-bidea biilatzen, geientsu alegindu dana.

Norbaitek esaten ekian: lurre, Arrati'ko urre. Guk be eritzi ori dogu.



IPAZTER

Sakramentuak zazpi dira ta
oraintxe noia kantatzen,
neure kristauak egon zakidaz
atentziftoiaz entzuten.

Nai neukez Ipazter'eri begira zazpi gauzatxu esan. Eta gorago
aitatu dodan abestiak bere jarraian esaten daberen lez,

Lenengotako sakramentua,
batiatzen gareanean,
erijiatik sartu oi gara
Jaungoikoaren legean,

nik be «erejiatik» sartu nai neuke Ipazter garbi eta aizetsu
onetan.

«Ereja» dira ta, euskal lurrarentzat beintzat, gaurko keiak, zi-
kinkeriak, loikeriak, gaurko kimikak eta indar barriak...

Baiña Ipazter bere ain garbi ete da? Ez ete leikioz berari go-
goratu bertakoak len sarri erabilten ekiezan kantak?

Ezpan koral ederrak
ondo lur egifrik,
begi zuri ederrak
gutziz ezaindurik.

Ingargintza sartu da Ipazter'en.

Ereja?

Ingarrak, kartoiak dira. Iztegi batzuk ala diñoen: Ingarrak (cartón).

Ingia papela da. Eun-gi'tik dator. Eun (egu-un), erderazko lienzo, tela, esangurea.

Gaur Ipazter'en kartoia egiteko ez darabile eungik, telarik. Lengo zarrak bai, arek ba ekien erabilten euna papela egiteko. Areina, bai, eungaia zan. Gaur egurra da gai nausia «materia prima» esaten dana. Egurra edo zura.

Gaur kartoia egiteko oi diran gaiak kontuan eukita, ortarako izen berezi bat egitea edo sortzea ba litz, zer izango eta litzake egoki?

Erejiatik sartu naiz Ipazter'en. Kartonajea, kartoi-fabrika eta antzerako berbak entzuten diran errietatik nator. Eta ara emen ingargintza billatu.

Lengo abestia gogora datorkit: Erejiatik sartu oi gara Jaungoikaren legean... Gure inguruetako erejietatik sartuko eta gara ba ipazter'en euskeraren garbi-gintzan?

Aiz, aiz orreri, Lekeitiarrak Earrari. Ala esaten dabe inguruetan. Eta Ipazter erdian dago. Zer ete diñosku erri onek?

Bein, Jose Antonio Uriarte frantziskotar praillea Bilbo'ko San Nikolas'en sermoi egiten iñarduala, entzuleen artean Luis Luziano Bonaparte printzipea gertatu zan. 1856 urte inguruan. Eta arerr euskera ederra entzunda, Biblia euskeratzeko eskatu eutsan. Eskatu, agindu eta egin. Iru zati agertu ziran beintzat. Uriarte bera ez ei zan ausartu berak bakarrik gipuzkoerara itzultzen eta beste batek lagundu eutsan orretan.

Nuntarra zan Aita Uriarte?

Arrogorriaga'ko seme lez agertzen dabe danak. Bai? Geldi. «Auñamendi, Enciclopedia General del Pais Vasco, Diccionario, V garren liburuan, 52 orrialdean, au irakurri lei: «A pesar de ser natural de Ipaster y por lo tanto vizcaino, Uriarte tradujo toda la Vulgata en dialecto guipuzcoano».

Liburuen «erejiak» garbitzen sartu bear ete gara ba Ispazter'en?

Ipaztertarra bai Aita Agustin Basterretxea. Jesuitea. 274 urte jaio zala eta 213 il zala. Eta oraindik aren bertsoak abestu egiten dira. Ez bat eta bi bakarrik, irurogetak baiño:

Jesukristori kendu ezker
pekatuagaz bizitza,
baldin ezpadot negar egiten
arrizkoa dot biotza.
Guztiok lagun
kantatu daigan
bere penazko eriotza.

Orrela asten dira.

Nire errian, Ondarru'n, aste santuan, Kristo iruditzen'dabenak abestu eta erriak erantzunez, bertsuok izaten dira eleizkizun nau-sien aurretik jentea eleizan batzen dabenak. Origaitik, eta orretarako, Ondarru'n «Kristok» abots ederra eta garbia bear izaten dau.

Emen be ba dago «ereji» txiki bat garbitu bearra Ipazter'en omenez. Aita Villasante'k bere «Historia de la Literatura Vasca» liburuan lekeitiartzat agertzen dau Basterretxea, bertso onein egillea. Eta Auñamendi saillean, «Literatura I», bardin. Eta Aita Santi Onaindia'k, «Milla Euskal-Olerki eder»en.

Egia esateko, azken onek, Onaindiak, oraintsu agertu daben Euskal Literaturan oker ori zuzenduta dakar eta garbi agertzen dau Ipazter'en jaioa dala.

Pasiñoiko bertso oneik zabalera andia euki eben Euskalerrri guztian. Ainbat edisiño edo argitaltze egin ziran eurenak. Aita Galdos'ek, bere denporetan, 21 argitaltzetako agiriak billatu zitun. Edisiño askotan be irakurten da egillea nungoa zan. Ala, 1 832 urtean Tolosa'n egin zanean, garbi esaten da: «Yesucristo gure Jau-naren pasiño santua Aita Basterrechea ipaztertarrak ta yesuiteac Giputz euscuerazco bertsoetan imini eban. orain urtetan da Biz-caicoetan garbiago, neurtuago eta bizcorsheago. Tolosa 1 832».

Beste liburutxo batzuk be egin ebazan Aita Basterretxea onek; bat Aita Cardaberaz'ek gipuzkeratu eban.

Bere liburuok bertsoetan egiten ebazan. Bear ba da sasoi are-tako giroan errezago izango zan gure gurasoei egi biribillak bertsoetan sartu eraztea, eurak kantatuaz sarri gogoratu egiezan.

Ipazter, Amoroto eta Gizaburuaga'k luzaro euki zituen asarreak, eta ez txikiak, Lekeitio'ko parrokiagaz.

..., Erri oneitako parrokiak, Lekeitio'k bere menpeko lez, bere e'f'm.itá lez eukiten zitun. Sasoi baten 1 8 abade be egon ziran Lekeitio'n, parrokiak. Amar eskubide osoko, eta besteak eskubide erdiko edo laurdeneko. Eskubide osokoak amarrak San Juan bezperan batu eta euren artean izentatzen zituen erri areitako serbi-tsariak. Ipazter'erako bi.

Berrogetamar urte inguru egin zituen erri oneik Lekeitio'gaz asarretan. Azkenean be, 1519 urteko Epalla'n lortu eben jaubeta-sun osoko parroki lez ezagutzea, ortarako bataiotarako urbedeinkatu ontzia, illobi edo sepulturak eta abar eleizetan ipintze-ko eskubidea lortu *ondoren*. Leon X'rrena izan zan Aita Santu. Eta gauzak baketan egiteko Salamanca eta Leon'go obispoak eta Calahorra'ko dean'ak artu eben banaketako agindua.

Asarre oneitan iñarduela izpaztertarrak esaten ekien parroki bat eukiteko aiña jente ba eukela, sasoi aretan 70 etxe eta autor-tzako premiñetan egoten ziran 270 bizilagun batzen ziralako bertan.

Euskalerriko eleiza asko XVIgarren gizaldiko lenengo zatian egin, barriztu edo zabaldutakoak izan ziran. Amoroto eta Ipazter'ekoa eleiza, Begoña'koagaz batean, 1519 urtean egindako lez agertzen da.

1 12-oin luze eta 57 zabal.

Ikusgarria aldare nausiko erretablua. Be aldean, apostoluen irudiak, lau zatiko predela baten. Eta gorago, illara baten lau, gorago beste lau eta gorenean biko illaretan sartutako plafoietan, Martin deunaren bizitzako irudiak. Irudietatik jatorrena, zaindariaren irudi berbera. Inguruetan taillugille onak zirala igarten da. Ala ta be zatika egiñak dira plafoiak, edo beintzat ala dirudie, eurak alkartzeko egurrak bestelako dotoretasun bakoak diralako.

Koroa eta torrea geroago egiñak dira. Orain eun urte inguru.

Ba zenkian edo ba dakizu perrotxikoen artean arrak eta emeak egoten dirala?

Agustin Zabala mediku jakintsua Ipazter'en osagille lez egoala, ikasketa sakonak egin zitun zugatz edo arbola ostro eta adarretan urteten daben ondo arda, ondo agarikoen birtuteetzaz, osakutza eta ebakuntzetan batez be.

Arrak eta emeak egoten ei dira. Ondo arrak ez ei dabe balio, emeak bai osakuntzetarako, operasiñoetarako. Eta emien artean be iru mota edo klase ei dagoz, Ebakuntzak egin ondoren odola barriztatzeko berebizikoak ei dira.

Eta bere esanetan, errialde batzuetan ondo egokiak billatzen ba dira be, berak Ipazter'en billatutakuak ez ei euken iñungo aitzakirik.

Ipazter gaur:

900 bizilagun. 22,68 kilometro lautu lurretan. Berak eta Mendexa'k tartean estutzen dabe Lekeitio. Kontuan euki Lekeitio'k, bere lurretan, km. kuadratu bi ez daukazala.

Auzoak: Arropain, Artika, Barainka, Kortazar, Kurtzia, Gallete, Gardata, Larrinaga, Mendazona, Solarte eta Solaun.

Bertako seme ospatsuak: Jazinto Arana. Inkisidorea. 1727'n Zamora'ko gotzain izentatu eben.

Beste bat: Joannes Amiax. Naparroa'n abade egoala, Codes'ko Ama Birgiña'ren edestia egin eban 1608 urtean. Bere liburuan Bizkaiko Ama Birgiñen irudien gorabera asko agertzen dira.

Beste bat: Antonio Atxabal eta Olabe. Santiago'ko zaldun

izentatu eben 1700 urtean.

Eta Domingo Atxia. Colon'egaz Ameriketara joan zana eta antxe Navidad «fuertean» il.

Orra, azal-azaletik, Ipazter.

Itxas ertzean, itxasoan muga dabela, baiña arrantzale bako erria. Bere auzorik gorenak, Barainka eta Solarte, itxasotik 140 metro gorago egiten dira.


Ipazter, kai barik, portu barik, eta itxasoari musuka. Eta laster. Jndartegi barriak bere izena zabalduko ete dabe?

Nire geroagoko osteretan Ipazter'en utsuna andi bat billatu dot: Don Jose Abade zarraren itzalik ez da geratu.

Zarra ta beretarra zala. Baiña ba ete dakigu larogetak urtetako zar baten bizi guztiko ezaupideari lotsa apur bat artzen?

On Jose Intxusagarri Itza, euskera garbiaren aldezte sutsu izan zan, arnasa galdu arte.

Irizpide batzuen egokitasuna kanpotarrak itxuratu leikie, baiña irizpideen zintzotasuna norberegana dago ta onetan don Jose berakatz atala baiño fiñago izan zan. Geroago igarriko da bera la-koen utsunea.



LARRABETZU

Santander aldetik gentozan Bizkai euskaldun errira.

Barakaldo zear ostopo ugari egoten dala ta Somorrostro'tik Zierbana'rako bidea artu dogu.

Zierbana. Sasoi baten Bilbo'ra urreratzen ziran itxasontzien gidariak, pratikoak biziten ziran emen. Portu txiki. Bizibiderik atara leiken erretzasun gabeko. Itxaskiak, mariskoak jateko aitzakiz etorten dira bertora bilbotarrak. Orretarako gertatu ditue bertako jatetxeak.

Santurtze ta Portugalete gero. Eta kotxetik urten barik zubia igaro, Bizkai'ko aideko zubi entzutetsu ta ikusia igaro, ta Getxo'tik zear, Lexona alboan lagata, Erandio'ra.

Osagille bategaz nator kotxean.

Euskeraz entzuten dan tokietara eldu gareala ta pozik bera. Sekulako eztabaidatan gatoz. Gure idazkera, gure izkiak (letrak) eta abar. Ori bai. C izki edo letrarik ezin dau ikusi, sarri erabilliarren. Bildur dautsa.

Gure zaar guztiak beste mundura eroaten dituen gaixoen asiera ei da. Ez zenkien? Cagalera, caida, catarro. Orra iru ezagunenak. Ain zuzen be asiera bardiñekoak.

Eta colera, zirikatu dausat nik.

Baita, ori be bai, berak.

Eta ez zarrenak bakarrik. Gaurko gizatasunaren gaitzik oker eta bildurgarrienak be, c letra orrekin ei dabe asiera: Cancer, carretera, corazón.

Ene bal, esan dausat. Ain zuzen be gure Bizkai'ko b andiagaz asten dira ba irurok gure berbetan. Ezin esan euskaldunon «b de

burro» gaz, erdaldunak eta maixuak sarri esaten dauskuen lez, gure **astoak**, ain zuzen be, buztana euki arren, euren esakeran b'rik eztabe ta, baiña geure b batu eta biribillagaz dauke ba asiera.

-Adarra joten?

-Ez, egitsu. Begira: Bizia, bidea, biotza.

Nire urteera bere agendan idatzi dau medikuak.

Ba goaz aurrera. Ara bat baten berak frenoak bultz egin eta kotxea geratu.

«Koiu, koiu»!, ziarduen umeak, gure asarreari jaramonik egin barik, kotxearen errubera azpira jausi yakoen pelotea artzeko-ta. Koiu, koiu!

Larrabetzu'n gagoz. Beste iñun ezin entzun deitura oii, emen lez.

-Adiskide, «koiu» ori zelan idazten da?, jardetsi dautsat akulari.

Eta gure asarrea gordeta, plaza ta bide kurutze dan erri barrura sartu gara.

Larrabetzu. Sasoi baten Berresonaga. Edo Barrazunaga, orre-la be irakurten dalako liburu batzuetan. Baiña eleizatea nausi: Larrabetzua. Gogoratu, Mungiaren antzera, izen bereko eleizatearen lurretan sortutako erria dala, edo erri legea ango lurretan artua.

Eleiza zarrak emon eutsan izen eta entzutea bera auzoari.

Eleiza ederra, uri burutik, plazatik kilometro bat ingurura dagona, Gernikarako bidearen egalean. Bertatik auzo onen izena be: Goikoelexea.

Bizkaiko eleizarik zaarrenetarikua da. Emeteri eta Keledoni santuen omenezko lez ezagutzen da. Baiña esan dogun denporetako eleiza izanik, Andra Mari eleiza edo deitura obeto dagokio. Kontuan euki, Emeteri eta bere lagunaren oneraspena, debosiñoia, XVI gizaldiaren buruan sartu zala Bizkaia'n. Larrabetzua'ri erri legea emon eutsenean be, Berresonaga'ko Andra Mari eleiza izentatzen da.

Emen be zin edo juramentu egin bear izaten eben Bizkai'ko Jaunak edo euren ordezkariak.

Euskaldunak kezkatu izan giñan orretan.

Eleiza onen aurrean, arrizko kurutze ederra, Elorrio eta Durango'koen kideko. Fiña. Ondo egiña. Kurutzearen atzean, Andra Mariaren irudia, bere Semea billotsik bular artean dabela.

Maitasun irudi samurra. Urtearen barri bertan dauka: 1 572.

Eta geiago?

Bai irakurle. Larrabetzu txikia da baiña ugaria. Ara bixkor, zertzelada batzuk: 1974 urtekoak dira.

Bi milla lagun inguru.
20 kilometro lautu, kuadratu.
Bost auzo: Gernika'rako bidea laga ta eskumatara, Berresonaga. Gorago Erginko.
Bide orretan, Goikolexea eta Astoreka.
Mungia'rako bidean: Gaztelu.
Lanbidea: Bilbao'ra begira.
Oiturak: Oraindik baserritarrenak.
Izkuntza, berbete: Txori-erriko doiñu eta egiturekin.
Urrutizkiñak, telefonoak: 100
Trena: Lezama'n artu bear.
Jaiak: Andra Maritan.
Jai erdiak: San Juan, Santa Ana, Aingeru jagolea, San Bartolome eta San Salbador. Ermitak aiña. Eta jakiña, Epalla'ren irukoa, Martikoa jai eguna.
Egoera: Bilbao eta Gernika bitartean, ia erdiz erdi.
Industria: Txikia.
Erri arduetan: Bilbo Andi'ko lurraldian sartzen da. Egalean gelditzen da. Mesedeak nekez eltzeko eran. Baiña lurralde orretako goraberak erabiliko dabe.

la seireun urte dira erri nortasuna artu ebala. 1376 urtean.

Bizkaia'n nortasun ori, erri batzuk jauntxoeren eskabidez artu eben. Ala, esate baterako, Markina eta Elorrio'k. Beste batzuk baserritarren edo laborariaren eskabidez. Ala Errigoiti, Larrebetzu eta Mungia'k.

Sasoi baten entzutetsu izan ziran bertako burdiñolak: Arbieto, Goikolea, Zubieta. Euretako errementariak euki eben inguruetan dedu oneko irabazpidea. Bat aitatzekotan Juan Agirre'ren izena gogoratu bear.

Armarridun etxe eta jauregiak be ba egozan. Batzuk oraindik zutik dagoz. Beste batzuk baserri biurtu ziran.

Bizkai'ko erri bizikeran, nortasunean, euki eban Larrabetzua'k berezitasun bat.

Gernika'n batzarrak egiten asi aurretik, Larrabetzu'ko lurretan, Aretxabalagana tontorrean batzen ziran iñoiz, errien ordezkariak. Aritz andi bat egon zan bertan. Eta Bizkai'ko Jaunak juramentu egin aurretik, an batu bear izaten eben errietako ordezkariakin.

Aritz arek lauren urte baiño geiago eukazan, karlisten gerran ondatuta geratu zanean.

Gaztelu auzoa ezagutu nai izan dot.

Oraindik buruko zapiagaz bere moñoa estalduten daben andre bat agurtu be bai, solo egalean. Plaza gizonak egoten diran lez, andre arek be ba daki ukondoa nun daukan. Eta eztarri labana, garbi eta zorrotz berba egiteko.

-Zer dago ederrik emen?

-Ori be itandu, pregunteu? Bilbotar geienak, gurariz eta kapritxo betetakuak beintzat, inguru oneitako orfuariekaz bizi zarie ta ori be itandu?

-Bilbotar asko etorten al yatzuz euskeraz berba egiten?

-Ara, zarean lekuko zareala, zilbor ederra daukazu, eta bilbotarra ez ba zara be, zoaz Santo Tomas'etan bertara eta ikusiko dozu Larrabetzutarrak aiñako gauza ederrik nok eroaten daben. Eta ez gauza bakar batetik bakarrik. Edozetatik.

A! Baiña patrikara onagaz joan, guk be bizi bear dogu-ta. Ez pentsatu gure piperrak peseta bitan eroaterik, ez eta gure lukainkak bost-sei pesetatan, ez eta gure kapoirik be, kimikaz este guztiak erreta daukezan granjetako'egaztien parean.

-Geldi, geldi andrea.

-Gejdi zu, Larrabetzu'n zagoz eta nik daukat berbea.

-Origaitik ba. Zuk daukazulako berbea, entzun nik esan eta jakin nai neukena.

-Jakin asko eta egin git'xi.

-Errementaria zorretan beti.

-Lengo enbidoari ordago joteko da.

Gabonak aurretik nai neuke nire odolaren ibilketa edo zirkulasiñoia pixka bat konpondu. Ba al dakizu orretarako baserri edo etxe-erremediorik?

-Ze pentsaten dozu ba, andra gaixoa edo monjea naizela dana jakiteko?


Jakizu Larrabetzun osasun ona daukagula eta monjarik ez dogula.

-Zuk esan ezkeru, nik ezin ukatu.

-Ala bearko. Eta dana eztakit baina ori bai. Odolari ten eragin eta ibilli eraziteko ara erremedio bat: Marraskilluak bizirik artu, zapal-zapal egin pixu bategaz, zapi edo trapu baten batu ta oiñazpian lotuta ipiñi ta euki. Ikusiko dozu zelako tengadea egingo dautsen zure odolari.

Eta marraskilluak be, Larrabetzu onetan lakoak, gitxitan gero. Esan bestela, nun.

Nire adiskide osagillari kiñu egin dautsat. Eta bai esan be irribarrez berari: Koiu, koiu orreri!



LEKEITIO

Lekeitio, liburutatik, erri gogorra, gerra zalea dala dirudi: «Reges debellabit...erregeak be makurtu ebazan».

Mendexa ingurutatik begiratuta, -zegaitik ormak urdintzean ainstean baltzitu Mendexa'ko kanpaiak?-, Otoyo ikusten da itzal, illun eta zital.

Bein arrantzale zaar bat, batelean ebillen, illen, Otoyo aurrean, olatuen mendean. Nekez eta larri lortu eban ekaitzari gain egiñaz liorrari ikutu egitea. Eta bat batez, Otoyo'ra joan zan, kañubeta andi bat eskuan eroiala eta bere estutasunean ain biotz siku begiratu eutsan mendiaren gibelera eldu zanean, kañubetia sartuaz esan eutson: Otoyo, ba daukok odolik?

Gardata gaiñetik ikusita, itxas ertzeko erri zoragarrien antzera, laiñopean, maite-miñean eta urrungaitzez bizi dan erria dirudi:

Itxaso laiño dago

Bayona'ko barraraiño...

Edo ta Iratzeder'en bertsoetan,

«Bizkai aldetik Lapurdiraiño itxasoaren mintzoa,
arkaitzen arkaitz, musika mulika, batasun kantuz ba'doa...»

Musikari, olerkari eta ameslari ei gara danok, zerbaitean ba da be. Eta itxas laiñoa pentsakari ei da.

Kalera sartuta, Arranegi'n, gatza ta saltsa. Jatortasuna.

Ni enaz lekeitiarra. Baiña aittitta makurra nun dagon aspaldi ikasi neban.

Euskalerrian jator biziteko zer eskatuko leuken esan eutsen bein. Ameriketatik etorri eta emen ibilli zan bateri.

Erantzuna:

Lekeitiarren gatza,
ondarrutarren fedea,
bermiarren alegiña
eta gernikarren ondasuna.

Lekeitio eta Ondarru auzoak dira, baiña kilometro asko bitarteko. Eta errebera, errebuelta geiago.

Origatik sarri ezagutzen ziran alkarri tirrika, asarre andi barik, baiña alkarri txopinka.

Bein, 1854 urtean, orduan noz nai egiten ziran estropadak txalupen artean, alkarri desapixua bota eutsen txalopa bik, lekeitiarra bata eta ondarrutarra bestea. Eta ondarrutarrak atzetik eldu ziralako, lekeitiarrak bertsuak atara eutsezan:

«Ondarrutar orreik egin dute plana
egin bear dutela egun artan lana,
amurratzen jarri da Lekeitio,
aurten urrikarri da oien kontra doana».

1926 urtean, Ondarru'k Donosti'n irabazi ebanean, lekeitiarrak ez egozan Ondarru'ren alde. Ondarrutarrak bertsuak atara eutsezan:

«Lengo igande batez
aditu dedanez,
korridak zeudezela
jakin det zezenez
Santurtziarrak Kontxan
bazetozen aurrez:
aurten ere kukuak
jo die aldrebes,
Lekeitio'ko atsuak
or dagoz negarrez».

Egia? Asmakizuna? Orra bertsuak. Kittu.

Jakiña da bertsoetako asarreak, kantatzen dan asarreak, ez dabela indar andirik. Umorea geiago, zitaltasuna baiño. Ondarru eta Lekeitio'ren artean lez.

Lekeitio, udan, andi da.

Egokia da udarako.

Baiña Euskalerriko uda illa bikoa da. Eta ezin lei emen erririN turismotik bizi.

Orra problema bat.

Itxas bizitza, arrain langintza eta egurra dira lekeitiarren esku

biar.

Besterik?

Itxas bizitzatik etorri yakoz Lekeitio'ri bere oiturak eta bere ederrak. Itxas bizitzatik bere nortasuna, bere jatortasuna.

Urteetan atzera asko jo ta be, urrunetara joan da be, lekeitiarrak erraz billatzen dira munduaren zabaletan, bai lurraldietako abenturetan, bai itxasoaren apar eta era guztietako asarraldietan.

Ondarru'k baiño urte bi lenago artu eban erri legezko nortasuna.

Gaurko erako 1 325 urtean.

Baiña ordurako Lea ibaiaren urak ba etozan Oiz'tik bera, eta erreka orren amaiean or egoan itxas aurrean kaia. Lea-kai? Toponimian laster billatzen dira eritzi ez-bardiñak.

Antxiñako kartetan irakurten da, bertako bizi lagunik geienak itxastarrak, arrantzaleak edo itxas-ibilleretakuak dirala.

1381 urtea orduko lekeitiarrak kezkatuta ebiltzan kaia, portua, egokitzen.

Euskal portuak arriskuz beteak izan dira beti.

Origaitik, arrantzako irabazien zati asko lagaten ziran mollak egiteko.

Lekeitio'n, urte orretako agiri baten irakurten danez, arrantza-
+en ziran balien mingañen irutik bi mollak egiteko lagaten ziran.

Orrela, kaia gertu eta egokituz, beste erri batzuk baiño aurre-ratuago gelditu zan, bai arrantzarako eta bai sal-erosketarako, komertziorako.

Lekeitio, Erdi Aroan, erri egiña zan. 454 sutoki, fogera eukite-
ra eldu zan. Sasoi berean, Bermeo'k 430 eukazan, Markiña'k 228, Gernika'k 1 73, Ondarru'k 1 67.

Orra neurkin bat.

Sasoi aretan, Bilbo'ren urrengo, Durango, Lekeitio, Bermeo eta Orduña ziran Bizkai'ko erririk andienak.

Sasoi baten euskaldunen arrantzarik nagusiena, alegintsuena eta bear ba da arrotasunik geien erri bateri sortu eraziten eutsana, baleak arrantzatea izaten zan.

Baleak ugari ziran gure itxasoan. Bermeo, Lekeitio, Ondarru eta Zarautz'en, etxean zimenduak artzean, bale azurrak agertzen zirala, diño Rondelet'ek. «Balénidos e mysticetes» diño berak.

Azkenengo baleak lengo gizaldiaren amaieran ikusi ziran. 1 892 urtean pasaitarrak arrantzatu eben bat eta lekeitiarrak beste bat. Gerotxuago 1901ko Mayatzean, oriotarrak be arrantzatu eben bat. Bai bertso ederrak berari atara be. Orra bat:

Gorputzez zan milla ta

berreun arrua,
beste berreun mingain
ta tripa barruak,
gutxi janez etzegen
batere galdua,
tiñako sei pesetan
izan zan saldua.

Lekeitio'n be gogoratzen dira oraindik baletako kontuak eta kantuak.

Lenagoko denporetan, batez beste, urteko bi arrantzaten ziran. Askotan bat bakarra eta urteak ba dira bat-be bakuak. 1 538 urtean, sei.

Arriskuz beteriko arrantza izaten zan berea.

Joanes Etxeberri zuberotarrak, 1627 urtean egiñiko kantuetan diñoan lez, baleetan ebiltzanak «biziarengatik dugu irriskatzen bizia».

Orra, labur, asko esan.

Ortaz gañera, komertzioan alegintzen ziran itxas gizon asko. Kapitan bat billatzen eban diruduna txalupa gertatzera arriskatzen zan.

Orrela, arrantzan edo sal-erosketan, eroan-ekarrian, lekeitiarrak leku askotan ikusten dira: Normandi'ko itxas ertzetan, Genoba ingurutan, Cerdeña'n, Ingalaterra'ko portuetan, Terranoba'n...

Ginea menderatzen be ikusten da lekeitiar bat: Iñigo Artieta.

Ez da itxas giroa, ordukoa, gaurko ontzietatik begiratu bear. Aizearen mende ibilli bear ziran txalupetan konturatu gaitez.

Otoyo, ba daukok odolik?

Otoyo'k ez, baiña lekeitiarrak bai.

Drake ingalandarra ezaguna izan zan korsoen eta piraten artean, XVI garren gizaldian. Bildurra baiño errespetua geiago eutsen areri.

Euskaldunok ez doguz idatzi eta agertu gutarren ekintzak, nai ta gutarrak be korsoen bizi bidea luzaro erabilli.

Drake baten alboan, Iturriaga lekeitiarra ipiñi geinke.

Itxas azeria, esakerak balio ba dau.

Eta beragaz, gizaldi bat lenago, zaarrago, Martin Arizmendi. Edo Pedro Bilbao, portugaletarra, baiña lekeitiarrekin ibiltzen zana.

Itxasoak bitsa dakar. Ez beti zuri zuria.

Itxas ertzean bizi diranak itxas orruak be sentidu izan dabez.

Biotzean eta odolean.

Gogoan daukez galerren andiak. 1 912'ekoa ikaragarria izan zan. Laga daiogun bertsolariari:

«Notizi triste ori
giñan adituak,
egun amasei Bermeoko
ba zirala itsuak,
iru ondarruarta amasei
Lekeitiokuak,
Elantxobetik zortzi
ba dira naikuak,
denak gure anaiak
Kantabriakuak».

Orra, erlaizetan lez, saltoka ta arin, Lekeitio'ren giroa.

Gaur ameslari, iñoiz negarra dario; baiña beti, itxaso ta lego-
rrez, euskal nortasuna erakusten oparo.

Gizonen eguna izaten da San Pedro eguna. Itxasertzeko esan
eta kantua da: San Pedro, gizonak ardaue edateko.

Ardauzale ete zan santu ori?

Arrantzale errietan esaten dana: San Pedro lenengoz arran-
tzara joan zanean, perloiaren antzeko arrain gorri txiki bat, kuku-
txa izenduna arrantzatu ei eban. Origaitik, pozak eraginda, ardao
tragotxo bana eskiñi ei eutsen bere lagunei. Toki batsutan, arrain
gorri txiki oneri, san Pedro arraiña deituten dautse.
Arrantzara joan eta orrelakoa artzen ebenetan lagunei ardau tra-
gotxo eskintzeka oitura egon zan.

Santu oneri aitatasuna emoten ba dakie arrantzaleak. San-
turtze, Mundaka, Bermeo, Ondarroa, Mutriku, Ondarrabi... ixilduak
gogoan eukita. Euren kofradien buru ta zaindari autatuz, aitatasu-
na ta testigantza eskiñi izan dautse arrantzaleak berari. Eta ez
orain, XIV garren gizaldia orduko baiño.

Lekeitio'n, -reges debellavit...-, ba dirudi santu oneri maitasu-
na gordearren, bildurra eta lotsa sartu nai izaten dautsela gizonak
atuntsura urten baiño len, bere irudiari «kilinkalia» eragitean.


Gizaldietatik datorren oitura eta jaia. Itxas egalean irudia go-
ratzen erabili, eta azkenean itxas uretan bustialdi bat emon nai
izateko eran makurtuten dabe, bere eroale diran lau gizonetatik,
aurreko biak makurtuaz.


Lengo denporetan molla mutur ingurutik emoten ei eban ba-
tek irudiari bustialdia emoteko agindua, eta beste batek, santua-
ren imagiña noiz bustiko egoala, santuaren izenean «bai! erantzun
larri. Makurtu, mendetu, bildurra sartu ta indarrez beratu eragin
nairik. Eta gero, bein «bai» ori entzun ondoren, pozez, Kofradiako
kontu gordetzaille izaten zan kaixa gaiñean dantzan ekin, «kaxa-
rranka» izeneko dantza jatorrean.

Lekeitio'ko kaixa eta Ondatrabiko kutxa bat datoz: kontu garbiak eta barruko poza, urteari amaia emoteko. Itxasoa da naiko garraiz. Gogoratu bestela Joannes Etcheberri'ren kantua: «Biziagaitik irtiskatzen dugu bizia».

Atun sasoi sarrera da san Pedro ingurua. San Pedro ta san Pedro txikiz, jai. Egun andiak ez dira bein osoan ospatuten. Biaramona bear izaten dabe. Ardau bitsa. San Pedro'ren kolorea artze-ko. Itxasoak eta ardaauak bardintsu nabartuten ei dabe azala. Gero atun bitsak zer?

Emen ez dago «ala zan edo ez bazan sartu dedilla kalabazan» esaterik. Bein, Lekeitio'n, beti lez, san Pedro eroan eben urondora. Eta ez jakin zegaitik, santuaren ordezkariak, arrotuta, ez eban «bai»rik esan nai izan, nai ta geroago ta ur ondorago okertzen eioala ikusita be. Eta San Pedro benetan busti zan. Eta urte orretan, atuntsu ugari eta aberatsa gertaíu zan. 1947 urtean zan ori. Origaitik ba dakie esaten Lekeitio'n merezi dabela san Pedrok ínoiz bustialdien bat emotea, atuna arrantzatu eta ardaau edateko.





LEMONA

Lemona'n nago. Lemoa'n.

Lemoa, aingeru guztien egoa, da esakera. Ez dakit zegaitik.

Beste edozein erri lako ikusten dot. Keia eta autsa, bestetan baiño geiago. Ortik datorkio bizitza. Erriaren izena daroa etxegintza, argintza eta antzerako lanetan erabilten dan emengo zementu edo arri autsak.

Ezagunak izaten dira urrundik be zementuan dabiltzan erriak. Tellatu gorriak zuri zikin, etxe inguruetak leio, balkoi eta urteerak autsez, ingurutako piñadi eta arboladiak eta ortuak berdetasuna galduta.

Orain 50 urte, 1.600 lagun eukazan erri onek. Gaur iru milla inguru. Euretatik bi milla kalean. Besteak baserrietan.

Kaleko bizi-lagunetan erdiz erdi bertoko jatorrizkoak eta erbestetik etorriak. Izkuntza, berbete be, era berean. Baserrietan, inguru bananduetan, banakak dira bertako jatorrizko ez diranak. Origaitik eurretan ia danak euskaldunak. Batez beste jota, euneko irurogei ta bost inguruk euskeraz egiten dabe.

Ikusi daigun zerbait. Gaitz da emen kontu zarrei eta antxiñako gauzei autsa kentzea. Kendu ala batzen da, saltzeko lain dauke-ta.

Zornotza aldetik nator. Amorebieta'tik, Astepe'tik zear. Txiriboketa'ko bidea deitzen dautse oneri.

Lemorieta auzoa daukat lenen. 500 lagun inguru. Lemoa'ko auzoetatik bat.

Aurreratxuago, erri burua egiten dana: Arraibi. Askotan deitzen dautse Lemoa berari Arraibi.

Toki edo leku au ikusita, eta nai eta be begien aurretik kendu ezin leiken arrizko mendiari begira, itxura baten ez da gaitz Arraibi izen onek zer esan nai daben ataratea. Arraibi=arrí abi, edo arrí obi? Orrela ba litz emen ez legoke buru austerik. Baiña eta Arraibi ori arro edo arrai berbetan sortuten ba da, baiña guk erderazko «zarzal» erakuspena emon bear dautsagunetik?

Orra betiko eskutuak, abizen edo apelliduen esan naia agertzen esan naiak agertu bearretan.

Goazen aurrera.

Eta Lemoa itzak zer esan nai?

Tokien izenak jakin naian asi orduko, itaun au egin daust adisikide batek. Olakoetarako jakin naia, jakin-miña igarten da leku askotan. Nik, onetan, besteak esaten dabena agertzen dakit.

Tokien eta abizen edo apelliduen esan naia agertzen geien alegindu danetako bat Lopez Mendizabal izango da. Beti be mendi edo baserrietara jotzen dabela, ipinten dautse oneri akats lez, bere ikasketa eta lanetan. Dana dala, berak lemoa berbeari erderazko «pastizal» esakera emoten dautsa. Au da, ema=pasto eta ona atzizki edo sufijoa geituta. Eta asierako L ori? Asierako izki edo letra ori protetiko izkitzat erabagiten da. Toponimiko itzetan, berbetan, sarri sartzen da orrelako bat.

Beste nunbaiten «ona» atzekoari, toki esan naia emon barik, gaitasun edo kalidadearena emoten dautse, au da, (L) ema=ona=erderazko «buen pasto».

Onetan ziurra zein dan... Batak eta besteak ez dauke alde andirik, sustraian beintzat. Esan geinke: Ba litz eta ba zan, biak alkarren kasan.

Iru torre egon ei ziran emen: Agarre, Atutxa eta Atutxola. Gaurkoak ez ditue ezagutzen. Euren aztarrena aspaldi galdu zan. Nai eta torre itxura andirik gorde ez, or gelditzen da oraindik Aldape. Torre izatea galduta. Leioak arriz itxita, Metro bat lodiko ormetan.

Eleiza, parrokia, orain berreun urte inguru barriztatu eta len egoana anditu, zabaldu zan. 1758 urtean.

Amasei kilometro lautu, kuadratu daukaz erri onek lurretan. Auzorik urrutienak, alde batera, Arraño. Menditik datorkio izena auzoari. Eun eta ogetamar bizi lagun, batez beste, bertako baserrietan. Mendiak berak 360 metro daukaz goi-neurrian. Beste alderdian, bere parean, auzorik txikiena eta erri-burutik urrutien egiten dana: Gandaria. Eun bizi lagun, danetara be.

Beste auzoak erri-buruaren inguruan egiten dira eta batuago dira.

Jakingarri geiago:

Errialdez, Bedia'ko merindadean sartu izan da Lemona. Ain zuzen be Bedia'ko San Joan'go Kolasiño eta Lemona, biok bakarrrik osotu izan dabe merindade ori.

Burdintegi bat euki eban, Durango'tik datorren erreka egelean. Palaziotarrak izan ziran bertako jaube: Txiriboketa.

Erroten denporetan, bi ezagutu ziran emen.

Parrokia, luzaro, Zamudiotarren zaindaritza edo ardurapean egon zan. Geroago famili orreïn eskubidea Hurtado Amezagatarrak artu eben eta eurekin jarraitu.

Oñaztar eta ganboatarrak erriak eurak nai lez erabilten zitueñean, ganboatarren alde z jokatu eben beti, aldakuntza edo ezpai barik.

Lemona'ko aitzei begira nago. Amaika amak negarrez gogoraten dituen aitzak. Batetik eta bestetik.

1937'ko Maiatzaren azkenak ziran. Bilbo estutzen, gure gerratean. Bigarren Brigadeak Bernagoti eta Euba artu ondoren, eta geroago Urrutxutu eta Legoala, Igorre eta Lemona salduta gelditzen ziran.

Maiatzaren 29'an, Aitzak galdu ziran. Lenengotan errez laga, bertan egozanak inguratuta geldituko ziran bildurrez.

Biamamonean, iru batalloek aurrera jo ta artu.

Bagilla'ren 1'an, barriro galdu eta irabazi. Biamamonean bardin, kontraatake bi egin ondoren, azkenean be gaua soldaduen konturalagateko.

3'an barriro beragaz jaubetu. Bertan sartuta egozan soldaduak nausi guztiak galdu ondoren atzera jo bear izan eben. Jente berria bialdu eta oneitatik be komandantea galdu eta ofizialik geienak. Bitarte barik jokatzen zan. Gudariak agindu zorrotzak eukezan. Emendik «gerriko»ra bitarte gitxi egoan eta premiñazko zan leku oneri eustea.

Azkenean be Bagilla'ren 5'an Aitz onein zoria erabagita gelditu zan.

Bigarren Bfigidako agiriak irakurtean igarten da emengo burrukaldien zitaltasuna. Mayatzaren 30'an 125 baja euki zituela agertzen da; Bagilla'ren 3'an, 253 eta 5'an 145.

Bilbo'ko egunerokoak ez eben bertako illen zeaztasunik emon. Baiña bai erakutsi eragin burrukaldi negargarriak izan zirala. Gogoan daukat bertan anai bi billatu zirala, alderdi banatan, bata bestearen aurka, trintxeretatik urten eta gorputzik gorputz

egin ziran azken ekiñaldi ilkorretan.

Lemona'ren izena odoltsu ibilli zan, gure gerratean, pusillen puntetan ipiñitako kañubeta zorrotzetan.

Emen nabillala gogoan daukat baita be abade euskaltzale jator bat: Juan Bautista Eguzkitza. 1 875'n jaio eta 1 939'n il.

Langille amorratu, etenbako, zintzoa. Idazle sakona, kezkatia. Kezka eukalako ainbat eleiz liburutxo idatzi ebazan. Kezka erabilalako, «Gizarte auzia» liburua agertu eban. Eta kezkaz bizi zalako, euskal iztegi edo diccionario bat osotzen asia zan. Alderdi askotako lanak.

Batzuk agertu ziran. Besteak, iztegia lez, nun ete dabiltz edo ta zeiniek ete daukaz?

Garbi-zalegia zala ipinten dautse akats lez gaurko batzuk. Idazten be gogorra zala. Errez ezarten yakoe lengoei astuntasun eta garbizalekeriaren akatsa. Gu geu ez ete gara geiegi arindu eta mordollotu eta askotan errezero joatearren edo ez dakigulako gure zeretik eta gure aritik urtenda beste izkuntzen jokoan galdu? «Orixe» maixutzat ba daukagu, maixu orren esana or geldituko da betiko Eguzkitzaren gora eta aintzan: «Gai zailletan eta argi euskeraz au baiño obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskalerrian».

Eta emendik nora?

Ondarru'n, lagun artean edo etxean asarratu eta batak besteari, menderatuta gero, olakoren bat esaten ba dautso: la gero, ixilik egon, bestela...gero! Nor da berau? la? Laster daki besteak erantzuten: «la? Bedaru'n urrengo la.»

Emen Lemona'n zarren bateri «emendik nora»? itandu ezkerok, ba dakizu ze erantzun leiken? «Tutua yo ta gora gora, kaka saltzen Durango'ra». Edo ta «auntzen gorotzak saltzen Durango'ra».

Nundik datozen esakerok, noiz sortu ziran edo ta zegaitik? Ez jakin. Baiña or dabiltz aidean. Ba daukez Lemona'n beste iru-lau zital eta gordiñak be. Onetan euskaldunok, edozein erritan, arantzarik ez dogu euki mingañean. Pentsa-ala jaurti ta kitu. Ori be betetasun baten erakuspidea izan leike. Osotasunez eta betetasunez kalte gitxiago egiten da azpikeriz baiño. Eta emen Lemona'n, autsak auts, eta aitzak aitz, gizonak jatorrak eta bete-betekoak dirala jartea ez da gaitz.



LEMONIZ

Baserri eta itxasondo.

Lur gorri eta itxas bits.

Lemoniz'en sartu mendiz eta Armintzan itxasoan nitzan.

Armintzatarrak lemoniztarrak dira erriz. Baiña itxas kutsua, itxas itxura gorde eta zaindu nai izaten dabe. Eurak Urizarra deitzen dautse erri-barruari.

Bat eginda erabilliko doguz?

Andiagoak alkartzen dira eta ez dot uste onetarako kakurik egon leikenik.

Egia esateko, armintzatarrak ba daukez ukatu ezin leikioezan eskubideak. Lemoniz'ko iru errialde edo auzoak banandu ezker, eurak dira nausi. Andrakas eta Urizar batu bear eureri zelabait gairiduteko.

Zenbat bizi lagun danen artean? Zortzireun? Goitik nabil. Segurutik zazpireun urrerago.

Ezin ukatu Lemoniz'ek itxas bitza maite dabenik. Azpalditik.

Orain berreun urte emengo eta ingurutako ontzi txikiak kabotajejan ibiltzen ziran Bayona'tik eta Portugal aldetik janari ta eroskiñak ekarten. Eta andiagoak, bilbotarrekin bat eginda, iparraldera jotzen eben, zeregin berezietan.

Lemoniz, Gorniz, Gaminiz... ezagunak ziran urazandiz.

XIII gizaldirako ba zan euren entzutea. Gaminiz'en lurretan, gaur Plentzi lez ezagutzen dan erriari sortzea eta erri-legea emon

eutsanean, Armintza'ko baletako arrantzaliak aitatzen zitun Lope Diaz'ek. Geroago emengo arrantzaleak Terranoba'ra makallutan joaten asi ziranean, inguruetakoeekin batean billatu leikez bertako semien izenak.

Zenbat karutu ete da gure bizimodua?

Edo ta ain zarrak ete gara gu?

Orixe iñostan oraintsu Bilbo'ko denda baten aurrean, langostakaitik eskatzen dan diruari begira ebillan lemoniztar batek.

Gerratean ezagutu neban eta geiago ikusi ez. Orain erbestean bizi da, maite miñez. Gerrak mindutako asko bizi dira sasoi bateko itsukeriak aaztu eziñik. Parkatu bai, baiña aaztu... Gaitz da gizonarentzat.

Goazen gurera. Milla baiño bi milla urrerago zan langostia kiloko. Eta berak ogerleko bategaz nai aiña jaten ei eben, oraindik berrogei urte ez direla. Santo Tomas'ena: ikusi ta gero sinistu.

Gaur ezin errazoirik ukatu berari.

Ain zuzen be Santo Tomas izena dauka emengo arrantzalien kofradiak. Eta 1 934 urteko jakingarri batzuk emon neikez.

134.850 kilo arrain saldu ziran bertan urte orretan. Eun eta bost milla pesetaren balioa, biribillean. Aingira, antxoa, atun, besigu, papardo eta langosta. Bai. Lau milla kilo langosta saldu ziran. Guztira 21.824 peseta. Orra, batez beste, 5,45 kiloko.

Sinistu ete lai?

Or dagoz agiriak. Gaur fiskoren bildurrez edo bakoitzaren goberaben indarrez, kiloak eta diruak aldakorrago izango litzakez. Sinisgaitzago. Sasoi aretan ez egoan olakorik.

Orra ba langostia kiloko ogerleko baten, Armintzan. Eta orduan be karu ei zan.

Langostiari lengo euskaldunak otarraña deitzen eutsen.

Urte aretan Armintza'n saldutako beste arraiñak oneik izan ziran: Antxoa: Irurogei milla kilo. 0,45 kiloko, erdiz erdi.

Besigua: Gitxi arrantzatu zan, irureun kilo inguru danetara. 2,86 kiloa.

Papardua: 0,31 kiloko eta atuna, ega-luzea, 0,90 kiloko.

Lemoniz'eri eratasuna ekarri dautsa orain urte batzuk zabaldu zan bide barriak.

Len, Lemoniz'tik Bakio'ra luze egiten zan. Bide asko barrien barri egin bear, kotxean beintzat. Gaur, noiz nai itxas aizearen gozotasuna artuz, berak daukazan amabi ta erdi kilometroak atsegiñez igaroten dira. Irurogei milloitik gora kostatu ei zan. 1968'asi eta 70'n amaitu.

Bide onek, ala ta be, erriaren ikuslien arintasuna emonarren,

bizi barririk ez dautsa ekarri.

Lemoniz uztuten dua, beste erri askoren antzera. Emen gelditzen dira ia zortzi kilometro lautuetan bere lurak. Mendi, baso eta itxaso. Arrantzarako gaur ez dauka egokitasunak. Batez be saltzera erbestera urten bear. Baserriak, lurren ondasuna piñutatik edo eukaliptusetatik nai dabe. Eta Atomika Indartegiak... biar ze ekarriko daben ikusi bear. Gaur, etengabe dabiltzan kamioak, basaz bete dituez inguruak, ibilli eziñean laga.

Ez dauke lemoniztarrak fede andirik Indartegi onetan. Plentzi'n, Getxo'n edo Neguri'n bizi naiko daben tekniko zur batzuk ogia jango ei dabe bertatik, au da, emen irabazi ta erbestean iruntsi. Batzuntzako errapa ona izango ei da, iñostan batek; lemoniztarrentzat aizea. Euskalerrientzat zer? Istoriak eukiko dau zer kontatu ontaz.

Lemoniz'ko Andra Maria zer pentsatu asko dabena ei da. Ala dirudi bere arpegiko egoeratik. Beste edonun koroez orniduta ikusten dira orrelako irudiak. Au, alargun batén antzera, buruko zapiz, oyalez.

Irudi ederrau, beste askoren antzerako da. Metro bat eskaz, amairu zentimetro gitxiago. Pitxi eta gañeko jantziak imiñi al izateko, bete batean agertu al izateko, noizbaten labañak erabilli zituen bere egurrean, zati batzuk kentzen. Euskalerriko irudi edo imagiñen arteak eta nortasunak, bein baiño geiagotan erabilli **beárko** zituen gaiñetik ipinten eutsezan oyalak malkoak legortze-ko, zaindari arduragabe eta pitxi zalien lepoz. Ez da denpora asko, **eleiza baten**, itxasertzean au be, bertako irudi bateri kortsea jazten **billatu** nebazala bertako neskatillak. Gaingaiñekp jantzi zidardunak itxuratsuago agertu al izateko nunbait.

Lemoniz'ko au XV gizaldikoa da. Gotiko erakoa, pizkundean sartuta.

Ez ei dago urrerik berak aiña balio dabenik, esaten dabe bertokoak.

Lemoniz'ko parrokia noizkoa dan, ez jakin. Lenengotan Plentzi'ko parrokiaren mendeko ei zan. Bere liburuak 1.566 urtean asita dagoz. Bertako abadeak Plentzi'ko abadekin batean kabildu bat osotzen ei eben. Andra Mariaren irudia egal baten dago, ta diñenez, Barasorda'ko eleizan egoten zana da. XVIII garren gizaldian eleiza au galdu egin zan. Calahorra'ko gotzaiñaren aginduz ondatu zan.

Beti izan da Lemoniz erri txiki.

Kondaira irakurten ba da, 1.704 urtean 45 su toki eukazala jakingo dogu. Eun urte geroago, bi geiago. Oartu leikenez, bardintzua.

Erri pobrea gaiñera. Baserritarrak euren baserrietan oi diran lanetan, biarretan. Baserrien istori ixilla lurra eta izerdia dira. Eta tartetan, ezin ukatu, Mungia'rako osterea, tratularien jokerea eza-gutu eta irabaziak edo nekeen ondorenak igarri nairik. Feriak izaten dira baserritarren boltsa eta frutu askoren neurria.

Baiña eta arrantzaleak? Goazen barriro eurekana.

Zenbat famili bizi ete dira bertan itxasotik dabiltzanak? Ogetamar? Jakingarria da emen gertatu izan dana.

Arrantzale erriak, beti, etxe faltan bizi izan dira. Orain berrogei urte egin ziran enkuesta eta jakinbideetan, erri bat bakarrik ez egoan etxe goraberan premiña andirik ez eukanik. Bizkai'ko arrantzalien izenean bertako Kofradiak erantzun eben. Zierbana'tik txarto ebiltzala esan eben; Santurtze'n estuago; Bermeo'n, Mundaka'n, Elantxobe'n, lekeitio'n eta Ondarroa'n, danetan, burukomin asko emoten eben etxeak. Askotan famili bat baiño geiago bizi ziran etxe bakoitzean. Eta emen, Armintza'n, etxeak sobre egozala erantzun eben. Ori bai, arrantzale famili bat bakarra ez zan bere etxe jaube. Danak erreteru ziran. Batez beste illeko 12,50 ordaintzen eben etxea.


Geiago: nai ta etxeak sobre egon, emendik esan eben etxe merkeak egiten ba ziran, gertu egozala euren lana etxegintzan ipinteko, orretarako bear ziran orduak sartuta, itxasoetako ibillerak libre lagaten eutsen aldi guztietan.

Armintza'n beste tokietan baiño bitarte geiago euken orretarako, beste tokietan baiño urtera gitxiago egiten zalako. Bermeo'n, esate baterako, urteko 260 egun itxasoan sartzen ba ziran, Armintza'ko agiriak erakusten eben 200 bakarrik egiten ebezala emengoak. Erri askotan kale-baserritarrak egoten diran lez, emen be arrantzale askok lurretako lanak egiten ba ekiezan.

Batez beste famili bakoitzean bost bizi ziran eta etxeakoak, orduan, sukalde bat eta gela bi eukezan. Eta aukerak... kalean billatu bear. Etxeak ez euken arraskarik ez komunik.

Sasoi aretan etxe barriak egiteko lurra metroko 0,20 pesetan, txoriandi bi metroko, saltzeko gertu egozan lur jaubeak.

Orra Armintza, Lemoniz'ko itxas auzoa. Geldi gelditxasoari beste bideren batetik jarraitu bearko dautsan portu txiki au. Ezingo dau itxasorik iñoiz laga. Gaitz da egunero musuka daukan oneri lepoa emotea. Baiña gaurko bizi-bideak pillotzea eta alkartasuna eskatzen dau, mesederik lortuko ba da. Eta jakiña, Bermeo edo Santurtze ez dira beti eratsu gertaten.



MALLABI

Beñ baiño geiagotan gertatu yatan trenean, Bilbo'tik Donosti'ra lau ordu luzetan sakilladetan mallatuta lagaten gaitun tren biurri orretan, Zaldibar'tik urten, aldatz txiki bat igo eziñez iru-lau bidar atze aurreraka ibili, tunela ozta-ozta igaro, geienetan argi barik «suspense» ari kezka geiago sartzeko, ta etxeko bat ikustean, geratuko giñalakoa, jo ta aurrera, Ermu'ko errebueltan oker-okar eginda geratu arte. Orra Mallabi igaro trenez, nekez eldu eta tatarrez, eta erria nun egon leiken be konturatu barik iges.

Bidez, zuzenen, Ermu'tik sartzan da. Edo ta Zengotita eta Trabakua bitartean, orain bi-iru urte zabaldu zan bidetik. Onetarako, kontuan euki, Mallabi'ko lurretan ordurako sartuta gabiltzala.

Milla ta seireun iagun inguru, bertan, bost auzotan: Areitio, Berano, Gerena, Goitana eta Oma'n. Areitio andien eta Gerena, Geria, txikien.

Danetara ia ogetalau kilometro lautu lurrez.

Mugak: Ermu, Berriz, Jemein eta Ziortza'gaz len. Gaur, azken biak, gogo onez edo txarrez, Markiña dira erri legez.

Parroki bi bere lurraldean. Erri burukoa eta Geria'koa.

Torre zabala dauka errian dagonak. Zati biko torrea. Bardiña, zapala azpi edo beko zatia. Goiko zatian lau arku, lau kanpai zulo. Geria'koa txikia da, ermita askoren antzeko. Egaletan, mendi-gaiñetxoetan, edo auzoen ingurutan, ainbat ermita. Amairu, or nunbait. Askotan gertaten dana: San Joanetan edo San Pedrotan, artu-emonak zelan bete ez jakiteko eran, «konbidautzak» zaindu bearretan.

Siniskeretan ba dago arrera berezi bat Areitio'ko Andre Mari'ii. Gotiko-Pizkunde bitarteko irudia. Esperantza oneko Amaren deitura be emoten dautse berari. Aurra egiteko denporetan ba dake mallabitarrak eta ingurutakoak beragaz gogoratzen.

Bizi lagunen artean, euskaldun jatorrak milla ta irureun inguru. Erdaldunak besteak.

Joerak: Merkatuetara, etxeko ortuari, frutu, esne, arrautz eta abarregaz, au da, «plazakoagaz», Eibar eta Durango'ra. Erromerietarako, Berriz eta Durango dira aukerakoenak.

Len Bizkaitik garirik onena artzen ei zan emen, Gaur iñok ez dau nai garirik erein. Etxean artutako ogia jan bear zala baztertu zan zorion baten. Baiña emengo indiarra, indi-babea, koipetsu, azal bigun eta iñun baiño, obeagoa dala-ta, besteak baiño karuago saltzen alegintzan dira Eibar'en. Urte askotako barruko ar edo «amor propixutzat» dauke ori emen.

Ibili ta ibili, ona aurrean, Zengotita'ko goietan, Bizkaia'n ain gitxi ikusten diran garaixetako bat. Erderazko «horreo» ei emen garaixe esaten dautsagu.

Etxean nekez artutako frutu eta emaitzak ziur eta siku gorde al izateko tokia. «Bengokue» baserriaren aurrean dago. Ez da ain zuzen be garbi garbi zaintzen. Alderdi bat berari ezarri dautsen lastoleku edo sabaian sartuta dauka. Zazpi metro inguru daukaz zabalez, eta zerbait gitxiago egalez.

Bere apeoak, kolunak, tenteko arriak, ondar arrizkoak dira, piramideen tankerako.

Ez dira alako asko Bizkaia'n. Danetara be berrogetamar inguru ezagutzen ei dira. Geientsuenak inguru oneitan. Berriz'en be iñik-bein, bederatzi ezagutzen dira. Elorrio'n-amar.

Origaitik, inguruotan ezagutu eta emen ez egotea, arrigarri izango zan. Konturatzea falta askotan.

Ba dira begien aurrean ikusi ordurako ten egiten dabenak. Barinaga inguruko Lomiño'kua lez.

Bengokue'ko au eskutuago dago. Jakin ezik ez igarteko eran.

Sasai baten, Euskalerrian, ba ekien erderaz kantaten:

Mina de mi vida,
Longa de mi amor,
don Gaspar de Jauregui
de mi corazón.

Doña: Elizako kantu batena.

Irutatik bat mallabiarra zan. Zerbait esatera biartzen gaitu bere izenak.

Errementari ebillan Longa La Puebla de Arganzon'en 1809

urtean. 26 urte eukazan. Frantzetarrak emen sartu ziranean, **erne-**tan gizonak gerrarako batu ta urtetan asi orduko, talde baten kaporal urten eban lenengotan. Andik laster, gudari-buru edo komandante egin eban. Eta orrelaxe, gora ta gora, mallarik gorenatar a eldu zan gerrate orrek iraun eban bost urteren buruan.

Bildurti, eskas, zatar eta doillorra zala deitzen eutsen lenengotan frantzetarrak. Ezer ez ekian berekoi bat zala. Bai? Asi kontatzen: zer gertatu zan Bilbo'n, zer Gazteiz'en Gamarra artu ebanean, zer Tolosa'n eta beste ainbat lekutan?

Edonun ebillan. Gaur Burgos'ko errietan, biar Antzuola gainean, Deskarga'n; Pankorbo'n ikusi ebala ta Portugaleta'n andik laster, uste-gabean. Ixilik eskutuan, il zalakuan, egun luzetan eta arerioa nasaitzen asi orduko, bere gain, tranpan sartu eraziz.

Gizon banaken buru lenengotan; gero zortzi milla oiñezko gudari eta beste zaldizko millaren buru. Jantziak izarrez eia paparrak domiñaz beteta.

Zein zan Longa generala? Isidro Antxia eta Mari Urkiza'ren semea. Baserriaren izena da Longa. Etxearen izenetik artutako deitura. Mallabi'ko lurren muga egiten da baserri ori, ia Bolibar'en egalean. Elizaz bai bolibartarra. An bataiatu eban jaio zan egun berean, 1783'ko Jorralla'ren 10'n.

Laga alboan, txalo ta guzti, generala. Goratu daigun, bitartean, euskerarentzako bere arrera ona. Bere izkuntzaren maitekor agertzen zan. Praille bat, Pedro Astarloa, Pablo jakintsuaren anaia, estu ebillan liburu baten bigarren zatia atara eziñik. Lenengoa agertu, dirurik artu ez eta bigarrenik ezin. Onetan, Longa'k, esku zabal jokatu nai izan eban beragaz. Orrela, Longa'ri esker osotu ziran «Urteko Domeka guztietarako berbaldi ikasbideak».

Ezin laga, oster a, 1816'n emon eutsen zeregin barriaren ondoren eta bere jokabidea. Bizkairako Kontrabandoko epaikari, juez, izentatu eban, gerratea amaituta laster. Geiegikeriz artu eban ardura ori eta euskal legeak kontuan euki barik. Zeregin onetan danakin asarratu zan. Bilbo'ko Udal edo ayuntamientoetik asi eta Euskalerriko Aldundi edo diputasiñoiekaz. Foruen aurka egiña zan bere izentatzea, agintari onein ustez. Berak danak salatzen ebazan, nai eta foruetako legetan euskal jaubetasuneko goraberak izan askotan. Salakuntza gogorak egin ziran bata bestien artean. Orrela lau urte luzetan alkar ikusi eziñik. Azkenean be Longa'k aldakuntza eskatu eban. Edo eskatu eragin. Emengo kuartelen batera aldatu nai izan eban. Ez yakozan biotzak bigundu, ezta zabaldu be. Ixilleko agiritan bere aurka jarraitu eban emengo Diputasiño, Udal, Konsuladu eta bestetako gizonak. Ala Valencia'ra bialdu eban eta ango kapitan generala zala il zan, bere erri- tik urrun, 1831 urtean, berrogeta zortzi urtedun.

Ziurra da bere erriaren miñez, atsekabez il zala. Batzuen eriz- tziz, gerrateko ospe eta izenak itsutu eban.

Mallabi'ren lurretan sortu zan Ermua. Naiz eta agiri zurrrik egon ez, alaxe uste da. Ermua'ren anditze zoro eta larria ikusita arrigarri da Mallabi bere izakeran zainduten dan lez baserriari ain zintzo eustea. Bere oitura, siniste, izakera eta bizikera.

Euskal kiroletan, deportetan, noz nai billatzen dira bertakoak. Plaza gizonak dirala, esaten da. Jokoa eroaten, jokoa biziten eta jokoari eusten. Baserrietan lurrari begirako giroak nai ta ez eskatzen ei dau plazako errenta.

Pelotari punterengoen artean be ezagutu izan dira emenguak.


Gaur, egia esate.ko, Mallabi baserri erri izan da be, ez da ain neketsu. Ondo dago bidez. Ori esanda, batek erantzun be bai laster: Bai, ondo bidez, baiña ez asi oiñez.

Trabakua aldea toki alai biurtzen diardue. Berezko ez dana Salamanca'k ez ei dau geitzen. Baiña emen, gain onek, berezko ditu aize ederrak eta ikuspegi zoragarriak. Gipuzkoa'ko mendiak, Aizkorri bera, errez ikusten dira bertatik. Etxeko dira Bizkaikuak, Anboto aurrez aurre dala. Oiz'eri noz nai kili kili egin lei.

Aurrean, eskutik ikutu egiteko lez, Geria. 1558 urtean biurtu zan parroki; San Andrian zaindari. Ordurarte, nai ta erriz Mallabi, eliza legez Bolibar'era joan bear izaten eben bertakuak. Eta ez dago atzamarrean. Zortzi baserri egozan parroki egin zanean. Gixi izanarren, errezoiz ganezka egozan. Baserri bakoitzak pozik eskiñi eutsazan amarren osuak abadeari.

Ez dakit ni ilten naizenean nire etxekoak zer egingo daben. Etxean ilbarri bat gertatzean iñoiz tellatura joan izan dan agure bat ezagutu dot emen. Tella bat jasoten, arimea mundu onetatik urten ezinda ibilli ez daiten. Lenagoko oiturea. Ba dira leku ittoagoan ilgo diranak, emen, Geria'ko inguruetan baiño.

Ba dira emen Mallabi'n jatorrizko abizena zabaldu daben armarridun baserriak: Amendibar, Azkaraldea, Urizar, Zelaia éta abar. Eskutuko istori ixil asko gordeten da gizaldi luzetatik lurrari begira bizi diran etxe eder orreitan.



MAÑARI

«Mañari'tik asi ta
Urkiola'raiño
ez da ikusten besterik
aldapea baiño».

Ez jakin noiz ikasi neban ori. Txikitan. Geroago, gogoratu, sarritan. Oiñez baiño kotxean geiago. Batez be kotxeak indarrrik ez euken denporetan.

Oraintsuago beste oneik be irakurri izan dodaz, Karlisten gerratekuak. Orduko gertaera ta burruka baltzen ondorenak gogoratu eraziten dauskuez.

Mañari'tik asi ta
Txakurzulo'raiño,
ez da besteik agiri
odol illa baiño.

Geldi. Norberak nai ez da be laster esango dautzue emen: «aurki agiriko da Mari Mañariko». Eta areri ezin emon ostiko.

Erri guztietan egoten da grazi berezidun norbait. Eta ez ba dabe, erriak miñean eukiten dau. Emen lez. Billatu daigun ba la-gunduko dauskun Mari ori. Bitartean, kantu zalea ei da Mañari ta jarrai daigun kanta kantari:

Negu goizalde batean,
albakoaren otsean,
eskopeta kargatu neban
arri otzaren gaiñean,
bai eta gero deskargau bere
apaiz jaunaren aldean.

Ara, ba, aurrean, bete-betea, Mari Mañariko.
 -Ezagutu zendun «Kirikiño»?
 -Besteak txapela ta arek kapela. Iño! Alako gizonik gitxi orraitio!
 -Eta aren illobea, Errose?
 -Kostako da beste andre bat bera lakoxe.
 -Eta Leonardo Goiti?
 Bai, gure parroko zala il zan. Liburutxon bat, «Zeruko izarra» edo, ba dauka ortik.
 Euskal idazlien billa al zabiltz?
 -Il ziranak gaurko guztiei gogoratu naian nabil.
 -Ea ba, ez aztuta iñor laga.
 -Danak aitatu nai neukez utsune bagea.
 -Ez al dakizu emengoa zala Martin Kapanaga?
 -Errazoia. Irureun urte il zala ta aren dotriñea gaur be irakurri egiten da orduko joskera ikasi nai-ta.
 Ona Mari Mañariko. Euskera kontuan jakituri biziko. Ez eta dautsagu alkarri bostekorik eskiñiko?

Ba nabil, ibili, eta ezin Mari albotik biali. Mañari ez da andi. Arri artean bizi da epel eta ixil.

Sarreran arriak tiroka zulatu eben eleiza eta argiñak dotore barriztu eleiz zarren giza.

Aurrerago, bertatik laster, parrokia. Bere leioak laster eroaten dau begia. Arteak beti dauka tengarria. Mañari'ko eleiza onek, beste nunbaiten ba lego, ederrago emongo leuke barru eta kanpo.

Ezin esan Mañari'n kalerik dagonik. Igarri barik nabil bidartetan. Bide nausiak, kamiñuak agintzen daben luzerako kalea andiena. Etxeak alderdi bietan. Ez gora asko jasoak. Atzean pelota plaza eta eskolak. Erri txiki baketsu bat eta kittu. Ez al da ori bera naiko meritu?

Barrero Mari berba lagun.

-Lagunduko?

-Nikaiña lekutan beste iñok ez zaitu sartuko.

-Zenbat bizilagun emen?

-Zazpireun bat or nunbaiten.

-Kalean?

-Kale ta baserrietan. Ez al dogu danok bardintsu jaten etxetan?

-Txiki, estu lurrez?

-Amazazpi kilometro guretzat doguz, iñor jan barik guzurrez.

-Bizi-bidetzat, arria?

-Ez da emen industri barria.

-Entzutea ba dauka emengo marmolak.

-Madrid'en, Errege jauregitan, tente dagoz emengo bete-
beteko armolak.

-Eta argiñak?

-Ingurutako eleizik geienak eurak egiñak. Durango'ko Santa-
Anan izena laga eben bik: Ormetxe'ko Txomin, -aren malluak zen-
bat ots fin?- eta Martin Larrea, bera bezin ohea.

-Argiñei omen.

-Ari mataza oneri egin leikio oraindik ten. Mañari'n bertan be
ba dago nor altza. Eleiza au landu eben argiñak: Mazaga eta Ira-
baltza. Jo atzera eurak ezagutzeko gizaldien mendetan. Or billatu-
ko dozuz eleiza barriztuten 1 551 inguruko urtetan.

Goazen geiago jakin miñez. Urez? Zelan zabilte urez?

-Erri askotako ardauren parez. Mañari'ko ura famakua da
birtutez.

-Andra Mari'k zaindu zaitzala.

-Eta Kristoren itzalak gorde naiala. Ez dakizu jgoietan Dima
eta Mañari'k, biok batean dogula ermita bat, alkarregaz erakuste-
ko gure fede apala?

Abizen jatorren sorleku da Mañari. Orrela Bizkarra. Iturriaga,
Mañaria eta abar. Aldegoiena auzoan Bizkarratarren etxe bi da-
goz.

Gerediaga elkartean batzartuten zan, eta laugarren emoten
eban bere erabagia.

Iru errigaz bakarrik daukaz mugak: Abadiño, Dima eta Duran-
go'gaz.

Mendi askoren jaubea. Bere jaubetasunean mendi andiak
sartzen dira. Ikusi: Kanaleko, 1.022 metro. Dima eta berea. Bardin
Atxarte, 944 metro, erri bien jaubetasuneko. Izurtza, gaur Duran-
go'gaz batean, Mugarra, 964 metro. Sebigain be Abadiño eta Ma-
ñari'ren menpeko da; 932 metro daukaz. Eta beste errien parterik
barik, Eskubaraitz, 1001 metro; Artatxagan, 998; Unzilla, 941
metro.

Ainbeste mendik nai ta ez euki bear denpora zarretako kontu
eta istori ugari. Ez ete dakiz olakoak esan eta biribiltzen gure Ma-
ri'k? Obe berari ez itandu. Kontu kontari ez leuke etengo txikotik.
Ezaguna da Azkondo'ko koban gertatu zana. Sorgiñak bizi ziran
bertan. Inzuntza baserriko neskatilla egunero joaten ei zan auzora,
goruetan ekitera. Illuntzetan etxera biurtzen ei zan. Ordurako sor-
giñak euren zeregiñetan. Origaitik bein esan ei eutsen andik geia-
go ez agertzeko, beste bideren bat billatzeko. Baiña neskatillak ja-
ramonik ez eta gau baten koba barruan gorde ei eben eta bere ba-
rri eta aztarrenik geiago jakin ez.

San Martin'en ermita ondoko jentillarriak be berba egingo ba
lebe...

Goazen beste gai batera.

Askok itanduten dabe zer esan ete nai daben Mañari, erriaren izenak. Onetan, bakoitzak zelako jokera alako erantzuna. Ba dira iñaurretik datorrela uste dabenak. Biurrikeriak eta geitu bearrekin. Besteak latinezko itza dala ta ortik joten dabenak. Oneik be biurrikeriak egin bear dabez Mañari izena beste latinezko berbetatik, ur-leku edo balneario antzerako ezaugarri batera eltzeko.

Onetan, sarri esan dogun lez, jakintsuak dabe itza. Baiña gaitz izaten da eurak be batera etortie.

Mañari'k ez dauka zer ikusirik Urkiola'gaz Abadiño da, erri legez.

Baiña Abadiño berak baiño San Antonioen joera ta zaletasuna, ango eskintza ta promesen barri obeto jakin leiz Mañari'k. Onetan bai ten egin daiogun pixkat Mari'ri mingaiñetik.

-San Antoniuak dira laster.

-Asentsioei billatu geuntsan baster.

-Zer daukazue Asentsiotan Mañari'n?

-Berrogei Kredo errezaten naiko zeregin.

-Eta San Antonioetan?

-Ui! Gaur danak doaz autoetan. Iñoiz joan izan giñan ba ortozik, eta San Antonioak lagundu be bai pozik.

-Gaur ez?

-Gaur ez dauka errez. Asko bota bearko leukez tatarrez.

Bideak laban dagozala orio zarren koipez? Bai batzuen mamiñak be janda denporak baiño len lizunez.

-Ai Mari Mañariko! Ori entzunda laster zaitue gazteak ezetsiko; ez zaitue bereala ondo ikusiko.

-Lengo San Antoniuak ikusi ta gaurko ainbeste itxusi...! Kontxo! Mañari'ko kanterak, arri-olak auts biurtu dirala dirudi.

-Ekatzu bostekoa. Ba nua, ba nua arin.

-Zek bildurtuta? Atxuriko millagrua barriztu ez dedin?

-Ez al dakizu, dana dakizun orrek, «mutil gazteak oiñak arin Mañarin»?

Mañari'tik Durango'ra aldatz bera. Sasoi bateko Etxaburu torea ezkerrean. Izurtza. Erri umezurtza. Gaur Durango'n sartuta, aren jaubetasunean.

Tabira zarra alboan, erdi eskutuka. Goazen. Santa Anako arkupetik zear, Kurutzeaga ikusi, ta Oiz zabalaren kerizpetan, etxe aldera.

San Antonio'ri egin dautsagu promesa. Asko itto izan ditu promesa ezin beteak. Nire promesak ba dauka gaiñera beste batzuen interesa. Origaitik, era danean, ni be sentidu bearko naz erromesa.



MARKINA

Sasoi baten, antxinean, ba ziran sei lurralde euren izenekaz: Azpiltza, Alzubi, Alzalegi, Olaegi, Murua eta Zuminaga. bai eta beste lau be, izen bikoak: Arrotain eta Barena.

Amarrok alkartu, Don Tello Bizkaiko Jaunak nortasuna emon eta erri bat sortu zan.

Alaxe gertatu zan 1355 urteko Mayatza'n 6'an (jentillen urteetako 1393'en). Orrela, eta orreitatik eta ordutik ezagutzen dogu MARKINA.

Urte luzeetako eztabaida eta itauna izaten da:

Nun egiten da euskerarik jatorren?

-Gipuzkoa'n, Tolosa aldean.

-Eta Bizkaia'n?

-Markiña'n.

Alaxe da.

Baiña nik Txomin Markiñarrari eta Kospa Xemin'eri, biotz biotzez, bene-benetan, Camile Jullian izkuntzalari ospatsuaren esaera gogoratu nai dautsuet:

«Bereba bat aaztuten laga..., baiña gizartearen aurkako pekatu ba da!»

Ulertzen?

Markiña'n, kondaira liburuak, erri liburuak, Muniben, Areizaga, Barroeta, Murga, Mugartegi edo antzerako etxeetan gordeten dirala esaten da. Liburutegi ederrak dira euretan.

Baiña edonok daki Markiña'ko kondaira, istoria, lau kalek gordeten dabela obetoen: Okerra, Erdikoa, Guenkalia (Amore kalia) eta Ziarkaliak.

Kale oneik berbetan ba leikie...!

Gaitz da toki txikian Markiña'n aiña torre billatzea.

Barroeta, Bidarte, Kareaga, Plaza, Ubilla, Ugarte...

Gaur torreak be jausi egiten dira.

Barruko miñez.

Oraintsu, arpegi dotoreko Ubilla torreari zati eder bat jausi yakon. Penagarri da Urberuagaitik Markiña'ra goazela zatika galtzen ikustea.

Itxuraz, iñor ez da kezkatu.

Errenteru eta ugazaben problemak?

Atadian, erderazko berbaz, «Jaunaren bakea bedi etxe onetan» irakurten zan.

Gaur, arri zaarrak be dardaraka dagoz noiz jausiko. Biotz bako bakea uztela izaten ei da. Eta istoria eta izatea makurtzen duaz.

Markiña eta Ondarru'k beti euki izan dabe alkartasun ona.

Oraintsurarte, Karmenetan, Santa Teresaz edo antzerako egunetan, goizeko argia zabaltzen asi orduko, automobillak ondarrutarrez beteta etorten ziran, gogoaren bakea eta espirituaren alaitasun billa.

Orain zapatu eta domeka gabetan, gabeko illuna jausi orduko, edozenbat kotxe joaten dira Markiña'tik Ondarru'ra, birgiña gaztien maitasuna billatzen.

Aita Zezilio batek esango eban: 0 tempora, 0 mores!

Markiña sortu zanean, Xemein'go monasterioa izentatu eta eskiñi eutsan Don Tello'k bere elizatzat.

Monastegi a galdu eta bere tokian ia Euskalerriko eleizarik tokirik geientsuena egin zan.

Eleiza ori zala ta, markiñarrak sarri euki zituen asarreak. Ugarte eta Barroetatarrak eta markiñarrak ez ziran beti ondo ondo konpondu.

Gaur pelota tokia dagon inguruan Etxebarria jaso eben. Galdu zan. Baiña prailleak eta monjak Markiñaldean leku egokiak billatu zituezan.

Mertzedeko monjak 1547 urtetik dagoz Markiña'n eta agustindarrak 1655 urtean ba euken euren serotetxea.

la irureun urtera duaz praille karmeldarrak. 1689 urtean artu eben euren etxea zabaltzeko baimena. Egia esan, ez dira beti konbentuaren jaube izan, polititako gora-berak urten eragin eutselako. Karmeldar monjak 1890 urtean urten eben Avila'tik Markiña'ko etxera.

Markiñarrak konbentu maitaleak ezagutu izan dira beti, eta euren erakutsiz, eleizari lotuta.

Ala ta be iñoiz Calahorra'ko gotzain bat estu eta larri erabili eben kaleetan. Ala diñoie paper zarrak.

Esakera:

Markiña'n, pelotia beti aidian.

Pelotarik ez da galduko... baiña kanta zarrak bai.

Ba egozan politak.

Gogoratzen?

Ara bat. Markiña'ko zarrak ba ekien kantaten:

Ama, ezkondu, ezkondu, denporea danartean.

-Ene alaba, zer diraustazu? Ogirikan ez etxean.

-Galburutxu bat topatu neban bidean ostikopean,

zortzi anega kendu neutsazan aurreko bote batean.

Ukulun dringin maspelen dringin

sankukun de blanko, txuntxurrun berde,

txibiri txibiri grak eta plau,

ardauak onelan ipinten nau.

Zeiñek gogoratzen ete dauz gaur olako kanta politak?

Erdotza orduan, ermita polit eta txukun bat dago.

XVI garren gizaldikua da, ustez, bertako irudia.


«Marija, doncella eder

ta Erdotzakua

Zuri esaten jatzu

Osasunekoia...

Nik, euskal erromes onek, Bizkaiko euskerarik ederren egiten dan erri onetan, ezin besterik eskatu gure berbeta onentzako osasuna baiño. Eta limosnatzat, gaurko kronika au.



MENDATA

Toki bakoitzak bertako zerbait eukiten dau. Esakeretan, iza-tean, artean, oituretan, egitetan, emaitzetan, artu-emonetan.

Mendata'n atso guztiak saldatan, esaten da. Baiña beste zerbait ziurrago be ba dauke bertan: indiabak, indarrak.

Emendik gabiltzala etxerako zerbait eroatea pentsatu dogu. Tabernan, baserrietan billatu geinkela. Baserri batzuetan ots egin, eta batian bat, bestean beste, ezetzean len lentxe.

Albiz inguruan gizon alai batek urten dausku. Etorri onekoa bera.

-Indiabarik?

-Iru urte oneitan ezin dogu artu.

-Ze gertatzen da ba?

-Ez jakin. Lurra geixoen bat sartuta dauka.

-Nun dagoz ba Mendata'ko indiaba famatuak?

-Nun? Astelenetan Gernika'n.

-Artzen dira edo ez?

-Batzutan bai, bestetan ez.

-Gizon, euririk egiten dau emen?

-Aizeak be ba daki ederto joten.

Albiz'ko eleiza txikia da.

Alkar artean lez entzun dogu meza, zapatu illuntzeko zazpiretan. Ogetamar lagun inguru mezakide. Atze aldean danok. Ume,

neska, gizon. Korroan lez. Danetara be zenbat lagun gaur Albiz'en? 140? Biar da igandea ta etorriko da jentea.

Abadeak iru-lau aldiz bana-banaka lez begiratu dausku. Ezta-
kit lista pasatzeko oiturarik daben.

Taloparea lako bandeja biribil bat dauke emaitzak, limosnak, batzeko. Egurrezkoa. Kirten luze ta guzti. Eukiko dau seguru asko bere istoria. Bizkai'ko Kofradietatik zarrenetakoa da Albiz'ko au, diñuenez. Erdian bete-beteko kurutza daukanez, lau alderdi dirua batzeko. Paperentzako azalegi.

Gaur lenengoz, «estreñako» ikusi dot monja bat limosna emoten. Kontzilio ondoren eskutuko poltsa eukiten asi ete dira eurok? Bertakoen bat segurutik, bakarrik egon da-ta.

Dana dala, ni be egon naz abadearen «neure entzule kristiñau maiteok» en artean. Sermoi bigun, samurra. Ainbeste bidar berresaten daben «neure, entzule, kristiñau, maiteok», lau berbok, zer pentsatu emoten dabe izatez, esatez eta bizitzez zelan gabiltzan be ez dakigun giro onetan. Euskera gozoa erabilten dakie lekeitiar abadeak sermoietan. Nungo zurkulotan lotan edo jolasean egon eikezanei esnatu eragin edo lotsa sartzeko egin ete eben albizar zarrak ia tellatua jotera eltzen dan ainbeste eskillaradun pulpito biribilla?

Gauzen aurrera, onela jarraitzekotan «Cuadernos para el diálogo»n barriro be idatziko dabe «Agur» konzillio aurretikoa dala, «conceptos preconciliares en lo católico». (Suplemento 44-1 974). Ni beintzat barri baten eskale naz.

Laga daigun Madalena bere eleizan, baketan. Lagun bake-
tsuak daukaz alboan: illak, eleiz inguruko ibilleraren orma jotan dagon il-erri loratsuan.

Kezka batek bai lotu nau: kantu bat bakarrik ez meza bitar-
tean. Ez al dakie mendi goi oneitan espirituak nasaitzen? Emen-
goak ba ekien ba len:

Birgiñaren gaba da gaur da
esaigun bere kantea,
nik kantauko dot kantea, baia
gogoz erantzun jentea.

Oiz aldera jo pixkat. Igarri barik Urrutxua'n sartu gara, Men-
data'ko lurretatik urtenda. Ibarruri da au.

Lengo denporetan inguru oneitatik astoak bete-bete eginda
aldratan joaten ekien emengo andrak ortuari eta frutu saltzen Zor-
notza, Galdakao edo Bilbo'ra. Gau illunean urtenda, edo goizalde-
ko argia eskutuan egoala.

Lau lekutarako bide kurutzean gagoz. Etxe bat: taberná, den-
da, etxeko despentsa, dana leku baten. Kaixa zar bat be tartean
dago, urdiak gordetako. Egalean eskaratza. Gaztai pilloa agetan,
ketan. Beko sua. Adar lodi ta ozpalak sutan. Euren artean, errete-
ko arriskuan, berotasun premiñan, antxuma baltz bat. Egunetakua.

Len&ngoia eta bere amak asarre artua izan da auma koitadu au, diñosku artzaiñak. Antxumeak be ze pentsatu emoten dabe mundu negargarri onetan.

-Basili, zenbat urte?

-Joanei gatza emon. Zegaitik itaundu ez zenbat geiago bizi nai dodan?

Oraindik gordin dago. Narruzko abarka ta artillazko galtzerdi zuriak jaso. Berbetako zorrotz, txoritxuak erreten bixkor.

-Sarri joaten al ziñan astoagaz emendik Bilbo aldera?

-Durango'ra bai. Ni tromperritik ez nitzan igaro.

-Diru asko ekarten al zendun?

-Dirua? Plazan artzen genduna dendetan truka. Ori izaten zan gure zeregiña. Etxean ugari genduna eroan eta bear genduna eka-
rri.

-Tratu onak?

-Erregateren fama emoten euskuen. Baiña guk, beti be, bate-
ra edo bestera tratua egin. Guri, orde, ez euskuen lagaten traturik
egiten. «Precio fijo» sartu ta kittu.

-Zenbat urte ori zala?

-Kontuan euki 82 urte eginda nagola ta neskatil gazte joaten
nitzala.

Nunbaiten irakurria daukat Maume'ko baserritar aberatsen
barri. Ontxe baiño urrerago noiz? Goazen. Ezaupideak ez dakar
kalterik.

Bertara joan gara. Ezer ikustekotan beintzat, barriro ez. Piña-
diak dana iruntsita dauke emen. Etxeak, eleiza, dana, uts igarten
dira emen. Maume'n, Magunas'en izen berbera be bai. Ozta-ozta,
bidea gelditzen da. Emen eta Oxinbaltza'n eun lagunik ez dira bizi-
ko gaur, piñu eta arri-olak, kanterak zenbatu ezik.

Goazen barriro Mendata'ra.

Zenbat urte ezkerrean ikusten dogun Albiz'ko torreak?

Jesukristo baiño 62 urte aurretikoa ba da, diñoenez, atara
kontuak. Emen ingurutako amaika barri jakingo eben eta ixillean
gorde bertako basterrak. Or dagoz bere orma zarrak, metro bete
lodiz, alde bakoitzera amairu metro zabalez. Beste etxe asko za-
baldu zituen bertakoak Bizkaia'n, Arteaga, Busturi, Ibarrangelu,
Murueta eta Ondarroa'n, nai ta gaur euren azterrenik gelditu ez.
Ondarroa'n beintzat ba dira ia bost gizaldi abizen ori agertzen ez
dala, eta liburuetan irakurten danez emen euki eben etxe jator bat.

An, berago, Montalban'go torrea ikusten da, Arratzu'ko lurre-
tan. Oraintsugokoa da bera. 783 urtean jaso.

Gaur torre zarrak izenetan gelditu dira. Euretako oiñordekuak,
izenari eutsita be, naiago dabe etxe barrietan bizi.

1474 urtean Ingalterra'ko Eduardo IV'k Bizkai'ko sal-erosliei

angoekaz tratuak egiteko baimena emon ebanean, ori eskatzen joan ziranen artean Albiz izeneko Fortun bat agertzen da emengo iru ordezkarietako bat. Besteak Martin Zumelzu bilbotarra eta Martin Urkizu, lekeitiarra izan ziran.

Gernika'ko batzerretan bederatzigarren jarlekua eukan Mendata'ko eleixateak.

Milla lagunetik gora eukiten zitun. Oraindik eun urte milla ta eun.

Gaur 500 inguru.

Erriaren erdian, eleiza eta taberna aurrez-aurre. Eleiz ederra. Mikel zoriondunaren omenez jaso. Zar entzutea dauka. Amar gizaldi betea. Lengo zarra bost gizaldira eldu zanean, oraingo lez barriztu eta zabaldua gelditu zan.

Torre zabal jatorra. Eleiz inguruko ibiltokia be bai, euskal eleiza zaran tankeran. Toki eder eta aizetsuak ikústeko leku berezia.

Bere sasoiak eleiz onek entzute andia euki ebanik ezin ukatu. 1641 urtean eleiz gizonak eta erriak konponketa bat egin eben alkar laguntza eta serbitsurako. Sasoi aretan Mendata'ko parrokia eroaten ebenak, bertako eleiz gizonak, Moya lizenziduna, Olaeta batxillera, Sagargata'ko Mateo abadea, Urkia'ko Matias eta Arribalzaga'ko Simon agertzen dira. Naiz eta gero, eleiz barriak jasotean, parroki onetatik euretara aldatu, edo ta zaartuta jaustean barriro jaso ez, lengo denporetan parroki onen mendeko sartzen ziran Lemandaro'ko San Joan eta San Martin ermitak, Zarra'ko San Kristobal, Urkiza'ko San Pedro, Enbeita'ko Santa Mañe, Elosu'ko San Lorentzo, Argena'ko San Anton eta Besantza'ko San Joan.

Parroki au aberats izan ba zan be, bere errenta onak eukazalako, ez Albiz'koa. Sasoi liburuetan irakurten da eleiza pobrea zala eta bertan batzen zana bertako abadearen premiñetarako bear zala.

Goazen tabernara. Izen dotorea: Menpe. Eztakit izenaren filosofia zein alderditik artu. Bertakoak ete dira iñoren menpe, edo bertan sartzen dana geratzen ete dan espiritu barrien menpe. Bietara gertatu lei.


Mendata'ren bizia bertako etxe nausiei lotuta billatzen da. Arestieta, Lamikiz, Olaeta, Olabezirarrusti, Zugaza eta abar.

Jauntxuen denporetan oñaztarren aldera geiago jotzen ba eban be, ez zan beti alderdi orretan itsu ibilli.

Burdiñola bi, ferreri bi ezagutu ziran bertan. Bederatzi errota be bai.

Gaur Mendata Gernika'ra begira bizi da. Bere auzo bat, Marmiz, Gernika jotzen dago. Erri txikiak bizi-modu erosua nai dabe. Mendiak laga eta zelaietara jo. Gaitz da giroko jokerak bastertzea.

Guk aize ederra artu dogu. Eta emen sortzen dan Mundaka'ra doan errecondoa Jagata, ba goaz gure bidetan beste ikustaldi bat egiteko garrez.



MENDEXA

Mendexa'ko jaiak San Pedrotan izaten dira. Ez Bagillean, Dagonillean baiño, il orren lenengoan, San Pedro ad Vincula jaia ospatzen dan egunean.

Eta orduan kanta kantari joan bear da ara, Lekeitio'n zubi ondotik bidea artu, Santa Luzia alboan lagata, aldatz goran:

Ni Mendexara, San Pedroetan

ba noa zezenetara.

Arek bai neskatxak

ederrak, galantak,

lekeitiarren aldean,

Mendexa'n eleizaldean.

Bigarren bertsoaz be jarraitu leike. Ez ain ziur eta bete, kezkatu eta akulari baiño, edo ta ez jakin arduratsu ala ule artzalle:

Igaztik ona urte bete da,

denpora orren luzea!

Arik onako

gau egunetan

marastu leike gaztea,

aldatu leike gaztea!

Eta orrelaxe, umorez, itxas aizeak artzen, sartu gaitezen Mendexa'n.

Lekeitio eta inguru oneitan berebiziko oguzkera, dauke, berbak aoz agertzeko era jator bat. Euskaldun beteak dira. Asko kos-

taten jake erderazko berbei erdaldunen esateko moduzko era eta gurrilla amotea. Asko edo gitxi euskal kutsua sartu barik ezin esan. Erri batzuetan erraz esaten dogu jaboia. An txaboia. Erraz Gibaja. An Ikipaka. Guk erraz Benjamin, emen Inkamin. Esan lei oraindik kutsutu bagako esakera daukela.

Inkamin bat, abade jatorra ezagutu gendun Mendexa'n. Kataluniarra sortzez edo jatorriz. Pelotari errimia, nai eta mendexarrak esan abade zalako irabazten lagaten eutsela. Bete-beteko lagun zalia. San Pedrotarako lapa salda lodia gertuten ekian eta kabra saltsa ederra. Edozenbat bilbotar eukiten zitun maikide. Lapa saldaren errezetarik ez eban emon nai izaten; ez orrek eskutuko andirik eukiko ebalako, urrengotan be alako lagunen artu-emonu eukitearren baiño.

Bakoitzak berea eukiten dau, baiña arek benetan maite eban Mendexa.

Mendexa, txiki dalakoan, beretzat aiña lur ba dauka. Gaur baiño ezagutuago litzake, esaten dan lez, Ondarroa'tik Lekeitio'rako bidean, Saustan itxas sakonaren aurrean, Baurdo ingurutik bide barria zabaltzen ba dautse.

la zazpi kilometro daukaz. Eta ez mendiz. Lekeitio'ko ondartzat deitzen dana, Mendexa da, bai eta Lea ibaiaren egalerarte dagozan etxe, jauregi eta inguruak.

Amoroto eta Mendexa alkarren antzeko erri dira. Alkarren partean ikusten dira mendi gaiñetik. Aurrez aurre. Amoroto'tik tartean ikusten da itxaso eta urrun. Or dago aldea, Mendexa'tik aurre aurrean dagolako. Bere etxeak eta eleizaren ormak itxas bustiaren brastadez garratzu eta gazituta daukaz.

Lauren lagun. Eleiz inguruan eun inguru. Beste ainbeste Iturrate'n. Erdiak Leaegi'n eta emengo iru Likoa'n.

Inguru guztiak, piñuz beteta.

Eleiz inguruan etxe barriak. Eurak bakarrik dotore izango litzakez, bear ba da, baiña emengo ikuspegi eta giroan, arrotz.

Mendexarren nortasun eta gatza igarteko, berebizikoa da Azkue'k izentatzen daberen gertaera bat.

Bein, emengo alkatea, Gernika'ko batzar nagusietara joan zan. Amairugarren aulkia eukan. Bere txanda eldu yakonean, idazkariak esan eutsan: la Mendexa, erakutsi zure agiriak. Kolkotik ataraten asi zanean, arto zati bat eta iru sagar gaza-min jausi ei yakozan. Berak, origaitik moteldu eta lotsatu barik:

Emen da Mari gureak
niri gerturiko gosaria:
iru sagar gazamin

eta arto zatia.

Bere patxada ikusi eta besteak adarra jo nairik ibilli yakozan batzarrak irauten eban egunetan.

Bein ostatuan esan eutsen: A zelako eskupekoa emongo dautsazun zuk oneri, azken egunean.

-Ai ene, bakoitzak al dabena, ori da lege.

Beste batek: Bilbo'n gatzari arrak egiten ei yakoz eta ez al dakizue Mendexa'n zegaz kendu leikiozan?

-Jakin ez? Sekula umerik egin bagako mando emearen esneagaz.

-Mendexa, zuen baserrian ez al dago zu baiño burutsuagorik?

-Orixe bai. Arek beste arazo andiagoak daukez. Zuentzat ni be naiko nazalakoan bialdu nabe.

Eta orrelaxe, adarra jo nai batzuk eta berak danei ulea artu.

Azken eguna orduko, ostatulariari ixellean esan eutsan: Eka-tzu biar arte amaseiko urre bat, zure mesedean izango da-ta.

Azken egunean an egozan danak Mendexa arrakeroa zala-koan, arek ze eskupeko emon eikean begira.

Kontua eskatu, zeatz ordaindu eta gero bere amaseikoa darenen aurrean emon eta esan eutsan:

Orra nire eskupekotxoa. Parkatu, erri pobreakoa naz-eta. Oneik aberatsok obeto portatuko yatzuz.

Eta... lotsaz geratuko ez ba ziran, besteak be berak aiña emon bear beintzat.

Lekeitio'ko abadeak andik serbidu nai izaten eben Mendexa, gaur baiño erreztasun geiago ez egoan denporetan.

Mendexarrak asarre ebiltzan. Iñor ilten zanean, batzutan, gorpurik be ezin eroan izaten ebela Lekeitio'ra, Lea ibaia igaroteko zubia egurrezkoa zalako eta askotan ujolak eroaten ebalako. Eta bardin beste premiña askotarako. Orreik entzun eta Calahorra'ko ordezkariak agindu eutsen, 1545 urtean, ordurarte ermita zan San Pedro'ren eleizatxoa parroki biurtzeko, eta lekeitiarrei jakin erazi, agindu ori artu eta bederatzi egun barru arako abade bat izentatzen ez ba eben, amar dukat urretan emon bearko zituela zigortzat eta gañera mendexarrak eurak aukeratuko ebela nai eben abadea. Ordutik sortu zan Mendexa'ko parrokia.

Gero iñoiz lekeitiarrak Mendexa'ko parroki onetan sartu ziran kaxarrankia eta San Pedro jaia egiteko abade jantziak eskutuan artzen, Lekeitio'n lagaten ez eutsalako. Eta egun baten, Calahorra'ko ordezkaria ain zuzen be lekeitiarrei eleiz jantziekaz kalez kale erdi moskortuta ibiltzen galerazo nairik etorri zan baten, etxe aurrean agertu yakozan dantzariak ordezkari orreri Mendexako eleiz jantziak eroiezala.

Aurrean eta egalean dauka itxasoa Mendexa'k. Baiña ez da arrantzale erri. Bai ta ez. Ala agertzen zan lengo denporetan. Arrantzan ibili nai izaten eben itxasoan, lekeitiarrekin batean. Baiña orduko gerratan ortarako itxasontzietarako lagunak eskatzen zituenean, ez eben nai izaten arrantzale era, soldadurik ez emotearren. Lekeitiarrak, euren aldetik, euren txalupetan ebiltzala ta, mutil eskabidea egiten zanean, bertako arrantzialien arteko zozketan sartu nai izaten zituen.

Etxe beteko asarreak ortik. Ukatzen ziralako, lekeitiarrak euren txalupetatik kanpora atara zituen mendexatarrak. Oneik, urte bi geroago, euren txalupak egin eta eukitera eldú ziran. Arrantzara joan, Lekeitio'ko kofraditik kanpora arraiña sáldu, Mendexa'ko aldean, eta kittu. Itxasoa danena zala ta onetan eragozpenik ezin eikiola ipiñi. Baiña lekeitiarrak ez eutsen tx.alupa onei portuan molla egáletan lotuten lagaten.

Bein berrogei dozena besigu be kehdu eutsezan lekeitiarrak, indarrez. Zubieta aurrean lótuta eukiten zituen txalupen txikotak eten ondoren. Kontuan euki Zubieta ez zala Lekeitio'ko erri-lurraldean sartzan, elixateen jaubetasunean baiño.

Ori dala ta korrexidoreak be mendexarrei emon eutsen bere abegi on edo errazoia. Baiña asarreak urte batzutan be jarraitu eben.

1 664 urte inguruan zan ori.

Gaur Lekeitio'tik Mendexara'ko begi bateko zubi ederra igaro bear da, nai eta estua. Ez dauka ujolak eroateko arriskurik, begiratu baten.

Lekeitio eta Mendexa adiskide dira bakoitza berean. Gaitz litzake lengo itsukerietan jarraitzea.

Lekeitio lurrez estua dala? Ez al dakigu lapa-sopia alkarregaz baketan eta umorez jaten?

Baiña kontuz. Ez judeatarrekaz. Bein Nieto lizenziadua Mendexa'ra joan zan an bizitzeko asmoz. Mendexarrak ez eben abegi onez ikusi, judearren odolekoa zalako. Origaitik Eleixateen Batzarrekoak agindu eben kanpora bialtzeko eta Bizkai'ko beste eleixateetan biziten be ez lagateko.

Orra, 1 575 urtean, mendexarrak judearren aurka.

Itanduko ete dautsagu gaurko arabitar eta israeldarren arteko gerran, zeñen alde edo zeñen aurka ete dagozan?



MUNDAKA

Uda onetan itxasertzetik nabil. Bero larri eta astunetatik igeska. Guazen gaur Mundaka'ra.

Mundaka ikusi orduko, Resurrección María Azkue jauna datorkit burura. Lekeitiarra zan bera. Baiña ama mundakarra. Eta ume batengan eta geroago gizon batengan ama batek euki Jeiken indarra, ezaguna da.

Azkue, erriz erri ebillala bere Euskalerriko abesti txorta baten, erri askotan eukazan ordezkariak. Emen Mundaka'n, bere ama baiño obagorik nor?

Origaitik Azkue'ren Cancionero'n Mundaka agertzen da sei bidar beintzat kantu gozo eta ezititsuak bertan batutako lez agertzen eta ain zuzen be Mari Karmen Aberasturi, bere ama, kantu orrean erakustzalle zala. Benetan samurra bat. Umetatik umiei euskeraz kantaten yakoena. Biguna, samurra, ezititsua, gozua, askotan negarra eten eta umeak irribarrezka ipinteko asmatua:

Txalopin txalo,
txalo ta txalo,
kalutxoa mizpilla
gañean dago,
Ba dago, bego;
bego, ba dago.
Zapatatxo barrien
begira dago.

Beste bat. Berak diñoanez, eundak bidar bere amari entzuna au be:

San Pedro,
zeruetako giltzaren jaubea.
Zeurea txalopea,
neurea sarea.
Gora gora doa
San Pedrotxoa,
a baiño gorago doa
gure Jaungoikoa.
Antonek ba daki
txairo ta galanki
emoten bostekoa:
ori dok Anton txokoa!
Anton tambolin,
Peru atabal,
egik emen brinko'a.
Eztok ori lenengoa.

Azkue berberaren esanei jarraituz, esan daikegu, kantu au ainbat bidar kantaten zala Mundaka'n. Bere esanetan, Euskalerriko negu luzetan, Mundakako etxetan, beste erri askotan lez, bertako etxe jaun onak aitita-amumen etxetan batzen ekien. Iru senitarte batzen ei ziran: Aitita-amumak, seme-alabak, eta oneititik etozan illobak. Eta etxetan batzean, errosarioak errezatu ondoren, oiturea ei zan etxe orreitan illobei dantzan eragitea etxeko guztiak umiendantza eta saltoekin une alai eta pozkorrak igaro al izateko. Eta dantza orreitako doñu edo- kanta bat, ain zuzen be, beti, San Pedro zeruetako giltzaren jaubea» deritxon au izaten ei zan.

Beste Mundakar jatorriko kantu bat. Polita au be, baiña ez ain zuzen be umientzat egiña. Ba dauka onek luzerako tengada bat:
Ara:

Santulari, zetan doa Portugalete'ra?
Ontziaren aitzakian damak ikustera
Ontziaren aitzakian damak ikustera
santulari sarridoa Portugaletera.
Egun baten santulari arantza yoala
biderdira urten eutsen ta emon emon-ala,
arrezkero azur miñez Santo dagoala,
Bilboraiño sartu oi da bere ontzi txatala.

Eta kantu ori esan eta beriala beste au esaten edo kantaten ei ekien:

Atsoa, zer diñoie iturriok gaitik?
Ez dala geldituko uri au ur barik.
Mari Peliz, zelan zabiz?
Ondo ibilli, gitxi gastatu,
doala astotxoa ta ortik olgadu.
Erromerian noa, eztaukat dirurik,
balentzianatxo zarra saldu ez ba dagit.
Mari Peliz, zelan zabiz?
Ondo ibilli, gitxi gastatu

doala astotxoa ta ortik olgadu.
Saldu egiten ba dot balentzianea,
zer erabilliko dot euritan, maitea?
Mari Peliz, zelan zabiz...

Orrelakoxe kantu politak dira Azkue'k bere amagandik, mundakarra zan bere amagandik batutakoak;

Gernika'ko ibaian, errekan, Kanala aurreko ondartzan, gerrirraño bustita, margolatan (berberotxotan) ibillia naz. Eskua sartu ta bete-bete batzen ziran. Azken urte oneitan, iru-lautan beintzat, galdu egin dira margolak toki aretan. Ala diñoee bertara sarri joaten ekienak.

Andik, mare-berakuan, urrun ikusten da itxasoa. Kanala'ko bi-detik eta etxetatik ikusten dan baiño urrutiago. Eta gizona bera be txikiago ígarten da ondartza aren zabaleko bakartadean.

Laida'tik nai Sukarrieta'tik, Pedernales'tik begiratu, polita da Mundaka. Baiña niretzat, Mundaka'ko parrokiaren ikuspegia, ondartzat onetatik egiten da ikusgarri ete ederren.

Urrungaitza sartu eraziten lez agertzen da bertatik, goratzen ígarten dan itxas zabalen laiñotan. Alako irristada bat sentiduten dau biotzak. Mundaka aurrean, eta laiñoetan sakonago, urrunago, luzeago eta itxasorago, Izaro, Izaro'ko ugarte edo isla txikia, itxas brastadak oparo eta eten barik artzen.

Eta andik laster, «puentetan» edo merkantien kamañatan denpora luzeak botaten aspertzen ez ziran kapitan, pilotu eta maordomuak, antxe ibilliko dira kasino zabalean, areik be urrun-gaitzak jota, itxastar eta itxas gizonen gaixoa ei da ta urrungaitza, areik be barruko zer-onek jota, zartzaroak bizi obaren arrenkuria muin-muiñetan daroalako.

Mundaka'ri begiratu eta barriro be euskal kantu zaar bat ezin aaztu. Bertako da ain zuzen au be:

Itxaso aldetik
dauka bentanea,
andixek erasten dau
Karmen'ek sokea. Oies:
dirua emon nai ta
iñok artu nai ez.
Oies errondan dabil,
berak baki nundik;
Karmen gerri politen
ate ondotxotik: Oies:
sarritxutan errondan
ibilli zaitekez.

Ezin ukatu kantu oneik erromantikuen denporetako diranik. Edo ta maite-miñetan sartu eta oraindik ze ikusi asko egon leikezan sasoietaquak. Dana dala, olakoetan be Mundaka'n ez dakie bentanarik sarratu eta leiorik burdiñez estutzen, toki askotan egin izan dabentz. Mundaka'n ateak eta leioak zabaldu egiten dira itxastarrentzat. Eta itxastarrak sarri dakie deitzen itxaso berbertain be, merkantien turrunen bidez. Esakera da egunik ez zala igaroten Mundaka'ren aurrez aurre merkanteren bat igaro barik, maitien bateri turruna jotet, mundakar kapitan edo pilotu bako barkurik ez zalako ezagutzen, sasoirik onenean.

Berezko zan ba Mundaka erromantiku izatea. Erromantiku izateak ez dau esan gura nai ta nai ez zorakeriak edo bidegabeke-riak edo maitekeriak agertu bear diranik.

Erromantiku izan lei eta gizonki bizi, mundakar itxastar jatorren antzera.

Ba daukaz Mundaka'k, bere semien artean, gizon jatorrak.

Ara eredu bat: Etxeita. 1842 urtean jaiotako Jose Manuel. Kapitan egin, itxasoetako barkuetako kapitan. «Ni naz kapitan pilotu» kantatzen ei dautse Mundaka'n, lo eragiteko be, jaiotako berriei, ume mantokuei.

Manila'ra eldu zan, «Larrinaga» alkarte edo etxeko itxasontzi baten, bera kapitan zala. Eta antxe geratu kapitan begirale, ispektore lez.

Gizon jatorra. Bete betekoa. Ala zalako, Pilipinas'etako konseilari egin eben laster. Eta Tabakalerako zuzendari. Eta alkate be bai bertan. Zerbait bear da, gizontasuna bear da erbestera joan, eta amar urte bertan igaro orduko, Manila lako erri andi baten bertako alkate izentatzeko.

Ala ta guzti be euskeraz nobela bi idazteko aukera eta gogoartu ta berotzen jakin eban. Olerkiak, poesiak be bai. Erromantikurik geienak olerkari, poeta sentiduten dira.

Ara urrungaitzak, aparteko miñak, biotza ikuturiko gizona. Azkenean, asieran lez, Mundaka'ko urak eta lurak bere gordelari.

Ezin ukatu «Josetxo» eta «Jaioterri maitea»ren egilleari gure lotsa eta borondate onik. Alaxe deitzen ziran bere nobela biak.

Il zan egunean bertan be, bere illobei euskeraz erakusten ibilli ei zan.

Itxasoetan be, kapitanak, arriskurik andienetan, euren ontzirik ez dabe laga nai izaten. Gizontasuna. Norbere eginbearragazko zintzotasuna. Ori da itxasoetako legea.

Jose Manuel Etxeita Mundaka'n jaiotako eta Pilipinas'etan bizi izan zan.

Bernardo Garro «Otxolua» izenez bere lanak izenpetzen zitua-
na, Mundaka'n jaiou eta Argentinan bizi.

Ara emen beste mundakar ospatsu bat. Au gure egunetakua.

Itxasoetako olatuen bitsa lez, umorea aparka dariola agertzen
yaku bere lanetan.

Askok, erbestera joan eta euren berbetea, izkuntza, galdu egi-
ten dabe, batez be erri andietan sartzen diranean.

Garro'k, «Otxolua»k, erbestean geiago ikasi. Eta errira biurtu
ta idazten asi. Izkuntza asko ekizalako, berbetea asko ezagutzen zi-
tulako, erbesteko jakingarriak euskeratzen alegindu zan, beti eus-
kaldun kutsu ta umorea sartzen aleginduz. Ori da gaitzena, «Ber-
tolda eta Bertoldin», «Abere ipuiñak», «Ixtorio Mixtorio» (au lapur-
dieratik) eta abar, or gelditzen dira gizon onen ekite umoretsuaren
testigu. Eta, batez be, berbetea aldatze edo tradusiño baten jatorta-
suna erakusten.

Orain 50 urte, arrantzale errietan zelako gaixoa ete zan
geientsu agertu eta jo eta gizona galdu eraziten ebana jakiteko,
enkuesta bat egin zan. Erantzunak oneik izan ziran:

Donosti'n, ez egoala arrantzialien arteko gaixo berezirik.

Orio: Sukar ustela.

Getaria: Betiko gaixoak.

Mutriku: Bularretikoa, alkoolkeria, perlesia eta umoreak,
erreumak.

Ondarroa: Bularretikoa eta alkoolkeria.

Lekeitio: Bularretikoa eta burukoak.

Elantxobe: Bardin.

Bermeo: Bularretikoa eta esteko sukarrak, kalenturak.

Zierbana: Bularretikoa eta alborengoa, bronkoneumonia.

Eta Mundaka'n?

Sasoi aretan 105 bost arrantzale bizi eta bertako kofradian,
arrantzialien kofradian bazkide-tuta egozan. 50 sendi, famili. Eta
lengora jota: gaixorik ugari eta ezagunena au zan: Arrantza andie-
tarako amuzki edo karnatatzat erabilten zituen ixkirak artzen ba-
tutako umorea, erreuma.

Bilbo'ko Konsuladuko liburuak irakurten ba dira, laster ikus-
ten da Mundaka'n, lengo gizaldiaren asieran, edozenbat itxasontzi
egozala komertzioan ebiltzanak.

1800/1810 urtien bitartean ia 60 agertzen dira. Geienak
20/30 toneladatakoak.

Ba egozan 50 tako bi: «San Juan», J.B. Arritolarena eta
«Santa Clara» M. Zugazti jaube eta Elordui erabiltzalle zirala.

Mundakarrak, itzalez edo bildurrez, lotsaz edo oroitzta onez,
arimen izena geituten dautse euren txalopa askori: «San Antonio
y Animas», «San Jose y Animas»; «San Nicolas y Animas»; San
Manuel, San Lorentzo eta abar, geienetan atzetik Animas ori gei-

tuta. Beste portu batzuetan be ezautzen da aurretikoak, euren ari-
men bidez gogoratzeko zaletasun au.

Ordurako entzutetsu zíran eta gero be, euren oñordekoetan,
itxasoetako garra laga eben kapitan edo ta pilotu jatorren abize-
nak: Abaroa, Abina, Aldekoa, Arriandiaga, Arriola, Arrospe, Artadi,
Azketa, Kamino, Enparan, Erezuma, Etxebarria, Garro, Goitia, Iri-
goyen, Laida, Larrinaga, Lezamiz, Longa, Mdezona, Ordorika, Sa-
gasti, Urriolabeitia...Edozenbat.

Mundakar andra arrain saltzalleak!

Zein andrazko joango ete litzake gaur, itxas ertzeko arrain-
saltzalleak orain eun urte, edo larogei edo onutzago joaten ziran
lez, asto baten arrain bizi biziak artu, gau lenean urten, eta gau
guztian, sei-zortzi ordutako bideán, otza eta bildurra kendu ta
uxatzeko etengabeko errosarioak errezaten eta kantaten, goizeko
orduetan Bilbo'n, edo Durango'n, edo Elorrio'n agertzeko, munda-
karrak eta bermiarrak legez, edo ta Azpeiti'n nai Zumarraga'n, on-
darrutarren antzera?

Nik eztakit ze irabaziko eben. Baiña berebiziko doai eta «bo-
kasiñoia» bearzan orretarako. Eta ez dira istorian galdu izenak. Ni
neuk be ezagutu nebazan ibillaldi ori egiten eben andrak. Eta sa-
soi aretan, erri barruetan be, sorgiñak urteten eben, eta gantze-
roak eta lapurrak.

Ainbat gauza daukaz Mundaka'k agertu eta euren zerbait ja-
kin erazteko. Ez dot aitatu oraindak ez Santa Katalina'ko ermita
zaarrik, ez Kale Andiko kurutzarik, ez Jaun Zuria'ren amaren barr-
rik, ez Luzarraga'ren errukizko ekintzarik, ez Mundaka'ri, Lekei-
tio'ri legez, sasoi baten ainbeste entzute ta bizi emon eutsan Nau-
tika'ko eskolarik.

Ez naz sartu, ez eta be, Arketagoi, Arrospegane eta Ondartza
auzoei pultsoa artzen. Beste egunen baten barriro ikutu giñei erri
oneri. Mundaka'k ba dauka bere istori luzea. Kontuan euki Gerni-
ka'ko batzarretan, eleiz-ate edo anteiglesien artean, lenengoz bere
agiria agertzeko eskubidea euki ebala bere jatortasun orren ordai-
ñez. Beraz, Mundaka, istorian, norbait izan zan.



MUNGIA

Mungia lenengoz ezagutu nebanean, gerratea zan, gosea geunkan eta ondojaten zan.

Umorea bear zan gure lako gerra baten bizikleta karrerak ipinteko. Eta ain zuzen be karrera baten atzetik ibili nintzan. Ez bizikletan, kotxean baiño, «Eguna»n zerbeit idazteko edo esatekotan.

Ordu batak inguru ziran Mungia'ra éldu giñanean. Domeka zan. Martizenerarte ez eban urten bear gure egunkariak.

Olako aukerariki, esan gendun. Lasterketa au, karrera au ikusita dago. Danok duaz moltsoan, pelotoian. Iñor ez dogu ezagutzen. Bilbo'n, metan, ez gara argituko. Goseak arrakalauta gagoz. Biar asteleneko egunkaria zabalduko da eta andik atara geinke amaierako era, klasifikasiñoia. Geldi bertan!

Eta alaxe, iru lagun, emen geratu giñan. Orduntxe asi nitzan Mungia ezagutzen.

Lagun on bat ezagutu eta euki neban Bilbao'n. Benetako adiskidea. Langille ta lan eragillea. Ez dira danak orrelako izaten. Batzutan nortasun bat euki eta bestearen utsa gertatzen da. Baiña a ez. Norberak igarri barik lanez beteten eban bat arek. Lan egiteko adorea emon gaiñera. Norbera lanez ittota ta barriak artu eragin. Aramayona'koa zan jatorriz. «Lurgorri» izengoitiz. Benetan azkarra Azkarraga a. Zorionsuen lekura bialdu eben, denporak baiño len.

Beragaz batera marrazkilari edo dibujante bat erabilten eban aldizkari baten, errebista baten. Ardauren egarriak, eta batez be arda txarrak, garratz ipinten eban. Bilbo'ko gerrateko miraria ikasi dabe beste askok. Ardaurik ez eta sekula falta barik erriak euki. Ori Barri-oneko miraria baiño andiago da.

Marrazkilariari, dibujanteari sarri esaten neutsan nik: Zuk Bizkaï'rik ez dozu ezagutzen. Ementxe, erreka onduan galduta zabiltz. Lekeitio, Ondarroa eta abar zuretzat sortu barik dagoz.

-Ixil egon zaite, erantzuten ekian, asarre, garratz. Nik Bizkaia agertzeko, naiku dodaz Mungia aldeko emakumeak. Beste nun billatu Mungia'n lako andrazko ondo egin, bere, mardul esaten ekian Neketako Ama Birgiña'ren irudia be, Mungia'n, bestetan baiño ekarri ederragokoago zala. Egin eban artistak, emakumeta-suna, Mungia'n bertan ikusi eta ikasita ebalako.

Olako lorak ezin leiz edonori eskiñi. Zorionak Mungia.

Karrantza da Bizkaia'n lurrez andien. Gero Orozko. Ondoren Zeanuri, Dima, Amorebieta...

Jakiña, len ez ba ziran be, gaur egin dituen alkar batzeen ondoren, beste batzuk be tartean sartu leitekez.

Bilbo bera etzan andien len. Orain Bilbo andinaitu eben eta lurrak pillotu berari.

Mungia, bere 52 kilometro lautuekaz, zazpigarren sartzen zan Bizkaia'n, lurrez, batuketa orreik egin arte.

Amasei auzo ba daukaz beintzat. Gaur, danetara be, bederatzi milla lagun inguru.

Beraz, erri zabala dala, ez da andi ikusten.

Ba dira Bizkaia'n erri pillotuaogoak, berak baiño bizi lagun gitxiagoz.

Mungia'ren auzoak zeintzuk diran?

Goi zale naz ni. Origaitik Trobika aitatuko dot lenen, bere dalako goren eta aizetsuen.

Morga eta Markaida be or dagoz.

Morga'k Markaida'ri ika berba egiten ei dautsa, eta Markaida'k Morga'ri, zein geiagoka, norka. Batak eta besteak ia 120 lagun bakoitzak.

Goietan dago baita be Maurolas, uri burutik iru kilometro joaz, berreun lagunekin.

Eta Marutxaga, erritik urrutiena, bai txikiena be.

Maurola eta Marutxaga onek ba ete dauke zer ikusirik moroe-kin? Nabarniz'en Maruelexa dago eta esaten danez moroen eleiza egon zan bertan. Euskalerra'n noz nai billatzen dira izen onetako edo antzerako tokiak, danak moroen leku edo oroitez. Alaxe Ma-

rulanda, Marubaratz, eta abar.

Goazen aurrera.

Ba dagoz izen zabaleko auzoak be, nai ta bakoitzak berreun lagunetik gora euki ez: Alaxe Elgezabal eta Basozabal.

Eta Fruniz eta Gamiz.

Ezin aztu Larrauri, atsedean tokí zuri, auzoetan andiena, Bermeo'ra doazenen bideko zaindari urduri.

Izenekin jarraitzekotan, ara baita Llona, Iturribalzaga, Emerando, Atela eta Atxuri... Aida Baltza, aida Txuri? Probetarako idiak Mungi aldean ba dira ugari.

Iñor laga ete dot? Bai. Ain zuzen be Billela... Izena bera Mungia'ren kondaira edo istoriaren erdi dala.

Orain bosteun eta bi urte Mungia entzutetsu egin zan. 1471'ko Jorrailla'ren 21'an.

Azpalditik etorran gerrako giroa. Urte batzuk lenagotik ba ebillen Harotar konde bat Bizkai'ko jauntxoak menderatu nairik. Eriotzak egon ziran bitartean. Zitalkeri, norberekeri eta nabarmenkeriak nausi ziran garai aretan.

Min artuta egozan Abendaño eta Muxikatarrak.

Bestetan asarre, alkartu ziran euren lurretan kondea igarri ebenean. Eta Mungia ingurutan, Larrauri'ko basoetan itxaron eutsen eurak makurtu nairik etorran kondearen jentetzari.

Ikaragarritzko joaldi baten ondoren milla lagun eta irureun zaldi galdu zitun kondeak.

Butron erreka, Bizkargi'n garbi jaioarren, gorri ei eioan berantz.

Laster zabaldu zan gudaketa onen barri Euskalerra guztian. Erriaren kantak galduta dabiltz:

Bela baltzak moskortu dira odolez,

Mungi'ko lurak bete dira illotzez.

Trobikatarrak jatorrak eta ezagunak ziran endaz Mungia'n.

Mungia'ko Matxin, XVIgarren gizaldiko gerraetan izen orrekin ezagutu eta ainbeste joaldi egin ondoren Barbarroja'ren menpean jausi zan mungiar kapitán adoretzu eta entzutetsua Trobikatarra zan.

Beste euskaldun asko lez, erbesteko gerraetako amets, gar, zorotasun eta itsutasunez bizi zan. Bizi eta ibilli; ibilli eta jokatu; jokatu eta itsutu. Eta il.

Gerra denporak ziran. Edozegaitik. Sasoiko Aita Santu egiten eben berberak gerraetan sartu eta nastatuta ebiltzan. Ez al zan esaten Julio II gaitik, San Pedro'ren giltzak Tiber ibaira jaurti zituak, San Pablo'ren ezpateagaz bakarrik gelditzeko?

Esakerak edo mar-marrak, baiña giro baten ezaugarri naskagarriak.

Matxin'ek ez ekian geldi egoten. Itxas gudari zala, kapitan zala, neke, min eta larrialdi askoren mende be, itxas lapurretan, korsoen bizitzan be ezagutu eben.

Azkenean be Barbarroja'ren mende jausi zanean, nortasuna erakusten il zan.

Zortzireun bat lagun preso artu zitun Barbarroja'k Castelvovo'n. Euren artean Matxin, ordurako zaurituta. Turkoen buruak jakin ebanean Prevesa'n ain bulartsu jokatu eban kapitana an egoala, deitu eutsan eta bizi on bat eskiñi, fedea ukatzen ba eban.

Matxin'ek, matxeta bera sama gañean ikusiarren, berean jarraitzen ei eban, asaban federik ezin ukatu eikiala-ta.

Alaxe burua ebaki eutsen 1539 urtean. Oraindik 50 urte egiteko. Ziurtasunik ez ba dago be, 1491/1492 urteen buruan jaijo zan.

Urte bi lenago turkoen zortzi txalupak inguratuta euki eben. Berak bakarrik egun bi luzetan eutsi al izan eta irugarrenean iges egitea lortu.

Mungia bi egon ziran oraintsuarte. Biak alkar joten. Uria bata eta elexatea bestea. Bakoitzak bere kontseju-etxe, agintari eta nortasunez. 1 900 urtean alkartu ziran eta erri baten osotu.

Parroki zarra 1091'n bedeinkatu zan. 1520 urte inguruan barriztatu.

Erretablu eder bat eukan altareztat. Azken gerratean apurtuta gelditu. Martin Basabe aulestiarrek egin eban XVI gizaldian, 1.100 dukatetan. Juan Zuazo bilbotarrak dotoretu. Intxaur egurrean egíña zan, aberats eta irudiz ondo ornidua. Alaxe agintzen zan kontratuetan.

Erromaniku erako eleiza jator bat ba dago ingurutan. Gotikorako jokera igarten yako. Zumetxaga'koa.

Errementari ezagunak egon ziran bertan: Ala beintzat Atela eta Mankorriz.

XIV gizalditik ezagutzen zan bertan Billela torrea. Orain 120 urte barriztatu eben, baiña lengo itxura eta izatea kenduta. Torre barik, jauregi eder biurtu eben.

Industriari eta abelgintzari begira bizi da gaur Mungia. Baiña bere istoria," gizaldi zarretan, baltza da. Abendaño, Billela, Butron, Meñaka... beti alkar ikusi eziñez. Eta eurekin batean erritarrak, euren errenteruak, langilleak, menpekuak. Aitzaki txikia bear zan zirt zart alkarri kolpe egiteko. Edozegaitik.

Butroi'ko Gonzalo'k basurde bat il eban bein, 1412 urtean.

Mungia'ko lurretan jausi zala ta...sekulako naste eta burruka jauntxoan artean. Biaramonean sei gizon il ziran, ori zala bitarteko.

Andik zortzi egunera urkatoki bat jaso eben Butrondarrak Billela'ren torre aurrean. Ori ikusita Abendaño'k beste bat Butrondarren aurrean.

Alaxe gizaldi luzetan. Bizkai'ko agintariak burukomin ugari eukiteneben eurak baretu ezifiez.

Gaur, zorionez, mungiarak eztauke olako itsukeririk. Lanak kezkatuten dau Mungia. Eta bere etorkizuna bere lurraldetan dago. Beste askok ez bestean, industriari bidea eta tokia emoteko daukazan lurralde nasaietan.

Ez dautsagu Laukiniz'eri ezer kenduko. Mungia'ri berea emon bai.

Azkue zanak Derio'n batuta lez, esakera au agertzen dau: Mungia, lapur guztien abia, deunga guztien erria.

Esakera gogorra benetan. Mingarria. Erri bat iriundu eta gorritu leikena. Ez jakin gizaldi zarretako jauntxoan denporetatik etorri eta geratua ete dan. Leike. Euren ezpatea eta euren ukabilla zorrotz eta zital erabilten eben inguruetan emengo jauntxoak. Eta erriak, indarrez burua makurtzen dabenetan, destaiñik garratzenak esaten daki.

Ordukotzat laga daigun, ba, esakera ori, edo ta...deriotarrak ez al zituen Mungiagaz bizi-bideko burukomin eta garrazkeriak euki? Irakurri istori zarra. Bear ba da geroago esango dogu ortaz zerbait.

Dana dala, San Pedrotan gagoz. Eta Laukiniz'eko seme izanarren, angoen baimenez Mungia'ko aizez arnastu zan «Lauaxeta» adiskide errukarriaren poesietan samurtu gaitezen:

Biarkoa itxi etorriari,
ta dantzan ta abesten ari.

Poztu ta biotzak ez euki urduri,
gazte ule baltz gara, ez zar ule zuri.

Jakiña, azken au, nik neure aldetik, «Lauaxeta» gaz eukiten asi nitzan adiskidetasun beteagaz baliatuta, zerbait nire alde itxuratu bear dot; nire alde ta beste nire denporako askoren alde, oraindik erri baten bizitasun eta jaiak ospatuten dakigun askoren alde, ta esan:

Postu ta biotzak ez euki urduri,
biotz odol gori gara, ez gaixo ta eri.

San Pedroak. Mungia'n saltzeko aiña adiskidetasun billatuko dogu. Eta fluorkeriaren bildurra alboan lagata, sartu gaitazan bertan.

Antoni, egia al da emen, Mungi aldean, suangilla baten buzta-na arri biren artean eskutatu ezkeroz, andik laster diru biurtzen dala?

-Ene! Lekutako gauza eta kontuekaz zatoz, ori gure amumen

denporetan be galdu zan eta.

-Egia al da gorrotatzen dogun gizona artu eta ezereztu dedin, argizaria erre bear izaten dala?

Iñori pandangoa joten zatoz? Ni-neuk ez daukat iñoren gorrotorik eta daukanari itandu ori. Nundik norako zirauna da berau?

-Egia al da karetxak osatuteko, zelaira joan, otaka batzuk atarra, eskuak atzean lotuta, ataratean ez ikusteko eran, eta gero karetxan gaiñean kurutzekoak egin, eta ondoren, tximini gaiñean, su ondoan ipini bear dirala, arin sikatu daitezcan, eta otaka orreik sikatu ala karetxak be beratuten joaten dirala?

-Zetan zatoz zeu, gu mungiarrok ain odol txarrekoak garielakoan?

-Egia al da?

-Begien aurretik kendu zaitez, neuri begizkorik egin barik, zarean orrek, eta egun gaiztorik ekarri barik.

-Benetan be egia al da?

-Ba dakizu bene-benetako egia zer dan? Ganadu jatekoa etxeratzeko dodala, ta nik baiño lepo ohea daukazula karga eder bat artu nai izan ezkeru.

Zer? Mu? Erastuna galtzeko bildurrez?

Ai, gure zeruetako san Pedro, Mungi'ko atsoekin kontau barik zeruan ez sartu iñor gero.

Mungiarren umore, giro, gatz eta patxadea? Ikusi andre orren atarrea.

Enbeita zarraren bertso batzuetatik, gure «Urretxindorra» zaren bertso batzuetatik, -ai danak agertzeko tartea ba neukel-mungiarrek ikusten nago:

...ezta errez topetan, ene Kirikiño.

soñulari oberik mungiarrok baiño.

«Lauaxeta berak, mungiar sentiduten zan Esteban laukiniztarrek ba ekian beste au esaten be:

Gauza danetan dakusat

barre ta kanten prisea.

Ni, orain, igarten nagon lez. Edozetara be Matxin'en odola eta Matxin'en gogo. Esateko dauke emen Mungia'ko Matxin! Eta iñor itun ba dago, berak esaten ekiana:

Ardo zuri,

ardo gorri,

itunik yagokan mutxurdin

poztu egik zurrut batekin.

Mungiarrek eta deriotarrak asarre bizi izan zirala esan dot? Argitu gaitzan.

Deriotar batzuk Mungia'ko bizi lagun lez geratu ziran, Mungia sortu zanean, edo erri orreri, bere legea emon eutsenean. Arrieta, Morga, Maurolas eta Gamiz'ko beste batzuk gelditu ziran lez. Errinortasun bikoitza euken eurak. Erri baten bizi, eta besteko onurak be artu. Bietara jokatu. Eta ori, pelota zaleak be ba dakie, azkenean korretajea ordainduta kittutzen da.

Ba egoan olako zerbait sasoi baten Derio'ko amalau etxe-jaun eta Mungia'ko erriaren artean. Mungia'ko bizi-lagun edo erritar lez agertu nai eben eurak eta Derio'n etxeak eukezalako deriotar be bai. Derio'n jaten ebelako Mungia'n ordaindu nai ez. Edo bestera: Mungia'n zigorren bat bear zanean, eta laguntasunen bat eskiñi bear zanetan, deriotar zirala. Edo ta Derio'n ordaindu bear zanean, an laskittu bear zanean, Mungia'ko legepean egozala.

Asarre guztiak beti dauke zerbait bitarteko: tabernak, zizak, lorrak, eskubideak. Zerbait. Au da, beti be dirua bitarteko. ,

Derioarrak, mungiar uste ziran derioarrak, San Kristóbal eleizako atadian batu ziran, orduan batzartuten zirean lez, euren eztabidak erabagiteko. Eta azkenean be konponketa bat egin eben. Baiña orrelako batera eldu orduko, odolak irakiten dabiltzala batek zer pentsatu eta zer esaten daben, auzokoari itandu. Bear ba da ordutik etorri leike len esan dogun esaera garratz eta gordiñaren esan naia be. Ez dogu barriro esan eta agertuko. Mungiarrekin umoretsu agertu gaitazan. San Pedrotan gagoz. Ondarroa'n esaten dabena: San Pedro, gizonak ardua edateko.

Gizonak ardua edatea ez da moskorra artzea ez norberetik urtetea be. Etorriko da andraen eguna be: Santiago, andrak gizonak baiño ordiago. Eta Mungia'n, Santiago jaiak edozeñeri joten dautse ordago.

Eta San Pedrotan gagoz oraingotan. Mungi'ko jaietan. Gizon jaietan. Kontuz. Gizon jaiak ez dira gizon probak. Ba-da ezpa-dan.

Goizean goiz tabernara,
etxera berandu,
ai zer mutil ederrak gu
errenta ba gendu.

Nun ez dabe kantaten olako zerbait? Jaietan, jakiña, egunero-koa bere premiña eta garraztasunekin alboan lagata.

Mungiarren errenta, len, baserria zan. Orain eun urte, emen, ez egoan industririk Oka erreka ondoan eta bera urekaz baliatuta lan egiten eban burdiñola txiki bat baiño.

Gaur?

Bilbo'ren estuntzak mesede egin dautse Mungia'ri. Erri barri bat ezagutzen dogu. Era askotako industriagaz.

Gure gerratean min eta neke asko eroan eban erri onek. Ondatze ugari. Baiña beronen antzeko biztuera be, inguru oneitan.

beste erri gitxik euki dabe.

Eleizetan be San Pedro zarra barriztatu zan. Orain seireundak urte be eleiza zartzat emoten eben bere izenekoa. Erria erri legez sortu orduko ba egoan bertan San Pedro'ren eleiza bat. Ain zuzen be datorren urtean izango dira seireun urte erri legea emon eutse-la. Ortik igarri noiztik datorren emen San Pedrotako garra. Esateko lez:

San Pedro, zeruetako giltzen jaubea,
Mungia, San Pedro jaien atea.

Mungiako gizon ospatsu eta entzutetsuen artean izentatzen dituenen artean ba dagoz batzuk:


Toribio Ansotegi bat. Markiña'n sakristau izan zan eskola ikasten eban bitartean eta gero Uribe'ko merindadeko aguazil izatera Mungiara joan. 1833 urteko gerra sortu zanean, Espartero'ren kutun izan zan eta beragaz parte artu eban gerrate aretako gudaketa askotan. Bilbo'n be sartu zan. Azkenean, 84 urte eukazala, Zestua'ko Balnearixora joan zan urak artzera eta antxe il, uste bagako biotzeko zaín baten etenaren ondorenez.

Beste bat. Gerlaria au be. Fernando Zabala. Euskalerriko gudarostien buru izatera eldu zan. Bere denporetan bertso batzuk onela esaten eben:

Markesa presidente,
Batiz diputadu,
Zabala generala
tropiaren buru.

Beste bat: Juan Billela. Oñate'ko Sancti Spiritus izena eroian Kolegio nausiko irakasle eta erretore izan zan, bai eta Ikastetxe Nagusi edo Unibersidade aretako irakasle be. Eleiz agindu edo Kanon'etan doktor izatera eldu zan. Ameriketako errialde askotan kargu andiak euki zitun. Azkenetan Santiago'ko artzobispo izentatzea eskiñi eutsen, baiña orretarako zaartuta egoala eta ez eban nai kargu ori artzerik. 1 630 urtean il zan.

Orra gudari bi, liberala bata eta karlistea bestea eta eleiz gi-zon bat.



MUNITIBAR

Ikastolak errietan egoten ei dira. Ikastola nausiak, unibersidadea, baserrietan.

Ala esaten ekian baserriar tabernari jator batek.

Adiskide batek ba ekian Arbazegi'n saltsa perretxiku ori asko batzen zirala. Tabernan ikusten zitun saltzen-eta!

Tokia nun billatu, nundik jakin, or ebillan.

Bertoko batzalle bat makurtu eban erakustera.

Eguzki galdatan, izerdi likiñetan, arnas estuka, etenda, aldatz gora andi bat igaro eragin eutsan adiskideak, gero errekarate bate-tik berantza eroatekoa. Seta abian sartu, batu, eta barrero gora eta bera lengo bideak egiten.

Eun kilotik gorako gizon batek orrela ibilteko, setatsua izan bear dau setatan. Obe tabernan platerkada bat erosi edo tortilla eder bat jan.

Berak onura andirik ezeukalako, erakutsi eustan niri be bidea. Erakutsi ez, esan baiño. Ixilik eukitekotan, gañera.

Lenengotan ni be bere sarean jausi nitzan. Baiña batetik begi-ratu eta bestetik aztertu, igarri neban ainbeste bide egin barik, sasi artetik erraz sartu neinkiala abi orretara.

Baiña arbazegitararak «unibersitarixuak» izan eta ba dakie gu noiz joan geinken, eta erreumaz eta unorez jota ibilli arren, an joa-ten dira, astegunetan. Gizonak gitxi dirala andrazkoak be batzalle trebe agertzen dira.

lñoiz Totorika gaiñetara igo ta ango baserritarren bategaz tope egitean esan izan dausku:

-Perretxikotan?

-Naian.

—Bai, atzo egin gendun guk be bueltatxo bat, inguruotan, eta jan genduzan billatu genduzanak. Edertxuák gero!

Eutsi orreñi!

Piñadien artean, tarteren baten, pagadi zaarren bat geratzen da goietan. Lotsaz kikilduta, estututa dagozala esan lei, gure lenagoko pago sendoak, erdi gaixo baña ugari datozan piñuen artean.

Euskal errietako problema ikusten dot pagoetan.

Nekez eta urtien urtez landu eta lortutako oiturak, izkuntza, etxeak, bizitza, izatea... begirako eta bizikerako errezago diran oitura, ekandu eta izatez inguratu eta estutzen.

Toki andiak dira goietan. Bildurgarriak be bai bakarrik ibilteko.

Zerk edo nork urten leiken?

Gerrikaitz'en ziurra da beintzat sorgiñak mendietan eskutauta bizi dirala.

Bein abade bat ausartu ei zan olako siniskeren aurka berba egiten. Eta gabean bere etxean agertu ei yakozan sorgiñak, «emen gara, emen gara» esan eta joten.

Arrezkero iñor ez ei da ausartu Gerrikaitz'eko pulpitotik sorgiñen aurka ezer esaten.

Onetan ziur dagoz gerrikaitztarrak eta ziur egongo da, segurutik, abade guztiak baiño eleiz oiturak eta bizitza obeto dakizan Puri sakristania.

Gerrikaitz'eko eleiza, bertako jaunen eskubidepekoa izaten zan.

Arbazegi'koa, barriz, errege aginduen menpekoa.

Izakera au, gaur ez da ainbeste kontuan artzen, baiña len alaxe izaten zan eta gora bera asko, naste asko sortuten ziran abadeak izentatzeko, amarrenentzat eta bestelako bizibide eta esku-bideentzat.

Arbazegi eta Gerrikaitz alkarregaz biziten gaitz, esaten ei zan lenagoko denporetan.

Orra zertzelada bat: 1 550 urtean San Bixente'ko eleiz barria parroki lez eratu zanian, nai ta gerrikaiztarrak euren parroki berezia euki, beste auzokoekaz batu ei ziran sekulako asarrea biztuteko erritarren artean.

Bengolea inguruan Arbazegi, Uriona eta Gerrikatarrak auskan ibilli ziran eta zabaldu bear zan egunean ez zan parroki barririk zabaldu. Santuen irudiak be kalean laga zituen.

Gerrikaitz, Bizkaian egon ziran ogei urietako bat zan, lenago-ko denporetan.

Arbazegi, barriz, eleizaurrea, «anteiglesia».

Gerrikaitz Arbazegi'n lurretan sortu zan.

1 366 urtean artu eban erri nortasuna, erri legea.

Sortu ta laster Bolibar'eko zati bat be berari inguratu yakon. Jauntxben eskabidiei makurtu nai ez-ta, obeto ustez. Gerrikaitz'ek agindu eutsen urtean zortzi marabeditik gorako kargarik ez ebala artuko etxe bakoitzak.

Ala ta be bolibartarrak lengo tokietara jo eben.

Dana diru kontua.

1514 urtean, Gerrikaitz'ek lau milla marabedi ordaintzen zintun erri legez. Batez beste, etxe bakoitzeko 34,48 marabedi urte-ten eban. Zortzitik ogetamalaura aldea egon, nunbait, batez be sa-soi aretan eta bolibartarrak diru zale orduan be.

Gaur esakera zarrak ez dauke indarrik.

1 882 urtetik ona, Arbazegi eta Gerrikaitz alkartuta bizi dira.

Eta alkartuta be ez dira andi erri lez bizitzeko.

Azken urtiotan baserri asko ustu dira.

Ogetak, Gerrikaitz'en bertan. Berrogetamardik gora beste auzoetan.

Oiz azpiak eta inguruak neketsuak dira lanerako. Ogi bide gaitza dakarre, eguneroko lanerako, biarrerako.

Eta kalean ez dago industririk.

Mingarri da ori gertatzea, batez be jakin ezkerero, oraindik azkenengo gizaldietan Gerrikaitz baten, bertan bakarrik, ogetamar sutegi, burdiña moldatzeko eta lantzeko sutegi egozala. Eta bertan gertuten ziran burdiñakiak entzute eta eskabide andia eukela Euskalerritik kanpora.

Arbazegi eta Gerrikaitz'en artean amar errota be egon ziran. Gaur, ez gari ta ez arto, errota arriak geldituta dagoz, museotarako.

Erria ustuten dua, bertako gazteak kanpora bearrez aurkituten diralako.

Gerrikaitz'eko eleizaren koroan dagon kutxa zarra be, ustuta dagon lez.

Eundak urte, eleizako ontzi bedeinkatuak gordeten, eta gaur uts. Berak bakarrik meritu eta balio ugari. Erriekin jazoten dan lez.

Orrelaxe dua istoria, kondaira, beste barri baten billa.

Lengoa baño obeagoa izango ete barria?

XVgarren gizaldian, 116 sutoki eukazan Gerrikaitz'ek; Arbazegi'k 40.

Gaur, Arbazegi eta Gerrikaitz, kale eta auzo, mendi eta balle-
ra, au da, Berreño, Gerrika, Munitibar, Totorika eta danak batuta
be, orain iru urteko estadistiketan beintzat, 802 lagunetik ez dira
pasaten.

Lau urte lenago, 1966 urtean, 987 egozan. Berakada agirikoa
da.

Lurrak gelditzen dira. Ogetak kilometro lautu, kuadrau daukaz
erriak. Ogetalau ta erdi, zuzen esateko.

Errenta legez, piñuak. Gerorako akziñoiak. Onetan be gaur ez
da luzarora begiratzen. Norberagan baiño ez da pentsaten. Norbe-
retzako nai onurak eta irabaziak. Lenagokoak, pago, aritz, arta,
urki eta abar, luzeegi begiratzen ekien.

«Eguen zuri, eguen baltz,
txakurra arrantza gañean datz,
baltz baltztxo maisuentzat,
zuri-zuritxo geuretzat».

Oraindik kantaten da eguen zuri bezperatik urrengo zapatu-
rarte antxiñako kantu zar au.

Baiña mendiko pagoen antzera, aizea kendu eta kerizpean la-
gaten dabe gaurko erako beste askok.

Eguen santuz, Arbazegi'n nitzan, egunari dagokion eleizkizu-
nean.

Erri gitxi ikusi dodaz ain zintzo, ain bete betean alkartuta:
Alde baten gizonak, bestean andrak, baiña batera kantatzen,
erantzun eta jarraitzen.

Abadeak eskastutean, abade bakarrak eroaten dauz Arbazegi
eta Gerrikaitzeko eleizak eta ingurutako ermitak

Origaitik, eguenean baten eta barikuan bestean ziran elizkizu-
nak.

Baiña erri biak alkartuta (oraingoan esan bear ez dala gaitz
ondo konpontzen) batasun bat agertzen eben.

Txapela kendu bear olako erri baten aurrean.

Arbazegi eta Gerrikaitz lau erri andiren erdian dago.

Gernika, Mendata'tik zear.

Lekeitio, Murelaga'tik.


Markiña, Ziarrotza aurretik.


Eta Durango be bai, Bizkaiko balkoia igaro ondoren, Maume'-
ko bidea laga eta Etxano eta Zornotza'ko lurrei ikutu egiten
dautsan bidez, Orobio'tik zear.

Bizkai'ko balkoian, aterik ez dautse zabaldu euskeréari.
Lentxuago, Oiz'erako biderik errezena..., Hambre ta Gose bi-
detik.

Emengoak, baiña, Gernika dabe maitien. Nai eta gaur, Aritza-
ren muiña zainduarren, aritz orde z piñu diruak maiteago izan.

Bizitzaren legea da dirua ereitea. Batu eta zabaltzen gaitz.





MURELAGA

Murelaga'ko atetan geratu giñan aurreragoko baten. Denpora obeagoren baten zai, Angizola'ko errekartean.

Ekaitz eguna gertatu yakun sarrerakoa.

Baiña entzun. Entzun eta erantzun:

«Belen» kanpaia al da joten dagona?

-Ala ba da, ekaitza ba doa itxas aldera.

Fede andia dauke aulestiarrek «belen» kanpailan. Ekaitzak baztertzeke, deporaleak eteteko, edo obeto esanda, itxas aldera urrundu eragiteko. Edo ta amatasunean, amagintzako gertaera illunetan, miñak eta nekeak aaztu eragiteko. Iru bidar jo bear izaten da olakoetan kanpai entzutetsu au.

«Bekoak goikoa
ezkondu leidi,
txikiak andia
benzi leidi
asmuz eta jakitez».

Bengoetxetarrak euren ikurdian (eskudoan) ori ipiñi ebenean, psikologi aldetik eta psilosofi aldetik kaskarrean serraitsa baiño pixu geiagoko zerbait ba eukela adierazi eben.

Bear ba da munduz eroaten dira lgotz mendiko arrien autsa eta oiña.

Eta jakiña da, arria da gauzarik andienen «oin-arria».

Txokolata antxiñako erara egiten da oraindik Aulestin.
Pastelak, txutxuak, bizkotxo eta kanutilloak, orain berrogeta-
mar urteko teknikaz.

Ogia, baserriko ogi zuri ederra, berakats sopia egiteko beste
iñur: ez lako.

Ze erri bedeinkatu da au?

Ameriketan éz ei dago dolarrik ori ordaintzeko.

Fedetsuak dira aulestiar andrak.

Eta brixkan jokatzten jarraitzen dabe, eskaratzetan edo ata-
dien ostetan, etxeko, kaleko, erriko eta munduko buruausteak eta
problema eureka ze ikusirik ez ba leuke lez.

Eta oraindik dirurik ez dabe «desbalixotu», ez dautse baliorik
kendu. Errial bategaitik brixak urtenda jokatzten dabe. Jakiña, brix-
kan.

0 mutil tonto,

jateko pronto!

Aita nun dago?

-Soluan.

-Zer egiten?

-Garia ereiten.

-Garia zetako?

-Uruna egiteko.

-Uruna zetako?

-Ogia egiteko.

-Ogia zetako?

-Abadiantzako.

-Abadia zetako?

-Mezia esateko...

Baiña kate onek, nai bestean luzatu leiken kate onek, asierako
utsa dauko, asierako malla falta. Garia erein aurretik lurra gertatu
egin bear da.

Origaitik Murelaga'ko parrokian, sagrarioa laia biren ganean
ipiñi dabe, ondoren onari asiera jatorra emon bear dala adierazi
nairik, edo kristau bizitzaren indarra lanagaz buztartu nairik.

Murelaga'n urteko domeka guztietan jai artzen da.

Bitarteko jai guztietan be bai.

Gernika'ko astelenetan be bai.

Eta amar ermita dagozan lez, bakoitza bere zaindarekaz...

Baiña Murelaga'n domeka eta jai biarra egin bear izaten da.

Beraz iñun baiño biar geiago. Edo ta jai gitxiago.

Origaitik iges egiten ei dabe gazteak Ameriketara.

Ainbeste jai egiteko dirurik ez ei dago emen. Baiña ainbeste

jai artzeko astirik be ez.

la nok eteten daben korapillo ori. Edo matasa ori aritu.

Eun urtean ia erdira etorri da Murelaga. Inguruko erri guztien antzera.

Orain eun urte milla ta lareun bizilagun batzen ziran bertan.

Orain, zortzireun inguru.

Orra aldatz-beraren neurria:

1960'n, 980; 1966 urtean, 945; 1970'n, 810.

Aulestiarrak ez dira beti artzain edo lurgiñak izan.

XVI garren gizaldian itxasoetako kapitan lez ezagutu zan Aulestia eta Mendiritxaga bat.

Orduan itxas lapurretak bizi legez artzen ziran. Joan etorrian ebiltzan txalupak ez euken gaur lako bakerik. Entzute andia euken itxas lapurrak. Orretariko bat, Karamani ezaguna, berak makurtu eta baitu eban.

Geroago kapitan au Lepanto'ko gerraetan be ezagutu zan.

IMai eta beste torre batzuen anditasuna eta ikuspidea euki ez, ba dago Aulesti'n torre zaar bat.

Noizkoa?

Orra, antxiñako gauzaen illuna.

Ibarguen Cachupin'en eritzietan, Gartzia Naparroako Erregetako batek jaso da torre ori, orain milla urte baiño geiago: 930 urtean.

Beste batzuk urteak kentzen dautsez, 1.053 ingurutara ekarri eta Muxika'ko Andramendi etxearen ondoren lez ezagutu:

Dana dala, torre onek be Bizkaiko jauntxoan gora berak ezagutu zitun. Nasteak eta gerrak, azpikeriak eta gorrotoak... Eta olako baten, 1.451 urtean, Bizkaiko Anaitasuneakoak, Hermandadekuak, su emon eutsen, beste alderdietako batzuk bertan batu eta eskutaten ziran aitzakiz.

Orrelaxe zan giroa, orrelaxe orduko jokabidea.

Baiña torre orren jaubeak, Aulestiarrak, geroago be indar andia euki eben.

Eleizan toki berezia lagaten yakoen eta bertan obiratzten ziran etxe orren ondorengiak, eleizako «patrono» ak eukiten eben eskubidez. Oraindik oraintsu, lengo gizaldian, emeretzi etxeren amarenak Torre onetako jaubeak artzen ebazan.

Murelaga, bertatik kotxean igaro bear dabenarentzako, kale bakarra da.

Askok Aulesti izenagaz ezagutzen dabe, toki ori Aulesti dala-ko.

Baña Murelaga'k kale eta auzoekaz, Ibarrola, Uriola, Narea, Goyerri-San Anton, Zubero-Malax, 25 kilometro lautu edo kuadrau daukaz. Arbazegik baiño kilometro erdi geiago. Mallabik baiño bi geiago.

Bizilagunez, ogetasei erri ba dira Bizkaia'n bera baino txikia-goak.

Gernika'ko batzarretan emeretzigarren emoten eban bere eritzia. Bedarona'ren ondoren eta Nabarniz'en aurretik.

Gerrak eta nasteak, politikak eta diruak erabilten dabez gizonen izenak aidean.

Arteak be, bere ots eta bere ikutu ixillez, nortasuna emon eta gizonak andi egiten ba daki.

Zarata ixilla izaten da artearena, zarata mutua, baiña begiak be gizonaren sentsu dira eta ederraren ameslari.

XVIgarren gizaldian izen andiko taillugille bat, tallista bat ibilli zan Euskalerrian. Lan asko egiten ekiana. Ez bakarrik kutxa eta arkak dotoretzen. Eleiza askotako irudietan, imagiñetan eta erretabluetan garbi ikusten da oraindik bere eskua: Martin Basabe zan, talla egilfe eta arkitetua, murelagatarra.

Ez zan errian geratu, toki askotara deitzen eutselako, baiña errian be laga nai izan eban bere artearen ezaugarria. Eta ez asi barri zala, beste tokietan lan ederrak egin ondoren baiño. Parroki-ko sagraioa berak egiña zan, 1 603 urtean.

1587'en Bilbo'n, Uribarri orduñarrak eta berak San Anton'go eleizako aldare nagusiko imagiñak egin ebezan. Bilbo'n bertan Santiago dotoretzen be ibilli zan.

1601 urtean Jemein'go eleiz ederrean berak egin eban sagraioa eta Penagos bilbotarrak urrez dotoretu.

Geroago, urte bi geroago, Getaria'ko altare nagusian be bere lanak laga ebazan.

Orra bere sasoiari Murelaga'ri, lanaren maitasunez eta artearen ezaupidez, izen andia emon eutsan gizon bat.

Txalogarri dira olako gizonak eta erritarren begi onaren duin.

Murelaga'tik ba noa.

Nire errian baiño zarata gitxiagoz lo egin leike bertan.


Santa Eufemi azpian gogoan dodaz gaztetako denporak.

Argizaria gerrian lotuta ibilten ekien erromes askok bide one-

tan. Orduan be erromeriak egiten ziran.

Nik eztakit arein fedea itsua izango ete dan edo ez. Baina sasoiari sasoiko lotsa barik agertzen jakin eben. Eta, zetan ukatu?, umore onez be bai:

Santa Eufemi zelaian
neskazarrak dantzan,
agureak kiñuka
iñor jausten ba zan.



MUXIKA

GOROZIKA eta IBARRURI

Gorozika'n nabil. Gabon eguna baiño zapatu bi lenago. Egale banatan, garbi garbi, baiña neguko berde illunez, Oiz eta Bizkargi.

Gorozika'k ez dauka ze ikusi andirik. Parroki txikia. 1526 urtean egiña. Ordurarte Etxano'ra joaten ziran emengoak, premiña guztietan eta fedeko egunetan. Barrokoa. Garbi. «Kristo altara da» esaten dau meza eskintzeko arrizko maiak, errez ikusi eta irakurteko eran.

Aldaretako maiak, gaurko erara erriari begira egitean, leku askotan ez dabe jakin lengo aldara eta gaurkoa tankera baten buztartzen.

Erria ukatpil baten sartzekoa da. «Norte» eta «Sur» egalak, biak be metro gitxitara. Bien erdian eleiza. Eta bietan, bategandik bestera neke barik, tabernak. Ez bata eta ez besteak ez dauke, kanpotik beintzat, izenik.

Eleizpe aurrean, ebagitako bedarra daroan andre sasoiko bateri, zerbait itandutearren, diñotsat:

- Mesedez, gabonetan zelako aparia egiten da emen oituraz?
- Al dabenak, al dabena.
- Ez al dago zerbait berezirik, egun orretarako aukeratzen danik?

-Orain ez. Bear ba da angulak.

-Ez da apari ozkilla!

-Iñoiz jatekotan noiz gabon gabeen baiño obeto?

-Orio aza eta abar?

-Oi! Orreik gure gurasoenak ziran.

-Eta sagar saltsa, intxaur saltsa edo olakorik?

-Or beko andreak (besteak baiño beratxuago egiten dan etxea izentatuz), arek ba daki egiten intxaur saltsa. Baiña besteok...al dantxua.

Barrezka geratu da andrea, nire itaunak arrituta.

Eleiz aurrean dagon baserri baten egurrezko «fatxadeak» begiratu eragiten daust. Baserri etxe batzuk, euren egituran, beti dauke ikusgarri zerbait.

Gaur Bizkargi errez ikusteko eran dago.

Negua da eta berandu nabil. Baiña goiz-lena izan balitz, pozik joango nitzan. «letaña» bidetik zear.

Ez da ain zuzen be mendi goi goia, «altua». 563 metro. Etxano, Larrabetzu, Morga eta Muxika'koak alkarregaz batzen ziran, letanien egunetan. Eta Etxano'ko alkateak bere aiztamakilla lurrean sartu eta bere agindupean zainduten eban erronomia.

Bizkargi mendi au, 1937'ko Maiatzean, itargiko lurraldearen irudian geratu zan, i! guztian jo ta jo eten barik gure «gerrikotik» eta al zan tokietatik bertara bialtzen ziran obusak egindako zuloen zuloz.

Maiatzaren 1 1'an, bat batean, uste gabean sartu ziran nazionalak goi-alde onetan. Bezperan Errigoiti inguruan artu eta Zarraigoikoa baserriaren egalera eldu. Gero, urrengo egunetan, egunean bost-sei bidar egiten ziran alegin bizi eta kementsuak, batzuk eusteko eta besteak barriz artzeko.

Egunaren lenengo ordutan kañoiien indar eta suz gertaerak egin, eta gero soldadu eta gudariak alkarren aurrez aurre gordin-gordin saiatu gerrako zeregiñetan, alkar ilten.

Il orren amabosta izan zan egunik garratz, odoltsu eta izentauena. Emen, Bizkargi'ko Kurutzearen itzalean, ez jakin zenbat gaztek biziaren aria eteten sentidu eben, alde batetik eta bestetik. Batzuk eta besteak etenda, indargetuta, odoluztuta, zatituta, zirkiñik egin ezinda gelditzen ziralako, indar barriak agertu arte, eta oraindik aienaka eta intzirika sentiduten ziran mutillen gorputz zatiak batu ezinda ebiltzen artean, eurei laguntzarik txikiena ezin eskiñita, barrero alkar jo eta ilten.

Onen ondoren, Arrati aldea, gerrako zeregiñetan, zabal geratzen zan, errezago.

Muxika da gaur Gorozika, Ibarruri eta bere artean egindako erri-batasunaren buru.

Iru errialde onein artean, lurralde zabala artzen dabe. Mendi-

tsua.

Gorozika'k bereak eukazan 9 kilometro lautu eta 300 lagun inguru. Gernika'ko batzarretan, 32 jarlekua.

Ibarruri'k ia 21 km. lautu eta 700 lagun. 31 garren jarlekua.

Muxika'k, 20 km. lautu eta 1.400 lagun. 7garren jarlekua.

Gaur, danetara be, iruron artean bi milla lagun 50 km. lautuetan.

Danen adiskidetasunean egin ete zan batasun au, askon ardurabakotasunez, edo ta konturatze barik?

Batari itandu eta bestea zirikatu, Ibarruri'n eta Gorozika'n ez da giro onik igarten: miña bai.

Nai eta txikia izan, nai eta estu ibilli, norbere etxeko aukera beti be maitagarri izaten da.

Gaur Muxika ikusteari laga egin dautsat. Sartu ta urten. Erri entzutetsua zan istorian eta geroago egingo dautsat ikusaldi astirotxoko bat.

Ez dakit etxeetan, baiña oraindik talo ta esnea artu leikez emen tabernan. Guraria, kapritxoa.

Ba nua. Ain zuzen be tokirik berengoan. «Vista Alegre de Muxica» irakurten dot.

Gernika'tik Zornotza'rako bidean sarzen naz eta Gernika eskumatara laga ta ezkerretara jo.

Ermitatxo bat igaro dot laster bidean. Oka.

Enbeita zárarren bertsoak, «Urretxindorra» ren bertsoak gogoratu eta ekarri neikez:

Esango dau norbaitek, nun dau, baña Oka?

Ara: esango yatzu: ez jarri ain loka.

Iru sarrera daukoz, antxiña irazita,

Ibarruri, Muxika eta Gorozika;

Iru mendi biribil andiren erdijan

dago antzoki eder baten irudijan.

Erreka eder batek, gurturik gautegun,

Ixasorantza duala egiten dautso mun;

Basabide, bitxabal, eta burdinbide,

poz pozik daukoz beti onduan begire.

Ementxe dago ermita zar bat. Txikia. 1496 urtekoa dala diñoe. Edurretako Andra Mari. Inguruetan maitasunez ikusia.

Aurretatxuago, Zornotza'ik Bermeo'rako trenaren bidea ezkerretara igaro ta bide kurutzea.

Ibarruri'ko bidetan nabil. Errialdea ikusteko, emendik Ajuri'tik Urrutxu'ra doan bidea laga bear dot. Jarrai aurrera eta gero «Monte Calvo»tik zear Durango'ra doana laga ta errian sartu.

Eleiz barri bat egal baten. Gaurko parrokia. Polita. Oraintsukoa da. Gure denporetan egiña: Lengoa erre egin zan.

Unda'etara doan bidea laga; taberna bat; segi aurrera eta len erri burua zana aurrean.

Ikurdi'dun etxe bat aurrean. Merzedeko monjak egon ziran bertan. Iru lau etxe inguruan, beste taberna bat eta eskolak, eta pelota tokia.

Auxe da Ibarruriko erri burua, sokondo bate.n. Inguru guztietan, piñadiak.

Undaetako bidetxoa artu eta ba nua gora. Asieran sokondo batetik doa bidea. Estua, auzokoena da. Baserri ikusgarriak. Politik ez, ederrak Unda oneitan dagozanak. Artista askok pozik ikusiko leukez.

Goian, bide nausira eldu ta Maume lagatera nua. Mendata'ko nire ibillera agertu nebanean, zerbait esan neban Maume'ri buruz. Ba dakit nire eritziko ez zirala danak, baiña nik nire irizpidea agertzen dot. Maume'ko baserritarren alegiñak txalotzen dodaz, batez be auzoa, bere ikastola ta guzti zaindu nairik. Ez neban esan len emen gaztai ederrak egiten diranik be. Bilbo'ko perietan lenengo sariak irabazteko duiñak, irabazi eben lez. Eta soiñu jotzalle onak dagozanik be ez. Baiña nai ta ezko da erri ta auzo bakoitzean gauza asko lagatea.

Urrutxu aldera nua. An beian Ajuria ikusten dot. Pillotuta, eleiza eta pelotakoki ta eskola inguruan.

Ibarruri'tik urteeran, gogoan dodaz bertako gizonak. Gogoan daukat emengoak izan zirala, Patxi Arandia buru zala, Gernika'ko Batzarretan Diputasiñoaren kontura Astarloa'ren «Discursos filosóficos de la lengua bascongada» argitaratzeko eskatu ebenak Euskeraren kezka.

Eta Durango'ko istorietan irakurri lei emengo Santa Ana eleiza egin eben argiñak, lenagoko eleiza, au da, 1723 urtean beratu zana, ibarruritar argiñak izan zirala. Ala Juan Barandika, Martin Barrenetxea, Martin Basantxa, Txomin Elgezabal, Muxika eta abar. Euren maixu lez Errodrigo Albiz. Argin maixua zan au, neu rrietan teknikoa..Bilbo'ko Santiago'ko eleizpea beronek laga eban irudituta.

Beste bat. Arteari buruz. Ajuri'ko parrokian, flamenko erako erretablu pintatu bat egoan eta Gazteiz'ko Museo'ra eroan eben, ltxuraz, bilbotar merkatari entzutetsu bat emen obiratu eben emen lurra emon, eta origaitik egiña zan.

Zegaitik lagaten dabe erri txikiak euretako artea galtzen?



ONDARROA

Andramaritan Ondarru'tik kanpora ibilliko ba nitzake, ondarrutar jatorrak, «tradiziño» zaleak, eleuskidake parkatuko.

Beraz, irakurle, etorri Ondarru'ra. Guk biotz andia dogu ta lepo zabala. Konbidautza egunak doguz. Dagona danontzako.

Ondarru'ko jaiak, lenagoko urteetan, Santa Clara egunarekin batera asten dira.

Kantauri itxasoan, galerren bategaitik, ondamendirik andiena gertatu zanian, iru bakarrik itto ziran ondarrutarrak. Parkatu alargun eta umezurtzak iru «bakarrik» esan dodalako. Kontuan euki Bermeo'n 1 16 zirala, Lekeitio'n amasei, Elantxobe'n be zortzi. Ondarrutar geiagorik etzan galdu, ain zuzen be, emengo txalupak jaietara urreratzen etozalako.

Ondarrutarrak kantaten asiak ziran:

«Erderaz zara Klara,
euskeraz Argia,
zeu zara zeruetan
izar bat garbia».

Kantua, abestia, biotz eta gogoia zabaltzea ba da, ...ondarrutarrak gitxik irabaziko dauskue kantaten.

Erderazko esakera d.a, «alábate burro...».

Baiña ez. Nik jai artuko dot eta beste bat ekarri gai ontaz. Ara, Lekuona'tar Imanol jauna. Au ez da ondarrutarra: oyartzuarra. Ez da bizkaitarra be: giputxa. Ez eta itxastarra: kale baserritarra. Ez da

edozein ikasle: Euskaltzaindiko lendakaria izana. Euskal erriaren eta bere izkuntza, oitura, arte eta sinistetan, erriak ifzik ba dau, ez maixu bakarrik: dotorra.

Irakurri bere esanak:

«Bultzaka ta indarka iritxi genduan korura igotzea. Completak amaitzera zijoazen...Ez al zuten apaizak azkeneko Pater eta Ave esan, organistak bere armoniuan hieroglifico labur bat egin ondoren, or ekiten diote Elizan dauden guzti-guztiak elkarren leian, «velut agmine facto», kantari. Santa Clara'ren kanta... An beian, elkarren gainka datozen olatuen burrundara, ez da izaten ain indartsu. Neurri ederrean danok, ori bai; bañan alako burrundara ikaragarri batean.Emakume eztarriak ia danak; itxas gatzetan garratzutako eztarri bortitzak...Esan zitekean Elizatxoa ia aidean jaso nai zutela paperezkoa bai litzan. Bizkar-ezurrean gora ikaragarriko zirarra eragiten zigun tarteta-tarteka doñu ukigarri arek, emakume aien eztarri ukituetatik alako boladan ateratzean. Kantu ederra. Kantak ederrago. Ez gutxi ere...»

Bezperatik Completak.

Ordurako eta biaramonerako Antigua'ko eleizatik eroaten eben armonioa, lepoan. Eta abadien jantziak otzara luzetan. Eta andrak, pedarretan, azukrerrezau eta limoiakin naastutako ura saltzen, Arta'ko eskillaretan edo eleiz inguruan bertan. Eta erri guztia dantzan meza ostean, tamboliñean, auresku eta fandan-goetan, intxaur arbolen kerizpetan,

Gaurko gazteak bota gaitue bazterrera. «Tradiziño» ustela ei da ori. Eguerdiko urak izerdia ei dakar eta goizaldeko biterrak ez. Baiña, kontuz. Santa Clara'ren kantuetako bertso bat gogoratu:

«Monjen erregaluak
intxaurrak oi dira
aiek ere danak
ai piñak ba lira!».

I Erri estuegi, txikiegi geratu da Ondarru bertakoentzat. Lengo kale eta bideak oraindik. Etxe barriak ba datoz, baiña kale ta plazak lengoak. Aterpea billatzen da, baiña aizea ittota, ikustokiak es-tututa, gaur eskatu bear litzakezan baldintza asko aaztuta. Gaur aietzen diran «espazio», bitarte, nasaitasun, atsedenleku eta abar oraingo alboan lagata.

Lurrik ez ei daukagu. Ez ei dogu nai eta ez ei dakigu portu gaiñetik urten eta alderatzen.

Orra, ba, gure errian, alkarren gaiñean. Ala ta be, Andramariak dira. Ondarrutarren maiak ugariak dira ezagun bat kalean lagateko.

Gure denporetan (denporak baiño lenago zaartu gaitue), goizeko bost eta erdietarako, Antigua'ra joaten asten giñan. Andre asko zai egoten ziran eleiza noiz zabalduko.

Ondarrutar banakak geratuko ziran Antigua'ra eldu barik. Eta «okasiñoetarako» jantzia, trajea eukenak, sitsak eta litsak kentzen uturezan egun onetarako.

Bein, praille bat, ez zan sermoitarako sasoiz eldu. Pekatu mortala. Meza ondoren egin eban sermoia. Grazirik barik, jente guztia mar-marrean, Ayuntamentua batzarrean batu ta Markiñako prailiei gelago sermoi egiten etortea galerazota laga eben.

Oraindik oraintsu Donostiko gotzain izan zan Bereziartua jaunak, jaiari ospea emotearren, «pontifikal» baten legeetan meza eskintzea pentsatu eban. Antigua'ko eleizan barik, parrokiari. Bai? Ametsetan ixildu zan bere asmoa, asarre beroa geituten igarten zan-eta.

Oraintsu konpondu da Ama Birgiñaren irudi zarra. XIII-XIV'koa. Askok ez ekien irudi au irudi osoa zanik. Ederra, tankera egokikoa. Artistaren batek maitasunez eta zur egiña.

Lenengotan, ondarrutarrak, jantzi barik gurtuko eben. Ezpai barik. Gero oiturak aldatzean, sedazko eunak, telak agertzean, kapa ederrakin. Ontan, edertzea zalakoan, ezin ukatu al zanik erriko zaindariari.

Orain giroa aldatu da kalean eta eleizan. Eta Ama Birgiñaren irudia zelan agertu, berez ain ederra dala konturatu ondoren?

Ba..batzuk eta besteak amore emonda. Batzutan dagon lez, dan lez, eta bestetan jantzita.

Dana dala, batera nai bestera, fedea da premiñazkoena, sinismena. Ez itsua, betea baiño. Gaitz?

Salbetan lez abestu daigun:

«...konfiantza osuarekin
nago Zugana jarria...»

Jaietan ez zaite Ondarru'ra etorri sagardaua edateko asmoz. Ori paperetarako geratu zan. Bilbo'ko baster batzuetan ikusten dira oraindik paper txatalak: Sidra de Ondarroa. Txo! Nungo sagar, nungo ur eta zein tolaletan egiña?

Antikuarioen paperak! Parkatu: «Antikuario: arte antiguoak estudiantzen dituen» irakurri dot oraintsu agertu dan «Hiztegi tipia» baten. Nik «antxiñako gauzekin bizi dana»ren esan naia emon nai dautsot. Edo fede onean bizi diranena. Edo, zegaitik ez?, siniste oneki gizonei dirua ataraten dakienena.

Ondarru'n arda baltza edaten da. Eta, eta...ia kanpeoi. Aurre-ra, beti Aurrera edozein ordutan kantateko aiña.

Ez etorri, ez eta be, arrain sopa jateko asmoz. Ba dauka entzutea Ondarruko erarako arrain sopak. Ez daukagu jaietan orretarako astirik. Urrengo baten zeure etxean egin ziñei eder bat, errez.

Zenbat zarie etxean, lau? Itxas sapo buru bat erosi. Edo perloi baltza. Ondo garbitu ondoren, salda egin, zanaori bat, perexilla eta gatza botata. Tomate zale ba zara, ordu laurden irakiten euki ondoren, geitu. Kaldoa, salda irazi eta gorde.

Txirlak oriotan erregosi, brixidu, eta eurakin baten lebatz zati bi, azal eta azurrak kenduta. Txirlak brixidutean, kikara bete arrain saldez estaldu, su bizitik kendu eta amar minututan irakiten laga. Gero arrain zatiak eta txirlak sopa ontzira aldatu eta lagunentzat aña arrain salda geitu. Urte guztian egin ziñei ori, ez?

Jai egunen artean ba dago amar urte oneitan indar andia artu daben bat: arrantzale eguna. Asmo onez sortu zan eta bat batean zabartu. Ba dirudi azken urteotan itxuratzen datorrela, finduten, bere giroa artzen.

Erbestetik jente asko agertzen da egun orretan. Bete betean geratzen da erria. Eta ondarrutarrak daukagun esku eta biotz zabalta-sunez, datozen guztiak aseta laga.

Edozein etxe, atadi, kantoi, zirkulu eta egaletan, marmitako usaiña artuko dozu. Edozein bodega, aterpe, itxas-ontzietan, lurrun bardiña arnastu.

Zu dantzan eta kantuan zabilzan artean, edo egalen baten pott eginda, aize artzen edo indar barritzen zagozen artean, lapiko, kazulara, topin eta perolak sutan. Edonun.

Eta ondarrutarrak marmitakua eskiñiko dautzue. Alkarren leian, zeñiek obeago lez. Ori bai, anaitasun bete betean.

Marmitakua zer dan?

Gai-gaiñez esanda, atuna patatakin. Baiña bere tokian, bere iza-tean, bere puntuan.

Amar lagunentzako, gitxi gora-bera, kilo ta erdi atun, egaluze; kilo bi patata, ogi mami batzuk, tomate ondo elduak, kikara bi saltsa, dozenerdi piper berde, txiki txiki eginda, kipula bi, berakatz, gatz eta abar. Amar onek asko esan nai dau. Ez dago legerik. Sukaldari bakoitzak bere eskutukoa. Idarrak, porruak, eriñotza, zanaori, ardau zuri, pattar, piper-auts, piper min...

Talde bakoitzak bere errezeta emongo dautzu. Ori bai, ziur egon, zuk bein, birritan eta geiagotan be, platera betearren, iruntsiko dozula.

Arrantzaleak atunari omen egiten dautse egun onetan. Eta adiskide eta lagunak, omenaldi orreri, amen.

Orixe da egia.

Irakurle adiskide: Ez lotsatu. Ondarru esku zabal dozu.

Berak ikusi eban tokirik erromantikuena zala esan eban Hum-bolt izkuntzalariak, 1 801 urtean emendik igaro zanean.

Andramarietan ez etorri bazterrak ikusten bakarrik. Lurrak diru egarri asko igaro dau ordutik ona. Eta itxurak be diru egarri orren menpe jausi izan dira.

Erdu anaiak besarkatuten eta eurekin biziten.

Orretan, Ondarru, bakarra da.

Ondarru!

Gure eta nire Ondarru! Eta zurea be bai, Ondarru, izatez eta biotzez, zabala da-ta.

Nor da, baiña, profeta bere errian?

Nik ba dakit batzuk gura leukela problemaz beteta agertzea, edo buruaste orreik paperetara ataratea.

Portuko problemak.

Etxe-gintzakoak.

Kale eta tokienak.

Erbestetarrak ekarri bearrarenak.

Irakaskintzakuak, eskoleri dagokiozanak.

Urarenak.

Garbitasunari dagokiozanak.

Patroi eta tostartekuen artekoak...

Nun eta zetan problemak billatu ez, artara jo ezkerro?

Oraintsu, mendiz nebillala, Armetxa eta Iturrino bitartean, sei ondarrutar billatu nebazan, euren artean eztabaidan. Ni ikusi orduko, onetxek erabagiko dausku, esan eban batek pozez.

-Zer?

-Ardau botia, lagunarte baten ataraten danean, batak bestea-ri ezkerretik ala eskumatik emoten jarraitu bear daben.

Nik esan neutsen oitura zabalagoa izango zala, eskumatik ekitea, bear ba da eskumaren errespetuz. Eta eurak ezetz, mariñe-lak eta arrantzaliak, itxas ontzietan, ezkerretik eroaten dabela. Aserretu egiten dirala, gaiñera, orrela egin ezik.

Orra! Orra zetatik buruauste bat sortu.

Beste batzuk, barriz, zuri-zuri agertzea, erakustea, pintatzea naiago leuke.

Itxasoa, portu-bizitza, kalma zuritan.

Erritarren izakera eta alkartasuna berde-berde, itxaropenez beteta.

Erri garra, erri bizitza gorri-gorri, maite miñetan.

Kale nai etxetako giroa, irabaziak, premiñak urdin-urdin, ipar aizetan.

Eta gizarte giroa, eta siniste giroa, fede bizikera kapa baltz andipean, bake santuari. «Paternoster» ak isopoagaz asi zala, akoli-tuen «amen kirie-eleison'etan».

Batak eta besteak, beste aukera baten aztertzeakoak litzakez. Begoz gaurkoz.

1933 urtea ez da antziñetako urtea. Asko bizi giñan urte

orretan.

A.G.I. urtekarian, auxe irakurri zeinkean: Ondarru, 4.41 1 bizi-lagun. «Produce cereales, patata, legumbres, maiz y ganados. Puerto de mar». Zelako begiz ikusi ete ginduzan agiri ori emon ebanak?

Ondarrutarrak zaratatsuak ba gara. Ez dogu ukatzen. Berbal-dunak, apanak.

Itxasoetako emaitza ei da ori. Abotsa galdu egiten da itxas zabalean eta alkarrerri be zarataka itz egin bear. Eta itxasoetako oituraren indarrez kale eta etxeetan be bardin. Andra askori entzuten yake gizonei esaten: Tira, ezkara gorrak be-ta! Eta orduan, jakiña, aboskera beratu egin bear, ekaitza baretzeko, denporalia kalrnatzeko.

Baiña zaratatsuak izanarren ez gara biotz txarrekoak. Eta ez gara gerra zaleak be.

Ala ta be... «los ondarreses, mundialmente famosos por los béticos acentos del Boga Boga Mariñelak» irakurri gendun orain urte batzuk (El Correo Español 23-IX-1 966).

Orra guk maite miñez abestuten dogun abestia, polbora autsez beteta.

Estropadetarako garra, biztu naia igarten da errian.

Ba dogu gure entzutea orretan.

Azkenengoz 1926 urtean joan giñan Donosti'ko estropadeta-
ra eta irabazi.

la urtero urtero min emoten daukue estropadak dirala-ta.

1890 urtean, negu baltzean, Abenduaren 2'an, Lekeitio'tik eta Getari'ko muturrera egin zan estropadea ataraten dabe beti paperetara.

Estropada a galdu egin eben ondarrutarrak. Ezin ukatu. Ze-
lan? Azpikeriren bat egon ete zan? Edo teknikako utsen bat? Edo konfiantza larregi?

Ondarrutarrentzat gogorra izan zan a.

Urte bete geroago, arimen egunean arrantzaliak urtero egiten eben batzarrean, zin (juramentu) egin bear ebala esan eutsen pa-
troiari, azpikeririk etzala egon estropada aretan eta gauzak garbi iagateko.

Egun aretan, goizaldean, lenengo mezatan jaunartu ondoren, Zaldupe'tik zear joaten ikusi ei eben patroia, juramentu ori egitera makurtu barik.

Bildurrez? Lotsaz? Minduta? Etsita?

Ez jakin gizona zek makurtu leikean.

Jakiña, esan-mesanak eta zurrumurruak indar geiago artu

eben, ori egitean.

Geroztik Castro aldean bizi zan, bere erritik alde eginda.

Donostiarrak Karril eroan eben euren patroï.

Ondarrutarrak Ambrosio Bedialauneta. Eta erramulariak oneik ziran: Salvador Agirre, Migel Aranzamendi, Doroteo Badiola, Pablo Atxa, Juan Zugazaga, Jose Olarreaga, Bruno Aremayo, Jose Osa, Rufino Badiola, Felix Urresti, Pedro Uribe, Pedro Larrañaga eta Adrian Bedialauneta.

Donostiarrak 81 minututan egin zituen amar millak. Ondarrutarrak minutu bat eta 28 segundu atzerago.

Ondarrutarrak aukeratu eben treñerua eta donostiarrak baliza. Karril'ek, baliza aukeratzean, kosta aldekoa aukeratu eban.

Ordutik, aukerarik billatzen ba da, estropada ori aizetzen da, besterik jokatu ez ba litz lez. Denpora guztietako estropada bakarra bera izan balitz lezi.

Baiña or dagoz Ondarru'n estropadetako ainbat bandera.

Ezagutzen dan banderarik zarrena be ondarrutarrak irabazia dala esaten da. Eun urte baño geiago daukaz.

Ondarrun dagozan banderak oneik dira:

1865 urtekoa; 1887; 1888; Urte onetan beintzat Irailla'ko domeka bitan irabazi zan Donosti'n eta geroago, Santa Katalina egunean, Getari'tik Donosti'ra bitartean, Pasai eta Ondarru'k jokatut ebona. Ondarrutarrak 84 minututan egin eben ibillera, pasaitarrak amabost segundo atzerago. Ala ta be biak anaitasunean gelditu ziran, jokalariaik egin bear daben lez.

Lengoz gañera, 1898 urteko bandera dago, bai eta 1902 eta 1926 urtetakuak be.

Eta urrengua?

Orra, illuntzetan, Artibai errekan, treñeru txikia, erramulari go-goa sortu eta berotu nairik.

Azkenengo txanpa noiz izango ete da?

Zeïnek pentsatuko eban Ondarru'ko erria, illeetan, Antigua'ko Amaren irudia ikusi barik egon zana?

Eta alaxe gertatu da. Eta bear ba da, ondarrutarrak len baño fede biziagoz gogoratu gara beragaz.

XV garren gizaldiko irudia, imagiña, zala esaten da. Aita Lizarralde'ren eritziz, Ondarru'ko parrokia egin zanean, bertarako egiña.

Baña...

1973'ko Otsailla'ren 25'an eroan zan irudi maitagarri au Santillana'ko Museo'ko tallerrera, konpondu bearrean egoan eta.

Asierako begirapen eta ikutuak egin ondoren, ikusi izan zan irudia uste baiño galduago egoala.

Zidarrezko edo pitxizko koroia ipiñi eta lotu al izateko, buru gaiña zerbait ebagita dauka.

Begiak ez dira lenengo irudiarenak. Geroago sartutako kristalezkoak dira.

Saman, lepoan, zulo andi bat, egurra janda. Ez andia baiña bai errez igartekoa.

Gibelean, gerrian, beste zulo bat. Au bai andia.

Gerri zear, alanbre lodi bat. Lenengotan zetarako ete zan igarri ez ba zan be, geroago ikusi zan egurra gerriraño zabalitzen asia zala eta eutsi eragiteko nunbait.

Egaletan, eta gorputzaren toki eta alderdi askotan, ultze zuloak eta ultze andiak sartuta be bai.

Oiñak, alderdi baten osorik falta eta bestean zatika jausten.

Atzea, arbolaren gerria, burutik oiñetara, utsa da, baiña karez, igeltsu eta zementuz tartetan txaplataz betea, segurutik osotasuna zaindu nairik, indartzeko asmotan.

Egurra: gaztaña garbia.

Orra, arin arin, imagiñaren egoera, tallerrean sartu zanean.

Eta oin dator jakin naia:

Noizkoa ete da irudia?

Ikusi daben teknikoen eritziz, XV garen gizaldikoa baiño zarragoa da. XIII garrenekoa? Ainbestera eltzen ez ba da be, XIV garrenekoa bai beintzat. Beraz parrokia egin aurrekoa.

Lanean asi eta arpegiko kostrak kendu eta lenengo kolore mardula, bear ba da gaurko erarako gogorregia, garbi agertu yakon. Orretara eltzeko, sei azal, sei kapa, sei «repinte» beintzat kontatu izan yakoz.

Beraz, gizaldien denporetan, sei bidar dotoretua izan da gure Amaren irudi ori.

Soiñeko polokromia be ez da lenengotakoa. Beste zarrago bat billatu yakon.

Ikusten danez, gure aurretikoak be iñoiz ikusi eben irudi maigarri au dotoretu eta itxuratzeko premiña.



OROZKO

Abando'n jaio eta Laudio'n bizi, Orozko'n maitasunak erdibituta. Edo geituta. Esakeren gora bera da ori. Orra Jose Arrue margolaria, pintatzallea.

Orozko'ko maitasunak erri au barru-barrutik ikustera eroan eban. Bere jai eta erromerietan, bere feri eta merkatuetan, bere oitura eta sinisteetan.

Ibiltari bohemioa gaztetan. Europa'tik zear arloteen bizitzan. Teatroetan eta bertako artistekin bizi modua atara nairik. Geroago etxean, baiña beti bere begiak ikusten ebena eta bere irudimenak biribiltzen ebana kuadroetan agertzen.

Arrue'ren margo irudietatik, kuadroetatik asi nitzan Orozko ezagutzen. Bere kuadroak eta bere tarjetak, geienetan barregarrikeriz, ugari dabiltz bazterretan. Santa Luzia'ko feria; San Anton'go kalean toreatzallen arrera; bolatokian; Meza nagusi ostean etxerako bidean...

Ezin ukatu margolariak, pintatzalleak, erri baten erakusle on eta deigarri izan leikezanik. Onetan Orozko'k, bere mendi eta bazterrak, bere gizon eta izateak, erakusle onena billatu eben Arruegan.

Argi ikusten da orozkotar emakumeak, bere atzetik ebillan artisteari, andratu zanean etxera begira biziten erakutsi eta zaletu ebana.

Orozko'k eta bertako emakumeak nortasuna emon eutsen lau anai artistaen artean bere zaletasune[^]n ez-bardiñena izan zan Arruetarrari.

Lurrez Bizkaitik bigarren andiena da Orozko, Karrantza'ren ondoren. Baiña Karrantza'k kilometro lautuko 30 bizilagun daukaz, eta Orozko'k 23.

Lurralde ederra baketsu biziteko. Danetara be 102 km. lautuetan bi milla eta laureun bizi lagun. Gora bera andi barik urte luzetan.

Orozko'k ez dau beti Bizkai barruan iraun. Zortzi gizaldi ingurutan ez beintzat. Jauntxoen goraberak. Ayalatarren eta Abendañotarren mendean bizibide berezia euki eben. 1574'n nai izan eben bertakoak Bizkaira biurtu, baña Ayalatarrek eurenean eutsi. Azkenez, 1785 urtean lortu eben euren naia. Ordutik bizkaitar dira.

Bere legedian bizi zan artean amairu Jaun agintari gitxienez euki zitun.

Laudio'tik sartu eta Murueta'tik Arbaiza'ra, edo Zalloa eta Gallarta'ra edo ta Urigoiti'ra ibillaldi ederra egin bear.

Auzoetako etxadiak, itxas oiñaren gain, 145 metrotan asi Murueta'n eta 250 Gallartakoan bitartean billatzen dira.

Zubiaur. Erri barrua. Bertan bizi da jenterik geien. Gero Bengoetxea eta Ibarra'n. Txikienak Zalao eta Pagazandi.

Amabigarren gizalditik ezagutzen dira bertako parrokiak. San Joan eta San Martin zarrenak. Azken au 1 570'n zabaldu eta anditu eben. Ermita ugari. Andra Mariaren irudia erromaniku jokera-koa da, baña ez garbia. Txikia, metro erdirik ez. Lenegotan San Antolin'en ermitan egona dala diño. Ermita orreri Andra Marikoa be deitzen dautse.

Murueta'ko parrokia 1 545'n barriztua da, Martinez Urzaa'ren ardurapean. Olarte'ko San Bartolome'n dagon Errukiaren irudia, jatorriz flamenkotarra zan Guiot Beaugrant'ek egiña. Antzerako irudietan negarrez eta malkotan ikusten dira bertakoak. Emen, negar orde, laguntasunen borondatea igarten dala diño eta alaxe da. Taillugille onek Bilbo'n, Balmaseda'n Portugalete'n eta Zior-tzan ba daukaz bere lanak.

Bizi tokiak, etxadiak, itxasotik goratasun andirik barik egiten ba dira be, Orozko'n milla metrotik gorako mendiak ba dagoz. Gorbea mendietan sartzen dira iru. Ala Ubixeta, 1.106 metrodu-na; Usotegieta, 1.1 78'gaz eta Oderiaga, 1.234'ra eltzen dira.

Orra erri askok ez daukezan iru monumentu, iru agerkai.

Beietan, eleiza eta ermitetatik kanpora, ba dagoz ze ikusiak.

Zubi ikusgarri bat ba dago Murueta'n. Kurutze andi bat arrizko arku eta ate andi baten buruan. Egaletan irudi bi. Eta ormetan iru ikurdi, eskudo. Martin Larrea'k egiña da 1.741 urtean, bertan irakurri leikenez. Anunzibai zubia deitzen dautse, abizen orreta-koena izan zalako inguru au. Izen bereko torrea galdu zan, eta torrearen orde ezte eder bat dago gaur. Mikel deunaren ermitatxoa

egal baten.

Beste torre eder bat Ibarra'n, Aranguren izenekoa. Torre jatorra. Arlanduzko orma lodiak zazpi metrotan. Goiak ladrilloz jasoak. Sasoi baten, jauntxo denporetako asarretan beratua izan zana-ren ezaugarri. Torre zabala, neurri onekoa.

Olabarri'koa be ikusgarri da. Gaur baserri andi. Bardin Torrelanda. Galdu eben torreak euren izatea. Gaurko denporetan gure asaben bizimoduaren barri emoten dauskue. Besterik ez.

Orozko'n ibiltari nabillela, gertaera zarrak gogoratzen, gipuzkoar abade gerrazale bat datorkit gogora. Karlos erregearen alde ebillala, ementxe il zan 1 834'ko Mayatzean, gau baten.

Gipuzkoarra zan Ezeiza. Beizama'ko abade laguntzallea. Frantzetarren aurka urten eban lenengotan. Gerrako merituz Burgos'ko kanonigo egin eben, 1824 urtean. Baña, ikusten danez, amar urte geroago barrero gudan ebillan. eta emen jausi.

Bardintsu gertatu yakon beste gipuzkotar bateri, Gorostidi entzutetsuari. A Santiago'ko kanonigo egin eben, merezimendu bardíñez. Arek be odolak ero eta kanonigo zan errian bertan urkatu eben isabeldarrak.

Abadeak aitatu doguzan ezkerro, gogoratu daigun emengo abade bat. Aizpuru'ko abadea. Orozkotarrak almen andiko gizon-tzat euken. Sorgiñen eta lamiñen lagun, eta eskutuko espirituen bildurgarri.

Ainbat esaera eta gertaera dagoz erriko zarren kontuetan berari buruz.

Iñor ez ein zan ausartzen lengo denporetan Supelegor'eko kobara aurreratzen. Andra gazte edo umien oiñatsak sarri ikusi zitu- en artzaiñak bere artean, Anboto'ko damiak, Orozko'n, antxe eukan bere etxea. Zaindariz beteta; saiak, erderazko itzez buitreak zaindari.

Sai oneik urrundu egiten ei ziran abadea bertara joaten zanean. Edo ta berak agintzen eutsen bazterrean gelditu.

Garaigorta'ko aitzaren azpian barikuetan batzen ziran sorgi- ñak be lotsaz begiratzen ei eutsen.

Prakagorri'n lagun be ba zan. Eta bere «familiarrena». Bein, bere serbitsariak Madrid'era joan nai ebala eskatu ei eutsan zeze- nak ikustera. Zezen plazan ba ei egoan beste lagun bat, a be «fa- miliarekin» joanda. Arek ikusi ta bere lagunei Aizpuru'ko abadea an egoala esan. Sinistu nai ez. Ziurtatzeko, zapatea kendu ta eroango eutsela agindu. Eroan be bai. Aizpuru'ko abadea kontura- tu zanean, bat batean zapatea biurtzeko eskatu, adar bat bekokian sartuta lagatea nai ez ba eban. Esan eta egin. Besteak, ori igar-

tean, lotsapean ez irautegaitik, oiñetakoa biurtu ei eutsen.

Ez esan emen gertaera oneik guzurak leikezanik. Zaarren errespeturik ezin lei galdu. Ez al dira gaurko gertaera asko sinisgaitzak eta ala ta be iñor ukatzen ausartu ez?

Orozko'n atso eta agura bi dagoz orozkotar jatorrak beti bardin ezagutu dituenak. Zein diran ez ba dakizu, ez esan ortik zear orozkotarra zareanik, edo erri au ezagutzen dozunik. Begiratu As-tapekatuko aitzera: an dagoz biak, izadiaren monumentu, Orozko'ri ezaugarri bat emoten gizaldian gizaldietan.

Pralle bi eta monja bat agertzen dira Orozko'ko seme alaba argi lez.

Domingo Olabarria, augustindarra. Irakaslea. Argia baña apa-legia. Bildurtegia, Murueta'n jaio 1815 urtean eta Valladolid'en il 55 urtedun. Bere lan jakintsuak erakusten be lotsatu egiten ei zan umiltasunez.

Bestea, Joan Jauregi, ordena berekoa, Salamanca'n il zan 1 841 'n. Irakasle ibilli zan au be toki askotan.

Bizkai'ko Jesusen Teresa deitzen eutsen sor Madalena'ri. 1629'n Soloa'n jaio eta 1 706'n Madrid'en il. Merzedeko alaba. Erderaz idazten eban, baña euskaldun joskerarik galdu ezinda.

Orozko izena ezaguna da munduan. Emengo jatorriz? Ez jakin. Cuba'n ba dago izen onetako erri bat; Txile'n be bai. Mexiko'n errantxo bi ba dagoz beintzat, bata Coalcoman estaduan eta bestea Tamaulipas'en.

Txile'n esakera au entzuten da sarri: Yo me llamo Orozko, cuando como no conozco. Esatea lez: Nire izena Orozko, jatenna-gonetan sarri erantzungo dautzut betosko.

Emengoak zabal eta borondatetsuago ikusten dodaz, zeken deitura ezarteko biderik barik.

Orozko'ren saltzallea Iñigo Lopez, Bizkai'ko seigarren jauna izan zan. «Ezkerra» deituraz. Bere illobei emon eutsen lurralde au X garren gizaldian. Esker gitxi egin eutsen orozkotarrei Ezkerra orrek.

1 910'ko kontuetan irakurten danez, 716 etxe eta aterpe kontaten ziran emen urte orretan eta 3.221 bizilagun.

Oraintsuko urtetan bardintsu iraun arren, gizaldiaren asieratik ona %25 urritu da Orozko.

Mendi eta basoetako bizi modua goratzen dogu paperetan, baiña bizimodu erreztan eta nasaiagoak tatarrez eroaten gaitu uri andi eta eratsuetara, aitzaki ta guzti be. Nai eta Bilbo'n eta Laudio'n Orozko lako tokirik munduan ez dagola esaten il.



OTXANDIO

Atsegin ibillaldietan, exkursiñoietan, umore berezi bat egoten da erri bakoitzari agur egiñagaz bertako kanturik ezagunena abestu eta txalotzen kaleak igaroteko.

«Boga Boga» Ondarroa'tik zear, «Anteron txamarrotia» Lekeitio'tik eta abar.

Otxandio aurrez ikustean, berezko lez gogora etortzen da alako erdi euskera eta erdi erderaz abestuten dana: «Saltzen saltzen, txakurtxiki baten karamelua...» Eta jarraikoa:

Otxandio'n batutzean
Santa Mañe egunean,
txokolate artukogu...

Nun? «Sombreruko kalean»? «Sonbreru kopa altuan»? «Kontseju kalean» Ez». «Tomaremos chocolate Vulcano'ren aurrean». Ori da jatorra. Gogoan euki Otxandio'n Vulcano'ren irudia dagola plazako iturrian. Ortik dator abestia.

Bai umoretik eriotzara jo be, erritik urten orduko.

Askok gogoratuten dabe kanposantuko ormako irakatsia. Gaur kotxean arin ibiltzen da, baiña noizbaiten ikasia da bertako esaera: Zuek zariena izan giñan; gu gareana izango zarie...

Niretzat kanposantu baterako egokiago da mundutik baster-tuta, Miranda ondoan, San Felices Errioxako lurretan, Motriko deitzen dan mendiaren malda baten, bakartadeko prailleak, orma gabeko iltokian ipinten dabena; «Resurgemus», Biztuko gara. Esparantza da izan be azkenengo galdu bear dana...

Orain berrogetamar urte, eta geroago be, ondarrutar dendari batek, bere saltokiaren ate gañean, ze denda zan, bere izen-abizenak eta izengoitia «alias Orixopoto» lotsa barik ipinten eban, izki (letra) andietan. Ez-izen orregaz ezagunago zan edozetara be-ta.

Gu ume giñeanean, zaartxuagoak zirikatuten ginduezan eta bertara bialdu, txoriandi baten «dale fuerteak» erostera. Esaten euskuen aurrez gizon berari itaunduteko, ziur jakiteko, ia Orixoponeko denda a ete zan.

Gu koitaduok joan, ixil-mixilean itaundu, berak igarri ta barriro esateko, ez ebalá ondo entzun-eta; orrela, «dale fuerteak» eskatzeko asti barik, belarrietatik tengadaka ikaraz euki ondoren, itsumustuan kanpora bialtzen genduzan, al ba eban txitximurkuda ederren bat egiñaz.

Otxandio erri otza da. Ba dakie bertokoak be. Eurak esango dautzue, umorez, emen ikurik be ez dala eltzen, biguntzen. Baiña zu bertara etorri eta ikuak eldu ete diran itaundu ezker... begirakunen batek begizkoa egin leikizu.

Eta ze demoñino! Kantuetan be otzaren ardurea beti ez dabil le ba emen? Onetan jatorrak dira otxandiotarrak:

Mendi altuen aurten ez ei da
erromerurik berdetu,
nik iminita igartu izan zan,
zuk iminita ezetu;
frutuok ere onak dituzu
grazia alan ba dozu.

Ez dira gaur-goizekuak bertso oneik. Ikusten danez bertako zaarrek be ipiñi eutsen Otxandio'ri bere deitura, otzaren agerpi-dea.

Axeriko eta Txalin eta Zozoko'ren ipuñik jakin ez?

Otxandiotar izan zeinke, baiña jatortasunean asko beratuta.

Bein Legutiano'ko basoetan gebiltzan. Legutiano Araba'ko Villarreal d& Euria mara-mara jausten zan, pago orri eta orbeietan tanta lodiak'pla-pla zarataka.

Azeri bat etorran gure aldera. Euriaren zarateagaz gure susmorik artu barik. Bai orraitik, ikusi orduko, laster iges egin be.

Otxandiotar bat ebillan inguruan. Esan geuntsan ze gertatu yakuri. Eta berak: Orrelako andia ba da, ori Unigarzia izango dok.

Ez giñan konturatu. Geroago esan euskun Otxandio'n Unigarzia izena ipiñi eutsela azeri andi bateri, azerien errege zala pentsaturik. Eta arrezkero basoetan dabillela.

Lengo gizaldian jaio eta oraingoan ildako euskal idazle bi euki

zitun Otxandio'k bere seme zintzoen artean:

Felipe Arrese Beitia, 1841 - 1906.

Cirilo Arzubiaga, 1874 - 1966.

Idazle ugaria lenengoa. Bizi moduz, arotz. «Santugiñe» deitzen eutsen, Euskalerriko eleiza askotan berak egiñiko aldarak eta santuak dagoz.

Eten barik idazten ibilli zan. Edo ta konpontzen. Ez bakarrik irudiak, imagiñak. Eleiz oituretan billatzen zitun kantu zaar eta mordollokeriz idatziak edo ta eleiz otoitz asko «garbitzen» be alegindu zan. Ondarroa'ko Santa Clararen kantak, gaur esaten diran lez, berak aldatuak dira.

Biozkorra zan bere lanetan. Euskalerrinari, euskereari edo fovei egiñiko olerkiak sentimen sutsua darioe.

Bere denporetan erri askotan egiten ziran euskal sariketak eta sarri urtetan zan irabazle.

Bera il baiño sei urte lenago eskiñi eban lenengo meza bere errian abade gazte batek. Cirilo Arzubiaga zan. Meza barriko olerki ederrak egin eutsazan berak.

Orra beste euskal langille ixil eta amorratu bat.

Luzaro bizi ta lan asko egiña bere 92 urtetan. «Jaungoiko Zale» eta «Ekin» eko zuzendari. Errena zalako «koxoa» deitzen eutsen Zornotza'n.

Gizon ixilla, baiña osoa. Berean sartua. Kristiñau Ikasbide eta eleiz jokabidean zaartu eta zorrez betea. Ori egia. Azken urteetan be, larogetak urteetan be, tatarrez baiña adoretzu bereari eutsita, «interes» bako bere ondasuntxuak, bere liburuak zabaldu eziñik ikusten zan. Goikoen satorkeri eta tartekoen ostopo ugari ezin gairidurik il zan.

Otxandiano erri otza izango da, baiña bi orreik euskal odol be-rua euki eta erakutsi eben.

Aipamena merezi dau baita Andres Iturzaeta, eleiz liburu ugarin egille azkarrak.

Otxandio, Otxandixo, Otxandiano, Otxandiño...

Gu euskaldunok gitxi baiña ugariak gara, orraitioño!

Erri askotan zineak neguan egiten dabe negozio pixkat eta udan porrot. Otxandino'n bestera gertaten zan. Udan polito eta neguan otz. Origaitik kendu edo laga eutsen pelikulak emoteari.

Otxandino'ko zineak beste lan-era bat dakarkit gogora.

Zegaitik ez da egiten zinerik euskeraz? Askok esaten eben ori. Otxandiotar bat, Bitor Kapanaga be, bero ebillan orretan. Zine arduretan dabiltzan batzar baten eskatu eban. Errebotean nigana etorri zan pelotea ormara bialtzea. Alegiña eta gogua ipiñi neba-

zan. «Universal» etxeak pelikula bi euskeratzeko oniritzia emon be bai eta gioiak eta gora-berak eskuratu. Umientzako egoki etorriko ziranak biak. Danentzakoak. Gertu nitun biak euskeraz. Baiña or gelditu ziran paperetan. Otxandiano'n ziri eta Ondarroa'n puts, baiña bitartean Otxandiano'ko kateak baiño estuntza gogorragoa: Estaduko legeak. Erri bereko zerbait berezi izan ezik, ezin ei leike pelikularik gaztelania ez dan beste izkuntzetan agertu. Origaitik gure lana mutu geratu zan, «doblatu» barik.

Zeifiek ez eban ezagutu bere denporan ultzegin eta ultze salzalle jator bat?

Oñatiarra zan eta ain zuzen be Oñate abizenez, apelliduz. Baiña Otxandio'n euki eban bere sutokia, bere fragua. Prudentzio eukan izena.

Edozeifiek daki Otxandio'n, lengo denporetan, ate bakoitzean be ultzegille bat billatzen zala. Azkoiti'n abarketeruak lez.

Otxandio'tik Durango'ra aldatu ziran abizen onetakua. Ala Cirilo, Prudentzio orren seme batek, Durango'ko kalebarrian ipiñi eban bere lantegia.

Eta gero, ultzak aurreratu edo mordotxo bat gertuten eban, edo berak sasoi ona zala eritxonean, astotxo bategaz urten eban erriz erri berak egindako ultzak saltzen. Batez be itxas ertzera joaten zan olako premiñetan. Bermeo, Lekeitio, Ondarru eta beste erri askotan ondo ezagutzen eben. Ezaguna izan zan gure errietan Cirilo au. Orra Oñati'tik Otxandio'ra eta Otxandio'tik beste errietara ultzegintzako lantegiei asiera emonaz.

Onetan esan bear dogu, otxandiotarrak beti izan zirala burdin lanetarako kezkatu eta arduratsuak. 1830 urteko Mayatzen otxandiotar batek, Francisco Antonio Etxanobe'k Bizkaiko Diputasiño generalari agiri bat bialdu eutsan «informe sobre modificaciones en las forjas para mejorar la fabricación de hierro» deitueagaz.

Eta antxiñetatik ezagutzen zan baita Otxandio'n Garaigordobil etxea eta berak egiten zitun burdinkiak fama andikoak ziran.

Komerzioan, sal-erosketan, luzeak izaten ekien euskaldunak. Luzeak eta zabalak. Itxasoetatik egiten ziran sasoi baten sartu-urten eta erabilketa asko. Leorretako bideak baiño errezegaoak ziran itxasoetakoak gauzak erabilteko.

Portuetan batzen ziran tratulariak. Edozein itxas ertzetan egozan komertziorako txalupak. Frantzi eta Portugal inguruetatik edozenbat gauza ekarten ziran. Orrez gañera, bide nausietatik mandazaiñen bitartez egiten ziran beste tratu asko. Traba bagako komertzioa egiten zan.

Baiña etorri ziran ostopoak eta Aduanak ipinteko denporak. Emengoak asarre agertu ziran toki askotan. Odolak berotu be bai erri askotan asarre orreitan eta gogortadak egin ziran. Emen, Otxandio'n, Rocaverde'ko markesa eta Antonio Errekalde il zitue-

zan olako gogortada baten. Bergara'n bizi ziran bi areik. Ori zala ta eskarmenturako ainbat epaitu zituen Bizkaia'n eriotzara, garrotezko eriotzara, eta gero, bildurra sartu eragiteko, ildakoen buruak erri batzuetako sarreretan ipiñi zituen. Orrela 1719'ko Urtarrila'ren 18'an emon zan epai, sententzian, amaseiri emon eutsen eriotza ori. Euren artean Otxandio'n bizi ziran bost agertzen ziran: Juan Jose Ajuria, Jose Bazan, Migel Egurén, Blas Gereño eta Jose Zaldibar.

Askok itanduten dabe zeren kezka edo zeren ardura euki ete eben otxandiotarrak euren mugak beste errietan baiño arri andia-goekin bereiztuteko. Ikus Mugarriaundikoa: metro bitik gorako arria lurretik gora agiri dana. Aundiago oraindik Azoikoarri'n. Ia iru metro luze eta bat eskas zabal.

Mugak or dagoz. Eta torre zaarrak? Abendaño, Muxika, Bergara, Otxandiano... Beti alkarren aurka, alkar ikusi eziñik. Gaur istoriak bakarrik daki euren barri.

Len, Legutiano eta Otxandiano'ko jaunen artean, benetako muga egoten zan; lurrarena bat eta euren itsukeriarena bestea. Gaur batzuk arabar eta besteak bizkaitar, baiña anai, bakoitzaren lanean.

Otxandiano'k urak Araba aldera joten dabe.

Ubidea eta bera dira ain zuzen be euren urak Mediterraneo aldera botaten dituen Bizkai'ko erri bakarrak. Ez len aiña. Gaur urei be muga ipinten dautse. Eta bide barrietatik Bilbo aldekoen mesedean jausi eragin. Orra Otxandixo, zeregin baten, len baiño onurakorrago Bizkaiarentzat.

Otxandiano Bizkai'ko ogei urietako bat izan zan sortzetik.

Urte luzetan tankera baten igarri izan da. Gaur gaurkoz 1.200 bizilagun inguru. Amaseigarren gizaldiaren asieran, 105 etxe bitzita edo su-leku eukazan.

Orain etxe barriak be igarten dira. Langintza geiago. Erriaren bizebidearen arnasa da lana. Erriagaz lotu eragiten daben katea. Katea? Otxandiano'ko kateak ba dauke munduan entzutea. Dima alderako bide-kurutze inguruan dagon ermitatxoak amatasuna ondo eroan al izateko andren artean daukan lez. Erremedixoetako Amarena. Beaten denporetatik ba dago ermita onen entzutea, nai ta oraingo irudia geroagoko egituretakoa izan. Eta Urkiola'ko bidearen asieran, emen be, Anton eta Antonio santuena, erromes askoren geldi leku, oñez ibilli bearzan aldietan.

Eleizetara jo dogun ezker, gogoratu parrokia. 1501 urtean barriztatua izan zala.

Orra, batzuk lagata, áidean artutako jakingarriak.

Eta aaztu baiño len: Otsoetatik edo otzetik eta dator Otxandiano izenaren jatorria?



PORTUGALETE

Zenbat balio dau izki edo letra batek?

Bilbo'k ez dauka bere deituran ez enerik eta ez uverik. Portugalete'k be ez. Baiña «v» bat edo «n» bat gora bera portu andi bat, portugalete'arren ustez eurena zana eta izan bear ebana, Bilbo-rentzat geratu zan.

Don Tello'k, Bilbo irazi edo fundatu ebanean, beste erriei legez, bere berezitasunak emon eta mesedeak eskintzean, auxe ipinten eutsan: «nostro porto de Portugalete». Ordez, agiria egin ebanak, ez jakin konturatu bagako utsez edo erruz, nostro ordez vostro ipiñi ei eban.

Ordurarte Bilboren eskubideko ur zatia, Zorrotza'ko basatze-tan amaitzen zan.

Urte bi geroago, Bizkai'ko andre Mari «Ona»k Portugalete'ri erri legea emotean, beretzat laga eutsan portugalete'arrak bizi guztian eurentzat euken portua Lutxana inguru arteraño'ko jaubetasunez.

Ortik sortu ziran asarreak, nasteak, ezin ikusiak, burrukak, eskubi zapaltzeak eta abar.

Ortik aurrera, bilbotarren aldeko agiriak irakurri edo ta portugaletekoenak, eritzi ez bardiñen jaube egiten da bat.

Gaur ez da iñor gogoratzen asarre oneikaz. Egiña egintzat lagaten da, batez be onelako erri baten urte gitxitan bertako bakoi-tzeko bost erbestetar sartu ezker. Eta Santurtzi eta Zierbana'k eta abarrek bide bardiña daroe.

Ementxe il zan Lope Gartzia Salazar, 1485 urtean, 86 urte lepoan eukazala. Bizkai'ko kronikalari entzutetsu eta giartsua[^] Jauntxoetako bat. Oñaztarra.

Bere sasoiko egoera eta jokabide askoren urratsak jarraitu giñekez bere eriotzatik.

Gaur «Petronor»en sarreran ikusten dan Muñatones torrean bizi zan bere zartzaroan. Bere neska lagun eta guzti. Odol bero eta lizun.

Bere maiteetako neska lagunik onena bere seme nagusienaren begiko biurtu zan. Or asiera. Aitak semea ondoretik kendu eban, eskubideak galduta laga. Semeak, sututa, lagunak batu eta torrea inguratu. Aitak iges, eta Portugalete'n beste seme baten etxean ostatua eskatu, baiña semeak, beste anaiaiaz bat eginda ebillalako, ostatu ordez bere etxea kartzela biurtu.

Zaarren entzuteak beti eukiten dau bizi guztiko otsein eta serbitsarientzako makurtasun eta lotsa pizkat. Ala, orreitako batek, etxeko ateak zabaldu eta iges egiten lagundu.

Gaitz zaarrei oillar kaldorra kendu eta galdu eragitea. Ala aitak, eleizara joan, torrera igo, kanpaiak jo eta erritarrak zer ete zan jakin nairik inguruan batu ziranean, berak bere semien etoikeri eta egikera biurria erriari agertu. Erritarrak, aitaren eta semien erdian, zeifien alde jo ausartu nai-ezta.

Alako baten, menderatu ebenean, egarria kentzeko ura eskatu ebanean, pozoi edo benenoa emon eta intziri eta uluka iltzen ikusi eben. «...fezieron dar yerbas...e le veyeron meter las manos en la garganta...» Alaxe irakurten da Martin Alzedo'ren testigantza baten. Eta onek garbi esan eban, jakiña eta zabala zala Katalin Ginea eta Mencia Avellaneda'gaz lo egiten ebalu.

Pozoitutako uragaz bera eta bere alabatzako bat il ziran. Alaxe, «Bienandanzas e Fortunas» idatzi eban jaun arro eta aizeitsuak, oraindik be bere larogetak urtetan gizon gordin igarten zala, bere zoritxarra, bere «malandanza» idazteko tarterik ez eban artu ez euki.

Portugalete'ko torrean egin eban bere kronikarik garratzena.

Salazar'darren torrea da gaur Portugalete'n, ezagutu ziran iru edo lau torretatik, itxura orregaz zainduten dan bakarra.

Gure erriak, euren legeetan zeatzak izaten ziran. lege orreitaik igarten dira sasoi bateko ekandu, oitura eta bizibideko zertzeladak.

Agindurik gogorrenak erriko bakea zaindu nairik ipinten ziran. Orrela armak erabiltzeari eta batez be nasteetan izkilluekin urte-tea zigortuta egoten zan. Gure legeak gogorrak izan ziran baita be deitura mingarriei buruz.

Gero, janari eta jantziei egokiezanak, batez be diru eta pixu kontuan, arrain saltzeetako baldintzat, okelakiak eta abar. Portu-

galete'n andrazkoak, nai eta arakiñaren emaztea izan, edo serbitsaria, nai beste edozeinek, galerazota euken okela ebagitea. Orduko odol-ustaille edo zain ebagitzalleak be lege zorrotzak eukuzan. Bai amatasunean laguntzen eben andrazkoak be; ezin eikien janaldi bat baiño geiago egin orretan egoazanen etxetan, ez eta izentatuta egoana baiño geiago ez gitxiago kobratu be.

Portura etortzen ziran merkatarien txalupak, bederatzi egunean egon bear izaten ziran plantxan lotuta, erritarrak zatika eta banaka erosi bear izaten zituen gauzak ikusiarte eta egun orreik beteta gero asten ziran osoka saltzen.

Orrez gaiñera eleizetako lotsa be sartzen eben arauak. Eta domeka eta jaietako meza nagusitan ixilik egotea agintzen eben, edo otoitzean. Eta ala ez egozanei, zigorra ipinita egoten zan.

Orrelaxe ziran Portugalete'ko erri arauak, legeak, 1459 urtean.

Portugale't, gaztien artean ba dauka entzute eta fama bat. Ementxe batzen dira jaietan, dantzarako, Erandio, Barakaldo, Zorrotza, Sestao, Getxo eta inguruko gazte asko.

Itxas aurreko dantzeak, bere zarata ta guzti, laiño eta bits, maitasun askoren musika ixilla sortu eraziten ei dau.

Erri andia dala uste dabe askok Portugalete. Eta Elantxobe txiki eta mendian dingilizka dagoanaren bira ez da eltzen lurrez. Ia berrogetamar milla lagunetara elduta dago bizilagunez eta 3 km² lautu oakarnk lurrez. Eskerrak itxasoaren aize ta zabaltasunari.

Eta zubia? Ez al dago munduan emen lako zubi ezkegirik? Ixo! Askok pentsaten dabe ori esaten daben erderazko abestia, «no hay en el mundo puente colgante» Portugalete'ko zubiari dagoikiola. Eta ez, Bilbo'n, Merzedeko nasa onduan egon zan zubi bateri ataratako kantua da. Alberto Palacios arkitektoak iruditu eta Arnodin inkiñeruak egin eban. 39 urte eukazan Palacios'ek bera iruditu ebanean. Egin zanean, baporezko indarrez erabilten zan; geroago sartu eutsen elektra indarra.

Palacios il zanean, 1939'n, bere zubi orretan ametsetan eta beragaitik berbetan il ei zan.

Eleiza ederra. Gotikoa. XVI'an egiña. Torrea geroago, lengo jokera barik. Karlisten gerratean, bota ebanean, aukera egon zan eleizari egokion torre bat egiteko, baiña lengo tankeran barriztu eben.

Aldare nausi ederra, barruan. Ez jakin ziur nok egiña. Ustez, Huiot Beaugrant'ek asi eta bere eriotzean bere anai Juan eta J. Ayala'k amaitua. Bilbo'ko Santiago'n egon zanaren kideko dala esaten da, itxura eta neurrietan. Baiña Bilbo'ko au be galdu zan

eta gaitz da gaur aren urratsak artzea. Santiago'ko kapilla be, ederra. Ate nausiko burdiñak Murrieta'k egiñak, 1 580 urtean.

Ez da gaur Portugalete'n parroki bakarra. Ba dira beste batzuk: Nazaret izenekoa, San Kristobal, Sendi deunarena, Abatxolo'n eta beste barri bat egiteko Abaro'n.

Emengo gizabideak ala eskatzen dau.

Zortzi milla lagun orain 50 urte. Gaur sei bidar geiago.

Jakingarri bat: Emengo hotela, erriaren izena daroana, aberats baten ondasunekin erriarena lez zabaldu zan, bertako irabazpideagaz erriko gaixo-etxeei laguntzeko.

Portugalete'k, itxas aurrean dagola, ez dau arrantza bizirik euki. Nai eta XVIgarren gizaldian Bilbo'ko errekan batzen ziran txalupen artean, irutik bi emengoak izan.

Arrantzalien Kofradi bat egon zan emen. 1651 urtean sortu zan eta San Nikolas eta San Telmo'ren izenpean. «Cofradía de Maestres, lemanes y gentes de mar» eukan izentzat.


1 800 urtean 35 bazkide edo lagun eukazan. Zazpi ontzietako lemazain ebiltzan eta besteak erbesteko itxas-ontzietan. Gaur, arrantzale bizitza, Santurtzi'n batzen da.

Sasoi baten piloto nausi bat izentatzen zan. Egunero begiratu eta neurtu bear izaten eban portu sarrera aldatzen zan ondartzaren neurria. Eta txalupa bat agertu orduko, toki orretan egon bear izaten zan bera, amabi lagunek erramutan erabilten eban txalupa bategaz, ibaian gora sortu bear edo itxasora urten bear eban txalupen ondartza orren ingurutik zuzen joaten laguntzeko.

Ara, errez igarri, gaurko erremolkadoreak eta gaurko praktikoak asiera nun eta zetatik artu eban.

Gaur Bilbo'ko portua errez ikusten da eta aukeraz, gero ta zabal eta sakonago, baiña 150 urte ez dirala Portugalete'k ekian iñok baiño obeto ibai onetako edo itxas sarrera onetako barri.

Ala ta be, len eta orain, Portugalete au laiñopean gelditzen da gure izkuntzan, esan naia igarri bai baiña zeatz erabagi ezinda.



SESTAO

Gizonak eta erriak gora bera asko eukiten dituez. Asmoak egin edo ta egiturak zaindu nai, eta ala ta be beste zeregin batera aldatu bear.

Gertatu eikean ori Sestao'ri be, gizaldien gizaldietan, erreka ondoan, baserri lez bizi izan zan Sestao oneri.

Baserri bizia baiña itxasoari begira. Ala jaio zan Sestao. Itxas arnasa artzen. Nundik datorkion izena? Ez jakin. Gaitz da bere esan naia garbi ikustea.

Itxasoari begira sortu zala esan dogu. Or egoan portua: Ugarte. Izena bera ura aitatzen eta gogoratzen dator. Ugarte, ur-arte.

Arrain portu barik, komertziorako, bertako lan eta joan etorrien serbitsurako.

Ba dagoz agiriak sestaoarrak erreka arrain fiñetatik bizi ziralara esaten dabenak. Inguruetan batzen ziran itxas gaiak, itxaskiñak, mariskoak eta erreka arrain fiñak saltzen ibiltzen ziralara. Baiña ibaiak, errekeak, gauzen karriuarako emoten dituen erreztasunekaz baliotu ziran sestaoarrak.

Egaletan, inguruetan, or egoan Trianoko burdiñea. Erromatarak be ezagutzen eben burdin lurra. Arriolioa, petrolioia billatzen dabiltz gaur gizonak, erriak eta gizadiak, eta ez da jakiten nun dagon. Burdin-lurra, burdin meatzak, gizaldien gizaldietatik sortzen dira eta errezago ezagutu.

Ortik Sestao'ren bizia. Galindo'ko urak laguntzalle.

Baiña atzean, ondasunak artu eta kentzeko, orko onurak lodditzeko, Bilbo. Bilbo diru zalea. Bilbo izen eta entzute zalea, Bilbo arrua esango genduke. Bilbo beretarra.

Sestaok lana ta Bilbok fama esango ba genduke, guzurrik ez oraingotan.

Prailleak ba dakiez toki egokiak billatzen. Bakartadeak, baiña bakartade onak bizitzeari bere premiñetan giro bat sortuten jakin eta emon leikien bakartadeak. Ala bear be bizitzako egunak olako toki baten igaro al izateko, bakartadeak luzeago egiten daben bizitzako denpora igaro al izateko.

Emen, Sestao'n, ba zan olako zerbait. Ere mu lako bat, desier tu lako bat. Itxas egaletan egoten diran toki bakarti eta alper bat. Gaur erri eta inguru onein zabaltze, erakunde eta bizia ikusita, jakin ezik, igarten be gaitz olako zerbait egon zanik.

Keiak eta autsak loitzen dau emen dana; makin eta tuboak bete eta alkartzen dituez alderdiak; tenteko eta kableak egalak lotu; molla eta arriz basatzak inguratu eta batu. Gaur datorren gizonak alderdi onetako bakartadetan ezin lei pentsatu be egin, ezin orrelako burutapenik egin.

Berba alperrak? Literatura?

Samaniego arabar maixu eta jakintsua, ez zan antxiñakoa. Eskoletan ikasi genduzan erderazko bere ipuiñak, bere alegiak, bere fabulak. Emen egon zan bera. Eta bera irakurten asten ba gara, bere lanak eta esanak aztertzen asi ezkeru, au be irakurri giñei euren artean: Españatik girorik osasuntsuena dagon tokian, menditxo aberats batek dotoretu eta gainduten dau itxaso eta mendi artea. Eta erreka urtsu batek, itxas aurea aberastu, ta bere ontziak, bere txalupak ekarten dautsaz eta busti. Tontorrean zipres artean, eleiz bat, eta bere egalean, baso sakon baten ozta-ozta ikusi edo igarteko eran, etxe pobre bat, konbentua. Karmel-darren konbentua.

Eun eta amabost urte iraun eban konbentu onek Sestaon. 1719 urtean sortu zan konbentu ori, urte orretako Bagillean zabaldu, eta 1834ko legeak etorri ziranean, konbentu eta eleizen-tzako lege nastatzalleak agertu ziranean, desamortizasiñoiko legeen ondoren, itxi.

Ordurarte prailleen lurrak zabalak ziran. Itxasoak mare gorakotan artu eta estalduten ebana eta mare berakotan agirian geratzen zana, prailliena zan. Ortik igarri zelako lurraldea eukiko eben, eta ortik konturatu, baita be, gaurko Sestao nun oiñarritu zan.

Sestaok, bere ikurdian, eskudoan, itxaso eta langintza alkartu nai izan ditu. Len esan doguzan bere berezitasun biak, bere izate eta onurako biak.

Itxasontzi andi bat, merkataritzan ibiltan dan barku bat, ur ga-

ñean, eta atzean, txímini luzeak, sutegi andien tximiniak, erderazko berbakin esanda, Altos Hornos'etako irudi bat.

Sestao, ayuntamiento lez, ez da ezagutzen 1805 urte arte. Sasoi aretan 340 lagun eukazan eta 70 etxe. Etxerik geienak ogia egiteko labak be etxe barruan eukezan. Urte ori arte, iru erri bizi ziran alkartuta: Sestao, Ugarte eta Santurtze. Eta iruren artean boto bat eta jarrileku bat eukezan Gernikan.

Gero bat bateko anditzea euki eban. Eta orra gaur, ia berrogei milla bizilagunen erri. Eta lurrez ez andi: 3,70 km² lttota. Nora zabaldu ezta. Daukazan lurrak premiñetan dagon industriari ezin ukatuta. Bere lurren %65 industriak erabilten ditu. Etxeak, alkarrren gain, pillotuta. Bizilagunetan Europatik pillotuenetako erria dala, diño, Sestao.

Ori da bere zoritxarra. Lana bai, industri ugari, eta beti ke eta laifiopean, akzidoen astuntasun eta larriz arnasa artzen. Eta ori, Sestao'k, bere lurraldearen barruan ez daukala meatzik, miñarik ez bere erraietan, inguruetan baiño.

Betetasun ori dalako, jai bat edo atsedeen egun bat agertu orduko, sestaoarrak itxas egalera urten nai izaten dabe arnas nasaiagoen billa.

Sestao'k bere lurraldean dagozan industriren zerga edo kontribusiño orde, estaduarentzat bakarrik, ogetalau milloi peseta emotera eltzen da urtean. Au da, erderaz esaten dan lez, cuota para el Tesoro. Diputasiño eta ayuntamientoen partea alboan lagata. Ortik igarri bere industriaren anditasuna eta garrantzia eta sakontasuna.

Emengo lantegiak, fabrikak, urtetan mugatzen asi ezker, 1 879 urtera jo giñeike eta urte aretan San Francisco izeneko burdinki fabrika bat sortzen ikusiko dogu.

Burni-orria, ojalatia, 1888 urtean asi ziran emen egiten, eta ain zuzen be Gipuzkoatik, Beasaindik aldatu eben an sortu zan orretarako lenengo fabrika. Orduan asi zan Iberia.

Geroago itxasontzien lantegiak asi ziran. Eta azkenez Vizcaya eta Iberia izenekoak alkartu eta Altos Hornos de Vizcaya sortu. Jakingarri bat: Industri oneik asita be, oraindik Sestao'ko tranbiak zaldiak erabilten zituen, eta 1895 urterarte ez ziran elektra indarrez erabilten asi. Eta ordurako Sestaok ia amar milla bizilagun ba eukazan, bertako baserri eta txabolak, etxe barrietan zabaldu eta nasaitzen, zela-ala, igarten zirala.

Orra Sestao. Sasoi baten praillien konbentu baten ingurua. Gero, bere ingurutako burdin meatzak emoten eben bizitasuna itxasotik igarten asi ziran. Txalupa, txanek eta gabarra, millatik gora ibilten ei ziran lenengotan emendik, burdin lurra artu eta barku andiangoetara eroaten.

Lenengo mollak be prailliek egiñak zirala esaten da, euren

etxe inguruari eusteko asmotan egiñak.

Gero industria bertan gertaten asi zanean, itxas bizitza ori be aldatu egin zan. Ortarako bestelako erreztasunak ipiniagaz batera. Eta erri andi egin, igarri barik.

Len bere eleiza be, Santurtzeko parrokiaren mendeko zan.

Sestao'k, ez dau entzuterik euki ez nortasunik istorian. Eun urtetik ona dator bere goratze eta anditasuna. Bere lanerako izate eta ezaupidea. Aberats andiak sortu ditun industria dauka berak eta biargin apalak, umillak erabilli izan dituana. Sestao'k, onetan, danetatik dauka zer esan eta zer erantzun.



URKIOLA

Mañaritik asi eta Urkiolaraiño
ez da ikusten besterik aldatz gora baiño.

Bai. Guazen gaur, al bestean, aldatz goran, Urkiola'ra.

Santu-santekin nabillala beti? Parkatu. Oiturakin nabil. Oitura
jator eta biziekin. Kalterik ez dauken oiturekin.

Eta gaur, ezin ukatu San Antonio eguna danik. Eta ba dakizue
kantea:

Aita San Antonio Urkiolakua,
askoren izeneko santu debotua,
askok egiten dio San Antoniori
egun baten joan eta bestean etorri.

Ori alaxe zan len. Gaur, joan eta etorri, egun berean egingo
dabe geienak eta askok egun erdi baten. Errez al leike ori gaur. Es-
kintzaren bat bete, promesarik ba da; maitetasunak barriztu, go-
goratu San Antonio maitasunen zaintzalle erabilten dala eta ori-
gaitik zaarrak Urkiolan barriztuten dakiez euren ezkontza-eguneko
promesak; egun eder bat igaro, eguraldiak laguntzen ba dau, eta
aurrera.

Toki aizetsua da Urkiola. Aizeak osasuna dakar, aize garbiak
beintzat. Enbeita «Urretxindorra»ren bertso batzuk esan eta gogo-
ratzeko nago:

Axe gozo usaiña
Urkiolan dago,
osatuten dauzana
gorputz eta gogo.

Nor da usain gozo au
zabaltzen dabena?
Urtzi'ren banakari
Andoni ain deuna.
Goi-axe zabaltzalle
ain maite dabenak,
emen gozartzen dabez
axerik onenak.

Eta bein Einbeitagaz gogoratu ezkeru, Enbeita amai bako iturri garbia dalako, beste bertso batzuk esango dodaz Urkiola'ren ontasuna agertzeko. Bera gaixorik egoala egiñak dira:

Arrospide tar Yon osatzalle
zeure emaztia ta sendi,
maitasunezko agur gozo bat
artuxue gaur nigandi.
Deun Andoni'ri otoi egiñaz
bai nabil mendirik mendí,
gogo ta gorputz indartziarren
alde orduko emendi.
Agindu zeustan axiak artzeko
Urrutxu'n edo Bizkergegin
egun batzubek igaroteko,
pizka bat gogortu nadin.
Bizkergegi'k baiña ostaturik ez,
ta aixe utsagaz zer egin?
Ori dala ta Urkiola'ra
etorri nintzan autermin.

Aixe garbijak dagoz Bizkergegi'n,
baña axiakaz bakarrik...
gorputza zelan indartuko da
jan-edan egin bagarik?
Urdailla beti ba daukot gogor
gauzatxu ona gurarik?
Orretarako ezin topeu lei
au baiño toki oberik.
Gustiz eder ta egokia da
ni emen nagon ostatu;
etxe jaubiak garbi ta onak
dirala ezin ukatu,
mayan jarrita zer gura ta axe
bertora etorten yaku,
aixiak barriz, iñungo onenak,
geyau zer daiket eskatu?

Deun Andoni'ri otoyak egin,
gosaldu ta mendire,
aixie bigunak artuaz nabil
egal gustiei begire,
Lodituten be pixkat asi naz,
ene lag'un Arrospide,
emen luzaro nengoke pozik
txindigaz ba'nintz...aizkide.

Bertso oneik irurogetak urte daukez. Orduntxe egon zan gaixorik Enbeita Urkiolan eta orduntxe, argitalduak dira.

Euskal esakera batek esaten dau:

«San Antonio, San Antonio, txarria gaixo dagonean. San Antonio eztau iñok esaten odolestea yaten danean.

Ainbeste?

Sarri gogoratzen eta entzuten da San Antonio'ren izena. Ori ezin ukatu. Eta ez esan San Antoni praille esku zabal-zabala da-

Esakera da beintzat, emoten dan itza, berbia beteten ba da, San Antonio laguntzalle andia dala, baiña berba ori bete ezik ez dabela gaiego laguntzen.

Gaurko egunez neskatil asko joaten ziran len Urkiola'ra nobio eske.

Zelakoa?

Ara. Ori bakoitzak santuari jakin erazi bear zelakoa nai dan. Baiña ba dakizue zelan agertzen dan ori? Orratz baten bitartez. Beltzerana gura ba da, morenua gura ba da, orratz baltzak jaurtiten dira aldare aurreko kutxa batera. Beilegi nai ba da, orratz zuriak. Eta San Antonio'k ez ei daki ukatzen olako mesederik, biotz zindo eta onez eskatzen ba da.

Bein, ondarrutar neskatil bat joan ei zan Urkiolara eskabide ori egiten. Ondarrutarren gatza jakiña da. Orratza erakutsi, jaurti, Aita gure bat errezatu eta buelta egin orduko, berari begira ikusi ei eban mutil gazte begioker bat, obeto esanda, begi okerra ez, begi bakarra baiño. Goitik berako irristadea sentidu ei eban eta San Antonio'ri ixillean barik, danak entzuteko eran esan be bai: Neure Aita San Antonio, au be niretzat? Bein nobixo bat eskatuko eta bertan begi bakarra eskiñi?. Eta mutillak gozo-gozo esan ei eutsan: Orañarte ez dozu iñor zuri begira euki eta origaitik etorri zara. Orain begi bat begira daukazu beiñik bein. Ukatu egingo dautsazu San Antonio'ri niri be egin daustan mesede ori? Eta neskatillak bat batean erantzun be bai: Benetan. Naiago dot begi bakarra niri begira, bat niri eta bestea auzoko kolaixo ustelari baiño. Erdu. Eta alantxe alkarri eskua emon eta sekulako bizitza bake-tsua euki ei eben, eta famili askotan egoten dira errezelu, begitan-siño eta eskutuko kopla barik luzaro bizi eta maitetasun betebetian asi ei zituen semeak.

San Antonio'ren ama euskalduna izan ete zan?

«Kirikiño» zanak San Antonio, Urkiola eta bere amatzaz au diño: Bera irakurriko dogu:

Euskalerrian egiten diran erromeririk ospetsuenetarikoa da berau, Bizkai guztitik, Gipuzkoako alde aundi betetik eta Arabatik batzen direalako Urkiola'n gizatalde izugarriak.

Danak eztoaz deboziño: asko ta asko antxe jan-edanean ta dantzan ta moskortuta ibiltera baño; orratiño asko ta asko joaten dira benetan Santuari erregu egitera ta bere bitartez Jaunagandik arturiko mesedeakaitik eskerrak emotera.

Orregaitik ango ostatuak jentez bete-beterik egoten dira San Antonio aurreko egunetan, bederatzi-urrenak egitera joan direa-nakaz.

San Antoniori euskal jenteak deutson onerazpen edo deboziño ain andia dator, antxiñatik laguntasuna lortu dabelako bere bitartez, izan dituezan bear-aldietan itxasoz eta legorrez.

Baña onez ganera, San Antonio Paduakoak dauko beste zer-ikusi bat, euskaldunak maite daben baño maiteago izateko santu miraritsu au. Eta da euskaldunen odola eroan ebala bere zanetan, esan geinkeala Lisboan jaiο arren etxekua dogula.

Aldi baten ei ebillen Bizkaiko itxasoan Portugaleteko gizon bat bere ontziaz okerreriak eta lapurreriak egiten ispaster guztian. Eldu zan bein Mundaka'ra ta Arbiña deritxon etxaguntzako alaba ederra ostu ta eroan eban beragaz.

NeskatiNa au, ederra ba zan gorputzez, ederragoa zan biotzez edo ta arimaz, eta itxas lapurrak ikusirik bere ontasuna, artu eban emaztetzat an Lisboan.

Senar emazte onek alaba bat euki eben, zein izan zan Antonio'ren ama. Eta orregaitik etorri ei zan ona Santu au bein bere bizian, emen eukazan senideak ezautu ta ikustera. Urkiola'tik igaro zala onantzakoan ta arantzakoan: eta bertan gaba egin ebalako eregi ei yakon, geroago bere mirariak eta donetasun andia mundu guztian zabaldu zanean, elizatxo bat.

Orra, oraiñarte, «Kirikiño» zanak zelan agertzen daben santu onen euskal odolaren gora-bera.

Dana dala, ba dakigu euskaldunak maite daben santua dala, eta Urkiola'n gaur, eta urte guztian, San Antonio'ri, bertako abadeengandik asita, erregu asko egiten yakola gure izkuntzan, eta gertaera ori ziurra ba da, bere amaren berbetan.



ZALLA

Erri polita Zalla. Gora datorren erria. Ia sei milla bizilagun gaur gaurkoz. 31 kilometro lautu lurrez. Balmaseda, Gueñes, Sopuerta eta Galdames'en erdian.

Auzoak: Aranguren, papergintzako ke ta guzti. Milla ta bosteun lagun. Herrera'n, Balmasedarako bidean, 700 lagun; Otxaran'en 300; Solario'n, milla. Eta uriburuan, bi milla lagun.

Bilbotik 24 km. Balmasedatik 6. Trena be ba dauka.

Ginda eta kerizen erria. Ba dauke ontasun entzutea bertakoak. Bai eta piperrak be. Eta intxaurrak.

Landa baten egiten da erri burua. Etxe ederrak. lengoak eta gaurkoak. Onetan arduraz jokatu dabe Zalla'n.

Sasoi baten gerra-toki. Bizkaiko etxe indartsu batsuk bertan ibili ziran burrukan, alkar-ikusi eziñean, keixu eta odoltsu.

Saltsedotarrak eta Marrokindarrak euken, geien be, lurralde au euren bildur, lotsa eta morroitzapean makurtuta.

Eliza ederra, XII garren gizaldikoa. Ayala eta Saltsedo jaunak jaso ebela uste da. Gero, bertakoak ondo zaindu be bai. 1 738 barriztu eben.

Emengo batzuk, aspaldiko denporetan, Gueñes'ko parrokiari eskintzen eutsezan euren amarrenak eta ondasunak. Borondatez? Ezin ukatu. Eta Gueñes'ko parrokikoak etorten ziran bertara, illetak egin bear ziranean, gorpuaren billa, eskubide osoz.

Zegaitik? Bear ba da Gueñes'ko parrokia izan zalako luzaro inguru oneitako parroki bakarra. Ortik eskubideak. Dana dala, Zallatarrak, nai eta erri onetan, Zallan, bizi eta emen parroki bat egon, eskubide osoa euken, libertade guztia, eurak nai ba eben,

Gueñes'ko parroikiko lez agertzeko, ango elizkide izateko, ango le-geak bete, bertakoei laguntzak eskiñi, jaietan nai okasiñoietan elizkizunak an egin eta orrela ango eleizaren menpean gelditzeko.

Gero, premiñak eta abar, lurraldeak zabaltzean, Zallatarrak lortu eben erri guztia bertako parroikian alkartzea.

Zalla ez da beti Bizkai barruko erri lez ezagutu izan, Gueñes eta Gordexola be bizi ez ziran lez.

1669 urtean, Bizkaiko Batzar Nausiak ontzat artu eben Bizkaiko legedian Zalla eta bere ingurua sartzea, ordurako Gueñes eta Gordexola alkartu edo sartuta egozan lez. Aurrez Zalla bertako Salazar, Montano eta Urrutia ordezkariak egin eben eskabidea Bizkaiko Batzar Nagusiari eta onek, sindikoen on-iritzia artu ondoren, ori erabagi eban urte orretan. Elizaz be emango parrokiak Santander'eko obispadutzan sartzen ziran.

Sortzetik Marrokindarrak bertako egin ziran. Eta euren torrea bertan euki eben.

Marrokindarren seme bat, aita Castro'n urkatu eben, obeto esanda, uretan itto eragin eutsen, orduan sarri egiten zan lez, eta seme Otxanda Anunzibai'egaz ezkondu zan eta oneik be euren torrea jaso eben.

Ortan dagoz inguru oneitan ainbat torre. Zalla'n bertan zortzi bat billatu geinkez. Eta ba dakigu torreak, lengo denporetan, zer esan nai izaten eben: Anditasuna, arrokeria, nortasuna. Eta askotan, itsukeri baten menpetasuna.

Azal-azaletik izentatu daiguzan Zalla'ko torreak.

Aranguren- Marrokindarrak jaso, bere irugarren ezkontzako semiei eskintzeko. Gueñes'en gain egiten da torre au, Cadagua ibaiaren ertzean.

Maruri.- Gueñes erriaren mugan. Sorgiñen jauregia deitzen dautsen etxearen inguruan. Bere inguruan dago baita be Lejartzarren etxejauntzakoa.

Mendieta- El Charco auzoan. XIII garren gizaldikoa da. Bere inguruan Aretxaga torrea be ikusten da, edo beintzat bere ondorenak, bera, Aretxaga torre jatorra, erreta geratu zalako.

Murga.- El Solar auzoan. Murgatarrak torre bi euki zituen Zallan, bata bestearen aurrez aurre. San Miguel'en eliza onduan.

Uantada- Torre txikia. Gaur barriztuta ikusten da. Abizen orretako jatorria erakusten dau.

Gobeo- Cadagua ibai egalean au be. Len torre izan zanaren erdi gaur ikusten danez. Moztuta.

Boluburu - Ez jakin noiz sortutakoa. Salzedo eta Murgatarren odolekoei egokiena. Etxe onetakuak, bere inguruan, Santa Anaren

ermita bat sortu eben.

Terreros- Au Herrera auzoan dago, eta oraindik argi ikusten da bere izatea len zelakoa izan zan. Torre onen inguruan San Antoniori eskiñitako ermitatxo bat dago.

Orra ezagunenak.

Bein Zalla'ko kontuak esaten asi ezkeru, merezi dau Otxaran'go Indartsua gogoratzea eta beratzaz zerbait esatea.

Gizon indartsu eta umoretsua. Andia, giartsua, uletsua. Euskalerrri guztian ezaguna bere denporan. Anton Trueba kontu-esaleak edozenbat gertaera agertu zitun bereak. Berari esker dakiguz gaur eta bidezko da batsuk esatea be.

Bein, Portugal'eko mugan ebillala, kontrabandoan egin nai izan eban. Gau baten, mugan, zaindari bat egoan lekura urreratu zan. Begiratu ta lotan egoala konturatu zanean, txabola ta guzti aidean artu ei eban bera eta berreun metroz tokia aldatu.

Zaindaria esnatu ordukoxe, kontrabandoa egiña eukan. Baiña konturatu zan zaindaria zein izan eikian ori egin ebana. Eta bengatu nairik, aiertu nairik, joan ei zan bein bere etxe ondora. An jarrita billatu eban Indartsua. Ixil-ixillik atzetik ei eioan eta Indartsuak bere itzala igarri. Orrela, urreratu orduko, atzera bere besoak luzatu, zaindariari oiñetatik oratu, aidean jaso eta zortzi metro jaurti ei eban. Urrengo baten, zaindariak, benetan aiertu ei eban. Begi bat erre eutsan, baiña ez gizon indarrez, pistoleagaz baiño.

Bein Bolunburu burdintegira jua ei zan bere gurdiagaz zerbait eroaten. Utsitu eta zerbait nai bueltarako ta emon ez. Eskukada bat besterik ezik, esan ei eiotsan berak jaubeari- Eskukada bat baiño izan ezik...

Eta zazpi kintal burdin artu ei zitun eskukada orretan.


Bera aiñako ei zan bere alaba, ogei urte eukazala, il zana. Bein napar palankari famatsu bat joan ei zan Indartsuagaz bere ala neurtu nairik. Alabak urten- Emen bizi al da Otxarango Indartsua?- Bai, eta ni naz bere alaba.- Beragaz egon neike?- Gaur ez, erbestean da-ta - Iño! nai neban ba palanka bategaz bere indarra neurtu, aidean jaurtiten.- Ori baiño izan ezik, emen nago ni be orretarako - Zu! Andrazko batek zer egin palanka bategaz?

Alabak, ixilik, *arru* biko palanka bat atara eban etxe-barrutik, esku bategaz aidean jaurti eta berrogei oin luze jaurti be.

-Jesus! Gonadunak au egiten ba dabe etxe onetan, zer egingo ete dabe prakadunak?

Eta lotsatuta bere errira biurtu ei zan, palanke jaurtiten auzartu barik.

Otxarango Indartsua, Manuel Aedo zan izen abizenaz.



ZAMUDIO

Geitzen datorren erri bat ikusi daigun gaur: Zamudio. Bilbo'-ren inguruak zabaltzen, laster etorriko da goraka, igarri barik, erri au. Eta industri barriak sortuko dira inguruetan edo ta Bilbok eskatzen dituzan serbitsu asko. Ez dira urte asko joango ori ikusi barik.

Bilbo lako uriak ittota aurkitzen dira gaur. Nai ta ez zabaldu bearrez. batera edo bestera. origaitik erri andien inguruak bat bateko astiñaldia artzen dabe. Ametsetan lako esnatzea. Uste gitxienetako tokietan, etxeak, lan tokiak, bizitzak, lanerako nai jolaserako eskatzen ditun premiñak beteteko tokiak.

Aukeratsu egiten da gaur orretarako Zamudio.

Eta urte luzetan geldi igarri ba zan be, gorakada barik igarri ba zan be, bere ordua ba datorkiola dirudi.

Berrogetabigarren jarlekua eukan Zamudio'k Gernikako Batzar Nagusietan eta era orretan bere eritzia agertu be, erri legezko nortasuna eukanean eta Batzar areik egiten ziran denporetan. Milla lagunera ez zan alduten sasoi aretan, au da, lengo gizaldian.

Baserri lanak eta baserri oiturak bereak. Bai eta argintza eta bestelako zeregiñetan.

Artea'ko Zamudio be deitzen eutsen. Lau auzo: San Esteban, San Mamés, San Antolin eta San Martin. Au da, ainbeste eleiz edo ermita auzoei izena emoten.

1966 urtean Bilbo'gaz batu zan edo batu eragin eutsen. Au da, gaur, Zamudio, Bilboren auzo bat da. Len esan doguzan auzoak aitatu be ez, gaur gaurkoz, Bilboren asmo eta esanetan, Bilboren erakuntza eta planetan. Zamudio auzo bat lez izentatuko da eta kittu. Eta kontuan euki daigun Zamudio'k 20 kilometro lautu emon edo geitu dautsazala Bilbori lurretan. Ainbeste ziran bere lurraldeak. Eta Bilbogaz batu zan urtean, 2.353 lagun eukazala bertako bizilagunen artean.

Urte onetan Bilbok artu zitun lau erriak, au da, Derio, Zamudio, Sondika eta Lujuak, 50 km² geitu eutsezan Bilbori. Esaten denez, edo ta kalkulaten denez, Bilbo'k 1 50.000 lagun inguru oneitan eukiteko premia eukiko ei dau. Ala dira kalkuloak. Bere 300.000 bizilagunekin estuegi bizi dala gaur, ezin ukatu.

Eleiza ederra dauka Zamudiok. Delmas zanaren eritzian, Bizkai aldeko eleizarik ederrenetari koena, berau lako erri baten. Bizkaiko eleizarik zarrenetari koen artean be kontaten da Zamudio'ko au. Ez da gaurko. Fortun Gartzia, Naparroako erregearen illoba batek emon eutsan eleiza au jasoteari, Zamudio etxekoen nausiekaz batean. 124 oin daukaz luze, gaur dagon eran eta 58 zabal. 1545 urtean barriztatu eta anditu eben. Eleizaren torrea, 1605 urtean amaitu. Ala irakurten da orduko agiritan, ain zuzen be eleizako lanak ordaintzeko kontuetan.

Eleiza egin edo barriztaten ibili ziran argiñen izenak be gain gaiñetik esan leikez. Argiñak beintzat, Juan Atzutegi, Pedro Agirre, Bartolo Artaza, Martin Artaetxe, Pedro Bolibar, Pedro Mada-riaga, Juan Pinagua eta abar.

Kanpantorrea 65 dukat kostatu zan, edo orretan egin zan tratu. Eta bera egiten ibili ziran argiñak Juan Cadalso eta Pedro Ortiz Pinoaga izan ziran. Pulpittoa Martin Goiak. Laga daiguzan izenak.

Aldare nausi ederra dauka eleiza onek. Baiñaez da ain zuzen be Euskalerrian egiña aldare ori. Limpas'en, orain irureundak urte, aldaregille onak egozan. Felipe Gargolla santugin ospatsua zan eta toki askotarako lan egiten eban. Baiña aldarearen gorputza eta tentekoak beste bateri emon bear, eta ortik, zeregin ori, Diego Lombera orretan maixu zanari eskiñi eutsan.

Ala ikusten da 1 639 urtean bien artean egindako konponketa edo tratu baten. Eta tratu ori euren emazteak be izenpetu edo firmatu eben, euren senarrei bear ziran baimenak emonez, zeregin ori egin al izateko dirutza andia bear zalako eta arrisku orrek etxe-ko edo familiko dirutzen laguntza be eskatu eikialako. Orra ba, Limpas'ko santuginen eskplako lan eder eta ikusgarri bat Zamudio'n.

Geroago, Malpika torreko jaunak, orain berreun urte, 1763/1782 urte bitartean, eleiza au barriri barriztu, konpondu

eta txukuntzen dirutza asko ipini eban.

Zamudioren istorian anai arteko gerra asko ezagutzen dira. Itsuak izan ziran inguru oneitako jaunak alkarrekin burrukan. 1409 urtean Butron'go jaunagaz euki zituen asarraldien ondoren, inguruko jaun batzuk euren torre eta kartzelak sutan ikusi zituen. Arteagako Jauregiko urka-tokia be erre egin eben Butrondarrak eta orregaz barriro Zamudiotarren odolak berotu.

Atzerago jota, 1272 urtean, Santo Domingo mendietan, zamudiotarrak eta Legizamondarrak gerran billatzen doguz alkarren artean. Il eta zauritu asko euki ondoren, danak etenda, beia jota ei egozan, indar barik, eta Lope Garzia Salazar'en kontuak irakurten ba doguz, ikusiko dogu, ala egozala, Lusarra'neko Pedro eldu zala beste ogei gizon barri Deusto'tik ekarzala, eta orrela, etenda egozan zamudiotarrak konturatzeko denpora barik, bat batean artu eta igeska ipini zituen, errirarte, baiña orrela etozala besteak 80 gizon il eutsezan emengoei. Orra orduko istori baltza.

Eta euskera Zamudio'n?

Oraintsu niri gertatua. Nicolas Atxukarro osatetxetik nentorrala, mutiko batzuk billatu nebazan bidean. Nik agurtu ta eurak euskeraz ondo erantzun.

-Euskerarik ba dakizue?

-Guk irurok bai, esan eustan mutiko batek bizi bizi eta arro. Beste bi oneik ez.

-Kalean egiten dozue?


-Gure aitak danengaiñetik euskeraz egiteko agintzen dausku.

Orra nire itaunak eta umien erantzunak soil-soil esanda. Geroago, emengo gora-berak ikustean, erdiz erdi batzen dirala esan dauste jatorriz bertakoak diranak eta erbestekoak, eta bertakoak, asko edo gitxi, batzuk oiturea galtzen ba doaz be, euskeraz ba dakiela. Emen atzetik datorren zakilladea ikusita, ezin ukatu naiko lan eukiko dabela bertakoak gure berbeteari eusten.

Zamudio'n, kalean, bide ertzean, torre zar bat ikusten da.

Antxiñako paperetan irakurten danez, batera jaso ziran eleiza eta torrea. Origaitik, gaurko torrea ikusten dabenak, eta lengo gizaldietako asarreak eta etxe erretzeak kontuan eukita, ezpai edo dudan jarten dira torre au lenako zarra izango eta danez. Gaurko au XVgarren gizaldian jaso da eta Zamudio'ko torre lez ezagutzen ba da be, XVIIIgarren gizalditik Malpikatarren torrea deitzen dautse arein jaubetasunera biurtu zalako.

Orra, gain gaiñetik, ZAMUDIO, txori erriko erri giartsua.



ZEÑURI

Euskaldunok, txiki gareala, arin ez bardintzen gara. Bakoitzaren bereiztasunak arin agertu, erakutsi eta ezagutu erazi.

Itxasoa eta mendia alkarri begira bizi dira Bizkaian. Eta itxastarra eta menditarra be bai?

Onetan esan giñei, arrantzaliak eta baserritarrak, itxastarrak eta menditarrak, bereiztasun ezagunegiak dituela. Ez bakarrik bakoitzaren errian bizi diranean. Erri baten barruan be, erri berbertan be, bakoitzak bere bidetik jokatzen dabela esan lei. Bakoitzak bere oitura, ekandu, agerpide eta ezaugarriei eutsi eta jarraituz.

Askotan bide batera jo nai ta be, bide bitatik ibilli nai dogula dirudi.

Egia da itxastar eta menditarraren zeregiñak, alkarregaz ze ikusi gitxi daukela. Batak lurraren sakonetan sartzen dau atxurra eta besteak itxasoaren ondoetan bere sarea erabilli.

Baiña erri baten, jolasean edo atsegin aldietan alkarregaz gertaten diranetan be, bakoitzak bere gurpilla atarako dau.

Ni itxastarra naizela, motz gelditzen naz baserri errian. Zerbaiten utsunean, edo beintzat, esan dodan bereizitasuna bitarteko dala igartén Zeñuri ikusten alegindu nadin.

Goizetik nabil Zeñuri'n.

Goiztar izatea atsegin yat. Eta ala ta be... Gogoratu kanta zarrara:

Eperrak kantaten dau
goizean bostetan,
ez egon neskatillak
mutillen pantzutan.

Goiztar izateak ba daukaz bere akatsak be. Kontuak euki beste bertso oneik:

Ni baiño birigarroa
goizago jagiten dala,
eta birigarroan txinta soiñuan
gogoz lo egiten dogula.

Igarri barik kantari asi naz. Ez ete dau merezi Zeanuri onek goizeko kantarik?

Telesforo Aranzadi zanak esaten ekian:
Euskaldun jatorra izateko bear dira sei gauza:
Pelotan jakin,
sagardo zalia,
ibiltaria izan
anka aundia,
bizkar zabala
eta zudur luzea.

Eta zeanuritar batek ori entzunda itaundu ei eban; zazpigarrenik ez al dago? Ez beintzat arratiarrei ostu zazpigarren kondisiñorik, bere esanetan arratiarrak ziran euskal izatea garbien zaintzen ebenak. Entzuna lez esaten dot.

Flores Kaperotxipi zarauztar pintore ezagunak esan eta idatzi be egin eban bein baiño geiagotan, mendi goietan dagozala euskal giza-semerik jatorrenak. Eta origaitik bere kuadroetako gizon eta emakumeak aukeratzeko mendi gaiñetan egiten diran errietarra joaten ekian, euskal arpegien neurri, gurpil, jokera, tipo eta egalak zintzo iruditu eta agertzeko asmotan.

Bi milla lagun ingurutun dabil Zeanuri. XVIgarren gizaldian, 200 famili bizi ziran emen.

Amar auzo daukaz: Alzusta, Arzuaga, Asterria, Zeanuri goia, Iburguen, Ipiñaburu, Ozerinmendi, Plaza, Undurraga eta Uribe.

67 kilometro lautu, kuadratu lurrez. Zerbait geitxuago, laurden inguru baten, zeatz esateko. Bizkaitik geienengoen arteko.

Bizkaiko mendirik goiena, gorena, bere lurretan dago: Gorbea, 1.475 metrogaz. Gorbearen erraietan, beste sei mendi kontatu leiz milla metrotik gorakoak: Aldamin, 1.352; Lekanda, 1.302; Gorostieta 1.255; Gatzarrieta, 1.183, Usotegieta 1.178 eta Altipilaitz 1.164. Egia esabatean, Zeanurigaz batean mendi onein jaube dira, batean edo bestean, Areatza, Ibarra, Murgia, Murua, Orozko eta Ubidea be.

Sasoi baten Ubidea be Zeanuri'n jaubetasuneko izan zan. Beraz, gaur baiño andiago izan zan lurrez, beste ia iru kilometro lautu, ori da ta Ubidearen jaubetasuna. XVIgarren gizaldiaren erdi aldean banandu zan Ubidea Zeanuri'tik eta bere buru jaube gelditu.

Eta beste auzoalde bat be ibili zan Zeanuri laga eta bere buaruaren jaube, erri legez, egin nairik.

Ez dira gauzak argi argi onetan, baiña dirudianez, Santiago'ren parrokia aitzakitzat artuta, Ipiñaburukoak euren gain geratzea nai izan eben, erri baten eskubide guztiekin.

Dakiguna da Santiago'ren parrokia 1550 urtean egin zala. Eta ain zuzen be urte orretan eskatu eben ipiñaburutarrak euren nortasuna artzea. Eskatu bakarrik ez. Gernikako batzar nagusi baten onartu be egin zituen bertako ordezkariak, zeanurikoekandik aparte, baiña urte bete igaro orduko barriro lengora jo bear, Batzar Nagusiak lenengo ezaupidea ukatu eta botoa be kendu eutselako.

Menditar oso osoak, bete-beteak dira zeanuritarrak.

Jakintsu asko ibili izan dira bertako gizonen bitartez euskal izatearen bizi, oitura eta agerpenen billa. Emendik etorriko da, segurutik, len esan dogun euskal izatearen zazpigarren baldintza, kondisiñoia: arratiarra izatea.

Gaurko euskal melenadunak ez ete dabe emen artu nai izan eurentzako gure gazteak eskatzen daben jatortasun bat? Liburuetatik irakurri daikegunez, ain zuzen be eun urte inguru dira emengoak, emengo gizonak, melenak eroaten asi zirala.

1873 ingururarte, zeanuritarrak, eta arratiar guztiak be bai, egal zabaldun kapela txanbergo luzeagaz ibiltzen ziran jai eta perrietan, atze aldeko egala goratuta, pixkat jasota, bear ba da ule luzeari, kuellua, lotu barik; lurrezko pipa ezpanetan, eta eskuetan makilla luze bat, tenteko makilla, sutan irarritako irudi eta edergalluz beteta. Gerriko zabala gerrian, diru poltsa eskutuan eroan al izateko aiñako zabalera eta luzez. Bai eta belauak arterañoiko galtzak be, eskinikuekin lotuta, eta beeragoko ainka makillak bes-telako trapuz inguratuta, estalduta. *Becerro de Bengoa* arabarrak alaxe agertzen dauz beintzat bere irudi eta margoetan.

Unamuno zanak, barriz, erdi mistiku eta erdi ipuiñetako gizon lez, legendario lez, billatzen zitun emengo gizonak.

Egon ete zan iñoiz Unamuno Zeanuri'n. Itaun au egiten dabena ba dagoz. Ba dira bere irudimen eta esakera orreik bere adiskide zan Lekuona pintatzallearen bitartez artuak dirala esaten dabena. Gogoan euki bear da jakintsua eta pintorea leku bateko zirala eta alkarregaz ondo eroaten ziranak, gañera. Eta lekuona pintoreak maitasunez eta kutsu bereziz erabilten zitun arratiarrak bere kuadroetan.

Gure errietan neskatil asko geratu ziran neskazar, euren anaien bat abade egin zalako eta areri laguntzeko.

Eztakit gaurko pentsakeran eskintza eta borondate ori aintzat artuko litzakezan, baiña sasoi baten ala e egin zalako eta areri la-

guntzeko.

Eztakit gaurko pentsakeran eskintza eta borondate ori aintzat artuko litzakezan, baiña sasoi baten ala gertaten zanik ezin ukatu. Abadeak eurak baiño estuago izaten dira sarri neskazar oneik. Bizi alargunak deitzen dautse batzuk. Beste meritu bat ori be euren aidez.

Sotanak lagateko moda eta gerra etorri zanean, bateri barrutik giltzagaz atea itxi eta ez eutsan sotana barik kalera urteten lagaten bere arrebak. Azaleko gauza, baiña askok artu eben barrubarruko gauza lez jantziaren gora-bera au. Azkenean be, egun baten sotanea beti lez anaiak txukun urten al izateko plantxaten ziarduala, atara deitu eben. Atean bear aiña baiño denpora geixuago jardun eta erre usaiña zabaldu zanean barruratu orduko, sotanea erreta.

Ez ete egoan bitartean esku demoniñorik edo diabrukeririk? Abadeak «Deo gratias» esan ei eban.

Zeanuri'n, sotanea erretea, ez da oraintsuko. Ekaitz, denporale gogorren bat igarten zanean, edo ta tximista eta trumoiak, gaineetik kendu ezinda ebiltzanetan, edo ta arria jausiko ete zan bildurrak erritarrak joten zituania, oiturea zan abadea eleiz atera urten eta konjuroak egin edo esatea.

Antxiñako denporetan leiza-zulo edo koebaen atera joaten ei zan zeanuritar abadea eta andiko konjuroak esaten ebillala, sotanea erreta geratu ei yakon bein. Errian urte luzetan sinistea izan zan, Mari Kobako'k erre eutsala abadeari bere jantzia, sotanea, abadea bera konturatu be egin barik. Olako siniste ugari dagoz emen.

Askok gogoratzen dabe oraindik Arratiako tranbi zarra. Gaur eleuke beriala lagun askorik eroango. Iñoiz etorri nitzan ni be Zeanuri'ra tranbi zaar, oker, zaratasu, dantzari eta astun aretan. Etxeko ziran danak an sartzen ziranak. Danak ezagunak. Otzara eta kartin, saku eta pardelak be bai.

Bilbo'n Arriaga aurrean sartu uten zan bat Lemonara, eta andik Igorre, Arantzazu, Artea, Areatzatik zear, Zeanuri'ra.

Gure umearoan, orain 50 urte inguru, ba dakit 1,60 (amasei txoriandi kostaten zala ibilpide guztia. Ala ta be Zeanuri'ra ezin etorri Jaunaren oniritzi barik. Egin kontu Zeanuri'n, abade eta monja barik ez dagola eguneroko auturik, ez konturik, ez ipuiñik be. Jakin bearreko da emen ez dagola etxerik edo familirik senitartean abade, praille edo lekaimerik, monjarik eztaukenik.

Gai ontaz kontu errazoi zeatza emon eban 1924 urtean, Ozein'ek, lan irakurgarri eta sakon baten.

Erri batzukaitik zerbait esan al ba da be, Zeanurigaitik ezin esan bertako semeak euskera erabilten jakin eta alegindu ez diranik.

Bizi-bizi etorran Eulogio Gorostiaga bat. Eta 29 urtedun il. Edozenbat lan agertu zitun berak euskera eta erderaz bere erri oneri buruz.

Zeanuri'ri barrua ikusten alegindu zan: erriko kantuak, izakera, lengoen bizitza, batez be XVIgarren gizaldiko emengo bizitza, bertakoan fedea... Lan jakingarri eta artezak, bereak. Dima'ko seme bat, Irutasuneko praille gazte bat santu usaiñez il zanean, bereala agertu eban «Sakramentu Deunaren Domingo Aba» izenarekin bere bizitza. Ain bestean zan urduri ingurutako lanak agertzeko.

Gogoan daukat beste bat: Aita Martin Uriarte. Karmelitea. Larogeta bat urte egin zitun onek munduan, baiña. bizi-bizi. Amaika egi biribil esandako praillea. Eta ez egi luze eta asperkorrak, berba gitxitan esandako egi mardulak baiño.

Aitatzea merezi daben beste bat: Etxezarraga tar Bingen, «Zidorra». Eta Larrakoetxea anaiak, Alejandro eta Benito. Shakespeare idazle ospatuaren lan guztien euskeratzallea bietako bat, Benito, Bedita.

Eta agur egiteko da, Manterola tar Gabriel, larogetak urte lepoan eta oraindak gazte askok baiño adore geiagoz lanean, idazten, ikasten eta euskera zabaltzen.

Edozenbat billatu leikez, gai bat edo bestean, Zeanuri aintzaz bete daben erritarrak.

Parroki bi eta amalau ermita ba dagoz beintzat emen. Etxeko premiñak zeñeri agertu ba dago.

Negarrez, ala komeni danetan, eta ta alboka joten, ala bear danetan. Zeanuritarrak maite dabe albokea. Euskaldunen klarineta ei da, soiñu au. Ala deitzen dautse beintzat. Errusitar kosakoen jaleika bikotxaren antzeko ei da, edo ta India'n erabilten daben zortzi zulodun klarinete bikoitzaren antzeko. Dana dala, Zeanuritarrak ez dabe galdu nai soiñu au eta gaur bera zaintzen geien alegintzen dan erria dala esan geinke.

Ala, uste orretan, eta alboka soiñuen durundia belarrietan dogula, ba goaz gaurkoz.

Gogoan daukadaz albokari batek erakutsitako ereskin edo instrumentu onen zatiak: Adar txikia, Adar andia, Buztarria, Kañak, Fitak, Ulea, Zuloa, erastuna, miña, ortza eta katea. Zerbait ikasi bear da erri bakoitzean.

Eta kantari ibilli nazan ezkerro, Felipe Arrese Beitia'k egindako Gorbeiako" artzaiñaren kantu lirikutik artzaiña goratzen amaituko dot:

Agaitik diñot nazala zorioneko bi, bada
nazalako gaur txabolatxuan bizi gatxik egin baga.

biotz zabalaz lo egin eta esniaz talua janda,
Kantetan beti bakia, geitu dedin artaldia,
artu dagian nekazariak naiko arto ta garia,
mundu guztiak izan dagian ugari bizigarria.
Beti gara gu pozgarri, iñoiz bere ez izugarri,
alabantzarik emon ez arren munduak sekula guri,
sarrastadarik noz sartu deutsa gure soñuak iñori?



ZEBERIO

Artea'tik nator Zeberio'ra. Arratia'ko Artea'tik, au da, askorentzat Gaztelu-Elexabeití'tik.

Ez da bide atsegiña. Oker-une gitxi ez litzakez egokitu edo zuzenduko bide au gaur egitea ba litz.

Egun aizetsua. Brastada gogorrak. Ze aize da au, itandu dau tsat bertako zaar bateri.

-Amilana.

-Zelan?

-Bai gizon, amilana, fraka zarren billa dabillana.

To! Egunetik egunera ba goaz zerbait ikasten.

Nai neuke Zeberio'n zerbait ikusi. Ezin lei noiz-nai itxasertzetik oneraño etorri. Urrun egiten da. Bein etorri ezkeru, patxadaz sartu gaitezen. Ez beintzat esakera a gogoratzeko eran: «Bein Maria joango elizara eta bertan eperdiaz altarera».

Andren paradisua izan leikela erri au, irakurri dot oraintsu. Eun mutil lerdan eta mardul ei dagoz ezkongai eta ezkontzeko gogoz. Piñu-jaubeak, baserritar aberatsak, andre askori neke andi barik bizi-modu erreza emoteko lakoak.

Len, baserri askotako etxe jaube eta nausiak erran baltz eta igarra billatzen eben etxerako. Zerbaitegaitik esaten da Arratia'n: «Andrea ba da baltza eta igarra, arek egingo dau soloan bearra».

Gaur Zeberio'tik andregaiet deika dagoz. Solo lana, orain, eratsuago da, lengoen aldean, olgeta. Etxeak gero ta egoki ta txukunago. Kotxea, bear danean. Eta urre berdea, piñadiak etxe ingurutan.

Milla eta zortzireundik gora, orain eun urte, bizi ziran emen. Orain amalau, bi milla ta eun inguru. Bosteun gitxiago gaur. Nora doa Zeberio amar urtetan lautik bat galduta?

1493 urtean be 74 sutondo eukazan, orduko kontuetan agertzen danez. Olabarrieta'k 12.

Larogetak baserri, amairu auzoaldetan. Amezola, Arkulanda, Aretxandiaga, Argiñano, Ariltza, Barbetxano, Gezala, Ibarra, Olazar, Solatxi, Uriondo, Zubialde eta Zautuola.

Amalau ermita.

Santo Tomas Zarra eta Santo Tomas barri. 1 1 90 urtean aldatu ete zan lenengoa? Deitura bardiña dauka parrokiak, zarra nai barria kontuan euki. Oiturarik zarrenetarikuenak be izen berbera: «Santo Tomas'en elia». Au da: eleiz fabrikaren kontura artalde bat eta abelgorriak mendietan azteko oitura, irabazi ziurrak euki al izateko urte buruan.

Sasoi baten Ubao'ko bizilagunak be Olabarrieta'ko eleizaren amarrenetatik artzen eben.

Gaur Zeberio eta Olabarrieta batu dira. Eta ain zuzen be Ubao, gaur Miravalles izenagaz ezagunago oraingo mapa eta agi-rietan, zeberiotar etxe-jaun eta laborarien eskabidez sortu zan.

Berrogei milla marabediren errenta eukan Olabarrieta'ko monastegi entzutetsu onek Erdi Aroan. Bertatik iru milla artzen zitun Peru Abendaño'k. Jaun onek, Bizkaia'n, amabi monastegietan eukan jagoletza eta irabazpidea. Guztira 136.000 marabedi artzen zitun euretatik urtean.

Plazatxoa, tabernak, etxeak, inguruak, beste edozein baserri errietan antzeko.

Polita da San Antonio'n ermita.

la egunero ikusten dot Ondarru eta Berriatu bitartean Aranzibiatarren torre zarra. Eta Zeberio'n nabillala, barriro gogora ekarri bear.

Olabarri burdintegi zarra aurrean daukat. Nire erri inguruan be ba dago Olabarri. Toki askotan gertatu leiken izena. Baiña ain zuzen be angoak ba dauke zer ikusi onegaz, edo onek aregaz.

Otxoa Ariz'ek eta bere emazteak torre eta burdintegi bat jaso zituen Berriatua inguruan. Jauntxoen denporetan Aranzibiatarrak torre au erre ta beratu eben. Andik etorri ziran onera Olabarritarrak, izen berberakin jarraituz. Semeak eta anairen bat illik laga zituen Artibai'ren egaletan.

Emen Zeberio'n be istori illuna dauka Olabarri etxeak. Abendañotar jaunari omen egin ez, menpetasunik eskiñi ez, eta emen be, burrukaldi baten, bere aldeko 47 lagunek bizia galdu eben.

Zeberio'k menditik bizi bear dau. Ez dauka beste erremedio-rik. Baiña mendiak ez al dau merezi gaur baiño begiratze obeago-rik?

Erri txiki bat. Beste askoren lako. Ez geiago. Baiña ez gitxiago be. Aukera bat: 1 9 kilometro bakarrik uri burura, kapitalera.

Ala ta be Zeberio'k ez dau ango aizerik artu, bide bardiñean beste alderdietara begira dagozan errien parean.

Alderdi batzuk ariñegi datoz zabaltzen, barriztuten, egokitu-ten. Besteak?

Zeberio'k eratasun asko daukaz besteen gain. Berezkoak. Gaur erri askok diruz erosi ezin leikezanak. Eta bestera, Zeberio'k, gaur, diru truke erosi leikezan utsunak beteteko daukaz. Ez gogorik eztaukalako. Erriak be, nai ta txikiak izan, merezi dabe bizitza egoki bat. Merezi dabez bidetako erreztasunak, telefonoak, osasu- aldeko aukerak. Onetan asko egiteko dago.

Iñok ez ekian ezer. Iñok ez ekian nun egoan Petralanda be.

1 555 urteko udan zan.

Ogetalau lagun, gizon eta andrazko, Bilbo'ko kartzelara eroan zituen Zeberio'tik Nasa kalean egoan kartzelara.

Kontuak artzean, Katalin Gezala'k esan eban bera sorgin biur- tu ebela, bera konturatu barik, Artxanda'ko basoetan. Ereñoza'tar Joan'ek lapiku batetik gantzuki (unguentu) bat atara eta an ba- tzen ziran guztiak oin-azpiak, eskuak, biotza, lepoa, okotza eta be- kokia igortzi bear izaten ei zituen. Eta gero, orma gaiñetik salto ta egaz joaten ei ziran Petralanda'ra, kurutze, ermita, etxea eta aitz andiak egozan lekura. Eta an, Joan'en etxean danak billotzik ego- ten ei ziran, manta zarrekin estalduta.

Bezebul agertzen ei zan bertan; diabrua. Dantza egin eta zida- rrezko katillu batetik deabru orrek egiten eban pixa edan. Garratza ei zan edari ori. Gero...gizonak andrakin maitekerietan ibilten ei zi- ran narru gorrian.

Ettxera biurtzea ziranean ez ei ziran konturatzen etxeakoak.

Unzueta'ko Marinatxok, Areilza'ko Urtun'ek eta beste batzuk esan eben Goikoetxera eroaten zituela. Eta an belaunetatik, eta eskuturretatik, eta belarri ondostatik odola atara ta odol ori edoski- tuten ei eutsen Ginea'ko Diego'k.

Bestetan Jaungoiko eta Ama Birgiña ukatzeko eskatu, bai eta santu eta santa guztiak be; eta jan zituezan ogiak eta edan ebena, eta amaren bularretatik artu eben esne berbera madarikatzeko.

Iñigo, Arandia'ko abadea be agertu zan testigu. Onen esane- tan, berak morroi bateri entzuna eukan, Tellaetxe'ko gaztañegian gizon bat ikusi ebala toka eta gonak jantzita, eta iru emakume be- ragaz, bat gaztaña arbolaren gañean, eta gizonak izara batetik autseak jaurtiten zitula gaztain orretara. Bildur barik esaten ebela sorgiñak zirala.

Katalin'en amak, lenengo amatasunean beteta egoala esaten ei eban, iñor sortzekotan Ante-Kristoa sortuko ebala, deabruaren bitartez estadu orretan egoalako. Baiña Katalin sortu zan. Eta gero be, bigarren betekadan, Ante-Kristo ori sortu ezik erremen-tauta geratuko zala. Eta alaxe, erdibitu barik eta konfesatu barik il ei zan.

Luze dira orduko kontuak. Zeberio entzutetsu egin zan, orduan oi ziran eskutu eta ixilleko kontuetan.

Ala ta be inkisidoreak bigun egon ziran emengoekin. Ur eta sokaren alaketa edo tormentura zigortu zituen danok.

Ba goaz Bilbo aldera Ubao'rako bidetik.

Torre zat bat ezkerretara: Ariltzakoa. Torre ori egon zala jakin ezik, baserri zabal bat ikusten dogulakoan joango giñake.

Aurrerago, Arkulanda auzoan, Santa Kutz ermita ondoan, torre dotore ta andiago bat. Ate eta leio jatorrak. Gotikoak. Sorkaldera, bizi bidearen premiñaz jasoteko geigarri bat. Ba dirudi torreak bere sayetsetik baserri itxura eta tankeretan jasotako etxe andi bat atara dabela.

Goazen aurrera. Iru bat kilometro egin ondoren Ubao'n sartzen gara. Gaur Miravalles. Baserri bidetatik urten dogu. Kotxeak eten barik dabiltz emen Bilbo'tik Araba eta Burgos aldera.

Zeberio atzean gelditu da. Bere mendi eta basoetako bakea eten dogu. Keia, laiñoa, loikeria, usain gogorrak artzen asi gara. Zeberio'ko arrizko zubi polit eta txikien azpietatik urak garbiago etozan, inguru oneitan igarten diran baiño urdiñago. Ala ta be Zeberio'n etxe jauntzakoak andregairik ezin dabe billatu eta emen ibai ertzean, basartetan, bide egaletan, errekartetan, tokirik bakanenetan, askotan eguzkirik be ikusi ezin daben lekuetan, etxe merkeak ugaritzen datoz eta euretan maitasun barriak alkarren gain pillotzen.

Agirretxu, Bengolanda, Elorribieta, Goiza, Idirin, Leitoki, Orbetzu, Telleritxu, Usilarra, Zubitxueta... Zeberio'n gelditu dira. Emendik aurrerako etxeak ez jakin ze izen dauken. Esan nai bako zenbakiak, numeroak.

Zeberiotarrak miñez dagoz kaletarrak mendirik maite ez dabelako. Baiña ba dakie kantaten:

Gaixorik ago etika ori,
agiri don atzean,
izerdi on bat artu bearkon
geure kortako saizpean.
zazpi txarrien artean,
amilu moltso bat eperdian,
ni ilentiaz atzean;
orduantxe bai ikusikegu
zein ariñago garean.



ZIORTZA (Zenarruza)

Burutasun bat.

Durango'tik Goiuria'ra igo giñan bazkaltzera, emendik Garai'ko bidea billatuko gendulakoan.

Goiuri'tik gaiñetxoan igarten da, aurrez-aurre, Oiz'erako bidea, baiña kotxean ezin. Barrero bide nagusira jatsi, Markiña aldekoan sartu, Garai'koa artu ta igo, eta leku aizetsu eta garbi onen erriko etxe ondolik zear duan bideari jarraitu, bide kurutzean eskumakoa artu eta jo aurrera neke barik kotxean, pago artean batzutan, bestetan piñuak ikusten, San Kristobal'en ermitara. Arbazegi, Gerrickaitz, Ziortza eta Bolibartarrak batean euken eliz onen jabetasuna. Ermitatxoa ikusi, bere mendi-zaleentzako arrizko jan leku edo mai ta guzti, eta barrero kotxean oraindik gorago.

Egun illuna. Otz. Bide ertzetan, edurra. Ez lodi, bai fin. Tontorren oiñean, amar metro lentxuago, TV'ko txabola barria egiten. Eskutuan langilleak, otzari ostea billatu nairik. Azken eguna dabe, buzoietan gagoz. Orro tontorra. Egia: alkarri begiratu eta ia lotsatu egin gara kotxean eldu bearragaz. Bertan laga dogun tarjetatxoan au ipini dogu: «Kotxean eldu gara, edurtzan. 22-2-74».

Edur laiñoa ingurutan. Ikuspegi gitxi. Erritxoak, jakinda, ostasta ezagutzen dira. An, magalean, Ziortza. Sasoi baten ango abade kanonigoak ondo ezagutzen eben mendi au. Jakiña danez, eundak beor, moxal eta mandoko eukiten zituen emen eta berreundik gora arrez. Iñoiz euki zituen batera 118 bildots, 18 antxume, 88 auntz eta 94 ardi.

Oiz. 1.026 metro tontorrean.

Oiñetan, biribillean artuta, 45 kilometroko errubera artzen ei dau.

Arnika eta zauri bedarrez, mendi aberatsa.

Igoeraren poza baiño min geiago daukat barruan. Gure pensakeran ia pekatu da goraiño kotxean eldu al izatea. Zerbait urratu dogulakoan gelditu gara. Arnas barririk artzeko aukerarik be ez, esate baten. Gure ondorengoak ez dabe olakorik esango.

Trabaku'tik Gerena'ra (bertakoak Geria esaten dabe) eta emendik Ziortza'ra joan leike Muniozguren'dik zear.

Geria Mallabi da erriz. Luze sartzen da Mallabi inguru oneitan. San Adrian'en eleiza, Geria'n. Txikia. Antxiñako «estratia» zapalzen da oraindik ingurutan.

Emen be baserriak ustu dira. Gaur kotxean joan leike Muniozguren'era piñadietatik zear. Tartean mendiko zaldi eta biorrak ikusten dira, bai larra beiak be. Eta artalde onak. Longa baserri entzutetsua bidetik ikusten da. Oraindik Mallabi. Aurrerago eta gorago Muniozguren. Au ez da mallabiarrena. Emendik zabaltzen dabe ingurutako amabi baserrirentzako elektra-indarra. Emengo artzaiñak goratxoago dagon iturrian igarten ei dabe itxas ertzean maria goian edo beian dagon, iturri orren betekada edo indargeta-sunetan.

Emen laga bear da kotxea Ziortza'ra joateko. Ez dago kotxe biderik. Ordu erdi baten sartu lei. Etorteko, aldatz goran, gaitz denpora orretan.

Kotxean joateko, egokiena Iruzubieta'tik Bolibar'era jotea da eta emen ezkerrera artu. Edo ta Munitibar'tik etorri ezkeru, errian sartu orduko eskumara. Aldatza. Ez luzea, bai bat-batekoa. Gaur kotxeak ez dauke olakoetan arnas esturik. Bolibar'tik Ziortza'ra dagozan kilometro biak kantari egin daiguzan:

Oi bart, oi bart!

Usapal bi ta eper bat janaritzat,

iru atsorekin amabost agurak

zer aparti genduan bart!

Bederatzi zezen andi,

zortzi idi ta zazpi bei, -

sei aari ta bost antzar,

lau oillo, iru uso,

usapal bi ta eper bat.

Zer aparti genduan bart!

Ziortza'n sartu aurretik Bolibar ikusi dagigun. Emen dago bertako erri-etxea. Eleixate arek emen dauka bere erri taldea. Berrogei lagun ez dira biziko Ziortza'n; Bolibar'en, kaskoan, irureun inguru. Arta, Goierrri, Zenika eta Ziarregi'n besteak. Danetara be 800 lagun inguru. Gaur, danok, Markiña'gaz bat eginda edo an

sartuta.

Eleizako torrearen zatarrak atzera eragiten dautso bateri Bolibar'en. Arrigarri da olako eleiz-etxe ederrak ain esan nai gitxiko torrea eukitea. San Joan'etan jai, baiña Santo Tomas zaindari.

Plazan bertako seme ospatsuen oroigarriak, estatuak. Simon Bolibar'ena eta baita Longa'rena be. Tokiari begiratu edo iruditu barik egiñak dirala dirudie. Erritarren ospe eta gomuta bear dabe seme argiak, baiña erriaren izateak be merezi dau artearen aldetik begirapen edo batasun bat. Oroigarriak, monumentuak, erriko pitxi izan bear leukie.

Pelota toki egokia, eskola argiak, kapillatxu exotiku bat Ameriketako fedearen gogoragarri. Ba dakie angoak, noiz-beinka emendik agertu eta orrelako eskintzariak lagaten Bolibar'en odolkeoen esker onez.

Ba dauke bolibartarrak istori illun bat. Ez jakin zenbatean dan egi eta zenbatean guzur.

XVI gizaldian, 1.520 inguruan, Calahorra'ko obispo bat etorri zan Bizkai'ra emengo legeen ardura barik. Sasoi aretan Gontzalo Bolibar zan erri onetako eleizako patroia. Zer gertatu yakon ez dakigu. Kontu zorrotzen bat artu, edo destaiñen bat egin, edo zigorren bat agindu? Gontzalo orrek bere senide, lagun eta aldekoiei deituta, obispo orren atzetik urten eban itsu. Aramaio'ra eldu baiño len, Arrazola ingurutan beragaz topo egin ebanean, sekulako burruka egin ei eban. Illen bat be gelditu zan tartean. Batzuk diñonez obispo berbera zan ildakua. Besteak atzamarra zana besotzat zabaldu zala. Dana dala, gizon asarre eta arrua zala diñoe sasoi paperak Bolibar ori.

Gertaera ori jazo zan lekuan kurutze andi bat ipiñi eben eta «Ipistarri» izenagaz ezagutzen da. Calahorra'ko gotzaiñen goraberak ikasi dituenak ez dautse federik emoten istori orreri. Ordezkarien bat izan eikean illa eta ez gotzaiña bera.

Guk gure esaera bat gogoratuko dogu. Ala ba zan, sartu dadi-lla kalabazan.

Egi bat au da: Bolibar'eko plazan ez dautse oroitarririk (monumenturik jaso Gontzalo Bolibar oneri.

Ziortza'ko prailleak ospetsuak izan ziran. Prailleak? 1400 urtean Calahorra'ko gotzain batek eurentzako arauak barriztu zituzanean, laureun urte aurretik etozanak ziralako ordurartekoak, emengo prailleiei kanonigo deitura emon eta eroateko agindu eban. Albiz'ko Peru zan garai aretan emengo abade nagusia. Aurrez asarretank ziralako ordurartekoak, emengo prailleiei kanonigo deitura emon eta eroateko agindu eban. Albiz'ko Peru zan garaí

aretan emengo abade nagusia. Aurrez asarretan ibili ziran bertakoak. Ondasunak, amarrenak, azikiñak, jauntxoen adiskidetasunak eta olako goraberak bitarteko. Sasoi aretan abade nagusi bat eta sei kanonigok erabilten eben kolegiata au.

Larogei urte geroago, Peru Ubisate nagusi zala, Erroma'ra be jo eben, alkarregaz konpondu eziñez. Ez zirala alkartasunean bizi, edo menpetasunik ez eutsela nagusiari agertzen, onen ustez. Praillak lana ta nagusiak artzen ebala dana, bestea. Etxeko goraberak. Baretu zituezan, batari eta bestiei bakoitzarena zer zan erakutsiz.

Asarreak ez ziran beti barrukoak. Munitibar'eko erriagaz be euki zituen garraztasunak. Alkar artean egin eben konponketa baten erabagi ebenez, Isunsubasobarri, Umbe mendi guztia Garrikasolo arte eta emendik Markola'ko puntaraño, eta goitik beko errekaraiño Ziortzarenak ziran.

Sasoi baten Ziortza onen indarra zenbatakoan zan jakiteko, naiko da gogoratzea Murelaga, Axangiz, Berriatua, Luno, Amoro to, Lekeitio, batzuk izentatzeko, eta ingurutako erririk geienak, erri legez eta euretako etxejauntza legez, Ziortza'gaz lotuta egozala amarren edo bestelako laguntzekin. Araba'n bertan ainbat tokitan euken artu-emon. Jakiña da Naparroa'ko erregeen senide batek, XIII gizaldian, 24 umedun eskiñi eutsazala bere borondate oneko opari lez.

Labur, Luzea da Ziortza'ren istoria.

Eleiza, 968'egiña, lenengoa. Geroago anditua.

Bizkai'ko kolegiata bakarra. Jakintsu eta gizon andi askoren sorleku eta esnatzallea.

1386 urtetik ospital bat be euki eben bertan. Santiago'rako bidean etozan erromes askok bertan billatu eben nun atseden egin eta osatu.

Bear ba da Diego Irusta, bertako abade nusia izan zan bere aldezkorik alegintsuena. Jator, biargin, borondatetsu eta argi agertu zan bera. Bertakoa, semez. Ospital ori barriztuten alegindu zan. 1517 urtean dotore laga. Bederatzi urte geroago erre egin zan, San Estebantxe egunez. Bertan eukazan Irusta orrek bere ondasunak. Zearo ondatu. Orra San Estebantxe, beti len letxe.

Kikildu barik, indar barriz jaiki zan. Aita Santu eta Erregeagandik nun-nai eskale ibilteko baimena lortu be bai. Orrela Geixotegi ori, eleiza, klaustroa eta il obia egiteko aiña batu eta eurak barriztu edo egin ondoren, sasoi aretako gerrateetako estutasunak arintzeko be emon eban gañerakoa.

1 487'an jaio eta 1 563'en il zan.

Emen dauka, eleizan, danen aurrean, arlanduzko bere illobia.

Goazen emendik.

Ba diardue, ezetzik ezin esan, urteetan lanean. Bizkai'ko Al-
dundiak, urtean onenbesteko bategaz, zerbait barriztatzea lortu
dau.

Lengo kondaira, istori zarra berpiztu nai bertan. Lortuko ete?
Gaitz.

Etxea barriztatu da. Zeiñentzat? Eleiza denporaz txukundu lei,
bere ederrak agertu eraziz. Baiña etxea eta eleiza ez ete dira on-
datuko Ziortza'ri bizi bide barri bat billatu ezik?

Ziortza'tik jan edo bere izena eroan eta Bilbo'n biziteko prai-
lleak edo lagunak, begoz euren tokietan. Gaitz izango da, egia da,
bertarako bizi lagun egokiak billatzea.

Ori da gaur Ziortza'ren buruaustea, problema.

Lengo pagadi zarrak galdu ziran ingurutan. Garbiago daukaz
gaur egalak. Edonundik begiratuta be bere nortasuna erakusten
dago. Ara emen Bizkai'ko istoria, esaten da. Baiña, uts.



ZORNOTZA

Zornotza'ra nator. Amorebieta. Etxano'ra.

Amazortzi urte neukazala erdi gaixo, ementxe asi nitzan lanean, orduan jaio barri zan «Ekin»en. Ordutik ona, a zelako gorabera ta aldakuntzakl.

Pare bat illabete egin nebazan. Gaixo nebillen. Gero gerratea sortu zan eta osatu.

Zornotza'ra sartzean ezpaian nago. Nundik asi? Praillekeria besterik ez darabildala esan eustan adiskide batek. Espiritu zarrez nabillela. Leike. Baiña jo batera eta bestera. Itzal ori bako tokirik. ba ete dago Euskalerrri bedeinkatu onetan?.

Zornotza. Lau konbentu. Karmeldar prailleak, baten ordeze bi, eta monjak beste bat. Pasiotar prailleak beste bat Euba'n. Iges egin al izango ete dogu? Eta «abadearen lapikoa txikia baiña gozoa» bada, «Peru Abarka»n esaten dan lez?

Ni abadeak, gizon lez, ez nabe arduratzen. Ba dakit abadeak eta odolosteak egiten diran lakoak izaten dirala. Esakera zarrakin nago orretan. Norberak artu bear neurria. Txistulariekin lez. Bach'en fugak joten dituezan txistulariak ba dagoz, eta «Iñaxio» osta osta dakienak be bai. Korbata ta guzti joten dabenak eta...Ez daki-zu Lemona'ko esakera? «Martiniko, Billaro'ko txistulariak, istarrak zabaldu ta joten dau soiñua».

Beraz dantzan bagabiz, toki bakoitzean joten daben soiñuari jarraitu bear. Abadea txistulari edo inpernuko deabrua soiñu jotzaille.

Zornotza'k ez dauka ain zuzen be eskuzabal entzute eta fama euskal esakera zarretan. «Zornotza, ango jenteen zor otsa». Ez zorez betetako erria dala esan nairik, esku txikiak, lotuak dirala agertu nairik baiño.

Ala ete da?

Eta nun ez dabiz txakurrak ortozik? Nun dagoz esku zabal orreik?

Ajangiz'ko esakera egia balitz, ez neuke an aizea be ebagiteko lako atso argaltxu mirrin bat ezagutuko. Jakiña da angoa: «Ayan-giz'en atsoak guztiak gizen-gizen».

Sartu gaitezen Zornotza'n maitasunez. Gogoan daukat erri izenak sortu eutsan kantu bat be:

Arek igarri, arek igarri
nundik dagoan gaixorik,
amore miñak bat ditun onek
errai artean sarturik.

Amore-miñetan sartuko ete gara ba Amorebieta'n?

Amorebieta, amore = maitasunetik?

Kendu txapela ta guazen. Euskal kutsurik eukiko ete dogu iñoiz?

Orrela pentsatu ezker Amoroto. Amortegi, Amoriza eta abar, zer?

Eztakit zergaitik erdal itxuretatik begiratu bear dan euskal izenei.

Amorebieta, erderazko «carrascal» da, edo «vados de carrascal», aitatutako beste izenak edo deiturak be ezaugarri ori dabela.

Gure zarrak, izen oneik artutzean, erderarik ez ekiela pentsatu eta siñistu dagigun. Premiñazko da ori izen askori dauken esan naitik beste izkuntzetan zer esan leiken jakiteko.

Asko aldatu dira gure pentsakerak. Baiña oraindik urte asko ez dirala nire errian bete egiten zan eleiza sermoiak entzuteko.

Ondarru'n sermolari berbalduna nai izaten eben, berba errezduna, ez astiro ta patxadaz pentsatu eragingo ebanik.

Bata bestearen atzetik latiñezko textoak botaten ba zitun, obe. «Iño, orrek dauka jakiturixe» esaten eben, nai eta tutik ulertu ez eta bear bada sermolaria, danon lepotik, barrezka ibilli.

Bestera, arnas estuan eutsi eziñik, biribildutako erreskada luzeak botaten bazitun, «Iño orrek dauka etorrixee!» Eta danak pozik, ao zabalik.

Orretarikoa zan karmeldar praille bat. Jatorriz, au da, «munduko» izenez, Pedro Ormaetxea. «Zeruko» izenez, Aita Lontzi. Euskal Castelar esaten ei eutsen bere ordenakoak. Etorri luze, erraz, biribil, bete-betekoa. Beretzat itzak, berbak, ez euken gogor-keririk ez biurrikeririk. Nai ebazan lez landu eta dotoretzen ekian. Txile'n il zan 1 949 urtean. Etxano'n jaió 1 891 'n. Euskeraz idazten

jatorra zan itz lauz, prosan, eta itz neurtu edo bertsoetan be. Txile'n bizi zala -zenbat prailleri emon eutsen billetea konbentu be-deinkatuetan?- liburu bi agertu zitun, «Lontzi Abaren ipuintxoak» izenarekin.

Orra Zornotzako seme jator bat. Bidezko da gizon argiak goratzea. Praillea zala? Eta zer? Tximiñoia bada be goratu bear me-rezi dabena.

Aldatu daigun. Goazen mendira, Etxano aldera. A zelako urdin eder eta mardulak billatu leikezan bertan sasoi egokietan! Ezetz? Musika ta guzti:

Perrotxikotan nebillanean
Mendiolako basoan
dama gazte bat aurkitu neban
areiztxo bate ondoan.
Zoratu nitzan, erotu nitzan,
yarri nitzakon alboan,
amantaltxoa zabaldu eta
artu neban altzoan.

Ez dot uste kantu au Larrea'ko nobizio mistikuen «kantika-espirituala» izango zanik.

Orain eundak urte, Amorebieta euskaldunen ao askotan ibillizan. Serrano generalak eta Karlisten Batzar Foru-zaleak, bakezko konponketa bat egin eben.

Oñate'n ez yakoezan gauzak ondo urten karlatarrei; Orokieta'n be ez; Mañari aldeko barriak ez ziran ain zuzen be biztugarri eta itxaropenez bizi eragitekoak. Origaitik, etenda eta minduta, eta salduta be bai, bake ori izenpetzera beartu edo makurtu ziran. 1872 urteko Mayatza'ren 22'an izenpetuta gelditu zan ainbeste zarata et ainbeste asarre atara eban konpoketa ori.

Bake itunben ori zabaldu zanean, batzuk ez eben ontzat artu; Velasco batek-lez, jaramonik egin barik, armetan jarraitu ebenak egon ziran.

Amorebieta izena ao askotan ibilli zan garai aretan. Gaur esango litzaken lez, notitzia izan zan luzaro.

Erri andi izateko toki egoki eta gertuan dago Amorebieta. Izan be gora datorren erria da.

Bilbo'tik laster, Arratiara'ko ateak zabal, Durango aldera begira ostopo barik, Gernika'rako bide zabalagoa eskatzen, Kantauri'ko autopistaren sarreran... eta tren bi, geiago eskatu ete lei erri bateri?

Burdiñakiei begira doa bertako industria, ala igarten da geintsuena. Onetan lengoen urratsa igarten da, jatorrizko jarraipena. Gogoratu Jauregi batek zabaldua burdintegi andi bat egon zala

lengo gizalditik Astepe'n. Bost burdiñola edo ferreri be ezagutu ziran lurralde onetan.

Gaitz da gaur aukera asko daukazan erri bat noraiño eldu leiken igartea. Bizi gogofaltarik ez dago bertan; eta askotan errentarik onena. Gure zarrak ekiena: Gogoa dan tokian aldaparik ez.

Etxe barriz beteten dator Amorebieta. Gaurko erakoz.

Lengo torre zarrak istoriako gelditu ziran. Gaur Berna'ko to-reagaz iñor ez da gogoratzen, ez eta Ibarra'koagaz be. Askok igarri be ez dabe egiten torreak izan ziranik be. Baserri andi itxura geiago dauke-ta.

Belaostegi'koa zabalduta dabiltzen bere abizenekoak gogoratu dabe. Besteak gaitz. Alaxe geiago be. Orra Larrea, lengo itxura osorik aldatzen. Oraintsu arterako inguruetakoa bakartadeak, gaur eskola barrietako umien zarata eta ibillerak eteten dabe. Gernika'rako bidearen urteera barria ortik egiten bada, geiago apurtuko dau bakartade a.

Azken urteotan ba dago Larrea'n euskal kulturaren kontzientzi bat. Lan asko egin leike, eta egin bear da, bakartadetako ordu baketsu eta gela egokietan.

Barriro betikora gatoz. Zegaitik ez?

Zein errik ez leuke gogoratuko Amorebieta'k lako eliza bat? Etxano'koa XII gizalditik ezagutu zan. Amorebieta'ko lenagoko zarra, bear bada aurreratik, baiña gaurko parrokia 1 556 urtean egiten asi zala jakiña da.

Bizkai'ko lukainkarik onenatarikuenak Autzagana'n egiten dirala esatea nai? Orrelaxe iñorian oraintsu batek. Aidean artu neban ori ta idatzi. Artu eta idatzia daukadan lez Etxano'ko Andra Maria... gaur gurtuten dana baiño irudi andiako bat egon zala. Eta kendu egin ebela ain zuzen be andiegi zalako, orduko mendi bideetan erabilteko astuna zalako. Orain gurtuten dana 1614 urtean egiña da. Eta paperetan esaten da egiten baiño dotoretzea, pintatzea, geiago kostatu zala.


Itxasondoko lez ikutu eragin daustan zerbait. Itxastar errukarriak! Beti premiñentan: Elatxobe'ko Arrantzalienen Kofradiak 6.492 errialen zorra euki eban Amorebieta'ko parrokiagaz. Ala diñoe 1 788'ko agiriak.

Urak ura dakar. Bilbo'ko ibaia, Amorebieta'tik zear, Ibaizabal izenagaz ezagutzen da. Geroago erdaldundu.

Asieran Zornotza'ra netorrela esan dot. Egoki ete dagokio Amorebieta'ri Zornotza deitorea? Erri berbetan askok emoten dautsagu deitura ori. Garai batean egoki izan eikean. Gaur be ez da guzurrik esaten. Izatez Zornotza ez zan Amorebieta bakarrik, ez eta gaur alkartuta dagozan Amorebieta eta Etxano bakarrik be. Zornotza'ko merindadean sartzen ziran baita Ibarruri eta Goroziaka be. Geiago, Larrabetzu erria be lurralde onetan sartzen zan.

Gaur Amorebieta eta Etxano'ko gauzei ikutu egin dautsagu. Orrela, Zornotza'n ibilli gara.





AIA

- Ondu baietz!
- Zortzi amari, ezetz!
- Ogetamar ezetz!
- Atzoko onena baiño iru geiago baietz, eun parrean!
- Larogei euni, ezetz!

Idi dema eguna. Proba eguna. Obeto esateko, egunak. Gaur egun bakarreko jokoak baiño geiago erabilten dabe bi-iru egunekoak, jai bat baiño geiago barruan artzen dabenak.

Kalean, tabernetan, inguruetan, bidetan, igarri-igarria ikusten da Aya'ko errian probak dagozala. Oi ez dan joan etorri eta eroan-ekarria igarten da.

Giro beroa errian. Jokolarien geldi eziña: Norberagaz kontu esaten eta belarria zorrotz besteen esanei adi. Zigarro txokorrari ten, aotik kei eta begiak nerbioen kiñuz. Akuluak eskuan eta tartetan, txistuz bustitako atzaparrekin estena igortzi, puntako ultza busti. Berezko jokera. Kirten luzedun sartainduna ikusten da irri-tsuen. Zeregin asko bete bear izaten ditu gizonak. Etxean egingo ez leukezan asko. Bizitzako jokia.

Ez nabe erakarten probak. Asko dira galerazi bear litzakezala diñoenak. Ez dakit. Nire auzoan, Berriatu'n, sasoi baten, «Perran»en denporetan, iru abade egozan bertako parrokan eta orduko bikarioaren esanetan, iruren mezak baiño proba geiago egoten ziran errian. Auzoan eskola ona eukia naz, ikusten danez.

Goazen, ba, beste zerbait ikusten

Burdingille, artzai eta ikatz-giñen erria, sasoi baten. Amazortzi errota kontaten ziran emengo lurretan. Bai lau burdiñola be. Gero zeregin orreik galdu ala, baserriko beste lanei lotuago. Gaur 223 baserritar sendi, famili, ba dagoz emen, 204 baserri etxeetan. Erri-ko irutik bi. Ezin ukatu gaur euretako askok kaleko langintza eta baserriko bizitza naastuten dituenik. Tartetan, gaurko gaixua: Ustu diran baserriak, berrogetak. Gaurko baserri bizitzaren asarre ixilla.

Aya, bere mendi, baso, sokondo eta errekarre, andia da. Luze eta zabal, 80 km².

Orio'ko erriaren aurrean, Oria errekarren egaletan asten da. Aya. Orio dauka izentzat trenaren geltokiak. Orio'rako geltokia. gaur oraingo erako jatetxe-erretokiak, lengo baserrietan egoki gertuak. Be alde onetatik erri burura ba dagoz sei kilometrotik gora.

Erri jatorra da Aya. Alaia ta ugaria. Borondatetsu ta esku zabal be bai. Aspaldi esaten ekian emengo Izuela Artzaia bertsolariak, edo berari esaten eutsen lez Pastor Izuela'k:

Aia'ko erri noblea
pasatu orduko
guziak eman ezker
pranko du bilduko;
gaztain edo arraultzak,
txanpon eta kuarto,
aurtengo bastimentua
ba dauka zierto.

Berreun urte laster dira bertsolari au jaio zala. Bere kontu irritsu asko esan eta irakurten dira.

Garizuma denporan, orduan eta gure ume denporetan oi zan lez sakristira txarteletara joan eta abadeari erantzuna, argia da.

Abadeak berari: la, utzi bertsokak eta artu birtuteak. Ba al dakizu zein diran teologalak?

Berak erantzun:

Bizi ba gera ere nekez,
erantzuna ba dator berez;
Lenengoa fedea,
bigarren esperantza,
irugarrengoa onek ba du
milla bat mudantza:
il da karidatea,
bizi da mengantza.

Bertsolari bat aitatu dogun ezker, Aya'ko beste fin bat gogoratzea bidezko da. Uztaeta-buru baserrian jaio zan 1829 urtean. «Udarregi». Juan J. Alkain. Irakurri bein bere emaztea aurrean zala adiskide bateri bere bizimodua zala ta emondako erantzuna:

Bi alaba daduzkat

oraindik gaztiak,
amazazpi urte batek,
amabost bestiak;
seme bat nai zuben
nere emaztiak,
amaika lan alperrik
egin du tristiak.

Beste bein, Donosti'ra joan ei zan eta ango Udaletxetik pape-
ren bat atarateko asmotan. Ango langilleak ziria sartu nairik ber-
tso bat eskatu. Bai belarriak laster berotu be berak.

Kontsejura etorri naiz
paper baten billa,
pentsatzen jarrita eře
au dek alper pilla.
Pluma eta tintero
bastoi ta makilla,
pobreak altxatzeko
a ze kuadrilla!

Jakingarri bat. «Udaregi»k ez ekian irakurten, eta bertso pa-
perak atarateko, Usurbil'era joaten ei zan ango organista Jose
Txiki'ri kopiaatzeko mesedea eskatzen.

Aya'ko gizon biargin bat: Juan Gilasasti. Ainguragillea izan
zan, arlanka egillea. Orain 200 urte ba ziran Gipuzkoa'n ogeiran
bat olakoen egilleak, Ernani'n geienak.

Gilisasti onek ikusi eban sasoi aretan aingura andiak Olanda'-
tik ekarten zirala. Ara joan zan lanera, ixillean ikastera. Igeska ur-
ten bear izan eban andik, baiña berea lortuta. Santixo auzoko
Arrazubi baserrietako baten gelditu zan. Eta inguru aretan egoan
ola baten lanean asi. 72 kintalekoak egiteko eran gertu eban lan-
tegia. Origaitik, Larramendi'ren esanetan, munduan egiten ziran
aingurarik gogor eta eratsuenak emen egiten zirala. Len erbestetik
ekarten zana, berari esker emendik erbestera bialtzen asi ziran.
Gilisasti onek Okendo almirantearen begirapean egiten ebari bere
lana eta sarri agertzen ei ziran eztabaidan, baiña Okendo'k sekula
ez ei eban ukatu eta beratu be Gilisasti'ren al eta abillidaderik.

2.550 bizi-lagun.

Eun langille egunero, Zarautz, Orio eta Usurbil'era.

30 hektarea industriaren aukeran.

Ura bai, baiña batu eta zabaltzeko ostopoak.

Erri luzea. Auzo ugari: Alzola, Andatza, Elkano, Irureta, Laur-
gain, Olaskoegi, Urdaneta eta Ibaiondoa.

340 famili biribillean. Euneko amar erdaldunak. 200 gizonez-

ko, emakumeak baiño geiago.

40 telefono.

Pelota toki aterpeduna.

Dagonilla'ren 7'tik 10'era jaiak. Beste en.zutetsu bat: Asentsio egunez egiten dana.

Erri buruan, plaza txukuna. Izenak diñoan lez, «errekreorako». Egal baten udaletxea. Danen gaiñetik, parrokia: San Esteban. Andia. Gotiko erako ate eder bat torre azpian. Esakera da Olaskoegi'n, Goikoetxea baserria dagon lurretan asi zirala eleiz au jasoten. Egin ala, gabero arriak aldatu. Ayaldeburuko atsoa gauero zelatari, zeñek aldatzen ete aban jakin nairik. Ori igarri ta idiakin ebillenak esan ei eban: «Aida zuri, aida gorri, ate zuloan dagon orri, atara bere begi». Esanaz batera akulo estena ate zulotik sartu ta begia atara ei eutsan atsoari.

Ba litz ete ba zan...

Ez da parroki bakarra. Alzola, Laurgain eta Urdaneta'n be ba dagoz. Laurgain'goak torre ederra. Emen dago antxiñako jauregi zar bat be, bide egalean.

Orra, aidean, Aya, aizetan.

Erri buru egiten danean, kale bat Ama Aizpekoaren kalea deritza. Ermita polita kalean bertan.

Ikusgarri da, bide zarrean, «Etzetxo», kalbarioetako arrizku kurutze ederrez.

Aya'k ba daukaz gizon entzutetsu batzuk bere semien artean: Joan Aranburu, Soraluze'ko Arma.olako kontularia izana, Martin Arana, sasoi baten erriko gerra mutillen burua; Rufino Aldabalde-treku, gure denporetan fede eta kezka andiko abadea... Eta erri jokoetan, ainbat jokolari eta kirol-zale: korrikolari, indartsu, segalari, erramulari eta abar.

Barrero plaza ingurura etortean, gero ta deadar estu eta kez-katiagoak entzuten dira. Akularien deadarrak, karreteroenak, arriaren txirri ots eta txinpartak itzalduten ditue. Jokolariak gero ta estuago.

Bakar bakarrik eleizaren ormak, orma lodi eta zabalak, betiko itzala emoten dagoz, estutu barik, Aya'ko bizi bidearen begirale zintzo, Pagoeta mendiari begira.



AIZARNABAL

Ibiltari izan ziran gure aurretikoak.

Iñor ez da ibilten, zerbait jakin, nai edo bear barik. Sinistreak edo diruak, ametsak edo naigabeak, bizi-naia edo premiña. Edo beste zerbait.

Bein, «Etxabe» jauregian andre bat erdibitu zan eta mutil bat jαιο. Errege deitura ipiñi eutsen izentzat: Baltasar. Urteak dira ori zala. Gure denporetako milla eta seireunak baiño lenago.

Aurrean, Zumai aldean, itxasoa, euskaldunen itxasoa, tentalari.

Urrunean, erregeen izarra: Ameriketako lurra, Indiak.

Eta umea, bizarrak urtetean, Indietara joan zan: Mexiko'ra. Bai an Urrungaitzak, urruti-miñak jo be. Euskaldun askoren bigun-keria izan da urruti-miña, urrungaitz ori.

Salbatore Mitxelena'ren poema bat irakurten nago:

Ai urruti miña,
gaitz senda eziña,
baiña ala ere
ondo atsegiña...
Min izkutu onetxek
beti eragiña
euskal kondaira doa
aitzina ta aitzina...
Egonak pozik ez da
Boga alegiña!

Eta Etxabe'k, Mexiko'n, gure izkuntzaren antxiñatasunez agertu eban liburu bat. Miñez, atsekabez, urrungaitzez. España'n

lenengo berba egin zan izkuntza zala ta, askok alboratu edo aztu ebelako.

Mexiko'n ango pintura klasiku baten sortzalle lez be ba dauke. Etxabe zarra deitzen eutsen. Lege gizon argia be izan zan, bere denporetan entzun eragiten zana.

Zumaiarra? Aizarñazabalkoa?

«Etxabe» jauregian sortu zan. Eta nun dago «Etxabe»? Aizarnabal'en

Aizarnabal eta Zumaia sarri ibili ziran erri legean konpondu eziñik. Batzutan alkarregaz, bestetan bakoitzaren jaubetasun osoaren billa.

Fausto Arozena, gipuzkotar kondairako «sagua», diplomatiku billatzen dot gai onetan. Berak esan eustan bein gaitz zala sasoi bateko jatorri zeatzak agertzea, nai eta liburu askotan batera edo bestera agertu.

Berak, Gipuzkotar gizon jatorren biografian, Baltasar Etxabe oneri buruz, au diño: Oikina auzoan jaio zala, sasoi aretan Aizarnabal, eta au Zumaia. Erdiko bidetik.

Etxabe zarrak beste Etxabe «gazte» bateri odola emon eutsen. Mexiko'n eleiza askotako pintorea. Ango San Carlos akademian agertzen dira bere kuadro ugari.

Emen, Urola'ren ibarretan, egaletan, ezagutu izan zan sasoi aretan Etxabe «zarraren» beste anai bat. Itxasontziak egiten entzute andikoa.

Aizarnabal'ko sakristau batek be bere entzute eta famatxoa euki eban oraintsuago, batez be bertsolarien artean, obeto esanda, bertsolaritzako gaietan.

Bein Billabona'ko plazan Erroizena ernaniarrak (Txabalategi deituraz ezagutuagoak) eta Zabala Amezkatakoak desafio bat euren bertsoetan. Ontzako urreak bitarteko, ordu biko ekiñaldi ondoren garaille, irabazle agertzen zanarentzat.

Lau milla lagunetatik gora batu ei ziran egun aretan Billabona'nan. Eta juradutzat Fernando Bengoetxea, au da, «Pernapdo Amezketarra», on Jose Mendizabal, Tolosa'ko abadea, eta Aizarnabal'ko sakristaua aukeratu zituen.

Urduria, gizon keixua ete zan sakristau au? Ordu bi bertsoetan ekin eutsenaz batera, entzuleak txaloka eta goraka ari zirala, juradua bera batu baiño len berak urten ei éban bertsoetan kantari, erremataz au esaten: Bata ainbat egin bear dogu bestea.

Ori ikusita Fernando Amezketarrak be bertsoetan ekin ei eutsan, esanez, biak laga bear zirala bardin, Gipuzko guztiak artu egian ategin. Eta jakíña, abadeak bere oniritzia, bere bedeinkasiñoia bieri.

1 801 urtean zan ori.

Ez dakit sakristaua izango zan edo ez. Baiña orrela aukeratze-

ko ba eukan zerbaiten fama eta nortasuna.

Etxe jaubeak ala maizterrak, erreteruak ete dira geiago Giz-puzkoa'ko baserrietan?

Ba dira erri bi erreteruak geiago diranak: Zestua'n, 201 baserri etxetatik 79 bakarrik dira etxe jaube. Arana'n 16'tik, zazpi jaube eta bederatzi erreteruak. 1 975 urteko kontuak dira.

Geienetan etxe jaube diranak geiago dira. Euneko 77.

Aizarnazbal'en 41 baserri etxe dagoz gaur.Iru utsik: Azpiazu, Larrasko eta Txontxor. Orra 38 gelditu. Oneitatik 18 erreteru eta beste ogeirak etxe jaube.

Baiña iru baserri etxe bikotxak dira: Atristain, Etxezarreta eta Errezusta goikoa. Lenengo bietan erreteruak, bestean ugazabak.

Orrela, gaurko baserrietan.41 famili bizi dira. Eta euretatik 21 jaubeak.

Zein obeto bizi dan... ez jakin. Baiña etxea be gizontasuna osorik zaindu al izateko premiñazko izaten da.

Orain eun urte Aizarnabal'ek 79 etxe-jaun edo buru eukazan. Danetara be, orduan, 474 bizilagun.

Orduko agiri eta ezaugarriak parrokitetatik egiten ziran lez, onelako jakingarri batzuk agertzen dira:

Parrokitik ordu laurdenera 14 etxe egozan; ordu erdira zeiz; iru ordu laurdenetara 12; ordu betera 13 eta geiagora 6.

Ortik ikusi eta igarri, falta diranak plazan lagata, Aizarnabal zer zan sasoi aretan eta zer dan gaur be.

Nun dagon esan daigun: Urola ibai ondo errethren egalean, itxasotik 45 metro gorago, Zumaia iparraldetik, Aya Sorkaldetik eta beste inguruetan Zestua daukala.

Azpeiti aldetik Donosti'ra doan bidearen egalean: Emendik Azpeiti'ra, 1 1 km; Donosti'ra 37;Zumaia'ra 4.

Erri euskalduna da bete betean. Errialde onetan oraindik zintzo gordetan da euskera. 551 lagunetik 545 euskaldun agertzen ziran oraintsu.

Parrokia: San Migel.

Eleizak ez dauka ze ikusiri andirik. Eleizetako oiturei lotua jarraitzen dabela esan dauste. Ez da ikusten emen, beste askotan lez, argi-zari olik; soil-soillik ipinten dabe argizaria zati biribilletan, rolloetan, famili bakoitzaren «sepulturetan». Zenbatuta dagozan lez, 68 ba dagoz beintzat. Ortik igarten da sasoi bateko etxe bakoitzeko bat emon eutsela.

Eleizako pitxi lez dauke XVI gizaldiko kistoria eder bat, templete antzera egiña.

Iru ermita: San Cristobal, San Lorentzo eta Ibiñarrieta'ko

Santa-Kutz. Azken biak, bere lurretan egozalako, Joakin Uriarte Zumaia'koak zaindu zitun luzaro. Origaitik inguru orreitan egozan baserrian amarrenak berak artzen zitun. Ikusgarria da Ibiñarrieta'ko Kristo'ren irudia. San Cristobel, bere aldetik, parrokiak zainduta egoten zan. Eta parrokia bera etxe jaubean ardurapeko zan.

Inguru guztietan ezaguna da San Cristobal'en ermita. Noizkoa dan? Ez jakin. Lenengo parrokia au izan ei zan. Aldareko irudiari tankera artzekotan, zarra dala esan eta kittu. Ori da onena. Zaarrei, batetik edo bestetik, balio billatu eta emoten yakoe.

Ermita onetako kanpaiak bildurra sartzen ekian. Ekaitz eguntan kanpai ori joten zan. «Trumoi kanpaia» deitzen eutsen. Elkanorako bidean dago ermitatxo au.

Parrokian euskeraz egiten dira eleizkizun guztiak.

1845 urte ezkerotik bere nortasun osoz bizi da Aizarnabal. Ordurarte luzaro ibilli ziran emengoak Zumaia'gaz autu eta asarretan' erri lege apartekoa lortu eziñik. Iñoiz Zumaia laga eta Zes-tua'gaz batzeko alegiñak egiten be bai, Oikina eta bera alkartu eta erri bat osotzea be pentsatu eben. Baiña aukerarik ez orretarako. Eta iñogaz batzekotan, oikinatarrak naiago Zumaia'ren aitatasuna.

1944 urtean erre egin zan Erriko etxea eta su orretan galdu bere Artxiboa. 1954'n kontseju etxea eta eskola bi bedeinkatu ziran.

Parrokian 1637'n zabaldua dagoz jaiotzetako eleiz liburuak. Lenengoa Frantziska batena da, baiña ezin lei irakurri abizenik. Bigarrena Dorotea Ugana'rena da, 4-X-1 637'n jaioa.

Ezkontzetan, lenengoz agertzen dana Joanes Urbietta, zarauz-tarra eta Maria Zinkunegi'rena da. 1 633-XI-6'n.


Eta lenengo eriotza, Mikaela Amilibia, 2-VII-1625'n. Bere etxeko sepulturan sartu ebela, irakurten da.

Aurten esperantza oneko urtea dauke Aizarnabal'en. Igaz, 7 jaio ziran, 9 il eta 5 ezkondu. Aurten, Urrila'ren 26'rako, 1 1 jaiotza egon dira. (1 973 urteari gagozkio).

Eleiz eta anai arteko oituretan, Ama Birgiña'ren Kofradi zar bat dago. Ez jakin noiztik. Bat ilten danean illeta etxekoen kontura egiten da, baiña urrengo domekan Kofradi onetako meza eskeintzen da. Iru gomuta edo oroitza kate daukaz eriotzak erritarentzat. Esandako biak eta urtero egiten dana. Eta erria, anaitasun betean batzen da euretan.

Orra Aizarnabal, azal-azaletik, bere bizitza eta bere semien eriotzetan.

Erri txiki, baiña gaur erri txikiak andien problemak daukez. Gero ta geiago.



ABALZISKETA

Sasoi baten, Gipuzkoako erri batzuk alkartasun bat osotuten eban, Ernio eta Aralar mendietako belardiak, otatzak, larre eta arbolen onurak eta mesedeak alkarren artean alik eta egoki eta zuzenen eta onuratsuen banandu al izateko, batez be ardi eta abelgorri edo ganaduen premiñak euretan baliatzeko.

Oneitako bat zan Bozue alkartasuna.

Alkartasun au talde bitan banandu zan. Alde batetik Bozue txikia deitzen eutsena, beste izen batez ezagutua be bai, Billafrankako partzonia. Bozue txiki onetan Alzaga Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Isasondo, Lazkao, Legorreta, Zaldibi eta Ordiziako Billafranka sartzen ziran.

Ez danak bete-beteko bardintasunez, euren izate, bizitza eta premiñen eran bananduta baiño. Orrela Lazkao'k zazpigarren alderdia, partean, eukan. Alzaga eta Aramak, eta geratzen zana, bardiñean, beste erriak.

Beste aldetik, Bozue nausia ezagutzen zan: Amezketa, Oreindan, Ikastegieta, Beliarraín eta Albazisketak osotuta. Euron arteik, Amezketak irugarren zatia eukan eta beste ainbat Albazisketak. Bestea bestien artean banatuten zan.

Alkartasun au 1617 urtean egin zan. Orduntxe izenpetu edo firmatu zan izentauriko errien artean, ain zuzen be Jorraillaren batean.

Alkartasun au urte orretan izenpatu ba zan be, aurretik etorrana zala esaten da. Orrela, 1027 urtean Naparroako errege bategen Iruña'ko obispadutza mugatu ebanean, inguru oneitan Ozkue ibarra izentatzen da eta uste da alkartasun onen lurraldea zala ori.

Gaur Albazisketa ikusten nago eta ain zuzen be erri onetan dago Bozue andiko errikideen batzarrak egiten ziran baserria: Sasian Barrena, edo emen deitzen dautsen lez, Sasin-Barrena.

Origaitik inguru oneitan baserri oneri Batzar etxea be deitzen dautse.

Abalzisketa nun dagon?

Toki askotatik ikusten da Gipuzkoan Larrunari, Txindoki mendia, Aralar mendien, Aralar mendien gibelean. 1410 metro daukaz luze mendi onek. Eta bere gerrian, ia milla metro berago, 370 metro-tan dago Abalzisketa erria. Artu mapa bat: Begiratu: Donosti'k 40 kilometrorra jo. Oreindain, Amezketeta, Gaintza eta Zaldibi billatu, eta erdian, an dago Abalzisketa.

Bosteun bizilagun bakarrik daukaz erri onek. Gizonak geiago, andrazkoak baiño.

Erri guztiak baserri lanetan jarduten dau. Baso eta soloetako biarrak, zeregiñak, eta artzaingoa dira bere bizi-bide. Il onetan, ain zuzen be, ainbat jai egiten dira bertan. San Juan eta San Pedroz, otxik ez dago emen eguerdi ezkeroz, esaten ebanak, ba ekian zerbait.

Aurrez Pentekostes egunetan be jai ederra egiten da.

San Pedro'ren jaija ermíta baten inguruan egiten da, Erremedioetako Amaren ermitan, Larraitz auzoaldean. Aralar mendira joaten diran mendizalerik geienak ba dakie nun dagon Larraitz au, ain zuzen be emendik asten dabelako arako bidea, edo ta Larrunari, Auza Gaztelu edo Gambo mendiatarra joateko.

Beste baten Bidegoian'go jarduna egitean esan ba neban be, gogoratuteko da ermita onetan dogun Andra Mariaren irudia, irudi jatorra, ez dala ain zuzen be bertarako egiña eta len bertan ikusten zana. Emengoa erriko parrokira eroan eben eta ona, Goiaz'ko eleizan bastertuta billatu eben imagiña bat, an billatu, garbitu eta dotoretu ondoren, ona ekarri.

Euskalerriko erri askotan irakaskintza zelan ibili zan kontuan eukita, ez da arrigarri erri onetan, iñoiz, eskolarik ez ekian alkatea, alkate letra gabea, edo analfabeto egotea.

Arrigarri da: Eskribadurik onenak gure errialdekoak izanda, euskaldunak izaten zirala esaten zan denporetan, (orduak Bizkai-koak esaten edo deitzen ziran, baiña ba dakigu inguru guzti oneri Bizkaia deitzen eutsela), arrigarri da erririk geienetan tartetan billatzea, ez asko, ortan sartu eikezanak, au da, letragabeen artean etsi leikezanak billatzea. Batzar askotan billatzen dira batzarkidien artean ez ekienak; sentzunez jokatu ezkerro, gizontasunez jardun ezkerro, asko eskatutea izango zan kontixu beste premiña ori be.

Gipuzkoan, bertako Batzar nagusiak gogor egiten eben onetan, eta alegiñak be bai euretara eiozanak ikasiak izan eitezan, edo beintzat irakurten eta firmaten jakin egiela. Eta errietako alkate

izentatzen ziranak beste ainbeste jakin egiela.

Ala ta be...

Gipuzkoako Artxioboetan irakurri leikenez, 1690 urtean, erri onetako alkatetzat artu eben gizonak, Martin Zubeldia jauna, letragabea zan, au da, ez ekian irakurten eta idazten. Origaitik lotsapean ipini nai izan eben. Probintziko legeen aurka ebillala esaten eutsen.

Ori ziurtatzeko, juraduak ipini ziran, beregana joan eta berari examiña egiteko.

Baiña, beste aldetik, asko ekian gizona zanez, mundu askoko gizona zan lez, juradukoak bere etxera eiozala konturatu orduko, kanpora joaten zan, eta bere senitartekoak be ez eben jakiten nora joan ete zan, ez noiz etxera biurtuko zan. Orrela bere zain egon ondoren, euren zeregiña bete barik biurtzen ziran jakintsu areik euren lekutara. Eta lortu ba eben be, nekez lortu eben berari alkate makilla kentzea.

Ez uste au Abalzisketan bakarrik gertau zanik. Urte batzuk lengo, Zarautzeko alkate ziran Juan Leunda eta Pedro Amilibia be, egoera bardiñean gertatu ziran.

Argizariak beti euki izan dau Euskalerrian alako errespetuzko zeregin on eta mesedegarri bat.

Iñoiz esana daukat, eta gogoratzeko da, erri askotako oitura: Etxe baten nagusi bat ilten zanean, etxeko bat erleekana joan eta esaten eutsela: Erletxuak, erletxuak, egizue argizaria, nagusia il da ta-eleizan bear da argia.


Argizari ori, tokirik geienetan, famili bakoitzari dagokion sepulturan ipinten zan eleiza askotan eta oraindik be ipinten da, ol baten batuta. Orra argizaiola.

Gaur, eleizetan barkoak edo jarrileku barriak ipintean, toki askotatik kendu egiten dabe, baiña emen ogetak argizaiol batzen dira, bata beste baiño politagoak.

Ba dago erri onetan beste oitura bat be. Meza ostean abadea etxeko sepulturara joaten da eta an illakaitik otoiitz egin. Eta erresponsoak amaitu ondoren, etxekoandreak abadearen bonetean lagaten dau bere limosnea.

Orain 110 urte Abalzisketan jaio zan Ziriako Zubeldia Barriola. Baserrian tokirik ez, eta mundura, kalera urten eban. Somorrostro'n be ibili zan, baiña an girorik ez. Origaitik kandelak egiten ikasi eban Donosti'n eta gero bere zeregiñik gogotsuena argizari oletarako argizari biguna egitea izaten ei zan. Ez uste argizariak bere eskuturik ez daukanik. Lodieran, kolorean eta abar. Zart egin barik gozo batuko dan argizaria egiten jakin bear ei da. Eta ain zuzen be, emen Zubeldia ori orretan maixutat euki eben.

Erri txikietatik zear, guk gure umetan ezagutu izan genduzan oitura asko gogoratzen dira. Eta beti be, askok, alako makurpen berezi bat eukiten dogu lengo gauza eta kontu zarren alde.



ALKITZA

1969 urtean «Gaur»eko teknikoak Gipuzkoa'n lenengo irakaskintzari buruz egin eben ikasketa baten, erri banakak agertzen zituen ume guztiak euskeraz ekianen artean, nai eta erderaz be, gitxi edo asko, jakin.

Erri onein artean Alkiza agertzen zan. Besteak Abalzizketa, Albistur, Belauntza, Bidegoian, Gaintza, Lizartza, Orexa, Errexil eta Elduaien.

60 ume eskoletan. Danak euskaldunak. Orrelako gitxi ezagutzen dira gaur. Gorago aitaturako errietan ba dira, euskeraz jakinarren, gitxi dakieank.

Orrela agertzeko nai ta ez beste errietatik aldentutako erri bat izan bear, edo industrirako gai ez dan errien bat, kutsutu gabeko erri jatorra.

Ikus daigun Alkiza. Tolosa'ko errialdean, Asteasu, Larraul, Anoeta, Errialde eta Albiztur'en artean, Tolosa bera be muga dala.

Anoeta'n artu bear da Alkiza'rako bidea. Ardu bidea be deitzen dautse. Geroago Billabona'tik Orio'ra doan bidean amaitzen da berau. Origaitik, Billabona'tik nai ba da, bide orretan zati bat egin eta bertara datorrena artu bear.

Etxe banakak, zortzi?, plazan. Beste 50 inguruko auzoetan. Batzuk utsik. Danetako gaixoa. 350 bizilagun danetara. Gero ta gitxiago. Auzoak: Aldapa, 1 9 etxe, euretatik zortzi utsik. Arana, 22 etxe, 5 ustuta. Azaldegi, 1 6 etxetik 3 utsak.

Plazan len esandakoak. Bat utsik. «Mari Anton». Esateko lez: or konpon Mari Anton.

Urrutizkin bakarra.

Etxe ederrak. Zuri ta garbiak. Danen gain, bide egalean, oi dan lez, eleiza andia. San Martin'en izenekoa. Gotiko erako. XVI'en anditua. Erri onetarako, andiegi. Norbaitek esan izan dau umeak zarataka abestu bear izaten dabela, entzuten ez yakoelakoan.

Ambrosio Bengoetxea bertako semeak egiñiko sagrario eder bat gordeten da bertan. 1 552 urtean jaio zan irudigille ori. Ainbat eleizetan lan egiña. Donosti'ko san Bixente'n, Tolosa'n, Errenderi'n, Ernani'n eta abar. Bere lanik onena Kaskante'ko elizako alda-rea dala esaten da. Aldarea, Irazusta'k egiña. Lengo txikiagoa, Antxietarena zan, baiña sakristian gorde eben.

Kanpoan plaza txiki bat, Anoetara begira. Baserri errietan egon bear litzaken lez, berdea.

Pelota toki txukuna. Barria. Aterpean. Azpaldikoa da emen pelotarako zaletasuna. 1 862 urteko agiri baten esaten zan eleizarako premiñak agertzean, pelota tokia eleizpearen inguruan egoalako, urtero apurtzen zirala bertako tellak, zaletasun andia egolako joko onetarako.

Ollo erria. Ala deitzen dautse inguruetan emengoei: olloak. Ataundarrei otsoak lez, edo ta tolosarrei aizeak.

Erri aberatsa. Gogoratzeko da bertakoen esana: Asteasu'ko kanpaiak oska ei ziran bein. Dirua nun? Eta Alkizakoak erantzun: Lete'n eta Peru'n.

Ain zuzen ere plazan dagoz baserri bi oneik. Ederrak, zabalak. Peru'n Sorarraindarrak bizi dira. Amabost seme alabak osotu eben famili au. bertako seme batenak dira euskal liburu batzuk: «Santa Maria Goretti», «Lili txuria odoletan» eta itzulpen batzuek be bai: Kanpion zanaren lanetik «Itzaltzu'ko koblakaria» eta Arakistain'en «Irazabal'go orma tartean».

Lete'k ikurdia, eskudoa be ba dauka. Dirudianeaz 1212 urtetik.

Ba dagoz beste iru etxe be eskudoduank: Aginaga, Azaldeg ballaran eta Intxaurrendiaga eta Zumitza, bi oneik Arana ballaran.

Linazasoro'tar Iñaki adiskideari esker, emengo alkatearen kontu bat agertu nei.

Amabost urtetan alkate egon zan Etxabe'ko Errupioño. Bere eskutuko lana: udabarriko zuzak batzea. Donosti'n eukazan adiskideak eskartuten eutsezan eta lagundu.

Bein, bertako etxe jaunak esan ei eutsen: Elektra indarra makala daukagu eta altsuago bear dogu, bestela andrei ezin mesederik egin eta andrak baketan euki bear dira etxean, erria baketan bi-

ziko ba da. Orretarako milla ogerleko bear doguz eta zure laguntza.

Alkateak buruari ats egin eta erantzun be bai: eskari bi dira orrek. Ezin. Bietatik bat aukeratu. Ori entzun eta ezpai barik berialako baten besteak bat izatekotan zure laguntza naiago dogu.

Orra Errupiño, burua argi ta begiak dantzan, nun bere laguntza eskatuko. Aurrerago, beste premiña baten, berrogetamar milla ogerleko lortu zitun. Baiña eskabidea egitean, kilo bat suza eroan zitun.

Erri txikien alkar arteko txikikeriei errua emon ezik, gaitz da Alkitza'n kondairan euki zitun jokabide batzuk ulertzea.

1 386 urtean, Asteasu eta Aduna'gaz batean, Tolosa'gaz batu zan. Alkartasun anaikorrean. Bere lur, mendien onura, irabazpide eta abar, osoan beretzat gordeta. Baiña gero, berrogei urte geroago, Tolosa'gaz asarre, eztabaidetan ezagutzen da, erriko zerga eta emon bearrak zirala bide.

Origaitik Tolosa'tik aldendu eta Donosti'gaz batu zan 1450 urtean. Arrigarri. Ulertzeko gaitz eta sinisteko be biurri. Ogetamar kilometro inguru egiten dira Alkitza'tik Donosti'ra, eta bitartean ainbat erri, eskubide osoko erriak. Origaitik batasun orrek laster artu zitun milla ostopo. Orrela laster zan Alkitza barriro bere buruaren jaube egin nairik. Lortzen gaitz. Berreundak urte igaro zitun eztabaidan, eta azkenean be, 1731 urtean lortu eban jaubetasun ori. Geroago, 1 742'n Anoeta'gaz alkartu zan. Alkartasun ori Ainsu izenagaz ezagutu zan errien artean eta irugarren bat be batu yakoen: Errialde. Irurok batu ziranean, batasunaren izena be luzatu: Ainsuberreluz.

1860 urtean, orduko legeen araberan, barriro bakoitzaren jaube geratu ziran eta ordutik Alkitza jaubetasun osoko erri lez ezagutzen da.

Agertu daiguzan jakingarriak aidean eta nastean.

Jaiak, Iraillea'n. Ama Birgiña egunez.

Maiatzea'n, Kurutzeko egunez, Santiago'ko ermitan eleiz jai bat egiten. Barri-onaren zati batzuk irakurri eta bertatik bedein-katzen dira lurrak.

Erdi-Aroan galtzairua egiten zan emengo burdiñola baten. Izen jatorra eukan: Agarrola.

Etxeko zeregin bat: aulkiak, jarrilekuak egitea. Ala ikusten dira gaur be don Mikelarena etxean. Emengo bereziak, tipikoak: aulki txikia, ume aulkia eta sukaldetarakoa. Urritzezko zumitzak erabiltzen ditue orretan. Orrez gañera, garrafoien estalkiak be egiten dituez, edo emen deitzen dautsen lez, garrafoien saskiak. Gaur, sas-

ki oneik be toki askotan egurrez egiten dituelako, langintza onek gero ta bizi argalago daukala dirudi.

Alkitza'ren esan naia, teknikoen eritziz, ez da alkitik datorrena, aulki esan naia emonaz, arrikitik baiño. Au da arri leku edo tokia. Eritzi onetako ziran Kanpion eta S. Arana. Ba dirudi inguruak be bete-betean esan nai ori ziurtatzen dabela. Goietan ikusten dan Ernio mendiak arri bidea erakusten dausku.

Alkitza'k urrun ikusten ditu Tolosa'ko keiak. Urrun ango bits zikiñak: Bere inguruan Alkitza-erreka eta Aranguren, txiki baiña garbi ikusten dira Ori ibaiaren sakonetara urreratzen.

Ba dago emen berezko leiza sakon bat, irureun metrotik gorakoa: Leize-andi deitzen dautse emen.

Alkitza'k, gaurko askorentzat, pekatu bat dauka. Joan egin bear dala bertara, bera ikusi nai ba da, eta gaur bide ertzeko erri zikin asko maiteago doguz, bizi-modu likiñago baten errezago naastuten gara, aukera-aukeran egiten dan zerbait gertatu ezik.

Aste guztian eizako garrez ezagutzen dot adiskide bat. Lan egin bearra ezetsiten. Igandea, domeka etorri ta eiza guztiak baiño kaleko jolasa, tabernetako txikiteoa eta jolas tokietako keia eta lurruna naiago.

Orixe da erri maitale askori gertaten yakuna be. Ederraren zailtasun asko...baiña billatu barik. Eta ezin ukatu, erri askok, bertara joatearen nekea atsegin geiagoz ordaintzen dabela.

Ikusi Alkitza eta erantzun.



ALTZO

Euskalerriko sermolaririk onenak bertsolariak izan dirala esan izan dabenak ba dira, Abade askok baiño sermoi gogoragarriagoak egiñak dira bertsolari asko.

Sermoa, entzun eta jun, Bertsoak, ikasi ta iruntsi. Orrela, kristau fedeko, sinismeneko egi asko, gertaera asko, bertsolarien bidez bizi-bizi geratu izan dira gure errian.

Gipuzkoa'ko Altzo ikusten nago gaur, eta emengo bertsolari bat gogoratzen: Altzo'ko Imaz. Manuel Antonio Imaz. 181 1 urteko Maiatzean jaio zan. Ain zuzen be il onen 1 9'an.

Altzon jaio, Altzon ezkondu, bertako Arzadun baserriko alabarekin eta Altzon il, 1893 urtean, Azilla'ren 9'an, 83 urte eukazala. Bat-baten eriotza.

Bertsolari jatorra.

Ba dauka bere istori pixkat. Gaztetan akulari, zirikalari, adar jotzalle eta neskd zale agertzen ei zan bertsoan. Berde xamar. Sasoi aretan, Tolosa'ko abade nausia, euskaltzale jator bat zan, Orkaiztegi jauna. Imaz'ek lagun andi eban. Eta egun baten, bere bertsoak entzun eta abadeari lizun xamarrek iruditu, eta adiskidetasunoz alako baldarkerietan ez ebala sartu bear eskatu ei eutsan. Imaz'ek entzun eta bera be, bere egituretan beintzat, ia sermolari biurtu.

Geroztik bere bertsoak, geienak, eleiztarrak dira.

Imaz'en bertso batzuk ikusi daiguzan. Len esan dodanez, geienak eleiztarrak dira. Berberak diño domeketako jc.ia zaintzeari

buruz egindako azken bertsoan:

Len zuzen dijoanak
artantxe segitu,
okertuak saiatu,
nola erremeditu;
zerura bage iñor
ez dedin gelditu,
Imaz'ek bide oiek
erakusten ditu.

Orra ba, berberaren esanez, sermolari bat.

Ba zan Bizkaian, Ispaster'en ain zuzen be, Pasiñoia euskeraz bertsoan egin eban jesuita bat. Bere bertsoak, ainbat agertualdi euki zituen Euskalerrian geien zabalduak edo beintzat geien agertuak. Eta kantatuak be bai.

Altzo'k Imaz'ek, euren parean, gai berari buruz egin nai izan zitun beste batzuk. Orrela, Pasiñoiari buruz, 65 bertsoetako kantak agertu be bai. Aita Basterretxearenak ain ezagunak ziralako, edo ta gaia era berean jarraitu ebalako, bertso asko naastu egiten dira eta bardintsu agertu Aita Basterretxearenekin.

Ala ta be Imaz'enak be sakon sartu ziran errian. Emen be zeruzale dator bera:

Gu pekatutik libratutzeko
jetxi zan Jesus maitea,
kunplitu zuen bere gusto ta
Aitaren borondatea;
ereki zigun itxi genduen
zeruetako atea,
ark eta Imaz'ek deseo degu
danok ara joatea.

Sinismeneko egin bear guztiak ikututen ditu bere bertsoetan. Esate baterako, konpesatzeko bear diran gaitasunei buruz be zintzo jarduten daki:

Ordiak ere ikusten dira
batzuetan konpesatzen,
kontseju onak entzunagaitik
lengo moduan usatzen;
propositurik artzen ez ba da
orra zer zaigun pasatzen,
beti ibilli animak galtzen
eta guziak lotsatzen,
orrelakoak il bear duanik
ez du beñere pentsatzen.

Jarrai daigun Imaz'ekin, merezi dau ta.

Misiñoiak beti eukiten eben errietan alako arrera eta barruko tengada bat. Imaz'ek 36 bertsoan gogoratzen dauz bere erriko

batzuk. San Iñazio'ri 29 bertso eskintzen dautsaz. Azken juizioari, 69. Bere luzenak dira orreik. Pekatu kapitalak be eskintzen dautsaz beste bertso batzuk.

Orrelaxe zan bertsolari au. Eleiztarra ta etxetarra. bere andreari, emazteari eskiñitako bertsoak erakusten dabe olako zer-bait. Ba dauke biozkada ta...bertsolariaren kezka.

Ara bi:

Itzak alkarri
emanda jarri,
ezkondutzeko
giñaden sarri;
bagiñekjgun guk
geren berri;
biok giñan bada
poz eta larri;
damatxo orri
txit fiña zala
nion igarri;
nobedaderik
eztu ekarri.

Amabi bertso dira tankera orretakoak. Amargarrenean au diño:

Maria Rosa
nere esposa,
Benito nazu
zuk aproposa;
biok degu gusto
eta poza,
bizitza ontzoxa
beagu pasa,
ongi ta aisa,
konsuelotan
pozez eta lasa,
nik zure naia
eztet eskasa

Imaz bertsolariaren emaitz bat ba dago Altzon. Ezkondu zan urtean pago landara bat aldatu eban eta bere bizi guztian alegiñez zaindu be bai. Gaur, pago orrek, 138 urte daukaz eta 4,75 metro daukaz bere gerriaren bueltan. Erakusteko dauke pago ori Legarre baserrian. Orain urte batzuk, bere adarretatik, bost burdikada egur kendu eutsezan.

Baserri onetantxe, Legarre baserrian jaio zan baita be uztargi-lle entzutetsu bat: Juan Saizar.

Altzo ezagutzeko, Gipuzkoako bide nausian, Oridizia'tik Tolo-sa'ra bitartean, Alegria'ren ondoan bide artu ta laster sartzen da

bertan. Erri txikia, 400 lagun. Parroki oi. Andre Mari eta Salvatore. Altzo muño eta Altzo azpi, auzoak, bata besteagandik ia km. bi bi-tarteko.

Erri polita. Danetara be 70 etxe. Euretatik 40 baserri etxeak.

Erri zarra da. 1025 urtean bertako monastegia Aragoiko San Juan de la Peña'ri eskiñi eutsan Gartzia Aznar jaunak.

Kaolin miñak daukaz bere lurpean. Ain zuzen be, orain 6 urte, miña orreik zirala ta lur asko erditu eta ondatu egin ziran, berutz egin eta iruntsita gelditu.


Kipularik onenak, inguruetan, Altzon artzen ei dira. Ala diño.

Beste entzute bat: Bere denporan Europa'tik gizonik andiena emen jaio zan. Ezaguna da Altzoko gigantearen izena: Miguel Joakin Eleizegi. 2,27 metro luze. Besoak zabalik 2,42. Eta 221 kilo pixatzera eldu zan. Ipintza izeneko baserrian jaio zan 1 81 8 urtean. Europatik zear erabili eben. Lau erregek be ikusi nai izan eben: Españako Isabel M'k, Frantziko Luis Felipe I'k, Portugal'eko Mari Gloriak eta Inglaterrako Bitoria I'k.

Europatik zear erabili eben. Baiña biotzik ez eutsan alaitu ibillera orrek. Tratulari batzuk nai izan eben Inglaterra'n bizi zan neska andi bategaz ezkondu. Neskak baietz, baiña berak aitari eskatu ei eutsan: Aita, guazen lenbailen Altzora. Miñez etorri zan ibillera orretatik. Eta orrela, bere min ori gaindu eziñez, maitasun barik, mutilzar, 46 urte eukazala il zan.

Il-kaja Tolosan egin eben. Eta orduko paperak diñuenez, kaja ori etxera eroatean, bere barruan joan ziran gizon bat eta illetetan emoten ziran bazkarirako 34 lau librako ogi eta zazpi arruko ardu zaragi bat.

Bere baserriaren inguruko arri baten agertzen da bere oroigarria.



AMEZKETA

San Martin auzotik ete dator Amezketa'ren sortzea?

XIII gizaldiko edo aurreragoko ermita txiki bat or dago, Tours'eko zoriondun onen omen eta aintzaz, auzoari izena emoten. Ermitatxo txikia. Zarra, baiña konpontzean zar itxurak agertzeko gogo eta ardurak bazterrean lagata, barrizatua. Eleizpetik, egurrezko agaen artetik ikusten da bertako irudia. XIII-XIV gizaldieta-ko irudien tankerakoa.

Aralar mendiaren egaletan gabiltz, Gipuzko aldetik. Mendiaren betetasun eta anditasunaen ederra!

Baiña ez gaitezen tellatura igo, edo ez gaitezen ganbaran sartu tellatutik.

Pernando Amezketarraren antzera, platerari bira eragin da giogun eta gure aldetik ipiñi daiguzan mamiñak, azurrak, koipeak eta gantzak alboan lagata.

Ate nagusitik sartu gaitezen Amezketa'n.

Euskaldunik geienok Pernando'ren izenetik artu dogu Amezketa'ren barri.

Berez lodi eta gizen diranak iñok baiño umore geiago eukiten ei dabe.

Biziari irri egiten dakie. Bizia pixuz artu eta umorez sustraitzen jakin izan dabe. Itxasaldean, udan, errez ikusten da ori. Liraiñak, mirriñak, argalak eta estuak, iñok ikusi nai ez da lez ibilten dira ondartzetan, bañuko erropetan. Lodiak, gizenak, alaitasunez beterik plisti plastaka ibilten dira olatuen bitsetan, iñoren ardura barik jolasean.

Nok edo zek emon ete eutsan Fernando'ri gatza? Nundik sartu eta zetatik sortu bere umorea?

Aitak? Umorea bear eban amabost seme-alaben arduetan. Amar lenengo ezkontzatik. 38 urtegez emaztea il, bikiak ekarrita laster. Illetak amaitu orduko, au da, emaztea il eta 50 egun geroago, bigarrenez ezkondu zan. Umedun familietarako neskarik ez dala billatzen? Fernando'ren aitaren bigarren emazteak andrata-sunari eskiñitako monumentu andi bat eskatzen dau. 24 urtedun neskatilla zala amar seme-alaben alarguna artu eta beste bost geiago mundura ekarri. Eta dirurik, ondasunik ez bitarteko. Ori, jakiña, antxiña gertaten zala esango dabe. Bai. berreun urte, inguru, jazo zala. Alaxe da. Eta ez al egoan orduan arantzarik, ez eta ondo bizi egarririk?

Fernando bera zan lenengoa. Aurreneko ezkontzako lenengoa, eta keixu jaioa. Gurasoak ezkondu eta 58 egunera etorri zan mundura umerezko frutu bedeinkatu ori. Itxuraz, mundua alaitzeko kezkatu. Popakeixua deitzen dautse olakoari Ondarroa'n.

Arin etorri eta nekez joan? Ez. 59 urte baiño len il zan. Bera be begi onagaz ezkondu zan 18 urteko neskatil batekin. Amar seme alaba ta...oraindik geiago nai. Sasiko ume bi, kajako bi euren gain artu zituezan.

Ez esan bizitza umorez artzen jakin ez ebenik. Umorea biribildu eta zabaltzeko eskoletxe ederra amabi lagunen familia. Aurak azi, nekeak asi. Itxurarik ez.

Ez dakigu il aurretik bere guraririk beteterik lortu eban. fiere naia, bere eskabidea, lotsa barik agertu eban: Jakiña da Fernando ango erretore edo bikarioaren laguna izan zala. Beragaz euki zitun gertaera asko. Bein onek itaundu ei eutsan, sarri legez, zirikalari:

-Fernando, zuretzat zein dira munduko gauzarik onenak?

-Asko. Baiña printzipalenak oneik:

Osasuna ta pakia,
andre ona ta dotia,
iru ankeko lapiko andi bat
txarri solomoz ta ollazkoz betia,
zato potxolo bat napar ardau onez betia,
Orrek eukita bestiak sobre dira.

Ardau botia eskatu ta urak gaitz eginda il. Ara Fernando'ren zorigaitza. Bai, alaxe. Okaran sasoian, okaranak jan. Geiegi nunbait. Ura edan, segurutik neurri barik, eta ortik il. Urak gaitz egin da, Goen-errotako erreka urak.

Ilten egoala be umorerik ezin amaitu ta bere inguruan egozane ei esan ei eutsen toki guztietan jakin eraziteko, bizi guztian erdi gose ta miserian bizi ba zan be, ondo asetuta il zala.

Olakoxea zan Fernando Bengoetxea eta Altuna, toki guztietan erri deituraz ezagunagoa: Fernando Amezketarra.

Edonundik jota be Oria'ko Alegi'ra jo bear da Amezketa'ra kotxean sartzeko. Beasain eta Tolosa bitartean dago Alegi, bide nagusian. Emen Amezketa bertara duan bidea artu. Zazpi kilometro, erreka baten ondoan, ez ain zuzen be bide eratsuan. Oria ibaian sartu arte Amezketa izena daroa erreka onek. erria Donosti'tik 38 kilometrora gelditzen da. Tolosa'tik, 13, Beasain aldetik, 20 km.

Mendizaleak ondo ezagutzen dabe Amezketa. Mendi askoren bidea bertatik artu bear da. Ala 1.390 metroko Aldaon'era. Balerdi, 1.179 metrotakoarena. Ganbo, 1.408; Intzeko torrea, 1.427, bear bada Irumugarrieta izenagaz ezagunagoa; Pardarri, 1.35); Larrunarri, 1.341; Uakorri, 1.170 eta Uarrain, 1.321.

Milla ta laureun lagun inguru erriak. Papelgintzako fabrika bat. Amar bat lagun kanpotik lanera etorten ba dira be, geiagok urteten dabe erbestera. Tolosa, Alegi edo Beasain'eko lan tokietara berrogeiren bat lagunek urteten dabe egunero.

Azken urteotan geitu egin da. 1900 urtean 1.193 lagun bizi ziran. Eun geiago 1950'n.

Ugarte'n bizi diran berreun inguru lagunak kenduta, besteak erri buruan bizi dira.

230 ume batzen dira eskoletan, % 81,4 euskaldunak. %18,6 euskerarik ez dakienak. Sinistu ete lei ori mendian sartuta dagon euskal erri garbi baten? Estadistikak ori diño.

Parroki bi. Erromaniku zar baten testigu Ugartekoa, bere puntu erdiko arkuakin. Ama Birgiña'ren irudi gotikoa. Erri buru-goian dagoana, San Bartolome'na, XVI'en barriztatua da. Eskillara mor-doa igaro bear bertarako. Markina-Etxebarrikoa dakarkit gogora. Taillugille onak egindako atea.

Emendik laster dago Igone baserria. Ba dago istori pixkat emen. Arri batek zuloa dauka. Gizonen baten urratsa. Bere alboan kurutze baten ikurra. Bertatik igaroeran dirua lagaten dabe askok. Eta atzetik doanak artu eta eleizaren baten laga bear izaten dau diru ori. Ez ei da oraindik diru ori beste zerbaitetan eralgi dabenik ezagutu.

Olako siniskeretan sartu ezker, jakingarria eleizaren tokia zelan aukeratu zan, ain zuzen be erritik urrun egiteak euki lei bere istoria. Au diño: Plazan egin nai zala eleiza ori, baiña San Bartolome'k berberak Ergone'n egitea naiago. Egunez egiten zana, gabaz aldatu. Eta arriak aldatzea egiten eben beiei San Bartolome berberak akulluz zirikatatu ta esan ei eutsen? Aida gorrie, aida zurie, zelatariei atera egiozue begie. «Orrela, esan eta egin, Mizpistas-ti'ko atsoari begiak atara ta itsu gelditu ei zan. Eta gaurko tokian eleiza egin.

Orrelako esakera eta sinistez betea da Amezketa.

Zer da emen famako?

Erri guztietan billatzen da zerbait. Alboan, Alegi'n, an lako zintzarri'tik iñun ez dala egiten esaten dabe. Emen, Amezketa'n, sagarrak. Eguaztenetan Ordizia'ko merkatura joaten diran emakumeak diñoenez, emen aiñako sagar eder eta mamintsurik ez ei da inguruetan batzen. Origaitik pozik kantatzen dabe bertakoak kantu txiki bat:

Sagartxo txiki betea
aurten da zure urtea,
orain urreneko plazakon
etxeko andre onen partea.
Parterik onena, askotan, urteetako fameari eustea.

Merezi dau Amezketa'n bein da barrero Pernando gogoratzea. Aren esanak barregarri dira beti. Esanak eta esateko dagozanak. Pernando'ri bereak eta iñorenak be leporatzen eutsoezan eta dautsez.

Aren umorea euskal umore garbi eta erreza da. Bat batean algarea ataraten dabena. Eta sakona.


Azken orduetan egoala, zerbait artzeko eukan bat agertu ei yakon, eta ikusi orduko Pernando'k: Ai gure Jaunak zuri zor dautzudana emoteko osasuna emongo ba leuskit!

Ori entzun eta bertan egoan abadeak: Jainkoa ona da ta izan lei mesede ori egitea.

Pernando'k: Naiago neuke ba. Orrela ez neutsake gizon oneri zorrik ordainduko eta... sekulako osasuna seguru neuke. Eta kiñu egiñaz, abadeari geitu: Ordu arteko bizia emon ezkeru, berorrek ere ez leuke beriala nire entierurik kobratuko!

Bakea eskintzen dautso Amezketa'k bertara doanari. Aize garbi, mendiko arnas eta gaurko zarata askok eten gabeko bakea. Umorez betetakoa, gaiñera.

Origaitik «Biba Amezketa» goraka urten bear emendik. Esakera ori ikusten bizi izan dira luzaro amezketarrak, 1483 urtean jQan Amezketa'k Larrunari'ren aurrez aurre, emen esaten dan lez «Nauñarri'ren muturretan» jaso eban jauregian.



ANDOAIN

Geitu eta ugaritzen, anditu eta zabaltzen, goratu eta luzatzen. Orra Andoain, Donosti'tik Tolosa'rako bide erdian, Buruntza, Belabi, Belkoain eta Ondo mendien barruan eta kerizpean.

Era askotako industrien leku da gaur: Metalgintzá, eugintza, plastiku, paper, elektra, konpongintza eta abar. Bere mendietako arri ederren lanketa bastertu barik.

Emendik urten eben sasoi baten Arizmendi, Atorrasagasti, Berrospe, Galarraga, Garagorri, Larramendi, Ubillotz eta ainbat abizen jator. Gaur bertako aiña ezagutzen dira arrotzak.

Lengo amar urtetan, % 5,09 batez beste urtero geitzen eza-gutu izan da.

Adiñean aurrera gatozanontzat aldakuntza andia egin dau erri onek.

Gaur, esate baterako, ia igarri be ez da egiten nun batzen dira Oria eta Leizaren ibaiak, errekak. Eta ain zuzen be ortxe dago bikain, Andoain. Geroago iñok ez daki nun doan Leizaran. Oria bai, auts eta bits, p'ozoi eta zikin, ba doa likin Orio erriaren gibeletik, euskaldunen itxasora.

Erri bi batzen ete ziran antxiñetan gaur Andoain lez ezagutzen dogun toki onetan?

Andoain'en sortzea dauken abizen artean, Leizaur izentatu dot. Oñaztarren jarraitzalle itsuen artean famili au agertzen da, Azelain'goa, Sorabilla'n, beste aldean, ganboatarrekin agertzen

zan lez. Leizaur izen orretako erria be egon zala diñoenak ba dira. Orrela, Leizaur erria gaur kaletzat daukagun alderdian egon zala eta Andoain Buruntza'ren magalean. Beste batzuen eritziz, Leizaur izango zan lenengo erria. Baiña Gipuzkoa'ko batzarretan Andoain ezagutzen da. Eta izen orregaz billatzen dira emengo ordezkariak 1397 urtean Getari'n batu ziran Batzar Nagusietan.

Orain eun urte, batzar orreitan, 30 suren eskubidez emoten eben emengoak euren erabagia.

Kalean, erri bizitzaren iru puntu billatzen doguz alkarren urrean: Erriko Etxea, Pelota tokia eta Eleiza. Ederra au, Patxi Ibero eleiz egille ospatsu eta ezagunak iruditu eta jaso. Elgoibar'koaren itxurako.

Andoain'en ezagunak diran kanta batzuk, karlisten lenengo gerrateko gertaera bat gogoratzen dabe:

Andoain'go elizan olio ugari,
aisa kendu zioten karlistak beltzari,
karlistak a cuchillo, an ziran kontuak,
milagroak egin ditu Gurutze santuak.

Dakigunez, 1837'ko Iralla'ren 14'an, Gurutze Santu egunean, alkar arteko joaldi eta indarketa gogorra egin zan.

Liberalak erri barruan egozan, eleiz inguruak be gogortuta eukezala. Karlisten iru batalloi Leizaran ibaiaren egalean gertu, beste iru Zumea auzoan eta bost konpañi Sorabilla eta Bazkardo'tik zear, Lasarte inguruetan.

Liberalak Donostirako bide nausia zaindu eta garbi eukitearren sartu ziran Andoain'en. Karlistak, egun orretan, errian eta eleizan sartzea lortu eben. Batetik eta bestetik ainbat eriotza egin ziran. Ez zan errekirik egon ez zaindu. Su ematen duenentzat ez da kuartelik didar egiten ei eben soldaduak.

126 baserri etxe erre zituen karlistak inguru oneitan, Andoain'en sartzea lortu ebenean. Aurrerago, besteak, ogetamar inguru.

Andoain'en, oraindik, ba dagoz baserri etxeak. 146 famili kontaten dira baserrietan edo baserri lanetan diarduenak. Baiña gaur, errian, indar gitxi dauka baserri bizitzak.

Buruntza, Goiburu, Leizotz eta Sorabilla auzoak or dagoz, Andoain'go gaurko bizi-bidean erromantikuen jokabidean. Batzuk erri buruan noiz iruntsiko.

Sorabilla'ren joarea kontuan eukitekoa da. Sasoi baten, luzaro, erri lez ezagutu zan. Aiztondo'ko alkatetza nausian sartzen zan, Asteasu'gaz batean. Eta 1843'n banandu zan eta Andoain'en sartu. Ikusgarri bertako San Martin eleiza, bere atadi eta aterpe za-

balarekin.

Andoain'en San Joanetan ospatzen dira erriko jaiak.

Eta Maitzean, Kurutzeko egunez. Eta San Roketan, Buruntza'n. Eta neguko San Estebantxe, neguan orde, Dagonilla'ren iruan. Santa Luzia egunean be asko joaten dira ermita onetara, santa orrek plater baten daukazan begiei ikutu eta gero bakoitzarenak igortziten, begiko miñak uxatzeko asmoz. Lortzen dabe edo ez... Emengo esakera gogoratu: Egia ba da, sar sakelan; guzurra ba da, ez deilla atera.

Beste jai bat, Irailla'ko Andra Mari egunez, Sorabilla'n.

Jaietan ete dabiitz beti Andoain'en? Bá dirudi. Eta aztuta neukan, San Pedrotan Kale-txikiko jai.

Bein, Pedro Santa Cruz bertako bertsolariak, jai oneitako sermoi bat entzun ondoren, bertso paperak atara zitun. Eta bere anaiak bi milla saldu. Ikus bertso bat:

Gure Aita San Pedro
galileatarra,
arrantzale pobrea,
ez duke erreala;
Jesus topo egin du
koston datorrela,
eskama bat aña're
txalupan etzuela.
Esan zigun sareak
zabaldu zitzala...

Ez zan bertsolari ugaria izan andoaindar ori, baiña bai gogotsu entzuten zana.

Bertsoak sortzeko burukomin asko bear ez ba eban be, bertsoen ondorenez euki zitun ugari. Mutilzar baten bertsoak atara ta zabaldu zitun bein. Eta ondoren gogorra. Bere etxe jaubeak, ain zuzen be, iru anai mutilzar izan. Areik eurentzako artu bertsoak. Zitaldu eta bizia garrastu eragin, etxeko lurretan artzen zituen erabagiekin. Origaitik etxea laga ta beste erri batera aldatu bearrean gertatu zan bertsolari ori.

Orain urte batzuk Bilbo'n bazkaltzen gengoan, Bilbaina soziedadean. Áurrez, eguerdi inguruan, Euskaltzaindiko batzarra euki gendun. Eta antxe, bazkari eder bat asita laster, barri itzal eta negargarri bat artu gendun: Rikardo Arregi gaztea il zala, kotxeko ez bearrez. Euskal alfabetatzeko ekiñaldi eta gertaeren buru lez ebi-llan, orretarako giroa eta gogoa sortu eta biztuten, Arregi jatorra. Zintzoa, fiña, alegintsua bere lanean, sentsu andikoa eta jakintsua. Gaur gizon andi izango zan andoaindar gazte a, bai politika edo

erri goraberetan eta bai literatura saillean. Ain zuzen be, bazkari aretan, mai-buru, on Manuel Lekuona gertatu zan, Euskaltzaindiko ledarkari lez, Arregi'ren etxean bizi zana.

1 969'ko Garilla'ren 10'n zan ori.

Andoain'en beste euskaltzale aurreratu bat jaio zan. Garagorri baserrian jaio eta abizen edo apellidu bardiñeko. Baiña iñok ez eban ezagutu Aita Garagorri'rik. Zer gertatu ete zan, euskal literaturan ain entzutetsu dan Aita Larramendi'k bere aitaren abizenik ez erabilteko? Bere aita izan zana bigarrenez ezkondu zalako?

Dana dala Aita Larramendi izenez ezagutu zan eta ezagutzen da. Eta orain zortzi urte, 1966 urtean Andoain'go erriak eskiñi eutsan oroitarriak, au diño soil-soilik: Andoain'go erriak Aita Larramendi'ri. 1966 Goian, jakintsuaren soiñekoan, «El imposible vencido». Eta gerrian, jaiotza eta eriotzako urteak: 1 690-1 766.

Euskeraz baiño erderaz geiago idatzi eban, baiña euskerari buruz. Zegaitik? Bere esaera batetik igarri: Nire liburuak euskeraz idatziko nituzke, sakelari beroaldi batzuk emongo ba zeunkioz eurak atara al izateko.

Berea da lenengo Euskal gramatika, 1729'n Salamanca'n agertua. Beste liburu bat, Gipuzkoa'ko Corografia eta abar.

Larramendi ez zan bakarrik literaturari buruz ibilli. Bere sasoi aretan Gipuzkoa'n buruauste asko ebiltzan aingura-gintzan. Eta Larramendi'k gogor jardun eban gai onetan. Baserritarren aldeze kementsu be izan zan. Eta sasoi aretako gizartea nai lez erabillan oligarki baten arerio zital be bai. Origaitik bere liburuak ez eben launtasun egokirik artu bere sasoi.


Andoaindar gizon geiago billatu geinkez euskal arloan.

Gaur bizi da ta laga daigun Frantzisko Etxeberria bat.

Baiña merezi dau Orkaiztegi bat aitatutzea. 1840'n jaio eta 1 924'n il. Eta bitartean, euskal tematikan, etenbarik lanean. Abade gaietan, sinismenaren bidetan, olertian eta bertsoetan, teatroanErbesteko itzala be ezagutu eban Santa Cruz abade gerralariaren lagun zalako.

Merezi dau Andoain'dik pozez. urtetea. Origaitik Orkaiztegi onen Euskal Dantzak laneko azken kantua gogoratzen urten daigun:

Egiz
kantatu genezake
euskaldunak gerala
dantzik onenen jabe...



ARAOZ

Irutasun eguneko jaia. Trinidadetz jai egiten daben errietako bat da Araoz.

Araoz nun dagon?

Oñate'ri emon daiogun, lenengoz> bere jaubetasuna. Oñati'ren errialde bat dalako. Orra ba ezaupide andi bat asierako. Baiña Oñati'tik Araoz'era 12 km. igaro bear dira, Jaturabe'ko bidetik. Ia Araba'ko sarreran.

Bide estua da, errekek mendi artean zabaldu daben tartetik zear. Sasoi baten penaz eta ametsez egiten eben bide au amata-sunik lortu ezin eben emakumeak. Emengo ermitara etorten ziran, eta bertan, aitzean egiten dan aska bateko uretan burua busti edo ta oiñak garbitutea naiko zala uste eben. Eta ermitako sakristian gordetan dan santu zarraren eskuetan, ume jantzi bat.lagaten eben, orrela erakutsi nairik ume bat euki naiez ebiltzala, ume garra eukela. Ori lortuten zanean, barriro biurtzen ziran emakume orreik ermita orretara eskerrak emoten eta bertan laga eben jantzia artzen. Ordez kandela bat eskintzen eutsen santuari argitarako eta limosnatxu bat.

Araoz'ko ermita orreri, kueba baten barruan egiten dan ermita orreri, San Elias'eri eskiñia dalako, emengoen esanetan Sandaili deitzen dautse.

Kantu zarretara ba goaz, lenengotako euskal kanten artean billatuko dogu emengo kantu zar bat. Traketza. Gogorra eta biurria da. Ezagutzen diran zatiak, galdutako beste andiagoren baten zatiak dirala agertzen dabe.

Oñati'ko Portu abizeneko batek idatzia da, bere eskuz idatzia. Origaitik, olako agiri zarrak ulertzen be gaitz izaten diralako, ba daukaz zati moldakaitz batzuk:

Orrela asten da:

Ala Zalagarda, Zalagarda mala,
Zalagarda gaizto, oñaztarra endako.
Ardao zuri, ardao Madrilgalgoa,
ardao zuria Mendozagana doa,
alabaiña Sandaili gogoa
Zalagarda Sandailira doa.

Bigarren bertso baten agertzen da ermita onen ateak zela-koak diran:

Sandaliak ateak ditu txatxarrez (zidarrez)
nola txitxarrez da ala zendalez.
Hermandadea arean doa negarrez,
Anso Gartziak gaztelu ori emunez
ezen ugin da estik itza esan ez.

Obeto ulertzeko kantu onen zegaitia agertu daigun,
nundik edo zetatik sortu zan.

Morroí euskaldun asko Oñaten batzen ei ziran garai baten, Santxo Gartzia Garibai'ren inguruan, bere babespean. Egun baten Juan Zaar, Ernani'ko mandazaiña bateri, San Adrian'go portuan, aldatzean, ardaú pixkat eskatu eutsen.

Arek emon ez. Morroiak, asarrez, eroiazan diruak kendu. Mandazaiñak andik laster Korrexidoreari eta Gipuzkoko nausiei agertu egitada ori. Errialdeko nausia Oñati'n agertu zan, beriala, ainbat gizonek lagunduta, gaiztakeri ori agertuteko asmotan, bera eben zigorra emoteko ustetan. Oñatiar batzuk laster jakin erazi eutsen ori Santxo Gartziari eta onek, bere lagunekaz, morroi orreikaz, San Elias izeneko koba orretara igesi, au da, Sandaili'ra iges egin. Baiña besteak ori jakin eta an inguratu zituen.

Ala ta be koba onek beste ate bat dauka, beste zulo bat, batetik bestera kilometro bi inguru dirala, eta andik Zalaparda izeneko morroi baten bitartez biatzen eutsezan janariak.

Orra ba kantu zar ori noizkoa dan eta zegaitik egin zan. Kantu ori, ustez, 1450 urte ingurukoa da.

71 baserri etxe batzen dira, danetara, Araoz onetan. Onegaz ez dogu agertu nai baserri guztietan bizitza igartzan danik. Zoritxarrez erdiak baiño geiago ustuta dagoz gaur.

Baserri oneik be ba daukez euren artean batasun txiki batzuk. Oñatiarrak auzo-uniak deitzen dautse batasun orrei, pillo orrei. Orrela, auzo-uniak dira Aitzkorbe, Araz-urruti,

Agirre, Ugaran, Jausoro, Uriarte eta Zubia izenez ezagutzen diran etxe-elkarteak.

Eleiza San Migel'en omenez jaso da. Zumalde'ren Oñatiko Kondairan irakurri daikegunez, eleizatxo au Oñati'ko parroki nausiaren antzirudi txiki bat da.

Len esan dogun Sandaili ez da auzoko parrokia, ermita baiño, eta bertako jai San Juan jaiaren urrengo igandez, domekaz, egiten da.

Santu orrek ba eukan fedea eta sinistea euria ekarteko. Orrela, bederatziurren bat egiteko, legorte andietan, parrokira eroaten eben santuaren irudia, irudi zaarragoa, sakristian gordeten dana, len esan dogun amatasuneko zaindari egiten dana, eta ziurtzat emoten eben emen bederatzigarren egunean biurtu orduko, euriak mendiak bustiten zitula.

Emen Araoz'en jaio zan XVI garren gizaldian Lope Agirre, Ameriketako menperatzelleetako bat. Asko dira gaur gizon onen izatea ikasi nai dabenak. Amazonas'etan bera lako gizonik ez ei da istorian agertu, esaten dakie askok.

Araoz'ko kantulariaren ipuiña ezaguna da. Edo ta ez ba da be, gogoratu daigun.

Egun guztian kantuz ibilten ei zan inguruetan. Sandaili'ra joan eta an be ekin bere abotsa erakusten. Eta oiartzunak erantzun, eokoak erantzun, eta bera pozik. Pozez zorazten, bere enbidiz ebillan norbait ebillalakoan.

Bere artean bein esan eban: Kantaten dodan guztian norbait entzuten dot, ni bardindu naiean. Erregearengana joan nadin, ni bestekorik ez dala adieraziten.

Eta alaxe, kantu kantari, erregea ikusteko asmotan asi zan bidean.

Eun saltzalle bat, jantzi saltzalle bat billatu eban bidean. Agertu eutsan berak eroian bidea eta asmoa. Saltzalleak erantzun: Adiskide, erregearengana joateko baldar zuaz. Neuk jantziko zaitut barrien barri, baiña an emoten dautsuen erdi-bana izatekotan. Konpondu ziran.

Erregeren jauregian sartu zan Araozko kantari ori. Ekiana agertu eban. Erregea gogaitu be bai berari entzuten, eta diru orde, berreun makilladaz zigortzeko agindu eban. Ori entzun eta buruari ats egin eta berak esan eban: Berreun! Kontxo! Asko dira. Parkatu, errege jauna. Niretzat eun bediz, eta beste eunak tratua erdizbanan egin dogun jantzi saltzallearentzat.

Ori entzun eta erregea konturatu ei zan Araoz'en gizon argiak bizi zirala.

Gure esakera jator bat gogoratu daigun agurtu aurretik: Ala bazan edo ezpazan, sartu dedilla kalabazan.



ARRASATE MONDRAGON

Arrasate zarrari gaur Mondragon deitzen dautse. Erri batzutan jatorrizko izenetatik gain ipinitako deitura barriak ez eben erriarren abegi onik artu eta bertan bera galdu ziran. Emen ez.

Zein ete zan lenagoko?

Goazen «Nobiliario anónimo»ra. Irakurri:

«Quando Arrasate primero
por ser leal y guerrero
llamó el Rey Mondragon,
donde nacen, donde son
los hombres fuertes de acero...»

Ba dira diñoenak Gipuzkoa Nabarra'tik banandu zanean eta Castilla'ri lotu, Arrasate'n egin zirala orretarako Batzar Nagusiak.

Geiago: Alfonso X'ek, erri legezko nortasuna emoten bere agiria zabaldu ebanean, au irakurten da: «por saber que avemos de facer bien a merced a todos los pobladores de la puebla que es en Leniz, que avia antes nombres Arrasate, e que nos ponemos nombre Mondragon».

Argi?

Mitologiari ikutu ezkeru jakingarri da eta polita erri onen deituraren asiera.

Iraunsuge, dragoi, andi bat bizi ei zan Murugain mendian, Mandoain zelaira jatxiteko ekandu zitala ei eukan. Bildurrez eukazan danak, bere gosea asetu nairik errira egiten zitun ibillaldietan. Erri barruan sartuta kalte geiago egiten'ebala-ta, etorraldi bakoi-

tzerako Mandoain'en erritar bat lagatea erabagi eben, bere janarizat.

Bein errementari gazte baten ezkongaiari gertatu ei yakon eskintza ori bete bearra. Errementariak bere adore eta indarra erakusteko, burdin zati andi bat artu ei eban, gori gori egoala. iraun-sugea agertu ordukoxe zati ori brastada baten aoran sartu eta bertan bera eratsi ei eban garraxi ta uluka.

Orra, burdiña bitarteko, mondragoetarrak mitoak beratu, gizontasunez agertu eta gizarteko maitasuna erakutsi.

«Los maestros espaderos» Laguna'ren liburuan irakurri leike-
nez, sasoi baten ezagutzen ziran ezpatarik ederretarikuenak Mondragoe eta Bilbo'n egiten ei ziran. Bertako galtzairuan egin eta Toledo ingurutako ondar zee eta zurian landu eta moldatzen ei ziran.

Garibai irakurtean sarri billatu leikez orrelako gorralbenak. Baiña Garibai'ri mondragoetarra zala aitzakitza ipiñi leikio, eta edozeiñek daki Udala'ko erbiak Udalarako jokerea eukiten dabela.

Masdeu istori idazleak be Mondragoe'ko meatzen goratzetan, zeltiberoen ezpatak egiteko galtzairua emen sortzen zala diño.

Bizkaia'n egiten zan galtzairua bein suberotu edo tenplatzen ei zan; emengoa bost-sei bidar.

Sasoi aretan be ba egozan burukomiñak langintzetan. Ba ekien arrasatetarrak kantatzen:

«Ola jaunak egin ei dabe konzilio berria,
ikaskiñai kenduteko pagarik erdia».

Arazo onetan, burdin gintzari buruz, ikasketa asko egiña zan Pedro Villareal Ganboa, bertako semea.

Geroago, gaurko egunetan, ba dakigu mondragoetarrak ardu-
ra, kezka eta kemena Arrasate zarrari bizi barri eta iraunkor bat emon nairik, oraingo era, molde, jokabide eta neurrietan.

Gaur jakintza eta teknikaz, egitez eta asmoz, Mondragoe bide zabal eta ameslarietan sartua da, gain gaiñeko langintza eta biarretan. Asmotxa agertu da. Erru luzeak daukaz Europa eta beste alderdietan.

Porrot egin ete lei, gaurko ekintza zabal onek estatusunean mirrindu, uste gabeko betetasun eta eragozpenen ondorenez?

Gauza bat oartzen da bertan sartu orduko: alkartasun giroaren kontzientzian egoki eratua dala; kidesasun sendoa igarten da. Eta ori ekintza andien lenengo mailla da; obeto, bear bearrezko oiñarria.

Udabarriko jaiak kenduta, Santomasak dira emengo jairik entzutetsuenak. Inguru guztietatik agertzen dajenteabertara. Seireun urtetik gora dira feri au ospatzeko baimena ezagutzen dala. Jentillen erako 1389 urtetik, au da, oraingo erako 1351 urtetik. Geroztik, zoritxarrak jotako urteren baten ezik, etenbarik ospatu

izan dira jaiok. Lenengotan San Valerio ingurutan. Bertan egozan emengo burdin meatzik, rniñarik ugarienak. Ortik datorkio izena be bertako erreka txikiari: Miatzerreka.

Baiña argi bako denporetan olako tokietako jaiak beti eukiko eben zerbait. Ondoreneko zer esan ugari. Origaitik Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak, Ordizia'n batuta, onelako jai eta feriak erri barru inguruetara eroatea agindu eban 1727 urtean. Ordutik oraintsuarate, Beko Atadi inguruan egiten zan feria. 50 urte ez dira oraindik gaurko lekura aldatu zala.

Barruko erriak beti euki izan dabe kanpora urten bear edo premiña. Batez be industridun erriak. Gaurko bideak errezak dira, baiña eta antxiñako bide estu eta lurtsuak? Origaitik itxasertzera jo bear izaten eben, itxas bideen billa, errezagoe eta erosuago ziralako. Gaur be Mondragoe iñor baiño urduriago dabil bere bideen goraberetan.

Mondragoe'k euki eban zerbait Mutriku'gaz. Erri onetako portuko nasa eta rnullak egiteko dirua emon eban 1464 urtean. Mutrikuarrak, ordez, molla orreik erabilteko eskubidea emon eutsen mondragoitarrei eta bertan bizi ziran eta biziko diranei; sekula ezelako zerga edo dirurik ez kobrateko erabagia artu eta erakutsiz. Bizi guztirako, mundua mundu dan arterako.

Luzeak ziran gure asabak erabagiak artu eta eskintzak egiten.

Urte gitxitan barriztu da Mondragon. Baiña erri zarra argi igarten da oraindik. Gaur be erriaren biotza.

Or daukaz zutik bere iru ate nausiak. Bost izan zirala jakiña da, baiña Gazteluondo eta Olarte galdu ziran.

Gaur, ateririk zarrena, Zurginkantioia da. Izenak berak ez ete dau zerbait adierazoten? Ez burutu «sorginkantioia» lez, batzuk orrela deituarren. Izki edo letra batek indar andia dauka emen. Ziurrago da bertan egon eikezan zurgintza-toki edo aroztegietatik erabiltzea.

Beste atea, Portaleko, Beko Atadia. Berreun urte ei daukaz gaurko onek. Beronen arriak, ain zuzen be, Gazteluondokoarentzat egiñak ei ziran.

Irugarrena, monjen konbentu ondoan dagona, Iturrioz'koa.

Zurginkantoi aurrean dago Monterron jauregia. Ain zuzen be, jauregi eta portale, entzutetsu egin ziran 1816 urtean. Kantoi aretan il eben bertako kondea eta sekulako juzioetan ibilliarren, iltzallea nor zan jakiterik ez zan lortu.

Jauregi, palazio ederrak egon ziran eta oraindik dagoz bertan. Rezusta kalean gora, abadetxea baiño len, or dago, zaartzen, Artazubiaga. Irakatsi mamitsua bere eskudoan: «Gure odolekoen libertadea zaindu nairik errea».

Zetarako jarraitu etxeekin?

Mondragoe'ko lurraiaean larogei ikurdi, eskudo, gitxienez dagoz. Ainbeste batu zitun beñik-bein Guerra jakintsuak.

Etxe ederretan bat geiago, izentatzea merezi dau orraitik: Udaletxea, Erriko etxea. 1756-1766 urtetan egiña. Etxe onek ardauaren inpestoari zor dautso bere ederraren zerbait. Amar urtetan kobrateko baimena lortu eta ogei urtetan emoten jarraitu eben bertakoak, bere barrua dotoretu arte. Ardau zale dirala esaten da mondragoetararak. Baiña txikitotarako gerra ezagutu gendun urte asko ez dirala. Ardau egarriari aste luzetan eutsi al izan eutsen bertakoak, setatsu, tabernariak zerbait jaso ebela-ta.

Izakera osoko da bertakoa, karakter andiko. Lortuko ete dabe erbestetik datozan jentetzei izakera bardiñean eutsi eragitea?

Gizaldi onen asieran, eun bizilaguneko taberna bat egoan. Iru milla ta erdi bizi ziran, eta 35 taberna.

Gaur ogetabost milla ingurutan dabil erria; ortik atara mondragoitar jatorrak, arrasatetararak, zenbat izan leikezan. Bederatzi millara elduko ete dira? Or nunbaiten.

Ames larri eta zaratatsuak esnatzen zaitue gabetan? Ba dauke emen orretarako osakaia. Sartu parrokian. XIV gizaldikoa da. Txukuna. Gotikoa. Jo aurrera, eskumara. Antxe dago amandre baten gorputza. «Santa Ines amandrea» deitzen dautse. Ines Otalora zan bizitzan. Berari erreguz joaten diranak, berak aña lo egiten ei dabe. Goizeko kanpaiak jo arte. Onek, bai, esnatuko zaitue. Gipuzkoa'tik andien eta zaratatsuenak ementxe ei dagoz.

Arrain bat emon egiozu gizon bateri, eta bein jango dau.

Erakutsi egiozu arrantzan, eta bizi guztian jango dau.

Irakatsi onen asmo eta esan naietan dabil erri au. Orixe da Politeknikako Eskolaren elburua. Gaur gaurko diran elektronika eta automatigintzako eskutuak argitu eta jakin erazoten alegintzen da. Or ikusten da etorkizuna.


Sail onetan gaur Mondragoe erririk aurreratuenetariko lez jokatzen dabil, bizi bideak nundik jokatu bear daben ezaupide eta kontzientzia artuta dabilalako.

Guazen aurrera.

Mondragoe'n famili bakoitzak ba daki bere zeregiña nun dagoen: Lagun aroko langintzan.

Eztaikit pulpitorako bidean irakurri leikena bete dodan: Gitxi esan baiña ondo.

Zerbai ikasten da beintzat erri bakoitzean.



ASTEASU

Nai eta edari maitagarria eta paregabea izan, nai eta «gaitzik ez daben edaria» izan, arrera gitxi egiten dausat sagardauari. Zetarako besterik esan?

Mik beintzat, edari au dala ta, ezin kantatu bertsolariagaz:

Eranago ta berriz naiago,
 beti nago egarriyak,
 begi bitarte txarrikan ez dit
 egiten tabernariyak;
 emeretzi len, au ogeigarren,
 amar atzo zor utziyak,
 markak kapelan egin, jaiean
 pagatatzeko guziyak.

Eun eta amalau urte daukez Artola'ren bertso orreik.

Ez nua sagarduaren aurka be. Ez dot esango, nire aldetik, Bordele'ko juez batek esan eban lez, Euskalerriko pekatu guztiak sagarretik edo sagarraren «mama goxotik» datozala. Onetan Eba'ren pekatua eta euskaldunena alkartu eta bardinduz barrabastu nairik.

Eta berak, Pierre Lancre zanak, edozenbat euskaldun sutan erretera epaitu zitun, sorginkeriz beteta ebiltzala-ta, sagarretik datorren sagarduaren ondorenetatik. Iru gizaldi ba dira ori zala.

Asteasu'ra etorri aurretik Busca Isusi'ren liburu bat irakurri nai izan dot-primum vivere-, emen zer egon ete leiken aurrez jakiteko. Ta berak au diño: «bertako sagardau ontsuakaitik asko eza gutzen dan tokia dala Asteasu».

Beste zerbait billatzen alegindu nadin.

Zarautz eta Orio bitartean, gain gaiñean, Aya'ra duan bidea artu. Ezin arin ibilli, errebera asko dagozalako alkarren jarraian. Pa-goeta mendiak aurrean. Aya. Probalarien erria. Eleiza ederra eta bere ormak aiñako plaza aurrean. Taberna dotoreak. Beste baten geldituko gara Aya onetan. Guazen aurrera. Andazarrate. Osasun toki. Asteasu'n lurretan sartu gara. Gelditu barik jo oraindik aurre-ra. Laga Larraul egal baten. Baiña merezi ete dau Larraul erritxoak ikusi barik lagatea?

Bein, Vigo aldean nebillela, Portugal'era joatea bururatu ya-tan. Puentearea'tik zear, orra laster Tuy.

Ikusgarri baiño oargarri eta jakingarri geiago da erritxo au. Gotiko jatorreko katedrala. Eleiz aurre ikusgarria. Greziatarrak sor-tua ei da erria. Gero, errometarren denporetan, Braga'ko monas-tegian menpeko. Arabitarrek be bizi ziran bertan, Alfonso l'k men-detu arte. Portugalarrak be iru bidar euki eben euren menpean. Eta azkenean, 1808-1809 urtetan, frantzetarrek egon ziran ber-tan nausi. Zer dauka berak galizitarrenik?

Goazen aurrera.

Katedral ori ikusten nengoala, ni euskalduna nitzala kontura-tzean, andik igarotako euskaldun batzuen barri emon eusten. Orra euren artean, bere ordenako deituraz, Tolosa'ko Fray Frantzizko. Orain 370 urte ango gotzain izan zan. Geroago jakin dot Larraul onetako Anzola baserrian jaioa zala.

Larraul. 232 bizi-lagun. 31 baserri. Bi ezik beste guztiak bizi diranen jaubetasuneko.

Erri eta eleiz oitura zarrei bete-betean lotuta jarraitzen daben erria dala esan dauste.

Eleiza eta kontseju etxea. Orra bere etxe andiak. Zati bakarre-ko eleiza. San Esteban zaindari. Baiña ainbat irudi ikusten dira in-guruan. Gaur ez dago bertan abaderik. Alkiza'koa etorten ei da geienetan.

Eskoletxe bat. Ostatu bat. Bertan erriko telefono bakarra. Ori bai, automatikoa.

Larraul'era joateko noiz ete da egun egokia, itaundu dautzat bateri.

-Galdetu al dezu gaur ba ete dan edo ez?

Orra erantzuna. Baiña olgeta-benetan, jardunean, «tripa bes-ta» egunean, bertako konbidadutza egunean joateko esan dauste. Dagonilla'ren 24'an. Egun orretan Larraul'en jatorria daukenak, dan-ak joaten ei dira batez be Esteban donearen bedeinkasiñoa umiei artu eragiten. Eta origaitik, onespen onak artuta, zuzen ibiltan di-ralako, iñoz ez ei da konturatzen munduan larrauldarik bizi danik. Eta bizi dira. Ba dauke inguruetan ezaugarri bat be: Larraul, taba-ko erretzalleak. Ala esaten da.

Aurrera nua.

Aita larramendi'ren esanak gogoratzen: «Ernio'ren maldatan, Asteasu'ri begira, Leiza edo koba asko dagoz eta euretan illen kalibera asko ikusten dira».

Larraul'dik Asteasu'ra laster egiten da. Asteasu, Sorabilla eta Larraul, sasoi baten, Aiztondo'ko alkatetza nausi baten alkartuta bizi ziran. Gaur, Sorabilla, Andoain'egaz batuta dago.

Goietan nabillela Santa Marina «Santamaña» eleizatxoa ikusten da. Amets gaiztoak, amets bildurgarriak egiten ba dozuz, emen dago erremedixua. Aldare egalean dagon zuloan burua sartu, kredo bat errezatu, eta kittu. Egin lo nasai. Fede bizia emoten dautse ingurutan oitura eta siniskera orreri.

Asteasu'n sartu ta iru arkodun Erri-etxe jatorra billatzen da aurrez aurre. Gorago esan dodan iru errien alkatetza nausia erhen batzenzalako, erri bakoitzaren omenez jasoak ei dira arko erreik. Balkoe galantak, batez be goikoa, etxearen zabalaren besteko.

Erri garbia da Asteasu. Ba dira inguruetatik tokirik politena au dala diñoenak. Kaleen izenak gogoratzen nabil: Kale undia, Errege kalea, Zillar-kalea... Zidargiñak egon ziranaren oroitza eta testigantza?

Parrokia Elemendi edo Elizmendi ballaran dago. San Pedro'ren omenez. Antxieta'rena ete da bere irudia? Ala diño. Pitxi bat: bataiotarako ur bedeinkatu ontzia, XIII gizaldikoa.

Etxe ederrak, garbiak, kalean. Baserriak be garbi ikusten dira kaletik laster eta inguruetan. Ba dira eun Elemendi, Erreka, Beko, Goiko eta Uparan balleretan. Danetara be 1.500 bizi-lagun.

Eskoletxe bat, bederatzi leku edo klasegaz, lenengo irakas-kintzan. Beste ikastaroetarako, Tolosa ez dago urrun.

Erriko plazan, bertsolarien oroitza: Pello Errota'ren irudi, bere soin-enborra.

Bein, Donosti'ko teatro baten, itaun au egin ei eutsen: Pello Errota, aspaldi ontan, zer modu bizitzen zera? Eta berak:

Larru gorrian jaio nintzan da
ez det aberastasunik,
nigaitik ez du iñok esango
kaballerua naizenik,
gure Jainkuak gau eta egun
ez dit plata osasunik,
tamaña onetan naizen artian
ez daukat estutasunik.

Ataraldi andidun bertsolaria izan zan Pello Errota au. Goiko Errotan jaio zan 1840 urtean. Gaur bere baserriari, Pello Errota deitzen dautse. Ez zan Pello bakarrik bertsolari izan anai artean. Juan Kruz, anaietatik gaztena be bertsolari izan zan, bai eta Sabi-

na bere arreba be. Eta oraindik bizi da «Ondartza» baserrian bere illoba bertsolari bat: Kortajarena. Asteasutarrak ziran baita «Zakarra» eta «Aumerri». «Aumerri» edo Aranburu berri au ez eben begiko mikeleteak. Bertso paperak saltzen ibilten zan eta beti berdeak, pikanteak. Mutilzar traketsa. Il zanean, bertso paperakin ataratako amairu milla peseta laga ei zitun Mikeleteak zenbat eta estuago artu eta berak ainbat ariñago saldu.

Asteasu'n egon ziran bertso paper saltzalle geiago be. «Intxutarrak».

Zoritxar aundia euki eben famili onetakuak. Ikusbide, bista onagaz jaio eta gaztetasunera eldutean, sasoi onera eltzean, ikuspidea galdu eta itsu geratu. Ortik etorkien deitura ori. Gaurko itsuen kupoiari aurrea artuz, bertso paperak saltzen ataraten eben bizitzarako laguntasuna.

Familia osua
iru itsu triste,
alkarri laguntzeko
falta degu biste;
zeñek bein aditu du
beste onenbeste?
miserableokgatik
erruki zaitezte.

Lengusu bat be euki eben itsututa.

Gertaera arrigarria erri txiki baterako! Eta eurak biziari irri egi-ten be jakin eben. Erriko tanboliñak izan ziran. Aita eta iru semek, danakitsuak, batera joten eben soiñua erriko plazan gaztediak dantzatu egian. Kuadru ederra!

Bidezko zan ba Asteasu'ko plazan bertsolaritzari omen bat egitea. Ortarako Pello Errota aukeratu danen maixu. Txirrita'k esana gogoratzeko da: Pello Errota bezelako bertsolaririk ez zala izan bein gabeko amabiakjo ezkeru.


Asteasu erri aberatsa da. Bizi moduari neurria artuta daukan erria. Lanari lotuta, baiña ziur. Baserri eta industri, bietako lana dago eta bietara jarduten dabe bertakoak.

Euki izan dabe arro fama be. Origaitik, esaera da, emengo kanpaiak ingurutakoak zirikatzen joten ebela, itanduz: Dirua nun? Eta alkizatarrak erantzun be bai, enbidoa artuz: Dirua nun? Lete'n eta Peru'n. Alkiza'ko baserriak dira biak. Lete'k da dauka armarri edo eskudoa be.

Nire esan-bearrekoetan izen batzuk galditzen yataz: Lizardi mixiolaria. Peru'ko indioak il eben 1735 urtean. Santutzat dauke emen. Sakristian dagoz bere oroitzak.

Eta XVI gizaldiko argin entzutetsuak: Lizarraga bi eta Gargartzaga beintzat. Eta Txomin Goroa, santugiña, ainbat irudi onen egillea. Eta Zaldua bat, erri askotako eleizen arkitektoa. Beste ara-

zoetan, Iraola bat, uztargille entzuna.
Onetan laga bear izenak bakarrik esanda.
Baiña Asteasu'tik, benetan be, sagardaurik esan barik?
Ez. Egin dogu guretxoa. Nik be edan neike gaur:
Gaitzik ez duben erari orri
gogoz ein diot nik ekin...



ATAUN

«Gizon bat ba zen miñez zagoztenak sendatzen ibiltzen zena, eta gau batian gillenak jo zioten atia. Esantzion ia joango zan eri bat sendatzera. Esantziyon baietz, eta joantzen mina-zulora...»

Ba dago orrela asten dan ipuin bat gure erriaren esaera eta kontuetan. Nik agertu-alako au Nikolas Alzola, Berriotxoana Anaiak, batu eban, era orretan, Bidaso-aldean.

Ipuin ori egi biurtu leike gure erriaren jakintzan, aldaketa laburrez:

Gillenak = euskaldunak.

Sendatzen ibiltzen dana = J.M. Barandiaran.

Eri dagona = Euskalerrria.

Ipuinak jarraitzen dau:

«Ein-tziyon eriyari egin bear-tziyona. pagatu zuten ondo...»

Bein onera ezkerio ixildu egin bear naz. Egin nai nuen alkarta-sunik ezin osotu. Ipuina aldatzen asi bear. Esker txarrez pagatu bai zioten egiazko sendatzalleari. Ez al da egia?

Ixildu nadin. Gaur biotzeko omen ixillak, barru-barruko ezau-pide eta makurpenak, zintzo eta egitsuago dira azaleko eta kanpoederreko irristadak baiño.

Ataun.

Joko al dogu aterik gure sendalarien etxean?

Ezpaian nago. Baiña goazen aurrera. Laga daiogurt on Joxe Miel'eri ikasten eta ikusten. Bere urteen omenaldirik onena ikasteko denporarik ez kentzea ei da.

Agur ta erdi!

Agauntza eta Aitxu, Alleko eta Arantzazumendi, Irumugaeta eta Intsasburu, Leizari eta Markorburu eta ainbat mendien oin eta gibeletan dago Ataun jentillak bertan bizi aurretik eta gero.
Ate aunditik sartu gaitezan Ataun onetan.

Lazkao'tik gora laster sartzen da Ataun'en.
Nun dago Ataun?

Bidean etxe banakak eta erria gero etorriko dalakoan, aurrera jo ta Naparroan. Bideak eginda, ori bai. 84 kilometro lautu daukaz bere lez Ataun'ek. Azpeiti'n urrengo, Gipuzkoa'tik andien.

San Martin, erri buru lez, San Gregorio bigarren auzo, lengoaren erdi, eta geroago Aia. Azken au txikiena, bai zabalena be, ikuspegiz. beste auzo txikiagoak lengo oneitan sartzen dirala: Ala Astigarraga, Arinberriaga, Arrondo, Arratekale, Elbarrena, Ergone eta Ugaldekarrika. Bosteun famili? Or nunbait.

Eskudo edo arma-arridun etxe bi bere ia 1 50 baserri etxeren artean: Lazkanotegi eta Zubikoeta.

Nire aldetik itaun au egitea deritxat: Ez ete dau merezi «Perune Zarra» etxeak Euskalerrriaren izeneko ikurdi edo eskudo bat?

Eleizak: San Gregorio, zarrena, Naparroa'ko bideko gaztelu zarren bat aukeratu ete zan eleiza au egiteko?

San Martin, XVI gizaldikoa. Aldare andi ta ontsu bat bertan, irudi ederrez.

Aya'n dagona, oraintsukoa da. Erre egin zan lengoa eta gizaldi onen asieran egin zan gaur dagona. Beraz oraindik barria, gure egunetakoa.

Kaleak? Bide nausiari berea laga eta emon berari oraindik kalien izate erdi eta or Ataungo kaleak.

Esateko industririk ez.

Lanerako gai diranak eta lanetik bizi bear dabenak egunero joan bear izaten dira Beasain, legazpi, Olaberri edo ta Lazkao'ra eta inguruetara.

Iru milla bizilagunik ez dauka. Azken eun urte oneitan gorabera andi barik. Bosteunek lan egiten dabe esandako lekuetan.

Muga erriak: Lazkao, Zaldibi, Idiazabal eta Naparroa.

Bere erdian, geroago Oria errekan galtzen dan Agauntza'ren urak.

Ataun'en asi ziran jentilleak kristiñauen aurrean makurtzen.

Eta ez ain zuzen be maitasunaren bigunkeriz, errementari baten sutako burdiñaren berotasun eta erretasunez baiño.

Oraindik igarten da Jentilbaltza nun egon zan.

Ango bat joan ei zan Lazkao'ra arro, bera lakorik iñor ba ete egoan-ka. berari atzamarririk okertu eragingo eutsanik ez egoala-

ta. Lazkao'ko errementari batek urten eutsan. Bere tenazak sutan gorri-gorri egin eta eurekin sudurretik oratu ta sudur-musturra moztu be bai. Orduntxe asi ei ziran Jentillak kristiñauak eurak baiño geiago zirala autortzen.

Orrelako kontu asko dagoz Ataun'en. Baiña Kismi'ren bildurrez (ala deitzen eutsen Ataungo jentilleak Kristo'ri) jentil orreik iges egin eben, euren leizak eta etxeak eta arri-arteak utsik lagata.

Gaur esakerak, kontuak eta ipuiñak, liburuetan batuta dagoz. Ezin esan gaur lenakoenik: Ataun'en eta Zegama'n egunez ikusi eta gauez eraman.

Ataun, Euskalerrarentzat, dei bat da. Bere jentillak eta bere lamiñak bere kantuak eta bere soñuak, bere ipuiñak eta bere kontuak, bere oiturak eta bere ekanduak, bere lana eta bere satsa, bere bizikera eta bere egikera, bere sinisteak eta bere fedeak, bere pizti eta bere egaztiak, bere mendi eta errekarateak... edozein euskal errietan egon izan ziran eta oraindik dagozan leku, baster, siniste eta esakerak dira. Beste edozein erriren bizikera bardiña dira.

Ilkor batzuetan, oartu barik bestetan, azalean batzuetan, kolkoan bestetan, baiña or dagoz. Esnatzalle bat falta, konturatzalle bat, kontzientzi jabedun bat, erri maitale bat.

Erri baten istori guztia ezin lei gatza emonda laga. Aurrerapi-dea da bat eta ezaupidea bestea. Ukatu eziña, nai ta beatz puntetan dantzan biziro egiten ebenak bizia izan edo orpo-gañetan saltoka diarduenak bastertua izan.

Ama lurra ama-lur da beti, atek egiteko burdiñazko zimenduak sartu, edo ta zementuzkoak, edo ta arlanduz egiñak edo ta egurrez lotuak. Onetan Ataundik irakaspide zur bat emon dauskue. Begiak zabaltzen erakutsi.

Zegama aldeko euskera egiten da Ataun'en. Zegama aldeko bizikera be bai. Inguru oneitan euken mikeleteak euren abia. Bide konpontzalle eta zaintzalleak be bai, kamiñeruak be bai.

Erri euskalduna, oso osorik? Uste gabeko albistea izan da niretzat oneri buruz emon dausten erantzuna: la euneko ogeiren baimenagaz. Au da, Ataun'en lauren lagunera urreratuko ei dira ez dakienak. Ez dot uste mikelete eta kamiñeruak onetan errurik euki dabarik. Baiña egia or dago, garratz.

Ataun, denporetan, Ordizia'ko Billafranka'gaz batuta egon zan 1399 inguruetan. Gero Lazkana'ko jaunen menpe be ezagu-

tzen da. Or Lazkanotegi jauntasunak agertzen. 1615 urtean lortu eban erri izate osokoa, baiña gero be Beasain eta Idiazabal'egaz erdika ikusten da. Geroago Zaldibi eta Beasain berberagaz Atazal-bea deiturako alkartasunean batuta. Gaur lagunik onena norbera dala ta barriro bere kontu eta bere jaube eta ala biziteko nortasun txapel eske. Langilleen mesederik andiena gaur norbere etxean lana eukitea da. Baiña oraingoz olakorik ez da igarten emen, nai eta industriak ipinteko erako lurraldeak aukeran euki.


Ataun zoragarri!

Noiz sortua ete da berau? Noiz eta nun mugatu eta geinke bere sortzea?

Emengoak onela asten dabe ipuin bat: Lañoa eta euria eza-gutzen ez ziran garaien, eta gauerdiko intzez lurrak bustitzen ziran aldien...

Iño! Konturatzen ipuin onek noraño garoazan denporen denporetan? Eta orduan be, jakiña, ba ei zan Ataun, ipuiña emen gertatua zan-eta. Oraindik jentillak bertan bizi ziran. Geroagako ei zan Tartalo. Tartalo artzaiñen buru izan ei zan eta eurekin beti burruka. Eta ori ta gero be, Arrateta'n gora eroaten ei zituen burdian, erruberak lagatako urratsetan igarten dan lez. Orduan bideak egiteko Sugarra bat ezagutu ei eben emen Muskizearratik aitzak erdibitzen. Ementxe, Ataun'en.

Ortik igarri, Ataun'en, asierak nun billatu leikezan.



AZKOITI

Abarketak urratu ta zapatarik ez,
Bermeo'n gelditu nitzan oiñeko miñez.

Ala diño gure kantu zaar batek.

Eta abarketa barriak artzera nora joan ete leiken gaur? Eztakit bertan be len aiña egingo diran, baiña goazen Azkoiti'ra. Azkoitiarrak be urratu zituen abarketak. Irabazi gitxiko lanak ei ziran. gaur etorkizunik ez daukan industria. Baiña eurak, abarketak urratu arren, ez dira gelditu oiñeko miñez. Bide eta era barriak aukeratu ditue erriaren bizitzarako. Sasoiz. Len Azkoiti'tik urten egin bear izaten zan lan billa, ogi-bide billa. Gaur Azkoiti'ra asko joaten dira ogia irabaztera. Ori da sasoiz egiñiko aldakuntza baten emaitza.

Azkoiti or dago, lengo tokian. Izarraitz, bere 1.033 metrotatik len lez dago goietatik bere Azkoiti'ra begira. Baiña erriaren bizi bidea beste bat da gaur. Beste bat gerorako itxaropen eta ametsen bidea.

Ikus daigun Azkoiti.

Merezi ete dau izen zaarrei begiratzea? Azkoiti'k, lengo denporetan auki izan zitun beste izen batzuk be. Erri askori gertatu yakoen ori. Erriak zabaltzean, erriak irasi, fundatzen, askotan len eukana galdu eragin eta barri bat emon. Baiña askotan izen barriok dokumentuetan geratu ziran. Ez ziran erriaren deituretan sartu eta indartu. Azkoiti oneri be deitu izan eutsen Urazgoiti. Bai eta Iraurgi'ko San Martin be. Eta Iraurgi'ko Miranda. Egia au da, XV

garren gizalditik gero, emen batasun bat igarten dala deituran: Azkoiti.

Zer gertatuko ete zan Azkoiti'n, Gipuzkoa'ko obispadutza bertan ipiñi izan ba lebe?

Ez da gaurkoa edo oraintsukoa araso ori. Lauren eta geiago urte dira orren atzetik ibili zirala.

Sasoì aretan, Gipuzkoa'ko errialde batzuk, Baiona'ko gotzaiñaren menpeko ziran. Ala, esate baterako, Ondarrabi eta ingurutant egiten ziran erriak. Besteak, Donostiko inguruak legez, Iruña'ko obispadutzan sartzen ziran. Eta beste batzuk Calahorra'koaren menpean.

1511 urtean egin zan lenengo eskabidea Gipuzkoa'n bere obispadutza bat eratzeko. Baiña politika eta dirua egozan bitarteko, eskabide oneri indarra galdu eraziten. Eta aitzaki ori be ipiñi zan galerazo nairik.

Fernando errege katolikoa asarre ebillan Frantze'ko erregearekin. bai eta Naparroakoarekin be. Orrez gañera, sortu nai zan obispadutza barrirako izentatu gura ebana, bere idazkarietako bat zan, Joanes Agirre. Eta obispadu ori ornitzeko bearko zan dirutza, Azkoiti'ko eleizak eukazan ondasunetatik eta errentetatik sortuko zan. Ba egoan akats bat. Ain zuzen be errenta oneik, errege berberak, Fernando Balda'nekoari eskiñita eukazan eta ez urte bat edo batzuetarako, bizi zan arterako baiño.

Ikusten danez, bitarteko asko egozan obispadutza barro *orreñ* indarra artzen ez lagateko. Eta kaku edo akats orreikin asi ziran arazua, urte bi-irutan aizetu eta erabilli zan, baiña geroago, laster laga bertan bera jausten. Orrez gañera, urteak geroago, Aita Larramendi buru zala, Tolosa'ren alde agertu ziran iritzi batzuk eta Azkoiti'ko ori atzeratu.

Nai ez dala be, Azkoiti'n, gauza jator bat ikusi bear ba da, Konsejupea joan bear da. Erriko tokirik aitatu eta erritarrena. Konsejupea monumentu bat lez zaindu bear litzake. Arteak itxura ta gogoa bear dau, ekintza eta erriaren joera. Eta Azkoiti'n, emendik sortu izan da euskal arte baten eskola. Ezin ukatu pelota jokoa be artea danik. Konsejupe au izan da pelotaririk jatorrenen eskola. Guntzurrunak, giltz-urdiñak berotu eta biguntzeko tokirik eratsu eta egokiena ei da.

Emendik urtendako ertilariak Euskalerra guztian ezagunak izan dira. Izenak batzekotan, Azkoiti'ko Txikia eta Sustarra eta lagunetatik asi eta Atanotarrak naiku, Azkoiti'ko ikustaldi au beteteko. Eta ez doguz basterrean lagako Urzelai, Tapia, Etxaniz eta beste ainbat.

Laga daigun gaur pelota aidean. Betor besteren bat tantoa egiten. Bardin da dejadea edo errebotera bialtzea. Bardin atxiki edo besapetik. Eta bardin ezkerreko orma pelota moteldu edo zabalean txirristadan sakarik egiten laga barik ikusi eziñez labanean

tatarrez galdu eragin.

Kendu txapela pelota jokoari. Esatea lez, kendu txapela eta agurtu Azkoiti.

Diru iokoan ez gara sartzen. Euskaldun lapur burutsuak asmatu ei eben diru jotcoa pelotan. Ala esaten dakie azpitik nai goitik jokatu ta geienetan galtzen urteten dabenak. Jokoa ez da errenta. Ez eta azkoitiarren bizi-modua, nai eta inoiz bero agertu bazterretan, Azkoitiarrak, jokoan. Odolak ten egiten daki. Eta berotu.

Pelotarien erri bakarrik Azkoiti?

Bai eta bertsolariena be.

Bertsolari mordoia batu geinke Azkoitin. Bertsolari jator, akulari, alai, bizi, fedez bete-beteak. Kezkaz iosiak. Era guztietakoak. Gizon bete-bete eta zintzoak. Gogo eta odolez.

Ara batzuk:

Atanotarrak be ezagutzen dira bertsolarien artean. Bi bai beintzat: Juan eta Joxe Mari.

Juan Elortza: «Kortazar».

Joxe Mari Lete, «Estrada».

J. I. Odrizola «Sokin». Loiola'n jaio zan au, baiña bere jokeraz azkoitiar agertu.

Lorentzo Garate «Maltzeta».

J. Manuel Soraluze «Muno» eta Diego Soraluze, «Otsolarre», anaiak.

J. Mari Segurola «Uztarri», Urrestilla'n jaio, baiña azkoitiar bertsolarien eskolako.

Juan Mari Zubizarreta «Etxeberritxo».

Jose Manuel Lizarralde «Urkiolegi»

Patxi Garmendia «Laja»

Sebastian Etxaniz «Balentxi»

Geienen bertsuak gogoan dira oraindik. «Uztarri» laga, urte-betegaitik, eta besteak gure gizaldian illak.

Ezin ukatu batzuk basterren edo ixillean laga dodazanik. Ezin danak bat-batean gogoratu. Baiña askoren biotz eta gogoetan bizi dira.

Ez dot nai aitatu bizi danik. Jarrai begie biziak zintzo lanean, gure errietako kanposañtu ixillen baten arrizko kurutzearen itzatean, kerizpean sartu arte.

Azkoitiar bertsolarien txalo eta goraz, bertso bat esan daigun, euretariko batena. Ni itxasertzen jaioa naizenez, atsegin yataz itxastarrei egiñak. Eta barrukoak egiñak errespetu geiago eskatzen dabe.

Ara «Balentxi'ren bertsoa, arrantzaliei eskiña:

Lenbiziko bertsua arrantzaliena,
oieri tokatzen zaizte millaka pena,
denporale txarrakin deskiudatzen dana,
jente asko da ontzi ta guzti urpera juana;
mariñelen lana ondo ein al dana;
arraiazen fama daukate emana,
itxasua da mundu ontan printzipalena.

Azkoitiarren itxas alderako garra, tengadea, ez da

oraintsukoa.

Ikasaldi batzuk egitean konturatu nitzan nire erriari, Ondarru'ri, itxas ertzetik barik, mendi artetik etorri yakola indar barritzea; barruko errietatik. Itxasoa baiño neketsuago ete da mendia? Edo itxasoa mendia baiño onuratsu eta probetxu geiagoko?

Illetak joten astean, negar egiten, baserritarrak eta arrantza-leak estropada gogorra egingo leuke.

Baiña goazen istorira. Len esan dodanera jota. Ondarru'n ezagutzen diran abizen edo apellidu asko, gaur ugarrien diranak, Azkoiti'tik ara joanak dira. Albizu, Arzamendi, Joaristi eta Makibar, XVIII gizaldian, joan ziran.

Alberdi, Arambarri, Aresti, Argoitia, Arrizabalaga, Azpiazu, Badiola, Etxaniz, Irueta, Larreandia, Lete, Unanue eta Usobiaga, XVIII gizaldian.

Eta azken gizaldian Alkorta, Artetxe, Beristain, Izurrategi, Landa, eta Uzin.

Pelotariak eta bertsolariak aitatu eta musikolariak itxiltzea pekatu litzake.

Onetan be, musikalarien artean be, Azkoiti'k ba dauka bere nortasuna, eta jakiña, nortasun orretatik datorren entzute edo fama. Zeiñek esan abarketarien liñu eta espartsu eratze eta josteak, kortxea eta fusen puntu txikietara bat eroan leikienik?

Kantu kantari eta kontu kontari, izentatu daiguzan bu-larreko do, «do de pecho» bestiei emon eragin eutsen musikalari yayo ta ospatsuak, pentagrametan euren nortasun eta doñua laga ebenen izenak: Aldalur, Bizkargi, Etxaniz biak (Juan Mari eta Toribio), Otaño, Sudupe...

Azkoitiarren musika eta kantu zaletasun onek gu be kantari ipinten gaitu eta bestien aotik ba da be, pelotea aidean dabillala Konturatuta, Azkoiti goratzen daben bertso batzuk gogoratu daiguzan:

Gipuzkoaren zeru urdiñean
izar bat zegon lo gabe,
ain dizdilan ta irripartsu
etzan ikusi beñera.
Azkoiti berriz pozez gañezka
mille zoramenen jabe,
buru makurrez zion munduak
-gorengo mallan zu zaude-
zeure semeak egin zaiztu
pelotarien erregue.

Eta Basarri txapeldunagaz batean beste au be gogoratu eta eskiñi geinke Azkoiti'ri:

Izarraitz peko babes ez-titan
paketsu zauden txokoa,
esan liteke bertan sortua
dala pelota jokoa.
Zure izena urrezko letraz
nunaitan azaltzekoa.
Gipuzkoaren aipagarria
Azkoiti biotzekoa,

magal gozoan amaika seme
bulartsu azitakoa.

Eta oraindik be beste bat jaurti giñei. Au be Basarri gaz ba-
tean, berea da-ta:

Zure seme bat gure pelota
goi mallan jarri duena,
Euskalerriko plaza guztiak
jendez bete dituena.
Ogeitaka urtek kontrariorik
aintza artu etzuen
bere aurrean txapela erantziz
au da gure autormena,
amarengandik iñoiz sortu dan
pelotaririk onena!

Azkoitiar jator bat. Toledo'n il zan, ixil ixillean. Gaur galduta
dagon parroki baten. San Lorentzo izenekuan, irugarren mailla
edo klaseko illetak egiten ziarduan. Merkeenak, ildako berberaren
agindu eta borondateari jarraituz.

III-kajan, azkoitiar bat : Jose Franzizko Jaizkibel. Izkuntzalaria.
Bere etxean, sasoi aretan ezagutzen ziran liburu teknikorik onene-
tarikuak. Bere liburutegi eder ori Gipuzkoa'ko Aldundiari, Diputa-
siñoari laga eutsan gipuzkoarren mesedean. Liburu teknikoak eta
ainbat lan berak eginak. Bereak, geienak, euskereari buruz, onetan
kementsu eta alegintsu izan zalako. «Euskeratik erderara biurtze-
ko iztegia» eta abar. Azkoiti'k iakin eban bere seme oneri eskerrak
eskintzen: or dauka bere izeneko kalet bat.

Eta merezi dau gure omen bat Francisco Xabier Munibe eta
Idiakez azkoitiarrak. Peñafiorida'ko kondea, zortzigarrena. Jakin-
tza sail askotan saiatu zan. Real Sociedad Vascongada de los
Amigos del Pais'en sortzallea.

Ezin geinke asko luzatu. Eta ainbat azkoitiar jator lagaten da-
guz aitatu barik.


Orain be beste bertso bat gogoratu dagigun «Basarri» rena
au be eta beragaz Azkoiti'ri agur egin gaurkoz beintzat:

Jakinduriak Azkoiti zuan
seaska maitagarria,
zuen txokotik zabaldu bai zan
illunetara argia.
Len zer ziñaten gogoratuaz
urratu bedi berriä,
ongi merezi duena da ta
maita zazute erria.

Eta parkatu, baiña oraindik be beste bat agertu giñei:

Azkoitiko erria, bero bidean
aurrera eta aurrera,
zer aldakuntzak artu dituzun
egun batetik bestera.
Denpora gutiz ainbesteraño
azi eta edertu zera,
nik ez dakit zer izango zeran
emendik ogei urtera.

Agur.



AZPEITI

Azpeiti'n bizia naiz.

Donosti'ko Ondarreta'n illabete egin ondoren, goizalde baten Azpeiti'ko kartzelara adatu ninduen 1938 urteko Gabon-illean, Abenduan.

Gabonak Azpeiti'n.

Ez gendun gaztaña errien txipli-txaplarik entzun. Abestu bai, erdi negarti, «Txeru kartzelan dago» damia kanpuan...»

Nik, orduan, damarik be ez neukan maitasunak zabaltzeko.

Naiku gendun ango zaindariari, Ramos andiari, ondo esan eta ondo egitea. Ori bai. Lagunartean lez bizi izan giñan an egon giñan amar amabi lagunok.

Gero jakin neban «kanje» bat egitekotan batu ginduezala an. Egia. Egun batzuk geroago, Urtarrilla'ren 4'an, Irun'go zubian laga genduezan bederatzi izparkaritzako. Gure ordeZ Zaragoza'ko beste bederatzi azkatu ziran. Azkatasun a «Eguna» egunkariari zor dauzat. Euskaldun askok jakin be ez dakie izen orrekin Bilbo'n eguneroko bat agertzen zala euskera utsean. Beraz Azpeiti'n bizia naiz. Illunpean. Giltzapean.

Donosti'ko Ondarreta'n nengoala, azpeitiar jator bat ezagutu neban. Ezin bere izenik gogoratu. Min daukat.

Egun osoa bere emazte eta umien argazkiari begira igaroten eban. Eta negar egin mara-mara.

Zer da gure pekatu? esaten neutsan.

Sekula iñori kalterik egin ba dautsat, ari galdetu, erantzuten ekian.

Gixarajoa! Nok esan gizon mardul a ain biotz bigun zanik?

Gerrako lenengo denporetan, lenengotako naste ta bildurretan, deitu eutsen, eta pusil andi bat emon ondoren, Loyola'ko bide kurutzean ipiñi, kotxiei agiriak, dokumentuak eskatzen. Loiola'n sartu zan milizianoen lenengo taldeko zan.

Bete betean esaten ekian: Sekula ez neban iñor gogortu nire zeregiñean. ezta estutu be. Agiriak eskatu, begiratu, luzeak ba ziran denpora geitxoagoan euki ta, ala, zoaz aurrera.

Beti orrelaxe.

Zer egingo eban besterik, irakurten, edo berak esaten ekian lez, «letzen» be ez ekian eta?

Azpeiti'n sartzean, Loiola'gaz gogoratzen da bat.

«Begiratu Loiola'ri,
triste dagola dirudi...»

Ez dira oraingoak bertso oneik.

1 868 egiañak dira, orain eun urte baiño geiago, jesuitak kanporá bialdu ondoren. Segurutik «Uztarri» bertsolarienak.

Gaur... Ez al dabe gaurko balio eurak?

Irakurri:

«Begiratu Loiola'ri,
triste dagola diruri;
beti limosnak eiten ai ziran,
ezer ez kendu iñori;
sermoi ederrak ugari
eiten zizkiguten guri;
orain ez dira ageri!»

Jesuitak barruan dagoz. Baiña giroko problema asko. Giroaren ondoren larri ugari euren artean.

Len arriak itzala emoten eben. Itzal geiegi. Gaur arriak otz dagoz. Otz.

Loiolatarrak santu bat emon eutsen Azpeiti'ri.

Baiña ez ziran eurak beti santu santu izan.

Denporaren otseiñak.

Gizona eta bere inguruak, esaten da. Bere denporak.

Iñigo'ren denporak lizun eta arrokerien mendean egozan. Itsukerizko egunak. Jauntxoen giroa.

Loiolatarren Martin, Araoz'ko Malen'ekin ezkondu zanean, giro ori zan nausi.

«Neskatil ederra zan
Araoz'ko Malen

Martin'ek beretzako
artu zun garaien.
Ikasi ba du egik
bat beintzat aztuna,
Loyola'ko jauregiak
ba dula lizuna!»

Eneko, Iñigo, Iñazio?
Ara beste kaku bat.

Eneko izen bat da. Ez dau zer ikusirik Inazio'kin.

Napar erregeen artean Eneko batzuk ezagutu ziran. Bizkaiko Jaunen artean ere bai. Oña'ko abade nagusi bat be egon zan izen orrekin eta santutzat artu. Bagilla'ren 1'an ospatutzen da bere eguna.

Eta Loyolakoak zer?

Iñigo ei zan lenengotan. Eta Itali'ra eldu zanean, izen orren orde, kristautasunean Iñazio zabalago eta entzunago zalako, azken au artu ta erabilli. Antiokia'ko Iñazio zan garai aretako eruedetako bat.

Eritzi au agertzen dau Aíta Zavala'k
Azpeitiarrak zer?

Iñazio Iñaki'n aukeratu zan. Eneko, Enekoz, bere tokian gera^tu. Loiolatarren baimenagaz.

Zein gogoratzen da gaur Altuna, Barrenolak, Errasti, Ibarluze, Igaratz, Malkorrek eta Ugarte burdintegiekin?

Urrestilla inguruan egozan ainbat.

Len aitatuak or egozan Azpeiti'n orain gizaldi bi. «Malkorrek», Nikolas Altuna'ren ardurapean, bi milla ta eun kintal burdin urtean erabiltzen zituana zan. Gipuzkoa'tik andienetakoena; irugarren nunbait. Besteak milla kintal inguru erabilten ziñuen urtean.

Azpeiti zan langintza orren burua.

Gaur, Azpeiti'n, íresnagintzara jo dabe, mueble gintzara. Gaurko teknikaz eta gaurko arduretan. Lantegiak ugaritzen, anditzen igarten dira. Inguruetatik ainbat langille bertaratzen dira egunero. Egunero, berreundik gora, Zeztua, Errezil eta ingurutatik.

Nuarbe eta Urrestilla'n otzaragiñan jarraitzen dabe oraindik, nai ta gero ta gitxiago. Ezagunak dira erbestean ango «baskets»ak.

Azpeiti'koak erri ta giro guztietako dira, «internazionalak». Jokera askotako.

-Ondo?

-Uste baiño obeto, erantzuna artu dot gaur bertan.

Azpeiti'n, oraintsurarte, dantzan egiten zan edo ez. Erri dantzaria izanarren, ezin beti bere naia bete.

Luzarotako polemika izan zan dantza lotua pekatu zan edo ez. Erri askotakoa.

Ez al zan iñoiz aureskua bera gaiztetsi ta lizuntzat etsi, neska ta mutillak alkarri eskua emonda ibilten ziralako, eta ortik zapia, pañelua emonda ibiltea sortu?

Azpeiti'k galerazita eukan pekaturako bidea: galerazita erriko plazan dantza lotuan egitea. Eskutuko «presioñoiak».

Baiña azpeitiarrak zezen zaleak izan, eta or urteten ziran erriz erriz, dantzan egin nairik.

Zapukeria? To! Ez al dautse azpeitiarrei «xapuak» deitzen?

Eta soltean ere...

Zein erritan ez da kantu au gogoratzen?

«Azpeiti'ko neskatxak,
gona gorriekin,
ez dute dantzatu nai
txapel txurriekin.
Ai, ai, ai mutillak
txapel gorriekin!
Ai, ai, ai neskatxak
gona gorriekin!

lñaki deunaren erretratu bat egitekotan, ara nirea, amar itze-
tan:

Umetan: Xapu. Gaztetan: Sator.

Arevalo'n: Lizun.

Iruña'n: Arro.

Arantzazu'n: Arlote.

Manresa'n: Makur.

Paris'en: Apostolu.

Montmartre'n: Mistiku.

Erroma'n: Santu.

Gogo jardunetan: Maixu.

1394 urtean azpeitiarrak ez eben nai izan euren erretoretzat, bikariotzat, Pelegrin Gomez izeneko bat. Eta Martin Zalba'k, Aita Santuaren eskubidez, 40 lagun eskomikatu, eskomulgatu zitun.

Onezkeron nik dakidan bateri urten dautso: Yesuitakeria!

Kontuz. Oraindik lñigo jaioteko ba zan, nun ete ziran yesui-
tak?

Alderdi bat edo bestetik begiratuta, inguruko mendietatik ikusita, zoragarri da Azpeitiko baserrien ikuskizuna. Baserriari eta baserritarrei omenaldi bat egitea eskatzen dau Azpeiti'k. Eta ain zuzen be bertan.

Emen, Azpeiti'n ete dago Gipuzkoa'tik baserririk zarrena?

Ba dira Urrestilla ballerak Eizagirre izan leikena diñoenak. An dago beintzat, bere ormetan, 1090 urtean Pedro I erregeak baserri onen sortzalle izan zan Pedro Eizagirre'ri emondako arma-arría, eskudoa. Etxe jaun au, beste euskaldun batzuen buru lez, moroen aurka joan zan Nabarra eta Aragoi'ko lurretara eta an, Alkoraz'en, il ei eben moroen buruzagia.

Beraz Azpeiti'n, San Iñaxio baiño laureun urte inguru aurretik kantatu zainkean azpeitiar bategaitik: «armetan jarria dauka konpañia...»

Eizagirre au eta Antxieta baserriak, biak Urrestilla'ko balleran, dira ain zuzen be emen arma-arría dauken baserri etxe bakarrak. Beraz laborari ixillak, etxeari lotuak dira azpeitiarrak.

Orrez gaiñera, azpeitiarrak dira gaur gaurkoz baserriari geien eusten diarduenak, baserriari lotuenak, tradizionalistenak. Baserri-rik gitxien emen ustú dira.

Gaur, Azpeiti'n, 355 famili bizí dira baserritar lez. Gipuzkoa'tik geien? Ez.

Donosti lagata, Donosti'n ingurutako erri txiki asko sartzén diralako gaur, Astigarraga, Alza, Igeldo, Ibaeta, Loiola, Zubieta eta abar, baserri etxerik geien daukan erria Oiartzun da. Baiña Oiartzun'en Azpeiti'n lako iru bidar geiago ustú dira baserriak azken urtetan, eta Oñate eta Bergara'n be geiago.

Azpeiti'n, ba, goratu daigun baserria. Enbeita'ren bertsuak daktorkidaz burura:

Uzparitxa'ko auzunetxua,
neure jaiotza lekua,
amaika aldiz zure altzuan
egin dot amets gozua;
geruago ta geiau maite dot
neu jaio nintzan txokua,
maiteko ez ba neu izango nintzan
zentzunik bako burua.

Arotzaren etxean mallua falta.

Abeslari gara euskaldunak. Kanean eta eleizetan. Zegaitik ez ete gendun aintzat artu Joanes Antxieta bat gure eleizetan, kantuetarako, eta bai, esate baterako, Palestrina, Victoria eta beste polifoniko maixuak?

Len esandakoak baiño aurretiagoko zan Antxieta. Eta maixu ona. Irudimen oneko musikalaria. Loiola'ko Iñaxio'ren osaba, gaiñera. Aita Donosti batek esaten ekian Antxieta'ren musikaren

esan naia, erakutsia, lege oneko eta oargarria zala, interesgarria. Baiña euskal organistak eta koroetako zuzendariak toki gitxi emon eutsen. Zegaitik?

Ba dira esaten dakienak, euskal musikariak, euren ama-lurretik urtenda, ez ebela jakiten euren kutsurik zaindu eta jarraitzen.

Barbieri'ren «Cancionero»an ezagutzen diran Antxieta'ren lau euskal melodiakaitik Gaskue'k esaten ekian, baten be ez ebala igarten gure kantuen aztarrenik, Bardintsu esaten da Eslava gaitik be. Ez ete egoan euren garaian gure musika berezirik eta jatorrik, edo ta ez ete eben eurak ezagutzen?

Gaur azpeitiarrak bere izena goratu naian dabiltz. Altuna musikari urduria or ikusten da, soiñu eta kantu, azpeitiar jator aren izena goratu eta zabalitzen.

Artea Azpeiti'n?

Beobide zumaiaarrak bere kutsua laga eban, ezpai barik, erriko parrokkiko aldare nagusiko Done-Sebasten'en irudian. Aldare barrokoak irudien kutsu eta nortasuna galtzen dabela? Artista andi zan Beobide bere eskurik ez igarteko. Marigorta baten lanak be ikusten dira burdiña landuan. Eta Larrea'ren irudiak ezagutu.

Kanpotik, aurrean. Iberotarren lana zabal dago. Loyola'ko eleizan lez. Eta etxe doneko barrua, Loiolatarren etxeko barrua?

Adiskide batek esaten ekian nobizio baten goitik berako iza-kerak, espirituak, arte geiago erakusten eutsala, etxe santuko kapilletako aberastasunak baiño.

Kalean or dago Antxieta berberak egiteko agindu eban etxea be, gaur barriztuta.

Beste arte bat, jatunena. Ortega y Casset zanak esaten ekian, aragirik onen eta obetoen erretakoa emen jaten ei da. Filosofo ona baizen aragi zale amorratua ei zan jakintsu ori.

Azpeiti'n, gain gaiñetik, Loiola'ren itzala igarten da; Loiola ikusten da. Eta Loiola'n, etxea, gizona eta fedea.

Euskaldunen txikikeriak geientsu, zabal eta gordiñen, torre zarretan ezagutzen ei ziran, jauntxoan denporetan, oñaztar eta ganboatarrak euki zituen itsukerietan. Origaitik eskutatatu ete eben jesuitak loiolatarren etxe moztu, eratsi eta iraindua, etxe zabalago baten barruan?

Gizonak, Loiola eta loiolatarrak, etxe onen zoritxarretan ez ete ziran gizondu eta bere nabarmentasunetan naskatu?

Jakiña da Loiola'k, munduz zear, erítzi asko eragin ditula. Alde eta aurka. Askok esaten dakie Loiola'k ez dabela paper onik euki munduz zear. Loiola'ko gogo eta espirituaren sortzallea.

Iñaki, nai Eneko, nai Iñaxio edo Iñigo deitu, gogorra ei zan. Beretar itsua. Ardauari ardau eta urari ur.

Maite ete eben azpeitiarrak Loiola'ren izena iñok baiño zabalago erakutsi nai ebanaren izakera? Sasoian sasoiko, ez dira danak zuri ez eta urdin be gai onetan.

Goazen bestera. Maite ete eban Eneko'k, edo ta begi onez ikusten Azpeiti?

Artetxe azpeitiarraren esanetan, asko. Erritar baten lore eta esakera argalegiak? Artetxe gizon osotzat daukat. Ba ekian enbido zitalak jaurtitzen. Bere esanetan, Loiola'k ba ei ekian lagunak egiten. Gizona ei zan orretan, berak aiña eta obeagoak gitxik euki ei ditue.

Guk, euskaldunok, fede bateri lotuta, bere jokabideak alboan lagaten jakin gendun. Bere lurreko naikeri eta jokabideak basteurrean lagaten jakin gendun, eta espirituari begiratuta, fedearen sentimenetan, ez geuntsan ukatu gure omenik, biotz onez eta ugaritasunez eta makurtasun betez oparo eskiñi baiño. Luzaro kantatu izango dogu arrokeriz, eta oraindik be setatsu jarraitzen dogu kantatzen.

«Gure patroï aundia...»

Zelan deitu ete zan erri au gizaldien gizaldietan? Lenengotan Garmendia; geroago Iraurgi'ko Salvatierra; geroago Urazbeitia eta azkenez Azpeiti. Bai eta Aizpeitia edo ta Azpeitia be. Cervantes'en Quijote sarri billatu zan bere bidean Azpeiti'ko Sancho'gaz. Eta azpeitiar Santxo a zelako umore eta giroz ibilten zan ikusteko, irakurri «El Quijote»n: «...decía el vizcaíno en sus mal trabadas razones, que si no le dejaba acabar su batalla, que él-mismo había de matar a su ama y a toda la gente que se le estorbaba».

Ikusten da, azpeitiarrak era batera nai bestera deitu, ba eukela bereziki erakusten ekien izakera edo nortasun betea be.

Azpeiti baserriari lotuta bizi arren, ez uste oituretan eta bizikeran aldatu ez danik.

Inguru guztietan lantegi barriak igarten dira. Lantegi egoki eta zabalak. Len, Azpeiti'n, Gipuzkoa'tik burdintegirik geien batzen ziran, batez be Urrestilla ingurutan.

1766 urteko matxiñada sortu zanean, ango matxinoei erru asko emon eutsen. Naste-zale ei ziran, biurri, gaizto. Baiña orduko krisisa be gogorra izan zala ba dakigu, XVI eta XVII gizaldiak urretsu edo aberats izan ba ziran be. «Komunista» areik, lanak esutzen zitun denporetan, goizeko ordu bietarako asten ziran lanean, egun guztian jarraitzeko. Eta a ta guzti be, barruko bakea eukiten ei eben tartetan eta goizaldean nai eguerditan otoitzean jarduteko. Ori bai, jai erdikak be jai eta iñoiz, askotan, astelen luzea. Lanaren astuntasunak jota, atsedena luzatu bear sarri.

Gaur? Burdinkiak laga eta egurrari eutsi ta etxe-tresnetan

diardu erri onek.


Eta beste oiturak? Ortan beste edozein erriren parean, gaurko legean. Etxetako oiturak, kalekoak, lanekoak eta jolasekoak gaurko giroan.

Nik nai neuke jakin, gaur, jaietan, erromeria amaitzean an gertatu leiken poetaren batek, bertso au izenpetu edo firmatuko ete leuken:

Azken pirulira jo du danboliñak;
dantza aurreko lekura beaute neskatzak.

Mutillak Auzetxera berriz esku sokan,
etorri legez doaz soiñu jakin ontan.

Erri zar eta geldi, lotu eta norbaitzuei makurtua, Azpeiti?
Ken zaitez, «xapu» ori!



BEASAIN

Baserriari lotuta bizi ziran beti. Baserrian baiño ez eben pentsatu. Antxe, «Altamira'n», alkarrekin baketsu bizi ziran. Alkarrekin lan eta alkarrekin jan. Alkarrekin soloak landu eta alkarrekin jorratu.

Erramona eta Dolores ziran gonadunak, Joxe Mari eta Joxe Austin prakadunak. Lau anai-arreba.

Urteetan aurrera eta gero ta etxeari lotuago. Bizitzan ere noberekeriari geroago lotuago. Eleizegi Uberetagoiena ziran.

Madrid en Museo del Prado'n, edozeiñek ikusi leikez euskal sukalde dotore eta jator bateko argazkian, erretratuan.

Baiña sukaldeak aldatu ziran eta barriztatu. Eurak joan ziran eta ondorenik ez, nai eta Beasain euskal odol garbi barrien utsu-nean egon.

Eurak Museo bateko argazkian gelditu ziran...

Sarri joan izan naiz Beasain aldera, Azpeiti'n sartu, Errexil'e-rako edo ta Goiaz'erako bideak ezkerretara laga, eta zuzen Urres-tilla eta Nuarbe'tik zear, Matxinbenta ikutuz. Emen asten da Beasain, baiña oraindik amalau kilometro dagoz erri bururako, Mandubio'tik zear.

Beasain'eko bost baserri dagoz Matxinbenta'n. Enrio eta Igarzola eta Iru Otola'k (barrena, erdikoa eta goena). Beste bat, Erripa, bertan bera galtzen dago.

Emen asten dira beasaindarrak San Martin gogoratzen eta goratzen. Japondar ikuspegia ikusten egon bear da gaztelu zarra

dirudin euskal eliza onetan.

Matxinbenta'n eleiztarrak bat dira, baiña kaletar lez, erritar lez, Beasain, Itxaso, Azpeiti eta Beizama'ko alkate bastoiak zuzentzen dituez bertakoak.

Alkaterik onena eta eurekin batuena, parrokoa. Egon zan gerra min eta garretan sartu zituna be. Napoleon'en denporetan, gogor agertu zan emengo orduko parrokoa. Frantzetarrak artu eta euren lurraldera eroan eben, lotuta, preso. Baiña biotz sutsu eta beroko zan gure gizona eta irudimen askoko. Eta andik iges egitea lortu eban.

Matxinbenta'n oraindik zestu-giñan jarraitzen dabe, antxiñakoen bizi bidean, esku-lanean. Bost-sei etxe ba dira onetan dakienak. Gaur Nuarbe'n geiago egiten da, baiña emengoak ba dakie esaten angoak eurokandik ikasi ebela.

Zestu-giñan esan dot. Itxas errietan arraiñekin erabilten zituenu otzare, emen millotarrak deitzen dautse. Eta beste batzuk be ba dira izen berezia daukenak: asto-otarrak, lepo-otarrak, esku-otarrak eta abar.

Arrantzaleak laga eutsen otarra oneik erabilteari, bastertu zituenu, ol zabalekoen aukeran edo ta plastikoen mesedean. Origaitik emen gero ta geiago pentsatu bear ogi zuria zelan eta nundik jan.

Matxinbenta'n bertsolari baten irudia datorkit. Eta bertsolariaren bidez gizonak, zoritxarretan be, gainduteko eta jaiki al izateko daben barruko indarrak gogoratu.

Bertsoak berak, berba gitxitan, ba daki asko esaten. Ez gaitetzen berti zorrotz agertu bertsolariekaz. Askotan, esanak eta izanak, potu baten akatsa aaztu eragiten dabe.

«Auspoa»tik artzen dodaz bertso oneik. Zeiñenak eta zer diran esan bearrik ez dago, eurretan dana esaten dalako:

Apellidua Lasa det eta
Jose Mari izena,
Matxinbentako barriotikan
soldau atera nintzana;
suertosua etzan izandu
nere gerraren azkena:
bala txar batek begik kenduta
itxu gelditu nintzana.

Gizon au, binbolañagaz bere abots ederrari lagunduz, erriz erri ibiltzen ei zan, bertso paperak saltzen, anai arteko gerra askoren itsukeria erakusten, berak, itsu, lotan egozane, begiak argitzen.

«Xalbatore»k ba eukan gaiñera bere istori zarra: templarioen

monastegi bat emen egona zala XIII garren gizaldi inguruan.

Xalbatore Arriaran'en mendean jausi zan, bere egaltxo baten geldituz.

Bear ba da Arriaran'en entzuterik be ez dauke askok. Bide nausitik igarten ez dalako. Gerra aurretikoak gogoratu leikie, bear ba da, 1932 inguruan emen ebagi eben intxaur arbola baten kontua. Lau metro baiño geitxuago eukazan oiñean. Zabalera ederra. 4,20 zeatz esateko. Eta egurretan 1 3,660 metro kubiko.

Arriaran'en istoria, ama askok, umietatik dakie. Ume negarriak, amets gaizto eta esnagarridunen mende bizi diran umeak burukomin asko emoten dabe, batez be gau luzetan. Andrak, amak, gau larri asko igaroten ditue eurekaitik, eta gizonak, aitak, komedianteenak egin bear sarri. Egunez, tentien tente ibilten dakien askok, gabaz lau ankatan ibilten ei dakie umeak ezin baretu eta alaituz.

Emen, Arriaran'en, kandela argitan, parrokoak ainbat umeri irakurten dautsez lau ebangelioak, edo obeto esanda, euretako zatiak, amets gaiztoak baketu eta baretzeko. Toki askotatik dakie orretara umiekin etorten, eta ez inguruetatik bakarrik.

Xalbatore'ko eleiza galdu zan eta emen, Arriaran'go onetan dagon atadia ango eleizatik kendu eta ekarria dala diñoe. Gotiko loretsu eta dotorea da.

Arriarandarrak, denporetan, berba leku asko emon eben istorian. Itxaso'gaz batuta egon zanean, sei urtetik bein Itxaso'k aukeratzen eban alkatea eta zazpigarrenean Arriaran'ek. Zegaitik pentsatu Itxaso au ur-andien itxasotik datorrela edo antzerako esan naikoa dala? Zegaitik Itxaso'rako bidea erakusteko, batel baten irudia bertan ipini? Onetan euskaldunok ez jakin lez agertzen gara. Itxaso ala Itsaso deitu bear ete da erri orreri?

Laga daigun autu au beste baterako.

Esan dogun lez, Arriaran auzoa Itxaso'gaz batuta egon zanean, sei urtetik bein Itxaso'k aukeratzen eban bien alkatea eta zazpigarrenean Arriaran'ek. Baiña kontuz, ez arriarandarrak, bertako etxe batek, baiña, bera zalako emengo baserri guztien jaube eta origaitik ortarako eskubidea artuta eukan bakarra. Auzoak asarre eta etxeok ba asarre. Ori zan emengo buruauste eta emengo jokabide larria.

Orrelaxe urtien urtetan. Azkenean be, 1927 urtean Arriaran eta Itxaso banandu ziran, egia esateko, Arriaran'ek Itxaso'tik urten, baiña ez bere jaube izateko, ez nortasun osoko erri bat osotzen gelditzeko, Beasain'en erri legean sartzeko baiño. Ordurarte arriarandarrak Araba'ko markesaren agindu, erabagi, esan, gurari eta zorpean bizi ziran. Ortik len esan doguna, famili baten soñuan dantzan egitea.

Mandubio gaiñetik errez sartzen da Astigarreta'ra.

Sasoi baten, bete-betea ez ba zan be, Segura erriarekin batura bizi izan zan. Aren mendean.

Baiña arekin biziten aspertu edo ta norbere jaube izateko kezakaz, diruz erosi eban eskubide ori. Amazortzi milla errial ordaindu zitun 1615 urtean bere jaubetasuna lortzeko. Eta «erri leial eta zintzoa» deitu eta erabiltzeko aukera be emon eutsen.

Baserri erria. Eleiza, plaza eta taberna. Erri txikia, danetara be, kale eta baserri, ogetamar etxe ozta-ozta. Mendi-mendian, ikuspegi ederren jaube.

Emengo San Martin ez da Asentsiokoa, Euskalerriko ainbat tokietan Azillea'n ospatu edo gogoratzen dana baiño. San Martin bearrak bear eragin, nai eta euria egin. Esakera da. Edo ta San Martin, txarriak il eta lukainkak egin.

Beasain'dik etorten dira orain prailleak eta euren kontuan dauke gaur emengo eliza. Orra ordena bateko prailleak San Martin bigaz jokutzen.

Ba dago emen beste ermita zaar bat be: San Gregorio. Berriatu'n lez, emen be argontziko orioak belarriko miña kentzeko fatmatxoa dauka. Ingurutako erromeririk andiena egiten ei da santu orren izenez, baiña ez ain zuzen be bere egunean, Berriatu'n lez. Emen Pentekostes edo Etor-aldiko paskutako astelenez egiten da.

Beasain'go beste auzo bat: Gudugarreta. Ba da esakera polit bat auzo oneri buruz: Gudugarreta, ez eliza ez errota.

Erriak «kanpaitorretik» begira nabillen onentzako, ara berebiziko auzoa. Gaia aldatzeko bada be...

Baiña... zer esan bederatzi etxeko auzo batetzaz? Or dago kaku. Bide nausian dagon señale bategandik igarten da au. Beste la... zein konturatu gure errian ez eliza eta ez errotarik ez daukan auzo bategaz?

1882 urtean batu zan Beasain'egaz. Ordurarte erri lez. Alkatea be ba eukan beintzat. Eta alkatea bera karlisten gerratean konturatu ei zan erri bako alkatea zala. Arein soldaduak emen gelditu eta erri legez janariak eskatu eutsezanean, alkatea estu eta larri ibili ei zan jateko orreik billatu eziñik eta ainbesterako duin ez zirala sinistu erazi ebanean be, pozik. Il egingo ebela be pentsatu ei eban, arerio lez etsiko ebelakoan.

Orra, gaur, ni konturatu barik, Beasain ingurutan galduta ibilli naz. Izan be Beasain'ek inguru asko daukaz eta erraz galtzeko modukoak. Beste baten jetxi bearko gara erri barrura.



BERASTEGI

Bein, «Etsoinberri»ren alaba bere zaldi baltzaren billa joan zan. Berea zalakoan zelaian ikusi eban bat artu eta bere gañera igo. Zaldiak bere bide bat artu eban. Leiza-zulo baten aurrera eldu eta neskatilleari jaitxiteko aukerarik emon barik, kueba barrura sartu zan. An geratu ei ziran betiko zaldia eta neskatilla.

Kontu ori gogoan aoaia sartu naz Berastegi'n.

Tolosa'tik, Ibarra'tik zear, Leiza'rako bidean dago Berastegi. Mendi eta egi.

Organu jotzalle besamotz bat, mantxu bat, ezagutu neban nire gazte denporetan. Askok amar atzamarregaz baiño orru geiago ataraten ekian organoari.

Errian sartu orduko, Kontseju etxeak, etxe eder, zabal, lau-tuak, begiratzea eskatzen dau. Bertako eskudoan, erriarena dan eskudoan, San Lorentzo, edo emen esaten daben lez, Salontxo eta ermita bat igarten dira. Eta egi sakonen miña suspertuten daben esaera bat: Nobleza con libertad. Bizi bide jator baten jokera zuzena.

Aurreko mendiei begira nago: Ipoliño, Larte, Urdelar... Mendiak be pentsatu eragiten dabe.

Esnatu nadin, nirera etorri. Beste izen bat: «Kako». Ze kaku ete dakar «Kako» orrek? Ba dakie gure errietan taberna eta jatetxeei izen politak ipinten.

Ederra da Berastegi'ko parrokia. Erromaniku ate batek, oraingo baiño beste bat egon ete eikean ezpaian lagaten dau bat. Erriko etxea, ayuntamiento etxea baiño goratxoago. Itoki txiki bat bere ondoan.

Eleiza onek be ba dauka bere entzutea. «Jaulei» etxeko alabak iru buelta emon ei eutsazan bein eta sorgin biurtu.

San Martin. Aldare nausia A. Bengoetxea'k egiña.

Ba dakie emen illen oroitzak, gomutak gordeten. Argi-zari gorria, illobietan, il-barri diranetan mankal baltz baten gañean. Zegaitik ain gorri? Goierri'ko argizaria Beterri'koa baiño gorriago ei da beti be, erantzun dauste. Emen «bildumena» deitzen dautse. Guk, txarto esanda, «rolloa».

Parroki onetan gertatu ei zan.

Abadeak, erritarrei lotsa eta bildurra sartu nai. Oituretan pixka bat zuzendu nai. Gabeko parrandak eta andrazkoak. Orreik ei ziran berastegitarren pekatuak. Origaitik ez ei eban zeruan emengo iñor billatu. Garbitokian bat bakarra: Pedro Joxe. Berakatz atala baiño fiñagua, gixajoa, eta bera be...

Eta besteak? Ez asko nekatu igarten.

Jaungoikoaren zigorra eskatzen eban abadeak. Ekanduak bildurrez garbitzeko zigorra. Origaitik, azalpen txiki bat egin ondoren, Sua, Sua goiko sua eskatzen orruka asi zan. Eta sua jausi zan bo-bedetako zulotik.

Dardaraka egozan danak.

Su geiagol, abadeak. Eta bigarrenez be sua.

Ango ikara, bildur eta larrialdia!

Su geiago! Geiago! Alaxe ebillan abadea. Eta alako baten goitik abots dardarati bat entzun zan: Amelua, estopea amaitu da, jauna!

Eleiz ondoko atadian erriko jaunak batu ei ziran berialako baten. Abadeari berari purgatorioa eskintzea erabagi ei eben.

Berastegi, gure gizaldian, bardintsu dabil bere bizilagunetan.

Gizaldiaren asieran, 1.173 lagun. Orain eun gitxiago.

Berastegi eta Eldua kontuan eukitzeko dira. Erri bat, baiña parroki bi. Nai eta berastegitarren izan, elduarrak ba dauke euren nortasuna zaintzeko gogoia. Ez dira danetara be berreun lagunera eltzen. 170 inguru. Baiña eskubideak ez dauke ze ikusirik moltso eta pilloekaz. 16 baserri etxe eta kalean beste batzuk. Kale zabala.

Arro dira elduarrak euren eleizako taillu edo arteko olekaz.

Parroki au III Paulo'k 1548 urtean baimendua zan. Ala ta be ia berreun urte dira jaubetasun osoko parroki lez geratu zala: 1782 urtean.

Koro azpian dagoz baserri bakoitzari oi yakozan il-toki edo sepulturak.

Berastegi'ko kaletik ia bost kilometrora egiten da auzo au.

Beragoko zulo baten Beobitar ikusten da. 1321'n gipuzkoar-
rran Naparroa'n sartu eta Gorriti'ko jauregia artu eben. Naparrak,
ordez, Berastegi'n sartu ziran. Baiña giputxak nausi.

Orduko napartar eta gipuzkoarrak egiñiko kantua oraindik go-
goratzen da:

Milla urte igarota
ura bere bidean,
gipuzkoarrak sartu dira
Gaztelu'ko etxean,
naparrokin batu dira
Beotibarren pelean...

Errian zer dagon itandu dot.

Baserriak eta basoak. Aurrean dagoz beintzat piñadiak. Base-
rri lanak, serra lanak eta papeleratik datorren ogi-bidea.

Eta beste berezirik... norbera osasunez joan ezkeru, sano joan
ezkeru, ez. Odol txarrez edo odolaren goraberetan, zaldarrak eta
antzerako min sornatuekaz joan ezkeru... erremedio erreza: Zaldar
bakoitzeko bost zatiko burudun ultza artu, Larre-mendiko San Lo-
rentzo'ren ermitara joan, an zaldar aiña ultza laga, bertako argi-
ontziko orioagaz zaldarrak igortzi ta itxaron odol garbitzeari.

Berastegi'ren izena, izen bardiñeko bertako jaunei lotuta bi-
llatzen dogu istorian. 1027 urtean, Naparroa'ko Santxo Erregea-
ren agiri baten billatzen da izen au.

Gipuzkoa'ko eskudoan agertzen diran kañoiak be (ez dira
euskaldun danak kañoi oneik ikurdian ikusteko zale), Berastegi
etxe onetako Gartzzi Martinez koronel zala bere gudariak artuta-
koak dirala esaten da.

Baiña Berastegi'ko jaunak eta erritarrak ez ziran alkarregaz
ondo konpondu izan.

Gertaera bat: 1533 urtean, erritarrak, gabaz, kanpai torretik
sartu ziran parrokiari. Berastegi'ko jaunaren illobia zatartu eta elei-
zan eukan jarlekua apurtu eutsen.

Sutu eta asarretu zan jauna eta gora jo, erriarengana. Errita-
rrak, batzarrean batuta, ez eben txarto ikusi eleizan sartu ziranen
jokabide ori, eta euren alde agertu ziran:

Gauzak garrastu ziran. Errentak ipinten asi zan jauna. Bere lu-
rretakoei eta Leizaran mendietan janaritzen ziran abere eta andik
ataraten ziran basokiñei. Berea ete zan Leizaran ori? Eun urtetik
gora igaro ziran burruka eta eztabaietan.

Jauntxoaren eritziz, erritarrak, eta Elduayendarrak eurekin ba-
tuta, arro, basati, eta biurriak ziran.

Erritarrak bere errotei boikot egin eutsen eta errentak galdu


eragin. Ortik miña. Bera, barriz, gizon baketsu, artu-oneko eta aanen maitale zala esaten ekian. Eta erritarrei, euren arrotasunaren ordezt, beregana makurtu eraziteko, ogei florin dirotan pitxarra bi arda, erralde bat okela, amabi koipe eta Maiatzeko Santa-Kutz egunean asi eta Andra Mari bitarteko zapatuetan egiten ziran gaztaiak berari eroatera beartu zitun.

Orra jaunen eta erritarren artu-emona.

Ikurdi edo eskudodun zazpi baserri etxe dagoz Berastegi'n: Antzone, Ermentero berri, Jaundegi edo Jaulei, Juanso, Lizarraga, Sagasti berri eta Dendalegi (Gaztelunea). Eta 29 baserri etxe utsik, eteten, galtzen. Euren artean «Juanso» eskudoduna.

Onek, eta erri onetako eskudoko esakera artuta, libertade jatorrez, esatera ausartuten nabe: Zetarako eskudoak, ikurdiak, bizirik ez ba da?

Gaba egin baiño len ba nua. Sorgiñen aotan ipinten dabe emen esakera au: Gaba gabekoantzat eta eguna egunakoantzat. Elaunde'ko Katalin gutzat. Nik geitu neike: Berastegi berastegitarrentzat. Eta bake galdua billatu nai dabenentzat, or, Berastegi'n, Eldua.



BERGARA

«Mustur edo punta bako aiztoak (kutxilloak) egiteko agindu bear zenduke Bergara'ra; ez luzeak, andiak, arra betekoak baiño; bai idaz-tresnak be, an ederrak egiten dakiezalako; eta artazi (gu-raiza) luzeak...»

Mexiko'tik etorran karta ori. Orduan deitzen ziran Indietatik. Fray Juan Zumarraga durangoar gotzain argi eta entzutetsuak eginda.

Andik laster, 1 554 urtean, andaluzitar merkatari batek, beste gauza eta tresna askoren artean, Bergara'n egindako aiztoak eroiazan. Ez nabil asmatzen. Ikusi «Catálogo de Pasajeros de Indias» eta irakurri Alonso Quiros merkatariak bere tratuetarako zer eroan eban.

Zer euken Bergara'ko aizto eta artaziak eta tresnak ain bereziki andik eskatzeko?

XV-XVI gizaldietan Tolosa, Arrasate eta Bergara'n egiten ziran galtzairuzko izkillu eta tresnak benetako entzutea euken. Euskal olagizonen denporak ziran burdingintzan. Sasoi aretan Bergara'ko tresna asko itxasoz bialtzen ziran erbestera, orduan Deba ibaian zear Alzolaraña sartzen ziran txalupetan.

Gogoan euki geroago Bergara'n billatu eta lortu ebala «jauntxo asmatzalle» batek, Iñaxio Zabalo eta Zuazola'k, galtzairua zementaztu, erindu eta iraziteko era egokia. Botoi fabrika eukan Zabalo'k. Eta ingelesak gozotasun obeagoz egiten zituelako, barruak artuta ibilten zan, eurak gaindu eziñik. Origaitik, eta asmotxa zalako, alegin asko egin ondoren, gaitasun ori lortzera eldu zan.

Ordutik, Toledo'n ain fama andiko zan Errege-ola edo fabrikak

Alemaniko galtzairua baiño naiago izaten eban Bergara'n gertuten zana, ezpatak egiteko.

Ez arritu. ba. bergararrak galtzairu tresnetan nortasun zabal eta beteak eukiteaz. Dagona erakusteko izaten da eta daukana erakuslari. Edo beste askotan, emengo ondasuna lez, ezin eskutatu. Berezko arrokeria. obeto esanda, duintasuna.

Gero eungiak, telakiak sartu ziran eta burdinkien indarra alboratu. 1 846'tik dator Bergara'n lenengo eungi edo tela fabrika.

Esakerak ba daukez iñoiz euren alderdi argalak be. Ezin beti jaramon osorik egin, edo itsu artu. Orrelakoa leike au: «Bergara, ikusi ta igara». Eta istorian, legeetan, irakaskintzan, etxadietan eta bizikeran daukan izatea ain errez baztertu?

Pio Baroja'ren ikusteko era be zetatik begiratu eta artu da: Bergara pitxi eta edergarri askodun erri zabal, ospetsu, baiña itzala da. Ala ete benetan?

Sarreretatik bai, itzala da. Bergara'k ez dauka bere sartuerako bidetan atadi alai eta zabalik. Malzaga'ko bidetik etorri, nai Elgeta aldetik; Antzuola'tik sartu nai Arrasate'tik, Bergara'ko sarrerak ez dira alai eta argi. Baiña Bergara'k barru zindua dauka, biotz ona. Eta biotz zinduak bizi luzea.

Itzala dala? Jo tamboliña eta ikusiko dozu. Breton de los Herros musikalaria ondo konturatu zan orregaz. Origaitik idatzita laga eban tamboliña zala Lekeitio eta Bergara'ren atsegin-aize eta esnagarria. Euren gozamina.

Jo daigun ba zek urtetan daben ikusteko.

Bergara'ren izena sarri ibili izan da dantzan.

Bein, orain berreundak urte, alkate eta abadeak asarretu ziran. Neskatil beartsu eta premiñadun laborariei laguntza banatuteko bialdu zan batzarreko deia. Mai buruan jartean, zein buru izan bear zan erabagi eziñik, alkarri nortasunik opa nai ez-da. Konpondu ezin eta gora jo. Eta Errege-konseillutik esan eben, abadeak, erri batzarretan, alkate eta beste erri agintarien atzetikjarri bear ebela. Gerotxuago, 1771 urtean, Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak, Donosti'n batuta agindu eban, eleiz jantziekin joaten ziranean ezik, alkateak ez eutsela laga bear abadie iñungo batzarretan edo batualdietan euren gaiñetik eta euren aurretik jarri edo ibiltan. Esatea lez, erri gaietan, gangorra, gandoillarra erakutsi bear dabenak erri gizonak dirala.

Erri fedetsua izan zan Bergara. Baiña itsukeri bakoa eta ba-koitza bere tokian agertzen zalea.

Parroki bi. Ariznoa'ko Pedro donearena, 1268 urtetik ezaguna eta geroago 1569'n barriztatzen asia, eta Oxirondo'ko Santa Marina, 1305'tik datorrena, 1542-1584 bitartean gaur ezagu-

tzen dan lez eratua. Oxirondo au Elgeta izan zan 1348 arte. Iñun baiño ermita geiago. Orain Santa Marina'n zortzi eta San Pedro'n zazpi. Baiña ogeta-amairuren ezaupidea ba dago gizaldien denpo-retan. Erriaren makurtasun bat erakusten dau orrek. Ala ta be ain-beste arrara eragin eban Diderot'en Encyclopedia Francaise ager-tu zanean, iñun baiño erosle geiago eta irakurle ugariago billatu zituen emen. Norbaitek esana da Enziklopedia au, erriaren neu-rrian, proporzioan, mundutik geien irakurri zan tokia zala Bergara.

Orrek be, Enziklopedia ori ainbeste zirikatu zan urteetan, dantzan erabili eban Bergara-ren izena.

Beste era baten, ezaguna da Canovas del Castillo-ren eriotza, bat bateko erailtza, Gesalibar'en, au da, Santa Ageda'ko uretxean. Itzallea, Angiolillo italiarra. Bergara'n sartu eben giltzapean. Eta ementxe epaitu eta il. Zarata asko atara eben bere eriotzarako gertakuntzak eta origaitik be dantzan ibili zan erri onen izena. Nai eta orduan gaur baiño gaitz eta zaillago izan kontu eta barri asko aidetan erabiltea.

Baiña tamboliña iñok baiño aizetsuago erabilliz, Bergara-ren ize-na asko arrotu ebana, bere lkastetxea, Seminario izenez ezagutua da.

Aurreratua. Askontzat geiegi. Geiegi ikasteak bildurra sortzen eban garaiak egon ziran. Aurrera. Kimika eta Metalgintzako katedrak lenengoz sortu eta ipiñi ziran erria berau. Olako sortzeak ez dira erre-zak izaten Lenengotatik erakutsi eban lkastetxe onek ikasi-bearretan sakon sartzeko asmua. Abade eta gizon ugari batzen ziran bertan: emengo abadeei be arpegira bota eutsen arpegira euren zeregiña baztertuta bide arrikutsutan ebiltzala. Emen ibili ziran irakaskintzan Antonio San Martin, «Ondarroa'ko abadea» deitureagaz ezaguna-go; emen Sodupe eta Landazuri arabarrak; emen Benitua; emen Zalbidegoitia abadea, Bizkai'ko Arantzazu'koa, Calahorra'ko eleiz kartzelatik igesia eta abar. Ikasle zur ugari ezagutu ziran bertan. Eta bestelako irakasle zintzo, argi, kementsuak.

Gogoan artu Chabaneau prantzetarra. Beragaz batean El-huyar. Geroago Tunborg, suezitarra. Platinoa batu, eratu eta guri-tzea ementxe lortu eben gaur industrietan ainbat premiña eta era-bilpidiei bidea zabaldu eta erreztuz.

Eun urte ozta ozta iraun eban lkastetxe onen biziak. 1776'n sortu, eta bost bidar beintzat izena aldatu ondoren, 1 876'n il. Ala-ko esakera beteta: Bizi laburrean luze bizita. Bateko gerrak, beste-ko ikusi eziñak, uste gabeko gora-berak eta gure errialdeko nas-teak, ez eutsen geiago biziten laga.

Pelota toki inguruan nabil. Etxe eder jolastoki dotore, atsegin leku txukun... Bergara barria emendik dator. Ementxe zan Fraisko-

zuri'ko landa. Ba datorkit burura istorietan Bergara'ren izena darabilen gertaera. Atzeratuko ete gara 1839 urtera? Gogoratuko ete doguz emengo kezka eta emengo negarrak; emengo etsipenak eta emengo ixilleko tratuak; gogoratuko ete dogu emengo besarkada, edo ta zur eta egitsuago esateko, emen besarkadak, bat baiño geiago emon ziralako?

Nik ez dodaz artu.

Orain 50 urte, lau erri egozan Gipuzkoa'n Bergara baiño an-diagoak, obeto esanda, bizilagunez ugariaguak. Ara, betik gora: Tolosa, Eibar, Irun eta Donosti.

Bergara'k 9.292 lagun eukazan sasoi aretan. Gaur, biribillean, bi bidar geiago. Baiña gaur, lengo lauren gaiñera, beste lau errik irabazten dautse bizilagunez: Pasai, Arrasate, Ernani eta Errenderi'k. Gaiñera Bergara'tikoraindik lagun askok urteten dabe egunero erbestean lan egitera. Anzuola eta Soraluze'tik etorten dira bertara langilleak, egia da. Baiña iru bidar geiagok urteten dabe Arrasate, Eibareta Soraluze (Plazentzi) bertara.

Amalau urtetik berako umeetan ia % 40 agertu ziran euske-raz tutik ez ekianak.

Erria ikustea baiño ez dago erri aurreratua dala igarteko, nai ta kale estuak euki. Lengo jauregi asko oraindik eurén nortasuna erakusten igarten dira.

Artearen kezka bizi da. Erri gitxik eusten dautse musikaren garrari emen lez.

Plazentxiarren auzoko dala, angoen gatza igarten da bertakoen artean be. Eta filosofi sakona. Gaur bertan esan dauste. Gizon bat diru eske ebillan oraintsu. Ba eukan zati bat, beste zerbait Kutxaren batetik atarateko eta oraindik geiago bear.

Bankoan esan eutsen iru lagunen abala eroateko. Nekez, baiña bik emon eutsen. Bere ustez gaitzenak. Eskuan eukan irugarrena.

-Abala gura neuke.

-Eta ori zer da?

-Dirua, baiña zuk emon barik, Bankuak emongo dau. Zuk izenpetu bakarrik.

-Zetarako?

-Ba orretxetarako, dirua atarateko.

-Nok esan dautzu nigana etorteko?

-Esan iñok ez, baiña Bankuan esan dauste lepo andia daukuzula ta zure abala baliotsua izango litzakela.


-Kontxo! Tratua egin neikela uste dot.

-Bai!

-Ara. Nik emongo dautzut dirua.

-Ba nekien portatuko ziñala.

-Egon. Nik abala emon bearrean, dirua emongo dautzut. Baiña Bankuak abala emoten dautzuenean. Nire lepoa baiño andi-goia da arena.



BILLABONA

Txiki giñala, umeak giñala, Sanson'en egite eta kontuak ikasten genduzan. Baiña gure monjak ez euskuen erakutsi emen esaten danik: Emengo mendi bat, Sanson'ek Andoain ingurutan egiteko asmotan eroazan lurrekin egiña dala. An egiteko eroian lurrak sakutik urten, galdu eta emen jausita, bertoko mendi biurtu eizan.

Ezin ukatu gu euskaldunok asmotxak izan gareanik. Eta gure jakituri estu baiña sakonean luzetik artzen genduzala gure irudipenak sortu, biribildu eta itxuratzeko ideak.

«Andretegi» baserriko gotiko erako ateari begira nago, eta jokera bereko etxe onen leioan iñoiz agertuko ziran emakume irule eta liñulariekin iruditzen.

J.A. Mogel, «Peru Abarka»ren egilla zurra burura datorkit. Emen sartu eta urten ibiliko ziran neskatil langillien ardurak iruditu, euren betetasuna eta trebetasun amets: «gorputz, esku ta oiñekaz bear dautsa ekin».

Gaitz da orduko pentsakera eta sentimenak igartea. Baiña emakumetasunak beregan daukan maitasun premiña aidean ibiliko zan sarri liñua orraztu, garramadu, gabikoak egin, beratatu, sikatu, astatu, erbaztu eta liñu,laneko beste zeregiñak egiten zituen artean.

Euskaldun neskatillak
nekeak arturik

eztabe onetako
gizonen bearrik.
Eurak dira ereila,
liño giariak,
eunla eta iostun
ta gorulariak.

Amatsa'n, urte zarretan, etxeari be izena emon al izateko aiña
urte eta egitetan, ementxe batzen ei ziran bertako andrazkoak.
Emakume langilleak:

 Irule on gutti
 izaiten omen da
 goiz etzaten den andretan,
entzun izan dogu iñoiz napar kantuetan.

Eta eurak etxea ezagutu eragin eben: «Andretegi».

Aurreratxoago, jentien esanetan eta ustetan, denpora luzeta-
tik inguru oneitako parroki bakar izan zan Santakutz eleiza. Gaur
Amatsa zarreko istori mutua. Ain zuzen be Amatsa'ko parroki ba-
rruko eraketak egin bear ziranean, Andretegi onetako Migel bat
agertzen da orduko alkate lez, napar argiñekin tratuak egiten.

Gaur Amatsa Billabona'ren auzo bat da. Iñoiz, denpora zarre-
tan, bere buruaren jaube be izan zan, nortasun osoko erri. 1618
urterarte bai.

Belabieta'ren oñetan dago Amatsa. Ba dira Belabieta'n ber-
tan beste erri zar bat egon zala ezpai edo duda barik agertzen da-
bepak. An aurkitutako dolmenetan sustraitzen dira ori esateko.

Orain eun urte Billabona'ko parrokia be Amatsa'n egoan. Or-
duntxe asi ziran kaletarrak parroki bat kalean bear zala ta eska-
tzen. Ordu laurden egin bear zala erritik bertara, eta kalean egoan
ermita txiki gelditzen zala erriarentzat.

Amatsa'ko San martin zan orduko Billabona-Amatsa'ko pa-
rroki. Bere inguruan Santa-Kutz ermita. XVI garren gizaldian ba-
rriztatu eta anditua da San Martin. Erretablu barrokoa. Kaleko pa-
rrokia, au da, Billabona'ko parrokia gure gizaldian egiña da. 65
urte baiño ez daukaz.

Erriko etxeak, ayuntamentuak, 125 urte. Lenagokoa lengo gi-
zaldiaren asierako gerra baten deusestu zan. Toki berberean jaso
eben gaur ezagutzen dana.

Erriak, lurrez, 18 km².

68 baserri etxe. Euretatik 55 bizitza bakarrekoak eta 13 bizi-
tza bikoak. Ortik konturatu zerbat baserriar sendi edo famili.

Amatsa'n «maiorazgoak» gelditu eta besteak baserrietatik ur-
ten bearrez, kalea sortu eben. Gaurko Billabona.

Kalea eta baserria, erri bi zirala, alkarregaz asarre ziran. Gau-
za bakana: asarre zirala be, bien jaubetasuneko ziran lurretatik
ataratan eben bietako gastua bardintzeko aiña, eta iñoiz Amatsa'k

zorrik egin ba eban, alkarren asarreak zirala-ta eskribaduekin egiñiko zorrak ziran.

Asarreak galdu ziran. Amatsa'k Billabona'ko langintza barrietan dauka bere poza. Kanean be ez da igarten aurkakorik. Erri batu bat dira.

Era guztietako langintza sartu da emen. Ez lantegi ándiak, bai ugariak. Papergintza, kimjka, burdingintza, plastika, igeltzu eta abar.

Danentzako lana, biarra dago, baiña egokitasunez edo oituraz, berreun lagunetik gora urteten dira emendik Andoain, Ernani, Tolosa eta Zizurkil'era, eta beste ainbeste etorten dira Asteasu, Iruera, Tolosa eta Zizurkil bertatik. Urteten dabenak eta etorten diranak bardintsu.

1960 urtea oiñarriztat artuta, euneko 3,39 urtean geitzen igarten da erri au.

Geitze orren dakarren itauna: Eta euskaldunak?

Zazpi urte dirala egindako enkuesta baten emengo umeak era onetan bereiztu zituen:

Euskerarik ez ekienak % 1 1,3

Erderarik ez ekienak % 1 1,3

Euskera gitxi ekienak % 35,7

Euskera ondo ekienak, % 38,2

Euskera eta erdera ondo ekienak, % 3,5

Beraz oraindik euskerari eutsi leikio emen.

Erri batzuetan San Juan besperan ibiltzen dira baserririk base-**rr**i eskean. Santa Agedatan beste asko. Emen San Martin jaietan ba dago oitura polit bat. Jaietako irugarren egunean, gazteak **eskean ibiltzen** dira. Ez lukainka ta ez solomo. Ez txarriki eta ez diru **eske**. Ollaskoak. Ollasko joko barik San Martin'ak euren izate eta **kutsu berezia** galdu egingo leuke.

Batzen diran ollaskoak jokorako izaten dira. Plazan, lurpean **sartu**, **burua agirian** dabela, eta mutillak, begiak estalduta, euren **billa ibiltzen** dira, samea ebagi eta olloaskoa eurekanatzeko. Ordu **atsegiñak** eta batez be ordu irritsu eta zaratatsuak izaten dira. **Atsegiñagoak gero**, tabernetan, ollasko jana egiñaz jaietaz azkena **emoteko**. Erri bakoitzean berea.

Dendatxo baten sartu naiz. Saltoki baten.

-Zer dezute emen bertako jatorrik?

-Dena.

-Emen egiña, esan nai det.

-**Ba!** Gaur kanpoko gauzek ba **al** dute etxekeo inbirik?
-Amatsa'ko ala Billabona'ko zera?
-Bietako.
-Bietatik nungo?
-Ni dendaria naiz eta bietako.
-Ori. Lenengo bizi. Diruaren arrazoa.
-Zein ez dabil orren atzetik?
-Orrela dala, kanpokoak emengo **aiña ba** dira, pakerik ez degu bear biderako.

—Sasoi baten ez gendun olakorik esango, baiña...

-Zer?

-Emen Fraisoro'n egiten zan Gipuzkoako mantekillik onena.

-Orain saltzen ez?

-Onegi zan a. A bai konfiantzan saltzeko. Gaur ez dago.

-Eta besteik?

Ordurarte ixilik, baiña urten naian igarri dan agurea asi da izketan.

-Besteik e...gaur zer dago ba ederrik? Sasoi baten emengo neskak e ederrak ei ziran, baiña begiratu gaur azurrik gabeko orrei.

Egia. Larramendi zanak be ba ekian esaten: Gipuzkoar emakumeak inguru guztiko ederrenak zirala, kolore biziko, ondo gertu, biribil, giartsu, arin eta osasunez beteak.

Larramendi bera giputxa zan eta auzoko gaiñera, andoaindarra. Etxeko lorak ez dabe usaiñik zainduten kanpora ateratzean.


Eta Amado Nervo? Gogoratzeko da berak idatzi ebana, Donosti'n jatetxetan serbitsari ikusten zitun neskatiillakaitik. Euskalerri politean, jatetxean serbitsari diran neskatiillak, -geienak ederrak arraza be alako dalako-, eskupekoaren ordaiñez bakarrik lan egiten dabe. Eta peseta bat lortzeko, gitxienez amar irri barre egiñak izango ziran, ori bai, amar irri barre garbi, fede oneko neska, baretsu, indartsu oneik, sekula keja barik abere batek aiña lan egiten dabela, berez, sortzez biotz oneko eta alai diralako. Ala Ordizi, Zumarraga, Billabona'ra biurtzen diranak, Donosti'n negua sartu ondoren.

Dendariak ez ekian emen zer dagon ederrik. Agureak bai. Neskatiilla jator bat sartu da. Txopo kumea. Irri-barre txikia agureak, berak esana egia dala agertu nairik. Itzak itz, berbak berba, emen ez daruaz aizeak.

Larramendi eta Nerbo'k guzurrik ez ebela esan konturatzen nago. Asierako liñularien kantuetara nator igarri barik:

Gara neskatiillak
euskaldun ez illak,
ezta iñor lurean
gure bear eztanik,
ez atso, ez agura
aikondara barik.

Billabona'ri izkiña artu dautsat «Izkiña»n sartu barik.



BIDEGOIAN

Azpeiti inguruko euskera egiten dan lekuetara nator gaur. Tolosa egalera. Gipuzko aldean, bere osotasunean, geientsuen egiten dan ingurura.

Leku askotan ez da gertatzen emen oi dana.

Erri bi alkartu ondoren, bietara be 740 bizilagun batzen dira. Euskaldunak danak. Bertan jaio ta bertako jatorrikoak. Euskera entzuten jaio, euskal esnea artu, lenengo kutunak euskeraren samurrean sentidu eta gure izkuntza au ikasi ta beragaz jarduten dan tokietara.

Orra, ba, euskaldun erri oso osoko bat. Baiña ementxe be eundik eun euskera egiten dabenik ez. Oraintsu P. Irizar'ek egin-dako ikasketa baten ala esaten da: Amar lagun, ain zuzen be, euskerarik ez dakienak. Ez edozein, erri txiki bateko artu-emonetan: iru maixu, medikua eta bere sendia.

Bidegoian erria nun dagon?

Goazen Azpeiti'tik Tolosa aldera. Zezen plaza ondotik sartu ta bide bi aukeratu leikez: Errexil'dik zear Bidani'n sartzen dana, edo kilometroren bat geroago, barrurago, Goiaz'era zuzen doana. Beste eskamurago egiten dan irugarren bat artzen ba dozu, Beizama'tik zear, Bidani eta Albistur bitartean lagako zaitu.

Gaur bide-kurutze ori baiño lenago geratu nai dogu.

Bide bietan be aldatz eder ta gogorra. Ori bai, bietatik be ikuspegi zoragarriak. Bide ibilliagoa, bear ba da errezagoa, lenengoa. Ni mendizaleago sentiduten naz Goiaz'koan. Errezago goiak ar-

tzen dira, edo ariñago. Bestean luzaro mendi artean ibilli bear dana, emen mendi gaiña lenago artzen dala dirudi. Eta aurreko mendiak, Ernio'ren arkaitzak, norbere pareago igarten dira. Egia esateko, goi alderdiko bidea bestean zabalago da emen baiño.

Oraintsu batu ziran Bidani eta Goiaz. Ortik, bien artean konpondutako izen barria: Bidegoian. Ara emen erri zabal bat, Ernio eta Urraki mendien maldatan, aize fin eta eguzkiaren galdatan.

Goiatz'en, baserri-etxetan, irutik bat galdu dira denpora gixian. 31 baserri egozan oraintsurarte. Gaur ogei gelditzen dira. Besteak, bederatziustu eta iru aldatu. Aldakuntza oneikin jakin dabe aukerako zeregiña emoten. Bi, Etxeberri eta Mizar, eskoletako umeen udako bizitoki edo koloni izateko aldatu ziran. Ondarrabitarrak umeak etorten dira Etxeberreri'ra. Mizar'era, edo toponimi zaleen bat burua apurtzen ibilli ez dedin izen osoa esanda, Mike-landegizar'era, zarauztarrak.

Ikusten danez itxastarrak maite dabe mendietako aize garbia. Eta menditarrak be ba dakie itxasoetako lurrunetan amets egiten. Ai maite minduen kanta kezkatu eta samurrak!

Itxasoak urak andi,
ez da ondorik agiri,
pozik igaro nezake
nere maitea ikusteagitik.

Irugarren etxea, Lete, zartzaro agurgarria eroan eban euskal maixu jator baten atsedean toki biurtu zan. Lopez Mendizabal dar lxaka'ren arnas toki ta bake kabi.

Baserri bitan bakarrik bizi dira emen erreteruak: Gibitegi eta Iriondo'n. Bestetan, beste ogeitan, etxe jaube dira bertakoak.

Auzoan, Bidani'n, azken urteotan, 22 baserri etxe gelditu dira surik barik. Ala ta be beste berrogetamar kontatu leikez Elbarren, Eliza, Elola, Erreka eta Santa Marina balleretan. Erri buruan lau.

Oargarri bat. Geienetan Eliza dagon lekua izaten da erri-burua. Bidani'n, ain zuzen be, ba dago Eliza ballera, baiña ez da egokitsuena. Origaitik oraindik eun urte ez dirala egin zan barria Erreka balleretan eta 1 890 urtean zabaldu zan eleiza au. San Bartolome bertako zaindari. Goiatz'en, Andra Maria. Origaitik Bidegoien'en, Dagollinean, jaiak ez ei dira il erdi osoan amaitzen.

Gipuzkoa'ko errietako plazarik gorena, Goiatz'ko plaza dala esaten da.

Egia da Arantzazu itxas-neurritik 720 metrora dagola eta Elosua be 562 metrora. Ala ta be ez bata eta ez beste ez dira etsiten erri barruko plaza lez. Arantzazu Oñate da eta Elosua Bergara. Goiatz'au 520 metrora egiten da eta Bidani'koa 490'ra.

Udarako erri aukerako da Bidegoian au. Baketsu, garbi, osasuntsu eta giro oneko.

Beste jakingarri bat: ain zuzen be Goiatz'en gertaten da Gipuzkoa'ren erdi erdia. Puntu ori, diñoenez Izpille baserrian egiten da.

Bidani'n, Elbarren balleran ba dago gaur etxe-bizitza biko baserri andi bat. Ba dauka bere izena: Usarraga zarra. Ez dakie askok izen ori. Geienak beste deitura errikoiago bat emoten dautse: Diputaunekua.

XV gizalditik entzutetsu ziran Basarte eta Usarraga inguruak. Ain zuzen be ementxe egiten ziran Gipuzkoa'ko Batzar Txikiak, 1457 urtean alakoak egitea erabagi zanetik. Ala ta be toki oneitako batzarrak ez ziran ze-esan, azpikeri eta akiakula faltaz gelditu. Ain zuzen be etxe barruan egiten ziran batzarrak bakarrik balio ebela atara eban norbaitek. Beste batzarrak, atadian, nai eleizan, nai zelaian egindakoen erabagiak ez zirala aintzat artzeko. Amarren bat urte iraun eben eztabaida oneik. Azkenean be gauzak argitu ziran. Gero parrokian be nortasun osoz egiten asi ziran. Orduko parrokian. Zegaitik esan ete eban Lope Isasti lezotarrak, 1625 urtean egin eban «Compendio Historial de Guipuzcoa»n, Bidani'ko eleiza zarra gaixo guztientzako eta batez be gizon bero eta asarrekorentzako berebizikoa zala?

Judaerrik edo ta mororik egon ete zan Bidani'n?

Errioxa'ko Naxera'n ezagutu eben Bidani'ko Gartzia Lope. Gerra gizonak ziran abizen eta famili onetakoak. Aita, Alfonso, Domenja G. Andiaren senarra, koronela izan zan. Semea Naxera'ko Gaztelu'ko jaurlari, gobernadore. Geroago Treviño'n, bertako agintari nagusi. Il be emen egin zan.

Azken nai edo testamentu zabal eta autu askokoa egin eben Treviño bertan. Bere ondasun eta aberastasun ugariak, Bidani deitzen ziran guztientzat laga zitun. Akats edo koxka bat: judear edo moro ez ba ziran. Odol garbiaren maitasuna edo ta siniste estu eta ertsi baten ondorena?

XVI gizaldian zan ori, ain zuzen 1511 urtean.

Goiatz'en.

-Andre, ikusi ete neike zuen Andre Mari zaarra?

-Zer ba, Ama Birjiña berrien bat sortu al da?

Eleizan dozuena baiño beste bat az al zenduen? Ez al zan beste irudi zaarrago bat?

-A! Ba dakit nora zoazen. Torrean gordeten zan a?

-Bai. Alako irudi dotoreen bat autsez beteta, galduta or euki ei zenduen. Ez al zenduen maite?

-Zaude ixillik. Ez jarri ni santu-santen aurrean dudetan. Kontuz geo!

Nork esan du guk maite ez gendula? Ez etorri geo iñori adarrik jotzen. Erakutsiko dizkitzut nai baldin ba dezu adardunak. Ia, ixo geo!

Olgeta gitxi gure andreak eleiz kontuekin. Zintzoa bera. Bete-beteko.

Eleizako kanpai torrean Andra Mari'ren irudi gotiko erako eder bat billatu eben orain urte batzuk. Noizkoa? Ez jakin. Bai irudi bakan eta ikusgarria zala.

Bildurto egin ete ziran Goiazarrak lengo irudi a, bear ba da zaarren denporetan ainbat urtetan egon eikean lekura biurtzen?

Gaur, Aralar mendietako Larrunarri eta Auza-Gaztelu'ra joaten diran mendizaleak, Goiatz'tik kilometro askotara, Abalzizketatik Zaldibirako bidean, Larraitz'eko ermitatxoan gelditzen ba dira, Andra Mari orren begirapen samurra ikusi eta artu al izaten dabe. Orra nun dagon Goiazko irudi zarra, Ernio aldetik Aralar ingurutara aldatuta.

Baketsu bizi lei Bidegoia'nen. Udarako leku berezi eta atsegiña. Baiña biziteko lan egin bear da.

Emen, baserrietan eta kalean, zerbait billatu lei. Danentzat bai? Egunero ogetak lagunek urtetan dabe kalera, Tolosa aldera, industrietako zeregiñetara. Baserri askotako gaitza da gaur ori.



DEBA

Deba'ra guaz gaur. Zer da eta nun dago Deba?

Deba de Itziar eta Deba da Andutz, Deba de Ekain eta Deba Lastur. Deba Deba da, mendi eta ur.

Erri txiki bat eta era guztitako.

Tren eta guztiko erria. Bizkai aldetik sartu zan trenea, bein, Txistuka, zarata otsean, arro eta gangar. Eta gaur lotsakor ikusten da, erdi narraz, bere gaiñetxoan zabaldua igarten dan autopista barriaren bildur eta lotsaz.

Erriaren erdi erdia eskiñi eutsen debatarrak trenari, bere sa-soian, trenak amets be egiten ez eben bizi-bidea eroango eutsela-koan. Gaur obeto neurtuko leukez tokiak eta eskintzak.

1893 urtean eldu zan lenengoz trenea Deba'ra. 90 urte geroa-go, 1973'n autopista. Uste eta ikuspegi baten, len baiño premiña andiagoak beteten.

Gu, oraindik, bide zarretik gabiltz. Astigarribia ingurutatik, Sa-siola'ra jota.

Alkarren ondoan, obeto esanda, alkarren gaiñean, iru zubi Sa-siola ingurutan. Iru zubi eta iru tankera, iru egikera. Batetik beste-ra zenbat gizaldi? Bai zera. Prisa geiegiz bizi gara gure denpore-tan. Iru Zubitatik bi guk ikusi doguz sortu eta jasoten.

Gure literatura txikian ezagutzen diran kanta zaarrenetako bik Deba gogoratu eragiten dauskue.

Milia Lastur, debarra, Peru Gartzia'kin ezkondu zan, eta seiña egitean il.

Peru'k laster aaztu bere andrea ta bigarrenez ezkondu nai. Eta kantak* atara eutsezan, debatar emazte illaren errukiz:

Garibai istori egilleak agertu zitun amasei garren gizaldian, eta berak agertuta lez irakurriko doguz:

Zer ete da andra erdiaen zauria?
sagar erre eta ardao gorria.
Alabaya kontrario da Milia:
azpian lur otza, gañean arria.
Lastur'era beardo zu Milia,
Aita jaunak erasten dau elia,
ama andreak apainketa obia,
ara bear dozu andra Milia.
Jausi da zerurean arria,
aurkitu dau Lastur'en torre barria,
edegi dio almeneari erdia,
Lastur'era bear dozu Milia.
Arren, ene andra; Milia Lastur'ko,
Peru Gartzia egin dau sku laburto;
egin dau andra Marina Arrazola'ko,
Ezkon bekio, bere idea dauko.

Eta beste kantak, Alos torrearenak dira. Alaba baten miñezko kantu zoragarria, bigarren ezkontzako amordeak bere aitari egiñi-ko doillorkeria ezetziz, oraindik otzituteko egoan aitaren gorpu illaren alboan egiña.

Orra Usoa kantari:

Etxe eder, Leio bage onetan,
ez naiz sartu zazpi urte autan,
eta zortzigarrenian,
neretzat zorigaitzian,
Aita Beltra'n iltzian.
Alos torria, Bai, Alos torria!
Alos torreko eskallera luzia!
Alos torrian nenguanian
goruetan,
bela baltzak kua, kua
leyuetan.
Andik jaiki eta
urre gozuaz jo nuan,
baiña andik laster
berri gaiztuakjo ninduan.

Alos torrea or dago oraindik, bide nausiaren egalean, inguruetan asi diran etxe barriei kua kua egiten.

Sentimen berezia dau Alos torreak. Baiña kondaira, istoria ja-kin bear da beragaz gogoratu eta konturatzeko. Asko igaroten dira Debatik zear, etxe onen orma egaletik. Baiña, bertsoak esaten daben «etxe eder, leio bage onetan» konturatu barik. Mingarria da esatea, baiña gure akatsak eta pekatuak eta uzkeriak be autortzea bidezko da, gure erruaz konturatu eta asmo barririk artuko ba da.

Gaur Deba'n 180 baserritar sendi (famili) bizi dira. Sasoi baten baiño gitxiago. 33 baserri etxe ustu dira azken urteotan. Gaur gaurkoz, 1 80 bat edo beste gora edo bera gelditzen dira. Euretatik 1 46 etxe jaubeak dira, au da, baserria bere bertan bizi diranena da. 34 barriz errenteruak.

Deba'k daukazan ballerak, auzoak oneik dira: Arbiskoa, Arriola, Egia, Elorriaga, Endoya, Itxaspe, Itziar, Lastur beia eta Lastur goia eta Mardari.

Baserririk geienak Itziar'ko parrokian sartzten dira, eleiz legetan. Itziar Deba'ko auzoen artean aitatu dogu. Denporen gauzak! Itziartarrak sortu eben Deba. Beste toki askotan baserritarrak sortu eben lez kai inguruetako erri bizitza.

1294 urterarte Itziar'en izena jokutzen zan. Deba'k ez eukan nortasunik berezirik. Urte orretan emon eutsan, Bagilla'ren 24'an, Castilla'ko Santxo IV'k, Itziar'eri erri egin eta Monreal izenarekin ezagutzeko baimena, permisua.

Leenagotan, 1027 urtean Iruña'ko obispadutza barriztatu-tean, napartar errege baten agirian, Itziar aitatzen eta ezagutzen da. Bardin 1179 urtean IMabarra eta Logroño'k egindako baketan.

Itziar'ko baserriak aitatzean, euretako berezitasun batzuk aitatu geinkez:

Erri askotan ezagunak eta fama andiko dira soka-muturrak. Ez dakie jairik egiten zezena kalez kale erabilli barik, lotuta, eta bere atzetik edo aurretik bertakoak arin aringa ibilli barik. Zezenik geienak, jai orretarako, Itziar'ko baserri batetik eroaten ditue errietara, Arriola Saka izena daukan baserritik.

Gizon indarrez be ezagunak dira Itziar'ko baserriak. Ez bat, bita iru edo geiago be baiño. Gaur arri jasotzailleen artean indartasuen lez ezagutzen dan «Endañeta», «Jose Maria Agirre, emengo baserri bateko semea da, ain zuzen be «Endañeta berri» baserrikoa.

Beste arri jasotzaille txalotu bat, «Soarte» izenordiaz eza-gutzen dana, Angel Albizu, «Soarte» izeneko baserrian jaioa da, Lastur Goiako ballera edo auzoaldean. Lenago esan dogun Endañeta, Elorriaga ballarakoa da, Itziar eta Zumaía bitartean egiten dan ballaran, itxas gaiñean. Iru baserri dagoz an izen onetakoak: Endañeta berri, Endañeta erdikoa eta Endañeta zarra. Irurak dira, jaubetasunez, bertan bizi diranena.

Urteak dirala plazatan txalotu eta goratua izan zan «Arteondo» bat. Vitor Zabala izenez. A be itziartarra zan, «Getari» baserrikoa, Itziar'ko eleiz ingurutik laster egiten dan etxean jaioa.

Deba'k, bere baserrien jatorriz, ba dauka entzutea beste zeregin baten be.

Ezagunak izan dira Euskalerrian «sasi-medikuak». Baserritarrak eta bestelako askok osagille jatorrei baiño konfiantza, fede

eta artu-emon geiago eskintzen eutsen.

Berriatu ingurutan, esate baterako, Jaungoiko txiki bat zan Txomin Arambarri, lengo gizaldiaren azkenetan. Argentina'n be egon zan eta an be sekulako fama laga eban. Berak ekiazan botikak egiten, gure mendietan aukeratzen ekiazan bedar eta sus-traiekaz.

Azpeiti aldean Doktor Trukuman bateri nekez kendukó dautse «tituloa» ingurutakoak. Eta emen, Deba'n, gizaldi onen asieran, fama andia euki eban «Sakabi» ez-izeneko gizon batek. Sebastian Azpiazu Unanue zan bere izena. Oraindik gure denporetan il zan, 1 934 urtean. Izarraitz mendian batzen ekiazan bedarrekin eginda-ko botikaz, itxaropena galdutako asko barrero irribarrezka ekarri zitun bizira, batez be biriketako sukar edo pulmoniak eta beste sukar gaiztoak artuta il zorian egozanak.

Deba'ri itxasoak ez dautsa bizi andirik emon azken gizaldietan. Itxas egalak, ondartzak, bai.

Arabarren ondartza, plaia dala esaten dabe Deba'ko au. Gasteiz, Bitorixa'ren itxas atea. Izan lei. Aldekoa eleberri edo nobela egilleak be aitatzten dau ori bere liburu baten.

Gaur erriak bertako ezaugarri lez monumentu bereziak egiten diarduen onetan, ala artzaiñari, txakurrari, arrantzaleari, sardin saltzalleari eta abar, Deba'n bañulariena falta da, «bañistarena». Ondartzetako zaintzalle zintzoarena. Onetan, Deba'k euki izan ditunak, benetan txalogarri eta eskargárrri izan diralako.

Iñok eztaki zenbat bizi zor dautsezan eurei. Leen geiago, gaur baiño. Gaur, nai ta askoz geiago ondartzetan ibili eta arriskatu, beste jakintza eta beste lagungarri errezagoak billatzen diralako.

Deba, sasoi baten beste erri batzuen antzera, ondartzaren otsein, esklabu izatera eldu zan. Norbere etxe eta ezaupideak, galdu egiten ziran, norbere bizitza guztia udazalien zerbitsuan laga eta erabili. Egia da ori.

Deba, gaurko agirietan, onela ikusten da. 4.600 bizi lagun. Amar urtetan, batez beste, 300 lagun geiago. Industriadako gai diran tokiak gertaten ari dira gaur, Itziar gaiñean, eta areik beteten ba dira, Itziar'en bertan 20.000 laguneren erria sortuko dala diño, urte gitxiren barruan. Lurralde ikaragarriak landuten dabiltz an, mendi moltsoak kendu, eta zuloak beteten, Gipuzkoan tokirik billatu eziñez dabiltzan industri askori dei egiñaz.

Urak geitzeko ardura eta ur zikiñen bideak egokitzeko kezka dabiltz kalean. Etxegintzan, azken urteotan, asko barriztu dira, eta premiñarik ez ei da igarten.

Euskera kontuan, batzuen kezka eta besteen ardura eza, beti-

ko antzera. Erdiz erdi ete gabiltz euskaldunok? Or nunbait.

Irakaskintzan, batez be bigarren mallako premiña igarten da. Gaur askok urteten dabe bertatik auzo errietara, batez be Ondarroa'ra.

Artea erakusteko eskola bat zabaldua dago. Lenengotan amets ugari. Baiña olako eskolak diru asko bear dabe eta debata-rreren asmoak labur gelditu dirala dirudi.

Deban, beste leku askotan lez, gairik ez da falta, garia bai. Ori da gaur asmo asko etenda lagaten dauzan morroi zitala.

Deba'ko kaiari, portuari begira, batek itaun au egiten dau be-
retzako. Baiña egon ete zan emen porturik?

1422 urtean, Bakio'n, Untzuetako etxearen inguruan, burru-
ka gogor bat egon zan. Antxe il zan Santxo Martiartu. Bai eta De-
ba'ko agintari nagusia, prebostea.

Butrondarrak sortu eben burruka ori.

Andik laster, ia bereala, Deba'ko agintari orren semeak erre-
bantxa artu eben. Iñor konturatu baiño len, Bakio'n leorreratu eta
Errenderiko Iñigo eta beste amaika gizon il zituen.

Deba'n ba egozan ontziak eta itxastarrak ori egin al izateko.

1794 urtean, frantzetarrak Ondarru'n sartu eta erri guztiari su
emon eutsenean, Debatik etorri ziran. Ain zuzen be an eukezan
frantzetarrak janariz beteta itxasontzi batzuk. Ondarrutarrak ara
joan eta ontzi bat ostu egin eutsen. Orren amorruz, biaramonean
Ondarru'ra etorri eta kale guztietako etxiei su emon eta sekulako
barrabaskeriak egin zituezan.

1534 urtean, atzerago jota, Gipuzkoan egin zan itxasontzien
kontu artze baten, egun aretan ez eben billatu Deba'n ontzirik,
baiña debarrak esan eben bertakoak ziranak Sizilia'n eta Levan-
te'n eta Andaluzia eta Portugal'en ebiltzala. Egundaretan motri-
kuar karabela bat egoan Deba'ko portu orretan eta azkoitiar baten
beste ontzi bat. Biak eun tonelada ingurukoak.

Orrela billatu leikez ainbat agiri. Ez bakarrik komerzioko gora-
beretan ebiltzan ontzienak. Bai eta bale edo ballenetarako joaten
ziranetan be.

Oraintsurarte Deba'k, portuan, Aduana be euki eban.

Gaur udazalien, beraneantien ontzi banakak eta kittu.

Beste burukomin bat ibili da Deba'n azken denboretan. Egin-
go ete Endala'ko muturrean, itxasertzean, ainbeste zer-esan, kez-
ka eta bildur batsuei, edo ta besteak aurreraoide premiñetan nai
ta ezko lez etsiten eben Nuklear indartegia?

Bizkaia'n Lemoiz lenengo. Beste bat Ipazter'ko Ogella'n egi-
teko zan. Asmoak ba ziran beintzat. Irugarren bat Deba'n...

Ba dirudi Lemoiz en algara eta ondoren negargarriak Debarren kezkek mututu dituela. Eta asmoak geratu dirala.

Milia eta Usoa gogoratu dodaz len. Oraintsu, illuntze baten, txistulari, dantzari eta ia erri osoak lagunduta, «Tene»ri lagundu geuntsan bere elizarako azken osteran, gero bere gorpua iltegian lagateko.

Zenbat urte, Muxika'tar Tene, gorputza lotu ta gogoa argi, euskal seaska ondoan, zuk zure «Miren Itziar eri idazkiak» liburuan esaten zendun lez, gure kumatxoari «dan-ba dan-ba» kantuz bigun-bigun?

Orra euskal elertian (literatura) iru emakume, Deba'ko, gaurko eta ondorengoan eredutzarako.



DONOSTI

Ba gara.
Gure bai.
Kalera!
Nora nai.
Beti pozez,
beti alai.
Sebastian bakar bat da
zeruban
ta Donosti bakar bat
munduban.
Zer santuba ta
zer erriya,
ta zer gaur egun guziko
alegriya.

Eun urte baiño geiago daukaz kantu onek. Raimundo Sarriegi'k egin nai izan eban musika bat Donosti'ko martxa izateko asmotan.

Lesakarra zan Sarriegi, nai eta donostiar asko baiño jatorrago bizi, agertu eta sentidu.

Sarriegi'k ez eban pentsatu bere eresiantentzat, musikarentzat berbarik. Zarata atara ta kittu. Soiñu eta ereskiñekin burrunbara, orru eta arrara atara ta aurrera.

Baiña donostiarrak eurenan poztuta zerbait abestu be nai eben. Sarriegi'ren musika bizi, zarata eta durundi ori berbetan agertu. Ortik asi ziran batzuk «Gaur degu bai, bai bai...» berari ipinten. Besteak «Au poza, bai, bai bai...» Edo ta antzerakoak, zer

esan andi barik, sakondu barik, jostallu bat bakarrik egin nairik. Zerbai dotoreago egin nairik Serafin Baroja izan zan asieran agertu doguzan bertsoak atara zituana.

1861 urtean emoten dautse asiera. Sarriegi'n sasoirik onena: 21 urte.

Iru urte geroago martxa jator lez, erri-martxa lez, ofizial lez aukeratu eban Donosti'ko Udalak.

Gitxi dira gaur berbak, itzak, dakiezanak. Baiña tamborrada, donostiarrentzat, jairik errikoiena da, poz eta alaitasunez beteten dituana.

Jaiak egiten diranean tamborrada izaten da donostiarren asierako jai, festa. Eta orretara jota, ba dakigu Donosti zer dan:

Festarik bear ba da
bego Donostiya,
betikoa du fama,
ondo mereziya.

Ez gara sartuko gaur kondairaren sakonetan. Alai eta arin, azal-azaletik, Donosti'ren kantariekin ibilliko gara.

Ara bat: «Bilintx». Izen orregaz ezagunago zan Indalezio Bizkarrondo. Donosti'ren abeslari erromantikuena. Miñez biziteko jai zala, esaten ekian beragaitik Mourlane Mitxelena'k. Il be miñez egin zan karlistak Mendizorrotz gaiñetik jaurtitako obus baten zaurien ondorenetik, 45 urte betetzean.

Triste bizi naiz eta
ilko ba nitz obe,
ba dauzkat biyotzian
zeinbat atsekabe;
bañan... aren jabe
sekula izateko
esperantzik gabe.

Baiña bera Donosti'rentzat zer izango zan jakiteko, gogoratu bere plakan ipinitako esakera au: «Bilintx! Donosti maite ontan zure bertsoak entzuten genituenok esan genezake Jaunaren miserikordia kantatzera joan ziñan ezkeroztik zerua bera gozoagoa izango dala».

Goazen atzerago urtetan. Itxasotik begiratu nai mendi gaiñetik, laster billatuko doguz danetako goratzalleak. Juan Bixente Etxegarai'renak doguz beste oneik eta 181 6'en egiñak dira:

Donostiya'ko alkate jaunak
emanikan lizentziya,
goizetatik datoz jardineruak
kantatzen martxa berriya;

konpasa artubaz umore onez
alegratzeko erriya,
soñuba dute guztiz ederra
bere artean jarriya.

Kontuan euki iru urte lenago Etxegarai onen etxea erreta gel-
ditu zala. Ala ta be bere kantu gogorik ez zan itzaldu. Larogei ta
bat urtetan bizi zan: erriko langillea, empliadua izan zan, baiña
erriak sekula ez eutsan ordaindu berak kantu eta bertsoan egin-
dako zabalkundea. Bera zan «festara» abesti ezagunaren egillea.
Bera baita beste oneik egin zituana:

Adiskide maiteak,
au da Donostiya,
orain sei urte t'erdi
erretako erriya;
polita zan lenago,
gaur ederregiya,
beti paregabea
ta maitagarriya.

Ez dot nai iñor aztu. Gogoan daukat Arzak bat. Beste batenak
ekarriko ditudaz. Zein zan? Berak, beragaitik, au esaten ekian: «Ni
naiz don Pe, geratu nitzalako begi-pe». Au da, erdal tituloagaz,
don Pepe. Pepe Artola. Euskal antzezleri errikoiena. Onak ba
ekian, bere ugaritasunez, poesi ederrak egiten. Il zanean, bere on-
dasun bakartzat, 580 orrialdedun kuadernu bat laga eban, bere
bertso eta lanekin.

Zeiñen ederra agertzen zeran
Donostiya'ko uriya,
ba dirudizu ego zabalik
dagon egazti txuriya,
dontsu, liraña, polita fiña,
gozoa ta eztiya,
bedeinkatua izan dedilla
beti beti Donostiya.

Eta zeñek aaztu Donosti zarreko abadea, apaiz koxkeroa,
arrantzalien aita, arrain saltzalleen adiskidea, Donosti jatorreko
etxerik geienatako maietan leku egiten eutsen abade zintzo eta
euskaltzale sutsua? Donosti'ko alderdirik geienak agertzen dira
abestietan. Alderdi bakoitzarentzat puntu egoki bat. Irakurri
«Bretxa»ri egiñak:

Asto kaletik sar liteke
errex-errex,
Alper askoren atariya;

zalantzan beti dendariya;
andre kaitarrak oyuka berriz;
«Oraingo bokarta biziya!...

Santo Tomas eta San Sebastian dira donostiarren erri jaiak. Soinu eta musika, euskal antzerki-teatroa... Eta famili askok ostatu jatorren baten apartu soku bat egiteko egun izentatuak. Illuntzeko euskal antzerkin aitzakitzat artzen dabe askok onetarako. «Teatro zarrera» joateko aukera artu, eta gero aurrez erdi gertutako menu berogarri bat, eguna goratzeko, ostatu jatorretan.

Egun oneik donostiar antzertiliarik be gogoratu eragiten dauskuez: Orra bat: Marcelino Soroa. Koldo Mitxelena'ren esanetan «euskal teatro barriaren aita» Zeiñek gogoratu ez «Gorgonio'ren estutasunak» Gimon'en musikaz dotoretuak? Mingarri da izen utsak aitatzea, baiña zelan laga Toribio Alzaga, Barriola, Usandizaga eta abar, idazle edo musilkalari, donostiar jator beti?

Donostiar jatorren begiz begira nabil ni be Donosti oneri, tanborrada asi aurretik. Niri be ba datorkidaz biotzera esan naiak:

Rau, rau, rau!
Tanborradak ots egin dau.
Biotz alai,
begi ernai,
gazte aldrak
kaletan jai.
Arin orain,
gero lasai,
tanborrak orru,
biotzak tuku.
Or aitona negarrez
ta illoba irriparrez...
Donosti oso garrez
tanborraren indarrez.
Tanborrada kalean,
Donosti guztian jai,
gar baten min-miñetan
Amara, Bretxa ta Kai.
Bereak ditu Donostik
edertasun parra-parra,
baiña biotzak batzeko
bego tanborrada!



EIBAR

Batek ez daki nundik begiratu.

Azитайn aldetik sartu, nai Isasi'tik beera; Elgeta gaiñetik nai Arrate'ko bidetik, laster konturatzen da bat Eibar zer dan. Edonundik sartu nai ikusita be, uri legez, biziteko toki legez, zatar eta itsu agertzen da.

Ala ta be, beti geitzen ezagutzen dogu.

Erri neketsu, etengarri, opildutako, eratasun gabeko...

Eta beti ugaritzen.

Zabaltzeko toki barik, etxegintzarako karu, lurretan neurri gabeko balioz, topografi gaitz...

Eta beti geitzen.

Orra Eibar'en miraria.

Mirari onek eragintzalle zur, bizkor eta urduri bat dauka: Lana, biarra.

Bertako berrogei milla inguru bizilagun, egunero, fabriketako maillu ots eta prensaen dangada bete eta sikuak entzuten jaikiten dira; eguerdirako galtzairurik onenei gurpilla billatzen alegindu; eta illuntzerako, lanari eginda, makurtuta, burdinkien auts, likinkeri eta beroz egarrituta, barriro biaramonerako arduraz.

Lanetik kanpora beste edozer billatu nai izatea, denpora galteza da. Emengoa jakiña da: Lana eta lanaren egarria.

Emen ez dago alperrik.

Unzaga plazan edo tartetako leku estuetako jarrilekoetan

ikusten diran gizon taldetxoak be, lanean zaartuta, lanik ez egitearren amorruz kezkatuta bizi dirala esaten dabe.

Erle alperra lez, salduta gelditzen ei da emen biarrik egin nai ez dabena eta itto baiño len iges egin bearrez.

Bertan bizi diranetatik gain, egunero ia bi milla lagun sartzen dira Eibar'en. Danak lanera. Inguruetako errietatik etorten dira, Soraluze (Plasentzi) eta Bergara aldetik, Markiña ingurutatik, eta itxas aldetik be bai, Mutriku ondotik.

Bein Toledo'n nebillen. Eibartar lagun bat gertatu zan nigaz. Ango damaskinauak ikusi, esku artean erabilli, aztertu eta arakazen gebiltzan, denpora-pasa, arratsaldea igaroaz, an gengoazan zkeru. Betikoa, toki bakoitzean bertako berezitasunak ten eginda.

Toledo'ko biarrak ainbestetan ikusi eta saltzeagaz arrituta nengoan. Nik umetatik artuta neukan Eibar'ko biarraren dotoretasunaren barri eta entzutea. Toledo'koaren merkataritza ainbestekoa zanik ez nekien. Eta lagunari esan neutsan: Nun saltzen dozue zuek Eibar'ko biarra? Irribarrez erantzun be bai, berak, laster: Asko, ementxe, Toledo'n.

Sal-erosketara gora-berak, komertzioaren eskutuak. Almazentzat, erosle andientzat, «Eibar'ko biarra» etorten da. Eta almazenetatik urtekeran, emengo merkatarien bataioz, Toledo'ko biarrean biurtzen da turisten begirako.

Perriando Amezketarrarena: Tratua tratu.

Eibar, lanari lotuta, bere problema eta buruausteekez bizi izan da. Gizarte erakoak, sozialak. bai eta ekonomi aldekoak. Lanaren ondorenak. Ekin eta izerdiaren ordaiña. Beti kezkatu. Noz-nai larri. Askotan aurreratu nairik. Batzutan, denpora areitan, sasoiko tradizioko bideetatik urtenda. Lanari bere indar berezia emon nairik; langillearen nortasun zuzen baten atzetik...

Iñoiz pentsatu izan dot: gaurko jokeretan agertu izan ba litz Eleiza, Eibar'en jokabidea ain bestaldeko irudituko ete zan? Edo ta ez ete ziran batuko pentsakerak, edo ta beste bide baten mugatuko?

Eibar'eri ukatu ezin leikion meritua: bere bideetan euskaldun agertzea.

Erbestetatik etorri eta etxekotu aurretik, iturri garbietatik mundilloetan, etengabeko ur karriuan ibilli bear izaten eben mutillak be, igarri barik ikasten zituen, gaitzak izanda be, iturrien ize-nak eta bideenak.

Eibartar jatorrak ez dabela euskera jatorra egiten? Kontuz! Motrollokeriak lagata, eibartarren jiroa nai leuke gaurko askok. Bat da erdal itzak, berbak sartzea; ori eskolen akatsetik etorri lei; norbere izkuntzan egunerokotu aurretik, teknikan eta erbeste jakiñetan aurrerago zaletu eta konturatzetik. Baiña pentsakeraz eta kutsuz eta joskeraz erabiltea da beste bat. Eta onetan Eibar'en ba dago euskal nortasuna. Kezka be bai. Toribio Etxebarriarenak irakurri:

Beizabal eta Eguarbitza,
Otola eta Olerria,
Mandiola eta Gorosta,
Arrate eta Akondia,
Loixola, Azittain, Aixa
eta Kiñarra ballia,
zeren itxura alde onek
an balítza erderia,
eta ordez, aintzakotzak b'ez
gurasuen euskeria?

Euskereari ikututen asi orduko, ezin basterrean laga eibartar jator bat: Mogel. Eibar'en jaio, Calatayud'en ikasi, Markiña'n abade lez bizi ta...euskal maixu. Or dago bere «Peru Abarka» bizi dogun euskeraren muiña erakutsi nairik, konturatu eragin nairik.

Gure errietako esakera da Eibar eta inguruetan txori batik ez dala ikusten. Txori bateko milla eskopeta agertzen dirala.

Eibar'en eskopetak beti egon izan dira modan. Eskopetetatik etorri be egin yakon Eibar'eri bere bizitasuna. Nai ta urte batzuetan, errien arteko legeen urratsez, ittotasunak ezagutu eragin be bai. Ortik asi bide barriak billatzen. Ala, 1925 inguruan bide barrietan sartu bear izan eban bere langintzak. Urte orretan bizikleta lantegi bat zabaldu zan. Eta orretan be nortasuna artu.

Eskopeten bildur barik, lengoari jarraituz, goiz oso bat igaro neban Eibar'en biotzean, Isasi gaiñean, kaiola barik etxeko miradorean libre ebiltzan txorien artean. Antxe ezagutu neban, orain berrogetak urte, liburu eta txorien artean, Manterola abadea. Eta antxe ezagutu baita be, sasoi aretan arrigarri zan jokabide bat: monjak euren zeregiñak euskeraz egiten. Isasi'ko monjak 1618 urte ezkeroztik dagoz Eibar'en.

Eibar zarra ba dua geldi geldi aldatzen. Arritzeko da, bere tokirik ezagaz, etxe batzuíc oraiñarte lengo era eta neurrietan jarrai-

tzeta be. Iru-lau jauregi eder ba ziran Eibar'en. Ba doaz makurtzen. Itaun bat datorkit: Zetatik deitzen ete eutsen Isasi'ko etxe jatorrari palazixua eta Unzueta'koari jauregixa?

Bereiztasun orrek eukiko eban, segurutik, jaiotzeko nortasunen bat.

Eibar'en, kalez kale, ezin lei billatu bere egikerari buruz, etxe-gintzari buruz, jokera ziur bat.

Eleiza bera, eleiza ederra, gotikoa da bobedetan, barrokoa al-daretan eta pizkunde tankerakoa pillaretan. Korintiar txapitelak ikusi leikez gaiñera bertan, Gipuzkoan beste iñungo eleizetan ikusten ez diran lez.

Oraindik erri askotan ospatuten da, Irailla'ko Andra Mari eguna.

Eleizaren aginduetan, Andre Mariaren jaiotz eguna gogoratzten da. Baiña deitura ori barik Euskalerrian beste deitura asko emoten yakoz egun onetako jaiari.

Batzutan bigarren Andra Mari. Bear ba da Dagonilleko, Agostuko Andre Mari eguna gorengo jo-ta, aren urrengo, jaiean eta ospatzeko eran, au datorrelako.

Lenago zan Andra Mari Martiko, baiña Euskalerrian oraindik ez da giro onik egoten sasoi aretan erriko jaiak egiteko.

Irailla'ko Andra Mari be deitzen dautse. Edo ta Andra Mari txiki. Beste askotan leku edo tokiaren izenak emoten dautsa deitura jai oneri. Ala, Eibar eta inguruetan, Markiña aldean, Deba erreka ondotan, eta beste toki ugarian, Arrate'ko Andre Mari deitzen dautse.

Oraindik asko joaten dira oiñez, Ondarru aldetik, gaur utsik dagozan Armetxa baserri etxe ondotik zear, Jaungoiko-mendia igaro eta andik Arno-atetik zear Arrate'ra. Edo ta Markiña aldetik, San Migel'dik zear sartuta. Etxebarritarrak be bide au erabilten dabe. Gaur, Bariña'tik zear, Agiña'ren azpitik doan bidea be askok erabilten dabe, batez be kotxedunak.

Ezagunak dira bertso zarrak:

Arrate'n altarea
erramuz jantzirik,
lirio zuriz eta
lirio gorririk.
Antxe kantaten dabe
Salbea ederki,
neu be araxe nua
ikusi al ba negi
Gabean Salbea ta

goizean mezea,
Birgiña Arrateko
zeruko lorea.

Inguruetatik zaletasuna dagola esanda, ez bastertu eibartarren joerarik. Garrezko joera gaiñera. Ezagunak dira baita be euren beste bertso erako oneik be:

Arrateko zelaiko
ai floridadea,
andixeko gora dago
zerurako bidea.

Eibar gañean dago Arrate. Erri burutik ia zortzi kilometrotara. Inguru asko bere menpean artzen dauzala. Eleiz ederra. Azken urte oneitan barriztaua. Ez edozelan be. Gaurko giroan, bein aste-kotan, gauzak itxuraz egin bear dirala ta alaxe asi eta ekin eutsen, orain iru-lau urte. Orrelako lanak luze izaten dira. Bat asi eta beste sortu, Batak bestea eskatu. Eten bako katea.

Eleizetako obrak beste giro bat bear izaten dabe: eleiztarrena. Eta eleiztarren patrikeren soñuan dantzan egin bear. Orra, ba, Arrate, kaku onetan nastauta.

Arrate'ko eguna, lenengotan, Gabon illean ospatuten zan. Sortzez garbiaren egunean, Kontsesiño egunean, Jakiña, negu-atean.

Asarre asko egon ei ziran sasoi aretan, beste egun egoki batera aldatzeko gogo eta kezka agertu edo sortu ziranean. Beti egoten dira, edozetan be, ekaitz eta txingor, nai bare eta kalmaz, gauza bat, bere izatean itsu gorde eta zaindu bear dala, nai ta ezeean zaindu bear dala ta ekiten dautsenak. Itsu-itsu jokatu nai izaten dabenak. Beste batzuk, alderdi egokiaguak edo errezaguak, probetxu obeagoak edo ariñagoak begiratu eta erabilli nai izaten dabez. Toki askotan ezagutu izan dira Euskalerrian negu gordiñeko jaiiei eutsi naiez ibilli diranak. Baiña gero, nai ta asarre eta gogo txarrez, aldatu bearrean aurkitu. Ala, esate baterako, Berriz'en, Andikona'ko Andra Mari. Otsaillean, kandelarioz ospatzen zan asieratik bertako jai. Baiña gaur Udabarrarian, Asentsio egunera aldatuta dauke bertako egun ori eta segurutik neguan joan eziñez aurkituko litzakezan askok, Andikona'ko osterea nai ta ezkotzat lez artzen dabe. Borondatearen indarrez.

Arrate'ko au 1573'en aldatu zan. Orduan Aita Santu Pio IV'k emon eban onetarako baimena. Ikusten danez, bertan artutako erabagi utsez ez eben aldatu eibartarrak jai eguna. Goitik indartu nai izan eben aldakuntza ori.

Arrate'ko Andre Mari au noizko danik ez dakigu ziur. Batzuen ustez, XIII garren gizaldi ezkerro Andre Mariak ba eukan Arrate'n bere eleiza. Jakiña, esanak, entzuteak eta orduko giroak eroaten gaitue orrela pentsatera. Eritxi onetakoa zan Aita Lizarralde, frantziskotarra, Euskalerriko Ama-Birgiñaren irudirik geienak ezagutu eta ikasi zituana, gure errietako irudien istori egillerik zabal eta ugariena. Bere ustez be XIII gizaldiko lez etsi leike Arrateko au. Baiña dokumentu eta agiriz ziurtateko, ba dirudi 1498 urtean biltzen dirala lenengo paperak. Jakiña da beintzat 1508 urtean ba egoala Eibar'en Arrateko Amaren Kofradia izenagaz ezagutzen zan alkarte bat. Eta ordurako, erromesen gaixot alkarte bat. Eta ordurako, erromesen gaixotegi edo ospital bat be ezagutzen zan Eibar'ko errian bertan. Eta goian be bai, Arrate'n be, gaur Partxua izenagaz ezagutzen dan etxea, antxiñako denporetan Santiago'ra-ko bidean erromes eioazanean egon leku zala esaten da.

Orra, urtetan, Arrateko zerbait.

Orain ezagutzen dan eleiza, ba dakigu ez dala lenengoa. XVII garren gizaldian egiña da. Leenago ba zan beste ermita bat. Eta ain zuzen be aren ur-bedeinkatu ontzia ipiñi eben azkenengo onetan.

Arrate'ko eleiza eta Andra Mari au inguruetan ospatuek diralako, askok ikasi nai eben eleiza onen istoria. Ala Gregorio Mugika'k, Polikarpo Larrañaga'k, Aita Lizarralde'k, Eugenio Urroz'ek eta beste askok lan eder eta sakonak daukez ontaz.

Aita Emiliano Barandiaran karmeldarra be, Eskoritzako semea, asko saiatu eta alegindu zan, olako jakin bidean.

Irakurri daiguzan bere jakingarri batzuk:

Arrateko gain inguruan Euskalerriko mendi bazterrik atsegingarrietakoa da. Bai gorputzarentzat, bai, batez ere animarentzat. Euskalerriko mendi gallurrik arroenak, alkarri eskuz elduta bata bestearen ondoan iarri bai-lira, itzulinguru guztian erreskadan dagerkigu: Urko, Oitz, Gorbea, Udalaitz, Anbo'to, Arlaban, Aloña, Aitzgorri, Aralar, Ernio, Andutz, Izarraitz... eta beste ainbat eta ainbat mendi ta mendixka... Menditzar oien aurrean, gu, bai, gerala txatxarrak! Alare, berez arroxko zaigun gure biotzak mendi goietan artzen duana izaten dala, bai poza, begi mendean andik ager zaizkiguñ bazter guztiak gure-gureak bai lira!

Berdingabeko poz auen berri ongo dakite, kale xulotik igeska, ordutxo batzuetarako baizik ez pada ere, jaiero aize osasuntsu billa Arrate'ra jo oi duten eibartar eta eibartar ez tiran ainbatzuk».

Irudia noizkoa dala uste dan lez aitatu dogunarren, Aita Emi-

liano'ri be entzun daiogun. Orra bere esanak:

Noizkoa dan, gauza garbirik iñok ez dakiala dirudi. Oso antxiñakoa dala aitortzen eztuunik, ezta ordea.

Kanta zarretan irakurtzen degunez, Amandrea deitzen saio sarritan.

Irudia bera, tankera bidez, ongi aztertu dutenai zor diegu, batez ere siñisterik geien. Eta auen iritxiz, X garren gizaldi ingurukoa edo-da. Beste banaka batzuk ba dira, ordea, Arantzazuko, Begoña'koa eta Orduña'koaren garaietakoa dala diñoenak.

Dana dala, geien geienak ao batez egitzat daukatena auxe da: bere antxiñako izena «Arrate'ko Ama Birjiñaren Sorkunde Garbia» zala... Beraz Euskalerrian aintzakotzat agurtuak izan diran irudi guztien lenbizikoa dala... Gernikako Euskal Batzar Nagusietan Ama Birjiñaren Sorkunde Garbia siñestu ta aitor-erazteko erabakia artu baiño lenagotikoa, zin ziñez.

Irudi au oso txikia da; koro ta guzti, ezpaidu ematen neurkin erdi bateko luzera baizik.

Eibartarrentzat, Arrate, fedearen eutsigarri lez, arnas leku be ba da. Eibarren arnas tokia.

Eta Eibar bereizten daben izena.

Toribio Etxebarria zanak, Ibiltarixanak deitzen dan liburuan, Arratetikuak deitzen dautse bere bertso batzuei, eibartarren langintzetako arduradun eta sortzalle asko gogoratu eragiñez. Arrate bai litzan lez, Eibar'en auspoa.

Jakingarri dira bertso batzuk, batez be Eibar'en bizikera eza gutzen dabenentzako.

Eta or, orruzko baten

Urko dan lekuan,

eta Galdaramiño

lagun letz albuán:

Ego alai datorrela

bere arte estuan,

auzo bat izango da

izateko orduan.

Txatxarra bai seguru,

aundixa benetan,

makur mendi artian

jasua obretan:

ixilla astegunian

ez jai egunetan,

zalla ba da lanian,

zalla jolasetan.

Berreun bat baserri

bere muga artian,

solo zallak dituela

aldatz aldatzian,
erañak euzki galdatan,
egurtza añubian,
artaldi urrin baten
beixak etxian.
Baiña naiz Arrateko
euzki begietan,
ta naiz Kiñarra aldeko
arbel azaletan,
edo Agiñan diran
bustintza otzetan,
nausi eta ume biar
danak zereiñetan.

Itxas gizonekin be ba dauka ze ikusi Arrate'k. Arratetik itxaso ikusi egiten da. Origaitik, itxasotik be, Arrate'ra sarri begiratzek dakie arrantzaleak. Oitorea izan zan gañera, luzaroetan, itxasora begira egiten dan eleizako ormea zuriz eukitea, karez zurituta eukitea. Gaur lako teknikarik eta ikasirik ez euken denporetan, itxastar batzuk Deba'ko errekan sartzeko, orma ori artzen ei eben gidari lez. Luze doaz gure esanak eta sinisteak oitura, ekandu edo joera batzuk agertu naiean. Dana dala, guk esaten dana, esate lez adierazi eta jakin erazi nai dogu.

Jaiean, Andra Mari egunean, gure denporetan, Arrate'ko irudi au altaran daukan bere lekutik atara eta egal baten eukiten zan, bertara joaten ziranak, batez be umeak, bere azpitik igaro al izateko. Eta zelaira be ataraten zan, an be bardin egiteko. Onetan, umeak eroaten, erri askok euken bertarako joera. Ez bakarrik inguruetatik. Bai Bermeo, Zornotza, Aramaio eta beste errialde askotatik be.

Mendi gain onetan, ba dago beste oitura bat be. Eleizatik laster, arrizko kurutze bat dago. Eta ezkongai billatu nai daben neskatillak iru buelta emoten dautsez ezkongai on bat, nobio on bat billatu al izateko.


Arrate'k ba daukaz, ikusten danez, fede oneko tengarriak.

«Matano» ardaule amorratua zan bere denporetan. Moskortxua. Baiña biargin utsa. Gixajoa okertuta ikusten eben domeketan. Beti biarraren aurka, lanaren kontra sermoi-giñan.

Baiña astelen goizean asi eta zapatu gaberarte, denporarik galdu barik, egunean amar amabi ordu lanean sartzen.

Astelen goizetik asten ei zan mundilleko ura eskatzen. Iñor baiño lenago. Ajia eta egarrixa kendu nai, biarrean erantzuteko, iñoren aitzaki barik.

Asteko bere «keja» au izaten ei zan: Eibar au gogorra dok. Emen ardaule domeketan bakarrik dago astixa, eta biarrerako aste gustixan.



ELGETA

Zein erritako kanpai torrean, tokirik goren eta aizetsuenetan, ez dira akolituak kanpaiak jo bearreko ordu aurretik batu eta jo-koan gartsu ibili?

Elgeta'n, bertan bizi zan Uranga margolariak, pintatzalleak, euren saltsan ikusi zitun eta kuadru baten betiko irudituta laga.

Ez zan Pablo Uranga elgetarra. Ez eta bere emazte be. Baiña Kaperotxipi, Zuloaga eta beste batzuk lez, egun atsegiñak eta denpora luzeak emon zitun emen. Bai gai ugari bertan artu eta irudietan egokitu, be.

Elgeta'ko iturri bateri, Zuloaga'ren eskabidez Pako Durrio'k egindako plaka bat ipini eutsoen, Uranga'ri erri onen esker ona agertuz.

Uranga gaztetxoa zala, Durrio'k deitu eutsan Paris'tik, artista egitea lortu nai ba eban ara joateko-ta. Uranga, -igarri sasoi areta-ko giro eta ikasketak Elgeta'n zer izango ziran-, eun peseta patrikaran eta Kristiñau ikasbidea, «dotriña» bat aldian eroazala eldu zan Paris'era.

Uranga'ren beste ikuspegi bat. San Roke'ren erreztazalle asko bizi izan dira Elgeta'n. Kale bat be ba dauka santu onek. Or ebiltzan bere kuadro bat euki nairik. Uranga zirikatu, baiña onek luze emon. Bein bere osaba zan parrokoak, sasoi zala zerbait egiteko ta gogor egin eutsan. Uranga'k, nagiak kendu ta erretorea siestan egoan bitartean egin eban irudia. Ain arin zelan egin ete eban itandu eutsenean, Paulo'k erantzun be bai, ain arin ezetz, illak kostatu yakozala a egitea, illetan erabilli ebalako irudi ori bere irudimenean egoki biribildu ezifnez.

Pozik ipini eben kuadro ori eleizako ormetan. Eta bat gitxi zala ez esateko be, San Prantzisko'ren beste bat egin eutsen.

Uranga'k, ordu asko tabernetan galduarren, lan asko egin eban Elgeta'n. Sasoi baten ardura gitxi artzen ei eban bere lanak zaindu eta gordeten. Origaitik gertatu lei bazterretan bere zerbait agertzea. Orainsu ollotoki baten billatu ei eben bat, leio zulo bat estaltzen. Orra. Zenbat zuringo eta goringodun arrautza bear ete dira gaur Uranga'ren kuadro bat bere kolore urdin-nabarrekin nor-bereganatzeko?

Esakera zarra da:

Elgeta'n ogi beroa diruetan,
aize otza duban.

Adiskide zar bateri entzun neutsan beste au:

Elgeta,
aize errota.
Elorrio'tik otza ba dator
Bergara'ri begira egin siesta.

Goazen aurrera. Lanean asi aurretik ez daigun jo illeta.

Eliza andi eta zabala da emengoa. XVI gizaldian barriztatu eta anditua. Gure gerratean be kalte asko artu eta barriztu bearra eldu yakon.

Jasokundeko Amaren izeneko parrokia. Origaitik erriko jaiak Andra Marietan izaten dira.

Zidar giro eta Pizkunde bitarteko aldare eder bat dauka. Uriarte'ko eleiza izan ete zan emengo lenengo parrokia? Gaur bertako Andra Mariaren irudia emen dago. Bai Santa Ana be. Gotiko ederrak biak.

Illobi bi, arrizkoa bata eta marmolezkoa bestea, agirian dagoz. XV eta XVI gizaldikoak. Olaegi'ko Otxoa Donor baten; Ibarra'ko Martin bestean. Inkisidoreak, onek lez, ba ekien eurentzako illobi ederrak agintzen.

Flamenkoen eskolako iruki edo triptiku eder bat sakristian.

Parroki au, gizaldietan, abadeen eta erriaren zaindarieskubidekoa izan zan. Eleizako diruen arduraduna erriko gizon bat aututen zan, ez abadea. Lau abade egoten ziran parroki onen arduran.

Euskalerriko beste erri askotan lez, emen be ermitetan erriaren zaletasuneko santu asko gogoratzen dira: San Anton, San Blas, San Martin, San Roke, Madalena, Santiago eta abar.

Ubera'ko San Pablo be, eleiz legez, Elgeta'ko parrokian sartzen da. Bergara erriz, baiña aldatz andi arako eta lengo ibilbide-tan bide luzegi.

Oitura zarrak gordeten zalea da Elgeta.

Ara bat: Kurutzeko egunez argizariz egiñiko kurutzak gertuta egoten dira San Roke'ren ermitan. Eleiz nagusitik letaniak erreza-ten joaten da erria bertara. Ara eltzean, bedeinkatuten dira. Bertatik ortu eta soloak bedeinkatzen dira urtero. Lenengo kurutzeagaz; gero, alderdi bakoitzera begira, Barri-Onaren zati bat irakurten da. Ondoren, argizarizko kurutzak parrokira eroaten dira eta bertan laga.

Urteak urte, San Sebastian egunez, izen onetako kofradikoak batzarra egiten dabe sakristian. Eta Euskalerrrian ba dakigu batza-rron ondoren ze etorten dan: anai arteko bazkaria.

Kofradi edo Anaiarte oneri jatorri luzea emoten dautse. XV gi-zaldian sortua ei da eta elgetar jatorren benetako alkartea da.

Lengo gizaldietan elgetarrak euki eben erbestera joan eta an-di-naikeriz ibilteko garra.

Ala Pedro Albisua, XVM'an, Bretainia'ko gerraetan, begirale lez aurkitzen da.

Bere aita, Lazaro, gizaldi bat lenago, Nikaragua'ko kapitan na-gusi ezagutu zan 1 525 urtean.

Beste bat, Iñazio Azurza, Peru'n. Esku zabala, laguntzallee, biotz andiko gizona. Il zanean, esker onez, frantziskotar prailleak bere burua zidarrezko kutxa baten gorde eben.

Beste Azurza bat, Pedro, Gipuzkoa'k sargento nausi lez billa-tzen da 1615 urtean.

Elgetarra izan zan Pedro Etxebarria, Sizilia'n, begirale.

Aitatzen diranak baita, Fernando Egiluz, Santiago ordenako zalduna, eta Joan, Alkantara'ko zalduna.

Ez zan edozein Diego Ibarra. Indietako Nueva Vizcaya'ren makurpenetan, Mexiko'ko Errege-ordearen alabeagaz ezkondu zan.

Bakoitza bere zeregiñean, Juan Loiti, Oviedo'ko kalonjea, XVII gizaldian au be eta Antonio Otxoa Urrosolaegi, kapitana.

Ez ete egoan Elgeta'n andrazko aipagarririk? Ara bat, XIX gi-zaldian. Frantzetarrak sartu ziranean, preso artu eben, alde oneta-ko ofizialei iges egiten laguntzalle arduratsua izan zalako. Ilteko euki eben, baiña Longa generalak bere menpean eukazan ama-bost frantzetar ofizialen ordez kanjeatu ta azkatu eben.

Era bateko ta besteko gizonak aitatzean, ez daigun bazte-rran laga Txomin Iturbe. Or dagoz bere diruz egiñiko eskolak.

erriari eutsan maitasuna eta gogorapena adierazoten.

Zenbat metro ete daukaz Intxorta'k.

737 irakurten da paperetan.

Gerratean zan. Burruka gogorak, setatsuak, kementsuak egin ziran emen. Eutsi nai ta eutsi ezin. Artu nai ta artu ezin.

Bizkairako atea da Elgeta; Inxorta'k leioak, balkoiak. Origaitik gerrateko jazoerak.

1 937'ko Jorrailla'n zan. 20 aurreko egunak euritsuak izan ziran. Gerrateko Monografieta irakurten da egun onetan IV brigadak, 24 baja euki zitula ofizialen artean eta 303 soldaduetan. Eurretatik 6 eta 39 illak, besteak zaurituak.

23'n, aurrez aurrezko atake barri bat egin zan, barriro bertakoak ipiñi eben alegin eta indarraren aurka ezer lortu barik. Monografi orreitan esaten dan lez, emengoak ondo baliatzen ziran lurraren gora-berekin, bai eta ikusi be ez egiteko eran bertan gertuta egozan arma tokiekin. «Camino de los toldos» deitu eutsen ametralladoren beteta egoan bidarte bateri.

Aurrez aurre ezin eta taktika aldatu zan. Orrela Elorrio jausi zan 24'n, Udala-Kanpanzar-Intxorta linea mendean geratuz. Bertan ebiltzanetatik 600 gudari inguru iges egin eziñik sarean jausi ziran.

Goazen Intxorta'ra. Bilbo'ko egunkari baten irakurri gendun: Intxorta, ain kementsu aldeztua, bere lepoan artu daben zigorra erakusten gelditu da. Bere buru eta gerrian egazkiñen etenbako ekiña igarten da. Mendiaren itxura bera aldatu egin da, burua zapaldu eta moztuta, len baiño berago.

Origaitik diñogu, zenbat metro?

Beste gerraetan be Elgeta'ren izena zabal ibili zan.

1876'ko Otsailla'n, karlisten gudaldian, burrukaldi gogor bat egin zan emen. Liberalak artu eben Elgeta. Alde bakoitzetik lauren baja inguru euki ei zituezan.

Elgetarrak «txikiteru» entzutea dauke. Baiña emengoak diñoee lenago artistak dirala, lanean maixuak eta gero tabernarien lagunak. Nora jo Elgeta'n, aize brastadei igesi, aterperen batera ezik eta nun aterpe atsegiñagoak tabernetan baiño?

Euskaldun jarraitzen dabe emengoak. Bertan armagintzan edo tresnagintzan diarduenak, geienak euskaldunak dira. Base-rietakoak danak euskeraz egiten dabe. Kalean berreun inguru batu leikez erbestetik etorriak. Besteak, milla inguru, bertakoak edo ingurutakoak.


Urteko % 3 geitzen dua azken urteotan.

Eibar, Bergara eta Elorrio batez beste bide bardiñean eukia-

rren, banakaren batek urteten dau emendik kanpora lanera, eta etorri be ogeiren bat inguruetatik.

Etxean dago ba lana Elgeta'n etxekoentzat.

Eta osasuna. 460 metrotan, «kontaminazioñari» iges egin da billatzen da Alfonso XI'k Gazteiz'ko legediaren arabera erri izatea emon eutsan erri jator au.



ELGOIBAR

Elgoibar'ek lengo ondarrutarren pekatua dauka.

Il ondoren, kajan sartzean, aurea dotore-dotore ipinten eutsen, eta atzea...laga.

Josafat'eko zelaian ezagun izango ei dira ondarrutarrak aragiaren biztueran. Arpegirik emon nai ez-ta egongo ei dira baste-rrean.

Len, erriak, nai ta ez kale artetik bide nausiak igarotea nai izaten eben. Erriaren erdi-erditik. Burrukan, gaiñera, bakoitzaren etxe aurretik igaro eragiteko. Bidea izaten zan, geienetan, erriko kalerik andiena.

Eta araxe ta bertara ataraten ziran balkoiak, leioak; araxe arlanduzko ate andiak, eskudoak, tellatuen urteerak; araxe dotoreta-sunak, apaindurak.

Baiña mandoak bastertu ziran eta motorrak agertu. Landoiak, zaldi burdiak usteldu eta txapazko kotxe zatarrak ugaritu. Eta bi-deen biztuera eldu. Bideak zabal, ostopo barik, libre agertzeko garaia eldu.

Bideak eta kotxeak ez dauke biotzik. Ez pitxieie eta edertasunei eta gizoneie begiratzeko gogorik. Prisaren otssin dira, zazpiki. Orra, origaitik, erriak euren edertasunean salduta.

Urteak dira Elgoibar'eri bide barria atara eutsela kanpotik. Eta, jakiña, errian sartu barik bidetik doanak, lepoa bakarrik ikusten dautsa erriari. Erakusteko egin etzan alderdia.

Eta orain zabaldu barri dan autopistatik, lepoa eta kolkoa.

Baiña kaleak or dagoz, errien biotz. Eta Elgoibar'ek biotz aberatsa dauka.

Gizaldi onen asieran Elgoibar'ek 4.317 bizilagun eukazan. Gaur amalau milla inguru. Irutik gora bidartu da ordutik.

Eibar ingurutako bizilagun barrien etorrera, inmigraziñoia, 35 % dala jakin ondoren, ez da gaitz konturatzea Elgoibar'en, gitxi gora bera, beste ainbeste erdaldun sartu dirala.

Gorakadarik andiena 1940/1950 bitartean egin zan. la lau milla lagun. Aurreragoko amar urtetatik euneko ia berrogetamazapi, 57 % geitu zan. Igarteko aiñako barriztatzea.

Elgoibar'en buruan, kalean, bere bizilagunetarik irutik bi bizi dira. Besteak Mendaro'n eta Alzola'n, edo ta santu izenekin eza-gutzen diran bere lau auzo nagusietan: San Lorentzo, San Miel, San Roke eta San Pedro'n.

Mendaro'ko Garagartza, sasoi baten Deba'rena zan; 1 882 urtean batu zan Elgoibar'egaz. Kilimon errekearen egalean laureun urtetik gora daroez bertan augustindar monjak. Paperetan elgoibartarrak izango dira. Baiña Mendaro'ko monjak esaten dautse bakarrik. Galdu ziran Mendaro'ko bizkotxoak lez. Mendarokuak. Nai ta zergak, inpuestoak ordaindu ba zituen, Elgoibar'en ordaindu bear.

Elgoibar'eri ipinten dautsezan aitzakiak oneik dira:

Langilleentzako etxeetan urri dabillega, eskas.

Lengo etxe asko zaarregi dirala. Eta etxe askotan bizi lagun larregi, geiegi batzen dirala.

Uren zabaltzea ez dagola bear litzaken egoki.

Tximist-indarraren aldatzalle, transformadore geiago bear dirala.

Zein errik ez ditu gaur antzerako akatsak?

Eta batez ere Elgoibar aiña asi dan zein erri billatu ete leike orrelako premiña barik?

Alai izan da beti elgoibartarra.

Plazentxiarrei, erri legez, gaitz ei da irabaztea, baiña banan banan, askoren gatza motel geratzen ei da Alzola'ko sakristau bategen eukan «txispia» ezagutu ondoren.

Ea ba da mutil,
erantzi arin gogotik
abarkea orpotik.

Gora salto,
bera brinko,
onela ba gaituk
ez gaituk ilko.

Ai, oi, au zerua,
dantzan darabilt nire burua!

Bere kantak dira.

Eta askotan, besperetan, teatroa egiten ei eban Magnificat'en denporan.

Alzola'ko urekin barrua garbitu eta Errioxa'ko mats-urekin kaskarra berotu bearzala esaten ei ekian.

Alzola Elgoibar da, baiña iñoiz bertakoak eta elgoibartarrak asarre ibili ziran eta biurri. Beste erri askotan lez, parrokiaren nortasuna bitarteko. Euskalerriko gaitza lengo denporetan: Erri nau-siak, kaleak, bere auzoei nortasunik artzen laga nai ez.

Elgoibartar zaarrak esaten ekien, bein Anboto'ko Damiari itandu egin eutsela nun ete ebiltzan bere lagunak.

Eta Anboto'ko damiak erantzun ebala: Elgoibar'en, ezaren bi-lla.

Esakera orrekin esan gura ei eban berebiziko giroa egoala Elgoibar'en sorgiñentzat, lamiñak eta sorgiñak ezer ez eukenen kутun ziralako.

Ezaren lagunak sinistuten ei dabe sorginkerietan, dirurik ez, argirik ez, ogirik ez daukenak.

Baiezkoak, zerbait daukenak, piaentxiarren antzera jokutzen ei dabe: patrikera bat ona, dirua gordeteko; bestea joskurak etenda, ezer ez dagola adierazoteko. Eta une eta aldi bakoitzean zer komeni, ala agertu.

Gaur, Elgoibar'en, ezaren orde, baitasun bidea igarten da. Makina langintzan erririk aurreratuena da. Eta eza urrun dago, gaur gaurkoz. Bi milla ta bosteun langille ba dabiltz beintzat makinagintzan. Era bateko ta besteko langilletzatik, sei bat milla langille batzen dira bertan, makinagintzakoa da saillik ugari ta bereziena.

Zenbat ziri sartu ete eutsezan ijitoak Pedro Miel Urruzuno apaizari? Eun urtetik gora dira euskal ipuinlari errrkoiki au jaio zala, orain berrogetamar urte il. Elgoibartarrak zintzo eta egoki gogoratu eben bera urtearen asieran.

«Iru ziri» deitzen da bere liburuetakoko bat. Iru lenenak, esan bear gure aldetik. Ez da aspertzen, gogaitzen, ijitoen ipuiñak bizi bizi esan, agertu eta gogoratzen. Ori zan bere berezitasuna. Nai eta bera, ijito bat ikusi orduko, bildurrez edo bada-ezpadan euretatik aldendu.

Guk, euskeraz idatzi eta alegintzen gareanok ezin laga olako aukera bat berari gure omenaldia eskiñi barik.

Elgoibar'ko kanposantuko atearen ederra!

Origaitik esaten dakie eurak ate anditik sartzen dirala beste mundura.

Bartolome deunaren izeneko Olaso'ko Monastegia zan lenengo parrokia. Gaurko tokian barria egitea erabagi zanean, bere arriak barrirako eroan ziran kalera. Baiña atea bertan laga. Mingarri izango zan ate orreri ilten lagatea. Nai eta eskiñi yakon zeregiña eriotzearekin alkartuta egon. Orra gaur ilten diranen testigu eta ikuslari.

Gaurko parrokia XVII gizaldiaren asierako da. Ibero'tarren artea igarten da torrean eta Longa'ren tajua egikeran.

XVII gizaldiaren azkenetan asi eta ogetabost urtetako lanen ondoren, 1716 urtean zabaldu zan.

Garai baten elgoibartarrak, kaletar nai baserritar, asmatu be ez eben egingo euren erriaren izenik. Baiña paperetan beintzat euki eben erri legea emotean ezarritako bat: Villamayor de Markina. Bizkai'ko Markiñarrak Villaviciosa de Markina euki eben antzera.

Aitatutako izena zeenak jandako paperetan galdu zan, pape-retatik kanpora, elgoibartarren biotzetan sartu be ez zalako egin.

1973'ko Sanjuanetan, Elgoibar'eri atea zabaldu dautse autopistaren egaletan.

Nortasuna.


Urra, urra, urra sanjuanetan,
dantzan egin dogu ipar aizetan.

Eta San Bartolometan?

Aidean dabillen kezka eta galdera:

Jakingo ete dau Elgoibar'ek urte gitxitan beregan sartu diranak elgoibartar biurtzen?

Edo ta elgoibartasuna itto egingo ete da, baitasun denporetan, gaur edonundik igarten diran eta joten daben arduragabeta-sun aizeen mendebaletan?



ERNANI

Gaur be ba guaz Bizkai aldetik, Gipuzkoara. Erriak ikusteko garrez, bidezko da batetik bestera ibiltea, beti etxean sartuta egon barik.

Ernani'n nago gaur.

Nunbaiten irakurri dot, Victor Hugo frantzetar nobela egilleari ainbestean biotzean ikutu eta bereganatzen jakin eban erri au, Ernani, oraindik bere edertasunari begira bizi dala, bere lengo izate eta anditasunari eta garbitasunari begira bizi dala, baiña ikutu-ikutuka, ia igarri be barik edo igarteko betarik emon barik, bizitzan gertaten dan lez, tximurtzen, beratzen, mirrinduten, naastuten, erdibitzen, itxura galtzen.

Egia.

Nai ta oraindik, plazan sartuta, parrokiak eta erri etxeak osotuten daberen arrizko etxeen batasunaren ederrak, alako nortasun baten arrada eragin eta anditasun baten izate eta sentsua erakutsi, nai ta oraindik lengo izakera gorde nairiko kontzientzia erakutsi.

Ernaniar gizon entzutetsu eta ospatsu batzuen ezaguera dogu. Asi gaitezen, azaletik, eurak agertzen:

Alzegatarrak ba dira beintzat lau batera edo bestera entzutea artu ebenak: Antonio, Okendo almiranteagaz kapitan lez ibili eta 1635 urtean Tromp holandarraren aurka ibilli zana. Burrukaldi aretako bizirik urten eben banaken artean gertatu zan.

Joanes, Alzegatarra au be. Au Potosín Ibili zan.

Beste bat, Joan edo Martin. Onegaz duda eta ezpaiak dagoz istori egilleen artean. Baiña au Euskalerriko jauntxoen asarre eta nasteetan ezaguna izan zan eta 1456 urtean orduko aide nausiak izenpetu eben desafioan bere izena be agertzen da.

Eta urteetan atzerago jota, XIII garren gizaldian gizon entzutsua izan zan Gipuzkoako gora-beretan. Len aitatu dogun Martin'en aita izan zala diño.

Alzegatarrak laga eta Anzisu, Ansa, Areta, Aranburu, Arbiza eta Aristizabal billatzen doguz, geienak gerralariak.

Mikeleteen artean be egon zan ernaniar ospatsu bat: Juan Arana. Bigarren gerra zibillean Irun errialdeko guda jaurleri edo gobernadore militarra izan zan.

Beste ospatsu bat: Gregorio Arrue. Euskaltzalea. Van Eyss eta Bonaparte'ri euskal kontuak emoten ekiana. 1868 urtean Santa Genobeba'ren bizitza agertu eban Tolosa'n.

Euskaldun langilleen artean aitatu bear da Aita Cardaberaz. Euskerak bere burua jasotzea Jaungoikoak nai du, esaten ei eban Euskalerrian ainbeste sermoi egin zitun jesuita ezagun onek. Bere sasoian, bere denporetan Gipuzkoa eta Bizkaiko parrokirik eta eleizarik geienetako sermolari eta mixiolari izan zan. Beti euskeraz. Euskeraren indar emole, zaletasun biurtzalle amorratu agertuz. Kontzientziaren premiñaz, arduraz sartu bear zala-ta.

Beste gizon argi bat: Agustin Iturriaga. Ipuin esale eta idazle azkarra. Virgilio'ren fabula asko euskeratu zitun berak. Bera dala diño, San Iñazio'ren kantua egin ebana be.

Eta Orkolaga... Zarautz'en bizi zan luzaro ango bikario lez. Egualdiari igarten bera lakorik ez ei zan. 1912 urteko galerren andiak ainbat euskal arrantzale ondatu zituenean, berak iragarrita ei eukan galerren ori eta origaitik gipuzkoar arrantzaleak kalterik ez eben euki.

Ainbat dira ernaniar seme jatorrak. Geroago be aitatuko dogu besteren bat.

Gipuzkoan, Zumarragaren ondoren, azken urteotan geien ugaritu dan erria, Ernani da. Urteko % 8,1 7.

13.080 bizilagun eukazan 1960'n; 21.629 1968'n; gaur 25.000 biribiltzen. 38 kilometro lautu daukaz. Zazpi auzo: Epele, Ereñozu, Jauregi, Lasarte, Otsiñaga, Pagoaga eta Zikuñaga-Martindegi.

Ia bi milla lagun etorten dira egunero albo errietatik lanera.

Bat bateko geitze onek, nai ta ez, buruauste ugari sortu bear erri batasunari, batez be bere bizitzako legean, bere oituretan, bere premiñetan, bear-izanetan, serbitsuetan eta bestelako nai ta ezko agerpen askotan.

Era guztietako langintza eta industria dago emen: janari, Eungintza (textila), egur eta kortxo, kimika, zeramika, burni-ola, malkingintza eta abar.

Ernani, XV gizaldian be anditzat etsiten zan. 300 erritar ez-

kondu egozala eta zortzireunuk milla inguru konfesatu bear izatean ebenak, irakurten da Erdi Aroko liburu batzuetan.

XVI gizaldiko paperetatik jakin lei erri barrutik kanpora, inguruetan, errota bat, 11 burdin-ola edo ferreria, torre bat, jauregi bat eta 78 baserri etxe egozala. Erri buruan 200 etxe inguru. Gaur, Ernaniko baserrien artean, 148 kontaten dira bizitza bakarrekoen artean eta 29 bizitza bikoetan. Amasei baserri usturua dira azken urteotan. 6 dira eskudoa daukenak: Bidaurreta, Anziola balleran; Illarreta, ballera berbertan; Elizondonea, Ereñozu-Txibilita; Pitikar eta Ibarluze.

Burdin-ola edo ferrerien izenak: Abilas, Aparrain, Enziola, Errotaran, Ereñozu, Fagollaga, Mezkite, Olaberriaga, Pikoaga, Ubarratua, Urruzuno...

1388 urtean ezagutzen zuten beintzat Errotaran eta bera zala, uste da, danetatik zarrena.

Burdin-olak aitatuta, Fagollaga ikusteko gogorik bai?, esan eustan oraintsu adiskide batek.

Goizueta'ko bidean sartu gihan. Len Benta-Etxe izaniko baten sartu be bai. Jatetxe txukuna. Aurrean geunkan burdin-ola izana. Maiean, indiaba gorri txarrikiz betea.

Adiskideak Emani erakutsi nai izan eustan, artea laga-ta, urdaillaren poz eta betetasunez.

Onetan, jateko kontuan, txapela kendu leikio Ernani'ri. Ondo.

Janak samurtzeko, emengoak sagardau zale dira. Goierriko sagardau «andre sagardauak» deitzen dautse emen, bigunegi diralako, gozoegi. Emengoa, gizon sagardaua ei da. Lodiagua, garrazkiagoa.

Olakoetan esakera zarra gogoratu eta ontzat emon bear izaten da: Au da, sabelak, urak eta suak emoten yaken guztia eroaten dabela. Emen, benetan, atsegiñez.

Nire laguna abadea zan. Eta esakera da baita be abadeak eta kamioi erabiltzalleak ba dakiezala inguru onak nun dagozan olako gauzetarako.

Arrantzale erri izan ete zan iñoiz Ernani?

Norbaitek erantzungo leuke: Bai, Urumea ibaiaren egal eta potsu batzutan arrantzaten diran arrainki txiki eta argalak kontuan euki ezkeru.

Ez guaz orretan. Ezin ukatu lei, agiriak argi dagozalako, emengoak itxas zabaletan ibilli ziranik. XVII eta XVIII gizaldietan ezagutu izan zan emen urandietarako garra. Erri askoren garra izan zan ori, ez bakarrik itxasertzean, barrukoetan be bai. Leorreko irabaziak baiño tengada ohea euken sasoi orretan itxasoetakoak.

Leizaur bat ezaguna izan zan Terranobako uretan. Eta andik ebillan bere itxasontziak ibillera ona egin ebalako, 722 zillar moneda eskiñi eutsazan berak, Leizaur orrek, Zikuñaga'ko Andre

Mari Baltzari.

Gure errietako artxibu mutuak dira askotan Ama Birgiñak. Eskintza eta erregalu askoren bidez igarten da askotan erritarren jokera, ibillera eta bizibidea.

Ernani eta Urnieta bitartean gelditzen da Zikuñaga. Guk ainbestetan egiten dogun laburpenez, Zikuña'ko Ama irakurten da irudi barriztuaren oñetan. XIII garren gizaldiko ei da. Beltzerana, morena. Esakera da Ama Birgiña au, beste sei Amabirgiñaren irudi baltzetakoa dala. Zazpi ei ziran Gipuzkoan Ama Birgiña Beltzak. Egun baten, ala da sinistea, Ataungo San Sebastian'en eleizan aldebanatu ei ziran zazpirak.

Zikuñaga'ko eleiza au azpaldikoa da. Gaur Ernani'n parroki lez ezagutzen dau San Juan'goa baiño lenagokoa, ezpai barik.

Ba dirudi gaur Zikuñagako eleiza au, Ernani zabaltzeko premiñaz egin diran etxadiak estutu egiten dabela. Itxurabakotu. Baiña ernaniar jatorrak ba dauke bertan fede eta itxaropena. Eta oituta eta ekandu askoren asiera. Aurrak, umeak bertaVa eroaten dakiez bizitzako premiñetarako bide ona erakusten.

Zeiñek sartu ete eban Gipuzkoa'n artua? Ernaniar batek?

Aita Larramendi zanak ala diño. Gonzal Perkaztegi ernaniarra izan zala ori lortu eta ekarri ebana.

Jakiña da Larramendi ernaniarren maitale sutsu izan zala. Sarrri igarten da bere esku ta indarra ernaniarren arazoetan. Ala ta be, nai ta batzuk ernaniartzat euki, andoaindarra zan jaiotzez Aita Larramendi jakintsu eta ospatsu ori.

Gipuzkoa'n, Oñate'k, bere Ikastetxe Nagusi edo Unibersidadeagaz, mesede ugari egin eban. Ala baita Bergara'k. Baiña Ernani ezin aaztu beko maillan, lenengo irakaskintzan.

Gaur ikastera gagoz danok. Baiña sinistu lei oraindik XIX gizaldiaren asieran ba egozala abadeak be, mutillei bai, baiña neskatillei irakurten erakutsi arren, idazten, eskribitzen erakustea ez zala komeni esaten ebenak? Irakurri, esate baterako, Asteasu'ko erretore edo parroko izan zan Juan Bautista Agirre.

Ala neskak, neska askok, irakurten ozta ozta ikasi ondoren, laga egiten eben geiago ikasteari. Idazten ikastekotan eguna galduko ei eben karta giñan.

Orgaitik, ez da arritzeko, oraindik 120 urte, Donosti eta bere errialdean (emen sartzen da Ernani b.e) % 6,86 bakarrik eskoletan ibiltea.

Ernani'n A. Agustin Iturriaga agertu zan. Abadea. Ez eukan berak ikastetik etorri leikean kaltearen bildurrik. Ez eta erdera eta euskera eskoletan batera erabili bear ziranaren ardurarik be. Pedagogi gaietan ba ekian zerbait. Bere bizitzako 72 urtetan irakas-

kintzari lotuta bizi zan. Kemenez beterik. Or dabiltz bere liburuak. Or baita bere ipuiñak nun nai, euskeratuak batzuk, besteak jatorrak.

Bertsolariak iturri ona euki eben Ernani'n.

Bertsolari beroak, jokatzalleak. Gogoratu Txabalategi bat. Bost ontzako urrea jokatu eutsan bein Zabala Amezketakoari, zein geiago, desafioz. Billabona'ko plazan egin eben bertsoan. Lau mila lagunetik gora entzuten. Ordu biko ekitaldia egitea zan posturako neurria. Ordu biok igaro ondoren entzuleak txaloka bata ta besteari, irabazlerik barik, bata bestearen pareko zirala-ta. Erria orrela ikustean, juradukoak be bardin erabagi eben.

Eta «Txirrita»?

Bera ilda gero beste larogetak urtetan bera gogoratuko zala esan eban iñoiz bertsoan. Alaxe. Akulari, zirikalari, barre-eragille, jator, laban, erri berotzalle. Orra «Txirrita», baserri etxeko deituraz; izen jatorrez Jose Manuel Lujanbio. 1 860 urtean jaio zan, 1 936'n il. Amalau urte orduko, bizarrak urtetan igarri orduko, orra plaze-tan kantari. Entzun berari:

Milla zortzireun irurogei ta
amalau urte urrian,
lenengo plazan kantatu nuen
nik Ernaniko lurrian,
San Antonio deitzen diogun
ermita baten aurrian,
lagunak alkar istimatuaz
lengo oitura zarrian

Adar jotzalle amorratua. Neskazar gelditzeko borondatea galdu eragin ei eutsen auzotako batzueri, berak zirikatu ta barregarrituko zituezan bildurrez.

XVI gizaldiaren asieretatik gipuzkoar erri askotan asi ziran monjaen etxeak zabaltzen. Azpeiti'n ba dira «monja zarrak» deitzen dautsenak, bear ba da gizaldi au baiño lentxuago sortu ziralako. Baiña geientsuenak gizaldi onetara datoz, XVI garrenera.

1511 urtean ba dira iru tokitan zabalduitako etxeak, obeto esanda, toki bitan, baiña baten ordena bik. San Klararen jarraitzalleak dira ugarienak. Augustindarrak be ez ziran atzean gelditu. Arrasate'n, 1511 urtean; Errenderi'n 1543'n; Ernani onetan 1 544'n; Mendaro'n 1 561 eta Mutriku'n beranduago, 1 638'n.

Parroki zarra emon eutsen eurentzat Ernani'n. Ordutik or dira, gerrateetako bitarte batzuk kenduta, edo ta prantzesak emen egin eben denpora kenduta.

Ernani'ko famili jator askoren alabak bizi izan ziran konbentu onetan.



ERRENDERI

Amaika kalte egindako naparrerria! Gipuzkoako erfi askotan beste deitura bat emoten dautse erderazko «Viruela»ri: baztanga.

Ez jakin nundik sartu zan urte aretan. Itxasotik? Dana dala, Errenderi'n, 1869 urtearen azkenetan, ogetak lagun il ziran gaixo onen ondorenez. Euren artean, 34 urtedun, Juan Frantzizko Petriarena Berrondo, Gabon-illaren 8'an. Il zan egunean bertan, bere arreba Maria Luisa'k umetxo bat ekarri eban mundura. Bederatzi egun bakarrik egin zitun bizirik; amargarrenean il zan eta biaramonean ama berbera. Ille ta erdi lenago, Juan Frantzizko'ren emaztea gaixo berberaz il zan, Urrilla'ren 25'an.

Norzan Juan Frantzizko Petriarena?

Gure gerra aurretxoan, 1931 urtean, Errenderi'ko erriak «Xenpelar» bertsolariaren omenez egindako jai gogoangarrian, Jose Cruz Urrutia'k egiñiko bertsoak onela asten ziran:

Malen-kalian jarriya dago
Xenpelar jaunan izena,
oroipenak aztuko ziran
ez bazan izan zuzena;
leiala eta iztun garbiya,
denak maitatzen zutena,
euskaldun bakar bat ezta erriyan
gogoratutzen ez dena,
bertsolaritan Errenteriy'a'n
izandu danik onena.

Urrutia ondarribitarra zan jaiotzez, nai eta umetatik Errenderi'n bizi eta origaitik emengo bertsolarien artean askok etsi.

Eta «Xenpelar»? Ara ain zuzen Juan Frantzisko Petriarena. Bere izen jatorragaz, ez ezaguna. Baserriaren izenetik Senperelare-tik datorkio erri deiturazko «Xenpelar» ori, Euskalerrri guztian ain zabal eta ezagun geratu zan izena.

Bidezko da Errenderi'n sartzean bertsolariak gogoratzea. Zenbat? Ez da errez danak agertzea.

«Xenpelar» aitatu dogu. Erritik urtenena, ezpai barik. Bere bertso asko gaur be zabal dabiltz.

Eta besteak? Zeiñek ez ditu erabili Brabante'ko Genobeba'ren bizitzakoak? Juan Cruz Zapirain'enak dira. Biotz andiko gizon onek ez ekian irakurten ez idazten. Eta kanta ala bere emaztea ibiltzen zan santa orren bizitza luzea sentimentu andiko bertsotan artzen.

Beste bat: Zapirain orren anaia, Joxe. Andrearen erioztzeari egiñak amaika negar atara izan dabe bazterretan. Ez daigun aztu Salbador, euron illoba.

Geiago: Saiburu anaiak.

Zarren artean, gogoratu Jauregi bat:

Gizon fiñak il eta
faltsuakin bizi,
ni ere ba nua
emendik igesi.

Euren artean baita Salaberria; Iñarra «Txintxua»; «Telleri Txiki»; Zabaleta anaiak, Juan eta Pedro; Aramberri...

Beste bat: Taberna. Zein gure denporetakok gogoratu ez Taberna au, «Estatutoa» erabagiteko aurretxoan Jaungoiko bakoa zala ta ainbat tokitan bertsotan bere aurka zital ibili zana?

Errikoa izan zan Elizegi be, «Frailia» izenagaz ezagunagoa. Berek dira:

Irtetzen geranian
mundu onetatik
izango ote degu
geiago bueltik?
Mandatari joanak
ba dira aurretik,
alerikan bialtzen
eztute orretik;
au bera esango dute
oraindik gugatik.

Eta «Txirrita»? To! Geldi. Ez nua esaten Errenderi'n jaijo zanik. Ez kendu ezer Ernani'ri. Baiña irurogetak urtetan Errenderi'n bizi zan. Urte askotxo, lorrik ez lagateko.

Domeka, igande illuntzea. Gaitz billatuko da erriko plaza baten Errenderi'n aiña lagun dantza eta jolasean. Plazetako dantzaldiak galdu egin dirala? Emen bete betean egoten da plaza, alkarren gainean, ezetariko toki eta zabaltasun barik dantzariak ibiltzen dirala. Ikusteko izaten da emengo jentetza.

Karriketara nua. Euskeraz dauke kaleak izena. Gamon Karrika, Zalakain, Gazkue, Elizegi, Urdaburu, Malen, Santxo Enea. Karrikak, au da, kaleak. Erri askotan oraindik ez dautse gure izkuntzari eskin kaleak izentatzeko duintasunik be. Azaleko gauza, baiña berezko lez etsi bear litzakena.

Kaletan zelan itz egiten dan? Gaur Errenderi'n 36.000 lagun inguru bizi dira. Orain eun urte iru millarik ez. Orain amalau urte be, gaurko erdiak.

Orrela, ez arritu % 77,9'k umeen artean euskerarik ez dakiela esaten ba dogu. Erriaren anditze eta ugaritze ori euskaldunen kontura egin dala esatea, burubagakeria izango litzake, gaurko gizonen ibillera eta joan-etorriak ezagututa. Mingarri, baiña egia.

Ontaz, Errenderi'n bertsolariak aitatutzera premiñatu garean ezkerro, beste txapeldun batek orain amalau urte «Oarso» aldizkarian agertutako bertsuak gogoratzea egoki da, gure sentimen berbera dakarrelako. Ara «Basarri»ren bertsuak:

Gaur Errenderi'k Gipuzkoan
aitormen on bat bear du,
urte gutxitan arrigarrizko
aurrerakoa eman du.
Lanetik dago etorkizuna
ta lantokiak ugaldu,
bañan izate jatorrizkoa
arren, etzazula galdu!

Jakingarriak: Erri etxea, ederra, 1603-1607 bitartean egiña. Aurrerago parrokian egiten ziran erriko batzarrak. Fraille bat izan zan etxe onen planoak egin zituna: fray Migel Aranburu. Garaiburu eta Ondartza argiñak jasotzalleak.

Parrokia, Andra mariaren parrokia, XVI gizaldikoa da. Zein urtetan? Ez jakin. Asiera eta amaiera ez dira jokera bardiñeko. Or ikusten da urte askotako lanak dirala. Euskal artea? Edo ta euskaldun erako gotikoa? Ba dira ori diñoenak. Eleiza egin eta berrogetamar urte geroagokoa da atadia. Ia beste 120 urte geroago egin zan sakristia. Torre barriak oraindik 75 urte ez daukaz. Ez da ba gaitz ainbeste zatitan egindako etxe baten, denpora ez bardiñetako jokera era agerregarriak billatzea.

Itxastar izateko jaio ete zan Errenderi?

Ba daukaz istorian orrelako iokabideak. Kaia, portua, gaur Lege-Zarraren plaza egiten dan toki ber-bertan euki eban. Itxason-tziak egiteko ola edo astilleruak be egon ziran bertan. Ezagunak izan ziran beintzat Arrabalekoa, Basanoga, Madalena eta Ugarriz-tzan egiten ziran ontziak.

Baiña auzo erriak itto egin eben. Bera baiño erri andiagoak le-nago lortu eben erri-nortasuna, erri-legea, eta berak besterrear egotera beartu. Auzoak kendu eta galdu eragin eutsen ortarako eskubidea batez be Oiartzun Donosti'n alde jokutzen agertu za-nean.

Errenderi'ren izen jatorra Orereta izan zan. Baiña erri-legea emon eutsenean «Villanueva de Oiarso» ezarri. Alperrik. Orereta inguruko burdintegi eta sal-erosgarrien zergak emen kobraten zira-lako, Errenderi izenez ezagutzen zan. Ortik izen au betiko geratu.


Gaur itxas lurruna artuarren, ezin esan Errenderi itxas erri da-nik.

Berreun urte inguru eukiko ditu emengo fanderiak. Gaur, bere zeregiñean, izena bakarrik.

Simon Aragorri'rena zan emengo burdintegi bat. Egon ziran beste batzuk be: Gabiola, Suerrin, Gabiriola eta Pontika. Aragorri'-rena Errenderiola zan. Erriak zati bat kendu eta bertan ipini zan fanderia. Bere sasoi burdiña gertatzen aurreratuenetakoa. Ure-tan erabilten ziran errubera bik erabilten eben makina eta burdiña ebaki, okertu, zulatu, zabaldu, estutu eta tenean ipinteko bere pa-rekorik ez ei egoan. Irurogei kintal eratzen ei zitun egunean, dane-tara be zazpi gizonak erabilita. Sutegi bi, bat begi garretan. Orra Luzaro Errenderi'ren izena gogoratu eban industri bat.

Fanderiak euki eban bere alderdi illuna be. Orain eun eta bat urte, ain zuzen be liberalak Fanderi onetan erosten zituelako ger-rarako armak, karlistak ondatu eta erre egin eben. Asko garraztu ziran inguru oneitako egoera eta jokabidea. Eta egon ziran asarre eta burruketan, ainbat baserri etxek artu eben kalterik andiena. 41 baserrian suaren ondamendia ikusi eben.

Gaur Errenderi'k beste burruka bat darabil: Lanaren etorkizun-ak dakarrena. Eta emen, lanik jatorrenak bertan bera galdu ba zira-n be, gaur gaurkoz esku biarrak eta burukoak ba dauke oraindik aukera.



GETARIA

Getari, Ketari... Kei erri?

Ala batzuen ustea. Aita Larramendi'rena euren artean. Aldakuntza andia, ez?

Gerat-erri, Karat-erri? Ala pentsaten dabe besteak.

Eta Laburdi'ko Getari, zer? Ba al dau arek Gipuzkoa'ko onen antzera, bere lepoan Garate, Karate mendirik?

Erromatarrentzat Menosca zala? Eurekin joan eta galdu zan baita izen ori.

Guk, izena misteriotan lagata, arratoi andi onen eskutuko zulo baten antzera utzita, zerbait billatu daigun.

Bere bizarrekin itxasoari usaifia artzen dagon arratoi andia dirudi San Anton'ek.

Ala ezagutzen da: Getari'ko arratoia.

Beti zelatari, etzanda. Bere lau anak zabaldua. Izen da guzti-ko anak: Marzoparri eta Karlitena aurrekoak. Fraileburu eta Gazteta atzekoak. Eta aurre-aurrean, Isarri muturra.

Oraindik urte asko ez dirala iñor ez zan ausartzen arratoi onen azpi eta tartetara sartzen. Eta atzamar nausia baiño lodiagoko lanpernaz beteta egoten zala ba ekien askok.

Gaur bere lepoan kotxeak ibiltzen dira eta bere azpian itxaspezaleak, sumarinistak berari kili kili egiten urreratu.

Lotsagabetu egin gara...itxasoa asarretu artean.

Txakolin pixkat artu daigun lenengotik: Erri bakoitzean berea. Sardiñak illuntzerako. Zazpiretan, taberna geienen aurretan arrabarrillak, parrillak berotu eta sardiñen ke ta usai zabaltzen berebizi-ko kutsua emongo dautse erriari.

Betor, aurrez, txakoliña. Ala deitzen da, ez?

Ez arritu nire galdera, itaunarekin.

Oraintsu, bar baten, getariar bateri entzuna da: Atera tipikal bi. Begira gelditu nitzan ze edari etorriko zan: Txakoliña. Miretsi Getari'k zer esan nai daben ez jakiteakin, txakoliñari tipikal deitzen asi ondoren?

Jakiña, «Typical basque bight wine» deituko dautse nunbaiten. Eta guk a artu. Ortara usurbildarrak sagardo gasdunari «sparkliña» deitu ta kittu.

Txanpana laga bear euskerarentzat eta euskeldunentzat.

Orretarako aiña diru ba dago Getari'n. Azken urteetan arranzalerik aberatsenen fama dauke.

Getari'k, estropadetan, ba dauka bere istori txikia.

Lengo gizaldiaren azkenetan irabazi zitun estropada batzuk. «Esperanza» izeneko treiñeruearekin ibiltzen zan. 1895 eta 1896 urtetan, punterengo.

Patxi Arregi izaten zan garai aretan atzeko. Eta Alberdi, Azkue (2), Azpeitia, Aizpuru, Basurto (3), Ezenarro, Irigoien, Manterola, Oliden eta Silbeti arraunlari.

Gizaldi onetan, 1900'tik ondoren, bein irabazi zitun Donosti'ko estropadak. Bera bakarrik gertatu zan estropadan ain zuzen be.

Lenengo igandean Orio, Getari eta Donosti gelditu ziran, ordena orretan. Baiña legeak esaten eban lenengo biak jokatu biar ebela bandera. Getariar erramulari, arraunlari bi gaixorik geratu ziran eta ordezeko bi agertu.

Orio'k asarrea erakutsiarren, juradukuak ontzat emon ez. Asarrez, oriotarrak jokatu ez ta getariarrak, bakar bakarrik, 31,18'tan egin eben euren ostera. Kontuz denporari. Lau millatako joan-etorria zan urte orretan.

1911 urtean gertatu zan ori.

Odolak berotzeko a zelako aukera!

Bost urte geroago, oriotarrak gelditu ziran lenengo. Getariarrak irugarren. Egongo zan erri bien artean zerbait. Bertsoak ibilli ziran ara ta ona. Getariarrak mindu.

Txirrita zarrak bere gain getariarren erantzuera. A zelako amabost bertso! Ben-benetan minduta.

«Kulpa gabeko jente umillak

lotu gaituzte katian...»

botaten dau lenengotatik. Naiku da Txirrita'ren eztena zelan egongo zan igarteko.

Eta amairugarrenian, getariarrak arrian ipiñi leiken bertso au dakar:

«Kontrariyorik gabe egondu
giñan amabi urtian,
emen da Bilbo'n ta Baionatik
San Juan de Luz bitartian.
Gure atzetik segitu eziñik
asko zebiltzan nekian,
desafiyuak izaten dira
projimuaren kaltian,
errespetua guardatu zuben
Zirilo zebillen artian».

Iño! Zein erri, zein itxas-erri ez da berotzen estropada denpo-
retan?

Guazen, lenbailen, kalma zuritako kontuetara. Baretu gaite-
zan.

Zelan begiratu Elkano'ri? Nun eta zetatik ezagutu? Gaztetan?
Itxasoetan? Bere eriotzarako gertaeran?

Iñoiz esana da, itxas ibiltaririk entzutetsuenak gizon garra-
tzak, gogorrek biotzik gabeak, lizunak, diru zaleak izan zirala. Jaki-
ña, ez danak.

Elkano bera orrelako?

Cisneros kardenalaren ametsak betetzen Afrika'ko Oran'era
joan zanean, zorrez beteta ibilli zan eta txalupa saldu eragin
eutsen, berandik zerbait artzeko eukenak.

Orra asiera. Estatu baten alde konkistetarako gertu, eta bere
aurka pekatu egiten, galerazota egoalako gerrarako gertutako txa-
lupak erbestetarrei saltzea.

Andik laster, Indietatik zear Molucas'etarako bidea billatu
nairik, Magallanes'ekin dua. Eta bidean katepean sartu arek. Ze-
gaitik?

Zoritxarrak katean datoz. Ara laster belako ontzietan ebiltza-
nen gaixoa batu: eskorbuto dalakoa. Errukarri.

Nun eta eukan eta erabillan biotza? Geldi ez. Gerra eta gaixo,
ikusi ezin eta goseak mendetu ondoren, Victoria ontziko buru egi-
tea lortzen dau. Maluko'tik ba dator irurogei lagunuen nagusi.

Irurogei? Begira portura eldu ta saldo egitean. Argal, kolore
barik, gaixo, etsita, erdi zoro...asi zenbatuten zenbat datozen. Zen-
bat? Amazortzi. Itxasoari itandu berrogetabi gizon nun gelditu zi-
ran.

Eta portura eldu ta beriala beste ibillera baterako gertu. Bildur
ete legorrean gelditzen? Edo ta amets barriekin zoratu eta moz-
kortu?

1487 inguruan jaio ta...1526'n azken naia, testamentua egi-
ña eukan. Geiegi bizita, ikusita.

Eta bere Euskalerra?

Ez ikaratu. Getari, Itziar, Arantzazu, Guadalupe, Iruniranzu'ko eleizakin eta Ama Birgiñekin gogoratuta dabil eriotzari begira. Trueba'rena: errezaten eztakiana doala itxas zabalera, eta laster konturatuko dala iñok erakutsi barik zein errez ikasten dan otoi egiten. Elkano'k ez eukan orren premiñarik. Baiña itxasoak berari be ikutu eragin eutsan.

Eta gogoratzen da, bere azken naiean, Ernialde'ko Marigaz eta beregandik euki eban semearekin.

Eta Mari Bidaurreta'rekin eta beregandik euki eban alabarekin...

Noiz euki ete eban onetarako denpora?

Eta bere senitarteko zan Isabel Portu'koari, lau dukat balio eban gona eder bat. Au ete zan bere benetako maitasuna?

Orra gizona eta itxastarra. Amets eta laiño, aragi ta gogo. Gizon.

Baiña «zuk lenengoz emon zendun nire bira» esango dautso beti, beti, Elkano'ri munduaren istoriak. Eta ori gogoratu bere erriak. Getari ortik arrotzen da.

Gaur Getari'ko bizitza itxasotik dator. Itxasoak, bere erraietan, ba dauka oraindik aberastasun pixkat.

Begira 1972 urteko arrantzuak, xentimoak biribilduta:

6.706.000 kilo antxoa.- Pesetatan 276.492.000.

2.897.000 kilo egaluze, atun.- Pesetatan 1 54.238.000.

36.400 kilo zimarroi. Pesetatan 2.448.000

Beste arraiñak, lebatz, makaela eta abar alboan lagata.

Aurtengo urtea, 1973 urtea, oraindik urte erdika baiño ez da. San Pedrotan amaitu da antxoa sasoi. Eta bost milloi kilo saldu dira bertan. Berreun milloi peseta, batez beste 40 pesetan saldu dalako antxoa kiloa. Lengo urtean baiño milloi ta erdi kilo gitxiago, biribilean. Kontuan euki aurten Jorrailla, Apirilla, aberatsa izan zala; Orrilla, Mayatza, makala; Bagilla, utsa.

Ez dira arrain eta diru guztiak getariarrenak. Bertan salduak bai. Antxoa sasoi, batez beste 60 itxasontzi batzen dira egunero bertan.

Getari bertakoak 26 txalupa dira eta beste zazpi lebatzetan ibiltzen diranak. Danen artean 3.295 tonelada eta 1 1.072 zaldi, HP.

Bosteun eta amar arrantzale dira gaur itxasoan dabiltzan getariarrak. Beste berrogeita emeretzi zaar, jubilatua, errian.

«Elkano» kofradiak ba dau zaar eta alarguntzako begirapen berezi bat. Gizarte babesak, asegurantzak emoten dautsenetik gain, illeko bosteun peseta emoten dautsez bere kontura zaar eta alargun guztiei. Ori illero. Gabonetan eta urte azkenean, eskupeko berezia.

Oriotar arrantzaleak, geienetan, kai onetan ustuten dabez euren arrantsuak.

Antxoia sasoiari, Asturias eta Galizi aldeko txalupak maite dabe, baita, Getari'ko kaia eta bertatik ibiltzen dira. Erosua, segurua dalako; arraiña arin eta erraz ataraten dalako, eta erosle asko batzen diralako bertan. Ori be, portu baten, diru asko balio dabena da.

Getari'n 2.500 bizilagun dagoz gaur. 1960'n, 2.225. 1968'n, 2.437. Batez beste urteko 1,19% geitzen dua.

Beste errietatik ibili ondoren, Getaria'n ondartu gara gaur. Erderazko poema baten zati bat datorkit gogora, Fernan Gonzalez'ena;

«...al puerto de Gitarea fycieron luego tornada».
Xalbatore jaietan deduzko zan.



IRUN

Bidasoa ondoko erri ederra.

Gaur ezaguna. Eta len?

Erromatarren denporak illunak dira euskaldunentzat. Galdu egiten gara bein orretan sartu ezker. Obeto esanda, ez gara argitzen, billatzen. Edo gaitz.

Irunen barri, argi, 1203 urtean billatzen dogu. Alfonso VIII'k Ondarrabiari bere erri nortasuna eskiñi eutsanean. Donostiko lege bardintsuak ezarri eta bere lurraldeak, tokiak eta zabalerak zeintzuk ziran iragarten. Baiña jakingarri bat: Ondarrabiari esaten eutsan Irungo lurraldea emoten eutsala bertan bizi ziran gizon guztiekin. Orra ba, lenengotan, irundarrak Ondarrabiren menpean.

Jakiña, ori esanarren, irundarrak erakutsi nai izaten dabe, sekula ez ebela galdu erri jaubetasunik, ondarrabitarren menpeko lez lurraldea gertu arren, aparteko bizikera eta izatea zaindu ebela.

Irun agertzen da len esandako agirian. Baiña Irún izenari Iranzu edo Irenzu geituten dautse gero.

Erri bat izan ete zan Irún eta Iranzu? Ba dira diñoenak lurralde bi zirala, toki bi zirala, auzo bi. Bat gaurko Urdanibia plazan eza gutzen dan alderdi zarra, au da, Irún. Eta bestea Mendelu ingurutan dagon alderdia, Uranzu.

Ori diño Serapio Mujika jakintsuak.

Eta beste askok be, ain zuzen be Irún-Iranzu izen biak alkarren atzefik dokumentu askotan agertzen diralako, siniste ori ziurtzat nai izaten dabe. Ba dira gañera alkartu zirala diñoenak, ain

zuzen be Ondarrabik menpean euki nai izan zitulako, ondarrabitarak, askotan gertaten dan lez, geiegi eskatuten eutselako.

Dana dala, ordago gaur, lurralde bat edo bi izan, Ondarrabia-ren menpeko sortu edo ez, gaur erri bakar, andi eta nortasun gutz-tiko.

Beti izan ete zan Gipuzkoako erri?

Onetan istorian sartzen ba gara, ezetz esan bear.

X garren gizaldian Gipuzkoa Debatik Donostirakoa zan. Eta Oiartzun eta Bidasoa erreka artean gelditzen ziran erriak, Naparroako erregeen mendeko.

1027'ko agiri baten igarten da Naparroako Santxo Andiak Oiartzuneri Pasai eta Bidaso arteko lurrak eskintzen eutsazala. Eta geroago, 1 1 50 urtean Santxo Jakintsuak Donosti'ri eskiñitako lurraldeen artean, Irun sartzen zan.

Erri legea laga ta guazen eleiz legera.

1 194 urteko bula baten ikusten dogunez, Baionako obispadutzari eskintzen eutsan Celestino III'k Oiartzun arterañoko dana. Bere obispadutza orretan sartzen zan Irun.

Eta Gipuzkoa, barriz, Iruñakoan sartzen da.

Probintzietako goraberak lagata, jakiña da Irun, len esan dogun lez, Ondarrabiren menpeko izan zala. Beste batzutan Oiartzun'en menpeko be bai, bai Donosti berberaren menpeko be.

Orra Irun.

Esan naia aztertzeke, batzun eritzian, ala Gainzaren eritzian be, Iru-ure-an-zu. Au da, iru ur bitarteko. Beste batzuk, lantzu, ietatik datorren deitura. Mugika'rentzat. Urtsu esan naia litzake egokien, ur-toki.

Mugan dago Irun, Bidasoa mugatzat artzen ba da. Eta orrek, jakiña, milla kalte ekarri izan dautsaz erri oneri.

1476 urtean, Fernando Katolikua eta Portugal'eko Alonso V'garrena asarratu egin ziranean, Frantziko Luis XI portugaldarren alde sartu zan. Aren gudariak, Labrit buru zala, Irundik sartu ziran eta 50 egunetan Ondarrabi inguratu eziñik, Irunen gelditu. Ortik erria ondatua gelditu zan.

Ogetamasei urte geroago, Fernando Katolikua Luis XI garrenagaz asi zan barriro gerran. Orduan be Irun erre egin eben.

1 521 urtean, Irun'en guda-indarketa andi bat egin zan. Naparroa Castilla'ren menpean sartuta egoan. Frantzetarrak lagundu nai izan eutsen napartarrei euren jabe egiten. Bitartean irundarrak arein aurka ebiltzala, alkarregaz burrukan asi eta San Marzial'go gudaketa edo batalla izenagaz ezagutzen dan gerra-jokoa emen egin zan.

Ordurarte ez zan ezagutzen lurralderik San Marzial izenekorik. Baiña egun orretan gertatu zalako, garaitza orren gogoangarri, santu oneri egokion ermita bat jaso eben toki aretan eta gaur, urtero gogoratzen da egun orretako gertaera Irungo jaietan.

Geroago, 1 579'n frantzetarrak Donosti artu nai zan eben eta irundarrak laga ez.

1596 urtean beste antzeko gertaera bat. 1 634'n bardin eta orrela Irun'ek min asko artu izan eban istorian bere egoera ori dala-ta.

1 638 berreun etxe erre eutsezan bertan, 14 errota eta 4 burdiñola.

Ainbat orrelako gertaera. Azkenak, lengo gizaldikoak, ezagunago dira. Gure gerratean be, 1936 urtean be, Irun erreta geratu zan, bere alderdi onean.

Irun, gaur, 50.000 bizilagunera eldu da.


Zazpi auzo: Anaka, Lapitz, Ventas, Olabarri, Meaka, Beobi eta Bidasoa.

Bidez eratsu. Askok utsune bat igarten dabe. Orain 18 urte geratu zan tren txikiarena. Bidasoa izeneko tren txikiarena. Aundiagoak irunsi eben.

Gaur erri kosmopolita dala esan giñei. Euskaldunak gitxien.

Oraindik ba daukaz, ezin ukatu, ia 250 baserritar famii, beste ia ainbeste baserritan bizi diranak. Euskerari eusten dautse eurak. Kanean be ba dira euskeraz dakienak. Baiña, umeen artean Gipuzkoa guztian euskerarik ez dakien umien kopuririk andiena erri onek emoten dau. Euskera bakarrik ekienak, euneko erdira ez ziran eldu, 0,44 % eta orde, euskerarik ez ekienak 88,7%

Or igarten da, beste gorabera askoren artean, Irungo errian ezagutzen dan jentearen aldaketa eta barriztatea.



LAZKAO

Esakerak: Ataundarrak, otsak; idiazabaldarrak, azeriak; alegitarrak, txintzarriak; zegamatarrak, belak; oreindandarrak eltxoak eta lazkaotarrak, antzarrak.

Abere edo animalien deitura oneik zegaitik eta noiztik? Ez jakin. Ba dirudi olgetako jokoetan ataratako deiturak dirala; erri artetako jolasetan. Baiña ordagoz.

Lazkao'ko zarrak ba dakiez deiturak. Lazkao'ko barriak, antzemon be ez.

Eta barri eta zarrak, bertakoak eta etorriak, lengoak eta oraingoak, euskaldunak eta erdaldunak, erdiz-erdizean dabiz gaur emen.

Bilbo'tik Donosti'ra goazela, Beasain'en aurrez aurre, Napa-rra alderako bidea, Etxarri-Aranaz'era duan bidea artu eta orra bidean bertan, bide orretik asi ta laster, ia kilometro bira, Lazkao.

Beasain eta Ordizia Iparraldetik, Ataun Ego aldetik; Zaldibi sorkaldean eta Olaberria sarkaldean.

Lau milla eta bosteun lagun inguru, bertan bizi diranetan.

Orain eun urte, milla lagunik ez.

Sasoi aretan, Lazkao baserri-erria zan. Gaur, industriak iruntsi dau. Geitu diran bizi-lagunak ez dira etorri baserrietara. Or dagoz kalean. Gaur talde bitan bananduta dagon kale-aldean, au da, San Jose Langillea eta San Iñaxio izeneko blokeetan, gaur egiten diran etxe standarrekotan pillotuta.

Danetara be 70 famili dira baserriei eta baserri bizitzari lotuta irauten dabena eta baserri lanetatik ba da be ogia irabazten dabena.

Besteak industrian. Bertan eta inguruetan sortu diran lantegi andietan.

Ikusteko etxeak: Infantado'ko dukien etxea, eta gaur konbentu diranak. Erriko-etxea, bere arkupe ta aurreko plazagaz, egaletan zugatz illarak dituala.

Beneditarrak. Benediktinoak. Belloke, Lazkao, Estibaliz eta Leire. Orra Euskalerrian beneditar prailleen tokiak. Euskal arnasa. Batez be gure euskerari liturgirako bideak zabaldu edo ta erraztu eta egokitzen jakin dabe. Edo ta alegiñak egin bai beintzat.

-Gure gazteak gaur onelako edo onetarako deiei erantzuten ba al dakie, Aita Mauro?

-Eurei kezka ori suspertu eta bizitu nairik nabil egun eta gau-ro.

Euskaldunen txaloak merezi ditue beneditarrak.

Egia esateko, salmoak kantatuaz, kantu orreine esanei biotzagaz erantzutea baiño ez dabe egin.

Gogoratu 136 salmoa. «Euskalerriko Liturgi Batzordea» ren izenez agertu barri dan «Salmutegia» datorren eran agertuko dot:

«Atzillo eraman gindutenak, alai egoteko

naigabetzen gindutenak, alai egoteko:

Emaitzue Sion'go eresi batzuk guk entzuteko».

1902 urtean, Frantzia'ko gobernuak beneditarrak sakabanatu zituanean, Belloke'ko prailleak Naparroa'ko Olza'n eta Idiazabal'era zabaldu ziran lenengo. Gero emen Lazkao'n alkartu 1916 inguruan. Amabi urte geroago barriro ara biurtu ziranean, emen frailetu ziran ingurutako gazteak bertan geratzea nai izan eben.

Eurak dauken etxea, konbentua, 1.800 ingururarte karmeldar monjak euki eben etxea da, 1 640 urte ezkeroztik.

Ez da euren konbentua bakarra Lazkao'n. Santa Ana izeneko monastegian or bizi dira ixilik bernardar monjak. 1.650 urtean Mari Lazkano andereak sortu eban etxe au. Konbentua maitale izan zan andre au. 1.640'n karmeldatarrentzat; amar urte geroago, besteontzat.

Lazkano'ko jaunena entzutea Elorrio'ko San Agustin monastegiari egindako eskintza bateko paperetan billatzen da lenengoz. 1.053 urtean. Gero... Ondarrabi'ko estualdi baten, erri a inguratuta egoan baten, an agertzen da lazkano bat. Orduko bertsoak irakurri ta ara:

Juan Lazkano Beltzarrana,

Gipuzkoa'ko kapitana...

Gipuzkoako kapitan izango zan, baiña eriotz onik ez eban berak euki. Gebara eta Ayala'ko kondeak eta soldaduak il eben Contrasta'n, 1479 urtean. Eta bere gorputza erre. Orra jauntxoan dén-poretan, oñaztar eta ganboatarren naste, asarre, burruka eta estutzetan, oñaztarren azken buru edo nausietakoa. Oñaztarren nau-sitza Gipuzkoa'n, emen, Lazkao'n egon zala gogoan euki daigun.

Geroago, bere semien semeak be gerraetan billatzen dira. Euretari-ko bat, Felipe, Donibane Loitzun'erre eta lapurtzen ezagutu zan. Felipe au Aitzgorri'ko San Adrian ermitan bataiatua izan zan.

Ondoren, Felipe izeneko Lazkao'ko jaun geiago ezagutu ziran eta izenari, erregeen antzera, lenengo, bigarren, irugarren eta abar geitzen eutseen andinaikeriz izena goratu eta zabaldu naiean.

San Juan ante porta-letaña
zapatu arratsaldian
amalau atso tronpeta joten
matrallo baten gañian...

Ba daukaz «ante portam latinam» go santu onek bere santu-tegiak Euskalerrian.

Emengoak, Lazkanotarrak, izena erreztuz, San Juan Txiki deituten dautse.

Jorrailla'ren azkenetan edo maiatza'ren lenengotan jai. San Prudentzio eguna zelan jausi, jaia ala jantzi.

San Prudentziotan jai egiten dau erriak, eta urrengo domekan, ermita onetan.

Antxiñako jaia. XV garren gizaldi edo atzeragokoa ei da santu onen irudia, 700 urte be emoten dautse batzuk.

Jezarrita dago, au da, aulki baten, liburu bat altzoan eta esker-eskuan kaliz andi bat.

Erri burutik iru kilometro inguru dagoz bertara, Lazkau-mendi onetara. Ez da bakartadeko ermita. Bide erreza, egokia; leku politak, baserri ederrak, eskoletxe, pelota toki eta «bentak» inguruan.

„ Begien aurrean Larrunarri (Txindoki), erritarren deituraz «Naunarri, Murumendi, Ernio eta Aitzgorri...

Ez da au Lazkao'ko ermita bakarra. Beste San Juan bat be ba dago. Barri-on erakuslearena. Eta ermitetatik jatorrena, lenengo parrokiaren tokian dagona, San Prudentzio.

Eleizetan asi garenez, parrokiagaz amaitu daigun. XVI garren gizaldia barriztua. Gotiko erako Ama Birgiña'ren irudi ikusgarri bat ba dauka bertan.

Lazkao'k benetako erri adiskide bat dauka; anai erri bat: Oلابerria. Doktorren erria.

Eleiz gizonak euki izan dabe euren partetxoa errien eta gizonen deitura askotan.

Gure ibildeunak, prozesiñoiak, erririk geienetan bardintsu egiten ziran. Aurretik gizonak, illaretan. Atzetik, pilloka, emakumeak. Zaindari bat, sakristaua edo abadearen bat joan bear izaten eban andrak baketan eroaten.

Erri baten, abade batek artzen eban ardura ori. Eta andrak errez inguratzen eben eta danen artean sakadaka erabilli. Origaitik Agur Maria errezaten «andre guztien artean» esaten zanean, beste abadeak atzera begiratzen eben sarri, euren lagun a nun ete ebillen. Ori ikusita, «andre guztien artean» izen-goiti be ipiñi utsen berari.

Emen, Olaberria'n, letani egunetan oiturea ei eukan abadeak azken arrentza edo letanian, «omnes sancti doctores» esaten, erriko agintariei burua makurtu eta erreberenizi antzeko bat egitea. Origaitik Lazkaotarrak «doktoreak» deitzen dautse olaberritarrei.

Azeria'ko alkatetza nausian alkartuta egon ziran erri batzuk. Beti Lazkao eta Olaberria. Lenengotan Itxaso eta Arriaran be bai. Baita Gabiri, Zumarraga eta Ezkioga be, baiña oneik 1 661 urtean banatu ziran. Azkenean be Olaberri eta Lazkao gelditu.


Erri zuzentzarako erri bien lurraldea bat lez etsiten eben. Sei urtetatik bostetan Lazkao'n izentatzen eban alkatea eta bestean Olaberria'k. Orrela eundak urtetan.

1884 urtean adiskidetasunez banatu ziran erri biok, baiña gaur be anai lez jokatzen dabe.

Eta biok erri langilleak dira. Lan ugari dabe. Eta lantegi barriak sortu dira eta sortzeko dira. Ori da batez be Lazkao'ren itxaropena.

Lenengotan Lazkao'n euskaldunak sartu ziran lanera. Ingurutako euskaldunak. Ortik ez eban igarri .ainbestean geitzearen ondorenetan, erri izkuntza eta izatearen ez bardintasunik. Gaur extremeñoak dabe bertarako joera.

Gizaldiaren asieratik gure egunetara egin daben gorakadea baiño andiagoa egingo ei dau beste ogetabost urtetan. Orretarako errazoi bat erabilten da: Lurralde egoki eta eratsuak daukazala lantegi barriak jaso al izateko. Eta orrek aidean lagaten dau Lazkao'ren izatea. Gaurkoa beintzat.



LEGAZPI

Oñate eta Zumarraga bitartean dago Legazpi. Estutu daigun geiago eta lenengotatik mugatu: Lengoak eta Anzuola, Urretxu, Gabiri, Mutiloa eta Zerain dira bere muga-erriak.

Urola ibaiaren sorleku da. Bere jaubetasunaren sartzen dan Aizkorri'ren alderdian jaioten da burdin ura daruan erreka ori. Jaio ta amaika kilometrotan Legazpi'ren lurretatik urten barik dabil. Eta ur barri geiago bertan artzen: Ayerdi, Barrendiola, Pagola eta beste txikiagoen erreketatik ugaritzen.

Burdiñolen ibaia. Deitura ori emoten dautse askok Urola'ri. Langintza oneri geien lagundua. Ogetabi burdiñola ezagutu ziran ibai onen bidean. Orian'n, bide luzeago eginda be eta ur geiagoz, 21. Deba'n 12. Urumea'n 4. Bidasoa'n 2.

Burdiñatik datorkio ain zuzen be Legazpi'ri bere entzute eta izatea. Izatea, lana eta dana. Balbuena'ren erdal bertsoak gogoan daukadaz:

«El nb Urola de herrerías lleno,
con más fraguas que Liparo y Vulcano,
riega allíel valle de Legazpi ameno».

Legazpi'ko aran eta ibar alaia? Bai.

Mendiei begiratuta, Aizkorri'ren maldak aurrean. Eta Aizeleku eta Satui-mendi.

Erri osasuntsu. Oraintsu arte zaar; gaur barri deitzeko eskatzen. Eratsu. Lanaren serbitsuan sartuta eta lana bere serbitsuan. Ikus daigun.

Arbola bat eta bere azpian arrain bi.

Alaxe ikusten dira Legazpi'ko ikurdian, eskudoan, egal baten. Bestean gizonaren esku bat, ezpata puntaz koro bateri eusten.

Amar milla bizi lagun. Bederatzi uri barruan. Besteak Brinkola eta Telleriarte'n. Geitzen. 1960/1970 bitartean, urteko %4,5 ugaritzen. Gizaldi onen asieran baiño sei bidar geiago. Esku lanaren premiñaz deituta etorriak bizi lagunik geienak. Lenengotan napparak. Gero beste alderdietatik geiago. Erdaldunak. Orrela gaurko giroa: Umeen eskoletan %60 euskeraren tutik ez dakienak.

Langilleak artu eta emoten dabil egunero. Trukatzen. Geien bat be Zumarraga'rekin. Batzuk emendik ara, besteak andik ona egunero. Altsasu aldetik be etorten dira.

Goazen asierara. Zetatik datoz arrain biak Legazpi'ko ikurdian?

Ur garbietako amuarraiñak, trutzak ete? Edo ta batzuk esaten daben lez, legatz bi? Azkenengo au gaur ez leuke iñok sinistuko, eta gitxiago ontzat emongo, erriaren esan edo erakusgarritzat. Dana dala, or dagoz arraiñok, gaur eta azpalditik Legazpi'k erabili eta erakusten daben bere eskudoan.

Legazpi, itxasoa neurritzat artuta, 390 metrotara egiten da. Osasun neurria.

Parroki txukuna. Torrea, XVIM'n egiña, ez ain jatorra, nai ta Carrera anaietako batek jaso izan. Zabalegi? Motz? Jakin nai litzake zenbatean neurritu ete eben, egitean, artistaren ametsa.

Erri etxea, arlanduz egiña, ederra.

Burdiñak, burniak, ba euken Euskalerrian bere indarra. Baserri gaiak kenduta, ozta-ozta jateko bakarrik emoten eben baserri lanak kenduta, erri askoren bizitza zan. Gaztelaniarren Romance-ro'n irakurri lei: «yerros y más yerros son todos sus tratos».

Ona, egokia, sendua ataraten zalako, entzute andia artu eban. Ez bakarrik bertan eta inguruetan. Ameriketaraño be eltzen ziran emengo burdinkiak. Bidasoa, Oria eta Urumea'ren ingurutuan egozan burdiñoletan gertu eta landuten zana, plantxetan, zati zapaletan bialtzen zan Ameriketara, batez be Cuba'ra. Donosti'ko kaira etorten ziran itxasontzietan bialtzen zan.

Urola'ren inguru eta ibarretakuak, beste salerosketa bat, beste komertzio bat euken. Tresnaetan biurtzen zan bertan egiten zan burdiña, erremintetan. Askotan sarrailletan. Eta geiena España guztian zabaltzen zan.

Auzoan intxaur zindoak beti eta etxean ustelak? Bai gizon. Siniste orreri makurtzen gara sarri. Luzaro ibilli izan gara erbesteko galtzairu eta burdinkien billa.

Makina eta Erreminten ordezkariak joan ziran bein Ingleterra'ra. Ez dira urte asko. Merkatuak ezagutu eta barriak billatu nairik. Gaitasunak eta ontasunak ikasten. Errien premiñak eta jokae-

rak susmatu nairik. Erosleen eskabideak igarri eta euren naien tankera artzen. Londres'ko etxe andi baten ebiltzan. Bata eskatu ta bestea ikusi. Gauza bat atara eragin, bestea aztertu, salneurriak jakin, kostuekin ziurtatu. Tresna on eta aukerakoekin beti. Orrela ebiltzala, ordezkari batek, sakondu nairik:

-Tresna oneki onak dirudie. Beste obeagorik ez?

-Nekez lortzen da baiña ba dogu. Gaur mundutik onenetari-kuena izan lei au.

Eta ezkur ikurra, ezkur (bellota) agergarria ezaugarritzat eukana atara eutsen. Legazpi'ko egitura, Erbestean etxean baiño fama geiago. Askoren gaitza da ori.

Telleriarte'ko jaiak San Joanetan izaten dira. Zumarragatarrak luzarotatiko joera dabe bertara. Geroago, Irailla'n, Mikel goiainge-ruaren egunez bigarrenak. Oñati'n be jaiak eta banandu egiten ei da jentea.

Brinkola'n San Agustin dabe zaindari. Bertakoen fedea itsua dala esaten da, sinismen beroegi daukela, eta ez dautsela begi-razten bizarretara euren zaindariaren irudiari.

Len Mendaraz irudi-egilleak, santugiñak egindako bat euki eben. Santugin on eta zintzoen entzute eta izena euki eben orain gizaldi bi famili onetakoak, Urretxu'n. Areik San Antoniotzat egin ei eben irudi bat. Lakiogoikoak erosi eben bera eta geroago Telleria-enera aldatu ziranean, bertara eruan. Ez jakin zegaitik, San Antonio San Agustintzat aldatu ei eben, kartoizko gotzain kapela eta jantziak itxuratuta. Enda nastuko kolorea, mestizoen kolorea ei eukan gaiñera arpegian ta bete-beteko irudia trukatzeko. Ala, tren bidea inguru areitan egin zanean, eleiza bat be jaso eben eta santu ori ipiñi.

Beste kontu bat be ba dago gaur gurtuten dan irudia dala-ta. Azpeiti'tik ekarri ei eben, an Bari'ko Nikolastzat gurtuten eben irudia. Eta emen, berbera, San Agustintzat ipiñi.

Ba dago Bizkaia'n esakera zatar bat: San Bizente Abando'koa, legitimoa; San Bizente Barakaldokoa, bastardo. Billatu kakua esakera orreri.

Zer esango dogu Brinkola'ko «doble» onegaitik? Brinkola'n bertan ez dautse ardura andirik. Itxurak ez dabe praillerik egiten. Erri batzuk, udako Andra Mari jaietan aspertuta, urteko jaiak amaitu ondoren etxeratzen diranean, emengoak bertakoa ospatzeko garra eukiten dabe, eta eurenari jator eutsiz beste esakera jator bat barriztu: «Txilin txilin San Agustin, kuartillu bete txakolin». Eta salto ta brinko, Brinkola'n saltoka eguna igaro.

Olatik berri onik ez?

Ba da orrelako esakera bat olagizonen artean. Gaurko teknika eta gaurko ziurtasun barik lan egiten zan garaietan, sarri elduko zan barri txarren bat. Edo arrigarriren bat.

Legazpi'n Kurutzeko egunez euki eben ain zuzen be gertaera miraritsu bat.

Amalau ikatz karga eta lau kintal burdin atarateko aiña burdingai erabilli ondoren, eguneko lan eta izerdien onura orde, amabi libra inguruko kurutze itxurako burdin zatia lortu ei eben, bertakoak, orain urte asko, 1 580'n.

Barri onek erri guztia ikaratu eban. Miraria? Orduko siniskeretan, bete bete.

Orduetik, gertaera ori ezkeroztik, Kurutzeko egunetan daukez jaiak Legazpi'n. Eta ori gertatu zan burdiñolea, gaur Legazpi'ren ezaugarri lez, monumentu lez, barriztu, egokitu eta burdiñolen oroitzarik ziur eta egitsuen lez gelditzen da, P. Etxeberria'ren amets bat beteta. Legazpi ikusi danik ezin esan, Mirandaola burdintegi zarra ikusi barik. Legazpi'tik Oñati'rako bidean, Telleriarte'ra eldu baiño len, merezi dau ikustaldi bat egiten burdiñola onetan sartzea. Alboko ermitatxu zurian be bai.

Legazpi erri zatar izan eikean, eta dotore ikusten da. Erri loi, zikiña izan eikean, eta garbi ikusten da. Erri batu, pillotsu, alkarren gaiñeko izan eikean, eta erri zabal, aizetsu ezagutzen da.

Lanagaz batera erriaren izateak be kezka sortu dabela igarte da. Ezin eskatatu olakorik.

Noiztik datorren Legazpi?

Ba dirudi erri izatea Santxo Erregeak emoniko legetik dator kiola. 1290 urtetik. Ordurako be mendietan zabaldu eta galtzen ziran burdiñolak. Basa-mortuetan. Uraren indarrak baliatu barik, gizon indar utsez lan egiten ziran denporak ordukoak. Olako tokie ri «agarrolak» deitzen eutsen. Bai eta «gentil-olak» be. Antxiñata sunaren ezaugarri díra deitura oneik. Eurokin batean «gentil-etxeak», ikaskiñen etxeak eta abar.

Geroago errira urreratzen, bizi-lagun pillotara urreratzen ezagutzen dira. Erreka ondora etorten.

Zar edo barri, Legazpin beti ezagutu izan da burdín lana. Gipuzkoa'ko meatzik, miñarik onenak be, bere mugetan ezagutu izan dira, Mutiloa eta Zerain'en lurretan. Gipuzkoa'ko legetan, meatzak ez ziran errienak, probintzirenak baiño.


Legazpi, gaur, burdiñari kantua da. Burdin egillen oroitzik bi ziena. Lengo «urzailleak», «isleak», «prailleak», ikaskiñak, «txike-tzailleak», erdal izendun ofizialen deituretan jokatu dabe gaur. Baiña ezin bastertu eta ukatu lengo ola gizonak.

«Gabriel Zelaya»ren «Baso-jaun ferron» poema gogoan daukat. Ez ekian bere izenik. Ez ekian urterik. Geiegi ekialako, ez eban esaten, edo ta gitxiegi ekialako, jo ta ke, moskortzen danaren

antzera lanean itsu iñarduan.

Baso-jaun deitzen dautsagu, basotik etorri zalako... Ballerako ola-gizonik onena zan. Oraindik iñok irakasten ez ebana, ba ekian berak bere zeregiñean Mirari bat lez zan gure euskal lurtean burdiña menderatzea. Baiña gaurko gintza, industria, eziña izango zan, egun baten Baso-Jaun, ezerezean asarretuta, ola-gizon izatera makurtu ez ba litz.

Lengo Baso-jauna, Legazpi'n erri-jaun biurtu da. Ekonomi baten indar. Eutsi.



LEZO

Rexi M^oB MBI ^AHtIP

Margolari batzuk, pintatzalle batzuk, ikusteko era ez bardiñak eukiten ditue. Norbere gogo eta jokerak zelako, pintatzalle askoren nortasuna alako. Beste askotan giroaren aizetan ibiltzen dirala dirudie. Naibeste diru ordaintzen diran kuadruak, jokera bat edo besteren ondoren, beste aldi baten, erdira etortzen dira. Lezo'n gabilz eta beriala dator itauna: Eta Elias Salaberria?

Mutiko zala, Lezo'n oraindik eskola lagunekin ebillala, ardura eta kezka ibili ziran bere erriko agintariak berari igarten yakon arte zaletasun eta eskua ondu eta bizkortuten lagundu nairik. Gipuzkoa'ko Aldundiak luzatu eutsan pixkat bere eskua: urte birako beka bat agindu eta emon eutsan.

Gero, gizon egin ala, bere eskola artu eta erakusten joan zan gure pintatzallea. Adiskide onak artu eta ezagutzen be bai.

Bere lengusiña bat gaixo ebillan sasoi aretan. Marañoñ mediku entzutetsuaren gana be jo eban. Bitartean Elias Salaberria'k bere langusiña ori pintatu nai izan eban eta Marañoñ'eri bialdu eutsan kuadru orren argazki bat. A ikusi eta ordurako osagille aregaz be artu emonen bat eukalako, mediko ospatsu arek karta bat egin eutsan, labur baiña esan nai asko eta betez.

«Elias adiskide: Nire gaixo eta lagun danaren kuadroaren argazkia ederra da. Egunetik egunera obeto pintatzen zoaz. Nik zure lengusiñeari miñak kendu dautsadaz, baiña zuk illezkor egin dozu».

Salaberria'k bere erriaren izena entzungarri eta ezagun egin nai izan eban.

Fede eta maitasunez lotsaz eta arduraz, biotzez eta gogoz.

«Lezo'ko Gorpuzti eguneko ibildeuna» margotu, pintatu eban.

An agertzen diran gizonak ez dirala gizon, eraturako bizidunak, mistikuak baiño, esan izan dau norbaitek. Eratuak dirala, ikus-bide itsu batez ikusiak, fedearen lanbroz iruditua. Baiña Euskalerriak ez al dau mistiku begiz ikusi eta ospatu, goratu eta bizi, izara zurien garbitasuna zapaltzen eta ia berde usaitsuen arnasa artu eragiten egin eta ospatuten dan egun onetako meza osteko ibildeuna?

1912 urtean, Madrid'en egin zan «Bellas Artes»ko erakusketan nausian, lenengo sari edo domiña irabazi eban kuadru onek. Gasteiz'en dago gaur, Araba'ko Aldundiaren Museoan.

Langusiña bakarrik ez, Lezo be illezkor egitea lortu eban Salaberria'k.

Nundik joaten da Lezo'ra?

Donosti'tik Irun'era goazela, Pasai aurretik igaro ta laster, Errenderi baiño len, be aldean, an ikusten da Lezo'ko eleiza zarra, «Ave Crux» agerkaia tellatuan dabela.

Lezo'ko Gurutze donearen entzutea daukenei, ba diñotse zerbait agergerri arek. Eta besteai? Pasai'ko portuko anditasun eta sakontasunak galdu eragiten dau, oartu ezik, begirapen berezi bat euki ezik, Lezo'ren egoera.

Errenderi'ren bat bateko zabaltzeak be laburtu egiten dau Lezo'ren egoera.

Eta ortxe, Errenderi, Pasai, Oiartzun eta Ondarrabi'k estututa, ortxe dago Lezo'ren lurraldea.

Irun eri be tarte batetik ikutu egiten, eta itxasoari be arpegia emoten Pasai'ren zabaltzean eta portuko premiñak eskatzen daben molletarako bere lurraldeak lagaten. Eta Jaizkibelen gibelean mendiak piñuz beteten.

Or, konturatzeko, Lezo nun dagon.

Amasei kilometro lautu, kale eta mendi, Pasai aldeko molla eta Jaizkibel mendiaren ingurutako baserri eta auzoetan.

Lau milla ta erdi bizi lagunetan. 1900 urtean milla ta berreun lagun eukazan ozta-oztan. 1950'n 2.447 Amabost urte geroago 3.513. Eta gaur milla geiago.

Goratze onek erriaren aldatzea dakar. Gaur bizilagunen artean erdiak baiño geiagok euskerarik ez dakie emen.

Seireun itme lenengo mallako eskoletan.

Milla ta zortzireun langille, era askotako lanetan bizimodua atara nairik. Egurrean, paperean, burdinkietan, arrantzan.

Lurrari, erriari eta euskerari eusten, irurogetak baserri etxe.

Iralla'ko Kurutze jaien aurretik, illa sartu orduko asten dira erri onetako eta ingurutako emakumeak antxiñako oitura batzuk goratu eta jarraitzen.

Beti dauke amak umien ardura. Eta egun orretan, letaniak errezatu ondoren, bedeinkatu nai izaten ditue. Sasoi baten esaten zanez, amets zikiñak kentzeko. Ortarako, lenengoz, sentsu ona sartu, au da, Ebangelioak entzun erazi.

Egun onetan etorri eta batzen diran emakumeak, ez dira ain zuzen be Lezo'ko Gurutze entzutetsuaren izenez alkartuten, itxas urak Lezo'ra ekarri eben San Juan'en irudi bat agurtu eta laztantzen baiño.

Oraindik be, nai ta aizeak mendebaletik jo, zabal eta bero ingarten da eraspén au.

Itxasoari ikututen bizi da Lezo. Pasai'ko mollak kentzean ia laurendak metro kendu eutsezan erri oneri.

Ala ta be ezin lei esan Lezo itxasotik biz'i danik, edo ta beintzat agertu leikena da Lezo'k ez daukala ortik, itxasotik, bere entzuterik.

Arrantzaleak egon eta bizi ziran iñoiz emen. Baiña sasoi aretan Donosti'k kentzen eutsan izena eta nortasuna inguru oneri. 1525 urterarte Donosti'n batu eta zuzentzen eben emengo arrantza eta merkataritzako ardura eta an galdu eta nastutzen ziran emengoen onurak.

Itxasontzitegi entzutetsuak bai egon ziran emen. Sarri gogoratzen dakie emen, España'ko Felipe V izenez ezagutu zan erregea emen egindako gerra-ontzi baten joan zala Lisboa'n sartzera.

Itxas laiñopean ikusi eban Bitor Hugo zanak, Pasai'n bizi zala Lezo'ra urreratzen zanean, erri onen egoera. Illun, astun, aspergarrri. Ezin eskutatu ikuspegi bardintsuaz ikusi zitula Pasai'ko kale eta kantoi asko be.

Lezo'n kale zarrak eta inguruak ez bardintsu dira. Bizi lagunén izakeraz, etxeen egituraz eta ikuspegiz. Izatez eta egitez, datorkit burua. Betetasun baten lengoak errikoiago dira, erri kutsu geiagoko. Jatorrago? Bildurra sartzén dauste esakeren erak. Baiña edonun be istori zarra lengo lekuan gelditzen dala dakigu.

Gurutzearen itzalak entzutea emon eutsan Lezo'ri. Gaur be itzalpean ikusten da Kristo'ren irudi ori, itzalak misterioa emongo ba leukien lez.

Parrokia eta Gurutzearen eleiza bi dira. An, len aitatu dogun lez, umeen lo zikiñak kentzea eta emen promesak egitea. Eleiza bi orreik, Zubitxo eta Kale Aundia dira Lezo'ren bizia, San Juan kalea

euren parean ipinita.

Arrizko etxeak, ez andiak baiña bai zabal eta eratsuak. Eurretan gordeten da Lezo'ren oitura, izate eta bizimodu zarraren ezau-garria. Inguruak barri barri datoz, mundukorrago, orokorrago, egi-tura eta asmoetan lengo zarren ardura, lotsa eta kontuen begira-pen barik. Luzeago eta alaiago, bear ba da, baiña merkeago, bardintsuago, edozein erritako tankerakin. Erri guztietako jokabidea da ori.

Eta Lezo'tarrak?

Begiratu Gipuzkoako gizonen kondairara eta or billatzen do-guz ainbat gizon ospatsu abizen onetako.

Lezo'ko Mari, Errenderi'ko eleizarako aldare nausi gotikoa es-kintzen, XV gizaldian. Errenderitarra?

Lezo'ko Txomin, Peru'ko Cuzco'rako gotzain izentatua, XVI garren gizaldian.

Beste Lezo'ko Txomin, au be lengoa lez eleiz gizon. Errende-riarra.

Eta Lezo'ko Baladi, Blas de Lezo, erren, mantxu eta begi ba-karra, Indietako Cartagena'n galoiz betea. Pasaitarra.

Laurok be istorian agertzen dira. Lezo'ren izena eroaten, nai ta lezotar lez jaiotzetan agertu ez. Baiña Lezo'ko odola eroenik ezin ukatu.

Danak Lezo'ko eleiz andia ezagutzen ebenak, Hugo'ren esa-netan, eleiza luze, andi, kikorrarritsu eta illunari lotsa eutsenak. Batera edo bestera Lezotarrak.



MENDARO

Euskaldun erri jatorra. Umeak be, emen, euskaldun sortzen ditue, euskaldunak ekarri, ez beste toki askotan lez prantzetarrek, Paris'etik.

Mendaroarrei sekula ez yakoe bururatu umeak Paris'tik ekarten dirala esaterik. Emengoak, dan danak, Santa Ana'tik ekarten dira. Ala esaten dakie emen. Eta Santa Ana, Garagartza'ko auzoan dago.

Ezin ukatu nortasun bat emoten dautsala erriari. Nai eta Mendaro, erri legez, oraindik sortuteko egon. Ori da emengoan miña. Biziteko al izan, norbere jaube izateko duin izan, eta alkate bi errian agintzen eta eurak makilla bagakoak, beste alkateen ordekoak. Sasoi bat egon zan, 1 546 urtearen inguruan, elgoibartarrak Mendaro osoa eurentzat artu nairik ibili ziranekoa, baiña Mutriku'k bereari ten egin eutsan.

Mendi andien artean, ur ugarien egalean eta bide egokien aukeran egiten da Mendaro. Tren eta guzti.

Ala ta be erri bi berari agintzen, bertako jaubetasuna agertzen: Elgoibar eta Mutriku. Iñoiz Deba'k be euki eban zatiren bat emen. Eleizaz be parroki bi, eta orrez gañera, iñoiz artxipreste biren mende eta errialde biko epaikaaritza edo juzgaduak neurriak artzeko.

Eta ori, mendarorarrak egunero alkarregaz lanean diarduela, alkarregaz jolasean eta tabernan, sentimentuetan eta bizitzan, anaitasun betean diarduela.

Urteak dira Bilbo'tik Donosti'ra bitartean, Mendaro'ko geltokian trenak geratu ordukoxe, andrazkoak urtetan eben deika, otzaratxuetan erabillen gozo txorta saldu nairik: Mendaro'ko bizkotxoak! Erderaz eskintzen eben, egia da. Eta paper zurietan irarrirako bizkotxo biribil bigunak saltzen zituen, eskatu aiaña, ortarako zenbat eskatu ainbesteko luzetasunean papera ebakiaz.

Trenak jentea galdu eben eta erriak zergak geitu; erostzalleak urritu eta saltzalleei bizia karutu. Origaitik eskintzalleak mututu ziran eta gure trenak, «baskongaduak», arrezkero esnagarri bat galdu. Laster, bizkotxoak, monjen eskutuko lez geldituko dira, zispurutan.

Atsegin egiten ziran Mendaro'ko bizkotxuak. Emen ez zituen egiten, erri batzuetan lez, kanonigoen gorringoak, edo santaren baten gurikeriak, gozoetan. Mendaro'ko bizkotxoak eta erroskak, soil soilik eta kittu. Ba dirudi azpilgoetatarrak eta garagartzatarrak alkartu egiten zituela euren nortasuneko bizkotxoak eta erri baten duintasuna ernon.

Len be esan dodanez, Mendaro Deba errekearen bideak erdi-bituten dau eta ez dauka, legez, erri nortasunik. Parroki bi eta erri etxerik ez. Zati bat, Garagartza, Elgoibar'en menpe eta bestea, Azpilgoeta, Mutriku'rena. Ala ta be eurok mendarotarrak deitzen dira, bateko nai besteko izan. Mendarotar agertu beti.

Milla ta zortzi eun
oiez gain artian
irurogei t'amalau
garren urtian,
Abenduak amabost,
goiz alde tristian,
jaio nitzan Mendaro'n.
errota batian,
lengo gerratian,
arbolen tartian,
leku politian;
oindaño artian
pauso txarrak emana
nere kaltian.

Ez joan urrunera bertsolari ori nor zan jakin nairik. Eusebio Mugertza Azpiazu zala esaten ba dautzue, ez ainbestetan burua nekatu nor ete zan-ka. «Klabeliña»ren semeagaz gaur iñor ez da gogoratuko, nai eta bere amari, andre eder zalako, sasoi baten orrela deitu. Billatu beti erriaren izena. Orrela «Mendaro Txirrista-ka» nor zan jakingo dozu.

Ondarroa'n, 1926 urtean, eguna zabaldu orduko ikusten gendun merkatu plazan, bere abots lodiz bertso saltzen. Eskutik kentzen eutsezan bertso paperak. Donosti'ko estropadetakuak ziran.

Ta biar det
adierazi
bizkaitarrak
dutela errez
irabazi. Pin pon!

Ori zan berak orduan, estropada areitako bertsoetan erabilten eban errepika edo estribilloa. Jakiña, gu, urte aretan, estropada orreik irabazi ziralako bitsetan ibili giñan. Gora eta txaloekaz batera kontseju ederrak be emoten euskuzan, olakoetan biztu eragiten diran errien arteko ikusi ezin eta txikikeri askorekin konturatuta:

Eta edozein moduz
ez errietan ekin,
guziok bizi biar
dogu alkarrekin.

Oraintsu omenaldi errikoi bat egin eutsen. Bere bertso sailla agertu be bai «Auspoa»n. Askok gogoratzen dabe oraindik inguruetan. Ogei urte dira il zala, bizitzatik txirristaka iges egin ebala.

Arnobitarte, Arnobate?

Guk, Arno-ate deitzen dautsagu. Ez dakit zein izan leiken bere izen egokiena. Baserri ori dagon tokiari begiratu ta danetara be esan leike.

Euskal ikastetxe nagusia, unibersidadea baserrietan dagola? Jakingarri eta deduzko izango litzake Euskalerriko osagileen bizitzza bat egitea. Nai ta sasi medikuak deitu. Ezin ukatu nortasun andia euki ebela orrelako askok eta gaur be daukela, batzuk, erriaren arrera eta konfiantzan.

Ikastetxe andietara joan barik, izadiak daukazan birtuteak ezagutu, belarren gaitasunak ikasiz, titulodun mediku askok baiño errian fede geiago eukenak ziran. Ez bakarrik bateko edo besteko miñak kendu edo arintzeko. Azur apurtuak konpontzeko be bai.

Arnoate baserritik urten eban Arrillaga batek. Eta kendu txapela bere aurrean. Semeak be aitaren bidetik jarraitu nai izan eban, baiña aitaren irakaskintzak ikastetxe nagusietako aukerakin alkartuta.

Dana dala Arnoate'ko eskola egona da. Eta ez eskutuan, erriaren begien aurrean eta biotzen eskarrez baiño.

Mendaro'n, Garagartza aldean eta Azpilgoetan, 72 baserri etxe batzen ziran. Gaur, ogeiren bat gitxiago. Eskudodunak iru: Etxabe eta Lasalde alderdi batetik eta Ospas bestetik.

Uskeri bat naiku izaten da iñoiz egintza edo gertaera orren ondoren luze bat gelditzeko.

Bizkotxoak aitatu doguz.

Bein Isabel II, erregiña, Gipuzkoatik ebillala, Mendaro'tik igarrotean, bertan gelditu zan. 1 845 urteko gauza da.

Egun aretan Mendaro'ko sakristauak ez zitun kanpaiak bakarrik jo. Bera aukeratu eben erregiñari erriko oroitza bat eskintzeko. Erregalu ori, jakiña, mendarotarra izatekotan, bizkotxoekin izan bear eban. Eta sakristauak, eskintzean, berba gozo eta usaitsuak euki zitun erregiñarentzat. Bere zeregin edo ofiziokuak ain zuzen be: intzentsuzkoak. Itxuraz egoki, gozo eta labur-labur.

Origaitik erregin orrek beste erri eta inguruetan loraz, koipez eta lizunez betetako itzaldi utsak entzun bearrez erdi aspertuta egoten zanean, bere albokoen bateri esaten ei ekian: Nun ete dago Mendaro'ko sakristau jator a!

Laster ikusten da Mendaro. Parrokiak txukun barriztauta. Kale txikiak, ez zuzenak. Augustindar monjaen konbentua, 1561 urte-tik datorrena, lagun-arte bat edo beste ta Kilimon. Parkatu, kittu.

Urruzuno zanak, ijitoen kontuetan euskal idazlerik irritsu eta barregarri eta ugarienak, ementxe ikasi ei zitun bere ijitokeriak, eta ementxe idatzi be bere liburuak.

Jente langillea. Sasoi bateko olagizonen errastuak ba dira oraindik be. Ba dakie beintzat bertan San Martin egunez olagizonen jataldian egiten. Orduko giroa eta jarraitzalleena igarten da.

Inguruetan, arrizko mendiak, betiko nortasuna erakusten. Jatorra da Mendaro.



MUTRIKU

Mutriku!

«kristo leku»?

«Triku-erri»?

Eta zer?

Antxiñako erri jator bat.

Erromatarrena izan zala? Aurreragokoa?

Mutriku eta kittu.

Zer esan nai daben...mutrikuarren biotzari itandu, galdetu.

Ba al dakie madritarrak eta beste askok zer esan nai daben «Madrid»ek?

Euskaldunak izan bear eta gara, ain zuzen be, gizonik ez-ikasienak izan da be, etimologi guztiak, sustrai eta erri ta guzti jakin bear doguzanak?

Ondarru'tik Mutriku'ra joateko, «Katetxe» igaro bear da.

Prakagorri eta esklabiña urdindun mikeleteak, gure umetan.

Etziran edozein. Titulo ta guztikoak. «Don Juan» bat ezagutu gendun beintzat. Tituloak galdu zitun, abade-gaien udako jai baten, suzko zezena tiroka aldamenera joan yakonean.

«Probintzi»ko muga.

Benetako muga ardauarentzat, gatzarentzat, kotxeentzat. Eta gure izkuntzarentzat, euskerarentzat.

«Dot» etik «det» era salto egiten dogu emen. «Berbeta»tik «izketa»ra. «Etxebarria»k laga eta «Etxeberria» ikustera.

Goazen aurrera, mikeleteen baimenagaz.

Arbelaitz, Etxeberri, Arana, Isasi biak, Doistuak alboan, Zuatzu, Errotaberri...

Mutriku ta Ondarru-ren bide erdian dago Errotaberri.

Ondarru ta Mutriku, idiak idia arkitu da esakera. Eta jakiña, esakerak indarra artzeko, bein baiño geiagotan ibilliko giñan adarka.

Orrelako baten, bakeak egiteko, Mixio klasikoetan egiten zan parkameneko sermoia, Errotaberri onen aurreko solo baten egin ei zan bein, Ondarrutar eta mutrikuarren artean bear zan bakeari bide erdibitzeko.

Aurreratxoago, San Jeolimo. Ama askoren kezka eta asarrerako, buztiten diran umien erromes leku. Bai eta «aragixa piper andixakin» jateko eguna be, udazken asieran.

Bertan Apategi, Ibarre, Mugixa, Illunbe... Mijoa ballera.

Sasoi baten Errege katolikoan serbitzariak Illunbe'n billatzen ei ziran.

Artzain-erreka eta Mizkia-mendiko bideak lagata guazen aurrera, bide nausitik.

Etxerre. Eta geroago Tetuan.

Afrika'ko gerraen bateko oroitza.

Baiña Tetuan'ek ba dau bere jatorrizko izen garbia. Ez zenkian? Orra: Urgorriaga.

Etxe aurreko eta inguruko metal urak ezin egokiago ziuartzan dabe izen ori.

Aurrerago Antzomendi -Santxomendi?- eta ara, Galdona eta Olatz'etako bideak ezker eskumatan lagata, sasoi baten auzo izanarren gaur erri buruan sartuta dagon Maala'tik zear, Mutriku.

Leio baten, arrantzaleren baten sirazko jantziak, erropak, eguzkira atarata, koipe dariola.

Zelan esaten ete dautse Mutriku'n koipe orreri, liñ-azitik ataratako orio orreri?

Ikasi «neologismo» bat: manufaturia.

Dendarien baten naste eta egitetatik sortutako itza.

Orra leu-saiña, manufaturan biurtu.

«Txalupatxu bat, txalupatxu bi,

Santa Clara'ren parian...

neire anaia antxe datorke

batian edo bestian.

-Neure anaia, zer barri dira

Mutriku erri onian?

-Ana Juanixe ezkontzen zala

iñuen atzo kalia...»

Orrelaxe asten da euskal erromantze jator bat, euskal elertian, literaturan toki ona daben antxiñetako erromantze polita.

Itxas erriak ba euken guna eta emoten eben gaia olako kantu eta gert-irudiak sortu, indartu, bizi eta gogoratzeko.

Eta Mutriku itxasoari begira bizi izan da beti. Gaur be, iru zati-tik bat, arrantzale edo itxas bizitzan janaritzen dana da.

Mutriku, azken urteetan, ez da geitu itxas bizitzan.

Aldatu bai, egokitu bai, egunekotu bai, baiña ugaritu ez.

San Pedro'ren izenez ezagutzen da bere Kofradia gizaldi lu-zeetan. Galdu egiten gara euron asiera billatzean. Legeak batzen edo idazten asi ziranean, antxiñetatik etozala esaten da, gogora-tzen ez diran denporetatik. Alaxe itxas ertzeko Kofradi guztiak.

Azken bost urte oneitan, ontzi batzuk saldu egin dira. Gaur, orain bost urte baiño iru txalupa gitxiago dagoz.

Indarrez, orain bost urte baiño 107 zaldi gitxiago. Arrantza-leetan be orduan baiño 70 lagun gitxiago.

«Bajura»koentzat Getari eta Donostirako be aukera gei-go-koak.

Antxo denporan mutrikuarrak sarri joaten dira portu'orreita-rra arrantsuak euretan saltzera.

Egaluze denporan, atun denporan, oriotarrak be ba ekien Mu-triku'n arraiña saltzen, geroago Ondarrua'gaz konpondu ba ziran be.

Orrela, Mutriku'n joan dan urtean, 1.305.856 kilo sartu zirala esaten ba dogu, ez dogu esan nai ori dala bakarrik mutrikuarrak arrantzatu eben guztia. Mutrikuarrak beste portuetan kilo gei-go lagako eben, erbestetarrak Mutriku'n laga ebena baiño.

Dirutan be, ia berrogeta emeretzi milloi peseta sartu zirala esaten dogunean, lengo kontu berbera gogoratu bear da.

Gaur, arrantzan, Mutriku'ko indarra au da:

28 txalupa, itxasontzi.

1.250 tonelada.

5.41 1 zaldi, HP.

248 arrantzale.

Legorrean, arrain lanetan, sei lantegi konserba-giñan, (Gipuz-koa'tik geien) eta beste bat gazituetan. Arrantzaleak aiña langille ibilliko dira, gitxi gora bera, lantegi oneitan. Geienak emakumeak.

Beste irutik bat kaleko industrietan bizi da. Metala erabilten daben lantegietan batez be.

Eta irugarrena, oraindik baserriei lotua bizi da, nai eta gaur emen be utsune asko ikusi.

la eun eta berrogetamar baserri etxe euki zitun Mutriku'k bere lurretan. Gaur be etxeak or dagoz, baiña asko orma utsean gelditzeko zorian.

Artzain-Erreka, Astigarribia, Galdona, Ibiri, Laranga, Madale-na, Mijoa, Mizkia, Olabarrieta, Olatz, Saratzu... Orra'auzoen izenak. Itxas bitsak artzen batzuk, tokirik atsegiñenetan.

Mendien sakonetan, erreka-artetan besteak.

Arno azpian, Mendaro'ri bizi eskintzen besteak. Ez aztu Mendaro, Deba errekek aldebanatzen daben lekua dala, auzo bi egiñaz: Garagartza eta Aitzpilgoeta. Lenengoa Elgoibar'en menpean dago: bigarrena Mutriku da.

1766 urteko matxiñada entzutetsua izan zan Euskalerrian. Madrid'en Esguilache'n aurka asitakoaren ondorenak.

Euskalerrian Azkoiti'n asi zan, Azpeiti'n indartu eta laster zan Mutriku'n.

Mutriku'n Jorrailla'ren 1 8'an egin zan batzar nagusia. Elgoibartar batzuk be batu ziran Ayuntamentuan.

24 erabagi artu ziran guztira.

Gariaren sal-neurria ipinten; gaztaña erritarren artean zabaldu bear zala agintzen; auntzak mendietan libre lagatea baimentzen; portura etorten ziran txalupei laguntza eskintzen; kapellani bat baiño geiago euken eleiz gizeoi, bat bakarria lagaten; osagillearentzako batzen zan sisa kendu eragiten osagilleak erriaren kontura lan egin bear ebela erabakiz; auzo lanak neurtuten; eleizakuak eroan bear ziran tokietan, errekarik igaro bear ba zan, zubiak egitera beartzen; etxe bakoitzari urterako sua egiteko egurra emoten, eta abar.

Eta «postdatum» bat: Parrokoak, aurrerantzean, ezin egioela ezer kobratu, aberats nai beartsuei eleiz « administrazio» kontuetan; ezkontzetako deien orde, zortzi errial bakarrik artu eikeezala. Eta gañerako apaizak, amarrenak emoten eutsezan baserrietara joan bear ebela, il-zorian egozan gaixoei laguntzen, eta joan ezik amar milla marabedi ordaindu bearko zituezala gertaera bakoitzean.

Gurrutxaga'k «Yakintza» aldizkarian 1933 urtean egin eban lan baten esaten ebanez, etziran ezagutzen orduko itunben edo kapitulaziñoiak. Mutrikukoen kopia bat eskuan daukat lan au egitean.

Mutriku'n odol beruak egon ziran sasoi aretan.

Nire ibilleran, aaztuta laga dot Saturrarán. Eta Idurre. Eta Olatz. Mutriku'ren entzutea, edo kondaira, eta izatea daroen tokiak. Ezin danetara eldu.

Ara beste toki ikusgarri bat: Astigarribia.

Santo Domingo de la Calzada'tik gora, Ezkaray'ko bidea artu barik, beste baten sartu eta San Millan de la Cogulla'ra eltzen da. Errioxa'ko euskaldun zatia sasoi baten. San Millan de Suso eta San Millan de Yuso monastegi entzutetsuak dira. Euskalerriko sinismenaren arduretara ezagun ziran ango prailleak. Eta ango prailleak Astigarribia'ko eleizaren amarrenak artzen zituen. Amarrenak eta arraiñak.


Orra Mutriku, Astigarribia'ren bitartez, euskal fedearen lenengo urteetan asieretan, billatu.


Astigarribia'ko eleiza au, gaur zar-barritutako eleiza au, eta bere lurak, Bizkai'ko konde batek, don Lope'k, eskiñi eutsazan San Millan'go monastegi areri. 1081 urtean zan ori.

Istorian sakondu bear da Mutriku'ren lurretan Bizkai'ko konde batek aginpidea euki ebalu jakin eta konturatzeko.

Astigarribia'ren beste nortasun bat: Mutriku Iruña'ko gotzaiñaren menpean egonarren, Astigarribia'ko eleiza Calahorra'koaren menpeko zan.

Orra, erri txiki baten, parroki baten obispo batek agindu, eta bestean zer ikusirik ez.





ONDARRIBI

Ibiltari eta erromantiku, geldi-ezin eta ase-eziña izan zan Louis M. Julian Viaud, «Ramuntcho»ren egillea.

Nun lagaten dogun «Pierre Loti»? Izenordean, seudonimoan, alaxe izan zan-eta.

Oleron'en jaio, eta Endaia'n bere «Bakar-etchea»n gelditu arte, itxasoetan ibili zan, Armadako ofizial ordeko. Sasoirik one-nean, ogei urtedun, praiile sartu zan Trapa baten. Egon ezin, iraun ezin eta berrero itxasoan zabalera. Bere burua il naian be ibili ei zan. 1891 inguruan lortu eban Endaia'ra bialtzea, itxasertza zain-tzen iru lagunek erabilten eben «Javelot» txalupako buru.

Orra bera egunero Ondarrabi'ra begira. Bere esanak irakurri: «Etxeak geldi eta euren kolore dizditsuak Marruekos'etako inguru-en itzaltasun beroaren zerbait emoten dautse itxasertz oneri. Eta baretasun orrek, dan daneko itxiltasun orrek, aize berberaren bake orrek, argi eta kerizpearen gelditasun onek, gizaldien gizal-dietan zerbait geratu danaren gogartea sartu eragiten dauste, len-go gizon, abenda (arraza) eta sinisteei begiratzera beartuz».

Pierre Loti'ri beste mundura itaun bat, galdera bat: Orain laro-gei urte Kantauri itxasoia ez ete zan asarratzen, edo ta ez ete eban emen mendebalak joten, edo iparrak otzik ekarten, edo ta galerre-nak negarrrik eragiten?

Donostiar baten eritzia artu daigun orain. Inzagarai abade olerkariarena:

I aiz izar urdin ori
zoragarri,
Igel kolkoz Jainkoak au
eder jarri.
Ago urdin, txukun, ene
Ondarrabi,
gau ta egunez akustanean
maitagarri.

Arrantzaleak, askotan, itxasontzietan eta kalean be bai, Ondarrabi'tik Endaia'ra deitu eta entzuteko bear dan baiño zaratatsuago ibiltzen dira alkarrekin izketan. Itxasoaren premiña eta emaitza ei dira eurak beti zarataka alkarrekin agertu bearra.

Baiña Ondarrabi'tik Endaia'ra egunero lanera joaten diran ia sei-reun lagunek, lau brazako bidearen orde, Irun'dik zear joan bear izaten dabe eta zubi bat igaro. Amaika negar eragindako zubia!

Itaunduko al dautsagu norbaiteri beste aldetik zelan ikusten dan Ondarrabi? Aukeratu bat. Iparragirre bera: «Ara nun diran mendi maiteak ara nun diran zelaiak... Lur oberikan ez dago Europa guztian!».

Urten daigun amets bidetik. Goazen barrura.

Amar milla inguru bizi dira gaur emen, urte guztikoen artean. Udakoak aoa neurri.

Langilleen etxeak, urri. Eta lurra urre. Laster entzuten da toki askotako illeta au.

Alderdi txukun, kantoi dotore, egon leku maitagarriak. Baiña ur loien bideak, estu.

Arrantzalien kai eta egazkiñen portu. Arrantzaleak erritik urrun ontzia laga bear eta egazkiñentzat zelai estuegia aukerako.

Ariñegi anditzen dator udarako. Anditze orrek ba daukaz bere akats eta kalteak negurako. Zenbat telefono? Eskatu eta itxaron. Auzoan ba dauke ez estutu. Parkatu. Azken au ez neban autatu bear. Ondarrabi'ren indarra ikusten da. Telefonikak, paperetan agertu orduko, laster bete eban utsune ori, orain urte bi.

Kontrabandisten erri, famaz. Euskaldunok oituak gara gura-soen izenekin ezagutu eta deitzen semien semiei be. Kontrabandistak ix.il, betozko eta zuzmur keixati izaten ei dira. Ondarrabitarrak zabal, alai eta idegi ezagutzen dodaz. 1 939-1 945 urteak galdu ziran bizitzan.

Dana dala, emen dago Ondarrabi, sasoi baten lur eta erri ertsu eta gerra toki izan zala bere gaztelu eta ormakin eskutatu eziñez. Len gerrako plaza, gaur modako plaia, idatzi eban norbaitek.

Elez nagusiaren ormak be erria zaindu eta gordeteko egiña egon zan orma andiaren tarteko izan ziran. Gotiko garbia da parrokia. XV-XVI gizaldietakoa. Torrea oraintsuago egiña; XVIIH'koa nunbait.

itxas ertzera ba goaz, Iger muturra, gabetan itxastarrentzat
22 milletara argia zabaltzen.

Jaizkibel gora igo nai ba dogu, bide erdian Guadalupe. Otoi
leku, ixilleko kontuen entzule. Bitartean, sagar egurrean egiñiko
«saindua», Santiago beltza, bere ermita zarrean.

Goietan, izar bidean, 549 metrotan, Jaizkibel.

Beian, itxas neurrian, Bidasoa. Naparroa'ko Izpegi'n zazpireun
metrotan jaio eta emen itxasoan sartu, azken orduan Urdanibi eta
Santa Grazi'ren urak artzeko mesedea egin ondoren.

Ondarrabi, urte luzetan, gerra abi, kabi, izan zan.

Kopla zarretatik gogoratuko dogu. Ez dira gaurkoak.

«Juan de Lazkano Beltzarana,
Gipuzkoako kapitana,
frantzes osteak jakingo dau
ura Ondarrabian zana».

1476 urtera jo bear da.

Millak gizon bialdu zitun Luis Erregeak bere aurka. Ordukoak
diñoenez erriko ate eta ormak ez ei ziran ezagutu ziran aiñako lodi
eta gogor. Barruan, eutsi nairik, Joan Ganboa.

Inguratuta estu egoala, Lazkano'ko jauna mindu zan, gizonak
batu eta ondarrabitarren laguntzan urten. Bai frantzetarrei iges
eragitea lortu be.

Ordutik goiko koplak.

Laureun urtetik gora daukez beste oneik

«Mosiur Chanfarron jaunandia,
Irun kalean daza illa».

1 544 urtea zan.

Lentxuago frantzesak Irun sutan laga eben. Eta ondarrabita-
rrak, urteera baten, Irun'go kalean Purgeta kapitana eta bere gi-
zon batzuk erre. Ola jaunaren etxean zan ori.

Ondarrabi inguratuta egon zan bein geiagoz. Azkue bat alkate
zala, Chanfarron frantzes desafioka ebillan, ondarrabitarrak ba ete
egoan bere aurka ausartzen zanik onorearen truke.

Azkue'k erantzun. Ondarrabi eta Irun bitartean alkartu ziran
burrukan. Azkue'k irabazi ta burua mostu ta kendu besteari.

Noz nai ezagutzen ziran sasoi aretan prantzesak emen.
Batzutan barruan bestetan erria inguratzen. Emendik urten eben,
ain zuzen, Oiartzun'ekin jaubetzeko asmotan.

Ez daiguzan bastertu ondarrabitar emakumeak. Estualdi onei-
tan, gizonekin batu eta euren kideko ziran beti.

1 558 urtean Donibane itxas lapur eta korsarioz beteta egoa-
lako, bere aurka joan ziranean, emakumeak gerrirarte urez beteta
igaroten ei eben. Bidasoa ibaia, batzuk janariak eroaten, besteak
jantziak, izkilluak, armak eta euron su-garriak.

Geroago be, 1638'n, bardintsu gertatu zan. Tarazona'ko Fray

Frantzisko'k Zaragoza'ko bere nausiarri egiñiko karta baten iraKurri leikenez, Ondarrabi jausi egingo zan trintxerak egiten, mosketoiak beteten, gonak polbora autsez beteta erabilten zituen emakumea-kaitik izan ez ba litz.

Orra, ordutik, Ondarrabi zutik.

Geroztik «Titi-biliti» joten dabe emen orduko oroitzako jaie-tan.

«Titi-biliti» ondarrabitarren gerrako soiñua da. Estropadetan irabazitako banderak kale aunditik zear errira sartzean be, soiñu orren aideetan eroango dabez arraunlariak.

Ondarrabi'k ikutu eragin leikion zerbait gertatu, jazo, lortu edo irabazten ba da, soiñu ori entzun eragingo da bai Ondarrabi za-rean.

Bake zale naizela gerra kontuetan luzatu naiz. Itxas gauzen maitale naizela, itxastarrak laburtu bear.

«Gure erriak ibaia dau aitzat eta itxasoa amatzat. Len bale arrantzan joaten giñan; geroago Terranoba'ra, bakallautan; orain urrerago gelditu».

Arrantzale baten aotan ipinten dau ori Baroja'k.

Itzik egin barik ondarrabitarren istoria agertzen daben ukatu eziñiko ziñaldari, testigu bat: «Fonterrabia sigillum». Txalupa ba-ten lau gizon eta aurrean, arpoi bi sartuta, bale bat. Paris'ko Artxi-bo Nausian gordeten dabe maitekiro. 1297 urtekoa da.

Urte bete aurrerago komertzioan ebiltzan ondarrabitar itxasta-rran alegiñak ezagutzen dira paperetan.

1 361 urtean Ondarrabitar arrantzaleak Kofradi baten alkartu-ta ezagutzen dira.

1 533'en ondarrabitarren, urruña'koekin batuta, Galizi aldera joaten ziran bale arrantzan.

1550 urtean, eztabaidetan ezagutzen doguz, Donibane eta Ziburukoekin, orain be baleak bitarteko. Geroago bizkaitarrekin.

Tokirik ezaren pena daukat.


Opil eguna, Kutxa eguna eta abar, beste aukera baterako laga bear.

Ondarrabi arrantzale erri jator erakusten daben oitura ede-rrak.

Ondarrabi ala Ondarribi?

Nik Ondarrabi erabili dot. Alaxe irakurri izan dot paper zarretan. Gaur Ondarribi erabilten dabenak ba dagoz. Monografi bitan alaxe agertu ziran idazle bi, orain lau urte. Gaur, ofizialki, Hondarribia.

A edo i bitartean sartu, bardin samar geratzen da. Ondarrabi-tarrak euren jatortasunik ez dabe galtzen.



OÑATE

«Ura zan gizona, ura!

Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel...»

Orra oñatiar bat ondarrutar batek ikusita.

Oñatiarra Zabaleta baserriko etxe jauna.

Ondarrutarra, Txomin Agirre, «Garoa»ren egillea.

Mik, Oñate eder onetan sartzean, bientzako oroitza bigun bat euki nai. Deduzko da.

Eta «txantxikuak» zer?

Zumelzegi'ko torrean, kondia lo egoten zan bitartean, alboko potsuan zarataka iñarduen igelei, txantxikuei, makilla luziekin ixildu eraziten egon bear izaten ei eben serbitsari batzuk,

Ixilik ao, ixilik ao,

kondia siestea lo eiten dao

esaten jarduten eben artean.

Ortik ei yatorke txantxiku deiturea.

Ziur egon, baiña, Zabaleta'ko gizon mardularen oiñordekoak, nai kondepekoak, era batera nai bestera ikusita be asarretu ezarren, beste izen jatorrago bat maiteago dabela: oñatiarrak.

Oñate, istorian, Gebaratarrei lotuta, euren menpean ezagutzen da. Ez gipuzkoar, euren izakeratik esan zeinkean lez, eta ez arabar, Gebaratar kondiak euken izatez. Konde orrein menpeko erri berezi bat, Kondadu bat lez zaindu izan zan.

Izakera gaitza, kaltegarri askotan, nortasun oso bat artzeko indarririk barik. Urtean iru alkate eukitera be eldu zan. Urtekoa bat, erriak urtero izentatzen edo aukeratzen ebana; kondiak bere ordezkari lez ezarten ebana, bestia; eta irugarrena, Hermandadekoa. Irukoitz onek, sarri, mesede ordez, kalte ugari ekarri eutsazan; aibat naste, ikusi-ezin eta jauntxokeri.

Orain 128 urte egin zan Oñate gipuzkoar, eskubide betez. 1 845 urtean. Orretarako Tolosa'n izenpetu zan berarizko agiria.

" Gipuzkoar oso egiteko, Oñate'k iru baldintza ipiñi zitun, edo eskatutakoen artean," iru orreik onartu ziran. Bat, Ormaiztegi'tik San Prudencio'rako bidea, Oñati erdian artuta. Bestea Institutoarentzat urteroko laguntza. Ogei milla errial urteko. Eta irugarrena, laguntza zabalago bat Ikastetxe Nagusiarentzat, Unibersidadearentzat, iñoiz berrero zabaltzea lortuten ba zan.

Oñate'ko Unibersidadea 1 542 urtean sortu zan ete bere ospe eta entzute andiko egunak eukiarren, azken urteetan makaltzen etorran, batez be politikako goraberetan egoten ziran ikusi eziñakaitik. Legez 1901 urtean sarratu ba zan be, aurrez etorran il zorian.

Oñatiarren irakaskintzako garra txalogarri da. Kontuan euki bear dogu Gipuzkoar oso egin zanean, oraindik batez beste euneko zortzirik etzala joaten Gipuzkoan lenengo mallako eskoletara. 1850 urteko goraberatan ikusi leiken lez, urte orretan % 7,42 barririk ebiltzan eskoletan, eta Bergara'ko inguruetakoko errietan, amabost erri artean 26.366 bizilagun ba egozan be, guztira 27 eskola egozala eta eurentan ebiltzan umiak, 1.330 mutil eta 495 neska.

Beste oñatiar bat.

Ez andi ta ez txiki, ez eta ondo egiña be; erren, berbaldun uts, izketa erre-erre, zin (juramentu) egintzalle amorratu, ez ain itxura txarreko odol nastuko alaba baten aita...

Orra Paraguay'ko gotzain baten agerkeria.

Zein zan gizon ori?

Araoz'ko seme bat. Artetxe'k esaten eban: Lope Agirre, XVI gizaldiko gipuzkoarra, Loyola, Elkano, Urdaneta eta Legazpi'ren denporetakua, gixuren izan eikean antzirudi edo karikatura bildurgarri bat baiño ez da.

Beste norbaitek esan dau: Lope Agirre bere sasoiko gordinerriak zoratutako gizon bat izan zan. Benetan gogorra, beste asko izan ziran lez, baiña Ameriketen azkatasuna iñok baiño lenago ikusi ebana.

Geiago be irakurri lei beretzaz: Lope Agirre lertu egin zan, potto egin. Baiña ori gertatu ezik ez jakin gaur Bolibia deitzen dan erria Agirria deituko ez zan.

Eta Unamuno'k: Lope Agirre Ibiltariaren arima mindu eta urratuak, biorren ezlari edo domatzalle onek, merezi dau beretzaz ikaskizun on bat egitea. Kain, Judas eta Cesar Borgia'ren bestean. Peru'ko kondaira ikastean, zegaitik illuna egin gizon arrigarri onen egitaden inguruan, bera baiño iguingarriagoak izan ziranen oroitza gogoratzen danean?

Erri bakoitzak bere oiturak eukiten ditu.

Bein gertatu nitzan Oñate'n jaietan. Emengo umien lasterke-ta! Aringailari errimiak, korrikalari amorratuak. Ba dago emen esakera bat, buruandiei, kabezudoei irri egiteko:

Txorimalo
katamalo
tirikititi
tankirikiki...

Eta itsu-mustuan iges, kaletan zear. Nun ez dira ume biu-riak?

Eleizaz betea da Oñate.

XV gizaldikoa, parrokia.

XVI'koa, Bidaurreta'ko monastegia. 1510'n egiña. Sasoi ba-ten deia eta dotea bear bertan sartzeko.

Eta, txikiagoak lagata, Arantzazu. Parroki berberaren denpo-retakoa, lengo zarra. Eun urte baiño lenago erre egin zan. 1553 urtean.

Euskal poeta fin bateri laga daiogun izketan, Salvatore Mitxe-lena'ri:

«Errodrigotxo Balzategi'ko,
ermitatxo bat eidazu,
emitatxo bat eidazu eta
nerea izango zera zu.
Iru latatxo, zazpi tellatxo
asteko asko dituzu.
Elizaunditzen danean biar
geiagorik bearko du.
Nere euskal- seme on askok emen
izango dute ostatu,
izango dute ostatu eta
euskal Meza on opaldu...»

Ermitatxoa eleiz andi biurtu zan. Eta orretarako, eztabaidak, asarreak, burrukak.

Gure atzetikoak dana aztuko dabe. Txaloka goratu eleizaren edertasuna. Baiña artistak negar egin ondoren. Oteiza'ri itandu. Ori be kondaira da, istoria da, eta istoria ez da gaurkoa izaten.

1950'n asi ziran eleiz andia egiteko lanak. Gaur amaitutzat dago. Eta prailleak lengo jokabidean:

Ondarrua, Bermio,
Zumaia, Lekeitio,
Getari Donosti
kosta erriko danok
ezazute segi:
-Kosta erri ia danean
oitura bai ori,
urtero bialtzea
bi-iru mandatari,
Meza ta Benedita
eskeintzera Amari.

Labur.

Anditzen igarten da Oñate. Baserri batzuk ustü; kalea azi.

1960'n 8.432 lagun bizi ziran. Gaur ia amaika milla.

Langintzak: Txokolate lantegiak, burdingaietakuak, egurrekoak, narruak, tellak.


Galdu diran zeregiñak, ofizixuak: ultzeiñak. Eta liñelariak.

Lana: la dana errian. Berrogetamarren batek urteten dabe Arrasate'ra. Baso, mendi ta parkeak: Araoz, Arantzazu eta Aitzgorrin.

Jaiak: Mikel deunaren omenez. Baiña Oñate'ko jairik entzuetetsuena: Gorpuzti eguna. 1526 urterako ospatuten zan agiriak ba dagoz. Egun orretarako ba daukez oñatearrak Korpus-dantzak. Euskal erri batzutako oiturea da egun orretan San Miel aingerua ibildeunean erakustea. Orretarako gizon bat, mutil bat, jazten da. Ondarru'n be oraintsurarte ataraten zan. Oñate'n San Miel eta dantzariak be bai, kalerik kale tarteka dantzatuten. Asenjo Barbieri'n «Cancionero» baten Oñate'ko aingeru onen ezaugarri emoten da: «Juro a San Miguel de Oñate, el que calza bragas de oro».

Olako oiturak, jakiña, naste ugari sortuten eben denpora batzuetan. Lekeitio'ko San pedro jaietako «kilin-kalia» ren antzera. Sasoi bateko gotzaiñak kendu nai izan zituen. Baiña ez eben lortu erriaren gogoko zanik bastartzerik.

Erri baketsu izena dauka Oñate'k. Artzaiñen erri, antxiñetan. Gaur, Aloña'ren oñetan, kaleko industriari begira bizi da. Oraindik euskeraz, nai ta azken urtietan erbestetar batzuk sartu, erririk geientsuena, euneko larogeitik gora euskalduna dalako.



ORDIZIA

Umeak giñala Gasteiz'en Eleiz-Musikaren Batzar Nagusia egin zan.

Egun areitan erri txiki bat aitatzan zan eleiz kantuan erri eredu lez: Arama.

Berreun lagun inguruko erritxo ori, ukabillean sartuta eukan gergoriar kantu eztsuaren zale batek, Joakin Tolosa jaunak.

Arama, gipuzkoar errien artean txikienetarikuena, ez ezagun zan askorentzat. Nun dagon be ez ekien geienak. Eta bíllatzen asteko, beste erri baten auzo aitatasunetik argitasuna emoten zan, Ordizia'ko Billafranka'tik.

Gaur, ona natorrela, nire umetako gar bat bete nai izan dot: Arama ezagutu eta goratu. Isasondo eta Alzaga'ren erdian egiten dan erritxo au maitatu.

Gerogoako beste gertaera batek be gogoangarri egiten dau Arama. An il zan orain amabost urte gure mendi eta basoen berezitasunetzaz euskal libururik mamintsuena egin daben Inocencio Munita jauna. Bizkaia'n, Etxebarria eta Barinaga'ko ingurutan askok ezagutzen eben «piñu abadia», Eibar'ko Aginaga'n bizi izan zalako. Larogei urte eukazala agertu eban bere liburu jakintsua: «Gure mendi eta oianak». Eta gertuta laga beste bat: «Frutu arbolak». Askori emon eutsen berak piñadien egokitasunaren barri.

Ezin leikez ixillean aorde olako gizon eta olako erriak. Ordizia'ren atetan, Ordizia'ren mukan, bidezko zan Arama txapela kenduta agurtzea. Lengo irakatsi onik ez daigun aztu gure gaurko bidean.

Len Oria'ko Billafranka. 1970 ezkerotik, Ordizia'koa. Ordizia-rrak luzaro ibilli ziran izen ori beragandu nairik. Gipuzkoa'ko Al-dundiak, 1968'ko Epailla'ko batzarrean onartu eban eskabide ori, bidea erretzutuz. Euskeraz, len eta orain, ordiziar izena eroaten dabe bertokoak.

Gaur, bide barria egin ondoren, Beasain eta bertako igaroera kanpora atara ondoren, asko ez dira konturatzen erri au nun gelditzen dan. Bertara jo bear orretarako. Len erdi erditik igaroten zan, askotan nekez.

Bederatzi milla bizi lagun inguru gaur. Gizaldiaren asieran, 1421. Gorakada ederra. Bertako eta Beasain'go industriak erbeste-ko asko ekarri dabe. Orain Zumarraga eta Olaberria'ra urteten dabe bertako langille askok. Beasain, egin kontu, atean dago. Biak alkartu egiten dira igarri barik. Batzutan nastatu. Ordizia ta Beasain, eskua luzatu ta alkarrekin dantzan.

Orain zortzi urte egin ziran enkuesta batzutan, Billafranka'n. 1333 ume batzen ziran eskoletan amalau urtetik berako umetan. Au da, lenengo mallako irakaskintzan. Euren artean erdera utsa ekien umeak %66,2 batu ziran. Konturatzen? Gipuzkoa'ko beste amar errik geituten daben euneko ori. Euneko larogei ume erdal-dun utsetik gora emoten daben erriak Irun, Pasai eta Donosti dira, erreskada orretan. Irurogeitamaretik gora dabiltz, goitik berako erreskadan, Errenderi, Urretxu, Lazkao, Zumarraga, Andoain eta Ernani. Ondoren Segura %66,6 gaz eta gero Billafranka.

Orrez gain, erderaz ondo ta euskeraz makal ekienak, %15,1. Erdera ta euskera ondo %11,5. Erderaz txarto ta euskeraz ondo %5,9. Eta euskera bakarrik ekienak %1,3.

Ikusi daikenez, irutik bik ez ekien euskeraz berba egiten.

Merkatu egunez erri bete eta joan etorri andikoa da erri au. Ez bakarrik ingurutatik. Naparroa'tik be saltzalle ugari etorten dira. Erosleak edonundik. Bilbo aldekuak be ugari ezagutzen dira emen. Tratularientzat, askotan, ementxe markatzen da igali (frutu) barrien sal-neurria sasoiko janari eta gauzen balioa.

Luzaroko entzutea dauka merkatu onek. Ba dira berreun bat urte astero gaur lez merkatua egiten dala. Aurrerago be euki zitun antzeko urteak. Baiña obeago izango zalakoan aldakor egiña be ibili zan, eta orrela ebillela eta merkatuentzako lege barriak agertu ziranean, ezin lortuta ibili ziran asteroko biurtzea. 1512 urtetik datorkie ordiziarrei orretarako baimena, baiña baimen agiria galduta eukenez, milla traba. Uste barik, bat-batean eskribadu baten etxean billatu eben. 1787 urtean agiri ori eta orrela barriztatu oitura au.

Merkatu aberatsa egiten da eta jatorra.

Ogei kilometro lautura **ez da** eltzen, Billafranka, 19,5 **ain zu-**zen. Muga erriak: Beizama, **Arama**, Isasondo, Lazkao eta **Beasain**.

Lengo denporetan erri ertsia, ormaz inguratua izan **zan**. **Ipa-**rralde Garagartza eta Gaztelu izeneko ateak. Bai beste ate **zaindua** be. Kaletan, erririk geienetan lez, iru jator: Erdikoa, plaza **nausiak** erdibituta; Goien kalea eta Eleiz kalea. Istori luzea dauke **kale za-**rrok. Orain eun urte 91 etxe batzen ziran; 267 etxe-buru edo etxe-jaun.

Lazkao'ren inguruan erri asko batu ziran lez, Billafrankan be batu edo alkartu ziran ingurutako erriak. Orrela Ataun, **Arama**, **Al-**zaga, Isasondo, Legorreta, Beasain eta Zaldibi, bakoitza bere **jau-**be, baiña erri burutzat Billafranka artuta. Bakoitzak bere alkatea eukiarren, eskubiderik geienak emengoari emonda eukezan. Ardu-
ra batzutan, eskubide osoak.

Orrela iraun eben 1 399 urtetik 1616 bitartean. Txikikeri ugari artean, bekaizkeri asko eta, jakiña, asarreak eta giro larriak asko-
tan.

XIII gizalditik, Andra Mari eleiza parroki. Gero, XV'en azken aldetik edo XVI'tik, oraingoa.

Erria inguratzen eben orma zarreko zaindarien torrea be eleiz barriaren barruan gelditu zan. Ala ikusi da oraintsu egiñiko barriz-
tapenetan, Bartolome Cordero'k egiña da aldare nausia. Ba dira beste edergarri batzuk. Zabala'tarren kapillan, Kristo etziña, etza-
na. Ikusgarria. Nuñez Delgadorena ete? Ederrak Gergorio eta Santiago santuen kapilletako erretabluak. Azken au Goikoetxea'k egiña.

Buru barik bizi lei?

Gai oneri buruz Aita Nuremberg'ek egin zitun agerketa batzu-
tan, bateko ta besteko gertaerak aitatu eta gogoratuz, ba dakar bat erri oneri dagokiona. «Bizkaiko Billafranka'n be ume bat jaio zan buru barik», diño. Esan bearrik ez dago sasoi baten Euskale-
rri'ko edozein alderdiri Bizkaia deitzen eutsoela erbestean.

Orra Billafranka, gertaera mingarri eta errukitsu bateagaitik, ezagun egin.

Gizon baten izena gogoan dauke ordiziarrek. Irudi eder bat ba dauka 1904'n berari eskiña. Urdaneta.

Elkano ta Urdaneta alkartu bear dira itxas ibilleratan. Elkano buru. Urdaneta morroi. Munduari bira egin al izateak askoren gogo eta biotzei zotin eragin eutsen. Orrela, Elkano bigarren oste-
ra egitera gertu zanean, ainbat euskaldun gaztek nai izan eben bere lagun joan. Euren artean Andres Urdaneta, Juan eta Garazi'-

ren semea. Ordiziar jatorra aita, alkate be izana. 17 urte. Zeiñentzako ez da amesgarri orrelako ibillera aberats bat?

Ara Urdaneta «Santi Spiritus» en. Billafranka'n jaiak: «Santanak» Ordurako be egiten ei ziran eguneko dantzak. Bear ba da Manila'ko mantoiz dantza orreik egiteko oraingo oitura, ibillera onein ondoren sortuko zan. Bera Coruña'n egun orretan, itxas bidean. Iru urte igaro ziran lenengo osteran, Magallanes'ek asi eta Elkano'k amaitu ebanean. Amaika urte eta ia beste illabete bat Urdaneta'k. Ikaragarriak bideko goraberak. Gose, naste, iraultza, norberekeri, bertakoen eskabide, burruka, alkar pozoitze eta erioztzak. Ainbestean gizona naskatu egiten da eta edozetara urten.

Gaur ugarte baten, biar bestean, arriskurik arrisku dabil Urdaneta. Baiturak, sekuestroak eguneko janari dirala? Urdaneta'k be bere estuntzak daukaz. Eta danetara jo. Or konpon bitartekoak. Asmotxa da ta berea edozetara be aurrera eroan bear. Emakumeak agertzen yakoz bidean. 1 7 urte orduko ezagutu eban neskatillik Euskalerrian? Gaitz. Marina Molinches bat sartzen da bere loxintzetan. Alaba bat laster. Maitekerietarako andrea laga ta be, izenik bako alaba beragaz dabil. Ezbearretan gizon agertzen ba dakie iñoiz gizon andiak.


Mexiko'n makurtzen da bein. Belauniko. Eta diru barik eta il arte garbitasunean bizitzeko eskintza, botoa egiten dau, agustin-darren jantzia artuz. Barriro indiatarren artera doa. Oraingotan itxastar eta mixiolari. Barriro itxasontzi buru. Konfiantzarik andien berak eskintzen dau Pacifico'ko ibillaldi be'ro ta luzeak artez egiteko. Itxas orratza deitzen dautse.

Irurogei urte orduko'konbentu baten bare-aldian gizonki ilten daki 1 568'ko udan. Azkenean be erioztaren olatuak iruntsi. Billafranka'k itxas lurrunik bertara eldu ezarren, ba daki itxasoari begira bizitzen. Itxasoak sarri daki gizonak puztuta leorrera biurtzen.

Era guztietako langintzak igarten dira Ordizia'n. Gaitz izango da beraulako beste erri baten ainbeste lan-era ezbardin billatzea. Lanaren izkuntza entzuten da kale eta bazterretan. Lanak ekarri dau erbesteko.jentea. Bertakoekin kidetzeko astirik emon barik.

Origaitik asieran aitatu doguzan euneko arrigarri orreik. Kezka barik, bildurra sartzen dabe gure izkuntzaren etorkizunari begira.

Nire zeregiña ardura orren miñez amaitzen dot gaur. Baiña urten aurretik gogora ekarri nai dot orain 250 urte emengo bikario bat. Erri izkuntza maite eban; gure berbetak arduratzen eban, eta bere zeregiña ori zalako, Dotriña bat idatzi eban Villafranca Gipuzkoako onetan euskeraz itz egiten zan moduan. Jose Otxoa Arin zan bere izena. Ordiziar gizon kezkatien artean leku on bat eskiñi dagiogun.



ORIO

Orio, gaur 3.700 bizilagun eukitera eldu da.

Oraintsu agertu dan Gipuzkoa'ko «Estructura Económico Industrial»en irakurten danez, 230 lagunek urteten dabe egunero Zarautz, Usurbil eta Lasarte'ra, ogi billa, lanera. Eta Zarautz, Usurbil eta Aizarnazabal'dik 210 lagun etorten dira egunero Orío'ra.

Ogei langilleen aldea Orío'ren aurka. Uskeri bat. Agiri da langille ez bardiñak izango dirala; bardiñak izatekotan bakoitzaren errian gelditzera trukatu eta kittu.

Etxeak: Euneko berrogetamar, zaarrak.

Ura: Udaldian neurtua.

Orain berrogetamar urte agertu ziran lanetan, au irakurri eikéan:

50 sendi, famili arrantzale egozala, batez beste bost laguneko. Etxe jaube ziranak: 40 sendi. Arrantzialien kofradian, 1 67 bazkide, sozio.

Sasoi aretan eriotzarik geien lagaten eban gaixoa: sukar uste-la, tifusa.

Lurraren balioa: metroko lau peseta. Kontuz, ez itsutu; orain berrogetamar urte zan ori.

Orio'ren jaubetasuna, nortasuna, oriotar izatea, Oria ibaitik itxasaldera dago.

Ibaiaren beste aldea, Aya da, Trenaren geltokia: Aya. Askok irakurten dabe: Aya'ko Unibersidadea. Eta arrituta gelditzen dira. Lezo'koagaitik irakurten dan lez, edo ta Beizama'koagaitik.

Noiz egon ete zan Aya'n Unibersidade ori? Edo ta zer ete da Unibersidade bat, Aya'koa, esate baterako?

Itz baten: Demokrazi uts utsaren ezaugarri bat.

Amabostgarren gizaldirarte, errietako batzarrak, kontsejuak, kanpaia jo ondoren egiten ziran, eleiz aurrean edo toki bereziren baten. Eleiz aurretan egiten ziralako, «anteiglesias» itza datorkie erri askori, Bizkaia'n batez be.

Geroago erregidoren denporak etorri ziran; batzar estuagoak egiten ziralako, danak ez batzearren, erriko ordezkariak izentatu ondoren.

Erri guztiak ez eben onartu batzarrak estutze au; ordezkarien bitartez batzarrak egite au, eta lengo antzera, erri guztia batuta egitea naiago eben.

Zabaltasun onetan jarraitzen ebenei, kontseju zabal edo Unibersidadea izenarekin deituten eutsen Gipuzkoa'n. Orra zer dan eta nundik datorkion izena Aya'ko Unibersidadeari.

Jose Artetxe Gipuzkoa'ko errien goraltzaillerik aundienetakoia izan zan. Erri bakoitzari bere kutsua laster artzen ekiana.

Oriotar arrantzaleak «garratzak» dirala esaten eban iñoiz. Eztakit nire itz ori egokia dan bere «adustos» euskeratzeko. Baiña nik nire erriko esakeretatik erabilten dot niretzako iztegia, eta or ibilliko da. Parkatu, izkuntzalariak. Sekula ez dot zeaztasun doarik agertu. Izpar-kariak datorren lez idazten dakigu. Zeaztasuna errebistentzako geratzen da.

Garratzasun ori, itxasoratzako dauken barratik ei yatorkie. Arris-kuz betea da Orio'ko itxas sarrera, batez be zerbait aizetuta dabilletan.

Barra origaitik askotan, beste edozein kai edo portura jo bear izaten dabe oriotarrak euren itxasontziak lagatera edo arraiñak saltzera. Donosti, Pasai, Getari, Mutriku, Ondárroa... oriotarren bigarren portu dira. Azkenengoz izentauriko portu oneitatik kotxean edo trenez joaten dira euren errira.

Ala ta be, bizibidea estutzen daben gertaera orrek garratzu baditu be, itxasoetan argi ibiltzen dakie oriotarrak. Ez dira makal, ez tarteko: Itxasoetan, testigantzarik onena, arrantsuak dira. Eta oriotarrak sarri entzuten dira arrantsu ugariak saltzen.

Erri guztietan igarten da berezitasun zerbait. Danei billatu leikioe ezaugarrien bat. Euskaldunak jatunak gara. Biologiz eta oituraz.

Ondarroa'n lebatza jatea pentsatu ziñei; Getaria'n sardiñak edo txipiroiak; Aizarnazabal eta Berriz'en, txuletak; Bolibar'en ka-

Iluak; bat edo beste esan eta izentatzeagaitik. Euskalerrri guztia jantzen museo bat da. Eta Orio'n? Arrantzale erri dala, ez amesik sardiñekin edo lebatzarekin. Baiña arrainbarrillak ketan igarriko dozuz beti. Orio'n besigu erreari artu dautse puntua, gurpilla. Eta ortik dabiz, azpil zabaletan besigu erreak, eskatu ala, ataraten. Uda eta negu.

Erri txikia da Orio. Polita. Arrantzale erria. Aldapadun kaleak bere gerrian. Kantoi ikusgarriak. Beian, ibai egalean, erribera, laua. Ibaitek datorkio izena edo ibaiak beragandik artu.

Oria ibaia, Gipuzkoa'tik andiena, bertan sartzen da itxasora. San Adrian'en jai, 660 metro inguru goi-aldetik; eta 80 kilometro egin ondoren.

Donostiarra izan bear ete zan ibai au? Ez arritu itaun, galdera onekin.

Ba dira, antxiñetan, Ondarreta'tik zear Donosti'ko kontxan itxasoratzeko bidea eukala diñoenak. Baiña Teresategi menditxoak (60 metro ozkil inguru dituan menditxo onek) alhora eragiten dautso gaur, eta orrela Orio'ra dator.

Europa'ko ibairik loitunetarikoena dala, diño. Zegama ikutuagaz batera asten da fabriken zikiñak artzen eta Tolosa aldeko guztiak batura dator, akzido eta kimikaz pozoitu eta baltzituta. Elduko ei da urak garbitzeko garaia. Onetan siñisgabe egoteak egi geiago erakutsi lei. Poz andiago, nasaituago eskiñi, egi biurtzean. Premiña badago.

Orio'k ezin dau ezer artu eta lortu bertan amaitzen dan errekatik. Ori mingarri. Mingarri, bereziki, erreka onek, asko edo gitxi, erritar guztiei ikutu eragiten dautselako.

Bidean gabiltzanok, igarri barik igaroten dogu Aya'tik bertara, ibai gaiñean dagon zubia. Galantago da itxasaldetik joaten dana, Zarautz'tik Mendizorrotz aldera joateko jaso eta zabaldu dan autopistakoa.

Ba gabiltz kaleetan.

Artetxe'ren itzekin esan daigun barrero:

«Orio'ko plaza, nire atsegiñerako. Gipuzkoa'tik politena ez bada be, bai politenetakua... Bera da ta, plaza nausia, merkatua, atsedean toki eta batzar lekua eta orrez gaiñera, arrantzalien nasa, molla. Edozein jai eratu leike bertan, bai kaletarrak, bai itxastarren begiko diranak».

Artetxe erromantiku zan. Maitetsuegi, Euskalerrriaren gauzeant. Eta ori idatzi eban garaian, 1950 urtean, erri miñez bizi zan. Orrela bizitzen gara erritik urrun eta etxetik kanpora aurkitzean. Sasoi aretan, Artetxe'k, Donosti'n lan, al eban tokian jan, Zarautz'en lo eta egunero goizeko trenari adarra jo egiten ekian.

Orio'k, bale arrantzan, ba dauka bere istoria. Euskalerrri'ko uretan arrantzatu zan azkenengoa, bertakoak arrantzatu eben, orain 72 urte.

Ikusi, deia jo, gizonak gertu eta bost txalopak urten eben bere atzetik:

«Bost treñeru juan ziran
patroi banarekin,
jénde bizkor bikain
guztiz onarekin,
Manuel Olaizola
eta Loidi'rekin,
Uranga Atxaga ta
Materola'rekin».

Nekez lortu eben bera makurtzea. Baiña lortu. Bale au Orio'ko molla gañean euki eben egun batzutan.

Milla ta bosteun pesetatan saltzeko atara... ta eroslerik ez. Orra. Baiña zatika saldu zan. Eta azur, bizar, sain eta aragi, dana saldu. Balién bizarrak bereziko ziran emakumien korseak egiteko. Gastuak ordaindu ondoren, lau milla peseta geratu ei ziran oriotarrentzat.

Orio'k ba dauka odolean gar bat: estropadak. Beste edozein errik baiño geiago.

Ba díra erriak estropadara joaten diranetan irabazi dabenak. Baiña, gizaldiaren buruan, iru lau aldiz.

Oriotarrak sarri gertuten dira. Eta Bizkaia, Santander eta Galizia'n jokatu. Donosti'ko estropadetan, 1900'tik 1970 bitartean, emeretzi aldiz irabaziak dira bandera. Gertatu izan da baita, banderarik ez lortzea. Ori jokoa da, eta ez beti norberealdekoa.


Oriotarrak setatsu fama dauke, bai estropadetan eta bai joan. Bakoitzak daki nundik ibilli.

1951 urtean Asensio Txanka'k egiñiko bertsoetan garbi agertzen da ordurarteko oriotarren estropadetako kondaira:

«Nolanaikoa ez da izan aurten
oriotarren joera,
lenago ere urte askotan
ondo ibilliyak gera;
irabaziyak zenbat ditugun
orain guaz esatera:
ogei ta bost kopa eder ta
berrogei ta amabi bandera».

Eta ordutik ona, beste ogetabi urtetan, oriotarren arraunak bits nauku atara dabe, alkondara oriz ezagutzen dira treñeruetan.

Idazten labur zalea naiz, labur naikoa eta orra igarri barik, azkena. Ezin ukatu, ezin amaitu, oriotarrei eskiñi barik nire omena.



OYARTZUN

Muga aldeko mendietan dago Oiartzun.

Eleizalde deitzen dan auzoan egiten da erri pillotua, erri bu-
rua.

Emen bizi da erriko laurden bat. Ergoien eta Ugaldetxo zaba-
lak dira, banatuak euren etxeetan. Beste auzoak, Altzibar, Arregi
eta Iturriotz erdiz erdi.

Sasoi baten Oiartzun ziran Irun, Ondarrabi, Pasai Donibane,
Lezo eta Errenderi. Danok batuta Oiartzun 180 km² etara eltzen
zan. Gaur, bere lurak 56,3 km² tan gelditzen dira. Ala ta be andi,
ugari lurrez.

Oiartzun'ek, oin bat itxasondoan dauka. Pasai'k nortasuna
artzean, gero ta nortasun andiago, aztu eragin dau Oiartzun'en
muga. Baiña iñoiz pasaitarrak ibili ziran euren itxasontzietako
arrantsuak atarateko Oiartzun'en baimenaren zai.

Ezin dogu esan Oiartzun baserri erri danik. Pasai inguruko in-
dustri askok Oiartzun'en lurretan billatzen dabe eurentzako lurral-
dea. Donosti ingurukoak be bai.

Orrela gaur Oiartzun'en sagardaua billatu leike, baiña maris-
koak be bai; arriola eta marmol tokiak ezagutu leikez, bai eta plas-
tika eta kautxuak be; gurdi eta itzaien ondoan makinagintzako
tekniku eta peritoak. Au da, danetakuak. Gaurko bizimoduak
agintzen daben era guztietan, zeregin guztietan jokutzen dakie-
nak.

Asko zirikatu ezkerro, Oyartzuarra ete dan dudan ipinten ba da
be eruok egin zituna, alako baten esandako bértsoak gogoratzeko -
eran, fede onez eta intentzio txar barik artuta:

Esku batean Santo Kristo ta
beste eskuan pistola.
Edo ta guk geure aldetik geitu geinkeanez esanda,
Baserrietako abarkak soñean,
mundu zabaleko ametsak aidean.

Zazpi milla lagun bizi dira gaur Oyartzun'en. Euretatik bi mi-
llatik gora baserrietan. Laurendik gora baserriak. Sasoi baten ia
bosteun baserri-etxe ba egozan. Gaur larogei ustuta eta beste
ogetamar aldatuak.

Industriz aurreratzen. Erri maitasuna galtzen dabela indus-
triak? Benetan erritarrak danarentzat ez dago ezer ortarako. Gaur
eta len. Erri guztiak dauke erri maitaleen agerkai ugari. Etxean
erritar eta erbestean erritarrago. Azken musua erriagaz emoten
dala esaten da. Lengo denporetara begira nabil. Emen be billatu
leikez ziurtatuko nabena.

Urdiñola baserria, gaur etxe biurtua, or dago Ergoien'en. Ber-
tako Patxi bat, Mexiko'ra joan zan ango urrea eta pitxiak deika zi-
ranean.

Jaungoikoak daki zelan, ango meatzik onenen jaube egin zan.
Urretu. Bere alaba beste euskal odoleko merkatarí baten semea-
gaz ezkondu zan eta laster zabaldu zan 200.000 dukatetik gora
eukela dirutan.

n Patxi'k Oiartzun eukan gogoan. Inditarren izerdiagaz egiñiko
dirutzakin Euskalerriko lurraldeen pobretasuna aberastu nai?
Dana dala, erri maitasunik ez daiogun ukatu. Onela lurrak erosten
ikusten da, edo ta bere izenean orduko senide bat. Eta zorren or-
dainketarako diruak aurreratzen be ba daki. Nik ez dakit ze pekatu
egiten eben orduko euskaldunak. Ez ditut ezagutu nai frutuetatik,
baiña geienak, euren azken naietan eta mandetan, neska bear-
tsuekaz gogoratzen dira, legezko ezkontzetatik kanpora jaiotako
emakume errukarriekin kezkatuten dakie.

Urdinola onek be, bere diruetako zati batzuk ortarako laga zi-
tun, neska errukarri orrei laguntzeko. Lurralde eta etxetan Udino-
larena, Gabiria, Laranzadi, Elizgibel eta abar erosi zitun. Eta urtean
neskatil umezurtz biren ezkontzak gertateko dirutza be laga eban.

Emakumeen eskubidien arduretan gabiltz aurten. Eta zer ete
diñoer ortaz oiartzuarrak? Mutrikuarrena: auskalo!

Batzuk ezkondu ziran,
besteak ezkongai,
ni ere ementxe nago
txanda etorri zai;
ba ditut bost arreba,

geranak lau anai,
bederatzi senide,
galde zazue non-nai;
igual zait artzai,
apaiz edo itzai,
mutilzar ere bai,
baiña andren mende
ez det egon nai.

«Bekoetxia» bertsolariarenak dira esandako bertsuok. Manuel M.^o Olaziregi izen jatorrez. Esanak esan, emakumeak aurrera da' toz. Zorionez. «Bekoetxia» il zan. Eta bere baserri berbera, izen bereko etxea, gaur orma zar, jausi, agertzen da.

Oneri andren batek erantzun leikio erriko esakera bat gogoratu ta aintzat artuta: Oiartzun, dakartzun monedaz erantzun.

Gain gaiñean, toki guztietatik errez ikusten, eleiza. Ezin kendu begien aurretik.

Aya-erriko jentillak egiña, ez? Ala diño batzuk. Oiartzun, menditsu, ontako siniskeretan fedetsu agertzen da.

Ba dira mayak aberastu ebela diñoenak be. Oi maiak! Kaletan ipinten zituen neskatil lerdanak eleizarako dirua batzeko, urteko jai banaketan. Eta bein obispoaren ordezkari bateri okurridu yakon, lotsagabekeri, lizunkereri eta mundukeri a ezin laketu eikeala ta exkomulgatu bear zirala neska areik. Beste ezetarako iñoiz alegiñik egin ba eben, agindu ori kentzeko be kezkatu eta gogotsu ibili ziran oiartzuar erri ordezkariak. Euren neskatillak aldeztuten sutsu eta keixu. Alperrik. Egin eben eskari on bateri, erantzun gogorra-goz urten eutsen eleiz agintariak- or galdu ziran maiak. Geien be erriaren ezaupide ezetik.

Eta oiartzuarrak mututu egin ziran, nai eta jakin, alboko errian, Lesaka'n, urte batzuk lentxuago eta gero be bai abadeak eurak be dantzan egiten ebela bataio egunetan, edo ta ezkontzetan, meza barrietan eta antzerako gertaeretan.

Goazen eleizara. Ez da abade errenentzat egiña. Amabi mailla igaro bear aldarera igoteko. Ederra. Zati bateko eleiza. Galdu egiten da bat begira. Koru azpiko Kristo'ren irudia, Errukiaren agerpena, sagrarioa... ainbat gauz eder ikusi ta ikusteko. Artísta esku-tuenak, erritar langille trebe batzuenak? Zuaznabar, Lekuona eta lagunak ba dira tailugilleen artean. Batzuenak nai bestenak, ederraren semeak dira bertako lanak. Aldarea barrokarako bidean eta giroan egiña.

Lengora. Neskatillen entzute ona zaindu naian ibili ziran oiartzuarrak. Bai eta mutil koskorren eziketa ona billatu nairik be. Zer ete dauka, esate baterako bataioteko bolo-boloak? Oiartzun'en, erriko gizonak, 1832 urtean, bolo bolo ori kendu bear zan erabagia artu eben, erriko mutil koskorren onez. An batzen eben dirua

zigarrotarako edo ta kalterako beste zerbaitetarako izaten ei eben. Obe zala orko borondatez umien eziketarako eskiñi. Baiña... mutiltxoak, bizarraren leuna igarri orduko, zigarroaren keiaren irudi ta beroa ezagutu nai izaten ditue ta bolo-boloak jarraitu eben.

Ainbat **gauza** lagaten dodaz esateko ta ikusteko. Ez al dabe **merezi** Mairu-baratzak ikustaldi bat? Eta Aebeltetsoz, zer? Sit tibi **terra** levis, arriko **esan** naian artako jakintsuak irakurri daben lez? Amaika gauzatxu estaldu ditu bigun eta leun lurrak. Oroitarri onek gogoratu nairik **bere** itzalpean gordeko eban oiartzuar emakume a lez. Ortik Andre-arriaga.

Eta bertsolariak? Etxe aiña bertsolari izentaten ditue emen: Kaskazuri, Larralur, Lexoti, Eperra, Urtzalle, Krisostomo, Naparra, Prantzesa... Uztapide bera ez al zan emen marduldu?

Adarrak erakusten ekiezan bertsolari jatorrak danak.


Baiña ba al dago emen adarrei bildurrik? Martintxo'ri itandu. Eta Martintxo nor zan? Goya'ri itandu. Oiartzuarrak betiko eben zezen zaletasuna. Ortik, Goyak, amaren odoletik Beasain aldean errastuak eukazan Goya pintoreak, Martintxo oiartzuar toreatzallea **artu eben** bere kuadru batzuetarako iruditu ta eredu.

Gorde daidan nire boligrafoa. Emen ondo gorde ezik, bera jausi ezkerro, ogiagaz esaten dan lez, suari erakutsi bear dala esango leukidake norbaitek. Eta oraindik erri batzuk ikusi ta euretzaz idatzi nai neuke. Ortarako premiña daukat.

Labur: **erri** atsegiña Oiartzun.

Uztapide'ren bertsoak diñoenaz amaitu nai dot:

0, Oiartzungo erri maitea,
oso jatorra zerade,
on egiten bai zuk dakizula
zeñeri begiratu gabe.



PASAI

Pasai. bat eta iru.

Eta zegaitik ez geiago?

Oraintsu Galizia'n nitzan. Gure Baiona ondoko laiñoak lagata,
Galizia'ko Baiona'ra eldu. Itxasontzietako patroï askok be orrela-
koxe gaitasuna eta tituloa eukiten dabe: Baiona'tik Baiona'ra.

Itxasoa laiño dago

Baiona'ko barraraiño,

diño gure kantu ezagunak.

Galizia'ko Baiona'k be ba dauka itxas miñez betetako kantua:

«Recrinada sobre o mar

Baiona ez sono tranquilo...»

Edo, sakontxuago sartuta, Emilia Estevez'en biozkadak be
erromantiku agertzen dabe:

«Amada dos verdes bosques

e das ondas, que te beixan!»

Pasai'ra sartzean, laster konturatzen da bat galiziarrekin. Eta
ango gogoeta sortu.

Galizia'rako bidean ikaskizun eder bat artu neban.

Cacabelos, Leon'dik Lugo'rako bidean, erri txikitxo da. Ba
dago ostatu bat, Gato izenekoa. Etxekoak galiziera itz egiten dabe.
Eta oraindik Piedrafita'ko aldatza, Lugo'ko probintzirako sarrera,
urrun egiten da; berrogei kilometro inguru jo bear.

Zirikalari asi nitzan apari maian. Jakiña da leondarrak Astor-
gakoei maragatos deitzen dautsela, destañez.

Ostatuaren izenak emon eustan bidea ta bertokoen izkuntzak. Baiña, jakin: jaubea ez da leondarra, ez galiziarra be, Valladolid aldekoa baiño, gurasoen jatorriz. Ostatuaren izena bere abizenetik dator, bere apellidutik. Baiña galleguak edo ara doazenak ogi bidea emoten dautsela ta galiziar sentiduten da eta euren oitura eta gurariak darabiltz.

Ikasi: A, kilometroak aurretik, galiziar agertzen. Gu, kilometroak atzetik, gure izatearen eta izkuntzaren arduragabetasunez.

Argi, begiak. Ikusi.
Guazen Pasai'ra.

Pasai'ren nortasuna, erri legezko ezaupidea, ez da antxiñakoa. Berreun urte oraintsu igaro dira, 1770'n Pasai San Joan'ek bere jabetasuna lortu ebanetik. San Pedro'k geroago, 1805 urtean. Eta Pasai biak alkatu, 1898'n.

Bitartean...

Gaitz ezagutuko da erri bat Pasai'k aiña lan egin dabenik bere erri nortasuna lortuteko.

Lenengo eta gero be, donostiarrak Santxo Jakintsuak emoniko agiri bateri eutsita, Bidasoa'tik eta Qria bitartekoa Donosti zala-ta.

Ondarrabitarrak beste antzerako lege bateri ikutuz, Bidasoa'tik Oiartzun ibairañoko guztia euren zala.

Oiartzuarrak bere maldatan egoala ta berea zala. Oiartzun ballerako kaia zala, euren portua.

Errenderi'k bera zala Oiartzun errialdeko kontseju buru eta beretzat. Ez aaztu Oiartzun berak ez ebala Gipuzkoa'ko Batzarretan erri legez sartzea lortu 1494 urterarte. Ordurarte Errenderi zan nortasun osoko.

Eta Lezo be sartzen zan noiz-beinka pasaitarrak garrastuten.

Orrela batak ten eta besteak ostopo, batak beragaz baliatu nai eta besteak eragozpenez itto nairik, Pasai, edo Pasai biak, larri bizi ziran urte luze eta gizaldi zabaletan, batera jo ta bestera deika eskubideen arduratan.

Sasoi baten, gaur arrantzarako porturik andiena dan Pasai onek, ez eukan bertan arrain saltzeko eskubiderik be.

Mutriku, Getari eta Ondarrabia'k, erriko eskudoetan, bale (ballena) bat erabili izan dabe, arrantzale erri lez agertzen.

Pasai'k ez. Erramu bi, arraun bi bakarrik, itxas gaiñean. Pasaitarrak iñoiz balerik arrantzaten ba eben, Donosti'ra eroan eta an saltzera beartuta egozan, sal-erosketako irabazi eta onurak Donosti'rako gelditzeko.

Ez ori bakarrik. Terranova, Irlanda edo beste edonundik ekarri eikeen arraiña be Donosti'ra eroan bear izaten eben. Pasai'ra, bakar bakarrik bertako bizilagunak jateko bear ebena. Eta ori inda-

rrer, eta juramentuak eragin ondoren.

Salerosketan, komertzioan ebiltzan ontziak be eragozpena besterik ez euken Pasai'n ustuteko. Erdia beintzat Donosti'ra eroan bear edo Ondarrabi'ra.

Egia esateko, San Joap obeto konpontzen zan Ondarrabia'gaz. Ba eukan azkatasun apur bat. San Pedro, barriz, donostiarren menpe bete-betean.

Orain berreun urte Pasai bien artean, 147 etxe bizitza ezagutzen ziran; 220 famili eta...itxasoetako bizi bidearen garratzal, 1 51 alargun, euretatik 1 38 emakumezkoak.

Gaugoegi milla laguneko erri bizi, langille eta zaratsua da.

Ogei milla bizilagun eta lanerako geiago bear.

la lau milla lagun etorten dira egunero Donosti, Errenderi, Oiartzun eta ingurutatik.

Bertatik, ordez, 700 lagun dira Donosti'ra edo Errenderi'ra lanera joaten diranak.

Itxas errietako bizitza gordiña ezagutzen da emen. Portu andietako pultsoa. la egunero arpegi barriak, ezagutzen ez diran gizon eta mutillak, itxas zabaletan euren nortasuna galtzen eta aaztuten zartzen diran nun -naiko gizasemeak. Langilleen legiñoia ei da itxasoa. Emen, patroei ezik, ez ei yako iñori itandu bear nor dan, adorerik ba ete daukan baiño.

Edozein itxas errietan, batez be ibaia edo erreka dauketan, eza gutu izan dira «pasajeruak». Bilbo'n, Erandio'n, Mundaka'n, Ondarroa'n...

Alde batetik besterako erritarrak erabilteko batel zapal zabalak erabilten zituen. Gero etorri ziran zubiak, bideak, mollak, motorrak.

Pasai'n emakumeak egiten eben lan ori. Pasai batetik bestera, donostiarrek esaten ekien lez «gure» Pasai'tik bestera; edo Ondarrabitarrren «gure» Pasai'tik Donosti'ra; edo pasaitarren sentikera jatorrez, mutur batetik bestera erritarrak erabilten, andrazkoak ibiltzen ziran.

Sarri artu izan dabez Euskalerrria'n emakumeak portuko ardurak. Eta ez dan danak garbiak.

Gaur kaiak eta erreka ondoak garbitzeko «dragak» dagoz. Baiña gure ume-aroan, gabarrakin egiten zan lan ori. Ibaiaren erdian gabarra laga, ol zabalekin zubi bat bertara egin, eta andrazkoak, buru gaiñetan, kopaletetan eroaten eben ibai egaletik gabarrara, basa dariola, bertako zikinkerri guztia.

Ori orduko gizabidearen agerpide negargarri bat izan eikean.

Pasaitarrena jatorragoa zan. Pasatzalle «pasajera» dotoreak ziran eta erramulari trebeak. Ba dira Ibo Alfaro'ren marrazkiak gai ontaz, «Vivir para amar» nobelan. Bertatik atara eban Breton de los Herreros'ek erdal antzerki eder bat. Victor Hugo'k idatzita laga

eban lez; larrosaz koroetutako erabiltzalleak» ziran emakume giartsu oneik.

Gaur galziarrak, sasoi baten gaskoinak.

XIII gizaldiaren lenengotan, gaskoiñez ulertzen ei ziran pasaitarrak. Eta oraindik eun urte dirala be gaskoinen izkuntza ezagutzen ei zan, batez be San Juan'en. Ba dira bertan gaskoindarren abizen jatarrak.

Eun urteren barruan dabil Pasai'ko portuaren biztualdia.

57 urtetan «Junta de Obras» baten izenean erabilten zan bertako ardura guztia. Asmoak, lanak, sarrerak, urterak, dana.

1 927'en Estadua jaubetu zan.

Etengabe ezagutzen dira emen lanak. Baiña toki estuegi dauka. Danetara jota be, teknikoen ustez, 1.230 metro luzeko mollak egin leiz arrantza premiñetarako eta 3.889 komertziorako. Ori Lezori be ia 500 metrotan ikututa.

Gaur Pasai'ko portua urtean 150.000 tn. erabilteko gei da arrantza arazotan eta lau milloek tn. komertzioan. Ogei milla toneladako ontziak sartu al izateko egokitasuna dauka.

Pasai, erri, mendi eta soro eta itxas urak bat eginda, 10.763.000 metro lautura eltzen da. Itxas muturretik asi eta urak artzen dabena, au da, ur bide edo kanala eta kaia, milloi metrotan sartzen da.

Urgaiñean erramu bi.


Bere eskudoan ori ipinten daben erriari, zegaitik abestu ez bere erramulrietan?

San Juan eta San Pedro or ibiltzen dira estropadetan, ia urtero.

San Juan'ek 1956'en irabazi eban bandera. San Pedro'k ba dauka marka eder bat Donosti'n: 1 927-1 932 bitartean, urtero lenen, txapeldun. Sei urtetan.

«Txirrita» zanaren bertsuekin amaituko dogu, Pasai'ri omen egiñaz: 1931 urtekoakdira bertso oneik:

Agur Manuel Arrillaga ta
konpañi maitagarriya,
zu zera urterik faltatu gabe
bost bandera ekarriya;
orantxe Kosta Kantabriyari
artu diozu neurriya,
biba alkatia Andonaegi ta
gora San Pedroko erriya.



SEGURA

Ba dago erderazko esakera bat: Flandes'etan pika bat ipini. Astamakilla bat sartu, esango genduke guk. Eta ain zuzen be ba dira idazle batzuk diñoenak Flandes'etako gerraetan erabili ziran astamakillak, pikak, Zegama eta Segura'ko basoetako leizarren artean billatu, aukeratu, ebagi eta gertatuak izan zirala.

Nik gaur, ain zuzen be, Segura'n sartu nai neuke nire astamakillatxo. Sartu baiño erabili obe, zek urteten daben ikusiz.

Ursuaran'go Santa Ingartzeri txapela kendu dautsat ortarako. Santa ori dauke, Segura'n, lurraren ontasunen jaube lez. Origaitik, Jorrailla'ko 1 6'an egiten dan erromeriaren aurretik, egun orretako bedeinkatzea artu barik, ez eben emengo baserritarrak indibabarik ez artorik erein nai izaten. Eta ori egin ez da be, gure denporetan be, baserritar gitxi geldituko dira egun orretan bedeinkatutako ura artu barik, gero ur orrekin baso eta soloak bedeinkatze-ko.

Mutiloa'rako bidea artu eta bidetik laster, zelai baten dagp ermita au.

Ba dirudi bere kanpai torrea, bere kanpai tokia, eleiza edo konbentu andiren baterako egiña dala. Arku biko arrizko kanpai toki ori urrundik ikusten da. Alkarren parez daukazan arku andi biak utsik daukaz, eta erdiko tentekoaren gaiñean kanpai txiki bat dauka. Eleiza, baserri lautu baten antzekoa eta torrea ez dira ondo alkartzen neurrietan. Baiña ten egiten dau torreak. Oargarri da. Barruan, aldare bakarra.

Aurrean basetxe zaar bat: Sakristauetxea. Ala deitzen dautse, nai eta beste askok, eta paperetan, Santa Engartzi lez agertu.

Segura'ko parroki izan zan lau urtetan ermitatxo au, su batek erria erre eta kaleko parrokia uts geratu zanean, 1645-1649 bitartean.

Beste ermita bat be izan zan parroki: San Andres. Zegama eta Zerain'go bidean. Oraintsu barrizatua da ermita au. Egurrean ataratako Kristo'ren irudi baliotsu bat erdian.

Gure errietako Kale andiak beti gorde izan dabe nortasun berezi bat. Zati barriak etorrira be, errialde eta inguru barriak geituraren errien lengo kutsua, nortasuna, jatorrasuna, bereiztdsuna eta giroa Kale andi oneitan agertu eta ezagutzen da.

Zorionak emon bear Segura'ri bere kaleak ain jator zaintzen alegindu izan dalako. Kaleen izatea eta erriaren sentzuna ain txairo gorde ditulako.

Gipuzkoa'n geratzen diran inguru eder banaketatik bat au dala esan dabenak ba dira. Pentsakera ori ziurtatzera makurtzen da bat, erria ikusi-ala.

Jakiña da Segura erri ertsia izan zala. Emen dagoz bere bost ate nausiak, bere sarrerak ori erakusten. Eta bere ormak, orma lodiak, napar anaien sarrera zaratatsuak galerazoteko. Lenako denporetan Napparroaren aldetik eukiten eben kezka eta ango algarak sortzen eben emengoen bildurra. Euskaldunok be jakin gendun anai arteko gerraie su emoten. Jauntxoan arduretan eta naikerietan naastuten ziran erriak. Ortik ormak, eta eurak be urez inguraztea, komeni zanetan sarrerako zubia zabaldua edo igota lagateko. Napparro'ri begira egin zan ate onetan lez.

Menditxo baten lepoan egiten da erri au. Inguruan, oraindak ur asko barik, Oria ibaia.

Begira nabil. Jauregi ederrak, arrizko etxe zabalak: Argauzte, Lardizabal, Alustiza, Zurbano... Gaixotegia bere ederra. Baita monjaen etxea. Abizen askoren jatorriko etxeak dagoz emen.

Eleiza bera eder eta zabala, bere torre lautua gain gaiñez ikusten dala. Barrua, iru zati bardintsutan banatua da. Irudi ederrak. Bidezko da imagiña ederrak egotea. Kontuan euki emengo Aste Santuko ibillerak ingurutatik ikusienak dirala. Aldare nausia, andi, ikusgarri, barroko erakoa. Bear ba da orniduegi.

Ez dautsagu akatsik billatu nai erriari. Igarten da maitasunez zaindu naia, eta ori, gaurko arduragetasunetan, meritu andi da.

Milla eta seireun lagun inguru. Industirik ez. Kanpora urten bear lanera.

Bestetan erri maitale dirala, orretantxe ez dabe segurarrak aukerarik sortu.

Erri-miñez zelan jokutzen daben jakiteko, «Uztapide» bertso-lariak esana gogoan daukat: Pelota joko bateri buruzkoa da. «Errikoak irabazten ba dijoaz, asiko dira mutil koskorak bulla ta txaloka ta ez dira ixilduko. Galtzen ba dijoaz berriz, izugarritzko kalma

izango da partidu artan». Erri miña. Ezin ukatu.

Ai bertan bizi bear ba gendu
beti uda eta negu...

urten eutsan beste bein bertsolari berberari. Nai eta esakera zarak esan: Segura, asko il eta gutxi zerura.

Segura'k, auzo erriekaz, bere gora-berak euki zitun. Urte askotan, 1384'tik 1615 bitartean, beragaz batuta bizi ziran Astigarreta, Zegama, Zerain, Gabiri, Gudugarreta, Idiazabal, Legazpi, Mutiloa eta Ormaiztegi. Beste batzutan Ezkioga, Urrutxu eta Zumarraga be bai. Erri bakoitzak bere duintasuna galdu barik.

Ba egoan errazoi bat orretarako: Naparroarako bidea. Oraindik Gipuzkoa'tik urtera bakarra. Gero egin ziran Gatzagakua eta Tolosa'tik, Lizartza'tik zear doana. Oneik egin artean San Adrian'go urterak bizi andia emoten eutsan Segura'ri. Gero, besteak egitean, bizimodua auldu eta beste erriak be banatzeko aizeak jo.

Sasoi aretan, 24 eskribadu be egon ziran Segura'ko lurralde onetan. Erdiak alperrik. Ala erabagi eben 1566'ko urtean Zumai'a'n egin ziran Gipuzkoa'ko batzarrak.

Suak be sarri eten eben erri onen bizitza. Baten, 1442 urtean, eleiza bakarrik gelditu zan erre barik. 1645 urtean 37 etxe erre. Ala ta be barriro barriztu eta inguruentzat entzutea emon. Ortarako lagun ona, astelenetako merkatua. Gaur be illean birritan egiten da, eta urtean beste lau andi.

Bertsolari itsuen artean, biziari bere guna ondo ataraten jakin ebana izan zan Joakin Luzuriaga, «Segura'ko itxua», nai eta bizimoduak estu artu eta baltzak «ikusi» eragin berari. Bere sasoiaren euskaldunakez eukan soldadutzara joan bearrik, baiña Cuba'ra joan zan, bear ba da bizi-premiñak eraginda. Berak kantatuak dira:

Amabost urterekin
neguan zapatari,
gero soldadutzara
juan nitzan andi.

Geroago irakurriko dautsagu:

Soldadu egin ditudaz
amaika urte t'erdi,
aizkenian Habana'n
itxutu nitzan ni.

Errira etorri ta ezkontzeko aukera. Ez fruturik barik. Sei urtean, lau ume alkarren gaiñean. Eta alargundu. Berak diño:

Lau kriaturekin
nenguan alargun,
neri onen ongilliak

eiten ziran lagun,
baiña ume gaixuak
negar eta lantun,
aita itxua eta
ama kanposantun.

Gizon bat eten, ezezpenean jota lagateko giroa, ez? Ala zan edo ez, jarrai bere bertsoak irakurten:

Neronek pena eta
tristuren erdian,
beste alarguntxo bat
senti nuen errian;
berakin ezkondu naiz
bigarren aldian,
biarra ere ba zegon
nire familian.

Ogeta amasei egun lengo emaztea il zala ta orra «itsua» beste emazte bat billatuta. Or Luzuriaga barriri biziari irrika. Naparra dau emazte barria. Kontxo! Sagardauaren etsaia, arerioa, biak alkarri umore fiñez egindako beste bertsoetan igarri leikenez. Luzuriaga berak egiñak ete dira umorezko bertso orreik edo ta beste-ren batek egiten ete eutsazan bizimoduan laguntzeko?

Dana dala, orain eun urte, Segura'ko kaletan bertso kantari igarten dogu. Zer gertatu leikean igarten ez da gaitz. Barriri berari lagako dautsagu bere bizitza agertzen.

Ni naiz Joakin eta
zu berriz Manu,
zurekin ezkondua
ez dot bada damu;
nik gitarra jota
zuk papelak saldu,
oraindik perra asko
bear degu artu.

Erri txikien ikusteak olako oroitzak dakarrez. Gogoratu ezik laster galduko dira. Ariñegi goaz bizi aldakuntzan. Jo, apurtu eta astu nai dogu lengo guztia. Eta lengoak, era askotan, oraindik eder asko erakusten dausku. Segura'ko kaleei itaundu, galdetu.



SORALUZE

Soraluze, bai. Gaur Plazentzi izenagaz ezagunago.

Txofer eta ibiltari gitxi egongo dira Malzaga'tik Bergara aldera doazala, emendik igarotean, erri illun, estu eta apurtu baten itxura artu eta asarre eta keixaz urteten ez dabenak.

Nekez igaroten da bide ori eta egalak igortziteko bildurrez.

Urte batzuk dirala zementoz egin eutsen bide oneri bere kalearen beia. Alperrik.

Gaur, bear ba da, egiteko asmotan diran autopista barriaren ondorenak ikusi arte, lengo au bastertuta, lagata dagola dirudi, bide nausietako jaunen asmoetan. Jaungoikoaren grazirik ez, esaten dan lez? Ba dauke, ba, emengoak gizon izatean grazi eta gatza eta gizon jator eta yazekoak diranik ezin ukatu.

Goazen barrura. Bideak ez dau erakusten ezer. Igaro daigun Deba erreka edo ibai ganeko zubia. Ba ete dago beste iñun zubian kotxeak lagateko baimenik, emengo antzera?

Aurrera. Emen dago Plaentxi'ko biotza. Emen egiten da erriko bizi-tza.

Nun ete dago emen «gaztokia»? Nun plaentxiarrei gizon alai eta akulari izaten sortzen dautsan leku eta giro berezia?

Kendu txapela. Aizea bera be umorea ei da emen.

«Trapu» izena ipini eutsen kalean, nai eta eleizan Erramun'e-gaz bataiatu.

«Gila» nean, betiko antzera, batek ziri eta besteak tirri, berotu

ziran lagunak. Iñazio tabernariak baketu nai, baiña ezin. Gero ta zarata geiago, gangartsuago, itsuago.

Iñaxio'k, pazientzirik galduko ez ba eban, bertan bera laga eutsen. Eta eurak gero ta biziago jo. Alkarri zirti zartaka ederrak emoteko aiña.

Astiñaldi ederra artuta etxera joan zan «Trapu» matrailla an-ditu eta baltzituta. Orrela ikusi eta andreak errukiz: Zer dozu, Erro-man? Koitadua! Zu ez zagoz ondo!

-Agiñeko miña. Izarrak ikusten nago miñez.

-Ara ba! Ori orrela ezin lei laga. Eta ain zuzen be, ez daukat etxean ezer. Botikarako be ordu ederra ez da ba ointxe. Ba dakizu zer egin? Joan zaitex salto baten «Gila» nera eta artu egizu, antxe, koñak kopa on bat, ia berotuta kentzen yatzun.

Goazen goiak ikustera.

Aldatz txiki bat eta eleiza. Noizkoa ete da egur lodi, luze eta dotoredunekin egiñiko eleiz nagusiko atadi edo portiku ikusgarri au?

Laster jakin lei zenbat urte daukazan. Bertan irakurten da egin zaneke urtea: 1 666. Beraz 309 urte aurten.

Gaitz billatu leike beste atadi bat bere tentekoetan ainbeste esku-biar dotore eta ondo egindunik.

Egurrari berari ataratako biurrikeri eta tailletatik gain, egurrean bertan iruditutako lore eta izar, edergaillu eta apaindurak ugari dira bertan. Benetan be ikusgarri eta arrigarri egiten da.

Dotoretasunez, Euskalerra'ko onena dala diñoe. Ezpai barik. Eta gure errialdean ba dira eleiz atadi edo portiku ondo egin eta ikusgarriak.

Liburu au agertzean, barriztapen eta sendotze lanak egiten diardue bertan.

Bost milla lagun ozta ozta ibilliko da erriko jentetza. Baiña ka-letan ba dirudi amar bizi dirala. Kale estuak, batez be lanetik ur-tendako orduetan, betien bete ikusten dira.

Zazpi laguneko telefono bat. la zazpireun dagoz gaur.

Amar milloee eta berreun milla pesetako presupuestoa erriak, azken urtean.

Irakaskintza, zortzigarren millararteko talde bi. Euskal ikastolak be bai.

Ortik gora, Eibar edo Bergara'ko bideak zabal.

Lana, batera edo bestera, burdingintzako.

Bertatik urteten dabe batzuk Elgoibar, Eibar eta Bergara'ko lantegietara. Eibar eta Malzaga aldetik bertara etorten dira beste batzuk.

Ezoz. Edo Etzoz. Izen ori dauka emengo Ama Birgiña, erriko zaindaritzakoaren ermitak.

Zarra. Azpaldietakoa. 1 500 urteko kontu liburu bat ba ei dago bertan, eta galdu edo erre zanaren jarraikoa dala ei diño.

Emen be, beste ermita eta eleiz askotako antzera, ba dago itzez etorri dan kontu zarra. Arrieta'n egiteko ei zan ermita au; egunez eigten zana gabean aldatu eta gaiñera, lan ori egin eikeana nor ete zan zaintzen ibili zan Irigoien'go etxe jaunari begia galdu eragin eta bere ondorengoak be begietatik makal laga.

Ezin eskutatu izkillurik, armarik Soraluze'n, bere izena geitu dautsenetik gitxiago.

Garibai'ren liburuetan irakurri lei: Arrasate eta Bergara'n era guztietako izkilluak, armak, egiten zirala, arkabuz, mosketoi eta beste suzko asko, baiña iñun baiño geiago, emen.

1803 urtean, Erriko Etxe edo Ayuntamientokoak bertakoei deitu eutsenean arma fabrika barriztatzeko eta aukera egokian ipinteko, esaten zan, irureun urte baiño geiago eukazala lengo lan-tegi edo fabrikak.

Ezin zeaztu edo mugatu ete lei erri onetan lantegi orrein asiera?

Bateri itandu dausat: Plaentxi Plaentxi lez ezagutzen danetik, berak erantzun. Eta...atxurrean or goiko milla solotan jardutea baiño ez al da ba lan egokitsuago?

Beste batek: Gerrak ezagutu ziranetik suzko armak nai beste-lakoak izan.

Oliver'en «Nuestras fábricas» liburuan, gogoratu ezin leiken denporetatik dagozala, irakurten da. Eta Arantegi'k beste liburu baten diñoanez, XV garren gizaldiko gerraetan Euskalerritik zabal-dutako lonbarda eta burdiñazko tiroak erabilten ziran. Lepanto eta San Kintin'en be emengo armak ezagutzen ei ziran.

Gauza ziur bat billatu leike. Alkartasunean sortutako lenengo fabrika, era onetakoa beintzat, erri onetan sortu zala 1 573 urtean. Unamuno batek 1 526 urte inguruan emen arkabuzak moldatzeko burdin-tegi bat eukala be jakiña da. Eta atzerago jota, ba dira diñoenak 1343 urteko Algeciras'ko gudaketan, emengo soraluzetarrak eurak egiñiko armakin ibili zirala.

Orreik orrela dirala, kanta ezagun baten baiño lenago abestuko eben emen «armetan jarria daukagu erria».

Napoleon'en denporetan euki edo ezagutu ei zan beraldien bat. Sasoi aretan plaentxiar askok iges egin eben, batzuk frantzetarrentzat lanik egin nai-ezta eta besteak bildurrez. Ala ta be emengoak Napoleon'eri ederkatura egin nairik ezagutu ziran eta

Erre'ge Fabrika eskiñi eutsen.

Jakiña da baita be lenengo egin ziran 50 sable, erriaren kontura egin eta eskiñi eutsezala.

Olako eskintzak zegaitik eta zelan egiten diran, sasoiari sasoi-koak kontuan eukita erabagi bear.

Eriotzan be umorea.

Euki izan doguz Euskalerrian burutik biatzetara bildurra sartu nai izan dauskuen abadeak.

Olako bat sartu zan bein etxeko jauna gaixo egoan baserri baten. Dana erreta, kixkaltzen laga ei eban arek, dana inpernuko sustan.

Dardaraka geratu zan etxekojauna.

Abadeak urten ebanean, aita dardaraka ikustean, alabak:

-Aita, esku otzak daukazuz?

-Ez bildurtu alaba, orren esanak egiak ba dira, laster berotuko dira-ta.

Betik gora begira, dindilizkako etxeak dirudie azkenengo egiñak. Ba dua erria zabaltzen, mendien pendizean, sasoi baten etxeak egiteko ango lurragaz dirurik artzerik pentsatuko ez zan tokietan.

Orain 140 urte, 109 etxe egozan erri barruan eta beste 94 baserri ziranak.

Gaur etxeak ugaritu egin dira kalean. Baiña baserriak bera dotoz. Txurruka, Etzoz, Irure eta San Andres'en 80 baserri kontaten dira eta eurretatik 17 laster galtzeko eran.

Lengo pentsakera eta jokeretan jarraitzen ete dau erriak?

Orain 130 urte, batek emendik urten ebanian, esan ei eban: Emen, plaentxiar jatorra izateko, eliztarra eta edatzallia izan bear da. Elizako klientea eta ardangeletako bezerua.

Gaur? Lengo eleizak jarraitzen dau, ez anditu ta ez txikittu barrik. Lengo eleiz atadia, zeenak be jan barik. Erria lengo mendien erdian luzatzen dua, emen zabaltzen duanik ezin esan leikelako. Irukurutzeta eta Salbatoren erdian, errekearen alde bietara luzatzen. Eta kaleetan, toki bat uztu orduko, ardangela barrien bat zabalduko ete dan guraria igarten da. Bardin da kalearen izena San Ana izan edo Etxaburueta, Errekalde edo Gabolas.

Eta eleiztarra eta edatzallia izan edo ez, umorea, umorea, umorea. Plaentxiarren nortasuna.



TOLOSA

Bizkaiko negua garizuma da. Eta Gipuzkoa'n?

Tolosa'ra gatoz. Garizumaren aurre egunetan. Emen udabarriko jaiak dira. Orrela deitzen asi ziran, diplomaziz, aratusteak debekatu edo galerazoten ziran urtetan.

Urtien urtez datozen jaiak, tolosar jai bereziak, ez euken zetan bertan bera galdu. Zetarako indulgentziak? Edo ta zetarako uribururu izaniko erri baten eskubide eta indarra?

Ba gatoz Tolosa'ra. Aratuste, zanpantzar, karnabal? Izenak ez dauka ze ikusi andirik. Orain, Tolosa'n, Iñauteriak deitzen dautse.

Umorea eta poza billatu nai doguz Tolosa'n. Aratusteak ori dira. Norbera poztu eta besteak alaitu.

«Aratuste eguna dala ta
kalera gaur urteten dogu,
jentia pozez betetzearren
alegiña egingo dogu,

esaten eben Azkue'ren aitaren bertsuak.

Geiago oraindik. Arrantzale askori gustatu leikioezanekin jarraitzen dabe bertsuok. Itxas errietako bizitza ondo ezagutzen daben batek egiñak dira-ta:

Negu txarrari kasu ein barik
sabela bete gaur egizu,
antxoia ederra agertutzian
zorrak gustiak pagakozuz.

Tolosarren iñauteriak umoretsu eta alai dira. Beti bardin, baiña beti barri, esaten dabe bertakuak.

Tolosarren umore eta jatortasunak bertara etorri diran erbes-tetarrak be kutsututa daukaz. Ara «Ardo on zaleak», oraintsu sor-tutako elkarteak. Noe, Maju eta Bako'ren maitale sutsuak. Ez bal-dar eta moskor, onetik eta tajuz baiño. Bejar'ko eunez egiñiko kapa dotoretan dirua gastatu dabe, ezaugarritzat. Eta jakiña, tolo-sar txapela. Ardaua al dan tokikoa, baiña beti ona.

Emazteak alargun nekez gelditu eraziteko biderik ziurrena ei da ardaun onaren maitasuna.

Batzartu orduko ia bi milla botilla ardaun ez bardin batuta ei eu-kezan. Umorea biztuteko premiñazko oiñarria.

Goazen barrero iñauterietara.

Ezin burutik kendu umien kantu ariñik:

Ostegun gizen,
ostiral melar,
larunbat erdipurdi,
igande iñauteri,
astelen iñauteri,
astearte iñauteri,
asteazken austerra
ta ostegunez, eskolara berriz ere.

Ara jaien egutegia. Egun bakoitzari izen berezia ipinten dau-senak be ba dagoz. Zaldunita, igandeari; astelenita, asteartita...

Goiztarrak dira tolosarrak. Jaietia asiera goizetik emoten erri-meak. Martitzen edo astearte goizeko soifñuak seirak puntuan asi ezik, bere izatearen ezitia galduko leuke jaiak. Orrela goizeko seire-tatik ia barrero eguna argitu arte kalean ibiltzen dakie.

Ikusteko emen jantzi, talde, burdi, tanborrada, soka-mutur, konfeti eta abar. Eta alkarteko dantza, ibilladi eta osterak. Agu-reak, agure makur eta okertuak ez ei dira makalen egunotan.

Kalez kale nabil. Ez al dauka Tolosa'k alderdi edo gertaera baltzik?

Negar egingo luke
nire amak baleki...»

gogoratzen ez?

1855 urtea zan. Urte bi lenagotik erriz erri ebillan kantari eus-kal koblari, bertsolari bat. Abots ederrez, zindo, biozkor, adoretzu, egitsu... Berari entzunagaz jentek berotu egiten ziran eta esnatu.

itxartu. «Gernika'ko Arbola» laster zabaldu zan auzorik eskutu eta basamortuenekoanbe.

Laga Iparragirre berari bere gertaera kantatzen:

Zibillak esan naute
bizi, egoki,
Tolosa'n bear dala
gauza au erabaki.
Giltzapean sartu naute
poliki poliki...

Eta Tolosa'ko illunpetik atara eta erbesteko mingostasuna eta arpegi ta biotz ez-ezagunen artera bialdu.

Andra Mari'ren eleiza andia...

Euskal artista punterengoen lanak bertan. Bakoitza bere zeregiñean ontsuenak. Karrera'ren torreak, Uzkuhun'en ataria, Antxietaren aldare nagusia... Bengoetxea'ren Gurutz bidea... Or dira, noiz-nai ikusteko eta ederraren arrada sentidu eraziteko. Arteari omen dagiogun.

Eta gure izkuntza bera ez al da arte zoragarri bat?

Orrela, omen eta txalo baita Tolosa'n ainbat urtetan erretore, parroko egon zan Patrizio Orkaiztegi jaunari. Ez zan tolosarra, baiña bertakotzat etsi lei. Sekula ez dot aztu ez atzendu umetatik ikasi neban bere iritzi bat: Euskerak burua jasotzea Jaungoikuak berak nai du:

Ortaz, tolosar izkuntzak, berbetak, ba dauka gaiñera entzute on eta gaitasun berezi bat. Gipuzkeraz euskerarik gozoena Tolosa aldekoa dala esaten da.

Euskera bidean zintzo jokatu daben ainbat izentatu leikez tolosarren artean. Erreskada luzea. Bat esatekotan, ezin aztu, bere ia eun urtetan, gazte baten asmo eta gurariekin euskeraren alde ekiten eban tolosar jator bat: LopezMendizabal dar lxaka. Bere azken karta baten esaten eustan: «Erdi baiño geiago ere itxutua nago, baiñan nere gogoa len bezin gartsua da».

Agur biozkor bat, lxaka!

Tolosa'n, izen bakoitza, toki bakoitza, kondaira luzea da.

Beotibar. Goazen urrunera, 1321 urtera. Orduko gerralarrien asmo eta jokabide! Naparrak eta gipuzkoarrak gerran ebiltzan. Obeto esateko, alkar arteko burruketan. Euskaldunen batasuna eteten asita egoan VIII garren Alfonso inguruetan sartu zanetik.

Zenbat napartar etorri ete ziran inguruetara? Batzuk esaten daben lez, millak eta millak. Besteak beragotik. Dana dala, gipuzkoarrak, edo obeto, Tolosa ingurutakoak, zortzireun bat ei ziran. Larrea'ko etxe jaun Gil L. Oñaz'en agindupean.

Aulesti'ko Bengoetxeatarren eskudoko esan naia gogoratzuz, «bekoak goikoa benzi leidi asmuz eta jakitez», emen be ori gertatu zala esan bear. Upel, barrika andiak arriz bete eta mendiz bera jaurtiten asi ziran gipuzkoarrak, besteak inguru oneitan agertu ziranean. Ori ikusita naparrak izutu eta bildurtu ziran eta igeska asi.

Gudaketa au gogoratuteko sortua ei da orain emen ain ezaguna dan bordo-dantza. San Juan jaietan tolosarren jairik etxeko eta atsegiñena.

Sasoi aretan oraindik Tolosa'n gaur ainbeste entzute dauken indabarik ez zan ezagutzen. Izenarekin konturatu: indi-baba, au da, Indietatik ekarria. Urte asko igaro ziran, gero be, emengoak Indietako bideak ikasi eta joten asi orduko. Beraz orduko tolosarren indarrak beste nunbaitetik etozan.

Tolosa'ko gaurko langintza papela eta papelkiak dira.

1696 urtean agertu zan emen egiñiko lenengo liburua. B. Ugarte donostiarrek emen zabaldu eban irarkola baten. Gipuzkoa'ko Legeena zan, Olaz'ko Batzar Nagusietan emon eutsen baimenez Aranburu'k gertuta.

Papelaren langintza zuberotar batek sartu eban emen. Urte bi lenago, Oria'ko Alegia'n asi zan lanean eta andik Ibarra'ra jo. XIX gizaldiaren lenengo urtetan. Geroago, beste lantegiak, bata bestearen ondoren, urun errotak egozan tokietan eratu ziran. Orrela Igarondo, Otzaran eta abar.

Gaur, Tolosa inguruetan ogeiren bat billatu leikez orrelakoak.

Tokia be berebizikoa onetarako. Oria ibaia, Araxes eta Eldurain bertan alkartzen dira. Ur ugari. Baiña Tolosa'n urak usteldu egiten dira. Bits zuriak gaiñean, beti lodi, aize egunetan edur matza lez aidean zabaltzen dirala, eta beietan ondo baltza, ustela. Europatik ibairik loituenen artean aitatzen da Oria au.

Beste bertako langintza on bat, burdingintza, galdu zan. Inghlaterra'n arri ikatza sortu zanean, emengo egur ikatzez erabillezan lantegiei porrot eragin.

Tolosa ez da anditu beste erri askoren parean. Bardintsu, urteetan.

Umorea galduko ete dogu kondairan sartuta?

Ez. Goazen «txantxoak» lagun, kanta kantari.


Laga gaurkoz idazleak, prailleak, eleizak, ermitak. Laga Domenjon berbera. «Domenjon de Andia, Gipuzkoa'ko erregia». Zer egin ete eban onek Inghlaterra'ko errege bateri Bristol'go portuaren kontura urteko ogei libra kentzeko?

Laga etxiak eta jauregiak, politikoak eta naste zaleak, korrikariak eta aizkolariak. Danetan billatu leike Tolosa goratzeko asko.

Goazen umorez. Bertsolari bat artu daigun. Ainbat dira Tolosa'n. Ementxe gordeten da bertsolarien istori zarra. Bertan dago bertsolaritzako auspoa.

Tolosarren umorez amaitu daigun. Iñauterietako bertsoren bat aitatu. Orra bat:

Entierrua nai det egitea neri bigarren klasian
lau zapatarik eramatea gañera berriz aldian;
jota nabarra joaz Enpero kalian,
sobrekamak balkoitan naramatenian,
Arremale zubiyan, aizken aizkena
zagi bat ardo jarri kajaren gañian.
Eta koroa egin txaranga ta guzti eta ekin oyuka:
Ta Galtzaundi, ta Galtzaundi,
apellidua det Goñi.



URRETXU

Bergara eta Azkarraga'tik nator Urretxu'ra.

Azkarraga? Bai. Zegaitik Descarga deitu Azkarraga danari? Ain zuzen be antxe asten da Urretxu. Urretxu edo Urrets. Urratoki esan gura ei dau. Orrela obe litzake bigarren deitura. Baiña, gelditu yakonagaz jarraitu daigun.

Erri otza neguan. Urola'k laiñoa sarri. Urola onek oztuten ditu, ain zuzen be, Zumarraga eta Urretxu'k euki leikezan beroaldiak.

Komeni ete da erri biok alkartu edo batzea? Baiña eta zeñen mesedean? Betiko akatsa. Gaitz bata bestearen bardintasunez batzea. Gaitz erdiz erdi osotzea. Erdian, len esan dogun lez, ibaia laiñotsu. Kontuan euki tren bidea egin zanean, Urola orren bidea aldatu egin bear izan zala eta Zumarraga'ren mesedean ain zuzen be. Orra asiera minkor bat.

Gaur, jatorrak ez diranak, bertakoak ez diranak ezin sinistu dabe zelan Zumarraga'n lan egin eta Urretxu'n lo egiten daben, txikiteoan bietan ibillita.

Santa Luzia'k eltzen diranean be, ezin dira konturatu Urretxu'k baimena euki eta zelan egiten dan Zumarraga'ren peri ori, nai eta Urretxu'ko eskubidean garbi esan diruz zigortua izango dala Zumarraga'n saltzen dabena.

Zumarraga'k lanaren indarra dauka bere alde ten egiteko, indar barria. Urretxu'k jaubetasunaren legezkoa, indar zarra. Gogoratu Urretxu azpaldietatik datorrela erri nortasunez. XV garren gizaldi aurretik Gipuzkoan gozan 26 errietako bat dala.

Ba nabil oargarriak artzen.
Sei milla ta erdi lagunetan
Bizibideko urteerak: Milla ta berreun lagun langille Zumarraga
eta Legazpi'ra.
Etxeak: Barri batzuk egin arren, oraindik premiñak. Erosteko
aliek ez da igarten.
Ura: Denporetan neurtuta.
Eskolak: Ume txikiak, oraindik larri. Bigarren mallako irakas-
kintzan, Institutoa dago. Bertan ia bosteun ikasle Legazpi, Zuma-
rraga eta bertakoen artean.
Baserri etxeak: 32
Lurrez, 15,34 km² 7,87 mendi eta solotan. 27 lantegi. Euren
artean 700 langilledun bat. Beste bat 240 koa eta irugarren bat
170'gaz. Besteak eundik berakoak dira. Euron artean bederlatzi
lantegi amar langillera eltzen ez diranak. Burdingintza dabe geie-
nak oiñarri.
Eleizaz, parroki bat eta pasiotarren eleiza.
Iru-lau bidar barrizatua da parrokia. XVI garreneko kutsua.
Mendiaraz'ek egiñiko erretabloa. Torrea geroago egiña. Barrokoa,
Lenizera azpeitiarraren egikerako.
Pasiotarrena, Pagota'n, oraintsukoa da. 30 urte inguru egin
edo zabaldu zala. Konbentuan frailekirik ez eta orain ikastolak.
Ermitek: Santa Barbara, emen be Mendiaraz'en aldea, eta
Kurutzekoa, kanposantu egalean.

Arlote bat: bera ta andia.
Maitasun bi: ama ta Euskalerra.
Iru kurutze: amarena, erriarena eta berea.
Ez ezagun bat: dirua.
Pentsamentu guztiok datorkidaz, Urrutxu'ko plazan, Iparragi-
rre'ri begira. Jose Mari Iparragirre eta Balerdi, jakiña.
Arlotea deitzen dautsagu gure berbetan ibiltari setatsu eta ar-
dura bakoari.
Borondatez ibili ete zan Iparragirre?
Amalau urtedun zala Madrid'en egoan, ikasle, eta andik iges
eginda Zerain'en agertu zan. Beriala karlatar gudari, eta zauri uga-
ri.
Emeretzi urtedun, Frantze'n egoan. Ogetak urtegaz Itali'n, ge-
roago Austri, Alemani eta Suiza'n.
Naiz dala Italia
orobat Frantzia
bietan billatu det
anitz malizia.
Ikusten ba det ere
mik mundu guzia,
beti maitatuko det

nik Euskalerria.

Ogeta-amaika urte eta Londres'en ikusten da. Andik Bilbo'ra dator eta emendik Madrid'era.

Ezin bere lurretik kanpora bizi. Tarte bat billatu orduko keixu igarten, da urduri, emen zerbait billatu edo ta zerbaitetan arduratsu bizi nai izateko. Baiña...

Kartzelatik atera,
fiskalen etxera,
abisatu ziraten
joateko beriala.
Ez etorteko geiago
probintzi onetara,
orduban artu nuen
Santander aldera.

Orra barriro bidean, ibiltari. Santiago'ko erromes ba litzan lez, Santander, Asturias, Galizi eta Portugal zear dua. Eta gero Ameriketara.

Urrungaitza an. Erri-miña. Ezin arnasarik artu erbestean. Ezin bizi. Alegiñak an irabazpide bat billatzeko. Alperrik. Ez dauka kemenik orretarako. Arlotea da. Eta bere lagunak ordaintzen dautse etorrerako bidekoa.

Pobreak iñok baiño sakonago sentiduten dakie zoritxardunen ondua. Ameriketatik etorri ta laster Madrid'en agertzen da. Gure itxasoan irureundak lagun itto ziran. 1878'n. Madrid'en euren alargun eta umezurtzen alde egindako jai baten ara bera «Agur Euskalerrari» kantatuz ango euskaldunei biotzetan ikutu eta negar eragiten.

Bizitzako gora berak. Erbestean bizitera beartutako arloteak, Alfonso XII erregearen besarkada artzen dau teatro aretan.

1881. Irurogei urte eta oraingoan bai, benetan, azken arnasa. Bere guraria beteta gaiñera:

Jaunari eskatzen diot
grazia emateko
nere lur maite ontan
ezurrak uzteko.

Bere jaioterritik laster, Itxaso erriko Zozabarro baserrian, orra bera illotzik.

Jakin orduko Bilboti'k deika illetak egiteko bear zan dirutza euren kontura atarateko.

Berak ez ezagun bat euki eban: dirua. Baiña ba eukan diruz ordaintzen ez dana: erri maitasunaren garra.

1950/1960 bitartean euneko 73,93 ugaritu zan Urretxu.

Urrengo beste hamar urtetan, % 25,4.

Euneko larogeik ez dakie euskerarik. Amabi ta erdik eusk'era gitxi dakie. Euneko zortzi ta erdi ondo dakienak.

Barrero Iparragirre'ri begira nago. Bere inguruan jolasean dabiltzan umeak zuzendu eragiten nabe beragana. Gogoratzen? Zureak dira bertsó oneik:

Arren... Ez, bada, galdu euskera
neure anaia maiteak,
Galtzen ba dogu, galduak gera
gu eta gure semeak.
Beti euskeraz. itz egin, bada
oro zar eta gazteak,
esan ez dedin danok generala
euskaldun biotz gabeak.

Eztaikit gaur zure biotzak zer esango leuken. Otz? Carrara'ko marmolaren barruan eskutatu eutzuen biotza eta Mañari'ko arriaren gañean zeure oiña ipiñi. Irakurten nago: «Euskalerrri guztiak, baita ere erbesteetan sakabanatutako euskaldunak eskeintzen diote oroipen au».

Ai gure kitarreak zureak lez biotzaren esan naiari jator laguntzen ba leki!

Frantzetarrak emen egon ziranean, erri guztietan gizon baten izena entzuten zan, bildurrez edo ta garrez: Artzaia. Jauregi artzaia. Ala 1 809'tik 1 823 bitartean.

Arrigarri da gizon onen bizitza. Artzai uts zala, militar altsu izatera eldu zan bizibidean artutako erakuspidez.


Gaur baten, biar bestean, bildurra eutsen frantzetarrak. Erriak zaintzeko eukezan ordezkariak laster jausten ziran bere mende. Azkenean be Coruña'n jausi zan eta Frantzera eroan eben.

Txapelgorriak sortzen alegindu zan andik geroago Isabel II'-garrenaren eskabidez. Liberala zan bera. Orduan karlistak txapel zuria erabilten eben.

Beste jakingarri bat: Frantzetarren aurka Zumalakarregi eta bera alkarregaz ibilli ziran. Gero, karlisten gerran, alde banatan eta alkarren aurka itsu. Ala Ormaiztegi'ko lurak bata bestearen aurka odoletan gorri laga zituen 1835 urtearen asierako burrukaldian. 47 urte eukazan sasoi aretan Zumalakarregi'k eta 44 Jauregi'k.

Gorri eta zuri ziran. Eta biak, eriotz ondoren, eleiza banatan billatu eben euren azurren gordelekua. Zegama'ko parrokiaren dagoz Zumalakarregi'renak. 47 urtez il zan. Urretxu'n Jauregi'renak. Au 53 urtedun il zan.

UrreLxu'k bere gizonen oroitza zaintzen ba daki.



ZARAUTZ

Zarautz! Polit, txukun, dotore.

Itxaso eta lur, ondar eta aran.

Kosmopoli, kosmo-erri, mundu-erri.

Baiña nekatu egiten da Zarautz'era eltzen, batez be udan.

Kotxe geiegi. Eta ibillera gelditu eraziten daben kamioi asko tartean.

Lengo bideak unorez gelditu dira. Estuegi. Kotxeak zabaldu eta ugaritu. Bideak zartu eta zortu.

Autopista egitean arindu zan neke ori. Baiña garezti ei da. Zotin eragiten dabela ondasunetan. Orrez gaiñera, Zarautz'ek autopista au miñez artu dau. Kanporago, ertzera bota nai ta lortu ez. Etorkizun asko galdu eragin errestasunaren ordaiñez.

Kalean sartu ta batera auspo soiñua, akordeoia entzuten nago. Zeiñek esan eban guzurrik eztaukan soiñua dala ori, tranparik eztaukan soiñukia dala?

Ala ta be gaurko mundu geldi eziñak kitarra naiago dau. Ez bardintasuna, kontrastea. Ariña dala pixua emon nai berari. Burauste askoren esnatzalle ta laguntzalle.

Gaur ez dago kitarra gabeko talderik. Edozetarako erabilten dabe, gaiñera, soiñutik kanpora. Etxeak dotoretzeko, kanpiñetan almoadaratzako, pelukak gordeteko eta guzur asko biribiltzeko.

Len, toki berezi ta bakar baten, egunerokoa irakurten, manu-manu jarrita, askok emoten eben bear baiño denpora geiago.

Gaur kitarreari melodi asko antxe billatzen ei dautsez. Ori be gaitasun bat da.

Ai, kitarra negartia!

Lenago be ibilli eben euskaldunak kitarraren garra. Gogoratu:
Kitarra zartxo bat dot
niretzat laguna...

Eta akordeoi aizetsuari inpernuko auspoa be deitu eutsen iñoiz, eta ez olgetan, toki santuetatik.

Zegaitik? Diabrueri be dantzan eragiteko almena dabelako?

Betor, betor erri garratz au alaituko daben zerbait!

Zarautz'ek etxeko dau auspo soiñua. Eta zarauztarrak ez dira, ba, ain zuzen be, inpernuko diabruak.

Onelako buruausten nabillela, ara adiskide bat aurrean. Betiko antzera lerdan, serio. Irriparre mingoztu batekin.

-Kaixo! Ondo gabiltz?

-Ba! Ala-alaxe

-Lanean?

-Askok uste ez bestean.

-Ez daukazu itxura andirik soiñean.

-Nik bakarrik dakit zer darabildan barrenean.

Adiskidea zein dan?

Umetako olgeta-bide bat datorkit gogora: «Zein dala ta zein dala»?

la, igarri. Orra ezaugarriak:

«Granada»n jaio,

erri maitasunez errez-il,

Landa'tan aizkoran ikasi,

Zarautz'en jator bizi,

plazatan santsua erakutsi

ta kanta kantari noz nai txapela jantzi.

Igarri? Ez?

Ara zerbait geitxuago:

Urten kaletik bere billa,

asi mendi bidean, ta ara etxe bat basoan.

Zelan deitzen dautsagu mendiko etxeari?

Gaur, gain-gaiñean jarri edo gertatu ezik, iñork ez dau igarri be egiten Zarautz'en portua dagonik.

Baiña Zarautz'en arrantzaleak egon ziran, eta gaur, ez jakin noiz kenduta daukan, agertzen ez ba dau be, bere eskudoan, erriko eskudoan bale bat euki eben, itxasertzeko erri askok dauken antzera. XVII eta XVIII gizaldietan 55 bale arrantzatu zituen agiriak billatu leikez.

Itxasontziak egiteko lantegi edo astilleroak be egon ziran bertan, eta esakera da Elkano'k erabili eban «Victoria» ontzia erri

onetan egiña zala. Jakiña da irureun toneladako txalupa batzuk be bertan egiten zirala.

Gaur, Zarautz'ek, itxasoa maite dau, baiña itxasoaren sakona barik, bere olatu eta uñen bits eta aparra, itxas ozkirria, itxas aizea eta itxas ondarra. Ortik, arrisku gitxiagoz, itxasoari begiratu eta bertatik datorkio bizi asko.

Andikien etxe ugari ikusten dira tartean.

Nundik asi?

Ara! Begira zer diñon eskudo jator bateko esaerak. Zarauz ja-torritzko izentzat daroanak ain zuzen be. «Ez ikutu, ezpada erreko zaitu».

Goazen aurrera.

Balmes filosofoak liburu sakon, mamitsu eta gaitz bat egin eban. Izen eta ospe andia emon eutsan berari: «El Criterio».

Euskeraz ezin eikeala olakorik, ez eukala euskerak gurpillik eta biguntasunik orrelako gauzak sentzuz erabilteko, egoki azal-zekeo, mordolokeri eta nabarmentasunean jausi eta galdu barik.

Ixil ixilik Zinkunegi osagillea lanean lotu zan. Eta euskeraren gaitasuna erakutsi nairik «El Criterio» berbera oso osorik euskera-tu eban eta argitara emon «Irizpidea» izenarekin.

Ordago!

Olertia, poesia biozkada da. Ikusi, sentidu, nai, amets edo ger-taeren biozkada.

Olerkari bat nai? Orra «Biozkadak». Luis Jauregi, «Jautarko-ll»ek eskiñita. Errenteriarra jaiotzez, baiña Zarautzitarra bizikeraz.

Orra baita Jose Mari Agirre, «Lizardi», biotzaren miñari eutsi ezinda, bere garra erakusten:

Biotzean min dut,
min etsia,
negar ixilla
darion miña...

«Biotz begietan», «Umezurtz olerkiak»... «Itz lauz», «Urte gi-roak».

Zarautz, laiño ta izar, sentimentu andiko erri danik ezin ukatu. Poeten erri. Eukal olerkariena.

Zegaitik Zarautz'en, bear ba da beste iñun baiño garbiago igarten da, zein dan euskalduna eta zein ez? Erbestetar geiago da-billelako?

Kapero datorkit gogora. Flores Kaperitxi margolaria, pintatza-illea. Euskaldun buruak edonun billatu eta agertzen, bakarra.

Bere liburu baten irakurrita daukat: Bein, Pompeya'ko orma-zarrak ikusten ebillela, gidariak agertu ei yakozan eskintzen. Gidari bat nai? Frantzetarra, alemana, españarra, ingelesa? Berak., baka-riik ibilli nairik, aldendu eragitearren, erantzun ei eutsen: Euskal-dun bat ba dago, bai. Eta berala agertu ei yakon euskeraz jator ekian gizon mardul bat.

Bein, Cuba'n, bere kuadroak erraz saltzen zitulako, Markina'k esan ei eban bitsez eta koipetsu: Sahara'n iñoiz kuadorik saltzen ba da, segurutik a Kapero'rena izango da.

Orreri erantzunez berak esaten eban: Ba dakit ori asko esatea dala, baiña nik bai ziurtatu nei beste au: Iñoiz Sahara'n pintatzeko oin edo kaballetea ipiñiko ba neu, seguru egon ango ondartzen zabalean euskal bururen bat agertuko neukela.

Orra euskal artista bat; zarauztarra.

Zein sasoiko arrantzale edo itxastarrek ez dauka gogoan Zarautz'eko Bikarioa?

Jaiotzez asteasuarra zan, baiña ezagunez zarauztar.

Doai berezia eukan eguraldiari igarteko. Itxastarren kezka-odeiei begira orduak egiten ei zitun. Eta iñoiz bai larri be deitu arrantzale errietara, ekaitz andirik edo galerrenik ba etorren.

Bizi asko zor dautsez itxastarrak berari.


1912'ko Kantauri itxasoko galerrena Orkolaga onek iragarri eban. Begira Fermin Imaz'en bertsoak:

Ai gure biyotzeko
Aita Orkolaga,
beraren eskutikan
ez gaitzala laga,
orain bezela zaitu
eguna ta gaba,
berriz itxaso ortan
ez gaitzezan traba,
bedorren talentua
gauza biarra da.

Zarautz'en nabil.

Zelan ibilli bazterrak agertzen eta eskutuak erakusten, gaur turismoko erri onek paperaz eta argazkiz beteta ba daukaz inguru ta erbesteak?

Origaitik aizetzen ez dana billatzen eta agertu nairik nabil. Eta guri, jakin miñean ikutu ez da be, zerbait gogoratu leikiguna.



ZEGAMA

Tomas Zumalakarregi buru gogorra zala esaten da. Zein ez da buru gogor bereari eusten? Zein ez, batez be berak lez, gerra egin eta erabiltzen onenentzako entzutea eukita?

Buru gogor agertu ei zan Begoña'n, 1 835'ko Bagillean. Bere inguruan balak txistuka ebiltzala, alde egiteko dei egiten eutsen, eta berak, Elliot'ek eskiñitako katalajoak laga barik, ezetz. Bala bateg jakin erazi eutsan itsukeriz iñok ez eutsela eurei onetan irabazten.

Sasoiko medikurik onenak ikustea nai izan eban bere Erregeak. Baiña Zerain'go Jose Patxi Telleria'ren entzuteak itsututa eukan. «Petrikillo» sasi medikuaren ospea andia zan izan be, batez be azurrak konpontzen. Origaitik berak iñori laga nai ez ikututen, areri ezik, nai eta arek aragi gordiñean sentsurik kendu barik bere konponketak benetako miñetan eta larrialdetan egin, il arteraiño.

Bilbo'n jausi zanean, bere ingurukoak atsedena agindu eutsen, geldi egoteko. Berak, danen gaiñetik, mendi eta basobidetik zear Zegama'ra eroateko agindu, aren ardurapean jarteko.

Emen, Zegama'n il zan, Mazkiaran Barrena etxean, zauritu eta bederatzi egun geroago, San Juan egunean.

Zegamatarrak aterpe ta guztiko kanposantua eskiñi eutsen: eleiza. Eleizak toki egoki bat aukeratu beretzat: koro azpia.

Bera buru gogor ba zan zegamatarrak ez dabe txapelik erasten oraigaitik bere aurrean.

Don Karlos Erregearen aginduei jarraitzekotan, bake aldi baten bere jaioterrira, Ormaiztegi'ra eroan bear ziran Zumalakarregi'ren azurrak. Orren orde, zegamatarrak koro-azpitik atara ta aldera

andiagora eta ikusiagora eroan zituen. Eleizan ate nausitik sartu eta aurrez-aurre, or dago bere irudia, eta ez txikia.

Euskal eleizak ba dakie iñoiz Erroma'k baiño lenago bere semiei aldaretan leku egiten: Jauregi Urretxu'n, Zumalakarregi emen. Eta martiriak sakristietan gordeten be bai, Asteasu'n Julian Lizardi lez.

Gipuzkoa'ko eleizen arteko torreric onena emengoa zala esaten ekien.

Ederrak ez dau onena esan nai. Ba dagoz Gipuzkoa'n ainbat torre berau baiño ederragoak.

Santiago'ren zaldia dala uste dabe askok, eleiza onek, kanpoan, sarrerako ate gaiñean, arrian atarata daukan zaldi gaiñeko santua. Ez da orrela. Parrokiko zandariari dagokio, San Martin gotzaiñari. Ala ta be erriko jaiak San Bartolomez egiten dira. Bear ba da, lenagoko denporetan, santu onen ermitea izango zalako bertako parrokia.

Gaurko parrokiko, aldare nausia Berastegi'k egiña da. Arantzazu'ko parroki zarrean be laga zitun taillugille onek bere esku lanak.

Eleiza aurrean, plazatxoan, beste erriko seme baten oroitza bat ikusten da: Juan Telleria eta Arrizabalaga'ri eskiñia.

Ba dakie musikalaria izar bideetan alkondara barri, gorritz bordatuekin ibilten. Alaxe Telleria au. Eguzkiari begira. Amets egin eban lez.

Telleria onek egin eban Ondarroa'n ain gogotsu eta txairo kantaten dan «sari egiñagaitik itxasoak orru, pakean zainduko du Jesusek Ondarru» ren musika.

Igeldo'n, Loidi oriotarrak asmatu, zegamar Teleria'k erestu, eta nire errian, Lekuona'k esango leuken lez, «itxaso gatzetan garraztutako eztarri bortitzak abestu, alako burrundara ikaragarri batean».

Kale bat eskiñi eutsan Zegama'k «Aitzgorri'ko dama» sinfonia, «Aizean barnan» Lied, «El joven piloto» eta abar egin zitunari. 1 985'n jaio zan eta 1 949'n il.

1384 urtetik ba dago Zegama'ren izen barri paperetan, erri nortasuna erakusten.

Erri euskalduna. Oraindik ez dira euneko zazpi euskeraz ez dakienak. Goierri, errialde onetako oitura, bizikera, esakera, siniskera, eta abarrez.

Erri legez ez dauka ze ikusi andirik.

Eun urrutzikin. Zerbait geitxuago.

Papergintzako industria. Emen dauka Oria erreka bere asiera eta ain zuzen be emen, itxasoan sartu aurretik bere bidean erabilten dituan paper lantegietako lenena.

Baserrietan zabaldua da. Arrieta, Barren-alde, Goialde eta Olabarri auzoetan.

Kale eta baserri bardintsu bizilagunez. Danetara be gaur milla ta zortzireun lagun inguru. Kendu batzuk.

Sasoï baten 1 78 baserri-etxe eukitera eldu zan. Geienak kale-tik ordu erdi baiño urrunago bidean. Ogetak, ordu batetik geiagoko bidean be. Gaur 130 baserri-etxe bizi lagunak dituezanak; besteak galtzen, jausten edo ta aldentuta.

Naparroagaz mugatzen da Zegama San Adrian'en. Bai eta Araba'gaz be Oltza'ko zelaïetan. Baiña ez uste lurrez Gipuzkoa'tik andiena danik. Gipuzkoa'n beste zortzi ba dira beintzat berau baiño geiagokoak.

Andre bateri itandu dautsat San Bartolome'ko bidean emengo barri onik ba eta dakian. Ba ete dakian zerbait, bein bergaratar batek bere galtzak bei baten adarretan eskegi eta sorgindua zalako bei ori gizon biurtu zanaren barririk. Barrezka asi da. Bere alboan beste andre batek:

-Zein dire ok?

-Periodista otakok.

-Ok emen? Gure ollok laïster eingo due kok.

Ori entzunda nik:

-Edo ta gorringo bikok eiten asi. Eta Villafranka'n urretan saldu, iñun ez dala ok aiñakoak esanez.

-Kok eiteko atzamarra sartu oi, berak.

Arratsaldeon Jainkok, esan eta barrezka agurtu gara.

Len, gure zarrak, Gipuzkoa'tik Araba aldera joteko, edo ta Naparroa'ra joateko, San Adrian'go aldatza igaro bear izaten eben, Zegama'n indarrak artuta.

Gaur, Segura eta Zegama, bertara joan ezik, bide nausietatik bastertuta gelditzen dira, betiko antzera alkarri tirrika, auzi erriak beste edonun lez, zuk ura Segura'k eta nik fama, Zegama'k.

Ba dira San Andrian'go aldatzaren ainbat kontu. Kamiñeruen izatea ór ei zan sortu. Gatzaga'ko bidea baiño lenagokoa zala au kontuan euki.

Mikeleteen premiña be ortik ei zan agertu.

1787 urtean Gipuzkoa'ko baserri errenta, gaur esaten dan lez, renta per cápita, 120 errial zirala esaten da. Eta Zegama'k ozta ozta lortuten ei eban errenta ori ikatz-giñan, zugaitz edo arbolen mesedez eta bidearen onuretatik.

Bide au dala-ta mandazaiñak be eukiko eben inguruetan eu-

ren izerdiak nun legortu.

Emendik, San Adrian gainera, Kantauri itxaso eta Mediterraneo ikuste eratsa zala esaten eken.

Guk baiño ikuste lu? !iaqo euen. nimoianez. zegamar ♣
iidk. .t-jrcimsncJi zava asi zan rrendi yaiñeta igoten eta bidean, nekatuta aspirtu. Zartzaroan be egongo zala illea nok artu eta laga eutsan ikubki;- ori artzean.

Ortiz gañera, Aizkorri, Gipuzkoarren rrendirik altsuena gora go dago, eta ain zuzen be zegamar lurrei goi-bidea eta luzetasuna emoten.


Orta Zegama. Gaur gaurkoz, ez aurrera ta ez atzera. Nai eta esakera zarrak esan, eta onetan, esakerak aitatutzean ez dogu zitalkeriz jokutzen, gure aurretikoen esakerak gogoratu erazi naiez baiño, Zegama, deabruak ba darama.

Gaur bere izateari eutsi nairik igarten da. Menditar izatea zainduz, ogibide on bat billatu nairik.

Ba dago beste esakera bat be: Zegamatarrak, belaak. Zegaitik?. Errien arteko txikikeriak.

Gaur lanaren premiñan dagola igarri dot. Ia irureun lagunek urteten dabe egunero, ogi bidean, Beasain, Legazpi, Lazkano eta Zumarraga'ra, eta jakiña, orreik naiago leuke errian lan eratsu bat. Ordez, 20 lagun inguru etorten dira egunero Segura'tik.

Ba goaz emendik, etxe aldera, Segura'tik zear bide nausira urtenaz, Segura'k ba dauka gozo-zaleentzat tangadu bat: almendrakin egindako tartak. Emengoak ez ei dira iñoiz sikatzen, esaten dake, Zaarrontzako tentasiño, zitzaldi bat: Gizendu bear.



ZESTOA

Aizarna'ren lurraldetan sortu zan Zestua, gaur erdal kutsuz, Zestona. ¹

Eskubide zabala artu eben aizarnatarrak erri barria nun irasi, fundatu, ebiltzanean: Eurak egokien egongo zala uste eben lekurik onenean. 1 383 urtean zan ori.

Eta Zestua sortu zan aizarnatarren aitatasunetik. Gero zer? Etxe jauntza laga ta askori jazoten yakoena: semeak aizetan gangartu eta gurasoak illunpean ozkildu. Konturatulzan Aizarna, auzo izaten aspertu eta barriro beretzat erri legea **lortu**. Urte bi laburretan **bere** gain bizi be bai, erri oso bere buru jaube dan baten eskubide guztiekin. 1821'n jaiki eta 1823'en gentatu ziran gora-beretan barriro etsi eta lenera etorri. Barriro Zestua'ren batasunean gelditu. Eta gaur be orrela jarraitu.

Arrua, ostera, edo eta nai ba dozu Arrona, **peba** zan. Deba zala ta 1 596 urtean, Deba'ko kaia, portua zaintzera beartu nai izaten zituezan arruatar baserri-gizonak, gure itxasertzean sasoi aretan egoten ziran bat-bateko itxas-lapurretan **ondo Venetakoan** bat eragotzi edo ta erbestetarrekin egozan gerraldietan oiñak iñori emen sartzen ez lagateko. Arruatarrak ukatu, bero eta itsu, eta Deba'ko alkatea estu erabili be bai. Nai ta ezean beartu zituen. Ortik, orko miñetik, Arrua gaiztotu eta asarrean zabartu. Eta urteak igaroarren, azkenean be gurasoekandik etorran amorruz, Deba'tik alderatzea lortu eta Zestua'ren menpera makurtu. Itziar'en egin zan ortarako batzarra, 1582 urtean. Alkarren arteko gora-berak konpondu ta kittu. Bakoitza bere aldetik.

Ezagutzen hndoa auzoa, balleta?

Mendi gaiña eta bitarte egiten dan leku atsegin bat ikusteko, zoaz bertara.

Zestua bertatik aia, aldatz larri. Bertatik Zestua'ra, gaitz erdi. Itziar gaiñetik bide errezagoan ibilli ziñei. Andutz mendiaren gerrigerritik.

Sartu Itziar'en. Andik Lastur'erako bidea aitu: baiña bidekurutzean laga Lastur eta inguruko arri-oletara, kanteretara doana, eskumatakoa. Arantzazu barriztatzean emen atara zituen arako arriak.

Ez dauka ze ikusi askorik Lastur'ek. Zokondo baten, Ameriketako Oeste'ko pelikuletan agertzen diran tankerako eleizatxo bat, Nikolas Tolentino zoriondunari eskiña, eta taberna zar bat. Gertatu lei emendik Mendaro-Garagartza'ra joateko dan bidea ondo amaitzean, bizitazun barri bat artzea.

Goazen lengora. Lastur'erako bidea eskumatara laga ta jarraitu bideari, Endoia'n sartu arte.

Eleiza txukun eta atsegiña billatzen da bat-batean. Gogoz egin eben endoiarrak eta esateko ta erakusteko dauke. Isidro Laborariaren arrizko irudi ikusgarri bat bertan, Oteiza artistearen eskuko. Eskoletxea eta taberna. Ataditik, alde banatan bedar edo pentsu janean dagozan beien artetik sartuko zara tabernan.

Ez da damutzen arako osteran.

Sei baserri bertan, bat utsik: Akain. Beste bostak, Barrenso, Bisutside, Lakiola, Pagadibeltz eta Uztapide oraindik bizilagunekin.

Ez dautzu ezer gogoratzen Uztapide izenak? Ementxe jaio zan, gaur Oiartzun'en bizi dan bertsolari ixil bat, berak, berez, danori maite eragiten jakin dabena: «Uztapide». Txapeldun eta umil, bertsolari eta ixil. Gizonik andi eta jakintsuenak apal eta umil, izaten ei dakie. Gogoratu gaitezaz beragaz, eta bere bertsuak entzun:

Guztiakdira maitagarriak
Gipuzkoako eskiñak,
bañan Urola-errekak dauzka
intxaurrak eta gaztaiñak,
ni sortu nintzan Zestuak berriz
oso iturri bikaiñak,
orrek sendatu izan ditu
danen gibelesko miñak.

Aizarna. Kale bi, plaza bat eta eleiza ederra aurrean.

Linazasoro'ri irakurrita daukat, euskal teatro edo opera andi bat egiteko berezko antzez-tokirik onena emen billatzen dala. Leike. Musika zale da bera eta berak be ba daki Pablo Sorozabal, musikalaria entzutetsua, emengo «Sorozabal» baserritik datorrena

dala. Eta beste bat, Iruña'ko San Fermin jaietan erabiltzen dan soiñurik ezagunena egin ebana, Pozueta musikalaria, emengo «Potzueta» baserritik etorrala. Auntzak mendira dei egiten dau. Mendi artean musika gogorra asmatzen da.

XVI gizaldian egin zan emen, bakartade onetan, uri andi baten katedralak erakusten daben baiño edertasun eta anditasun geiago iragarten daben eleiza. Irudi bakan eta baliotsu bat bertan: amuma, ama eta semea zati baten ataratako irudian. Santa Ana, Andra Mari eta Yesus umea, bete-betea esateko.

Gogoratu bertatik dagozan beste izen batzuk: Egañatarrak. Eta Bergara'ko Ikastetxean lenengo erretore izana: Odriozola, gerra-gizon, matematiku eta pintatzallea.

Emendik gorago, legua bat ingurura, Xarna'ko Santa Engrazi. Ermita zarra, aitz gaiñean. Mendi-zaleen gogoko. Noizkoa? Adriani, Iruña'ko gotzain edo obispoaren esanetan, bere eleiz barrutiko lenengotako eleiza. Jo, ba, urtetan atzera, bildur barik.

Goazen aurrera. Iraeta. Zer emen? lanerako gar eta kemen. Zubitxoa. Bide-kurutzea. Etxe bakarrak eta ia etxeak aiña baster, jan eta edanera deitzen.

Alboan, aldapa ondoren, Arrua goia. Emen San Estebantxe beti len letxe. Etxe guztien gain, urrunetik ikusteko eran. Askok zementu lekuko auzoari deitzen dautse, oker. Trenetik datorren irizpidea da. Arrua beia da a. Goian San Estebantxe eta beian Karmenten. Iñor ez da konturatzen Zestua'n gareanik emen.

Beko autsa goiko aizeak uxaten ei dau. Edozetara be karmenetan beian eta Santa Anatan goian, autsak kentzeko egunak batzen dira berorik larrienian, Garilla'ren erdian.

Iraeta eta Lasao'n, jaietan, neguko otza maiteago. Barruak berotzeko giro obeago. Santa Ines Iraeta'n eta San Martin, Lasao'n. Jan edanakin jai eta gero al danari or dago.

Edozein errik ez daukaz Zestua'k aiña tren-geltoki, batetik bestera aukeraz, erraz ibilteko. Bost bai beintzat bere lurraldean, Urola eta «Vascongados» en artean. Ala ta be, jenteak gaur aukera errezago nai dau. Eta trenak erdi utsik dabiltz.

Erri barruan gara. Zestua'n.

Nun dira lenako atadi edo portale zarrak? Lau kale eta lau portale ei eukazan erri onek. Gaur, etxe artean, arko gaiñean kurutzea daben atadi edo sarrera bat billatu lei. Besteak... erria zabalteko premiñetan galduak.

Kutsu zarreko beste ikusgarri bat: Zubiaurre inguruko iturria.

Beste bat: Kurutzea plazan dagon kurutza. Ikusgarri baita Lili jauregia. Parrokian, zidar giroko kurutze bat eta aldare barrokoak.

Geiago? Urak dakarrena urak daroa.

Uretik bizi da Zestua. Urak, ain zuzen, ez dira erriaren jaubetasuneko. «Gezalaga»ko iturria, ur epel, gazi eta garrazkia, Lasao'ko markesak bereganatu eban edo bere eskubideak artu, erriak be-retzako alegiñak egiñarren.

Ur-etxe edo balneario andiaren egaletan dago «Amabiturrieta» be. Aizarnarren esanetan, an batzen diran urak ei dira zulokien bidez onera etorten diranak.


Zestua'k, danetara be, 4.400 bizi-lagun daukaz. Geitzen, baiña igarri andi barik. Azken urteotan euneko bat eskaz.

Bildur naz estadistiketara begiratzen. Aizarna, Arrua eta Iraeta'n, %99 euskaldun dirala irakurri dot. Eta Zestua'n, 2.025 lagunetik, 1.900 euskaldun. Iño! Egia ba litz, euskerak errialde onetan indar andia artu dabela esango neuke. Eta oraindik 66/67 urte-tan, eskolako umien artean, 682 umetatik %13,2 ek erdera utsa ekien eta beste %6,4 erderaz ondo eta euskeraz txarto.

Nunbaiten ba dago okerra, itxura baten.

Erri eta auzoak, industri eske dagoz. Lana eta bizia eta etorkizuna ziurtatu leiken industri barrien ametsetan. Uren lurrunik baiño laneko izerdiak ontasun geiago lagaten ei dau erri oso baten bizitzan.

Denpora pasa ba dauke zestuarrak zaletasun berezi bat: zinema. Eratzen dituen zinema topaketak entzutea emon dautse bertakoei.



ZUMAIA

Zumaia'ra aurreratzean, itxas ozkirria sentiduten da.

Molla egaletik zear barrara begiratuta, edo obeto, Getaria'ko bidetik begiratuta, laster konturatzen da bat arriskuz bateriko sarrera daukala Zumai'ko portuak.

Eta itxasoak eta arriskuak gizon bi ekarten ditue gogora: Txomin Agirre eta «Aita Mari».

Karmeldarren konbentuko bakean idazten eban Txomin'ek, bizkaieraz nai gipuzkoeraz. Bertan «Kresala», bertan «Garoa», «Añamendiko Lorea» eta bertan baita, «Ni ta ni».

Azken au... Gogorregi? Apurtu ta kittu. Edo ta Zumai'ko bas terren baten eskutatuta ete dago?

Agirre biguna zala gogoratu daigun, bear ba da bildurti be bai.

Agirre ondarrutarra zan, nai ta bere urte mardulak Zumaia'n igaro eta emen il eta obiratu.

Txomin Agirre'k «Kresala» idatzi eban. «Aita Mari»k kresala iruntsi. Eta itto.

Orra, Donosti'ko kaian, bere irudia, itxasoari begira, donostiarren esker bete betez.

Orra baita emen, Zumaia'n, Jazinto Mateu'k egiñiko irudia. Eta kale bat. Eta zinema. Eta sekula aztuko ez diran zumaiarren biotzak.

Zubia'tar Joxe mari, itxastarrentzat «Aita Mari», Ilbeltz baten, 1866 koan, Donosti'n itto zan, bizia galtzeko arriskuz ebiltzan beste askori bizi ori zaindu ta eskintzeagaitik.

Leenago ere olako mesedeak sarri egiña zan.

Amazazpi erri ustutzen igarten dira azken urteotan, Gipuzkoa'n. Irurogetabi, asko edo gitxi, ugaritzen»

Orain iru urte estadistiketan agertzen zanez, Zumarraga da geien ugaritu dana. Euneke 8,39, 1960/1968 bitartean.

Ondoren Ernani, Errenderi, Urnieta, Ibarra, Olaberri, Arrasate, Irun, Andoain eta amargarren geienetakoz, Zumaia. Euneke 4,68.

Ugaritzen joatea agergerri ona da.

1970'n «Cámara de Comercio»k agertutako agirietan esaten zan, Zumai'tik, egunero, 107 lagun urteten zirala lanera Zarautz eta Elgoibar'era. Bai eta beste 80 etorten zirala lanera bertara, egunero, Azpeiti eta Zetzua'tik.

Sasoi baten arrantzale batzuk ba ziran Zumaia'n. Arrantza-leen kofradia be ba zan.

Orain kaia, -kaia?- itxasontziz beteta agertzen da. Baiña motorrak sartu eta eraturten egoten dira bertan. Euskal portuetako ontziak geienetan.

Zumaia'k errenta billatu dautsa itxasoari, errenta ziburra, leorretik jokatuta.

Erriak kalez kale ibilita ikusten dira. Obeto, kantoitik kantoira zearkatuta. Or dago izatea, muña. Edo ta mendietatik, inguruetatik.

Bai eta liburuetan, artxiboetan.

Orreitako baten ara nun dagon «Zumaia'ko erri eta bere seme gogoangarrien kondaira».

Egillea: Ignacio Belaustegi.

1900 urteko da. «Euskal Festak» ospatuteko asmoz egiña.

Zenbatean estimatzen ete ziran garai aretan euskal lanak? Edo ta zenbat aldatu ete da ordutik ona peseta baten ordaiña?

Ara jakingarri bat: Garai aretan, 80 pesetako saria emon zan lan orrentzat.

Akitzekoak, normandiarrak eta Europa'ko toki askotik Santiago'ra ibillaldian joaten ziranak, Nabarra'tik ekien bidea. Beste batzuk itxasertza maiteago eta emendik.

Zumaia'n, garai aretan, Santiago txalupa egon ei zan. Zubirik ez garai aretan eta erromes arrotzak txalupa orretan igaroten ei eben Urola, eta bertako ospitale bietako baten lo egin.

Santiago eleiza be ba dago, XV'n gizaldi aurretik.

Zumaia'k, garai baten, zer ikusi asko euki zuan Naparroako

Orreaga'ko monastegiarekin.

Orreaga Roncesvalles dala esatea, eztakit euskal kulturari aurerreratzea dan, baiña esan daigun.

Santxo IV'k Zumaia'ko Santa Mari'ko monastegia Orreaga'koari eskiñi ondoren, -1 292 urtean zan ori-, laster sortu ziran kezakak. Eta bai garraztu ere. Ondasunak eta dirua, bitarteko. Eta asarreak obispadu eta agintaritzaz askotan ezin erabagita ibili ondoren, 1 641 urtean Iruña'n egin zan akordu baten eten ziran.

la irureun eta berrogetamar urtetan Zumaia Orreaga'ri lotuta egon zan, bear ba da jauntxokeri baten erruz.

Urola eta bertara datozan erreken egalak jatun andien inguruak dira.

Alaxe Azkoiti eta Azpeiti, Urrestilla eta Nuarbe, Aizarnazabal eta Arrua. Txuleta tokiak dira, txuleta erre gurien lekuak.

Eta Zumaia?

Urolaren egaletan
txuletak parrilletan,
Zumaia'ko bordaetan
txakurrak azurretan.

Ziri edo tirri, edo adar jo naia?

Umorerik ezin ukatu.

Ukatu ezin leikean lez Zumai'ko kantu ezagunari:

Trebola baratzekoa,
larrosa Maiatzekoa,
zuri begirá ementxe gaude
damatxo biotzekoa.
Zapata txuri paperez
euriak jo ta ezer ez;
errian damak ba dira
baiña zure parekorik ez.

Kaletan gora joan nai edozein tokitatik begiratuta, ikusi urrundik egiten da, gogor agertzen da eleiza nagusia, gaztelu andi baten itxuran.

Zetarako ainbeste arri, eleiza maitasuna ba da?

Done Pedro «arri» zalako?

Edo ta eleiza orren ardurapean erria sarritan eskutatu, batu edo alkartu bear zalako, bereziki itxas lapurren garaietan, edo Kantauri itxasoan ain ugari ezagutu ziran gerraetan?

Gure asabak gogorrek ziran. Gogorrek izate eta egitadetan: testigantza eder bat emen dago.

Amairugarren gizalditik or dago zutik, tente. 40 urteko izerdi eta neke bota ei ziran amaitzeko.

Geroago, giroak aldatu ala, espiritu ta gogoia be zabaltzen igarten da.

Emen bertan, Zumaia'n, oraindik ainbestean estimatu ez dan zumaitar baten testigantza ba dogu: Angeles Sorazu. Pentsamentu eta gogoz, Kurutze'ko Yon eta Santa Teresa'ren kideko dala esaten da. Zumai'ko arrantzale baten alaba. Famili beartsu bateko alaba. Gure sasoiko oraindik. 1 921 'n il zan.

Etorkizun andia emon leikiona da Zumai'ko ondartzia.

Baiña gaur, bere aberastasuna, beste begi batetik ikusi nai dot: artearen begitik.

Zuloaga, nai ta jaiotzez eibartarra izan, zumaiar sentiduten zan. Euskalerra berdeegi zan beretzat; indartsuegi.

Arteko saillean maiteago izan zitun barruko lurraldeak: Segovia eta inguruetakoa lur baltza eta gaztelu kolore galduak, eta ango andre igarrak sentikorrigo beretzat.

Leku areitan ikusitako eta egindako erritar artea etxerutzen alegindu zan.

Greco, Goya, Zurbaran eta abar be sartu zitun etxean.

Orra Zumaia'ren mesedean bere emaitzak.

Artea aitatzutzean, ezin bastertu kritiko batzuen eritzian Europa'ko taillugillerik onena zan Julio Beobide. Ixiltzu zala, bere ixiltasun orrek artista sakonago, andiago egin ebal, diño norbaitek. Mistiko uts: Gure garaiko. Ez dira urte asko il zala. Eta beste Beobide, musikalaria.

Goazen atzerago, artean. Or dago Baltasar Etxabe. «Tan bien escribe y pinta, que honra al pincel y a la tinta», Arias Villalobos'en esanetan.

Guk euskeraz egingo dautsagu erremata eta onespena emon:

Idazkari jator,
margolari trebe;
Zumaia arro da
ainbesteko semez.

Orra illuntze bat Zumaia'n.


Parkatu. Arritokieta eta Artadi bastertu ditut. Bastertu ez, aitatzekotan laga.

Zumaia'n ez ei da ezer jazoten Artadi'k ikusi ta Arritokieta'k igarri barik.

Beraz nik, autortu bear, asi baiño ez naizela egin Zumai'ko basterra ezagutzen.

Eta kantatzen asi ere ez.

Sasoi bateko Juana Xoxua eta Frantziska Erkizia'ren doairik ez dodalako, zumaiarren kantu bigun bigunak gogoratu eta goratzeko.



ZUMARRAGA

Santa Luziatan
urte bitik baten
dantzan egiten da
elurra zapaltzen.

Ori entzuna daukat, bear ba da triki-trixaren doñuetan zabal-
dutako esakeren batetik.

Eta Antzuola'ko etxeko-jaun giartsuaren barruko miñak be,
nai ta bere asmo ta bizibiderako bide okerrak zabaldu, Zumarra-
ga'ko erromeriari ez dautse ezer kentzen gaztien begirako; tanga-
rri bat erakutsi bai.

Iru alaba
t'iru pasaizu
Zumarragatik
niri gertatu.
Alaba zarra
bertan buztartu,
ondorengoa
enamoratu
ta irugarrena
gustiz gangartu.

Orra Santa Luziak Zumarraga'n.

Otzaren ardurarik ez. Egin dantzan eta jan buzkantzak. San
Martiñetatik ona makiña bat iruntsiko ziran. Famarik ez da lortzen
janarietan koiperik gelditzen ez ba da plateretan.

Zumarraga'ko buzkantzak entzute andia dauke. Sasoi baten
bertako gozozko gorringoak be, yemak be, jai oneitako erregalurik

onenak ziran.

Sar gaitezen Zumarraga'n.

Laga ijitoei astoen ortzak erakusten b*3erritarrekin tratuan. Zer? Entzun aidean Ataun'go Gergorio'ren urteera: Au gogorra, motell! Gure etxeko asto zarra gaztetuta salgei!

Asi or tratuan eta norberak jakinda, norbera konturatuta be, jausi kakuan.

Perien giltza ijitoak daukela esaten da. Santa Luziatan Zumarraga'n ertsi, sarratu, eta San Blas'etan Abadiño'n zabaldu. Baiña ijitoak azkenetan dabiltz. Gaur baserritarrak naiago dabe asto zaa- rrei baiña traktore barriei ortzak ikusi.

Jentillak asmo andiko gizonak ei ziran: Euskaldun zarren si- niskeretan, eleiz barri egille be ba ziran.

Bein, Aizkorri'n batuta, eleiza bat nun egingo iñarduen. Arri andi bat bertatik jaurti eta nun geratzen zan, an eleiza egitea era- bagi. Alaxe, Aizkorri'tik Eitzaga'ko basoetara jaurti eben arria. Orra Antigua'ko eleizaren asiera, XVI gizaldirarte Zumarraga'ko parroki izan zanaren oiñarria. Noiz ete zan ori? Iñok urterik emon ba ledi, sartu daiala bere kalabazan.

Orain parroki dan eleizaren erremata 1576 urtean egin zan. Baiña lanak amalau urte inguru geroago asi ziran, 1 590 urtean.

Maite dabe «otamotzak» (ala deitzen dautse inguru oneta- koei) Eitzaga'ko eleiza, Antigua'koa. Ermiten katedrala deitu izan dautsa norbaitek. Euskalerriko eleizak izan bear leuken tankerako ete da eleiz au?

Toki baten eta bestean, itxuraz eta neurriz, egokitasunez eta gertakariz, eleiz ez bardiñak ikusten dira. Askotan erri bakoitzak aal bestean egiñak. Zumarraga'ko au euskal egikeraren neurri egokiko dala diño Irizar arkitektoak bere liburu baten.

Beste gitxitan lako jaia egiten da bertan, Garilla'ren bigarren egunean Dantzari eguna deitu leikio egun orreri. Dantzarñak, jai ikusgarri onetan, eginbear eta zeregin asko eukiten dabe eta zere- moni ugari. Erri eguna, egun au, Zumarraga'n.

Orain eun urte, Zumarraga'n jente geiago bizi zan baserrietan, kalean baiño.

50 etxe egozan kalean eta 371 bizilagun.

Baserrikotzat, barriz, 1 24 etxe ta 1.1 08 bizi lagun.

Baserririk geienak ordu erdiko bidean. Urrutierna be kaletik ordu biren barruan.

Erri burua itxasoaren neurritik 356 metrotara dago.

Esakera da Gipuzkoatik tokirik pobreena Goierri dala eta Goierri órretatik Zumarraga'k daukala argalena. Ori len izan ei-

kean.

Zumarraga'n, oraindik ogei urte, gaurko irutik bat bizi ziran. Sasoi aretan lau milla lagunera ez zan eltzen. Gaur amairu milla lagunengandik inguruan dabil. Gorakadarik andiena 1960/1965 bitartean egin eban. 4.077 lagun geitu ziran bost urte orreitan.

Ba dago beste Zumarraga bat Filipinas'etako Samar ugaritean, islan. Orain amar urte ia amaika milla lagun eukazan. Gaur Gipuzkoa'ko au ugaritzen eta bestea bere tankeran geldi.

Legazpi'k ipiñitakoa ete da Filipinas'etakoaren izen ori edo ta ugarte orreitako makurtzalle izan zanaren omenez ezarri eta eutsen bertakoak?

Zumarraga'k bere seme jatortzat dauka Legazpi.

Euki gendun euskaldunok be iñoren lurren billa ibilteko garra. Bai nortasuna artu be zeregin orretan.

Eztakie ziur noiz jaio zan Legazpi. 1503/1505 bitartean. 1572'n il. Etengabeko ibillera berea. Edo berandukoa. Gaur ospez eta biar nekez. Kontuan euki bear dira orduko giro eta orduko esku-arteak, orduko lagungarriak.

Ogetak urtedun, 1528'n, Mexiko'n ezagutzen da. Emen bizi zala Inkisizioko idazkari izan ete zan diño batzuk. Andik Pilipinas'etara, urte neketsuen buruan, eta oraindik Txina'ra joateko asmotan eldu yakon eriotza naigabe baten ondorenez. Bitartean gerra eta iraultza, odol eta makurtze, aberats eta beartsu.

Il zanean ez eukan dirurik. Zorrak bai. Aberats zalakoan, zorrak agertzean arrituta gelditu ei ziran asko. Ao betez. Mexiko'n eukazan ondasun eta lur asko saldu bearrean aurkitu zan Filipinas'etako jokabidearen arduretan.

Legazpi onegaitik esaten da konkistatzaletatik baketsuena izan zala eta diplomatikoena be bai. Ori be nortasuna da.

Trenak emon dautsa Zumarraga'ri aurrerapen bidea. Eun eta ogei ta lau urte dira lenengo trenaren lanak asi zirala. Orretarako, Zumarraga eta Napparroa'ko muga bitartean, amalau tunel zabaldu bear izan ziran.

Urteei begira, onela dira Zumarraga eta trenaren gora-berak:

1858.- Lenengo gertaerak eta lanak.

1864.- Madrid'etik Paris'erako trena asi zan.

1887.- Mekolalde'tik Zumarraga bitartekoa. Bide estukoa.

1909.- Ordurarte Norteko trena bide bakarrekoa zan eta urte onetan egin eutsen bigarren bidea.

1927.- Urola'ko trena, Azpeiti'tik bertara.

Urte bete geróago, Nortekoari, kei eta txiparrak kendu eta txi-

mist indarra sartu eutsen.

Gaur tren batzuen bultzatzea, indar emotea, eta besteen eriotza entzuten dira. Durango'tik Elorrio'rakoa bertan bera galdu zan. Eta Urola?

Ala ta be trena izango ei da etorkizuneko ibilgarria.

Zer dan Zumarraga?

Len erri txiki bat. Txiki zalako Segura-ren menpean egon zan luzaroan. Arengandik nekez banandu zan.

Gero, esakera da, Lazkano'n egoten zala bertako alkatearen makilla. Orduan Azeria'ko alkatetzaren izenean batzen ziran ingurutako erri batzuk. Zumarraga be bertan sartzen zan. Lazkano'tik zuzentzen eben erri orrean giroa. Lazkano'ko jaunena indarra bitarteko. 1660 urtean lortu eban Zumarraga'k alkarte onetatik urtea. Oraindik be beste baten sartu beriala: Argisano'ko Alkatetzaren menpean. Oraingoan Ezkioga eta Gabiri'gaz batean.

Batuko ete dira Urretxu eta Zumarraga?

Bakoitza berean anai dira. Bizi be familiar. Baiña... la seireun urte ba dira batu nairik asi zirala. Ain zuzen be 1383 urtean. Orduetik ona euri, elur eta otzik ezagutu dabe emen.

Trena egiten asi ziranean be or ibilli ziran sekulako asarretan, lurren gora beran.

Oraintsu be barriri batu naian edo ta alkartu eragin naian, ta ezin konpondu.

Iñun baiño erbestetar geiago dagola Zumarraga'n?


Ala izan lei. Trenerako lanetara etorri ziran asko ta bertan gelditu. Azken urteetan industriak egin daben zabaltze ikusgarrian, esku lanik geiena erbestetik sartu da.

Jente barritze onek urratsa laga eban: gure izkuntza, euskera, ia bastertuta gelditu.

Esaten danez 865 langille etorten dira egunero albo errietatik. Onetan Urretxu be albo erri lez sartzen da. Bertatik beste errietara 480 urten. Onetarako be, jakiña, Urretxu erbeste da.

Eta zumak?

Zumekin lan egiten ebenak, esakera dan lez, joan ziran pikutara. Gaur eztago emen orrelako langintzarik. Izena bera be galdu dabela esan leike. Gaitz billatuko da beste erri bat bere izatean Zumarraga'k egin daben aiñako aldaketa igarri dabenik. 1930'n sartu zan bertan gaur ia erri guztiko lana bear daben sukalkigintza ta or jarraitzen dau.



ARABA ALDEAN

Asparreneko foru anaidi edo kofradia deitzen dautse Araba'n, Mendoza errialdean batzen diran erri txikien artean osotuten daben batasunari. Sasoi baten Anaidi onetan sartzen ziran Ametzaga, Andoin, Araia, Arriola, Egino, Gordoia, Ilarduia, Urabain eta Zalduendo.

Inguru oneitako batzarrak Araian egiten ziran. An dauke uri burua. Asparrena au Gipuzkoa'n be sartzen da. Ba dauka lur zati bat Oñate'ren lurretan sartuta. Gogoratu bearreko da Oñati'ko lurretan, denpora baten, bertako kondeak agintzen ebala eta konde arek euki eban erri onetako alkatea aukeratu eta izentatzeko eskubidea.

Asparreneko Anaidi edo Kofradi au, osotuten daben errien artean, danetara be, bi milla lagun batzen dira.

Gasteiz'tik 30 kmra. egiten da lurralde au, Aizkorri mendi aldera, egal baten Naparroako Ziordia'ri ikututen.

Inguru oneitan ez dogu euskerarik entzuten gaur. Baiña ezin ukatu len euskaldun erria izan zanik. Bere toponimi guztiak ori adieraziten dausku. Gaurkoen berbeta eta esanetan ba dagoz berba batzuk euskal jatorri ondoren ori erakusten dabenak. Baiña euskera galdu eben emengoak, eta ez antxiña. Izenetan bakarrik geratu gaurkoz.

Asparrena gogoratu dogu, emengo Anaidia gogoratzearren. Arabarrak, lengo igandean, lengo domekan, oitura zarrei jarraituz, urteko arabar Batzar nagusietako bat, Araia'n egin eben, Asparrena onetako uriburuan, Maiatzeko Batzar nausiak deitzen dautse eurak olako batzarrei. Aurtengoa San Prudenzioren omenez egiña.

Ori dala ta Araia Asparrena, lengo igandean, jaietan egozan.

Inguru oneitako erririk andiena da Araia. Esan dogun lez, amar erritxoen buru. Danen artean 62 kilometro lautu daukaz. Ingurutako industririk geiena be Araia onetan dago. Esaten dakie Araia, onetan, industrian, Arabako erritxoetan aurreratuen izan dala, bera izan dala Araba'n industri eragintzalea, orretara lenengoz jo eta bestiei bidea zabalduz.

Gíro oneko erria. 605 metro, ítxasotik gora. Milla ta irureun lagun bertan. Asparrena errialdean beste erritxoak azken urteetan bizilagunak galdu ba dituez be, Araia'k irunsi dau ia osoan beste erri orrein atzeratzea.

Burdin meatzak, miñak dagoz bertako lurretan. Urrundik igarten da ketan erri onetako fundisiñoiko tximinia.

Bizia igarten da emen. Lur aberatsak eta beste aldetik, industriak emoten daben bizitasuna nabaitzen da. Burdintegi eta tresnak egiteko olak be ba dagoz, au da, mueblegintza be ba dago. Bai eta irin fabrika be.

Erromatarren denporako agergarri batzuk igarri eta ikusten dira bertan.

Eleiza polita. Kale garbiak eta lauak. Ez da gaitz Araban kale lauak billatzea. Egalean, arri gordiña erakusten, Aratz aitzak. 1.442 metro daukaz mendi orrek, aitz orrek, bere gorakadan. Araba'ko erri askoren bero larri barik, mendi oneitako aizeekaz Araia'n giro egokia egoten da ia urte guztian. Bertakoen esanez, Araba goi alde onetako girorik onena dago bertan.

Gasteiztik Altsatur'a duan bidean, kotxean goazala, Agurain (Salvatierra) igaro ta laster, ezkerretara, Egilaz'ko dolmena billatzen dogu. Ez dauka dolmen onek inguruetan billatu geinken Arriazala'koakin zer ikusirik. Jakingarri da ori. Ba diñoie inguru oneitan geiago be billatu leikezala.

Aurrerago, San Roman-San Millan deiturea irakurriko dogu. Emen Araia'ko bidea artu, alboratu pixkat eta Albeniz erritxoan sartuko gara.

Albeniz au Asparreneko kofradian sartzen dan erritxoa da. Au da, Asparreneko auzoa da. Iñoiz San Millan eta Agurain'ko legeen eta aginduen arabera sartzen zan.

Eleiza polita bertakoa. San Juan. Lautua, kuadrata. Gotiko erako goiak, bobedak. Bertan dagozan irudiak, imagiñak, Pierres Picart'ek egiñikotzat daukez.

Erromatarrak ezaguna eben erri au eta dirudianeaz, Tolomeo'-ren liburuetan, Alba izenagaz ezagutzen dan erria berau da. Origaitik, iñoiz emen billatu izan dituen dotoretasun batzuk, erromatarren denporetakotzat daukez. Orduko izen batzuk be billatu zituen. Ala aldareko arrian.

Emengoak, izenez beintzat, ez dira albeniztarrak deitzen. Ara-

barrak, euroi deitzean, albeizako deitzen dautse. Albeizako edo albaizako, baiña ez albenizko.

Albeniz abizendun batzuk emengo jatorriko dira eta gizon argi eta ezagunak izan ziran. Ala Angel bat, «Perretxiko» deiturazkoa. Onek, bere «glorias babazorras» liburuan, arabarren kantu eta goratze ederrak agertzen dauz. Bere seme izan zan Isaak Albeniz, musikalaria. Au Geronan jaio zan, baiña errialde onetako jatorrikoa.

Araba aldean gabiltzala, eta ez emendik urrun, Agurain'en ondoan, Salvatierra'ren ondoan, erri txiki bat billatuko dogu: Arrizala. Bederatzi etxe. Irurogei bizilagunik ez danetara be, nai ta berrogetamar baiño geitxuago zenbatu al izan.

Federico Baraibar, bitoriar jakintsuak eta ikas-miñak, dolmen eder bat billatu eban erritxo onetan. Bere izenak be zerbait erakusten dau mitologi gaietan: Sorgiñetxe dauka izentzat dolmen orrek.

Aguraingo erriak, Salbaterrak, jai polit bat egiten dau erri onetan San Juan egunez.

Goizeko zazpiretako urteten dabe ango agintariak, zaldi gañetan, eta Arrizala'ra doan bidea, iru kilometro inguru, orrelaxe egiten dabe.


Arrizala'n erri guztia zai egoten da. Erri guztia, bai. Zar eta ume ta guzti. Ara eldu eta Aguraingoak urtero barriztatu nai izaten dabe egun onetan errialdetxo orretan eurak dauken jaubetasuna, erri-aginpidea.

Emengoakaz jardunaldi txiki bat egin ondoren, eta urdail berogarri pixkat artu ondoren, barriro asten dira zaldi gañetan euren errirako bidean. Diñoenez, emengoak pozik agurtuten ditue aguraindarrak. Egia esateko, bertakoen esanez, poza artzen dabe andik biurtzen ikusten ditueanean, norbere bakea, beti be, maitagarri izaten dalako.

Agurain'en, amarrak orduko erria batuta egoten da, bere agintarian zai, eta zaldi gañetan erriko ate zarretik sartzen ikustean, lore txortak eskintzez dautsez zaldi gañekoei.

Oitura au urtero barriztaten dabe.

Arrizala'n ba dago kantu bat egun onetarako eta jai onetarako: jota de despedida a la Vara de la Justicia deitzen dautse. Esa-tea lez, Alkateari agurra.



ARAMAIO

Bizkaiko errietan nabil sarri. Gipuzko aldetik be ibilli naiz. Nabarra'ri be ikutu egin dautsagu Etxarri Aranaz'tik zear. Araba'k ete dau merezi bere erriaren bateri pultsoa artzea?

Goazen Aramaio'ra.

Sasoi baten Bizkai'ko zati. 1489 urtean sartu zan Araba'n. Euskeraz itz egiten jarraitzen dau, bizkaitarra izkelgi edo dialektoan. Bein Gasteiz'ko gotzaiñari entzun neutzan beretzat Aramaio'k kezka emoten eutsala ain zuzen be euskeragaitik. Bertara'ko abaderik ezin billatu ibilten zala. Araba'n dagoz euskeraz dakien abade ugari, baiña Gasteiz'en, eta esate baten, ikutu eziñak.

Bizkaia'ri eta Gipuzkoa'ri ikutu egiten dago Aramaio, Araba'ren ertz baten.

Arrasate'tik gora, Santa Ageda igaro ondoren, laster eltzen da bertara; 8 kilometro inguru. Legutiano'tik (Villarreal'dik) zerbait luzetxoago, baiña aldatz bera. Ótxandio'rako bidea lagata, ezkerra artu ta baso artetik zear, ikuspegi ederrak eta atsegiñak igaroz etorri leike.

Eiztarien toki egoki eta maitea da bide au. Bide ertzetan, us-terik gitxienetan, kotxe ugari billatzen dira, mendi arteko txori bi-deak zaintzen egoten diran eskopetadunenak.

Ingúrutako eiztariantzat Gatzaga gaiñea, Arlaban inguruak eta Aramaio'ko bide au euren egon lekuri ontsuenak.

Arrasaterako bide egokiagoak egonarren, merezi dau ikusgari begikoen arduretan, noiz-beinka bide onetatik ibiltea. Batez be egun argi eta aizetsuetan bide atsegiña egiten da.

Errira sartu. Egardia kentzeko plazan dagon barrera nua. Zeiñenak ete dira ainbeste kopa eta oroigarri?

Erri bakoitzean bertako nortasuna. Emengoak eiztarienak, kazadorienak dira. Ainbat daukaz eta or dagoz, atsegiñez eta arrotasunez erakusten diran pitxi lez.

Ba dauke entzutea eiztariak artzen dabena erakutsi barik erri-rik igaroten eztakiela-ta. Kopak be erakusteko emoten dira. Or dagoz erritarrei poz eta erbestekoei ziri egiten.

Erri txikiak kondaira andia eukiten dabe, batez be gure aurretikoen bizi-bide, jatorri eta oituren arduetan. Origaitik, gaurko era eta jokabideetan nastu aurretik, erri izatearen dokumentu ixillak dira.

Ezin ukatu Aramaio'k euskal odolaren eta jatorriaren ardua zaindu dabenik. 1920 urtean Juan Carlos Gerra'k aztertu eta egiñiko lanetan, ia berreun jatorrizko agiri edo expediente billatu zitun Aginagalde abizenagaz asi eta Zubizarreta bitartean.

Becerro de Bengoa batek sarri ekiazan agertzen aramaiotarren kontu eta jakingarriak. Ba dakizu emengo ollar entzutetsu baten barririk? Gaur be gogoratuten dabe bertako baserritarrak. Azkue'k beste ipuin barregarri bat batu eban. Besigua erre ta gero, senarra basoan egoan bitartean, erre kara ordu luzetan, besigu ori noiz agertuko, bera ezin billatuta. Okurridu ez areri aramaiotar andrak besigu oso bat noiz nai jateko itsuak dirala.

Aramaio'ren jokerako uria, bizibideko erria, Arrasate, Mondragoe da. Ara begira bizi dira bertakoak. Bertatik datorkie irabazpidea. An dauke nai aiña lan.

Legerako joten dabe bakarrik Gasteiz'era. Paperetako bete bearrak zainduteko. Edo ta baserrietako batzuk, egunetan, Gasteiz'ko merkatura. Bestela Gasteiz'erako daukazan 30 km. baiño errezago eta atsegiñago Arrasate'ra.

Aramaio'ko erri burua Ibarra da. Bertara eldu orduko laster konturatzen da bat Mutriku'ko parrokia eta emengoa egitera bardiñekoak dirala.

Erri buru au baso artean egiten da. Aramaio osotzen daben beste erritxoak, auzoak, baillerak, aizetsuago dagoz, euren eleiza ederrak gain gaiñetan daukezala.

Ballerako erritxoak bata bestea baiño txikiago dira.

Arexola, Arangio'ren azpian. Amar etxe? Eztakit. Danetara be larogei lagun inguru bertan. Santa Mañe egunean jai.

Txikiago oraïndik Gantzaga, nai ta batuago izan. Bere antzeko Etxaguen. Zabalago Azkoaga. Anboto'ren laiñoak otza bialtzen dautse sarri. San Joanetan giro egoten da eta ateak zabal. Bertako jaiak dira.

Urruntxoan Olaeta. Auzoetan andiena. Sei km. onak oiñez, Ibarra'tik.

Ballera bakoitzak bere zer-esana dauka. Baraxuen be or dago eta ez ixilik egoteko. Emen egiten ei ziran kontsejukoak izentatze-ko batzarrak. Zerbait esan nai dau orrek. Zarrena dala? Gaur inguru guztietan maitatu dan Andra Mari erromanikua bat bertan. Nun ikusi ete lei amasei etxentzako emen lako parrokia?

Aramaio, bere ballera, toki eta auzo guztiak kontuan eukita be, esandakoen gain sartu baita Unzilla eta Uribarri be, bi milla lagunetara ez da eltzen. Irureun inguru falta orretarako. Lurrez zabal da. Ia Bizkaitik erririk andienak aiña kilometro lautu daukaz lurretan. Bizkaia'n Karrantza eta Orozko izango dira bera baiño andiagoak. 74 km. daukaz.

Gerra aurrettoa zan. Ba ebillan ordun be ikastolen kezka. Eus-kerera sartu nai eskoletan.

Orduko giro eta tekniketari ba ebiltzan ixilik lanean iñardue-nak. Textoak nai ziran, liburuak, eskoletarako gai izango ziranak. Noiz-beinka urtetan eben batzuk.

Bat-batean iñok uste ez eban liburu bat agertu zan: «Pisia». Fisika euskeraz. Praille bat bere egillea. 1935 urtea zan: Beste urte bete igaro orduko, zarata barik, bigarren liburu bat: «Kimia». Kimika. Orduan saillentzat etsiten ziran olako liburu jakingarriak.

Neologiku berba asko? Ulergaitzak? Erderaz erabilten diran itz tekniku asko ezagutzen eta ulertzen ete ditue erdaldunak?

Eztaikit prailleak libururik ordaintzeko aiña atara ete eban be. Gudaldia etorri zan. Berrogei urte eukazan prailleak. Beste liburu baten ba ebillan lanean: Abel-iztia. Baiña laiño geiegi giroan. prai-lleak osasuna galdu eta il zan, 49 urtedun, bere artekoen jakintza miñik eza jazan ezinda.

Gaste il zan Gabriel Jauregi praillea. Aramaiotarra. Olako gi-zonak era dan guztietan gogoan euki bear dira.

Bizka'i'ko euskal teatroaren lenengo lana Aramaiotar batek egiña da. Mondragoetar lez ezagutzen dabe askok Pedro Ignacio Barrutia, baiña Aramaio'ko Ibarra'n jaiotako 1882 urtean. Eskribadu lez egon zan Arrasate'n.

Bere «Gabonetako ikuskisuna» polita da. Bear ba da sasoi aretan ainbeste ezagutzen ziran erderazkoen tankeran egiña. Bi-gun, gozo et ariña dala, ulertu ezin leiken zerbait igarten da. Ze-gaitik Barrutia'k tartean sartzan ditun kantuetan erderazkoak au-keratzen ditu? Ez al zitun euskaldunak ezagutzen edo ta erreztasunagaitik egin ete eban ori? Dana dala, «Euskalzale»n agertu zan lan au 1879 urtean. Baiña oraintsurarte ez dau euki zabaltasunik.

Gaur asko dira antxiñetako lanak irakurtean, Barrutia'ren lan au gogoz eta atsegiñez irakurten dabenak.

«Aramaio, suak erre azala,
zerren zeuren jauna ez zeukan enpara»:

Alaxe kantaten zan 1448 urtean Mondragoe erre zanean.

Zer egin ete eben aramaiotarrak? Abendañotarrei itaundu. Lope Garcia Salazar'en «Bienandanzas e fortunas» irakurri. 1337 urtean, Joan Abendaño, Martin'en semeak, Pedro Abendaño, Fortun'en semea, Aramaio'ko jauna il eban, alkarregaz bakarrik eiozala, izkillu bat lepotik sartuz. Arratia'n geiago agintzen ei eban, nai ta bere urrengo izan. Andik laster Joan orrek beste bat il nai izan eban. Iltzakotzat laga ta bizi zala jakin ebanean, esakera au esaten ei ekian: «Ome villano no lo matará fierro, sino mazo de ferrería».

Abendañotarrak oroitza illuna laga eben Aramaio'n. Baiña Mendiola batek tatarrez bialdu zitun.

Jaun au erbestean ebillala jakinda, Abendañotarrak torrea erre eutsen. Norbaitek jakin erazi eutsan Mandiola'ri. Bere gizonekin agertu ta... irakurri Abendaño'ren aotan ipinten diran orduko bertsuak:

«Oñetako lur au jabilt ikara,
gorputzeko lau aragiok bezala.
Oi aldi oneri albanegi enpara
berriz enendorke Aramaio kontratara.


Esan eta izan bardintsuak dira, baiña ez bardiñak. Origaitik barriro, urte bete orduko, or ebiltzan burruka itzaletan. Ez arritu ba atal onen asieran aitatu dogun Aramaio'ren aurkako biraua. Aramaiotarrak erreta egozan jauntxoen burruketan.

Ez belarri oneko, baiña musika zalea naz. Bigarren abots zoli edo tenorren paperak ezin abestuta luzaro ibillia. Nire makaltasun oneri be onik ez neukio eragingo, Aramaio onetan Goikoetxea tar Bixente bat grjgoratuko ez ba neu.

Inguruak egiten ei dabe gizona. Abinagoia, Anboto eta Arangi'ko mendi eta arkaitzen anditasun eta itzaltasunak, Urkiola berberaren fedea, eta Deba errekan sartu aurretik inguru onetatik dabitzan Alzaga, Aramaio, Etxaguen eta Zubiandi errekatxoetako ur garbien zurru-murruak zerbait sartu eutsen bertoko seme jator areri.

Aren eleiz kantak, Meza eta Miserereak batez be, entzute andia emon eutsen gure parroketako koru askori. Benetako sentimen eta edertasuna euken bere lanak.

Ba goaz bere oroitzez, gaurko bidetan be biotzei ikututen jaikingo eban ziurtasunez.



GASTEIZ

Zuluetatarren etxean gordeten dabe J. Saez'en litografi jakin-garri eta ikusgarri bat. 1841 urtean egiña da.

Arabar aldun bat, diputadu nausi bat, bere zeregiña artzera-koan, zin (juramentu) egiten ikusten da, bere eskumako eskua Gasteiz'ko Matxetaren gañean ipiñita daukala.

Jaungoiko gure Jaunari eta Andre Mari bere Amari, lau Eban-gelio santuen itzen esanetan, eta eskumako eskua bere gañean ipinita daukazun Gasteiz'ko Matxetaren lotsa eta bildurrez, zin egiten dozu aldun nausi lez bete-betean eta zintzotasun osoz aldeztu eta zainduko dozuzala erri onek daukazan eskubide, azkata-suna, zergarik-ez, eta bereizkuntzak?

-Zin egiten dot.

-Orrela egin ezik Jaungoikoak kontua eskatu eta zure burua ebagi daitzula, zure eskua bere gañean ipiñi dozun Matxetaren antzeko galtzairuzko txarrantxaz.

-Zin egiten dot.

Olaxe jokutzen eben arabarrak euren eskubideak zaindu era-giten, gizonaren kontzientziari deika fedearen maitasunez eta zi-gorraren bildurrez.

Gasteiz zarrean an dago Matxetaren plaza.

Kondaira luze eta bizia. Isteri zar eta garratza. Danen gain, gi-zonaren eta erriaren eskubideak.

Gogora dakarkit onek XII garren gizaldian arabar Errioxa'ko foruen zerbait. 1 165'ko Laguardia'koa gogorra da eta zeatza. Gaurko pentsakera eta bizikeran ez sinistutekoa. Gogorrak diran lez gure errien iraspen edo fundasiñoetan agertu, erakutsi, emon eta artzen ziran eskubide, nortasun, jabetasun eta altasunez. Ba-koitza bere etxean jaun eta jabe zan. Bete-beteko nortasunez. Iñor ezin sartu eikean bestearen etxean indarrez, edo maltzurkeriz. sartzen zana illagaitik etxeko jaunak ez eban bere gain artzen gizon aren eriotzik. Gizonaren eskubideak zaindu eraziteko baimen gogorra, zabala.

Olakoetatik etorri eikean gazteiztarrak geroago matxetaren bidez eskubideak zaindu eragiteko agertu nai izaten eben pentsakera eta bildur sartzea.

Norberetasuna da danen gain.

Gasteiz euskalduntzen?

Joxe Lasa'ren lan polit bat irakurri neban oraintsu asteroko onetan. Itxuraz, ango bar edo edango baten, itxaropen oneko ardaua artu al izan eban berak.

Baiña noiztik ez dagoz Gasteiz'en euskaldunen bar eta eden-goak?

Eskoritza, Arexabaleta, Aramaio, Otxandio, Arrasate, Gatzaga eta ingurutako andra-gizonak dira ango edari-etxe eta jatetxe askoren jaubeak eta arduradunak. Ba dogu euskaldunok era orretako bizi-modua aukeratzeko zaletasun eta oitura. Gaztelarrak «koloniales» dendari izateko jokera daben lez.

Gasteiz'en euskeraz egitea ez da ain gaitza. Esan nai dodana, euskeraz jarduteko laguna billatutea ez da ain zaila. Ni-neuk, asko ibili ez-arren, ainbat ezagutzen dodaz erri aretan euskeraz dakienak, olako tokietan. Baiña norberak ten egin bear, norberak beartu bear askotan.

Lasa'ren lanak beste zerbait esan leike. Mostradore atzean gorde barik, gaur jaubeak eurak dei egiten dabela edo ta laguntzen dabela an euskeraz egitera, edo ta erakutsi nai dabela an euskeraz egin leikeala. Ala dala, nai eta bereziren batek erregelarik egin ez, poztutzekoa da.

Lengo matxeta baiño atsegiñago da Errioxa'ko mustua gizona makurtzeko eta menderatzeko. Eta guk, onetan, makurtu bear dogunik ezin ukatu.

Gasteiz'en sartu, euskera aitatu eta Olabide bat izentatu barik basterren lagatea, ez litzake egoki.

Orra arabar jator bat. Arabarren osotasun eta beretasunez. Jaio zanean, ez ekian euskerarik.

1 959 urteko udabarri aurretikoan, Olabide'ren omenaldi bat egin zan Gasteiz'en. Ondarrutarrak an izan giñan teatro jai bat emoten, jaia beteten. Euskeraz, jakiña. Antzokia, teatro-lekua, bete.

Gogoan daukat Aita Goanaga'ren itzaldiko zati bat. Iru jesuita Orduña'n ebiltzan. Ibili, atsedean orduan. Euskeraz berbetan. Emakume batek entzun eta arrituta:

-Euskeraz berbetan?

-Zegaitik ez?, erantzun Olabide'k.

-Emen Orduña'n, sekula egiten al da ba?

-Emen eta nun-nai. Jakin egin bear orretarako.

-Jakin! Emengoa ez da izango ta, ala bai!

-Ez. Gasteiztarra naz.

-Gasteiz'koa eta euskeraz? Ba! An ikasita ez beintzat.

-Egia. Ba dakizu nun asi nintzan euskeraz ikasten? Valladolid'en. Eta gero Salamanca'n sakondu eta Galicia'n geitu.

Andrea «sursunkordan» geratu ei zan, entzuten ebana sinistu ez nairik, baiña ori zan egia.

Eta gero, ikusi bere la'nak:

«Giza-soña»

«Loyola'tar Eneko deunaren gogo iñardunak»

«Kristo'ren antz bidea»

«Itun barria»

«Itun zar eta barria»

Ez joan urrun bere billa. Gaur bizi ba litz, edo obeto esanda, gaur bizi izan ba zan, 1 05 urte eukiko zitun.

Bizi ba zan. Ori egia. Bizi leikean. Ez arritu. Araba'n bizi leiz urte orreik eta geiago be. «Memorial Histórico Español» en irakurritau daukat: «En el puerto de San Joan, como vas de Salvatierra para Victoria, se hallan yerbas salutíferas... En este puerto hay un lugar donde los hombres viven mucho y algunos llegan a ciento veinticinco años». Orra arabarrak. Eta Olabide arabarra zan.

«Orixe» zana beragaz gertatu zan urte batzutan Lagundian, jasuitetan. Eta arek esaten ekian, Olabide onek Azkue'ren iztegi osua iruntsi ebala bere ikastaroetan, dana buruz jakiteko bestean.

Merezi ete eban gazteiztar onek gaur gure oroitza au berari eskintzea?

Bizet'ek musika ipiñi eta opera entzutetsu biurtu eban «Carmen», Merimée paristar nobela egilleak idatzi eban. Idazle onek euskeraz ba ete ekian? Ala dirudi. Baiña nun ikasita?

Atsegin izaten eban berak ijito arrazokoak agertzea. Bere «Carmen» ek be ba ekian euskeraz. Euskeraz ekialako mendetu eban Joxe, elizondotarra, Sevilla'n soldadu egoala. Bera, Carmen, Etxalar'koa ei zan.

Gasteiz'ko oroitza onak daukaz Merimée'k eta ain zuzen be

euskera kontuan.

Egun baten Montijo andre andiari idatzi eutsan: Atzo, Gasteizko kotxea, menditar eta Bizkai aldeko emakumez beteta etorran. Bata bestea baiño ederragoak. Euskeraz arinkeri batzuk esanez, eurekin artu-emon on eta atsegiña euki neban.

Oraindik aste bete geroago be, Baiona'tik egindako karta baten: Gasteiz'en dagozan neskatilla serbitsariekin euskeraz polito ikasi dot.

Orra nun ikasi eban euskera erbestetar batek, beste askok aaztu edo bastertu eben lekuan.

Gasteiz'en barruan egiten da gaur Armentia. Iñoiz Armentegi. Burdeos'tik Astorga'rako erromatarren bidea emendik igaroten eizan. Araba'ko lenengo obispoak emendik datoz, Ustez IX gizalditik asita. Bertako eleiza XII'koa. Eder eta ikusgarri. Arabarren zaindaria, Prudentzio deuna, goratzen da bertan.

-Estibaliz ete da Araba'ko monastegirik zarrena?

Araba'n, zarrago, Añes, Ayala'ko lurraldean. Bere denporetan San Millan'go fraileak serbitzen eben. 804 urtetik ezagutzen zan.

Estibaliz X gizaldikoa da.

Bi atzerago sortuak, Alberniz, Aperregi, Barika, Bolibar, Mardaria, Mañarrieta, Zuya'ko Oro eta abar. Euskal izenak, istorirako.

-Oraintsu Gasteiz inguruko Aberasturi'n nitzan. Erriaren izena, etxetako bizilagunen izana? Leike. Bertan beeuskal izeneko etxe eta tokiak. Euskera garbian ipiñiak. Ai, onetan, izenekin izana txalotzeko ba gengokez!

Zein gogoratzen da gaur Abendango, Adurzana, Arrarain, Zarriko-uri, Sasoeta eta beste erri txikiekaz? Gasteiz'ek irunsi zitun. Gasteiz bera, gaur, Vitoria'k aztu eragin dausku. Bizi legea? Niretzat mingarriena irakurle askori esan bearra ni ikusten nabillan Gasteiz'au euren Bitorixa dala. Askotan izenik be ez dogu gorde.

-Gasteiz'tik Miranda'rako bidean, Castilla kalean, etxe'zabal bat dago. Euskal izena dauka orman: Etxezarra. Iru balkoi. Egaleko baten: Hic Napoleo I Imperator habitavit: Anno MDCCCVIII.

Ala ta be Napoleon'ek emengo oroitza onik ez eban eroan. Ain zuzen be inguru oneitan, Errekalegor'ko zubian laga eban errege kotxea bere anai Jose'k, eta zaldi gaiñean al ebanik ariñen igesi.

Gasteiz'ko kontu barrian beste baten esatea leike. Gaur, arinarin, gure oroipen batzuk esateko estu ibilli gara.

Gu gazte giñala, eleizgizon eta soldaduen erri. Besterik ez zan ikusten: Kuartelak eta eleiz gizonen etxeak, konbentuak. Soldaduen lekuak eta eleiz gizonen etxeak, eleizak, konbentuak, Euska-

lerriko abadien seminario nausia bertan egoala.

Eta abadetxea bera, barria egin zanean, Gasteiztik urrun geratzen zan, erritik kanpoan eta beti alaxe izango zalakuan.

Gaur, Gasteiz, ordukoak ezagutu be ez dabe egiten.

Orduko lagunak...zenbat ziran? Gaur berreun milletara eldu dira. Eta bost barru, beste 50 milla izango ei dira. Ala diño, uste-gabeenak diranak be.

Begi zorrotza euki eban Gasteiz'ek, industrirako tokiak era-tzean. Ba dira 25 urte orretan alegindu zala. Estaduak anditzeko ta zabaltzeko asmoak eta bideak zabaltzen asi baiño len.

Araba'ren kaltez?

Onetan esan giñei, bear ba da, toki gitxitan ikusten dan buru aunditzea igarten dala emen.

Arabako erriak lengoan dagoz. Agurain eta Laudio kenduta, eta neurri beragokoan Amurrio, Araya eta Oion, besteak bardin samar. obeto esanda, galtzen.

Baiña Gasteiz aurrera dator. geldi eziñean. Eta amar urtean eun millatik berreun millara eldu da eta beste bost urtean beste berrogetamar milla geitzeko bidean.

Anditze onek buruauste sakonak dakartz. Beste tokietan baiño gitxiago igarten diralako, onetan Gasteiz aurreratu dalako. Leike.

Baiña kontuz...

Len iñorí emoteko lain ur eukan Gasteiz'ek. Or Bilbo, arabar urekin baliatzen. Bilbo eta inguruak. Gaurko anditza sasoiz igarri baleu, emongo ete eutsan Arabak bere uren gozotasun eta busti-tasuna beste errialdeen bateri? Segurutik ez. Gasteiz bera dago gaur egarri, premiñetan.

Beste buruauste bat: Irakaskintza. Len beti ezagutu izan da Gasteiz onetan aurreratu lez. Iparraldeko Atenas be deitzen eus-ten batzuk. Bere erriarentzat, len eukan erriarentzat, ez eukan onetan faltarik. Baiña bat bateko geitze onek, ez dau geitzerik euki onetan. Eta gaur, Gasteiz, irakaskintzan erdi maillan dabjltzen errien parean gelditu da. Orra, ba, beste buruauste bat.

Geiago: Etxeak. Gasteiz'en etxe barri asko ikusten dira. Alder-di batetik nai bestetik begiratu, etxe pilloak ikusten dira, oraindik zabaldu eta bizitzarik ez dauken etxeak. Baiña Gasteiz'en be lu-rrak dirua balio dabe, eta etxeak langilleen irabazien gain dagoz.

Langilleentzako etxeak falta dira. Amar milla bearko ei dira, amar milla, beste bost urrengo urtean.

Orra ba, Gasteiz, len txiki eta zabal, eratsu eta baketsu eta batu, eta gaur gora begira, etxe luze ta merkien premiñan.

Arabarrak jai egiten dabe, Armentia'ko San Prudentzioz.

Armentia, iñoiz Armentegi be irakurten da. Bizkai geiena bertako obispadutzan sartzen zan IX ta amargarren gizaldian. Alfonso VI'k Araba artu ebanean, arabarrak asarre agertu ziran eta batzuen esanetan, arabarrak euren euskal izatea agertu ta erakutsi ebelako, kendu eutsen Armentia'ko obispadutzari bere nortasuna. Orduan Armentia Calahorra'ko menpeko Colegiata bat lez gelditu edo laga eben.

Garai baten, sasoi baten, prailleak eta gotzaiñak be, obispoak be, erdi soldadu izaten ziran. Euren lurraldeak eta andinaikeriak zaindu nairik gerratan ibilten ziran. Emen Armentian, obispo bat bere menpekoak il eben. 1 146 urtean. Fuñes ko Santxo zan bere izena.

Gero etorri zan Armentia'ren maitale bat, Armentia dotoretu eta txukunduz batera, bakeak egiten jakin eban gotzain bat. Cascante'ko Errodrigo. Baña berea il eta barriro be gorrotoaren eta alkar ikusi eziñaren garra biztu zan ta Armentiak bere izatea galdu.

Eun eta amar urte dira barriro obispadutza lortu zala errialde onetarako baiña ez Armentia'ren izenez, Gasteiz'en izenez baiño.

Armentiakiko San Prudentzio goratzen danarren, eleizak San Andres'en izena dauka, bere omenez jaso da.

Ain zuzen be len aitatu dogun Cascante'ko Errodrigo gotzaiña izan zan bera jaso eta anditzen alegindu zana. Eta orain berreun urte, zeatzago izateko, ain zuzen be datorren urtean berreun urte barriztatu ba zan be, gaur Euskalerrian ezagutzen diran erromaniku erako eleizarik jatorrenetakuena da.


Bide nausitik pixkat aldendu egin bear da bera ikusteko, baiña arte zalea danak ez dau damurik artuko bera ikusteko.

Aste onetan arabarrak an batu izan dira.

Arabar jatorrak, ilusiño andiz ospatu dabe San Prudentzion egun ori, Armentian jaiotako santu orren egun ori. Eta ain zuzen be badauke ortarako jaki berezi bat: udabarriko zuzak edo ta San Prudentzio'ko zuzak jateko oiturea dabe egun orretan.

Guk, gure ekiñaldi onetan, sasoi baten gure errian obispadutzaren buru izan zan erri augoratu izan dogu eta arabarrei gure eskua luzatu, aste onetan, anaitasun berezi eta sutsua agertu.

Gaiñera gaur, Gasteiz, Euzkadi'ko jaurlaritzza, legegintza eta lendakaritzaren uri-buru dogu. Len gotzaiñen bidez, orain agintarien indarrez, Gasteiz'ek beti euki dau nortasun berezi bat euskaldunon zuzenbideko gidaritzan.



Aoitz'era joan izan naizenean Lumbierdik zear joateko aukera billatu izan dot. Iruña'tik Oska'rako bidean Liedena baiño len-txuago Lumbier'erako bidea artu eta emendik Artieda, Artajo eta Ekai'tik zear Aoitz'en sartu. Obeto esanda Agoitz'en.

Bide erreza, erri zar onetan sartzeko. Naparroako erririk zarre-netarikua da berau. Erria bera ikusgarria. Arrizko etxe ederrak. Da-\nak ez-bardiñak. Erri gitxitan ikusten diran lakoak. Arku dotoreak. Ate lodiak. Ainbatek daukez armarriak, eskudoak. Erri zarretan oi ziran kale estuak batetik bestera. Kale luzeak. Inguruetan, etxe ba-rriak egin izan dira, eta ez gitxi, baiña ezin kendu zarreri euren nor-tasuna, izatea eta jatortasunik.

Beietan Irati erreka, ibaia, ur gordin garbiekin dua.

Gora datorren erria da Aoiz.

Gizaldi onen asieran 1.1 20 lagun. Gaur bi millatik gora. Bos-teun famili batez beste.

Lurrez ez da aundi. 13,5 km². Gaiñetxo baten egiten da erri burua, etxe tokia.

Erromatarren kutsuzko zubi ederra erriko sarreran, Ondarroan ikusten doguneran antzeko.

Eleizak gaztelu bat dirudi.

Antxieta gipuzkoar taillugille trebe, jator eta ertilariaren eskua igarten da emen. Camon Aznar'ek ikusia da eleiza au eta bertan

lako arte lan ederrik, gitxi ikusten dirala esana da. Arrigarri da tailugille batek ainbeste lan egitea onelako erri baten. Baiña argi dago bere eskua. Eleiza, XVI gizaldian egiña edo anditua da. Ordukoa da aldarea bera.

Bataiotako ponteak XI garren gizaldiko dala uste da. Lengo parroki zarren bateko ete? Arrizkoa. Irudi bizi eta ondo landuz inguraturua. Diñuenez, Naparroa'n ez dago beste onelako urontzi bat. Kapitela be ederrak ikusten dira, lan baliotsuz.

Inguruetan dago Gendulain'go San Roman zarra, Aos'ko bi-dean. Nabarra'ko don Pedro Markesak eta Lerin'go kondeak eleiz onetan izenpetu eben euren artean egindako bakea, 30 urtetan itsukeri eta gerratan ibili ondoren. Agramontesak eta beamontesen giroa, gerrak ziran sasoi aretakoa.

Inguru oneitan egon zan beste ermita jator bat be: Zarrulibar'ko Salvatore. Gaur ez da geratzen eleizaren arrazturik. Lurra bai, ondasunak bai. Monastegi au, batzuen eritziz, XI garren gizaldian ba egoan. 1042 urtea be izentatzen dabe bere asieratzat.

Sasoi baten onelako ermitan zaindari bat eukiten eben: ermitañoa. Eta jakiña da Nabarroan egozanen artean onek beintzat oratarako baimena euki ebal.

Naparroako legeetan 60 monastegi edo ermitak eukiten eben ermitañoa eukiteko eskubidea eta onek euki eban.

Kanposantu inguruan egon ei zan beste bat: san Joakin. Gaur zimenduak bakarrik.

Ba dago langintza, industria Aoiz'en. Origaitik dator gora. Len ardaa be artzen eben emen. Konturatu ziran bertakoak ortik ez eukela irabazi andirik eta geienez kendu eben.

Alkool fabrikak ba dagoz. Egurak euki eban bere aldi ona be. Irati elkarteak ezaguna izan da beti inguruotan. Gaur be, barrero, ba dirudi egur arazo au indartu nai dabela. Tresnagintzan aufrera doaz, au da, mueble giñan. Ontaroko ba dagoz iru edo lau toki. Orrez gañera kautxoagaz be lan egiten da emen. Eta sedazko jantziak egiteko lantegiak be ba dagoz.

Ikusten danez, era askotako langintza, industria batzen, nai eta industri txikia izan.

Sasoi baten Erronkariko eunak, pañoak, emendik urtetan eben eta orretarako bertan ezagutzen ziran pañulari maixuen tituloa eukiten ebenak.

Aoiz erri langille dala, ba daukaz beste egokitasun batzuk be, beti be bere bizitasunean laguntzeko. Inguru andi bateko juzgadura ementxe dago. 62 erritako epaikeritza edo bakezko juzgadura buru egiten da erri onetan. Errialde edo komarkal izenen

gaur ezagutzen diran erakuntzako bi bertako menpetasunean jausten dira.

Luzaide'tik asi, Abaurreak eta Aezkoak sartzen dira errialde baten. Sangotsa'ko errialdekoak be bertara jo bear izaten dabe, Otxagabi muga dala. Orrela ba, inguru oneitako guztiak bertara jo bear izaten dabela, ia 50. milla bizilagunen juzgadutza alkartzen da emen eta lurrez ia iru milla kilometro lautu bertan sartu. Nai ta ez, ainbat auzi eta orrek, besterik ezean be, askotan norbere kaltean be, erriaren ezaupidea erakutsi.

Aoiz'era sartu eta bereala pelota toki eder batek ten eragiten dau. Aukera guztiz ipinitako pelota tokia. Sarratua. Argia eta zabal. Inguruetan patxadazko jarrileku atsegiñak eta guzti. Zenbat errik ez ete leukie eskatuko orrelako pelota toki bat?

Orman, Naparroa'ko ikurdiaren agergarri andi bat, kolore gorri gorria ondotzat daukala. Berago izena: «Toki eder» eta urtea 1968.


Toki eder izenari begiratu eta beriala datorkit euskeraren zirikada. Zetan ete dago emen gure izkuntza zar au?

Batari itandu eta besteari galdetu: Arrazturik ez. Ez eta berba bakarrik be. Eurak iñoiz, eurak konturatu barik erabilten dituez izen batzuk. Tokien eta lurren izenak, eurak be askotan erdal kutsua emon eta sartuta, eta kittu. Orixe da emen gure izkuntzari buruz esan geinkena. Esaten dabena be konturatu barik eta naiz eta Mendiburu edo Isaba-aldea edo Errekaldea esan, izen onein esan naiaren sentidu barik.

Ori da, garbi esateko, emengo giroa. Irureun bat ume dabiz bertan eskoletan. Ezin ukatu ezaupide pixkat sartu leikeanik. Besterik ezean, ezaupidea.

Zaar bateri itandu dautsat ia emen ostiraletan egiten diran merkatuetan ez dan igarten iñor euskaldunik, euskeraz dakianik agertzen ez ete dan. Bere erantzuna: Nori itanduko dautsagu? Danak txapeldunak dira, bai, onera agertzen diranak. Baiña txapelak barbarik egiten al dabe?

Bere esan naia norañokoa dan, ez jakin. Guk entzun ala. esaten dogu.



ALTSATSU

Idiazabal'dik Etxegarate'n gora igo, goiak artu, oraindik Idiazabal'go gaztaiak saldu eta erosi leikenaz konturatu, ostatu-etxe polit eta txukunak aurrez aurre ikusiz jarraitu, Zegama'rako bidea eskumalara laga ta aurrerago, napar mendietako pagadi eta arizti bete eta sakonekin konturatzen asi orduko, bide egaleko landa baten, ezkerrean, ermita txiki bat: Ama Birgiña Erkudengoa.

Ez andi ta ez txiki; ez dotore ta ez jausi; bide egalean ez ba lego, ardi txabola itxuran, orra altsatsuarren zaindariaren ermita.

Ama Birgiña Erkudengoa
elurretako zuria,
esku baten iguzkia ta
beste eskuan euria:
ark guretako gorderik dauka
egoki zaigun guztia.

Emendik erri burura oraindik bide luzea dago, baiña beste denporatan, legorte aldietan, altsatsuarrek pozik eroaten eben errira, otoika eta eskariz, mesede premiñan eta ain zuzen be mesede orren emontzalle lez dauke.

Altsatsu.

Zegaitik lurra ugari daukan erri baten, erriaren zuzentasun eta txukuntasunari, erriaren kale eta etxadien jokera, tankera, estilo, argitasun eta egokitasunari geiago begiratu ez?

Ba dirudi Altsatu'n, erri erakunde kontuan, urbanizazio kon-

tuan, buruauste eta ostoporik egon ez dala. Bakoitzari nai ebana eta al ebana egiten laga. Orrela kaleak bkertu egiten dira eta bideak estutu, kantoiak kurutzetu eta ikuspideak laburtu, arau barik eta neurri barik egiñiko etxadietan eta euretatik urtendako kaltetan.

Alderdi bat, eleiz ondoa, au da, alderdi zarra, dotorea da, zabalaa, euskal kutsuzkoa. Bestea, alkarren gain edo alkarri lotuta, birtarte barik eta egokitasun barik.

Orra Altsatsu, Naparroa'ren sarreran, errege bidearen bidekurutze eta tren bidearen eratzalle, edo obeto esanda, tren bideen korapillo.

Euskal izenak barretan, edari-etxetan; euskal abizenak denda edo saltokien izenetan, jaubeen nortasuna eta jatorria erakusten; banaken bat kantoien deiturretan... Eta euskera?

Emengo baten eriotza gogora datorkit. Andreak ez ekien euskerarik eta bera trenetako langille bat zan. Zartzarokoa artu ondoren, baketsu bizi zan errian, diabetis baten zorabioetan jausi zan il aurrean, eta euskeraz berbetan ilten ikusi neban. Berak, ain zuzen be, umetan ikasiarren, denpora luzeetan itz egin edo berba egin ez eban izkuntzan.

Baiña zenbat altsatsuar jator Altsatsu'n, sortzez eta odolez emengo jatorrikoen odoleko?

Iru milla lagunetan ibiltzen zan Altsatsu orain berrogei urte, gerra asi inguruan. Ordurako tren-bideak erbestetarrak erriratu zintun. Gaur zortzi milla lagunez biribiltzen da eta geitzeko asmotan. Irurzun'erako bidean lantegi barriak igarten dira.

Ordez, euskerearentzat, zaarren gogo eta guraria, norbaitsun ametsa, eta ikastola txikian banakak ikasi leikena. Oroitza. Gomuta bat. Kontu egin, eleizan bertan, gauza andi lez, ozta ozta San Iñaxioren martxa edo kantu zarraren itzak entzun izan dirala edo ta Erkuden'go Amaren kantuaren zatien bat eta or amaitzen dala euskeraganako lotsa eta berak zabaltzen daben durundia. Eriotza etorri bear, nire lagunarekin lez, galdu dana gogoratzen asteko.

Ez dauka baso asko Altsatsu'k.

San Pedro egun baten, kanposantu ondotik bide bat artu, basoan sartu, ordu erdi inguru oiñez egin eta arbolategi sakonean, ermitatxo batera jo gendun.

Ate bi daukaz ermita onek. Urdiain'goak erabilten dabe bateko giltza eta Altsatsu'koak bestea. Orra jaubetasuna erdibitzeko era bat, gure aitonen jakituri zurrean.

Ermita onek aldare maia Urdiain'en lurretan dauka eta beste toki guztia Altsatsu'ko lurretan. Origaitik erri biak jaubetasun billa

ibilli ziran eta asarre eta urduri. Alkarregaz adiskide izan edo jarraitzeko, erdiko bide bat billatu eutsen: San Pedro egunez, altsatsuarrak batzen dira bertan eta urrengo igandez, domekaz, urdiaindarrak. Emen ezin esan nire erriko esakera: Ondarru eta Murriku, idiak idia arkitu. Emen egokiago litzake beste olako bat: Altsatsu eta Urdiain, San Pedro goratzeko bata bestian zain.

Jai polita egiten da egun bietan. Zortzikoa dantzatu eta erriaren kontura egarria ardauekin asetu.

Eleizáren orman, ate gainean, erderaz, esakera au irakurri leike: «Zazpireun eta amazpi garren urteko Urtarilla'ren 20'an, San Pedro'ren izenez ezagutzen dan Burunda'ko araneke eleiz onetan, Gartzia Ximenez bat gantzutu zan Napparoa'ko lenengo érrege lez. Il garren Gergorio Aita Santuak urte berean ziurtatu eban aukeratze ori, artxiboetan gordeten dan Bula'n ikusi leike-nez, Eleiz au 1 647 urtean barriztatu zan».

Otadi'ko Kristo ezagutzen?

Altsatsu'n, egia esateko, Erkuden'go Ama ez da erri osoan zabal. Baiña Otadi'ko Kristo au...belauniko agurtzen da. Esan eta esateko aren ala, aren lotsa eta aren begiramena.

Kanposantu onduan dago. Ille ondoan, illak biztuten dakialako. Orain irureundak urte, San Roman eta Gaintza abizendun Martin umetxea, urte bi bakarrik eukazala, gaixo egoan. Seme bakarra zan eta nekez lortua. Il zan.

Egun orretan ain zuzen be Altsatsu'ra eldu zan santu entzuteko Fray Juan, karmelita Anai bat. Gurasuak beregana urreratu yakozan, negar uluka, eskale. Bizi eragiteko bitartekotasuna eskatzen. Fray Juan'ek, adoretuz, Otadi'ko Kristo'ren aurrera umetxea eroateko agindu eutsen, baiña mirari itxura kentzeko, oraindik il barik egoala-ta. Ez egozan orretan gurasoak.

Otadi'n, erri guztiaren aurrean, otoitzean umetxo bat egin ondoren, sagar bat jaurti eban eleizan zear eta umeari sagar a batzeko agindu. Eta erri osuak, arrituta, umea jagi eta sagar billa joaten ikusi eban.

Orduko gora-bera orretatik datoz kanta oneik:

Zeruetatik etorriya da
maitasunez beterik
gure Altsatsu'ko Otadi'en
dagon Kristo besuak zabalik.

Juan Fray Santubak bota izan zuen
sagarra ermita barrena,
Juakin San Roman bizturik
lasterka juan zan argana.

XVI garren gizaldiaren bigarren zatikoa da Kristo au. Ederra benetan. Pizkunde girokoa. Aldare aurrean daukan burdin sare edo erreja be, baliotsua.

Milla ta irureun famili batzen dira gaur Altsatsu'n. Zortzi milla inguru bizilaguneta'n. Erri barruan geienak, danak ez esateagaitik. Amezti'n eun eta berrogetamar inguru eta Ibarrea'n 30. Urrunago, Sorozarreta'n, bost etxeak osatzen dabe auzoa eta 20 lagun bertan.

Erreka bi, emen beintzat ur garbiz: Alzania eta Burunda. Azken au, gerotxuago, izena galtzen igarriko dogu eta Arakil'en sartu eta batu.

Irakaskintza, lenengo maillakoa, ondo. Bigarren mallako Instituto bat dago, ez andia, baiña bai orain dabilzan irureundak ikas-lentzako egokia.

Baso eta arritzetatik datorren industritik asi eta kautxo, plastika, burdin eta abar, ainbat lantegi billatzen dira bertan. Ez andi, egia, baiña bai esku biar eske.

Milla eta seireun langille bizi dira bertan. Trenean dauke ogibidea batzuk, beste batzuk Olazaguti'ko zemantagintzan, esandako industrietan geienak, eta oraindik ba dira Olaberri, Beasain eta Zumarraga aldera joan bear izaten dabenak.


Altsatsu geitzen dator, inguru guzti onen parean.

Erriari, bere tajuz esateakoari, len ikutu dautsagu. Parrokirik ez dogu aitatu eta ikusgarri da. Ez dira urte asko barriztatu zala. Ikusgarri da gaur. Orretan ez dautsagu akatsik billatuko.

Trenaren geltoki inguruan prailleak dauke euren etxea eta eliza. Eliza pobrea, baiña maitatua.

Errian, beste gauzen artean, pelota leku atsegiña. Lagun arteko kafe etxeak, eta gaur ainbeste ugaritu diran jai edo atsegin tokiak. Onetan, Altsatsu'n, eguneko egokitasunari ez dautsa leporik emon.

Euskeraren garra...ikastolei lagata dago. Ba dauke emen Napparroa'ko Aldundiak gartsuago lagunduko dautsen itxaropen eta ametsa.



ARAKIL


Ames gartsuz jo neban Arakil,
bertan sartu ostatuz
erri maitea ospatuz,
ta eztakit zelan enitzan penaz il.

Naparrua
ba ete dua
arin eta urduri,
gaurko modaen irudi,
bizia galduz, txikitzen,
napar kutsua «minitzen»?

Penatan lotu nitzen.
Ta jaiki,
otsean;
ta begira
airean;
ta arnas,
betean;
ta ames...
pozean.

Gero ta andiago da Aralar,
nai ta pausoak maiteago Etxalar;
Gero ta biziz beteago Urbasa,
aritz eta pago zaarren arka;
izena zainduz or dago Andia,
laiño zurien txapelaz jantzia!

Ta batera jo
ta bestera so,
or dago Agoitz,
Orreagan inguruetan,
lan eta bits;
or dago Lizarra,
naparlegeen
kutxa zaarra;
or Muskari,
etxeak ikurdi,
odolaren kantari;
or Tafalla
gari ta ardo
bizi sailla;
ta or Iruña,
zaar eta berri,
napar gogoan muiña.
Bost zati
ta biotz bat;
katean lotuta
Napar bakar.
Eztakit,
gaixo kezkatu,
ames egin dodan.
Baiña mendi artean,
Barrankan,
gizonak Nabarra gaindu **barik**,
Naparrak gizona mende leikela
sinistu nai izan dot
ames eta biotz.



ARIZKUN

Eleizetan gizonei ez eutsen kororetara sartzen lagaten, ez eta emakumiei beste andrazkoen artean jezarten. Kororako eskalleren azpiko egal baten baztertuta egon bear izaten ziran.

Eskintza egitean, ofrendan, abadeak ez eben artzen eurekandik ogirik. Orren ordeaz argizariak edo korradu eta lobenak eroan bear izaten zituen. Eta beti be azkenengoz egin bear izaten eban eskintza ori.

Bakea opatzeko unean, «pax tecum» a alboa emonda agertzen eutsen.

Ur bedeinkatua eskintzeko, isopoagaz edo eskuagaz urrundik jaurtiten eutsen.

Gizonak ezin eikien errialdean oi ziran jantziekin ibili, ez eta emakumeak beste erritarren antzekoekin. Oneik kolore orietara jo bear eben, edonun be ezagunak izan eitezan.

Lurren jabe ziranei be ez eutsen lagaten euren ortuariak saltzen. Origaitik bestelako zeregiñak artu bear izaten zituen bizi al izateko: errotari, konpongille, argin, arotz, otzargille.

Errietan euren etxeak besteengandik bazterrean egoten ziran, alde baten.

Lagunarteko jardunetan askok ez eutsen berba biderik emoten. Iñoiz zerbait esan edo agertu bear ba eben, laster lotsatu ixiltzen zituezan esanez: Ixo, agota, ixo, arraza gaiztoko.

Esan dot izena. Bai: agotak. Edo txistronak, edo kristiñauak, edo len-pikoak. Deitura orreik emoten eutsezan. Ezagutzen ez?

Goazen Arizkun'era.

Elizondo'n egalean dago Arizkun. Baztan balleran.

Bide luzetik nator. Danetara be Euskalerritik.

Donibane Garazi'n nagola, Baigorri'tik zear, Izpegi aldatza igaro dot. Goain mugako agea luzatuta bidea ebagiten. Beratxua-g dagon txabolan kontu kontari egozan zaindariatako bat etorri, zabaldu ta aurrera. Gora ta berako bide onetan, bertatik igarten diran baso-ondoetako bideen matasa ta sakonaz konturatzeko erarik ez da artzen. Baso ikaragarriak, bildurgarriak guretzat. Kontrabandistentzako bide oi, errez eta aukerakoak nunbait.

Errazu'n sartu, Maya'ra duan bidea laga, eta Iruña alderakoa artuz, ara Arizkun.

Erri polit, garbi, txarmanta. Etxe dotoreak. Berde ta zuri asko. Armarridun ugari. Bidasoa ibaia, erreka, albotik zear, oraindik kutsu eta usteldu barik.

Ez al da iñor bizi etxetan? Leioak itxita, geienetan. Ez ete dakie barrukoak kalean iñor dabillenenik? Bertako kantu bat gogora datorkit: «gure etxea lakarrez, zenbait aldiz bakar ez...»

Begira nabil. Ze ikusi, a ikasi, esaten da. Eta euskaldunok ba daukagu ze ikusi bearra gure izatean. Jauregi jaso bat aurrean. Etxe andi, palazio bat. Ikusgarri. Au al da ainbat aldiz antxiñako kontuetan agertzen dan Ursua'rena? Agoteen adiskide eta laguntzalle on izan ziran Ursua'ren jatorrikoena ete da? Ez. Aruntzago dago a, Orkidi'n.

Baztan errialde ezaguna osotzen daben errietako bat da Arizkun. Ikusten dira baster eta toki askotan emengo ikurriñaren ager-garriak. Ikurriña eta eskudoa, dama jokoetarako laukien antzera, uts eta bete, urre kolore eta baltzetan. Baztangoa, era berean agertzen da, baiña angoa baltz eta zidar koloreko lauki edo kua-droetan. Erakusteko dauke inguruotan bertako ezaugarria. Baster batzutan ba dirudi jaiak gertaten dabiltzala. Bateri itandu dautsat: Noiz dira emengo jaiak? Eta berak, bertsoa osotu nairik: Urtean bein da San Jun, jaietarako aparta Arizkun.

Agotak dirala ta zer diñodan?

Ia berrogei urte dira, Bilbo'ko egunkari baten, bear ba da bilbotar dirudunak leku berezi orretan batuta bizi ziralako, euren interesetatik kanporako guztiari gor eta itsu egiñez, «agoteen Gran Via» izenpuruz edo destañez egindako lan bat irakurri neban. Ez nekien nik agoteen barririk. Eta zer ete ziran jakiteko ardura artu neban.

Gaur be asko egon leikez ez jakin orretan. Bein beingoz itan-du dagigun: Egon ete ziran agotak?

Maite-mintsu dabiltzan biri entzun:

Agotak badiadila

ba dizut entzutia:

zuk erraiten daitadazut

ni ere banizala,
Egundafio uken ba nu
demendren leiñuria,
eninduzun ausarturen
begila so eitera.
Jendetan dan ederreña
umen duzu Agota:
ille ori, larru xuri
eta begi ñabarra.
Nik ikusi artzainetan
zu zira ederreña:
eder izateko aments
Agot izan bear da?

Ainbesteko maitasun eta ametsez alkarri kantuz diarduen neska mutil oneik, izan eta leiz auzokoen artean arraza madarikatu lez ikusi ezinda bizi ziran gizataldekoak?

Aurrean Bozate. Arizkun'go auzo. Bertako auzorik andiena. 160 lagun inguru bizi dira emen. Alkarren ondoan, etxeak bata bestearen aurrean pillonan, edozein baserri-errietan egoten diran antzera.

Agoteen bizi lekuri entzutetsu eta ezagunena da Bozate. Ez uste emen bakarrik bizi ziralda. 1513 urtean ainbeste irain eta destañez minduta, Aita Santuarengana jo ebenean, euren eskubi-deentzat begirapen eta lotsa eskatzen, eurentzako beste gizonen giza-legea eskatzen. Baiona, Iruña, Oska, Jaka eta Akitz (Dax) eko obispaduetako leku askotan ezagutzen ziran. Eta leku guztietan bardin. Ikusi eziñak, bastertuak, irainduak.

Zer da gaur gizon bateri esan leiken berbarik garratz, mingarri, laidotsu eta destaintsuena? Sasoi baten, seguritik, agota deitzea zan. Autu eta juizio asko egin ziran errietan bata besteari ori deitsu eutsalako.

Zer eben, baiña, agotak, baztertuta biziteko? Ez ete ziran euskaldunak gure errialde onetan? Gaixoen batek mendetutako gizonak ete ziran, lepradunak bear ba da?

XIII gizalditik ba dago agotan barri.

Lepradunak ete ziran?

Gai ontaz, jakiña da Frantzeko errege batek 1321 urtean, kaletan baztertuta ebiltzan gizonen batualdi bat egitea agindu ebala. Sasoi aretan Frantze eta Naparroako erregeak bat ziran. Eta Lizarran, Estella'n, 20 lagun sartu zituezan eta giltzapean euki ia urte erdian. Muskaria'n, Tudela'n, ia urte betean.

Gaixoak ete ziran edo gaixoaren bildurrez baztertu ete zituen?

Sasoi aretako kontuak arrigarri dira. Orrelako asko ebiltzan errietan. Tour'en, egun baten, 160 erre zituezan, gaixo egozala-ta. Ibai eta errekek usteldu eta pozoituten zituenak ei ziran. Ortik, bear ba da, jenteen artetik baztertuta bizi eragitea.

Ez ete ziran euskaldunak?

Ezin ori ukatu. Ainbat aldiz irakurri lei Arizkun'en, Erronkari'n, Isaba'n, edonun, agotan aurka artzen ziran erabagiak, euskeraz adierazoten eutsezala, ori zalako euren izkuntza.

Begiratu abizen askori: Agerre, Beñatena, Danborinena, Etxeberria, Ibargoiara, Mugari, Urdax eta abar.

Norbaitek esan izan dau godotarren artetik etorritako talderen baten arraztuak zirala.

Onetan, beti be, eritzi ez bardin ugari.

Gizaldien mendean gauza ziur bat dago: Erria agotan aurka egon zala. Eleiz-gizonak, errukitsu, baiña arein eskubideak zaintzekotan erriarekin asarretu nai ezta. Erdiz-erdi. Aizekaldetik jokatzen. Erroma'ra be jo eben agotak. Aspertuta egozan eleizetan be baztertuta ikusteagaz. Erriko biraotzallerik andiena be euren aurretik joan bear izaten zan, Kristo berbera gurtuten be. Ori, agotantzat, benetan mingarri zan. Abadeak konturatzen ziran. Erromatik ba ekien etorten agindu zorrotzez. Roma locuta, causa finita? Emen ez. Errietako agintariak ba euken zeri eutsi: oiturak, odoluzko jatortasuna, agotan izakera narraza, oraintsuko errikotasuna eta abar.


Urteak igaro zituen agotak euren eskubideen alde. Oraindik 1827'n, arizkundarrak agoten aurkako kantu barriak atara zituen eta kalez kale kantari ibilli. Bozate'tik Iruña'ko gotzaiñari dei egin eutsen. Elizondo'n be etxe bateri arrika egin eutsen, agotan aldeko zalako. Nekez galdu da euren aurkako amorrua.

Bozate au ikustean, edonori be gizonen eskubide minduak goitik berako arrada eragiten dautse.

Milla bizilagunera ez da eltzen gaur Arizkun. Oraintsuko estadistika batzutan 854 bizilagun kontaten eutsezan. Arizkun bertan, au da, erri buruan, kalean, 506; Bozate'n 152; Ainzioalde'n, 68; Ordoki'n 66 eta Pertalas'en 62. Erriburuko 26 lagun kenduta, beste guztiak euskaldunak.

Ikusten danez, agotan oiñordekuak euskaldun jarraitzen dabe.

Euskalerrian erri ikusgarri ta ikasgarri asko dagoz. Arizkun onek ots andia atara eban luzaro. Gaur, nekeak aulduta lez, kontu orreik aaztu ditu zearo. Eta Baztan'go balleran, udabarriko berdetan, bizi-era eratsu bateri lotuta bizi da bakearen ametsetan.



ETXARRI - ARANAZ

Ibiltari naiz. Aukera dala ez naz aspertzen kotxean.

Etxarri'ra nua gaur: Etxarri-Aranaz'era.

Etxarri bat baiño geiago dagoz Naparroa'n. Eta Aranaz soil-soillekoa be ba dago. Beraz, izen biak batera erabili bear, nora nuan jakin erazoteko.

Urte luzetan Etxarri'tik Mutriku'ra joaten dan arda saltzallearen bidea darabilt gaur. Atzekoz aurrera.

Ondarroa'tik Azpeiti'ra. Andik, Urrestilla eta Nuarbe zear Mandubia gañera. Berrogetamar urtetan Etxarri'ko mandazañaren arda gastaten dabela diñost Mandubia'ko tabernako etxe koandre kolore gorri eta begi nekatu eta urtsudunak. Lendik be ba nekien ori.

Murelagatarren esanetan, ango ogia lakorik ez egoala berakats sopa, baratxuri sukua egiteko esan neban bein. Eztago bere orretan. Kostako ei da Nuarbe'ko baserri ogia baiño obeago izatea. Baiña gaur Nuarbe'n koperatiba eran batu ei dira eta ez dau tse ogirik eroaten. Ezin ba probatu. Inguru oneitan arro dira gitxik lako indiaba bertan artzen dabela-ta.

Mandubia'ko benta au Ezkioga-Itxaso erriaren lurretan dago. Eskola Beasain'en ikasten dabe bertakoak. Eleiz gauzetarako, alboan geratzen dan Astigarreta'ko parrokira joaten dira, baiña ara, gaur, Beasaindik igoten dira prailleak. Atzean laga dogun Matxinbenta be Beasain da.

Goazen Xalbatore'ra. Aurrera jo, ezkerretik. Beasain'en erri buruan sartu barik, Olaberria ikutu ta... Ba datorkit zerbait burura.

Len, Naparroa'ko Burunda eta Barranka'ko errietako ume ne-

gartiak Olaberri onetara ekarten ei zituen Ebangelioak irakurri eraziten. Eta emen kutunak (butunak) ipinten eutsezan samatik dindilizka.

Lazkao, Ataun, San Martin, San Gregorio, Aya. Ara goietan Naparroa. Lizarrusti'n, busti nai aoa.

-Ondo baltz asko al dago?

-Ekartzen ba dituzu, erosteko gaituzu.

Itxaropen ona gerorako.

Kaskar ona dauke «benta» onetan. Bokadilloak, mostradorean barik, alboko mai baten mutiltxo baten kontura. Urdai-azpikoa? Ainbat pesetakoa ordezeko ta kittu. Beste kontuak ega-riaren neurrian.

Jarrai bidean. Arizti ta pagadiak. Sakonak, beteak. Nun nai sartu ta errez galdu. Ez damutu. Merezi dau basoetan sartzea. Zenbat eta barrurago eta obeto. Bildurra sortzen igarri arteraño. Gizon izaten eta norbera gainduten ikasteko gagoz beti.

Urten barriro bidera. Kontuan euki nun lagaten dan kotxea. Oñez ibilli bearrez arkitu naiz sarri bere billa.

Bide kurutzea. Laga Arbizu'ra doana. Goazen tren bidearen igaro lekuraño. Eta Burunda errekatxoa zubiz igaro ondoren, Etxarri Aranaz'era.

Ogei urte ba dira industri bat ipiñi nai eban bateri laguntzen bertan izan nitzala.

Orduntxe ziarduen egiten, Lizarraga'ko bidean ikusten diran etxe txiki pilla. 1954 urtean emon zituen euretako giltzak. Etxe tmordoa, danak tankera eta egikera bardintsuko. Gaur, euren ingurutan, etxe andi eta dotoreak egiten asi dira.

Sasoi aretan Etxarri'k lurra eskintzen eban, eskiñi eta emon, edozelako lana eroan eikean industriari. Gaur batu dira batzuk bertan. Bizi barria igarten da.

Len, erria, erriko etxeak, Altsasu'tik Izurzun'erako bide ega-lean amaitzen ziran. Gaur gorago doa bizia, erriaren zabalera.

Eta bide kurutze orretan zenbat kotxe? Egunero iru milla kotxen neurrian sartua da bertako joan-etorria.

Aurten be, oraintsu, Tele-ikusketan agertu zan Etxarri. Elei-zan, kantari.

Erri musikalaria dala iñoan agertzalleak. Euneko larogeitik musikako garra daukela.

Adiskide bateri gogoratu dausat, bits emon nairik. Eta bera betozkoz geratu da. Ez dala ori egia. EUNETIK eun esan bear ebala. Eta bestela, benetan berak, au kontuan euki: Emen bost famili osotzen ba dira, zazpi kitarra gitxienez batuko dira errian. Batez

beste ia familiko kitarra bi.

Urtero erriak bosteun milla peseta eskintzen ditu musika la-
guntzarako.

Etxarri'k, orretarako, basoetan dauka bankua. Aritz, pago eta
lizarrak ba dauke urtetako bizarra ta giarra.

Agirian dagonik ezin ukatu.

Biok, beraketa nik, musika zaletasun au txalotu nai izan dogu
napar ardaugaz basoak goratuz. lengo bertako kanta zarrekin be-
rak:

Agur, agur otsoko,
ondo etorri astoko.
Baldin egarri andi ba zera
ba det ardo gozua franko.

Etxarri'n euskera entzuten da. Noiz arte?

Alegiñak egiten ditue inguruotan, zaindu nairik. Ala ta be...
Altsasu'n ba dira dakienak, baiña ez da egiten. Urdiain'en bai. Ur-
diain'en egin eta ikasi be egiten dabe. Ba dauke orretarako ezau-
pidea, ikasi bearraren kontzientzia. Bere inguruan, Iturmendi'n, ia
aaztu dabe. Edo ez da entzuten. Arbizu'n bai. A zelako poza eroan
dodan nik mutiko batzueri etxe bategaitik erderaz itaundu,-eta eu-
rak, alkarrerri, euskeraz zein ete danka jarduten igarri dodazanean!

Eleiz gizonak indarra eta itzala dauke oraindik erri oneitan.
Eta len lez, makalaldian sartu edo jausi be bai.

Dendaetan, ostatuetan, kalean... jakin, geienak dakie. Egin be
bai askok. Igarten yakoe batzuei laztasun pixkat. Asi ta erantzun
bai, baiña koldarti, lotsakor lez, zortasunez.

Erreza da gaur zortasun orretan jaustea, eroritzea. Batez be
erabilli ezik. Eta erabilli eraziteko giroa sortu ia eraitzalleak, eragi-
lleak bear. Zoritxarrez gero ta gitxiago dira eurok. Eta bestaldetik,
gaurko ikusgarri, irakurgarri eta entzungarrien bidez, gero ta geia-
go beartzen da bat beste bidera.

Artzain eta baserritarren kidean, ixiltsu agertzen dira lenengo-
tan bertokoak. Norbere irudipena izan lei. Baiña, bear ba da
arrantzale errian oitua naizelako, norberetiago eta ixiltsuago billa-
tzen dodaz bein beingoz bertakuak. Ala ta be, laster dakie kon-
fiantza emoten. Eta umorea agertu.

Sakana eta Burunda ballera oneitako beste errietako antze-
ra, Urte Barri eguna umorea eskintzen asten dabe emen. Oitura
da gabon zarrez, amabiak jo ondoren, gazteak ur barria etxetara
eroatea, kanta kantari:

Ur goiena, ur barrena,
Urte berri egun ona,

Urte berri egun ona,
Baita guk ere umore ona.
Orrela asi ezkeru...
Urri'ko jaiak zaratatsuak izaten dira.
Emen, erriko jai nagusia, Urria'ren lenengo domekan ospatzen da. Kontuan euki au: gure Urria'n. Inguru oneitan Urria Irailla'ri deitzen dakie:
Hlero, illean iru bidar, merkatua egiten da. Illaren 5, 15, eta 25'tan: Abelgorri eta txarriak geien be. Eta jakiña, laboriaren tresna eta erabilgarriak.

Geiago, labur, naste borrastean.
Bizi lagunak: 2.200 inguru. Geitzen.
Familiak: 504
Kotxeak: la iru familiko turismo bat. 290 inguru.
Langilleak: 850.
Lana: Elektro-tresnak, bustingintza, zeralina, zurak (egurrak) eta abar. Ba dago berreun laguneko fabrika.
Ardurak: Emakumeentzako lan egokirik eza. Kezka igarten da zerbait billatzeko.
Irakaskintza: Asierakoa, basikoa, bertarako, eta aurten asita, albo erri batzuetako umeentzako, emen egiten da, Orrela bertara datoz Bakaikoa, Iturmendi, Lizarraga, Torrano, Unanue eta Urdiain'go umeak.
Amaika milla metro lautu erosita dagoz eskoletxe barriak egiteko. Geroztik bertara etorriko dira, baita, Arbizu, Arruazu eta Lakuntza'ko aurrak.
Lanerako irakaskintzako Lakuntza'ko dago errialde onetako eskola. Amar milloek kostatu zan. la bi milloi Etxarri'ren gain.
Zaletasunak: Musikarako, andia. Ba dago Musika Talde edo Banda. Erdiak neskatoak. Larogei ume batzen dira eguneromusika ikasten. Txistu, kitarra eta abar. Egia da familiak baiño kitarra geiago batzen dirala erri onetan.
Kirolak: Eskoletxe barriekin batean, kirol edo deporte leku bat egiteko asmoa. orretarako emeretzki milla metro gertu dagoz.
Eta geiago?
Ba kontu eta siniste zaarrak aitatzen dabon Putteri mendiko leizatan, kuebetan, gordeta dagon altxor gordea, tesoroa, oraindik aurkitu barik dagola.



IRUÑA

Siete de Julio San Fermin.

Azken urteotako lanaren utsa gertatu ez ba litz, Iruña, gaur, ia berreun milla lagunetara elduta egongo zan bizi lagunez.

Gaur lan kontuan naastu egin da Iruña alde orretan eta origaitik erbestekoen etorria be gelditu.

Baiña lengo Iruña zarra, Kristo jaio aurretiko erromatarren ibillerak ezagutu zituana emen dago. Lengo eta oriango. Len, Kristo baiño 75 urte lenago, Ponpeio bat emen ibili zan. Erromatarrek Castra pampelonensis deitzen eutsen Iruña oneri.

Toki egokia zan eurentzat. Orduko bide nausiak be emendik igaroten ziran. Ala Tarragona'tik Oiarso aldera eta Bordeletik Astorga'ra eioana.

Batzuen esanetan, erromatarrek eta euskaldunak batean bizi ziran emen. Batzuk goi maillatan, agintaritzza eta olakoetan. Besteak lurragaz baliatzen.

Gero, aurrera jarraitzen ba dogu, iruñatarrak godoei sarrera laga nai ez da billatuko doguz. Eta azkenean be 468 urtean sartu ziran oneik. Origaitik bisigodotar errege askoren kontulariak arro esaten eben euskaldunak menperatu egin zituela. Ala Txilderiko, Leobigildb, Banba Klotari eta besteak.

Geroago, gizaldi batzuk geroago, Santxo aundia bat billatuko dogu Iruña barriztatu nairik, eta napartarren eskubide osoko erri bat jazo nairik. Ortatik dator napar erria deitua emotea be berari, Iruñari.

Dana dala, erromatarren denporak eta Iruñako egoera aztertzen sakondu zar. Nikasio Landa sendagille, medikua eta aren

esanetan, erromatarrak euren kapitolioa euki eben Iruña'n gaurko katedralaren inguruan, eta Diana'ren eleiza be euki eben gaur San Zernin eleiza dagon inguruan.

Iruña eta euskera.

Ontaz lan polit bat egiña dauka Latxaga adiskideak. Bere esanei jarraituz agiri batzuk artuko doguz.

XV garren gizaldian Iruña'n euskera egiten zan. Ala, toki askotan irakurten dan lez, beamontarrak kopla oneik kantaten ebezan kalerik kale:

Labril eta Errege,
Aita, seme dirade,
Kondestable jauna
Arbitzate anaie.

XVI garren gizaldian, garízumako sermoiak iru-lau eleizetan euskeraz egin bear izaten ziran.

Langillien artean geienak euskaldunak ziralako, euskerara aldatuta emoten eutsezan Erri-etxeke aginduak.

Emen obispoak, sasoi aretan, euskal olerki sariketak ipinten ebazan, jai berezien bat gertaten zanean.

Axular, Pedro Agarre, Urdaxtarra, Axular baserrian jaio zalako izenorde orregaz ezagunago zan euskal jakintsua, euskal literatura zarreko gorengoan agertzen dan idazle jatorra, ementxe abadegintzan sartu zan, emen ordenatu zan diakono txiki, eta ementxe agertu eban bere lenengo liburua.

XVIII garren gizaldian be, emengo abadeak euskeraz egin bear izaten ebelako, eurentzako dotriña bat argitaratu zan.

Aita Mendiburu emen bizi zanean, sermoi asko euskeraz egiten zituela San Zerningo eleizan be jakiña da.

1810 urtean, gobernadore frantzes bat emen buru egoala, ikusi eban premiñazko zala jenteagaz ondo konpontzeko euskaldun bat ipintea pasaportetako idazkaritzan eta alaxe agertu eban berak.

Beraz ikusten danez, iruñatarrak, iruñar jatorrak, oraindik odollean darabille euskeraren urratsa.

Joanes Etxeberri laburditarrari sinistutekotan, erri buruen artean euskaldunen zan Iruña XVIII gizaldian. Ara berak zer diñon 1712 urteari buruz:

Mundu guztiak dakien bezala, egundainotik Iruñea deitu eta deitzen baita Iruñea, zeina egiazki baita eukuarazko izena, eta hala hiri noble ura izatu da Eskualerriko hiri buruziaga Celio Au-

gustoren arabera. Sartu zen Nafarroako eremuetan eta setiatu zuen Iruñea, escualdunen hiri buruzagia. Eta hala lehen erran dudan bezala, hau da Tubalen lehenbiziko Korte hautu eta ohartu gura, egundainotik eta beti eskualdun izaten dana, non hiri artako familia zahar eta ohorezkoenak beti izatu baitira eskualdun fin garbiak, eta kalitate hunetaz estimu handi egin izatu dutenak.

Bertze alde Doña Catalina, Iruñeko alaba, Nafarroako erregina senaz geroztikan, ez da dudarik hura ere eskualduna zela, ezen Eskualerriko umea zer ahal daiteke eskualduna baizik?

Gero gauzak aldatu ziran, baiña iruñar jatorrak oraindik odolean darabilte euskeraren urratsa.

Onetan kontuan eukiteko da Pedro Alejandria batek bere Guia de Pamplona baten agertzen daben kantu au:

Joana Mari, coge al chico
pero no lagas kilikas
lo pondrás kukurubiko
cuandoguiera hacer txirrikas.

Iruñan ikusgarri asko billatu leikez.

Gaur Iruña eta Naparroako arte eta jakintzaren ezaugarri eta konpontzalle dan Principe de Viana goratu nai dogu. Juan, Naparroako errege baten seme, Carlos, zan Principe de Viana ori. Bere kultur miña ezaguna zalako, origaitik bere izena ipini dautse gaurko kultur alkartasunari.

Naparroako Diputasiñoak 1940'n sortu eban erakuntza au.

Eta berari esker Iruña eta Naparroan galduko ziran edergarri asko, sakon sakonean napar istori zarra erakusten daben etxe eta eliza, anaidi eta laguntalde asko, gaur be bizirik ikusten dira.

Berari esker Iruña'ko katedralean eskutuko asko agertu izan dira. XI garren gizalditik dator katedral au. Eta erromaniku lanugariz. 1396 urtean ondatu egin zan lengoa. Geroago gotiko eraiko barri bat jaso zan. Baiña Principe de Viana oneri esker, erromaniku zati batzuk agertzeko era egon da.

Zarra da Tudelako katedrala be. Lenengotan mezkita bat. Eta an be lan ederrak egin dira.

Naparroan egoan monastegirik zarrena eta jatorrena Leire zan. 49 monastegi be egon ziran batera Naparroan. Emen, Leire, 1059 urtetik etorran eleiza eta monastegia, ainbat urtetan utsik, ia galdutzat etsiten ziran. Erakuntza oneri esker, Leire barriztu eginda eta gaur bizi barri bat igarten da bertan. Au da, askoren eritiz, Naparroako Aldundiak egin daben lanik bearrezkoena gai onetan. Eta era berean Iratxe, Irantz, Olite (Eriberr), Uxcu, Sangotsa, Oliba, Eunete eta abar.

Kultura gaietan euskeraren jakintza agertu erazi, bere maitasuna jakintsuen artean sortu, esnatu eta bizi eragiteko, ba diardu gaur aldizkari eta bestelako lanekin. Orrela Fontes Linguae Vasco-

num, Cuadernos de etnologia, eta abar, bere laguntasunez eta indarrez urtetan dira.

Eta azken urteotan ikastolen akulari agertzen da.

Origaitik bere lana benetan mesedegarri dalako, gaur gure txaloak, napartarrak jaietan diarduen artean, erakuntza onentzako duaz, euskerari dantzan eragin nairik dabillelako.



IZABA

Artajona ardotako,
Baztan belarditarako,
Tudela oliondotako,
Erronkari neskatako.

P. Gorriz'ek 1885'n erderaz egindako koplak bat irakurri izan dot, ori esanez.

Azken bertsua aldatuta beste nunbaiten. Neskatako ordeztu, emakumetarako ordeztu, bertako beste zeregin bat goratzen: almadiakariena.

Sarri ikusi izan doguz Erronkari'n Auñamendietako baso sakonetan ebagitako egur lodiak pilloetan alkarri batuta, mendi goietatik errekan bera eroaten. Pillo orrekin gainetan, makilla luzeekin eureri bidea zaindu eta zabaltzen edo ta ostopoak gainduten joaten diran gizonei almadiakariak deitzen dautse. Gaur, batez be Yesa'ko ur-potzua, pantanoa egin zanetik eta kamioiak ugaritu eta bideak zabaltzea erreztu danetik, erabilketa ori, ezagutuarren, ez da orain urte batzuk aña ikusten.

Emen Erronkari'n Ezka'ren ur garbietan, eta arutzago Salazar'en, edo egalerago Irati'ren ur bidean, amaika pago eta aritz eder eroan izan dira serretara era orretan.

Guretzat ikusgarri. Almadiakarientzat etengarri. Baiña bakoi-tzak bere giroan lan egin bear, eta emen, gizonaren eta irabazien mesedean, era ori zan urte luzetan biderik errez eta egokiena.

Izaban'n nago. Erronkari ballera au osotuten daben zazpi errietatik andiena. Erronkari ballera deituarren, erri bakoitza bere jaube da, nortasun osoko, agintaritza beteko.

Emen gareanez, merezi dau ballerari, errialdeari azal-azaleko ikusaldi bat egitea.

Urzainki da ballerako arririk txikiena. Eun eta berrogei lagun batuko ete? Erromaniku jokerako eleiz atadi eta zubi ederra. Ba dago bertako kopla bat:

Urzainkirik Erronkarira
bideak on dira,
Justina eta Maria
ara jinak dira.

Erronkari'rako bidea on. Eta San Migel'erako? Ordu ta erdi bear baso bidez, Santa Barbara mendiaren gibelean, ermita onetara eltzeko. Etxe bakoitzetik gitxienez bat joan bear, urtero, Irutasun (trinidad) egunez. Joan ezik, multa ordaindu bear. Danetatik nekea: joateko, gorputzarentzat; joan ezik, sakelarentzat. Oraingoak nasaiago bizi dira. Ermita ori gure denporetan galdu da.

Ba dakizu txakur amorratuei zer egiten dautsen emen? Santa Kiteri'ren burdiña deitzen dautsen zati bat gordeta eukiten dabe. Txakurren maitale ei zan santa ori. Origaitik bere egunez bedeinkatza eroaten ditue. Amorratzen diranean, burdin ori sutan ipinten dabe. Txakurra arrapatu, bere burua sukaldeko atearen bitartean artu ta estutu eta burdin ori goritzen danean bekokian kurutzte bat beragaz egiten dautse. Orrela, uluka ikustean, erri guztiak jakiten dau txakurrak zer daben.

Urzainki'ren ondoren, Bidankotze. Mendiaren gibelean erri guztia. Goientsuen, ormak eteten azitako eleiza zarra, emengo egualdien baltza erakusten. 220 bizilagun.

Garde.- Batez beste lengoaren pare bizilagunetan. Ezin esku-tatu emengo jakingarri bat. 1 838 urtean, aragoitar seme bat izentatu eben bertako abadetzako. Kontuan euki auzoan egiten dala Anso ballera eta angoak ez dirala naparrak. Baiña auzoko izan eta be, erriko gizonak, erriko agintariak ez eutsen sarrerarik emon, erri onetan dotriña eta autortzak euskeraz erakutsi ta entzun bear ziralata.

Erri onetan, ordu beteko bidean, antxiñatik datorren ermita ezagun bat dago, Zuberoa'ko Andre Mari izenez. Milla metrotik gora egiten da. Irailla'ko Andra Mari egunez, guk esaten dogun lez Andra Mari Arrateko egunez, nekez lagako dautse erritarrak bertara joateari.

Erronkari. Ballera edo errialdeari izena emoten dautsan eñri-toxa. Gayarre'ren sorterri ta illobi. Ikusgarri da iltegian Benlliure'k egindako brontzeko illobi ederra.

Nabarzatu auzoan Donestebe'n ermita. Kondairan esaten da Narbarzatu au Erronkari'ko zortzigarren erria izan zala. Paper zarretan irakurten danez, XIII gizaldiko lenengo zatian, etxe buru bi eta parrokia eukazan.

Eztakit zegaitik, emen frantzetarrei autxak deitzen dautse. Komeni da ori jakitea bertan arro gogoratzen dabena kantu zar bat obeto ulertzeko. Napoleon'en denporetako da:

Eun ta berrogeitamar autx
Erronkarieta jin ziran,
eta Yenyari'ko puntan
guziak degollatu ziren.

Aaztu daiguzan gerrak eta gerretako kalte nai garaitzak. Ez gatoz gaur onetan. Erronkari'k ba dau bere izeneko beste zerbait. Zegaitik erri bakoitzean bertakoa aipatu eta goratu ez?

Kantatuaz, kantatuaz
Izaba ta Erronkari,
kedarpean kosk ein diot
ardi zainen gaznari.

Agur Erronkari'ko irureun eta piku lagunoi.

Burgi eta Uztarrotze. Biok, bakoitza laureun lagunetara eldu eziñik. Burgi, aitz-arte luze eta itzal baten sarrerako aize min eta zoliak artzen. 1809 urtean frantzetarrak oso-osoa erre eben. Etxe, eleiza eta inguruak. Baiña erri maitasunez al bestean konpondu eta bertan jarraitu eben. Uztarrotze balleraren goienean egiten da. Aizetsu ta eguzkitsua. Izalzu'ko bidean Andre Mari'ren ermita eder bat. Laguntzaren Ama deitzen dautse. Erri onenak dira Barazea mendia, 1883 metoduna, Gaztarria, 1725 metro eta Osogarrigaiñe, 1916 metoduna.

Sartu gaitezen Izaba'n.

Errialdeko erririk andiena. 800 lagunetik gora. Etxez geiago eukiteko gertua. Uda eta neguko atsedentoki lez aukeratu dabe askok. Aukerako orretarako.

Auñamenditako kutsuzko erri berezia. Arrizko etxe ederrak, leioak eta tellatuak giro gogorrei eutsi al izateko eratuak. Eleiza eta inguru jatorrak. Igarten da bertakoak kanpotarrei ten egiten jakin dabela erria aukeraz beteta. Erri garbi ta osasuntsua. Jate-txe, egon leku eta jolas toki ta guzti. Laster konturatzen da bat erri onean dagola.

Burutikjoan baiño len esan daigun Naparroa'n elektra indarra lenen sartu eban erria berau zala. Ortaz gaiñera Erronkari'ko errialde onek euron arteko telefonoa ipiñi eban, Nabarra'koagaz zer ikusi barik. Ezin ukatu aurrerapen kezka odolean daroenik. Denporak igaro ziran Aldundi edo Diputaziñoiak beste telefonoe-kaz errialde onetakoa alkartu orduko.

Mendi, baso eta lurrez aberats. Bertan bizita be nekez ikusi eta bear ba da sekula ez ezagutzeko mendi eta basoak daukaz. Bertako lurraldean sartzan dira Arlas, 2.062 metoduna; Añilarra, 2.348 metro; Budogi'a, 2.305 m.; Iror Errege Maia, 2.438 metrokoa, eta Lakartxela, 1982 duna. Ingurutako beste mendi askoren

asiera edo bidea bertan artu bear da. Ardibidegainea, Arrigorrieta, Ezkaurre, Lapazarre, Larraza, Larrondo, Txamantxori eta abar. Gaur, goi mallako mendi-zaletasunean, Izaba da, ezpai barik, tenik geien egiten daben erria Euskalerrri guztian.

Izaba'ren paradisua deitzen dautse Belagua'ri. Amar kilometro erri burutik. Bide zabal ederra. Eta bertan, benetan, atsedean eta atsegin leku zabala.

Nora jo Belagua'tik? Obe bertan galdu.

Eta galdu edonun: Arrako'n, Bagomalta'n, Dronda'n, Ibiri'n, Larrazan'n, Sorondo'n, Xankua'n. Edo eta Longa, Uterdiñeta eta Muntxate'ko uren etorrera eta bidetan. Geroago Ezka izenez bera joaten ezagutuko doguzan ur garbi argietan. Edo ta bordak ikusten: Auzaia, Beltxa, Blaskiz, Intxa, Perena, Sabuki, Txibarro. Zetarako izenak, berrogetamarren bat danak aitatu ezik? Edo ta joan Antxomarro'ra, leiza zuloen aitzakiz eta Sakulo'ra, dolmena ikusten. Edo ta arboladietara jo.

Ba dauka emen gizonak nun nasaitu, nun jolastu, nun gogoaa ase eta nun atsedean artu.


Basati dira emen txori, ardi, auntz, bei eta milla abere. Eta gizona euren lagun. Eta zelaiak, belar eta lore, malluki eta ziza, bata baiño beste oparotsuago.

Arrisku bat dauka toki zoragarri onek: noiz arte lagako ete dautse gaur lez berezko paradisu izaten?

Ba nua Izaba'tik. Ainbat toki eta jakingarrien aitamenik egin barik. Burgi'n ibili naizenean, esan ete dot ezer Urdaspal'eko monastegi entzutetsunik? IX'garren gizaldian ementxe bizi zan Eulogio lekaide martiria. Euskalerrri guztian ba ekien aren barri.

Eta Arrako'ko Andre Mari? Gogoratu urtero egiten dan iru beien eskintza.

Danak lagata be, gaur Idoia'ko Ama aitatu bear. Roncalesa celestial, deitzen dautse inguruetan. Azken urtetan, euskal izenetan begikoen dala, Euskalerrri osoko fededunen zaindaritza eskiñi leikio berari. XIII-XIV gizaldietako irudi ori ortxe dago, Izaba'ren aurrez aurre, errekatxoaren beste aldean. Burukomindunen laguntzalle ei da. Ainbat joaten dira bere ermita txukunera mesede eske. Izaba'ko erriak, urte asko ez dirala, txukun eta egoki barriztu eban bere ermita. Gaur izan lei Naparroa'ko baselizetan, maitetsu eta gogotsuen zaindutakoa. Eta euskal umeak, izenez beintzat, geien aitatu eta gogoratzen dabena.



LEIRE

Leire'n nago. Naparroa'n.

Ez da lenen ez bigarren aldiz. Maite dot Leire'ko monastegia.
Ezagun dodaz bertako prailleak.

Bein, bertan nengoala, alako poesi naikoak idatzi nebazan:

Erregien arrizko arkak.

Arriak eta abarkak.

Naparroa'ko erregeak

ezin eikeen lo

zipres itzalei so.

Arangoiti'ko aitz azpian

Goiko Jaunak,

Dena aldunak,

Ixilla

ta

Itzala

ezkondu zitun tokian,

arranoak eteten dabe bakea

ta prailleak kanta.

Antxe,

loari

ames eragiteko asmoz,

ta eriotzari

berpizte itxaropena sartzeko gogoz,

jentillen pazientziak

eta argiñen jakiñak

landutako arrien azpian,

zeenak jango ez daben tokian,
Istori zaarra
gordeta dago,
-noiz arte lo?-
abarkadun erregetan

Ta Leyre,
Naparroa'ko bakearen kerizpe,
barriztu egin da
bere zartzaroan,
Istori zaarraren loa
zaindu nairik ametsez,
itxaropenez esnatuko dan
kuttun kuttunaren seaskatxoa
kimatzen dan bezela
kuttunez
eta
samurrez.

Leyre!
Erregien esperantzazko kanta zaarrak.
Frailien esperantzazko kanta barriak.
Eta bitartean,
Naparroa'ren istoria
lo, baketan.

Euskal gerra bizi neban. Origaitik nik bizi neban gerra baten barruko muña ezagutzea atsegin izaten yat. Eta atsegin, batez be, guk biziarren, besteak zelan ikusten genduezan jakitea. Eta guk garaitza uste genduna, besteak zelan ikusten eben gogoratzea; eta guk illeta joten gendunetan, besteak zelako pozez gure illeta ori kantaten eben ikasi eta gogoratzea.

Gure gerrako liburutegirik onena, gaur gaurkoz, Leire'n dago. Bateko ta besteko liburuak; erriko ta erbesteko agiriak, liburuak, idazkiak, eta beste askotan gure jokabidearen pentsakerazko agerpenak.

Lojendio batek bere zaletasunetan gerrako istori bat egitea edo gure gerrako pentsakera jator bat ezagutzea nai izan eban. Beste askok ezin eikiena, berak, sasoi aretan eukan bizi-bidetik, errez izan eban. Origaitik mundu zeár gure gerrateatzaz agertu ziran libururik geienak, danak batzea gaitz, bereganatzea lortu eban. Eta frailetu zanean, nai eta gaur beste toki baten egon, Leire auke-ratu eban bere bizitokitzat eta or dagoz Leire'n liburu orreik, gerrako liburuak, bakez ikusi eta aztertu nai dabenen aukeran.

Origaitik, Leire'n, liburu orreik ikustean, alako arrada berezi bat igarten dot nire barruan. Nik bizi izan neban zati bat bertan dagolako.

Iruña'tik Oskara doan bidez, Sangotsa eskumatara laga, Le-dia (Liédena) ardaurrea igaro eta Gisa'n (Yesa) sartzean ezkerre-tako bidea artu ta mendirantz jo ta ara, aldatz biurri baten ondo-ren, Leire.

Cisa (Yesa)ko urak lañoa zabaltzen dabe sarri beietan. Baiña bein gora elduta, argia zabal igarten da.

Monastegia Arangoiti mendien gibelean dago. Beian, Aragoi ibaia, ormaz mugatzean, itxaso antzera zabal eta luze Berdun in-gururaño. Atzerago, Oroel mendia.

Iñoiz Jabier'eko gaztelutik Leire'ko prailleak agurtzen zituela esaten da, torre gaiñetik. Leike. Beietan Jabier'en tarte bat ikus-ten da. Beste aldera Utsue, napar mendietan.

Leire ikusi egin bear da. Eta ikasi. Artean ikusi eta bere bidez gure izatea ezagutu. Kondairan, istorian ikusi, sartu eta ikasi.

Kluny'ko monjeak bizi ziran antxiñetan. Gogoz eta izatez, es-pirituz eta soñez, gerralari mistikuak. Santxo Andia'k sartu zitun bertan. Orduko giroa ezagututa, bearrezko ziran orrelako bizilagun-ak. Almanzor batek bere denporetan su emon eutsan monastegi oneri. Santxo Andia'k barriztu. Geroago, urte asko geroago, zister-eko fraileak egon ziran. Naparroa'ri begira, baiña Aragoi'ko kutsuz. Batak ten eta besteak ziri.

Gaurko ordenakoak, beneditarrak, gure denporetan sartu zi-ran, azken gerra ostean, 1 954'ko Azilla'ren 1 O'ean, zeatz esateko.

Jaunari kantuz egin nai dautse, Naparroa'ko erregeen gain. Luze nua. Aritza eta Andia, Gartzez eta Toda, Eneko eta Abarkak... Ezin ete leikie Leire'ko prailleak errege arein arlosa astunik zabal-du, euskeraren errazturik billatzen ete daben?

Urtetara ba goaz, 848 urtean Eulogio doneak Iruña'ko Go-tzaiñari egindako karta baten irakurri lei monastegi onen barri. Ba egozan geiago be: Urdaspal Erronkari'n, Igal'eko San Pedro eta abar.

Goiko eleiza 1059'n bedeinkatu zan. Bear ba da Leire erre-geen bizi-toki eta Napar erriko obispoaren etxe zanean. Jakiña da Iruña'ko gotzain asko, sasoi aretan, Leire'n aukeratzen zirala, ber-tako fraileen artean. Eta Armentia'ko batzuk be bai.

Gero, giroaren aizetan, batzutan sendo, bestetan al bestean, baiña beti etxea aberasten, Leire'k monastegi jator iraun eban, Mendizabal'en legea agertu arte.

Ondoren, bakartadea. Etxe utsa. Istori andi bat arrakalutzen, eteten, galtzen.

Norbaitek esana da Leire'n egin daben lana izan dala azken urtetan Naparroa'ko Aldundi edo Diputasiñoiak egin daben lanik andi eta baliotsuena.

Orretan bakoitzaren pentsakerak tanto erdi.

Baiña Diputasiño berberak esan eban, Leire egon ez ba litz, bear ba da Naparroa bera ez zala egongo. Origaitik Leire Naparroa'ren erlikirik andiena dala.

Gaitz da onelako lan arin baten Leire agertzea eta erakustea. Bertako atadi eta kapillak, emengo illobi eta kriptak, emengo arko eta arron-gaiñak, kapitelak, leioak eta sapaia. Erromaniku eta gotikoa. Gizaldiak eta gizaldiak.


Leire'n arriak be itz egiten dabe. Illak be berbe egiten daben lez. Eta ormetako esaerak kontzientzira deitu.

Bein, lengo gizaldian, praillien kantuak ixildu ziran. Ez bein. Irutan be bai. 1809, 1820 eta 1836'n. Orra iru urte larri Leire'n. Lenengo bietan urten eta barriri sartu. Azkenengoan luzarorako mutu gelditu. Ia aztuta lagateko aiña denporan.

Ixiltasun luzeegia, bakartade gogorregia. 1836'tik 1954'ra. Ez zan bake santua. Origaitik amaika errege eta printzipe eta zazpi erregeñen autsak Gisa'ko eleiza txikira eroan ziran.

Baiña istoririk ezin eikean aldatu. Eta barriri Leire'ko ateak zabaldu ziran. Kezka aztun eta larriegi zan istoria galtzea. Bere «porta speciosa» zabaldu zan. Erregeen autsak biurtu ziran eta praillien kantak euren ingurutan erlearen durundi lez samurki zabaldu.

Ara emen Leire, Naparroa'ko istori zana eta izango dana, oraindik testigantza asko emon bearrean Naparroa eta Euskalerraren arduetan.



LEITZA

Berastegi'tik gora, emengo baso eta mendi orlegiei begira nator. Berastegi gaiña onetan, tarteka, etxe txiki dotore ta alaiak. Eiztarienak, perrotxiku biltzalleenak, mendi zaleenak. Ba dakie emen ortan ari diranak izadiaren ederra goretsi eta maitatzen.

San Anton, Urto... Gure kotxea aldaketa eskatzen. Goraka ta estutzen. Aurrera. Kilometroak astundu egiten ditue basoak. Errazoiz esango eben emengoak txanda baten: Idiak min eta gurdiak soiñu.

Mendi zaletasuna igarten nago. Pentsatu eragiten dau ederrak. Ikusi ala nire irudimena be iñoiz ikasitakoa gogoratzen dator: Bide ondoko arbola, abenduko izarra, ostatuko neskatxa ederra, irurak ondatzeko arrisku bera dauke.

Ziri ederra sartu euskuen leizatarrak esakera orregaz: Gizona, konturatu eta erantzun: Nun duk zuurtzia?

Kezka. Nun dagoz emen papelgintzako kei eta lañoak?

Bideen nastea erri sarreran. Aurrean Leizta. Arrera ona. Igarrita nengoa: «Ipar aldetik Leiza aranditsu...» Orain eta gero be Orixe zanagaz gogoratuko naiz inguru oneitan.

Ingurutako esakera da: Mendira noanean aizkora etxera beira ta etxerakoan mendira beira.

Kotxeen legea be orrela bear litzake. Beti gertu laga, errez urteteko. Baiña ba al dakigu emendik nora jo? Danetara be, edozetara be, bidera begira beintzat: Beti dago emen bidea aurrera begiraka. Uitz aldera joteko... Barrero «Orixe» zana gogora: Naparroa zarrean Larraun'en Uitz, belar goxo tartean eper-kabi iduri».

Uitzi'ra lez jo leike Doneztebe'ra edo ta Goizueta'ra. Batera nai bestera euskal mendiak ikusten. Pago eta aritzen arnas sendoa artzeko bideak.

Gaur gaurkoz gizonaren zitzaldi be bai. Onerako aiña okerre-rako. Ez al da egia galtzen duazala pago ederrak eta andre jatorrak?

Emengo tellatuen urtera aundiak ikusi ta gizonak txapel aundia bear dogula kontuan naz jausi.

Ate ederrei begiratu ta... «Etxeak ate bat eta nagusi bat» gogora ekarri.

Erri onein kalea, erdiko kalea ta plaza, okertu edo nabarmendu eziñiko monumentu lez etsi bear litzakez euren betetasunean, euren osotasun ikusgarrian. Ainbat napar erri gogora datorkidaz. Etxe eder, arrizko etxe sendo, lotsa eskatzen dabenak. Andikien etxeak? Zegaitik ez langilleenak? Ez al dira langilleak baserritarrak eta ez al dira eurak naiko aundiki? Erri txikiak eta etxe aundi. Ez dago urruti, esateko, Aldatz. An lako etxeak zeñek egin gaur, zaindu eta erabili? Eskurago oraindik Lekunberri. Ez gelditu bertan bide nausian; sartu barruan eta ikusi. Eta urrunago Oronoz alde batetik, edo ta Iturmendi, Urdiain bestetik. Edo ta Ulzama'ko errietan, batzuk esateko.

Euskaldunak bere etxeari emon izan dautsan garrantzia adieraziten datoz. Mendiko euskaldunak etxeari zor eutsen lotsa eta menpetasunaren testigantza emoten. Etxe egokiak, ez posporo kajak. Etxe zabalak, ez kaiola estuak. Gizatasunaren legeen amets ez sortu eta osotutako familienak, ez bizimodu larri baten kezka txikitu eta estututako sendienak.

Erriko plaza ez da erri batzuetan bezin aundia. Bai esaten donanaren testigantza emoten datorrena. Erriko etxea dago bertan. Goratxoago, erriko eleiza, parrokia, Mikel deunaren aintzaz jaso.

Goietan, Aritz mendirako bidean, ba dago ermita bat: Kuru-tzekoa. Ondo zaindua dala diñoste, baiña ogei minutu bear dirala bertarako.

Gaur, Leitza'ren bizitza, basoetatik dator oiezkoa eta papele-ratik egunerokoa. Nik ez dakit paper gintza onen asierarik. Bein, Lekunberri'n kontu kontari nebillala, aldaztar bategaz gertatu nitzan. Bera be andik etorten da lanera. Bere esanetan Lekunberri zan leku egokia papergintza au jartzeko. Ortarako aukeratu be izan ei eben. Baiña angoak, ez jakin arrokeriz edo ta federik ezaz, edo ta orrelako lantegi barik bizi eikiazala-ta, ez eben aukera eta erreztasunik emon.

Leitza'k, papergintza oneri esker, bere izaera eta bere bizia

zearo aldatu dau. Gaur, inguru onetan, bizi barria igarten da. One-lako ola batek erruz zabaltzen dau premiñen bitartea.

Naparroan aldakuntzarik aundien egin daben erriztat ezagutu eta erakusten dabe gaur Leitza. Milla ta berreun langille ibiliko dira zeregin onetan. Geigarriak aparte: ostatuak, erabilketak, eskolak eta abar. Langintzarako teknika sartu erazteko eskola, eskola profesionala be ba dago. Onetan aitatu bearreko da «Amazabal» zaingo edo patronatoa eta bere ardura.

Gaurko papergintza au Arrazola gipuzkoarrari zor ba yako be, -gazte il zan bat batean kez karen miñez langille argi eta trebe au-, jakin bearreko da, orain 1 50 urte, au da, lengo gizaldiaren asieran, paperaren barri ba ekiela Leitza'n. 1825 urtean billatu leikez orduan Erasote erre kazo urekaz baliatuta Errezama'n aurkitu zeinkean lantegia, fabrika.

Eta Ibero, zer?

Leitza'ren barrutik urten barik, 1 8 kilometro egin bear ara joateko. Ez nua gaur Goizueta aldera eta an dago, kilometro bi lenago, Leitza'ren lurretan jaioten dan Urumea'ren uren ondoan, Ibero etxe eta lantegi zar au. Gaur burdiñolak, burdiñola izanak eta geltitzen diran bakarrak, ez dautse erriari bizirik emoten. Ikatzak galdu eban bere txingarra. Eta gure errietako burdiñolak, geienetan, basoen ugaritasunean errez artu eikean ikatzaren berotasunetik jaioten ziran. Gaur be leizatar aizkolariak emengo burdintegietan moldatutako aizkorekin neurtu nai izaten dabe euren indarra. Euren sendotasunean eta emengo aizkoren ontasunean baliotuta. Eta gizonaren indarrari eta aizkoraren fintasanari lez begiratu bear bertako pagoen egur sendoari, kirten egokiak egiteko. Famili izentatu batzuen zeregiña da ori. Ba dagoz, egon, aizkoragilleak Leitza'n. Gaur, orretarako, kanpotik ekarten dabe burdinkia plantxa zabaletan gero emen moldatzeko.

Aizkorak jokorako soiñua ei dauka. Leizatarrak ba ditue euren artean jokolariak. Jokolariak eurak, aizkoraz baliatzen diranak; jokolaria baita be erria, dirutan.

Lesaka-Enea Borda deritxon etxean jaio zan Martin Gartziarena bat. Eundik gora dagoz emen baserrietan eta danetan aizkora zorrotz. Gartziarena au jatorra izan zan. Irakur Yantzi'ren bertsoak:

Martin Gartziarena
Leizako umia,
gazte bular sendoko,
gerriyaz ere mia;
egurren gañian zauli,
iduri du zumia,
azkar mugizen ba daki
baldin ba du premia,
aita eta ama euskaldun

jatorren semia.

Leitzatarrak dira baita Patxi eta Luziano Astibia, Patxi Zabaleta eta abar. 1968 urtean España'ko txapeldun ezaupidea emon eutsen Patxi Astibia'ri.

Gizonak eta basoak bear orretarako. Eta toki gitxi dira emengo Leiza-larrea lako basoak daukezanak. Ikusgarri.

Urteak dira, Epalla'ren lenengo igande baten, bertsolaritzari omenaldi bat egin nai izan eutsen Leitza onetan. Giro bat agertzen dau orrek. Erri kultura aupatu naia.

Exte barrien inguruan, kale bateri izena ipini eta erriko seme bertsolari baten irudia bertan agertu. Ortarako Manuel Lasarte erri onetan jaiotako bertsolari ezaguna aukeratu, berari omen egiñaz. Gizon jator eta umilla bertsolari argi au. Laga daiodan berari nor dan agertzen:

Nungua naizen jakitearren
onera bildu zerate,
Leitza'n sortua eta oriotarra
orain esaten dirate;
len Aiakua zala usten zuen
askok Manuel Lasarte,
ni zuen morroi nazute, jaunak.
zuek nai dezuten arte.

Bizi dan bateri kalea eta irudia eskintzeko, -donostiar J. Lope-tegi eskultoreak egin eban irudia-, ezin ukatu erri maitasuna bear dala, eta gizon askok ez doguzan jatorrizko izakera eta jokabideak.

Bertsolariari omen egiñaz bere euskal gogo agertu nai izan eban erri onek egun orretan. Ori da gaur bertan igarten dan garra. Bizi barriei bildur barik ikutu naia, era berean euskal kontzientzia be zirikatuta. Errez igarten da ori bertakoekin batzean. Gogoan dauke oraindik «Orixe» euskaltzain egitean bertan egin eta eskiñi eutsen jaia. Euskal giro eta gogo orduan be. Bere gogorapena eta erri onentzako begirapena alkartu nai neukez, beste baterako be. «Aizkora Jokua» izenez egindako olerkietan diñona gogorazten nabil:

Leitzar zantzulariek adirazi dute,
Leitza'rako bidea ez len ainbat luze...



MENDIGORRIA


Dana da gorri,
gorri ta gori
Naparroan.
Txapel
edo
kasket;
biotz
eta
odol;
lur
eta
ur!

Gorri dira Caparrosoko leizeak,
gorri Iruñako santu ta zezenak,
gorri ibai ondoetako egalak,
gorri maats urtsu puztuen azalak.

Gorri odolak,
gorri frutuen oskolak;
gorri oiturak,
gorri ikurrin sailduak.

Dena da gorri,
ames ta elgorri,
Naparroaren
gerri gorrian.

Baiña
Mendigorrin baiño
bake zuriagorik,
eztakit nun leiken,
izar eta laiño,
zeruen zurian ezik.



OBANOS

Erri bat bizi da
misterioz
ta ixtorioz
goraka begira
Naparroa jasoz:
Obanos.

Sasoï baten
ospetsu zan Santiagoz,
erdaldun eta akitanoz
etxe eta kalek
betien betez,
ta soloak lastoz.

Gaur
misterioen amesetan
edo egizko misteriotan
ba daki nun kendu izerdi
ta nola agertu kanpoen begi
Erle pilla
giza,
erri soilla
prisaz
jarduten da
izarrak agertzean,
gau giro epelean,
artearen loraetan
ixtoria eztituten.

Erri asko ikusten dira gaur illen;
Obanosek,
bizi amesez,
erne miña du goratuz San Gillen.

Mendixka baten gaiñetxoan
urreea dirudi arkatxoan.

Ba ditu pitxiak
nun aberastu gain gain:
Amokain.

Feliziañen birtuten
eta Gillermon illeten
kanpai.

Ba dauka fedea
nun sakondu larregi:
Arnotegi.

Artzainen erru
ta erromesen pekatu
entzutegi.

Ba dauka miraria
nun sinistu oraindano:
Labiano.

Felizia usteldu gabe
zaindu ta zaintzeko
gaurdaiño.

Eta inguruan
Eunate,
arrizko kollarra
eliz-ate.

Eta Erregin Zubi,
zubi ta uri
Erdi Aroko
arlandu zuri.

Baiña inguruak urrengoan,
txaloz bete Obanos gaurkoan.
Obanosen izan nitzan aurtan,
pozik joan eta penaz urten.



OLIBA

«Et vinum leatificat cor hominis». Eta ardauek gizonaren biotza alaitu egiten dau.

Sarri joan naz Oliba'ra. Anko bakea maite dot eta anko artea gogoko.

Artea dago arrietan eta artea irudietan. Artea baita ixiltasunean eta artea bakean.

Bide askotik joan leike Oliba'ra, Kaparraso'tik zear Melida zar eta eguzkitsua erdian lagata. Tafalla'tik, bide nausian Pitillas'eko erri bidea artuta edo aurreratxoago, Santakara'tik zear. Edo Zangotza'tik, bardenetan bera, oraingo ur-bide barriak ikusten. Emen, Kaseda'ko lurretan, ezkerretara, musgoz eta bedarrez betetako ermita gotiku bat: San Zoilo.

Aragoi aldetik datozenak, Gallur, Tauste eta Egea'tik zear ba dauke bide laua, errebera batzuetan kontuz ibiliz.

Danak dira onak, alde onetan, bideen oia eta beia ondo zaintzen diralako.

Euskaldunentzat, eta beste askorentzat, Aita Martin Baleztena da praillerik ezagunena. Leiza ingurukoa. Urteak dira bere arduratan laga ebela ardauegia.

Beti keixu. Ardoak eta orduak dira bere ardura. Itzen jokoa dator emen. Baiña ez letorke ondo ardo-ura biurritz geitzea. Olakorik ez.

Berezko kimikoa. Jantzi urdiñez ikusten da amankal eta guzti.

Prailleen jantzi zuria eskegita, alboko gelatxo baten.

Belarriko otsez igarten dau garrafoian zenbat litro doazan be-
tetzean.

Bere gain dauka zeregin bat: odei illunak, astunak, begiratzea. Alderdi onetan ainbat kalte egiten dabean arria, odeien arria ezin zainduta ibiltzen dira naparrak udan. Irratiz be, orduetan, arriskurik ete dagon iragarten dabe. Albiste ori jakin bear izaten dau, berak be berea emoteko.

Kontu zale da, baiña itzak alkarren gain. Gerokoaren kezka. Bera be, orain, tensioiak eta diabetisak arduratzen dabe. Zer egingo, Jaungoikoak jakingo! Ori da bere esakera.

-Bixkor. Armonioa jotzen joan bearko naz. Ordua da gañean.

-Onetik bete.

-Bai, bai, adiskide. Danak dire onak.

-Eta klareta?

-Probatu zazu. Orra parrokia, Atletikoen koloretan. Ba dut Realarena ere.

-Ba...!

-Ona, ona da. Amasei ba ditu sendo. Amasei grado. Ardo ona da aurren. Igaz, erdiko, giro busti bai zan. Zenbat garrafo?

-Orra.

-Jesus! Ez dut denporik.

-Bi batetik, gorritik. Eta bi klaretak

-Beti azken orduan. Denporik ez. Ai, ai... Atoz. Lagundu.

Santuen izenak daroetz barrikak dagozan tokiak. Baiña nik ba dakit beste zerbait.

-Ez al daukazu eguzkitan, ortu barreneko ura?

-To! Berdiña da.

-Berdiña ta an zetako?

-Ba, ba... Atoz, atoz. Lan egin bear geiago, orain ustu ta gero betetzen. Jesus! Atoz.

Bere ortuxoa dauka Aita Martin'ek ardautegia jotzen. Lore bazuk, iru-lau arbola ta orma ondoan, eguzkiaren gozotara atarata, iru barrika. Eskutuko kimika. Berezkoa, obeto esateko. Ezin elduta be borondaterik ezin ukatu berari.

-Artu, artu aranak, lorak e bai etxerako, emaztentzat.

-Nundik?

-Or... Ez al dira? Ba! Eraman dituzte. Bapo! Bi artzeko esan ta danak eramane.

Atoz, atoz, eutsi goma oneri. Ordua da, kanpaia gainean...

Orrelaxe beti.

Bete eta kontuak egin. Onetan ez da azkarra. Norberak esan eta... Bakizu, kontua eman bear det. Nausi zorrotza degu. Ala bear ere.

Ai, ai! Kanpaia jotzen eta oraindik komunitatearentzat ardoa eramateko. Komunitaderik ezin utzi ardo gabe, bakizu? Oi, oi, oi!

Eta keixu, prisaka, kapa zuria jantzi, eskapulario nabarra gañean, gerrikoa lotu, karretillan garrafoiak sartu eta an dua praillea, bixkor, gorputzak lagundu aiñako bizkortasunez, eguneko antifo-

nak gogoratzen.

Oliba'n gagoz. Monastegiaren alboan. Ardauek biotza biztu leike, baiña beste zerbaitek baretu.

Sartu gaitezen, ba, barruan.

Egunero, eguerdian, meza andia esaten da Oliba'n. Amabi-amalau edo geiago meza-emole.

Soloetatik, ollo-tokitik, basoetatik edo ta etxeko beste zeregi-ñetatik agertzen dira fraileak. Cister ordenakoak, mezatakoak be lan egin bear izaten dabe bestien antzera.

Eleiza andia. 74 metro luze, 36 zabaleko kurutzean. Azken ur-tietan kendu dituez len estutzen eben orma batzuk, fraile eta erria banatzen zituenak. Alkartasun zabala da gaur.

Doñu politak daukez, antxiñako gergoritarrek. Ez nua esaten ondo abestuten dabenik. Onetan beneditarrak geiago lotzen dira, geiago jardun eta euren eskola berezia erakutsi nai izaten dabe. Oneik, Trapakoak, lanak geiago makurtzen ditu. Areik musika arauak obeto zaindu. Oneik musika lanagaz alkartu eta biekin otoitz egin.

Gizon gordiñak, eguzkiak erreak, aize eta lur kolorez igartuak. Zar eta gazte, gazteak be ba dira-ta, alba zurien azpian eskutaten ditue lanerako jantzi zarren josturak.

Oliba'ko mezak otoitz eragiten dau. Eta nasaitu. Gizonak bere eguneroko gora-beretan nasaitasun kezka biziten dabelako.

Erdi aroko fraileak, erdi fraile ta erdi soldadu. Oliba'koen istoria be luzea da. Bere garratzasun eta guzti. 1 134 urtean Garzia Ramirez'ek sortua da monastegi au. Sortu eta laster, ingurutako lur eta errien jabe egitea lortu eben fraileak. Euren nortasuna zaintzeko, diruz ordainduta erosi, batzutan. Bestetan erregeen eskarrez, errien borondatez, jentien emon eta ordañez.

Askok egin eutsezan eskintza onak. Danetakoak. Sádaba'ko senar emazte batzuk bizi guztirako soin eta arimaz ziran bertarako eta eurekin batean euren etxe, korta, sutegi, ardauegi eta ondasun guztiekin. 1231 urtean zan.

Orrelako eskintza eta mesedez, toki askotan lortu zituen lurraldeak eta jaubetasunak. Melida erri osoa euretzakotu zan Aibar jaunen eskintzaz. Santakara erosi egin eben.

Lurren azkatasuna billatzen eben, besteen menpetasuna galtzeko. Leku batzuetan bete-beteko agintaritzat lortu eben. Sinismenean eta erri bizitzan. Ara Karakastelu'n, Carcastillo'n. 1818 urtearte, Oliba'ko abade nausiak aukeratu eta izentatzen eban bertako alkatea. Jakingarri da, emen be, Alfonso II Aragoiko erregeak erri guztia eskiñi eutsela bertako bizilagun eta ondasunekin.

Izatez eta bizikeraz erdi giroko era eta arduetan jokatu eben emengo nagusi askok. Ez eben nai izaten Iruña'ko gotzaiñen menpean gelditu.

Argalkeri eta ezin ikusiak be eroan bear. Nasteak. Batzutan bertakoak kalean agintzen. Ala, 1801 urtean, emengo abade nautsia Naparroa'ko Aldundi'ko lendakari aukeratu eben Erriberri'ko (Olite) batzarretan. Bestetan, eurak nai ez da be, kanpoko indarrez, jauntxokeriz, fraile be ez ziran gizonak bertako Abade nautsizako bialdu. Ondasunen nabarmenkeriak.

Danetako istoria, giroen mendetan giroaren eta girokoen toki onetan, menpeko... Lengo gizaldiak euki zitun bere astiñaldiak. Konbentu asko ustuta bertako ondasunak saldu. Oliba onetan be bi-irutan sartu ta urten.

Fraile gerralariak amaitu ziran. Dueñas'tik ekarri zituen 1926 urtean fraile barriak, konbentu au zainduko ba zan. Cister'eko fraile ixillak, ez mutuak askok uste daben lez. Lengo anditasun barik. Istorian galdu ziran lengoak.

Oliba, diñoenez, erri txiki bat izan zan gaur monastegia dagon toki onetan. Ortatik datorkio izena. Bertako arri zaar eta urratsak billatu zituen bein. Gaur, lurralde au Karakaztelu da erriz, eta ez fraileen erri.

Ez dakit euskerak zenbat urrats laga zitun ingurutan. izen batzuk ba dira, erdi lotsaz: Larrate mendia. Zalduzarrak, Arzizulua, Oilarzaldua... fraileen solo izan ziranen artean.

Eteten ez dan emengo gotiko jatorri begira ba daukadaz nire kezak. Espiritu barri baten premiña igarten nago...


Gotikoak, mutu, itz egiten dau. Fraileak, fraile ixillak be itz egiten dabe...

Gu gara mututu gareanak.

Baiña ardauak poztu egiten dau. Eta irudimena aizetu. Ara gu be olerkari ametsetan:

Nik eztakit
zek ipintzen duan
espiritua sutan
Oliban.
Bakartadearen aizeetan,
fraile mutuen ahaire geldietan,
kanta nai erreza,
salmo bigunen oiartzuna
igarten da belarri barruan:
«Eta ardoak
gizonen biotza poztu beza».

Fraileak ixil
ta ardoa kantari,
espiritua zurbil
zerbaiten egarri.
Ta alaxe,
ta olaxe,
Zaar Aroan
ta Erdikoan
gaur bezelaxe.
Aldarean,
fraileen kutsuzko moldeetan,
Erregin bakarra.
Maastian,
maats mordoan txortaketan,
fraile naparra.
Biak,
biak,
maats mordoa eskuetan,
begiak ikasten daben mintzoeran,
ikusi,
makusi,
itzekin agertu ezin dan izketan,
espiritu zaar eta barriaren jardunetan.



ORREAGA (Roncesvalles)

Gaur ez da ikusten antxiñako erako ibiltari edo peregrinurik.

Banaken bat, noizean bein. Soiñeko nabar baldar, soiñeko gaiñean bieira oskolak, narruzko sandaliak, makilla luzea eskue-tan, eta kapela biribil bat. Gure gazte denporan oraindik ikusten ziran banaka batzuk.

Orreaga'n nagola, Orreaga erderazko Roncesvalles da, ibiltari oneikaz gogoratu eragiten dauste. Emengo etxeak eta santutegiak, basterrak eta kantoiak, ibiltari onein entzutea saroe. Gaixotegia, ostatua, eleiza, jantokia... danak dira ibiltarien izenagaz bateatuak.

Frantze aldetik, Italiatik eta ainbat tokitatik etorten ziran Orreaga onetara, Compostelarako bidean eioazan erromesak. Ibiltari eta otolari ziran orduko orreik damuzko ibiltari, eskerrak emon bearrezko ibiltari edo ta ameslariak.

Erdi damutu erdi ameslari; erdi eskertsu ta erdi eskale. Baiña sasoi aretako giroak, orduko siniskearen bitartez, Santiago'ra jo eragiten eutsen orduko gizon askori fedearen indarrak Europako lurralde askotatik.

Gaur baiño bide gitxiago egoan sasoi aretan. Orduko baso eta toki asko igaro eziñak eta gaitzak ziran gizon askorentzat. Origaitik ibiltari onein bideak, erromes onein bideak, gitxiago ziran, baiña ain zuzen be origaitik ezagunago.

Orreitako zan Donibane Garazitik Naparroan sartzen zana, Luzaidetik zear.

Lenengo atsedeen tokia, lenengo geratu aldia, Orreaga'n.

Ibiltari asko ebiltzalako, premiña asko be sortu eben. Zaldizko

eta oiñezkoak ziran geienak. Origaitik bide latza erabillen, neke-tsua, gorputzari zotin eta eten eragiten eutsana. Ortik sortu ziran eurentzako ostatu gaixotegi bereziak eta atsedeen tokiak.

Naparroan sartu orduko, Orreaga'ko au fama andikoa zan.

Gero... Beste era bateko bideak eta ibilgarriak, antxiñako leku oneik bastertu zituen. Eta ordutik emengo eleiza, gaixotegi, ostatu, liburutegi eta abar, bizitasun andi barik geratuak dira.

Gaur onera datozen ibiltariak, ikusleak, beste era batera ibili nai dabe. Ikusi ta iges. Baiña Orreaga'n, batez be udabarritik aurrera, eten barik ibilten da jentea. Ori bai, eguneko jentea, nai ta alde askotatik etorria izan.

Urte batzuk dirala, Frantzeko mutiladuen pregrinaziño bat gertatu yatan bertan nengoala. Or ikusi, oraindik Orreaga'k ba daukala entzutea inguruetan.

Orreaga'ren entzutea erakusteko, sasoi baten berak eukazan egokitasun eta aukera eta ontasunak erakusteko, lengo gizaldian frantzetar idazkari eta arkeologu on izan zan Market Vasselot'en idatzi batetik artutako oneikaz konturatu geinke. Bere esanetan Orreaga ez zan Naparroako santutegia bakarrik, nazio arteko santutegia baiño, santutegi internazionala baiño, Compostelakoaren antzeko.

Bertako ostatuan, bertako ibiltarien etxean, Inglaterrako printzipeak gelditu ziran, eta Alemaniako andikiak; Frantzeko erregeak eta Italik kardenalak. Eta mendi oneitako Erregiñaren oñetan, bertako Andra Mariaren oñetan, Erdi Aroko gizonik on eta entzutetsuenak makurtu ziran, eta euren artean erri-kantaririk, kolakaririk ezagunenak; Ala Hurtado prailea, Errolan'en kantikaren egillea; gotzain-obisporik entzutetsuenak; santu ezagunenak, euren artean Guzmango Domingo, eta Asisko Frantzizko; Ximeñez Rada, napartar kardenal jakintsua eta beste orrelako asko. Eta bere liburuak jarraituz, irakurri al izango dogu, Orreaga'ko ospitale au zaindu al izateko, edozenbat abade eta gizon gertu egozala.

Orreagako anaidia, kofradia, 1 132 urtean sortu eban Iruñako gotzain zan Santxo batek, eta sasoi baten, XV garren gizaldian, bost milla abade baiño geiago sartzen ziran anaidi orretan eta ogei milla eleitzar ez ziranak.

Berak diñonez, kristautasunean sortu zan erdi-praille ta erdi soldaduen lenengo Ordena izan zan Orreagako au.

Ori orrela, ez da arrigarri toki aretan ainbat edertasun eta egokitasun ikustea.

Munduan, ibiltarientzako, peregrinuentzako, lau ostatu-osategi andi ezagutu ziran: Jerusalem, Erroma, Compostela eta Orreagako au.

Amasei garren gizaldiko kontu batzuetan'irakurten danez, iru-

rogei milla jataldi baiño geiago emoten ziran urtean sasoi aretan eta ogetamar milla ibiltaritik gora gelditzen ziran bertan.

Etaizena? Nundik ete datorkio Orreaga izena?

Diñoenez, ain zuzen be Erroldan'en gertakeratik. Frantzetarak Roncesvaux deitura emon eutsen; ronces-elorriak dira, eta vaux, toki izena, au da, aranak, ballerak.

Antxiñako paperetan, XI garreneko narruzko pergamino zarretan, Ronsas valls irakurten da. Ortik euskaldunen Elorriaga. Eloorri tokia. Elorriaga ren lenengo izkiak galtzen joanaz, Orriagan gertatu. Gaur Orreaga.

963 metro, itxas gaiñean. Ori da leku eder onen neurria.

Kondairan atzeratzen ba gara, ikusi al izango dogu Naparroako Gartzia batek, 996 urtean, mesede ugari egin eutsala, bertako erromesen ostatu-gaixotegia ondutzeko. Ala ta be emengo laguntzallerik jatorrena, XI garren gizaldiaren asieran billatuko dogu. Santxo Andia izan zan.

Erroldan'en gertaera zelan izan zan?

Arabitar errege bat Zaragoza'n egoan. Ez zan konpontzen Cordoban agintzen ebanagaz. Eta Karlo Magno'ri deitu eutsan. Baiña azken orduan an sartzen laga ez. Edo ta sartu ondoren bertan agintzen laga ez.

Orrela egoala, Sajonia'n nasteren bat sortu zan. Arako deitu. Iruña'tik ara eioala, bereak egin zitun Iruña'n eta errete laga. Ori ikusita, ingurutako euskaldunak alkartu ziran eta Orreaga'n itxaro Karlo Magno orreri.

Talde bitan eroiazan bere soldaduak. Aurretikoekaz, bera. Atzean, bigarren taldean, Roland eta Zaragoza inguruan batutako urre eta ondasunak eta bertan artutako gizonak.

Euskaldunak mendiaren alderdi bietan eskutatuta, laga egin eutsen lenengo taldeari bakez igaroten. Eta gero, bigarren taldekoak agertzean, bat batean agertu, Erroldan berbera il eta ainbat gizon makurtu.

Ortik sortu ziran mundu zear ekintza au gogoratzen eben kantu eta bertsoak eta geroztik emendik igaroten ziran erromes guztiak kantu orreik ikasi eta toki a ikusiaz, zabalago egiten eben euskaldunen indarketa ori. Orreaga, gauzak orrela, entzute andiko gertatu zan. Bai eta andiki askok euren illobia bertan euki nai izan ebelako be, Naparroako erregeandik asita.


Jakingarri da Santxo VII ri gertatua. Muskarian. Tudela'n il zan Errege a 1234 urtean. Bertan luzaro bizi izan zalako, antxe obiratu nai izan eben bertako katedralean. Oliba'ko prailleak, orde, eureri egokiela bere azurrak zaintzea. Orreagako monastegi

onek, beste aldetik, Errege arek sarri erakutsi eutsela bere azurrak antxe gordetea nai ebala.

Oliba'ko monastegian sartu eben lenengotan. Baiña lau urte orduko, andiki batzuk ixillean ara joanda, Olibatik atara eben eta Orreagara eroan. Eta orduko erregeak ez eben laga andik barrero Olibara biurtzen, nai ta eleiz gizonak zigor andiak ipini.

Errege oneri leku andia gertatu eutsen bertan, bera be gizon andi zalako. Gorputzez metro bitik gorakoa zan.

Or, azaletik, Orreaga'ko jakingarri batzuk.




SANGOTSAKO ATEAN

Fedea ta fedea
euskaldunen legea
ta birtutea.
Jatsuko Jabier
askorentzat
fedearen Asier.
Origaitik,
ba dakit
nun dan Jabier
ta ba dakit
bertan belaun makurtzen
eskerraren esker.
Liedenatik noala
burdin zubia igarotzean,
Sangotsara sartzean,
sarri gelditu izan naz atean,
Santa Mariko ate zoragarrian,
ikusten dana sinistu nai ezik,
ederraren ederrez,
artearen artez,
itz egoki bat esan eziñik.

Enaz itsu
ta ez mutu,
baiña begiak ezin sinistu
ta espanak ezin itzik asmatu
arria izketan asten danean.

arria kanta kantari astean.
Nik eztakit
txistuz
ala arpaz,
soiñuz
edo kantuz,
bertsoz
ala jotaz
goratu bear dan Sangotsa.
Danetik
eta
daneko
bai ditu
atearen
gaiñeko.
Nik eztakit nundik ekin
bear lez goratzeko egiz.
Nik atea ezagutzen dot,
-atea
sarrera da
ta urteera-
ta ez bere biotza.
Baiña ba dakit
giltza egin ba da urrezko,
etxe barrua
ez dala izango utsezko.



IPARRALDEAN BELOKE'N

Urt deritxon erritxora joango gara gaur. Mugaz beste aldetik. Lapurdiko erri txikiak ikusten. Ango erri polit begiragarriak igaroten.

Baiona'tik Beloke'ra joateko, ez sartu Urt'en barruan. Nai ta Belok Urt erriko alderdi bat izan, kilometro mordoia egin bearko zenduke erri burutik bertara.

Ba dagoz iru-lau bide Baiona'tik Beloke'ra errez joateko, 25 kilometro inguru egin bear ortarako. Bidatxe'ko bide nausitik, Labastide'koa artuz, errez sartzen da bertan. Edo ta Baiona'tik Asparne'ra joan, eta an gendarmeriko etxe ingurutik, Andre Mariaren irudi polit eta maitekor batek dotoretzen daben bide-kurutzean, bide estu baiña on bat artu eta zuzen elduten da bertara, Asparnetik sortzi km bide orretan egin ondoren.

Mendi gaiñetxo polita da Beloke dagon tokia. Olerkari fin eta samur batek maitetsu eta bigun jakin dau berari kantaten:

Maite zaitut biotzetik, maite zaitut Beloke,
zure gaiñtxo gartsuari, dana pindar eta bake,
soiñu kantuz bai dario gau egunez otoiz-ke.

Eun urte dira Beloke'n beneditarren konbentua sortu zala. Ordurarte euskal nobizioak, Pierre-que-Vire'n egoten ziran.

Euren artean, sasoi aretan, Aita agurgarri bat gertatu zan, bera be nobiziadutza egiten. Aita Leon Bastres, semperetarra. izlari gartsu eta biozkorra.

Abade eginda gero sartu zan beneditarren jantzia artzen. 1872 urtea zan ori. Ordurarte ainbat erritan eta Larresoro'ko seminarioan egon zan, irakasle lez.

1874 urtean Beloke'n baserri andi bat utsik egoala jakin eben eta bear ziran baimenakin ara joatea pentsatu ebenean, Labastide'ko etxe guztiak pozik zabalitzen ei eutsezan etxeak eta ostatua eskiñi, an bear lez jarri artean. Ala, Adema bertsolariaren kantu bategaz egin eutsen erri onetan agur bero bat: «Ongi etorri, Aita onak, Jainkozko gizonak».

1902 urtean, betien bete biarrean ebiltzala, Frantzeko gobernuak beneditarrak sakabanatu egin zitun.

Ezbearra. Baiña origaitik etsi ez. Urte bete atzerago, Idiazabal'era etorri zan Aita Bastres bere lagunekaz. Batzuk Idiazabal'en geratu ziran eta beste batzuk Olza'n, Naparroan. Gero Lazkano'ko etxea lortu ebenean, an alkartu. Baiña aurrez, Aita Bastres il egin zan, bat batean.

1928'n, biurtu ziran barrero Beloke'ra. Geroztik an dagoz.

Konbentu asko dira Beloke baiña ederrago. geienak. Anditasunez eta edertasunez, bera aiñako ugari billatzen dira, uste bako tokirik urruti eta eskutuenean be. Origaitik Beloke'ra ez joan arteko zerbait billatzeko asmotan, edo ta bizitoki apain eta aberats bat billatzeko gogoz. Konbentu polit, txukuna besterik ez da, gañerako ikusgarriak kenduta. Ori bai, garbi eta apaiña, txukuna.

1969 urterarte, bere eliza, txiki, eta estua zan. Urte orretan bedeinkatua zan barria, len baiña argi, andi eta eratsuagoa, gaurko eratan egiaña.

Len aldarán ikusten zan Andre Maria eskuak zabal, baiña utsik agertzen zan, seme barik. Jakingarri da. Bertatik praille batzuk Ameriketara urten ebanean, Argentinara joan ziranean, Semearen irudi ori eurak eroan nai izan eben, Belokeko garra eta ametsak eurekaz batera eroatearren.

Ikusi dodaz ainbat konbentutan batzar leku ederrak be. Beloke'n len, apal-apala egoan. Oraintsurik, eleizeagaz batera egin eben gaurko erako barri bat, baiña ba dirudi bertan lurrean jarten dirala prailleak, antxiñetan apostoluak egingo zituen batzarren antzera.

Klaustroa, argi eta apala. Eguzkia bere aberastasun.

Liburutegia ez andi ta ez txiki, baiña bai dotore, egoki eta eratsu ornidua.

Inguruetan, ibiltoki atsegiñak.

Aurrean, aurreko mendian, monja beneditarren etxea, a be Aita Bastres'ek sortua.

Orrelakoxe inguruak ikusi lekeez emen. Ta beti biotzari ikutu ta arimari dar-dar eragiten dautsan ixiltasun maitagarria. Ta beti etengabeko otoitz, kanta samur eta eztitsuak.

Kantuz goazi lerro-lerro kapa baltz farrastan,
oro soilu, oro argi, beakoa iduzki.

Kantuz goazi lerro-lerro biotz osoz airetan,
lur ontako illundurak aantzirik osoki.

Orrela diñoe gaur nausi dan Aita Iratzeder'en kantu batzuk.

Zugatzarte atsegin baten buruan, iltoki txikia. Kurutze ta lur bardiña danentzat.

Aruntzago, tantai luzien kerizpean, ainbat antxiñako il-arri, euskal kutsu ta tajuzko kanposantuetako il-arri zar itzalgarriak; liorreko ekaitzen lepoz, ainbeste gorputz euskaldunei azkenengo loa baketan eta itzalez egiten lagundu dautsen kurutz-arri edo il-arri zar bedeinkatuak.

Erritxoak dotoretuz edo kanposantu-zarrak zabaltzean, il-arri maitagarriok bastertu egin ditue toki askotan. Bide barriak egiteko txikitu ta zapaltzen ikusi zitun bein praille kezkatu batek. Eta Beloke'ra eruateko garra ta ardura artu. An dagoz arrezkero, bertan, ainbat batuta. Gaur askok pozik eroango leukez eurak. Orain lauren urteko arriak be ba dira bertan. Esaera sakonak daukez, oroi-garri egokiak. Ara bat: Bizia labur, iltzia segur, ez jakin noiz, berant ala goiz... Pentsamentuetan sakondu nai dabenak ba dauka or guna eta mamiña.

Beloke'n ba dago txalotu eta aizetu nai neuken maitasun be-rezi bat: gure izkuntza, gure euskeraren maitasun kementsu eta gartsua. Bertan ez da dana euskeraz egiten. Egia da. Eleizkizun asko prantzezez egiten dira, ara joaten diranei eskua luzatuz. Baiña liturgi barriko otoitz eta eginbear asko, bertatik urten eben lenngotan euskeraz egiñak. Maite dabe, baita, diskoetan sinismenaren agergarri asko erakustea.

Bidea erraztuz, kantu asko an argitaratzen dira gure eleizetan bananduteko. Ba dauke bertan aldizkari bat be: Otoizlari.

Onetan Belokeko praileak lan ugari egin dabe eta ba dakigu egíteko asmotan diarduela.

AURKIBIDEA

	Orrialdea	Página
	Orrialdea	Página
Abadiño 7 -	10
Aginaga'tik Barinaga'ra 11 -	14
Amoroto'tik Murelaga'ra 15 -	18
Arantzazu 19 -	22
Areatza (Billaro) 23 -	26
Arteaga (Gautegiz) 27 -	30
Arteaga (Arrati) Gaztelu Elexabeiti 31 -	33
Atxondo 34 -	37
Bakio 38 -	44
Balmaseda 45 -	47
Barakaldo 48 -	53
Barrika 54 -	58
Basauri 58 -	61
Bedia 62 -	65
Bermeo 66 -	73
Berriatua 74 -	77
Berriz 78 -	82
Bilbo 83 -	86
Busturi 87 -	90
Derio 91 -	94
Dima 95 -	99
Durango 100 -	107
Ea 108 -	115
Elantxobe 116 -	121
Elorrio 122 -	129
Ereño 130 -	133
Ermua 134 -	137
Etxebarría 138 -	141
Galdakao 142 -	145
Gaminitz 146 -	149
Garai 150 -	153
Gernika 154 -	158
Getxo 159 -	162
Gueñes 163 -	165
Ibarrangelu 166 -	169
Igorre (Yurre) 170 -	173
Ipazter 174 -	178
Larrabetzu 179 -	182
Lekeitio 183 -	188
Lemona 189 -	192
Lemoniz 193 -	196
Mallabi 197 -	200
Mañari 201 -	204
Markina 205 -	207
Mendata 208 -	211
Mendexa 212 -	215
Mundaka 216 -	221
Mungia 222 -	229
Munitibar 230 -	234
Murelaga 235 -	239
Muxika (Gorozika eta Ibarruri) 240 -	243
Ondarroa 244 -	251
Orozko 252 -	256
Otxandio 257 -	261
Portugalete 262 -	265
Sestab 266 -	269
Urkiola 270 -	273
Zalla 274 -	276
Zamudio 277 -	279
Zeanuri 280 -	285
Zeberio 286 -	289
Ziortza Zenarruza 290 -	294
Zornotza 295 -	298

	Orrialdea	
	Página	
Aia	300	- 303
Aizarnazabal	304	- 307
Abalzisketa	308	- 310
Alkitza	311	- 314
Altzo	315'	- 318
Amezqueta	319	- 322
Andoain	323	- 326
Araoz	327	- 329
Arrasate (Mondragon)	330	- 333
Asteasu	334	- 338
Ataun	339	- 342
Azkoiti	343	- 347
Azpeiti	348	- 355
Beasain	356	- 359
Berastegi	360	- 363
Bergara	364	- 367
Billabona	368	- 371
Bidegoian	372	- 375
Deba	376	- 381
Donosti	382	- 385
Eibar	386	- 393
Elgeta	394	- 398
Elgoibar	399	- 402
Ernani	403	- 407
Errenderi	408	- 411
Getaria	412	- 416
Irun	417	- 419
Lazkao	420	- 423
Legazpi	424	- 428
Lezo	429	- 432
Mendaro	433	- 436
Mutriku	437	- 441
Hondarribi	442	- 445
Oñate	446	- 449
Ordizia	450	- 453
Orio	454	- 457
Oyartzun	458	- 461
Pasai	462	- 465
Segura	466	- 469
Soraluze	470	- 473
Tolosa	474	- 478
Urretxu	479	- 482
Zarautz	483	- 486
Zegama	487	- 490
Zestoa	491	- 494
Zumaia	495	- 498
Zumarraga	499	- 502
Araba aldean	503	- 505
Aramaio	506	- 509
Gasteiz	510	- 515
Agoitz	517	- 519
Altsatsu	520	- 523
Arakil	524	
Arizkun	525	- 528
Etxarri Aranaz	529	- 532
Iruña	533	- 536
Izaba	537	- 540
Leire	541	- 544
Leitza	545	- 548
Mendigorria	549	
Obanos	550	- 551
Oliba	552	- 556
Orrega (Roncesvalles)	557	- 560
Sangotsako Atean	561	- 562
Beloitze'n	563	- 565

